

Donapaleu eta Usako-ko
adiskideei, aspaldiko egunen
origarritzat.

TXILLARDEGI

**EUSKAL HERRITIK
ERDAL HERRIETARA**

TXILLARDEGI



ERIKAL HERRERA
ERDIAL HERRERIA

© José Luis Alvarez Enparantza

Azala: Eduardo Txillida

I.S.B.N.: 84 - 400 - 4878 - 5

D. L.: BI 1.927 - 1978

GRAFICAS BILBAO, S. A. - Euba - San Miguel
AMOREBIETA (Vizcaya)

THE ZANDEG

BI HITZ

Jose Luis Alvarez Enparantza.

**Txillardegi. Larresoro. Igara. Harribizketa. Goihenetxe.
Nork ez du ezagutzen?**

Euskal idazleek bai behintzat: ezagutzen eta estimatzen. Hauetako 45k hoberentzat jo dute, Koldo Mitxelena, Jose Azurmendi, Gabriel Aresti eta Luis Villasanteren aurretik. Bizi diren idazle guztietan aurrena, berau jarri dute, nire Euskal Idazleak Gaur, Historia social de la Lengua y Literatura Vascas (Jakin) liburuan ikus daitekeenez.

Idazle oparoa da Txillardegi: elaberriak, gramatikak, saiakerak ditu liburutan emanak eta ehundaka artikulua aldizkaritan barreiatuak. Idazlan sakabanatu horietako batzu bakkarik agertzen dira orain hemen, Txillardegiren ikuspegi zenbait eskainiz. Liburu hau dela eta, aitzin solas llabur bat egiteko eskatuz ohoratu nau egileak.

Liburu honek, bada, Txillardegik euskal kulturaren aldeko burrukan izan duen eta duen lekua agertzen du. Honen aitzindaritzaren testigu ona da. Artikulu bilduma honetan, batzu zaharrak badira ere, gehienak 1973az gerokoak dira. Eta egia esan, nahiz eta historiune jakin batzutan idatziak

izan, eta noski momentu hari lotuak, ez dute gaurkotasunean fitsik galdu.

Artikulu mota bat bakarrik bildu da hemen, irakurlea berehala konturatuko denez: Euskal kultura, euskara, euskal lurra, euskal populua, nazio zapalduak gaitzat duena. Lan politikoak, ideologikoak eta holakoak, beste liburu batetarako gelditu dira. Hau da, beraz, liburua: Zeruko Argia, Branka, Hitz eta beste komunikabidetan argitaraturiko artikuluen bilduma. Bilduma monografikoa, esan dezagun, hots, etni arazoa ardatzat harturik osatua.

Etni arazoari buruzko Txillardegiren pentsaeraren zerrenda bat dira liburu honetako 80-90 artikulukoak. Ideia nagusiak, afirmazio biribilak, kezkarik bortitzenak, barne ximikoak, konbikziorik sakonenak, behin eta berriz agertzen dira liburu honen orrietan.

Hizkuntza eta Pentsakera liburuan egin bezala, euskararen balioa zertan den argitu nahi du hemen ere. Euskarak egiten gaitu euskaldun, hona, bil-laburturik, Txillardegiren hizkuntzarekiko pentsaeraren funtsa. Hizkuntzaren lehentasuna, printzipio nagusi da Txillardegiren baitan.

Euskararen egoerak barrutik kezkatzen du Txillardegi. Egoera linguistikoak, noski: hortik batasunaren aldeko lehia. Baina are kezkatzenago du hizkuntzaren gizarte egoerak: euskaldun hutsak dira zapalduen artean zapalduenak, harentzat. Bereziki sutzen duena, zera da, gainera: erdaldunaren aurrean euskaldunak duen amore eman behar hori, adibidez lagunartean, bilkuretan, elkarteetan, gizartean... Biziki haserretzen da.

Euskal Herria euskaldunei ezaguterazi eta denengan Euskal Herri osoaren kezka sorterazi: Txillardegiren kezkaritzaren asmorik sendoenetakoa da hau, zalantzarik gabe. Zenbat eta bazterrago eta ahulago ikusten ditu lurrok. Arreta biziz tratatzen ditu Ipar aldea, eta hemen bereziki Zuberoa, eta Errioxa. Galdu diren edo eta galtzear dauden lurraldeek kezka eta barne ximikoa sortzen diote Txillardegi euskaltzale eta abertzaleari, gisa denez. Kasu bakoitzean, nahiz herri bat nahiz eskualde bat aztertzerakoan, trebetasun paregabe agertu ohi du hango historia, ekonomia, soziologia, hizkuntz arazoa, e.a. Gure herriaren, euskal gizonaren trajeria bizi du Txillardegik, Termesko dorrean pentsakor.

Txillardegiren artikuluetan beste sail handi bat kultur minorien eta nazio ukatuen arazoketak hartzen du. Hauetan gertatuak, «adibide ederrak» dira Euskal Herriarentzat, dio Txillardegik. Asmo horrekintxe segitzen ditu Irlandako, Galesko, Eskoziako, Kortzegako, Armeniako, Aostako... gora-beherak, hemengo egoera argitu nahirik. S.O.S. larri gisa aldarrikaturik ere bada lan bat baino gehiago. Rikardo Arregiren antza du Txillardegik sail honetan. Zenbat ez ote dio zor abertzale kontzientzia modernoak, nazio zapalduetako atxekimendu eta jaieran, Txillardegik eta Rikardo Arregik egin duten lan aspergaitzari!

Esanak gara: Jose Luis Alvarez Enparantza, oparoa eta plurala da: saiolari, kritikari, nobelari, gramatikari, kazetari. Eta politikari. Azken bi hauk elkartzen dira bilduma honetan, militantzia bikoitza biltzen baitu Txillardegik kazetaritzan: kulturaren eta politikaren burruka.

Kazetaritza bero-beroa da Txillardegirena, inguruak eragina. Aski du artikulua baten irakurketa, argazki bat, liburu berri baten aurkezpena, esaldi bat. Edozein gertakari xume aski da pentsakor gel dadin, eta pentsaera hori argi-iturri bihur dakion. Artikulu bakoitzean dago Jose Luis, eta oso-osorik eta konprometiturik egon ere. Kazetaritza urduria da honena: honen kezka, minak, zalantzak, obsesioak, asaldurak, gogoak, barne egarriak, politikak...

Komentario bakoitzean dago horren barne asaldatuaren aztarnaren bat. Inguruak bultzatzen du, behartzen du, mintzen du; eta barnetik erreakzionatzen du beti. Idazlan bakoitzean dabil albistearen eta pentsamenduaren ezkontza zail horretan; subjektiboaren eta objektiboaren, bere barne munduaren eta inguru sozialaren oreka artikulua bakoitzean lortzea da agian Txillardegiren kazetaritzaren meriturik handiena. Kazetaritza editorialista da Txillardegirena. Maisu da hor.

Luma bizia, urduria, azkarra, distiratsua du Txillardegik. Euskara aberatsa du euskaldunberri honek. Txillardegik ez du hizkuntzan oztoporik. Ez da esalditan galtzen: badaki gauzak zuzen-zuzen eta artez esaten, gaia erdi-erdian jotzen. Hasiara bukaerak —eta irakurlea idazlearen trajeriari inplikatu nahi duten bukara ebaki horik, batez ere— esaldi motz eta zorrotzez ematen ditu. Idazkera afirmatiboa,

komentzituarena darabil sarri.

Bilduma honen ekarria, kazetaritzaren onerako izango da. Txillardegiren kazetaritza patxadaz aztertzeko aukera izango dugu. Eta pentsa daitekeenez, honen idaz-eragina hazi egingo da. Garai egokian dator liburu hau, gainera, mass media eskuratzeko eta euskalduntzeko garaian alegia, kazetaritza idatzirako prestatzen ari direnentzat lagungarri. Belaunaldi berriarentzat, Txillardegi idaz-maisu izan da, gidari, Orixe eta Txomin Agirreren atzetik. Are gehiago izango da gaurgero, kazetaritza hizkuntzan oraingoan.

JOAN MARI TORREALDAY

EUSKAL ZANTZU BILA

«TXILLARDEGI»rekin SOLASEAN

«Txillardegi», 44 urte, aspaldidanik euskal idazle ugaria, ezin dakiokoe gaur arrotz gerta Z. ARGIA irakurtzen duen inori.

Harira gaitezen, beraz, haseratik beretik.

Alimaleko zakur beltz batek harrera zalapartatsua guri egin ondoren, etxe barnera pasa gara. Haren langelan paper asko ikusi dugu. Alasetan eta mahainaren gainean liburu asko eta asko, euskaraz eta erdara bätzuez. Aldizkarien artean tarrapataka erreparatu dugunez, azkeneko «Sciences et Avenir» delakoa hemen, azkeneko «Nouvel Observateur» hor, bizpahiru T.L.S. hòr (Times-en astekaria, alegia), «Témoignage Chrétien» pare bat altzo batetan ahazturik itxuraz, «Herria», «Príncipe de Viana», «La Voz de España» batzu, «Diario de Navarra», «Basque Eclair», «Le Monde Diplomatique», «L'Unité», «Enbata», «Goiz Argi», lau «Zabal» aleak pilo berezi batetan. Nik dakita zer besterik? «Z. Argia» batzu ere bai, jakina. Dena nahasian. Eta mahain berezi batetan, geldirik, Olivetti eletriko bat.

—Barka nazazu —esan dit sartzerakoan— hementxe zu hartzea. Z. ARGIA-kook etxekotzat zaituztet-eta. Berdin bal-

din bazaizu hementxe hitzegingo dugu.

—Ez zen besterik falta! Zeure etxean zaude!...

—Desordenu honetan bizi naiz bada. Zer nahi duzu egitea? Ene lan-mahaina orain bezain beterik egon ohi da aspaldidanik. Paperak nahas-mahas, liburuak betaren zai, mila asmo ezin inolaz ere obraturik... «Nagia beti lantsu» hori ote da ene kakoa?

—Tira, otoi! Ahal duzuna egiten duzu zuk; eta alfer ize-na, hain zuzen, ez dut uste euskal baranoan egoki datorki-zunik.

—Eskerrik asko! —Txillardegik erantzun.

—Goazen harira, beraz. Euskaldun-berria omen zara. Egia dea hori?

—Bai, bai; egia da. Gure aita eta ama euskaldunak izan-
nik ere, erdaraz baizik ez zen egiten etxen. Geure etxetik
kanpora ikasia dut nik euskaraz hitzegiten; eta ene anaiak,
horregatik, Mikel Ugalderi eskatu dio Euskal Margolaritzari
buruzko bere liburua euskaratzeko.

—Ezertxo ere ez zenekien haseran, beraz?

—Kontzientziaren mailan bederen ezertxo ere ez, «ura»
eta «egun on» edo ez bada. Asturias-ko nahasmenduen ga-
raian (1934-ko Urrian) beldur handia zabaldu omen zen
bazterretan; eta ama eta anaiarekin joan nintzen Oñatiko
Alzaa kalera, geure fameliaren etxera alegia. Bolara labor
batez han egon nintzen, eta etxe hartan, ongi gogoratzen
naiz, euskara apur bat ikasi nuen: zenbait astetan haur ttiki
batek ikas dezakeena. Bost urte nituen orduan.

Baina dena ahaztu nuen segidan. Eta 1939-an Arantzazu-
ko «Hospedería» enean hilabetez egon nintzenean (hamar
urte nituenean, beraz) deusik ez nion hango inori konpre-
nitzen; Kandido Izagirrereren laguntzaile izan zen «Frai Bi-
xente» famatu hari besteren artean... Gauza bera 1942-an
Igantzín egin nuen egonaldian: deusik ez! Neure buruaz
honen xeheki mintzatzea barka zaidazu. Baina honengatik
uste dut euskaldun berria naizela esan daitekeela. Nahiz
euskara nik sekula ez arrotz senditu.

—Eta noiz sortu zitzaizun euskaraz ikasteko asmoa?

—Oso gaztetandik. Betidanik nuen asmoa, nik uste.
Betidanik neraman erdaldun izanaren ezpata bihotz mui-
netan sarturik. Antigutarra naiz, badakizu. Konportan,

Lurdes-txikin, Igeldon, Aieten, Txokolatenen, Illarraberrin, euskaraz baizik ez zen egiten orain dela 30 urte. Gauza bera Igarako hauzoan. Hantxe piztu zen nigan, nik uste, euskaraz ikasteko delibero tinkoa. Neure herrian, neure hauzoan atxeman nuen arrotz neure burua; eta honek ikaragarritzko mina ematen zidan. Kanpion, Eleizalde eta Ibar irakurri nituen orduan; eta, gusta ala gostarik euskalduntzea erabaki nuen. Euskararen mina zer den ongi ezagutua dut, beraz; nahiz pasadizutan barrena hemen abiatzea gehiegizkoa izango balitz ere.

—Eta, nola moldatu zinen ikasteko?

—Donostiako kaian antolatu genituen eskola batzu. Iñaki Zubimendi izan zen ene lehenengo irakaslea; Iñaki Zumeta gero. Aditzaren korapiloetan Jon Etxaidek argitu ninduen lehenik. 1947-1948 urteez ari natzaizu hitzegiten. Urte latzak haiek; eta oraino ere latzagoak ondokoak euskaltzaleontzako.

—Zein gramatika erabiltzen zenuten?

—Zabala-Arana-rena zen erabiliena. Eta, bigarren urratsean, Arrigarai-Ataun-ena, eta «Euskaldun Loretegia». Goitik behera ikasi nituen denok. 1950-ko urtean Bilbon ijeneru ikasle nintzelarik, besterik ezinean gauerdian hasten nuen eguneroko neure euskal ikasaldia; eta, maisurik gabe eta inolako laguntzarik gabe, gaueko hirurak arte gutxienez ez nintzen inoiz oheratzen. Gau minean ikasi dut, beraz, euskaraz.

—Ez bide duzu oso erraza izan ikastea, ez.

—Ez horixe! Eta giroa ez zen orduan batere gaurkoaren antzekoa. Gure aldekoek berek burutik egindakotzat hartzen ninduten; eta aurkakoek... pentsa!

—Zure iritziz zer da euskara euskaldunentzat? Zertan geldituko litzateke Euskal Herria euskara galduko balu?

—Asmakizunetan ibili beharrik ez dago. Santo Domingo de la Calzada Ezkabarte izan da. Ezkarai, Aiabarrena, Naiara, Herramelluri, Otsanduri, Ollauri, euskaldunak izan dira. Era berean Jaka, Aierbe, Berari, Eskuain, euskaldunak izan dira. Badakigu, ordea, Errioja eta Huesca zer bilakatu diren. Zure galderaren erantzuna, hortaz, Kondairak emana du. Euskal Herria euskaldun herria da. Ni neu ez naiz «vasco» ez «basque» arrotzek ikusirik baizik. Erdal «Vasconia» ez da

ene herria; baina berriz Euskal Herria bilaka dadin nahi dut, eta hala gertatuko da nik uste.

—Euskarazko beste liburu askoren artean, «Hizkuntza eta Pentsakera» deritzana idatzi duzu. Esaiguzu hitz bitan liburu horren mamia.

—Euskararen deia bihotzean iltzaturik daramagu euskaldunok. Euskal Herriaz batere axolatzen ez direnak berak negarrez hasten dira maiz Iparragirrereren kantuak entzutean. Zergatik? Ama-hizkuntzaren deia ezin sakonagoa eta bortitza delako. Baina sendimendu horren funtsa azter daiteke. Eta, alderdi batetik bederen, estrukturalismoak eman du azalpenik argitsuena. «Hizkuntza eta Pentsakera»k, horrela, euskararen balioa zertan datzan argitu nahi izan du estrukturalismoaren argitan. Uste dudanez, gizonaren taxumena, estruktura-mena, sakonagoa da produzio-beharretatik heldu omen zaigun mintzatu beharra baino. Eta egiari zor zaiona azaldu dut, «moda»ko iritzi batzuen kontra badoa ere.

—Hizkuntzarekiko atxikimendu edo jaiera hori gure artean itsasten eta hedatzen ari dela iruditzen ahal zaizu?

—Zalantzarik gabe: bai. Ikastolen gertakaria, bere maila eta indar horretan, ez da inoiz ikusi. Eta euskaldun berri gazteen ugalketa ere ez. Euskaltzale gazteek gero eta gehiago dakite; eta guk haien adinean genekiena baino aisa gehiago.

—Baikor zaude, hortaz?

—Bai eta ez. Urrats handi bat eman dugu: hau gauza agiria da. Baina oraindik ere euskaltzale (??) erdaldunak barra-barra ari dira erdaraz biltzarretan, euskal giroetan, lagunartean, bazterrak lasai baino lasaikiago erdaldun erazten. Oraindik ere euskaldunok atzeraka eta lotsaturik bezala gaude: erdaldun bakar bat aski da hamar euskaldun erdarara ekartzeko! Noiz sortuko ote da azkenean euskaldun «provo»en taldea? Ni zai nago aspaldi honetan. Baina «por educación», «pour de raisons d'efficacité», «para no herir», eta abar, euskara behin eta berriz bazterrera leku guztietan. Noiz arte? Noiz lotsatuko dira erdaldunak gure herrian ari izateaz? Noiz entzungo ditugu isilka, eta «para no herirnos» euskaraz motelki ari? Noiz debru hartuko ote dugu aurea; flamendarrek, esate baterako, Flandetan hartu duten bezala?

—Ezin esan guk ere. Zein bide ikusten duzu zuk eus-

kara aurrera ateratzeko?

—Zuk dakizun hori. Zeren-eta eskola, administrazioa, irratia, telebista, dendak, lantegiak, unibertsitatea, osoki euskaraz izatea guztiz eta hertsiki beharrezkoa baita euskara atxikitzeko. Bestela kitto da, eta azkar. Dena ala batere ez. XX. mendean bizi gera, ez Harri Haroan edo Tasmania urrun batetan. Ala Bilboko Gran Via guztia euskaraz ari ikusiko dugu, ala Errigoitiako azken tontorretan baserri-tarrak berak erdaraz entzungo ditugu. Utz ditzagun ametsak, Jainkoarren, alde batera!

—Hortaz gaur zer?

—Ikastolak eta euskara batua. Hizkuntzaren maila soilaz ari naiz, jakina. Ikastolen kontra eta euskara batuaren kontra daudenak euskararen etsai zitalak baizik ez dira. Berdin zait noren izenean datozen.

—Nola, ordea?

—Zehazki dena azaltzea luzeegia litzateke. Rikardo Arregik aipatu ohi zidan kezka hura gogoraziko dut hemen: «marjinalismo»a. Euskal Herriak urtean 40 mila miloi pezeta baino gehiago ematen du agiriko zergatan. Hots, Euskaltzaindiak berak bere azkeneko Agirian (1973-X-26) hau dio: «(Diru-kutxan) dagoena: 95.587,18 pezeta»... Hauxe da egoeraren irudia! Edozein lekutan gertatzen denaren arabera geure zerga-kopuruaren % 3 edo % 4 baizik erabiliko ez bagenu, mila miloi pezeta izango genituzke urtean euskal irakaskintza eta euskal jakintzak oro bultzatzeko. Soluziorik? Badakigu guk biok. Hanartean ikastolak nola ordaintzen diren badakigu; euskal liburuak nola argitaratzen diren ere bai. Nola bizi dira euskal kulturaz arduratzen diren gizonak? Badut nik neronek horren berri... Zenbat irabazten dute andereñoek? Hobe dugu isildu txitxareak ez nahastutzeko! Nola nahi dugu, beraz, euskara benetan piz dadin? Non dira euskal kulturaz osoki emanak bizi daitezkeenak?

Gure dirudunek barkaziorik ez dutela esaten dutenak, horretara, ez dira oso oker ari... «Gure euskera maitia» oihu egitea edo kantatzea ez baita aski. Dirubideak eman behar dira. Intelektualek beren adimena osoki eskaintzen duten bezala, dirudunek osoki ere eskaini behar lukete beren altxorra. Urruntxo gaude! Euskal burgesia nagusiak uko

egin dio euskarari, eta 80 urte honetan azkartu egin du bere ukoa. Hauxe da «marjinalismo»aren gakoaren parte bat. Beste partea zein den ongi dakite denek. Hots, zikoizkeriatik, apurkeriatik, limosnaz bizi beharretik irtengo ez garen bitartean, euskal kultura, «amateur»en kultura izango da; eta fruituak hortxe ditugu: sasi-jakintsuak ozenik mintzo, eta mintzatu behar luketenak... bizi-beharrez urrun. Euskal kulturaz bizitzeko gertu daudenei (gaudenoi hobe) dirubiderik emango ez zaien artean, euskara galtzorian egongo da burutik...

—Eta gaurkoz aski delakoan, hantxe utzi dugu Txillar-degi lankidea, anitz eginkizunen artean murgildurik, eta euskal taupadak etengabe nondik edo handik nola somatuko lehia bizian.

(1973)

«DONOSTIA TA ANTIGUA 1829-ean»

Oar bat: Gai auetan ikasia ez naizen ezkerero, ez dakit eskerki 1829-ko urtean Antigurako txangoa azkeneko aldiz egin ote zanentz. Badakit alere ortxe-ortxe izan zala azkenekoa, ta 1829 urtea jartzen ausartu naiz. Oker banabil, barkatu arren.

Antigutarra nauzute ni, ta nere auzoak Donostia'n izandako aipua bear den aña istimatzen ez den ezkerero, eta zerok ere alatsu... ta antigutarrai zor zaigun begiramentua piztuzeko asmotan... joan den mende arte gorde zan oitura gogoangarri ta giartsu bat gogoraztera natorkizue. Antigutarrak ere gure arrokeri-ondarra badugu-ta...

Danok, donostiarrak izanda, badakizute Donosti-egunaren bezperan jartzen diran zarata ta zalaparta.

Zarata ta zalaparta auei buruz urtero entzun oi da gure jaiak zuten kutsu jatorra galdu dela, ta antziñakoakin antzarik batere ez dutela gaurko gure festak.

Au betiko kontua da, eta onelaxe mintzaten ziran noski gure asabak beren zartzaroan. Bañan alere, oiturak gero ta laisterrago ondatzen dirala ezin uka diteke.

Edo-ta, 1829 urte artan etzan bestelakorik gertatzen,

eta Donostia-ko jaiak baño leen an asi ziran eztabaida gogorretan au ta ura, jatorrenak etsita esaten zutela: «Alperrik duk: baziak jatortasuna. Frantzesak etorri ziranetik batez ere putzura gatziaztik».

Arrazoiakin gañera, frantzesen eragiña oso sakona bait-zan Donostia'n orduko artan. Ogei urte aurretik Napoleon' darrak iritxi ta 1813 arte geldituko ziran. Andik amar urte-tara onuntz abiatu ziran berriz San Luis'tar erregezale atzerakoiak, eta beste bost urte geiago pasa zituzten donostiarren artean.

Ortaz, asko egiten zan Donostia'n frantzeraz, eta ez omen zegoen errikoxemerik izketan ederki etzekienik. Ez da arritzekoa.

Egun aietan etzirudien Donostia'k Gipuzkoa'ko erria, Lapurdi'koa baizik. Frantzeraz asko entzuten ba zan ere, euskeraz itzegiten zuten errikoak, gaskoieraz mintzatzen etziranak beiñipein.

Bai, jaunak. Babel-dorreren bat ematen zuen gure uriak. «Jaun» eta «Andere» ba zioten euskaldunak, «En» eta «Na» gaskoiak, «Señor» eta «Señora» erdaldunak, baita «Monsieur» eta «Madame» Frantzi'tik etorriak eta zenbait liberal porrokatuk.

Auek baño ere izkera geiago ba-omen ziran, ingles-dunak gutxitxo etziran-eta... Naspillaren ederra...!

Nola etzan bada aldatuko gure erria, orrelako naste-borrastea barnean zeukala?

Egia esan, Irutxulo etzan ordurartean «Donosti», gaur den bezala, «Donostia» baizik. Eta antziñako «lapurditar» kutsua bedere gordetzen zuen.

Oso zailla zaigu gaurko donostiarrei orduko biziera asmatzea. Amilibia jaunak 1863an uriko arresiak bota-arazi zituenarte, gerra-plazaren itxura zuen zuen Donostia'k, eta bere ortatik zetorkion ain zuzen gaur igarri ezin dizaiokegun izakera.

Esitua zegoen Donostia alde orotatik; eta arrats ordu-rako ateak itxita, bertatik ateratzerik etzegoen. Portu-kaletik, edo San Jeronimo'tik Plaza-Zarra'ko arkupetaruntz goazela (au da: Bulevar aldera) nor oartuko litzake gaur Donostia'ko atetara abiatzen ari gerala? Txikia zan, alajaña, barneko etxeta.

Arresi-barnean zegoena berria zan ia osoro, 1813an geien-geiena erre bait-zan. Santa Mari, Santa Teresa ta San Bizente elizak, San Telmo-komentua, ta aien arteko etxeak kendurik, etzegoen berritze baizik. Eta asko nabarmentzen zan uri berrian, Ugartemendia'k zuzenduta, aspaldidanik eraikitzen ari zan Udaletxea.

Arresitik at, berriz, etzan ezer aundirik ikusten. Gaur Donostia dagoen tokian etxegitea debekatuta zegoen, eta etxadi koskor batzuek beste gauzarik etzan: Atotxa ta San Martin auzoak, San Bartolome'ren komentu zaarra (ez gaurkoa, noski), ta Antigu'ko etxemordoa.

Santa Clara-ugartean, onen omenean egindako ermitaren azken abarrak ikusi zitezkean oraindik. Eta Txubillo-tontorrean, ez gaur bezin apaña, Donostia'ko Consulado'aren dorre-faroa izan zanak etzuen azken urteetan bere argia zabaltzen; eta gaua etortzean ozkarbi ba zan, bere ziluenta illunak izartegi argitsua urratzen zuen. Nik ez dakit zergaitik, baña 1855 arte gaurko faroa bukatu ez arren, Urgull-Gazteluaren atzealdean jarri zuten Txubillo'koaren ordezkaria, ta antxe zegoen gure urte onetan ere.

Garrantzi aundixka zizuten Donostia'ko kaiak, eta oso maiz etortzen ziran bertara Puerto Rico ta Cuba'tiko ontziak, akeita ta alakoak zekazkitela.

Au zan Donostia gutxi gora bera; eta Antigua'ri legez zor zaion itzala gordetzen zioten oraindik orduko «landerrak».

Eta zeri dagokala orrenbeste errespetu?

Egiazki esaten da joanak-joan. Nor gogoratzen da gaur 1597 urtean jasandako izurrite ikaragarriaz? Nork dakike gaur, Donostia'ko jaien bidez, ilbeltzaren emeretzia barur-eguna izan dela urte askoz donostiarrentzat? Nor oroitzen da orduko erabakiez?

Ala delarik ere, eta ala bear, Donostia'ren ernemiña Antigua izan dela esan bear dizuet; eta, ain zuzen ere, ortik datozkiola «Antiguo» izena ta Sebastian Deunaren babespea.

1829an bizirik bide-zegoen nolerebait izurritearen oritzapen beltza; eta, oitura zarrari jarraituz, urte askotan ospatutakoa ospatu egin zuten artan ere. Bañan Donosti-berria zaarra menperatzen asia zan, eta arrezkero etzuen Antigua'k jasoko Udaletxe'ko itzal-agurra.

1829an, bada, burutza edo nagusitasuna galdu genuen antigutarrok...

.....
Egunak yoan da egunak yin, ilbeltzaren emeretzigarrena eldu zan.

Barur egin bear zala esan dugu. Iruñe'ko Gotzaiarekin ala itundurik, eta oituraren arauera jokatu zuten askok. Bañan banaka batzuek asi ziran bear ez bezela Donostia'ko bezpera ospatzen, eta oturuntza ederrak antolatu ondoren, kalera atera ziran giro otzaren bildur gabe, ta ikaragarritzko zalaparta ateratzen zutela.

Gautxori aiek etzuten oraindik asmatu ta osatu benetako tanborradarik; bañan txerbel eta mozkor aietxek, zaliak eta platerak eskuetan zeramazkitela, geroko tanborrada ta Donosti berria sortu zituzten.

«Kaskariñak» eta «Joxemañitarrak» tanborradakin batera jaio zirala dirudi. Zezen-suzkoak, soka-muturrak eta iriarenak zaarrak ba ziran Donostia'n, tanborradak ez ordea. Urte auetako ume dugu: «Koxkero»en lenengo ekarria nunbait.

Tanborradaren jatorria ez da bada-ezbadakoa. Bateko, barur-oitura galtzen zijoala esan dugu len, egunsentiko soka-muturrak indartzen ari ziralarik. Eta besteko, Frantzi'ko soldadu apañak beti arroputz eta martxetarako prest ainbeste urtez ikusirik, irainka asi zitzaizkien donostiarrak eztenka alaiean, eta gure umore onari dagokion legez. Orra tanborrada arrigarriaren bi erroak.

Zeñek pentsa zezakean bezpera otz artan, geroko jai sonatua ozitzen zala? Galduta zuten etorkizuna egunaren barur-legeak...

Antiguan, berriz, etziran berritze berri oiek ezertan ere nabaitzen: Irutxulo'ko auzo zaarra zegoen oraindik. Tokitan Antigua! Gaur Lasarte-edo bezin urruti zan...

Eta, jakin ere, deus gutxi jakin diteke orduko Antigu koxkor artaz.

«Arriko»ko magalean aspaldian izandako arrantzale-kaitxoaz agureak bakarrik gogoratzen ziran pittin bat; eta aurrakin itzegiten zutenean, erdi txantxetan agian, Arribisketa-barratik Santa Clara ugartera, oñez joan zitekeala esan omen zieten, umeak arriturik uzten zituztela.

Dana dala, mariñelen erritxoa genuen Antigua. Marigora

zanean, eta ondorengo au erraz egizta diteke orain bertan, Ibaeta ta Igara'raño sartzen zan itsasoa; ta gaurko Antigu osoa urez beterik zegoenean, burnizko konportak itxi-ta, aintzira bare moduan geratzen zan «Konporta» ta «Benta-Berri» deritzagun aldea, txanelak ibilli ere zitezkeala uraren gañetik.

Konporta aien ondakiñak ortxe zenituzten oraintsu, ta neronek ikusi ditut.

Au dela ta, burni-olarik ez ba zegoen Antigua'n, batelak eta ontziskak egiteko ontzitegiak baziran ordēa, eta erruz. Gaurtxe, izen arrigarri batzuek arki ditzazkegu: «Txalu-pagillene» dugu baserri bat; eta «Portu-Etxe» arunzko aldean.

1829an etzegoen Loreton tunel-zulorik, eta Antigu'tik Donosti'ra joateko elizaren ondotik zan Frantzi'rako kamiñua.

Oso zaarra zan Antigu'ko parroki au, bañan alaz ere politta: aldare bakarra ta ojiva-arkuak zituen, eta aundi xamarra zan auzoarentzat. Urtetsu izan arren, arrunt dotore omen zirauten bere arlandu oriak.

Eta onen aldamenean, itsatsita, Loreto-komentu fama-tua. Alfonso Idiakez'ek eraiki zuena. Bertan bizi izan zan aspaldi donostiar monja ausarta bat: Kataliña Erauso.

Auek ziran Antigu'ko etxerik ederren eta ikusgarrienak, eta auzoari antziñatasun-kutsuren bat ematen ziotenak. Zorritxarrez, andik urte gutxi barru, zearo ondatuko ziran biak karlista-gerratea bide izanik.

Errege-Jauregia dugu gaur beren tokian, eta «Loreto-pe» euskal izen jatorraren orde z «Pico del Lorito» erdal aldakera nardagarria.

Arira itzuliz, Ilbeltzaren ogei artan egun zoragarria ikusi omen zuen Donostia'k, naiz-eta ozkirri xamarra. Goize-tik asi ziran karrasiak eta tronpetak, eta Gaztelurako-bidean eta Zubigain-kalean joan-etorri bizia zegoen, soldaduak gora ta bera zebiltzala.

Eta oitura gordegarria ikusteko zorian gaude.

«Baxo» aldera begira-ta zirgillu-ontzitzo batean bandera bat jarri dute. Geroko festa antolatzen asi dira, beraz.

Bitartean, ozte ugaria bildu da San Bizente'ra. Ura ikustekoa! An dituzute danak: erriko andiak, andikiak eta andi-

gurakoak. Ara Gazteluko Gobernadorea, bere apaingarri ta domiña guziakin, erriko Alkatearekin berriketan ara ere Udaletxeko uri-batzar osoa, Gabidunak eta zibillak, agintari guzi-guziak, apaizak eta prailleak... An dago ere Gaztelu'tik jetxitako soldadu-talde bat, galaz jantzia...

Gurutze bat aurretik eta Sebastian Martiriaren erlikiak arturik, atera egiten da multzoa, geldiro ta illun xamar aspaldiko oiturari jarraiki. Ixil-ixillik pasatzen ikusten ditu jendeak San Juan eta Putzu kaleetatik. Eta geroxeago ezkerretara jota, «Puerta de Tierra» delakotik zelaiera irtenik, Antigua'runtz abiatzen dira gure erromes jatorrak. Gaur Concha deritzagun playan barrena dijoaz Loreto'raño, eta andik pixkat igo ta gero, Antigu'ko eliza zaarrean sartzen dira, meza ta oiko eskeintzak ematera.

Andik itzultzerakoan, Loreto'ko belardi goxoan geratzen dira gazteak, ots, ondarreta ondoan, txistua ta danboliña arratsaldean izango bai-dizute. Eta besteak uriruntz abiatzen dira.

Bandera-tiroa asten da une ortan, eta Urgull'etiko kañoiei sua bide-dariote. Artezkarrean diardute soldaduak, eta banderan jotzen duenak erregalo bat jasotzen du gero Alkate jaunaren eskuetatik.

Oso militarra deritzagu noski joko oneri; bañan Donostia gudatoki berezia zala ez dugu aztu bear...

... ..

Eta era ortara ospatu zan gutxi gora-bera 1829ko Donosti-eguna.

Donostia'ko Udala etzan geiagotan Antigura joango, eta oitura polit ori betirako galduko zan. Ba al dago gaur Antiguarekiko ikustaldi onetaz gogoratzen denik? Nik beintzat ez dut ezagutu.

Tanborrada jaiio ta Antigu'ko ikertaldia il egin urte artan...

... ..

Ala gertatzen da danakin, eta ala gertatuko ere mundua deño.

Denborak ez du iñor eta ezer barkatzen.

Zer egin ote zuen gaizki, esate baterako, «Puerta de Tierra»ren gañean leoi arroxko urdiñak, bere sona zabaldua txoil galtzeko?

Urte askotan izan zan au ere Donostia'ko bandera bezelakoa: ate nagusi artako apaingarri, sartu ta ateratzen ziran donostiarren zelatari, arresiko iturri bakarraren zaindari...

Gaur, ordea, zer zaintzen du gizajoak? Txantxetan arturik-edo, marroiez margotu dute, ta antziñako donostiarrak berak piztuko ba lira, ez luteke bere ortan ezagutuko.

Donostia nola txartu den ikusi ez dezan agian, ez dute toki gallenean jarri. Baldin bere... Gauza askori buruz itze gin al ba leza zokoratu onek...

Ez, alere. Lasala-enparantzaxoan duzute, bakar-bakarrik, Donostia zaarraren azken lekuko gisa.

Eta au beintzat ba lekite donostiarrak. Bañan ezta berau ere.

Gaur edozeñek ikusten duenean, onela mintzatzen omen zaio: «Zer arraio egiten duk ik or, leoitxu kaxkar orrek?» Ta Avenida'rako bideari darraio besterik gabe...

(1956)

« O R I X E »

Euskal Herri'ko giroa erruz ari da aldatzen; eta gaur Nikolas Ormaetxea'ri buruz iritzi bat emateak ez dirudi harrokeria. Orain dela urte batzu —hamabost bat, eman dezagun— Orixe'ren alde hitzegin zitekeen; baina ez Orixe'ri buruz. Ez, areago, Orixe'ren kontra. Orixe'ren balioa zalan-tzan jartze hutsa aski zen euskaltzale askoren eskomiku guztiak biltzeko. Literaturan ere (eta ez politikan bakarrik) ba omen genuen betirako Maisua: Nikolas Ormaetxea «Orixe».

Irakurgarria da, honi buruz, Aita Mokoroa'k «Genio y Lengua» delakoan diona. Nekez egin daiteke goratzapen handiagorik liburu bati buruz. Hogeita-hamasei orrialdetan barrena, behar genuen Ebanjelioa eman berri zaigula sinistarazten saiatzen zaigu «Ibar»: «El pueblo vasco puede aún salvarse» (230). Eta, beti ere «Euskaldunak» poemari buruz, beste laudorio askoren artean hau dio: «Por disposición providencial de Dios, ha surgido entre nosotros un hombre extraordinario, de temperamento, sensibilidad e inspiración geniales, el cual, de la abundancia de su propia vida, pletóricamente vasca, acaba de plasmar la figura de

nuestro genio» (193); «en el poema Euskaldunak de Orixe tiene ya el pueblo vasco el instrumento virtual de su regeneración» (194); «una vez dueño el renacimiento vasco de este resorte, tiene ya en su mano la clave de nuestra civilización y, con ella, la suerte futura de la nacionalidad» (195); «es la representación de nuestro pueblo» (198); eta abar, eta abar. (Xehekiago aztertu nahi duen irakurleak, «Genio y Lengua» irakur beza: 193-230 orrialdeak).

Gerra ondoren ere Zaitegi bere adiskide minaren iritzia ez da hotzagoa: «Euzkadi'k dagoeneko ba du bere poema nagusia... non-naiko eta noiz-naiko poema bikaiñenak bezin bikaiña». (Ikus Euzko Gogoia, 1950 - 7/8 8 gn. h.). Eta hau dio: «Gure herri osoa poema ortan dugu».

K. Mitxelena'k berak giro horren eragina erakusten du «Historia de la Literatura Vasca» delakoan, ondoko hau idatzi duelarik: «El es en varios aspectos el autor más importante de toda la literatura vasca» (148); eta «su conocimiento de la lengua y la destreza con que ha sabido manejarla no necesitan ponderaciones» (149).

Ni neu ere giro hori oraindik nagusi zelarik hasi nintzen euskal literaturaz arduratzen; eta Bilbo'n ikasle nengoelarik, «Kito'n arrebarekin» artikulu-saila aztertu izan dut gogotik nere adiskideekin, nahiz gaia —mistika gorabeherak eskuarki— ez oso gure gogokoa izan. Bainan euskaraz ikasi nahi genuen eta, hoberik ez zegoelakoan, Orixe'ren izkribuetara jotzen genuen: «Kito'n arrebarekin», «Barne Muiñetan» eta «Euskaldunak».

Ezari-ezarian, halere, Orixe'ren maitasuna epeldu egin zen gugan; eta hiruzpalau urtetan deuseztatu ere bai. 1955 orduko, eta Zaitegi eta Orixe Euskal Herri'ra bihurtu orduko beraz, aurkako joera nabarmen bat agertua zen euskaltzale berri ginen batzuen artean. Nola horrela?

Belaun berriaren ukaera hori aztertzeko eta ulertarazteko asmoa dut neure artikulu honetan.

Orixe gizonaz bi hitz

Orixe'ren lanak ezagutzen genituen, ez Nikolas Ormaetxea bera. Hau Guatemala'tik 66 urtetan etortzean, beraz, euskaltzaleen gidari famatua buruz buru ezagutzeko aukera izan genuen. Eta ni neu bederen, areago finkatu nintzen lehe-

nagoko nere susmoetan: Orixe ez zen, nere ustez, euskal intelektualentzako buruzagi egoki bat, eta ez gutxiagorik ere.

Barka bizait irakurleak xehetasun pare bat ematea; uste baitut oso argitsu izan dakizkiokela.

Operatu berria zan Orixe Donostia'n, Ategorrieta'ko klinika batean; eta ikustamen bat egitera joan gintzazkion nere emaztea eta biok. Sartu gera, agurtu dugu; eta... noski, guk euskeraz. Orixe'k behin eta berriz erderaz erantzun! Ezin sinistuzkoa! Lotsaturik eta amorraturik (adin-diferentzia, klinika-giroa eta eriaeren maisutasuna gogoan hartu besterik ez ditu irakurleak behar) halako batez, eta odola zirakidala, hau esan nion: «Adi zazu, Orixe: euskeraz ere ba dakigu». Orixe'k ez zuen nere ziria ulertu ere egin; eta ez zuen ezer funtsezkorik erantzun. Eta ikustaldia bukatu arte emazteak eta nik biok euskeraz, eta Orixe'k ekin eta ekin erdera hutsez! Gela hartatik zer umoretan eta iritzitan irten ginen azaldu beharrik ez dago, nik uste.

Oso gertaera xumea izanagatik ere, susmo berberak idaroki zizkidan Leitza'ko pasadizu txiki batek. 1957-ko Abendua zen, eta Leitza'ra bilduak ginen euskaltzaleok: euskaltzain egiten zuten Orixe egun hartan. Hunen euskal hitzaldia hasi da. Aretoa gaiñezka, eta zarata han eta hemen. Atzekaldetik ezin entzun, itxuraz. «¿Qué? ¿No se oye ahí atrás?», Orixe'k goratik galde... Entzule guziok, esan beharrik ez, euskaldunak, euskaltzaleak (gure artean ipartar euskaldun talde bat, Labéguérie'rekin etorria, esate baterako); eta Orixe Euskaltzaindi'ra sarrerakoan, Leitza'n, ez Tudela'n. Holakorik? Txundituta ni, zurtuta; eta ni bezela beste anitz, denak agian.

Geroztik Euskaltzaindi'ko bileretara etorri ohi zen (ez denetara). Asko eta askotan, biltzar aurrean eta ondoan, Orixe barra-barra entzun izan dut erderaz; eta euskeraz oso bakanka. Euskeraz ederki zekien, ordea. Zertan zetzan, beraz, funtsezko erdaltzaletasun bitxi hura? Azalpen bat ematen saiatuko naiz.

Nik ezagutu nuen Orixe gizonaz, bukatzeko, beste oroitzapen nagusi bat: berritasunari gorroto. Oraindik ere ongi gogoratzen naiz Ategorrieta'ko gure ikustamenaz: ni etsis-tentzialismotik bertan somaturik, nunbait, filosofia horren kontra mintzatu zitzaidan gogor, eta erderaz, esan dudan

bezela.

Egiazko Ormaetxea eta izkribuetako Orixe bi pertsona zirela ikusi uste nuen. Ondoko azterketak ondorio beretara eramango ditu irakurleak, nere ustez.

Alderantziz gauza bera gertatu bide zen: Orixe'k ez ninduen batere gogoko. Eta orain dela hamar bat urte, gutun agiri eta luze bat idatzi zuen Orixe'k, eta euskaltzaleen artean zabaldu, Villasante'ren eta nere kontra hitzeginez, eta euskerari buruzko gure joera kondenatuz.

Orixe eta gaurkotasuna

Mitxelena'k egoki dio: «poco amigo de lo moderno» (148), «de la misma renuncia de Orixe a ser un hombre moderno, murado por las modas y preocupaciones del momento» (150). Ikus «Historia de la Literatura Vasca», 148-150 orrialdeak.

Orixe'k bizi-maila guzietan uko egin zien munduari eta gaurkotasunari. Orixe mistiko bat zen, bai; askotan esana da. Baina Orixe denetan zen mistiko: bere Euskadi ez da mundutarrago bere Jainkoa baino; eta bere Espuru mendia «Tabor» bihurtzen bazen, Aralar, Euskal Herri eta mundua osoki beste zerbait bihurtzen zitzaion bezela bihurtzen zen. Orixe ez bide zen gure munduan bizi. Bere Euskal Herria ez zen gurea, bere mistikari eusteko izpirituarentzako bazter urrun bat baizik. Mundutik at zegoen Orixe bere idaz-lanetan; munduari eta munduko Euskal Herria'ri egiten zien ezespena guttzikoa zen. Mistikotasun hau beti aurrean izan gabe, ez dago Orixe ulertzerik, nere ustez. Jesuita zazpi urtez egon bazen Orixe, kartujo izatekotan ez dakit nik inoiz komentutik irtengo ote zen.

Himalaya'ko eremuetako bontzoak bezelatsu, Orixe munduaren kontra eta at zegoen errotik. Sentidu huntan egiazko Euskal Herria'ren kontra ere ba zegoen. Alderdia'rekin Orixe'k izan zituen hartu-emanak, gonbarazio baterako; ez ziren beti uste dugun bezin lagunak izan, Orixe'k ez baitzuen «politika»n sartu nahi: «Ni ez naiz Alderdiko, ez Euzko Gaztedi'ko, ez iñongo politikako; baiñan bai euskaltzale, bai abertzale ere... Zertako ez duzu, beraz, esango didazu, "Euskadi" erabiltzen? Matxinada aurrean ez nun erabili politika zelako». (Ikus E.G. - 1951 - 3/4 - 35 gn.h.).

Ukaera hortan Euskal Herriari berari uko egiten ziola ikusi uste dut nik; Orixe eskuindarrago baitzen Alderdia baiño, eta euskaltzaleago ere bai. Orixe'k, benetan, ez zuen «politikarik» egin nahi; eta, hori dela bide, agintariena onartzen zuen. Nola proposa dakiguke intelektual eredutzat gure herriaren politikan bere burua nahastu edo zikindu nahi ez duen intelektual bat? Garai hartako ideiei buruz orain deusik esan ez arren, zer pentsa zezateken Orixe-ri buruz Estatutoaren alde buru-belarri saiatzen ziren abertzaleak? Nondik nora izan diteke eredu, herriaren kezkez eta beharrez berariaz berezten den idazlea? Nondik nora izan dakiguke onuragarri hizkuntza eta askatasuna alkargandik urruntzea, edo-ta etsaitzea? Gauza bat da herriaren joera hau edo hura zorrozki aztertzea, are kondenatzea er; eta beste gauza bat, euskaltzaletasunezko sasi-mistikagintzan, herriaren burrukari jaramonik ez, eta ametsetako lilura belasketara biltzea.

Bestetatik ere alegiazko mundu hortan bizitzeko bere joera hori froga diteke (Eta, bidenabar desadan, bi gauza dira, nere ustez, poesia eta munduari uko egitea). Europa'ko ideia-korronte guzietatik at zegoen Orixe.

, Orixe'k aski zituen Platon, Aristoteles eta San Tomas; eta hau ez du diximulatu ere egiten. Marxismoa, psikoanalisi, etsistentzialismoa, deus ez dira bere ustez. Gauza bera olerkiaz: «Ez Machado'tarrrik, ez Juan Ramón Jiménez, ez García Lorca, ez nitun nik ordu artan ezagutzen. Orain izenez, ez irakurriz... Ez gendun liburutegirik literaturazkorik behintzat... Irakurtzeko betarik eta amorratorik ere ez». (Lizardi-Saria Tolosa'n jasotzerakoan esana, 1961-eko Maiazaren 28-ko hitzaldian. Xehetasun interesgarriak ematen ditu. Ikus Olerti, 1963 - 1/2 - 109).

Croce, Hegel, Zubiri, Heidegger, aipatzen ditu batzutan. Baina «klasiko» egoten da Orixe.

Nahiz euskaltzale porrokatua izan—eta hizkuntza-ara-zoaz arduraturik— Orixe'k ez du erakusten hizkuntza-jakin-duriari buruzko kezka bizirik, ez ezagutzarik ere: estrukturalismoaren mogimendutik at dago arras. Ibar'ek halere ba zekien Saussure'ren berri. Fetxa batzuk ematea on izango da. Saussure 1913-an hil zen; 1938-an Trubetzkoi; Hjemeslev'ek 1935-ean ezagutarazi zuen bere Glosematika; Sapir'en

«Language» 1921-ean agertu zen; eta Bloomfield'ena 1933-an; ideia-mogimendua hasia zen. Croce ezagutu arren, bestalde, Orixe'k ez zuen erreparatu italiar filosofoaren balioa hizkuntzari dagokionez.

Gauza bera erlijioari buruz; gure mendeko arazo larriek ez bide zuten ikutu ere egin. Bere erlijioa haragi-gabe egon zen, lur-gabe, gizadi-gabe, eta mistikazko iruditzapen huts. Ez hezur-mamitan oratua.

Sartre'ri buruzko bere irizkera oso tipikoa iruditzen zait. (Ikus E.G., 1954 - 3/4 - 66). Sartre «dohakabe bat» iruditzen zaio; hunen «azken liburua... ezur zulubita, nik uste, barnean muiñik gabe... liburu kaxkarra nik irakurri ori». Sartre «bere buruaren iainkotxo izan diteke ta bere lege... Nolabaiteko pilosopu orrek ele-ederrera io omen du —ele-itsusira esan— iñon diran ustelkeriak gertalekura-ko idatziz»... Eta kito. Hori da dena.

Gogoangarri zait ere Orixe'k sexo-kontuei zien gorroto osoa. «Euskaldunak» poema irakurri duenak ba daki Mikel eta Garazi'ren artean dagoen sendimendua gizatarra ez dela, haizezkoa baizik. Hau eginez, gainera, alde batetik gure baserritarren egiazko girotik urrundu zen Orixe. Aldera bitza irakurleak, esate baterako, Orixe'ren «Artazuriketa», 61-95 horr.; eta Mogel-Arrue'ren «Artazuritze»koan, «Baseritar Nekazarientzako Eskola» dalakoan, 84-83 orrialdeak. Bi munduz ari bide dira gure bi idazleak: batak aingeruak ikusten dituen egokieran, besteak haragikeria eta ifernuko etsaia besterik ez du ikusten. Bestetik Orixe'k faltsutu egin zuen euskaldunen maitakera, osotara abstrakto eta gezurrezko eginik. Halere, eta jakina denez, Lizardi'k bultzatu zuen, amodio pittin hori bera poeman sartzera; eta, jakina denez ere, Andoni Labaien'ek ere bultzatu zuen hildo beretik, bi maitaleen izenak proposatuz. Halaz ere Orixe'ri damutu egin zitzaion gero hortan amor-emaná: «Obe nuen nere gisa egin banu... zaiñak auldu besterik ez nion egin oiekin... euskera galtzen ari da, euskera galtzen ari da. Bizi dedilla liburuetan bederen, antzelan bikaiñetan; ez, ordea, ipui-berri nabarmenetan, ez satsukeritan». (E.G., 191á - 5/ - 102). Euskaldun izan nahi omen du hortan; baiña Etxepare, gure lehenengo idazlea, euskalduna zen ere, eta apaiza batera;

eta ez zuen herabetasunik batere erakutsi gai hortaz argi eta garbi idazteko. Europa'ko literatura guzia maitasun arazoetan zabaltzen ari zen adiuntzan (beharrik!), Orixe'k areago hestutu nahi zuen gurea. Berriz ere munduari uko.

1936-1937-ko gure gerrari buruz Orixe'k diona, halere, jakingarriagoa da, nik uste, bere funtsezko izakera uler-
tzeko. (Ikus E.G., 1951 - 7/8 - 41-47 orrialde mamitsuak). «Ez gindunan ioan gu gorriek'n» azaltzen dio Orixe'k bere arrebari, eta bere burua garbitu nahirik. Orixe'k dionez, ezinbestean hautatu zen «gorrien» alderdia, españar militarrek ez baitzuten beste irtenbiderik utzi: «muga guk ez baiña berek ipiñi zutela garbi esanik eta idatzirik utzi yunate». Beharrik! Bestela Orixe'k inperialismoaren eta fazismoaren alderdi anti-euskalduna hartuko zuen! España'ko apezpi-
kuen jokabidea ulertu ezina zaio, Aita Santuek garbi utzi baitzuten agintaritza «txarrari» berari obeditu beharra: «Buru-
a galdu zunaten aiek ere. Ta ondore txarra... gureztat, eta geroan, okerrago dena, erlijioarentzat». Arrebak ekiten: «Eta Errepublika ez al zen gaiztoa?». Eta Orixe'k erantzun: «Garbi beza bere burua guk gurea bezala. Bañan esan bear unat: ez nitxon errepublikazale batzuk aski nabarmenak: Gurutze Santua eskoletatik kenarazi, komentu batzuk erre, ta abar... baiña gobernu txar ari men egin bearra zegonan katoliku izanik»...

Zertarako ezer erantsiko? Esanak berak mintzo dira beren buruz aski garbiki.

Eta, ondorio etsigarri gisa, huntara biltzen du Orixe'k Euskal Herria'ren trajeria: «gure gazteria ezkerretara, gero ta geiago»...

Mistiko soil bat zen Orixe? Ala integrista amorratu bat ere bai?

Irakurleak erabaki beza.

Orixe'ren Euskal Herria

Gauza agiria da Orixe'ren Euskal Herria eta guk eza-
gutzen duguna bi gauza desberdin direla. Zaitegi'k berak somatu bide zuen hau; eta «Euskaldunak» poemaren kritika egitean, Orixe'k «atzoko» Euskal Herria'z diarduela dio.

Egiatik hurbil xamar dago Zaitegi. Baina egia hauxe izan diteke, nik uste: Orixe'ren Euskal Herria mistikoa dela,

ALEGIAZKOA, eta EZ EGIAZKOA. Nafarroa'ko herriska txiki-txikietan aurkitu uste du Orixe'k. Kalea gorroto du. Industria aipatu ere ez du egiten bere izkribuetan. Gaurkotasunik ez da inon agiri. «Atzokoa» ez, beraz: Erromatarren garaiekoa gutxienez.

Ezta hori ere, ordea. Aski da gure baserritarrei buruz soziologia piska bat egitea, edo Ameriketarako joaira aztertzea, edo Campion'en «Euskarianas» irakurtzea, Orixe'k begietaraten diguna baserri-giroa inondik ere ez dela jakin dezagun.

Orixe'ren «Euskal Herri» hori, hitz batez, ez da inoiz izan. Eta hori ez da poesia-bidea, nere ustez, alienazioa baizik. Egiazko poesiak egia barruragoraino agerrarazten du hain zuzen, eta ez izkututzen.

«Euskaldunak» poema «apoteosis del jebismo» bataiatu zuen behin Kruttwig'ek. Esakun zorrotza. Ez dakit nik hau berau egia osoa ote den. «Euskaldunak» giharrik gabeko eta gizatasunik gabeko sasi-baserritarren ipuina da. Eta ipuina esanez, zentzurik txarrenean hartzen dut hitza. Jende hori jostaketan ari bide da liburuan zehar, haunditasunik gabe, grinarik gabe, zainik gabe. «Euskaldunak» odol-gabetuen diorama izan diteke; euskaldun anemikuen pasadizu-sorta gexa. «Euskaldunak» euskaldun irenduen poema da.

Gure herriak Zumalakarregi eman du, eta Espoz-Mina, eta Harispe, eta Lope-Agirre, eta Salazar, eta Bolibar, eta Dolores Ibarruri, eta Loiola, eta Xabier, eta Elcano, eta Santakruz, eta Garat, eta Moniko Azpilikueta, eta Gaiarre, eta Unamuno, eta Arana Goiri, eta Saseta, eta Andoni Arri-zabalaga. Ez dakit nik nondik nora izan ditekean «Euskaldunak» 'gure' poema. Nazio-jarraigarri zertan izan daki-gukean ere ez.

Orixe'k hau dio, ordea: «Euskalherri osoa dut kanta-gai... Euskalherria nire agoz mintzatu izatea nai nuke». (Euskaldunak, 8-9). Nola uler hau? Nere ustez ez dago azalpen bat baizik: Orixe'ren «Euskalherria» eta gure Euskal Herria, ametsa eta egia dauden alkar-hein berean daude. «Euskalherri» hori mistika-bide zen Orixe'ren kaskoan.

Orixe euskaltzale

Orixe euskaltzalea zela ukatzea zentzugabekeria litzake:

Orixe'k bere bizi osoa eman zuen euskeraren aldeko lanetan, orain arte gutxik egin duena. Itzultzaile gisa liburu-mordo bat euskeratu zuen: «Tormes'ko Itsu-mutilla» (bizkaierara, bere itzulpenik onena beharbada), «Urte Guziko Meza-bezperak», San Agustinen «Aitorkizunak», Mistral'en «Mireio», «Salmutegia», eta abar.

Horrez gainera, anitz olerki eta artikulu argitaratu zituen euskal aldizkari guzietan (euskeraz gehienak). 1950-etik aurrera, Zaitegi'rekin batera, «Euzko Gogoia» aldizkaria atera zuen aurrera, hortarako Guatemala'ra aldatuz. Dena dela, bertsoetan «Barne Muiñetan» eta «Euskaldunak» dira bere bi lan nagusiak; eta «Kito'n arrebarekin» saila hitz-lauz. Beste gai batzuk ikutu zituen ere, euskal gramatika barne.

Batez beste, zein da lan gaitz horren joera nagusia? Euskaltzale haundi baten aurrean gaudela aitortu ondoren, nolako euskaltzalea zen Orixe?

Dagoeneko zerbait esanik dago. Goazen aurrerago.

Gaur Orixe'ren iritzi batzuk gauza ageria iruditzen bazaizkigu ere, bere garaiean aurrerako urrats handia ziren, eta harrigarri gertatzen. 1920-1930-ko girora aldatzen saiatu behar dugu. Euskaltzaindi'ko biltzarrak erderaz egiten omen ziren 1936-arte, Olabide, Urkixo, Canpion bera, eta beste euskaltzain batzuk, gauza ez baitziran euskeraz mintzatzeko (!). Euskaltzainen arteko gutunak gehienetan erderazkoak ziran. (Euskaltzaindia'ren «Euskera»-sorta hausnartzea dauka irakurlea). Alderdi'ko euskaldun puntuzko askoren —eta gaurko Lendakariaren beraren— seme-alabek euskeraz ez dakite, beren etxeetan erdera baitzan hizkuntza bakarra. Hori zen, bai, orain guztiz espagnol eta onartu-eziña iruditzen zaigun giro kiratsa. Euskal Herri-ko arroztea azken hondoraino joana baitzen.

Gabon-Mezuetan, esate baterako, Lendakariak hitz arrunt batzuk esan ohi zituen euskeraz, eta gero erderaz jarraitzen zuen gainerakoa, mami guzia espainieraz emanez. Xinglekeriak euskeraz, gauza inportanteak erderaz: horra hor orduko legea. Gutunetan azken muturreraino joana zen farragarrikeria hori: «Agur lagun», gero azalkizun osoa espainieraz, eta bukatzeko «tuyo en Jel» famatu hura... Hala zela Orixe'k berak gogoratzen digu: «Eztabaida au euskeraz asi duzu (Euzkadi ala Euskadi)... len beti erderaz ari giñan,

edo geienetan». (E.G., 1951 - 3/4 - 34).

Pizkunde-hasiera hartako abertzaletasuna Alderdi barruan erdaldun hutsa izan zela neuk berriz salatzea, nere lelo ezagun bati ekitea lekioke askori. Mintza bekigu Orixe. «El Día» eta «Euzkadi» egunkariak erderazkoak ziran %-eko 99-tan. (Orixe'k berak ematen ditu huni buruz oso berri interesanteak. Ikus E.G., 1950 - 7/8 - «Lizardi Ameriketana» artikulua, 6-7-8 orrialdeak). Euzko Gogoa'ko Zuzendaritza'k —eta Orixe barne, beraz— erdal joera hori salatzen du: «Gurean Jel-Alderdia izan da abertzaletasunaren arrotia, baita euskeraren illobia ere. Ez, noski, asmoz eta jakitez... (baiña) etzun euskera artu alderdiko ele bakartzat... eta erdera izan du ele nagusi». (Ikus E.G., 1954 - 5/8 - 74). Orixe'k berak horri zer zeritzan argi azaldu zuen: «Euskaldun ez zan euskotarra ez du aski euskotar dala esatea, ezta abertzale dala esatea ere, gure izkuntza ikasten alegiñak egiten ez ba ditu». (E.G., 1951 - 1/2 - 12).

Eguneroko mintzabideari dagokionez, beraz, bere garaieko seme izanik ere (= beti erderaz eguneroko bizian), Orixe'k bat egiten zituen teorian bederen abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna; eta huntan gugandik bertago dago «euzko» guziak baino. Eta «euzko» horiek, noski, ez zioten hori sekula barkatu.

Hala ere, Orixe idazterakoan euskalduna zen, baina Ormaetxea erdalduna. Idazterakoan, eta literatura egiterakoan, euskeraz mintzo; hitzegiterakoan erderaz. Axala ez besterik euskalduna bailuan! «Euskalerria» han dago, urruti, Tabor mendia bezin urrun, denetatik at eta lekorean, Euskal Herri'tik beretik berex, Ormaetxea gizonagandik beregandik anitz kilometrotara. Orixe Aralar'ko etnografilaria bide da, Frazer'en anaia. Exotismoaren iturria, ordea, Uitzin bertan aurkitu bide zuen. Orixe Euskal Herria'ren ikusle bat da; eta ikusle gisa, KANPOTIK ikusi zuen. Aralar'ko indioen espezialista zen. Indioekin eta indioei buruz BEREN hizkuntzaz. Indioekin ez besterekin hori. Hau bide da xedea.

Horrela jokatzuz Euskal Herriko alienatu-ilaran sartu zuen bere burua; eta indio ikasiaren jokoa besterik ez zuen berritu euskaldunei buruz: itzultzailearena. BESTEEN mundua ezagutarazi. Hortara Orixe'k, Trueba'k, Oloriz'ek, eta beste milak bezela, ez zuen BERE BIZIAN NORTU, mundua-

ri buruzko ihespide bihurtu baizik. Orixe kondentatzean, beraz, gure aurrekoen «indiokeria» kondentatu nahi dugu: gu ez gera Ahuñemendi'ko azken indio bitxi, basati eta dantzariak. Euskal Herria geu gera, danok, baserritarrak eta kaletarrok, burgesak eta langileok, traidoreak eta abertzaleok, Aralar'ko mendikoak eta Nervion-hegietakoak, Donapaleu'koak eta Amurrio'koak. Euskera ez da Espuru ondoko hizkera, geure egunoroko mintzabidea baizik. Esan beharrik ote dago oraindik?

Gure irizkera huntatik bertago zegoen, halere, Orixe, bere garaiekoak baino. Ez zuen, halaz ere, pausu erdi bat baizik eman.

Orixe hitz-biltzaile

Orixe, nere ustez, folklore-biltzaile gisa saiatu zen hiztegiari dagokionez. Hiztegi-kontuan, beraz, Orixe'k lan esker-ga egin zuen, eta fidatzekoa iruditzen zait bere ekarria. Orixe —ez dugu ahaztu behar— euskaldun hutsa zen hizkuntzaz. Haurtzaroa eta gaztaroa, 20 urte izan arte, Oresa'ko eta Uitzi'ko baserri-lanetan eta baserritarren artean pasa zituen. Euskaldun sena ba zuen dudarik gabe. Hori dela-ta, jesuita ikastekotan Xabier'ko komentura sartu zenean, «doi-doi mintzatzen zan erderaz», Andoni Labaien'ek dionez. (Ikus Euskera, 1961, 346). Horrez gainera, eta mundu modernoari zion gorrotoak ere eraginik, hil arte saiatu zen Orixe baserritarrengandik gure hizkuntza ikasten. Hil aurretik hau zion Tolosa'n, Lizardi-Saria hartzerakoan: «oraindik ikasten ari naiz». (Olerti, 1963, 111 gn.) Ikasi-nahi bizi hortan euskaldun herri xehea izan zuen Orixe'k erakasle: «baserritarrak izan ditut irakasle, nerau ere ala naizela». (E.G., 1951 - 3/4 - 36 gn). Baserritarren ikaspide hau, kontutan har dezagun, askoz emankorragoa zen, jakina, 1900-ean eta 1920-ean, 1969-an baino.

Hitz kontuetan, beraz, ikastekorik asko dago Orixe-ren lanetan. Puntu huntan, eta bere ideiak eskuindarrak zirela bide, bildur naiz ni Orixe gazteriak behar baino areago zokora dezan. HITZ-kontuan, berriz diot, ikastekorik asko dugu denok Orixe-rengan. Gauza bera joskeraz eta beste zenbait puntutan.

Orixe, bestalde, folklore-biltzaile zelako, errespetua era-

kusten zuen biltzen zituen mintzaira-dokumentuekiko. Huntan Barandiaran'en ezpalekoa zen; eta Alderdi'ko euskaltzaleengandik oso oso urruti zegoen. Garbizale izanik ere (nor ez urte haietan?) Alderdi'koen arabera Orixe'k mordoiloziale dirudi, Sebero Altube'k bezela. Martxoa, Apirrilla, mundua, eliza, kanta, saiatu, aldare, dijiritu, inpernu, zeru, eta jeldideek gaitzesten zituzten beste mila holako, Orixe'k lotsarik gabe erabiltzen zituen. Ikus «Euskaldunak» bera, esate baterako.

Bere garaieko joeraren kontra, eta Sabin Arana-Goiri'ren kontra ere, Euskadi eta euskera proposatu zituen behin eta berriz Euskadi eta euzkeraren kontra, gazteria gaztedi'ren kontra, eta abar. (Ikus huni buruz, E.G., 1951 - 3/4 - 36).

Orixe hizkuntza-maisu?

Hiztegi-kontuan, hitzen egokitasunean, adjetiboen xuxentasunean, joskeran, esaldietan, Orixe'ren izkribuetan erruz ikas ditekean bezela, gainerakoan Orixe eredutzat ezin har ditekeala esan beharra dago nere ustez. Tomismoak Orixe'rengan erein zuen logikakeriak hondatu egin zuen bere hizkera. Hau nabarmena da aditza edo berboari buruz; baina baita beste puntu askotan ere. Orixe gramatikalaria aldaketatan abiatu ezkeru, eta Orixe euskaldunari nagusitu bezin laister, akabo! Euskal gramatikari buruz, eta funtsezko euskal kera eta estrukturei buruz, Orixe berezi egin zen gure herriaren hizkuntzatik eta literatura zaharretik, eta egiazko ebakidura galgarri bat egin zuen.

Hots hori larria da oso. Huna hemen Mitxelena'ren iritzia etendura horiei buruz: «Todavía resulta más grave su tendencia —Arana-Goiri'ri buruz ari da— acentuada en algunos de sus discípulos, a innovar en la gramática siempre que la "lógica" parecía exigirlo». (Historia de la Literatura Vasca, 144). Hots, akats horixe hain zuzen —gramatika beharrik batere gabe aldatzea— bete-betean aurkitzen da Orixe'rengan.

Aipa ditzagun puntu bakar batzuk:

1/ «-TU» eta «-I» sufijoak (partizipioenak, alegia) latineratik datozelakoan omen, bihozkadak ematen zion arabera kentzen zituen Orixe'k: ez beti, ez behar bezela, ez euskalgunari atxikiz, erregelarik batere gabe. Bere jarraitzaileek

berdin egin dute. Har dezagun «Euskaldunak», esate bate-rako. Hauek irakur ditzakegu berealatic: ken zioten neska (62), ager du muturra (64), sar diot (65), senda nai dunari (68), lardaska dituzte (81), zulorik ez da ager (80), asma ziran danak (87), agin zion (88), arki dute senargai (89), eska ditio (291), itzul diote (441), ekar dut (554), eta abar, eta abar. Kakoa aditzaren ekintza GERTATUA ALA GERTA-KIZUN izatean datzalarik ere, Orixe'k ez bide daki. Ez du halere beti hortara jokutzen: bialdu digu (291), lertu zaio galtza (83), etorri da amatxi (83), eta abar.

Ez da xuxena bertso gintza dela horren giltzarria: izkribu guzietan gauza bera da. Bere «gerta oi da» eta «gerta oi dira» zoritxarreko horiek sartu ere egin dira ezjakinen artean; eta ekar du, eror ziran, eta abar, edozein izkributan irakur ditezke. Baina, itzuletara, euskeraren bidetik berezi zen ekintza eginkizun den formetan: mindu ez dezaten (83), egurastu lezake (83), ez dezake josi (83), artu dezan (93), ez bekit mututu (Lizardi-Sari-koan), eta beste hamaikatan, partizipioaren orde z berbo-soila erabili behar denean, -TU eta -I erasten ditu. Nekez proposa diteke nahasketa hori euskal eredutzat: gure berboa zeharo hondatzea eta erdal-duntzea litzake.

2/ -A artikuluari buruz gauza bertsua. Orixe'ren deklinabidea eskuarki zuzena izanik ere (eta huntan ere bere garaieko gehienak baino euskaldunago agertzen, Otsobi eta beste ipartarrak kendu ezker) artikuluari zion gorrotoak ez du euskal funtsik. Era berean -A itsatsia, artikulutzat harturik, kendu egiten zuen: arnas, neskatx, txorakeri, ego, eta abar. (Huntan bere eskualdeko akats bat hartu zuen eredutzat).

3/ «Zu» gaur singular dela-ta (=usted, españeraz; baiña vous, frantsesez ez da singularra... berriz ere Orixe'k España neurri!) berbo osoa aldatu zuen, ESPAÑOLEZ plural-kin ez dituen modura jarriz. Segidan gauza bera egin zuen «gu»rekin. Bere «logika» gidari berboa zeharo hondatu zuen liburu guzietan («Tormes» ezik, oker ez banago); eta gakio, zakio, gintzaion, zintzaidan, gakiok, eta sekula erabili ez diren beste anitz asmatu eta erabili zuen, genuen nahasketa larriago eginez. Hots, puntu hortan hitz berririk ez genuen behar, gatzazkio, zatzazkio, gintzazkion, eta abar

(edo beren kideak) aditz-joko zaharrak baitira, eta Euskal Herri guzian hedatuak. Arlo huntan Orixe osoki kaltegarritzat jotzen dut.

4/ Literatura guzian barrena, eta erderaren kontra, indeterminazioak singularra behar izan du berboan: zenbaitek ekarri du, askori esan diot, eta abar. Bertsolariak aztertzea besterik ez dago hori arkaismo bat ez dela egiztatzeko. Hots Orixe, ERDERAREN GRAMATIKA eta estrukturak LOGIKATZAT harturik (eta euskal taxukera ukatuz) erderaren arabera erabili ditu hauek: «zenbait oitura ar itzazu» (554), zenbaitek esan didate (E.G., 1950-2), zenbait lerro irakurri nituen (d^o), deabru asko aterarazi zituela (E.G., 1951 - 3/4), eta abar.

5/ Orixe'k batasunaren kezka ba zuen: «Ez da guzien euskera, guzien euskerarik ez baita. Izan balitza, ua emanen nizun». (Euskaldunak, Hitzaurrean, 10). Batasunerako bidean, Azkue'k eta beste askok bezela, gipuzkera hartu zuen oinarritzat. Aurrerago ere jo bide zuen bolada batez; eta Guatemala'ra joatean H-batzukin idatzi zituen hiru olerki. (Ikus E.G., 1950 - 2 - 3 eta 4 gn). Hauek irakur ditezke: huntan, hurrun, hegatsetan, haren, ilhun, hau, hondarra, hasi, hain, behar, eta beste anitz; baina baita, bertso horietan beretan, aragi, iru, len, emen, otz, il, ark, aiz, an, ego, eta abar. Ez bide zuen, beraz, batasunerako jokabide garbi bat hautatu. H-a osotara utzi zituen azken lanetan, batasuna «español» modura bilatuz, ipartarrak euskaldunak ez balira bezela. Aspaldiko joera zuen hau: «Euskaldunak» poeman nota asko erderaz (españeraz, hobe) argituak ditu, euskaldunek euskera baino ere lehenago española ongi ezagutu behar balute bezela, hegotar izan ala ipartar...

6/ «Errege» hitza deklinatzean erderara jotzen du Orixe'k, beste edozein bezela hartuz: «erregeri» esan beharrean «erregeari» dio (Tormes, 91), «erregek» esan beharrean «erregeak», eta abar.

«Dula», «ditula», «dun» eta abar hautatuz (eta ez duela, dituela, duen...) Euskal Herri'ko joera nagusitik berezi zen.

Berrikeria horiek guziak, eta hau ez areago luzatzeko aipatuko ez ditudan beste batzu, aski dira nere ustez hizkuntzari dagokionez Orixe eredutzat ez hartzeko.

Denek akatsak izanagatik ere, askoz maisuago ikusten

ditut nik Gregorio Arrue, Duvoisin, Haraneder, Mendiburu, Mogel eta Atsular batez ere.

Zertan eredu Orixe?

Erruz ikas diteke Orixe'ren idaz-lanetan, berriz diot, hiztegi-kontuan, egokitasunean, adjetiboen funtsean, joskeraren jatortasunean, esaldietan, baserrietako ohitura zaharretan, euskal jokoetan. Komeni izango litzake, nere ustez, alderdi hortatik euskaltzale gazteek Orixe haintzakotzat hartzea.

Orixe'ren akatsak haizatu ondoren, gaurko idazleak baino askoz gorago dagoela esan behar da: batzuen luman ez dago euskal gihar aztarnarik ere! Erdal lotsagabekeria horiek erauzi egin behar dira gugandik. Orixe'k, baserritarra izan arren, eta euskeraz ongi egiten den eskualde batekoa, bizi GUZIA pasa zuen euskera ikasten; eta barruan zeraman gramatikalari murrizta baserriko semeari nagusitu ez bazitzaion, Orixe'ren hizkera Atsular'enaren parekoa izan zitekean. Orixe'ren landu-nahia eta euskerari buruz eskolatu-nahia guziz da txalotu-beharrekoa eta jarraitu-beharrekoa. Gazte batzuen ezjakintasun harroputz eta ausarta guztiz ere gaitzetsi behar da. Ikas aurrenik, eta gero mintza.

Urteak aurrera joan dira, bestalde, Orixe'ren garaietik; eta geure ikuspuntutik kupidarik gabe epaitzea, eragabekeria litzake. Danok gera zordun Orixe'ren belau-narekiko.

Beti ikasketan egon ondoren, hau zion Orixe'k Guatemala'n 61 urte zituelarik: «gazteok gu baiño bizkorrago datoz, eta atzean utziko gaituzte». Apaltasun ederra hor ere, bizi guzia euskera osatzen pasa zuen batengan!

Eta euskerarekiko amodioan eredu ere zalantzarik gabe. Langile porrokatua, bere bizia eskeini zuen gure hizkuntzaren jasokuntzan; eta huntan errespetu guzia merezi du. Orixe'k berak aipatzen zituen maiz «250 irakurleen muga»... Zaila zen giroa gerra-ondo ilun hartan. Ez zetorren atzetik gaurko sua. Ez zegoen ikastolarik. Abertzaletasuna lo zetzan itxuraz. Zuzen izan gaitezen: Orixe'ren haroa gurea baino zailagoa zen.

Hunkigarriak dira bere hitz hauek: «Nik etzekiñat oraingo ontan ilgo ote zaigun euskera gaixoa; urbil zegon; baiña

ni bizi naizako iraungo dula uste yunat» (E.G., 1954 3/4 - 61).

Agintza ederra!

Eta bihotz osoaz azken minutura arte betea.

Baldinba geuk ere horrenbeste egingo!

(1969)

ZUBEROA HERIOTZARUNTZ

Txit begi onez irakurri dut Uztailaren hondarrean «Z. Argia»-ren 385-gn. zenbakia: aurtengo Pastoral delabide, orrialde oso bat eskeini zion gure astekariak Ekialdeko probintzia ñimiño ahaztuari. Oso izkribu politak eman zizkigun Latxaga jaunak, eta txalo jotzea merezi duela uste dut.

«Lurralde berexia» bataiatu zuen Latxagak Zuberoa; eta egia du: Uhatxandi bakarti hartako ibarrean barrena ibili denak ba daki hori: Euskal Herri berezia da hura, hurruntasunez eta itxuraz.

Zuberoko herri txiki haietan guzietan, azaltzen ez genekikean zerbait dario denari. Arbelezko teiltatu haiek, herri-herri koxkorrak eta minak, xuberotar mintzairaren doinu harrigarri eta garratzak, kanpandorre hirukoitz isilek, mendi mazelen bakardadeak, Holzarteko osin eta zubi bildurgarriek: denak gogoratzen bide digu han antzinako Euskal Herri basati, bortitz eta gogor bat. Ezina zaio euskalduni Orhi-ko menditik Larañera begira pausatu, eta ametsik ez egitea. Nolako amets, ordea? Ez dakit. Baina berriki mintzatua naiz euskeraz kasko hartan kaiolar batetako hiru

artzainekin; eta sekulako joana dugun beste mundu batetan izana nintzela iruditzen zait gaur bertan ere. Zalgizeko, Hauzeko eta Larrañeko hiru artzain haiek, orain dela mila urte bezelaxe, ardiak biltzera bidaltzen zituzten beren zakurrak behin eta berriz, «txotxak» aipatu zizkidaten, Orhi-mendiko gaiztakeria izkutuez mintzatu zitzaizkidan, baita «Iratiko bidía»z (azentua I-an, bai, Irati-rako laburtua bailitzen). Inun baino egiazkiago esan dezakegu euskaldunok Zuberoan: «hauxe de ene sorterria». Eta han hau esateko behar gorririk sendi ez duena, Basaburuan eta Pettarran bere burua arrotz atxematen duena, sinistuta egon, irakurle: hori ez da euskalduna.

Bego hori, beraz, bere horretan.

Zuberoa, ordea, ez da hori soilik. Ba dago besterik ere Zuberoan. Zuberoa hustutzen ari baita.

Hona hemen atzo irakurri nuen «Herria»k diona (1970/8/6). Ez du espantuka esaten, ez, Iparraldeko euskaldunak «usaturik» baitaude, ohituta alegia, molde horietako berririk ikasten. Aste honetantxe, beraz, beste anitzetan bezalatsu, honela zion «Herria» kasetak Mithikile-ko berri ematerakoan: «Ezkuntze —Lucie Pucheu, Berrogaiñekua, ezkuntü da René Choyekin. Espus gaztiak Parisen biziko dira— Jean Jacques Thicoipe eta Odile Manes Mithikilerat jin dira ezkuntzera, bena Libourne-ko aldian biziko dira; mothikua Olivier Guichard, eskoletako minixtruaren enplegatü da — Eta dagün neskenegunian eskuntzaila da Annie Garin, Filoeneko alaba, Tolosa-ko (=Toulouse) entrepenür baten semiarekin. Annie ere han da infirmiersa. — Gure goresmenak eta suhetik hoberenak familia gazte hoier».

Horra zertara den Matalas bildurgarriaren herria. Hiru ezkontza aipatu kasetak, eta hirurak atzerrira ezkonduak!

Eta hau irakurri dudaneko, oraindik ere ene barruan Larrañe-gaineko oroitzapenek bizi-bizirik dirautelarik, Zuberoaren bi aurpegiak ikusi ditut neure buruan: amets egitekoa eta egia garratzarena, anaiarena eta arrotzarena. Gogora ditzagun dato batzu:

Zuberoak:	1800-ean - 30.000 lagun
	1970-ean - 18.000 lagun (= — 40 %)
Gipuzkoak:	1800-ean - 106.000 lagun
	1970-ean - 650.000 lagun (= + 510 %)

Zergatik diferentzia ikaragarri hori?

Amets egiteko Zuberoa bat bai, beraz. Baina, kasu: zertan dira zuberotarrak, zertan dira Zubero-ko pertsonak? Ezen Jaspers-ek egoki dion bezela: «Balore absolutu bat da gizakume bakoitza». Zuberoa, horregatik, goibel dago, ilun, beltz; zuberotarrak zapalduta bizi direlako, ez baitute gehienetan sorterrria uzteaz beste irtenbiderik. Ba doa üx-kara, ba doaz zuberotarrak, eta ba doa betirako itxaropena bera ere. Gazteriak alde egiten duen eskualdeetan eta taldeetan, gerorik ezaz, amaia eta heriotza ere gertu baitaude.

Hau ere esan behar da.

«Herria»-ale horretan berean hain zuzen, «Herria»k berak sinaturik, agertu den artikulu gogorra pozik irakurri dut. Gure Iparraldea turismo-eskualde bihurtu nahi dutenek ez bide dituzte begi onez irakurri Christian Rudel-ek «La Croix» egunkarian agerrerazi dituen izkribu garratzak. Ageri denez, Rudel jaunak, guk bezalatsu, Zuberoaren aurpegi beltza aipatu du Paris-en; eta Maule-ko «Syndicat d'Initiative»-koek ez dituzte egia horiek estimatu... Euskaldunok dantza eta irri egiten omen ditugu, eta ez besterik deus.

Eta, berotasun guztizkoan, hau erantzun du Baiona-ko «Herria»k:

«Ziberua Zibero bezala, Eüskal Herria Eüskal Herri bezala, galtzera duatzala, nihurk ez dezake üka. Zenbaiti orobat zaie; haien züzena da. Bestak oro turixtentako eta estranjerentako plantatzen dira. Maxkaradak arrapiztü dira, nuiz artino? Pastoral zunbait egiten dira Etxahun Iruri-ri esker. Eta gero? Ahüzki-ko bestak orain frantsesez egiten dira. Hanitx feit horrez kument dira. Eüskal Herria frantses edo españul edo portüges izan dadin, orobat zaie. Haien züzena da. Ba dira etorkizün horri bühürtü nahi direnak. Ikusiko azkenian nurk arrazu dian».

Bai, jaunak. Zuberoaren egia hori ere ba da. Egia garra-tza, hori bai; beste anitz bezala.

Eta, are harrigarriago: zuberotarrak horretara beharra. Bai, jaunak. Ezen Toulouse eta Paris urrutiago baitaude Iruñe eta Bilbo baino. Eta hemen, hain zuzen, alderantzizko gertakaria dugu: esku beharrez hemen, erdaldunez bete zaizkigu bazterrak.

Zuberotarrek ez dutea balio, ordea, besteez hainbat?

Ez bide da erraz aditzen.

Baina Zuberoa ba doa, eta esan egin beharra dago.

(1970)

URRE-EZTAIK LANDAN

Xehetasun txiki bat, egia da; gertakari xume bat. Baina pentsakor utzi nau.

Baiona-ko «Basque-Eclair» egunkariak, fotoa eta guzti, «Ninou»-ko Choy senar-emaztearen urre-eztaiak aipatu ditu. Eta «J.P.» sinatu duen albistariak hau dio: «Il fallait bien le préciser, cette famille Choy, de Lanne, habite la "maison de Ninou". Ainsi l'on peut s'y retrouver, car des familles Choy, il y en a d'autres dans le village». Alegia: zein etxetako Choy-tarrak diren zehatz esateko, hain etxea ere aipatu behar da: «Ninou» etxeakoak, beraz.

Eta «J.P.»k hau erantsi: «C'est un peu comme au Pays Basque: c'est le nom de la maison que permet de différencier les Etcheverry ou les Sallagoity». Alegia, Euskal Herrian bezalatsu da: etxearen bidez berezten dira Etxeberri-tarrak eta Salagoiti-tarrak.

Eta «J.P.»k ekiten: «C'est ici que Pierre Choy a reçu son épouse, née Victoire Epphère du quartier Gastillondou». Hau da: hementxe hartu zuen emaztetzat Victoire Epherre, Gaztillondou hauzokoa.

Horra hor gertakaria. Deusik ez itxuraz. Ba dakit. Fun-

tsean, ordea, argi-iturri hutsa.

Zeren-eta Landa (frantsesez Lanne) Zuberoa-tik Ekialdera baitago, Zarraltzune (= Barlanès frantsesez) ibarreko atarian, Baretus delakoaren eskualdean; eta Biarnon, beraz, ohiko Euskal Herritik at.

Eta horra hor gure begien aurrean, euskeraren galera eta administrazio-kutsua jatorrizko egiari nagusitzen ari. «J.P.» delakoak ez daki nunbait (eta irakurleak gutxiago!) Landan euskaldun asko dagoela oraindik ere; eta Biarno-ko herri bat izanagatik ere, euskera izan dela bertako hizkuntza nagusia XIX-gn. mendean bertan.

Bertakoe, ordea, euskera ezaguturik ere, baztertu edo izkutatu egin dute aspaldidanik (eta orain inoiz baino areago), lehen kaskoina, eta orain frantsesa, erakusten zutela; euskera etxeko zaharrekiko mintzaira lotsagarritzat gordeaz. Honelakorik aipatu digu Tournier-ek Larran-go euskaldunetz idaztean; eta besterik ere aipa laiteke aisa Biarno-ra jo beharrik gabe.

Landa-tarrek, hortaz, ez dute deitura-kontutan euskaldunek bezala egiten, berak ere jatorriz euskaldunak baitira! Epherre deitura kanpotik etorria izanagatik ere, nola azal halere hauz horretako «Gaztillondo» delakoa?

Bestetan ere aipatua dut honi buruzkorik, eta ez dut gauza bera birresango. Berririk bai, ordea. Haritzelhar-ek berriki dokumentu-bidez erakutsi duenez (Etxahun-i buruzko tesian). Aste Santuko Sermoiak **euskeraz ere** egiten ziren Landan, eta Biarno-ko beste herritan Baretus-ko eskualdean, Etxahun-en garaian, alegia, orain dela ehun bat urte.

Orain dela aste batzu, bestalde, Ekialdeko euskal muga honetaz Zuberoa-ko baserritar jator batekin mintzo nintzetzelarik, hauxe esan zidan: ez Landan bakarrik, baina Inhasi-n batez ere (frantsesez Féas, Biarnon ere, Landa-tik hamar bat kilometro Ekialderago), baserritarretan «hirutarik bigak bederen» euskeraz hitzegiten dutela gaur bertan. Ez dakit hau egia denetz, herri koxkor horien berri (eta baserri-barneko berri batez ere) jakiten oso erraza ez delako.

Ez da, hortaz, Eskiula Biarno-ko bakarra. Eta Jaka-aldean eta bestetan aspaldian «lengua latente» delako zer ote zaitzekan somatzen dugu. Ezen ez dakit Biarno-ko Eskiularen euskal jatortasunaz zer pentsa, dokumentoei dago-

kienez; baina Barkoxen udara honetantxe frogatua dudanez, eskuilatarrek «biarnes euskalduntzat» daukate beren burua. Hots, jakina denez, zuberotar etorleek ekarri omen zuten euskera bazter honetara XIV edo XV-garren mendean (ikus Goihenetxe). Toponimia Biarno Garai guzian hein batean bederen euskalduna izanik, ordea, ez ote da egiago eskualde hartan oraindik ere erabiltzen zen euskera **azkartu** egin zutela zuberotar etorleek? Zergatik ukatuko Saroihandy-ren baiespernak?

Era berean, eta hildo beretik, Landa ez dago Zuberoan; eta euskera «kanpotik» kutsatu zaiola pentsatzea atseginago zaio zenbaiti: Landa Biarno da, erdalduna, eta kito.

Zertan du oinharria, honi gagozkiola, Pedro Irizar-en aspaldiko eskaera batek? (Ikus «Anuario de Filología J. de Urquijo», 1955). Zeharo oker ote dago? Euskaltzale honek Jeruntze-ko euskalkia galdu aurretik aztertzea proposatu zuen. Hots Jeruntze, frantsesez Géronce, Biarnon dago, Ospitalepia-tik 6 bat kilometrotara Ekialdera.

Beste etsenplu bat datorkit gogora, guztiz plegu berekoa: Sorde l'Abbaye-koa (gaur «Landes» departamenduko parte, jakina denez), eta gaur euskeraz mintzatzen den barrutitik 12 bat kilometrotara.

Laister agertuko den tesi batetan Goihenetxek argitzen duenez, XIV-gn. mendean Sordua-ko etxe askok euskal izena zuen; bertakoek euskal ohiturari jarraituz deitura euskaldunak agertzen baitituzte: Anduesse, Echeгарay, Beyries, Araspe, Ustusi, eta abar. Eta, kontuz: hauek guziak kanpotarrak izanagatik ere (zergatik?), nola konpreni garai hartako euskal toponimia (gaur arte hala-nola iraundua): Urdasen (Urdaix, Sordua-n), Urits (Orist, Peyrehoraden), Usquain.

«Joanak joan» diote batzuek.

Bai. On da, ordea, eta oso gogoan hartzekoa, euskaldun bazter horiek nola erdaldundu diren; eta nola, urteen buruan, guhauri ere azkenean, administrazio-mugak bide, harrigarri arrotz gertatzen zaizkigun osoki. Nola, euskera galduz, Euskal Herritik arras berezi diren.

Hau guzia gogorazi dit Choy-ren urre-eztaiak.

Harrigarria ahal da?

(1970)

TERMES-KO DORREAN PENTSAKOR

Xarma haundiak ditu Armagnac-aldeak... edari sonatuaz gain. Ez da txikiena, nik uste, eskualdeen birjinitasun osoa: ez inun kerik, ez erdoitutako burdinarik, ez batimendu funtzionalik, ez «kontsumo»-gizarte zantzurik. D'Artagnan bera piztuko balitz, aisa ezagutuko luke bere sorterriko geografia; eta, alderdi horretatik, aldaketa sakonik gabe birrikusiko lukeala iruditzen zait.

Bakardade eder honek, halaz ere, eta bidesketako joan-etorririk ezak, ba dute beren aurpegi itsusia: alegia, Armagnac-eko eskualde atsegina hustutzen ari dela. Bizimodu nagusia («bakarra» idaztera ninjoan) nekazaritza da hemen: artalandak eta mahastiak elkarri darraizkio. Tratoreak eta nolanhiko makinak ugari dira arrunt (nekez eta urte luzetan ordaindu beharrak maiz, omen); eta gazteriak, hitz batez, ez dauka gehienetan Paris-aldera «igotzeaz» beste biderik.

Inguru hauetan bi dorre zaharrek dute entzute haundia: Bassoues-koak eta Termes-koak. Eta sargori egun luze baten ondoko arratsean, bigarrene baino agerraldi bat egitea erabaki genuen Telesforo adiskideak eta biok.

Iristerakoan dena zetzan isiltasunean eta ilunabarreko

argi epelean.

Termes-ko dorre zaharrear, araiz, ez dago turismo-bulegorik ez takilarik. Ikuslea bere gisara ibiltzen da, baita goraino igotzen ere nahi badu. Ez dakit, beraz, dorrea noiz eraikia izan den; baina urteak ehunka zenbatu behar lira-keala dirudi. Zer axola dio horrek, bestalde, ene gogoetei buruz?

Ilunabar hura ez zait erraz ahaztuko. Behelano mehea zegoen lurraldearen gainean, lotan iduri; eta bestetan Hegoaldean ageri izaten den Ahuñemendiko katea, ez zen ikusten.

Saguzarrak ibiltzen ziren handik eta hemendik, gostuan, murru zahar haien arteko biztanle bakar eta nagusi. Dorrearen ondoko batimendu-hondakinetan teilaturik ez; baina dorrearen Ekialdeko paretan, teilatu-ohiaren marka nabarmen. Hormartean zuhaitzak jaun eta jabe, kanpoaldean bezain mardul eta gordin. Dorrea oso gora, berrogei bat metro agian. Eta hartatik ikus daitekean eskualdea, eder eta zabal: Aturri-ondoko hegi joriak eta zuhaztiak ageri ziren behean, eskerga, mugagabe, Riscle eta Aire aldera. Euskal arrastorik ez itxuraz Wasconia-ko parte honetan.

Dorrearen leihoak hertsu dira, zeken; eta goiko ojbak antzinate-kutsu bitxia erasten die. Zer ikusi ote da leihatila horietatik mendeetan zehar?

Gizadiaren patua agertu zait bapatean argiro, nitzaz osotara jabetu arte. Isilik nekusen dorre gaitz eder hura; eta aspaldidanik erabiltzen ez diren leihatilak kukuturik eta abandonaturik. Termes-ko dorre eder hori zer da gaur, izan, saguzar haien babesleku bat baizik?

Dorre horren kontrako etsaien osteak somatu ditut jazarpenean, eta bertako zaldunak urduri, denetarik odola eta olio irakina zeriela. Leihatila horietxetan somatu ditut ama tristatuak, seme gazteak gudurako abiaduran agurtzen ari. Eta ia neure belarrietan entzun uste nituen ondoko «billau» gizajoen ezintasunezko deihadarrak, murru madarikatatu haietan alferrikako oihartzunen sortzaile.

Horren guziaren arrastorik ere ez gaur. Baketan saguzar batzu hegaz arrastirian, eta patioan bi turista berri, errari eta isilik so.

Eta gizonaren patua ulertu uste izan dut berriz ere: nork bere belaunari datxekon burruka latza darama aurrera, hein

batez absolutugintzan; baina gero, mende batzuen buruan, ez ekintzen oroitzapenik, ez pozkarioen aztarrenik, ez deusik. Murru mutu batzu zaharrakaturik garaitzaileen ondotik; eta garaituen ondotik isiltasunaren isila. Gudu-leku izana, txorien babes-leku. Etsipen-ifernua, foto gai!

Gure ez-jakina izan bide daiteke ebakidura guztizko honen kakoa: ez dakigu kondairarik agian, eta horregatik zaizkigu arrotz beste belaunetako zantzuak, sofrikariak eta burrukak. Egia ote da hau?

Ez, nik uste. Ez dut hori senditu Termes-ko «donjon»-aren ondoan; dorre horren izanaren ulertu-ezinezko ezintasun errotikakoa baizik. Irakurririk ere, ikasirik ere, gertakari haien xehetasunik izanagatik ere, zer? Leihatila horietan isuritako negarrak, hormatzar haien kontra tolostutako geziak, arratsetako dorre-isola madarikatuari egotzitako birauak, konpreni-ezinak dira guretzako; eta errotik hori. Mundu hura joana da; eta Termes-ko dorreak, eta haren kide guziak gauza bera, Marte-ko arrastoak bezain arrotz zaizkigu funtsean. Nork uler lezake gaur eta anaikiro sendi, Eskoziako piktoen kontrako murraren eraikiera? Zer nabari liteke Tutankamen-en hilobi ezin aberatsagoaren aurrean gaur, ehortzaileekiko harridura osoa eta guztizkoa baizik?

Zer dira, beraz, Kondairaren «azalpen» horiek, gure izpirituaren lasaipideak baizik? Kondaira eta gizonen ekintza lerrotasun «argi» baten hildotik omen doaz, gero eta argitzenago gainera... Nun da «argitzapen» etengabe hori? Zer dira horiek guziak mito hutsa eta ipuin nabarmena baino?

Joan den belauneko kausak arrotz zaizkigu; eta, hein batez, gurasoen eta seme-alaben arteko ulergaitzasun eza-guna, egia honen azalpen bat besterik ez da: semeek ez dute egiazki aita konprenitzen, eta aitak ez ditu semeak ulertzen. Etxen entzun ditugunak, orain dela berrogei bat urteko kasetetan azaltzen direnak, ia-ia zozokeria ezin zozoago zaizkigu askotan; eta haietan eta helburu bitxi haiengatik isuritako odola eta malkoak, absurdu huts.

Joan den mendeko kausak, noski, arrotzago. Eta orain dela bostehun edo mila urtekoak zer esanik ez: zeharo arrotz eta ulertu-ezinak. Burruka haietako batetan gertatuz gero, ez genekike benetan zein bandotan eman geure burua!

Era berean, Termes-ko dorreari dagokion guzia, mis-

terio huts zitzaidan lehengo egunean, bai itxuraz bai barnez.

Ez ditzagun geure soinekoak urra! Izan gaitezen egia. Zer idarokitzen dizu zeuri fameliako asaba zahar horren foto hits harek, sustraitikako ulergaitzasun eta arrotzasun hori baino? Aitor zazu egia.

Ez goaz lurtarrek Kondairan lerro-lerro «aurreruntz». Zer da «aurrera»? Ez dago «aurrera»rik helburu aldagaberik gabe. Eta ez dago ezer Kondairan aldagarriagorik, hain zuzen, gizonen ekintza-burua baino!

Atsekabe zaigu aitortzea; eta askok ez du egin nahi, eta ez du egingo. Baina egia garratza hau da: ez dagoela Kondairan lerrotasunik, ez helburu-jarraitasunik, ez gertakarien sentidu-segientzarik; elkar ikutu ere egiten ez duten ekintza-planoak baizik. D'Artagnan-en «hizkuntza» eta gurea, bi dira, eta hau uste eta nahi dugun baino funskiago; eta D'Artagnan-en garaiko helburuak eta gureak arrotz zaizkio elkarri. Termes-ko dorrea, horretara, eta hari datxezkon negarrak eta pozak, helburuak eta ikarak, betirako suntsitu dira; eta apika dira saguzarrak pareta haietan arrotzago eta itsuago gu baino.

Egia Levi Strauss-ek du: «il y a une impuissance de la pensée à dégager un schème d'interprétation à partir d'évènements distancés... Il suffit que l'histoire s'éloigne de nous dans la durée... pour qu'elle cesse d'être intériorisable et **perde son intelligibilité**, illusion qui s'attache à une intériorité provisoire». Garratza izan arren, egia galanta. Gertakari bat urrundu ala, ulergaitz, konpreni-ezin bihurtzen dela; eta hau ezin bestean.

Eta haxe da gizonaren trajeria (trajerietako bat, hobe).

Eta honetantxe datza kondaira-tasunaren MITOEN indar berria: trajeria hori izkutatzeko balio dutelako.

Ezen gizonak ez baitu gehienetan aski bertuterik izaten bere eskasia eta bere mugatasun sustraizkoa jator aitortu, eta bizi-minari jakinaren gainean eusteko.

(1971)

LEHENENGO MAILAKO INTELEKTUAL BAT:
JOXE AZURMENDI

Egun hauetan Baionan argitara, eta salgai jarriko den liburu batek segurtaturik dauka euskal letretan leku goren bat: Joxe Azurmendiren «Hizkuntza, Etnia eta Marxismoa» deritzanak. Baina eragin handia izan dezake, era berean, Euskal Herriko politikan eta ideia-mogimenduaren etorkizunean. Azurmendi-ren liburuak, jakinduriaz eta argitasunez, erderazkoen artean paraturik ere, liburu gutxiri zor lioke ezer. Sinistuta nago. Iiburu mardul trinko honen ondorioz, benetan, goreneko mailan jarri beharra dago gure zegamarra euskal idazleen artean. Baina, hau berau asko izanagatik ere, ez da dena; zeren-eta Euskal Literaturak berak egiten baitu, Azurmendiri esker, bai saiakeraren, bai politikaren eta filosofiaren mailan, erraldoi-urrats bat.

Beste sailetan ere ba zuen J. Azurmendik gure artean entzute eta aipu baundirik. Haren «Manifestu Atzeratua» olerki-bildumak, puskaka ezaguturik ere, harrera beroa bildu du euskaltzaleen artean; eta «Anaitasuna»-ko artikulua gauza bera. Besteren olerki-kritikari dagokionez, bestalde, gutxik lortuko bide luke gaur, kritikari gisa, Azurmendik lor dezakean balio-aitorra.

Azurmendiren etorrera dela-ta, beraz, txapela danok erantsi behar dugula esanez, ez diot adiskideari mesede egiten, egiari goratzarre baizik. Azurmendi ez da «beste idazle bat» euskal letretan. Azurmendi benetako intelektual bat da, atzerrikoen mailan aisa parekatzekoa. Eta gauza bat eska dakioke bakarrik: otoi, ekiok lanari!

Lanean ari da, egia esateko. Eta nola! Joxe Azurmendi bertatik ezagutu dugunok, hain zuzen, harriturik gaduzka haren langintza-mailak. Jakintza harrigarri hori 32 urtetan nola bil daitekean ez dugu ulertzen. Aste hautan, besteak beste (eta alemaneraz ez dago geldirik!) Kolakowsky-ren izkribuak prestatzen ari da, euskerara itzultzen eta azalpenez hornitzen; eta filosofo ezaguna euskeraz irakurtzeko aukera izango dugu laister. Erderaz ere ozta-ozta ezaguna delarik!

«Hizkuntza, Etnia eta Marxismoa» liburua hitz gutxitara biltzerik ez dago. Aitor dut, eta egileak ere aitor luke, zenbait aldiz ideia berbera leku diferentetan azaltzen dela; liburua atalka egina baita «Zertarako euskaldun?» galdera famatu haren ondorioz. Liburua saiakera-bilduma gisa hartu behar da.

Azurmendik bertatik jarraitzen ditu gure herriko eta munduko marxismoaren gorabeherak. Arazoak gogotik hunkitzen du; eta, problemak hemen edo han agertu ala, aztertzen saiatzen da. Honek, eta azkeneko kapituluetan (marxismoaren eta nazioaren gorabeherak Euskal Herrian, Txekoslovakian, Suomi edo Finlandian, eta Viet-Nam-en) xeheki eta konkretuki aztertuz, bizitasun gaitza lortzen du liburuak; eta gauza segurua da eztabaida gogorak piztuko dituela.

Zein puntu aipatuko? Dударik ez dago: liburu lodi mamitsu honetan nork bere parte irakurriko du, eta ez denok berbera. Baina gauza bat iruditzen zait guztiz segurtatua: gaur Marx-en teoriak hunkitzen eta interesatzen dituenek (eta hainak ez dira gutxi!) erruz ikas dezaketela marxismoaz liburu jakintsu honetan.

Bere herria eragabeki eta sutsuegi ukatu nahi zuen judu bat aurkituko dute azterketarako sarrera gisa: Karl Marx judua. Harrituta ikusiko dute haren herra neurrigabea: Moises-engan «egiptotar» bat aurkituz, juduak aipa-

tzerakoan «judeguxka» edo «zakur» (Engels) irakurriz, juduen arraza-ezagugarritzat... «diru-grina» salatuz, eta juduen izana eta naziotasuna Marx-ek errabiatuki ukatuz. Eta geroko (eta gaurko) marxismoaren anti-semitismoaren erroak argiago antzemango dituzte, eta jokera horiek eta nazioaren kontrako beste batzu sorkurazko gorroto horretan finkaturik daudela ulertuko.

Garaiko giroa zela pentsa lezake zenbaitek. Baina hau ere ez da egia: judutarren arazoari «naziotasunaren maila» aitortzen baitzioten bere kideek; Proudhon-ek, Fourier-ek, Lafargue-ek (suhia berak, beraz!), eta beste anitzek. Aitarren jokabideak nardaturik, hain zuzen, Eleanor Marx-ek (alabak, alegia) jiddish-era ikasi zuen ezkondukoan; eta aitaren gehiegikeriak konpondu nahi izan balitu bezala, juduen defendatzaile gartsu bihurtu zen.

Marx aleman bat bide zen aurrenik, famelian lehenengo (gurasoak juduak ziren, eta erlijioz judaista), chauvinista alemana ez gutxitan; eta des-naziotartu diren beste askok bezala (gogoraz ditzagun, gonbarazio baterako, Vanbellingen eta Deruyter deritzaten antinflamenko amorratu eta ugariak) Marx-ek gorroto haundiago zion bere egiazko etorkiari, Zientziak edo zentzuak berak idaroki lizaiokean baino. Eta bere judutasuna ukatu eta konpentsatu nahiz, saldukeriaraino eta absurduraino joan zen. Honen azalpen teorikoak ez ziren ederragoak izan.

Osoki txundigarriak dira, horretara, «Die Deutsche Sprache» (1839) deritzan izkribuan Marx-ek aleman hizkuntzaren alde idatzi zituenak (jiddish-eraren kontra, esan du denez, gogorak esan ondoren). Txekiarren nazio-eskubideen kontra idatzitakoak, bene-benetan, gizon argi batengan sinistu ezinak dira. Baina, noski: orduko Pragan alemaneraz mintzo zen...

Marx gaztea, beraz, naziotasun-arazoaren ukaera osoan agertzen zaigu. Urteetan barrena, ordea, Azurmendik ezin argiroago frogatzen duenez, Marx-ek aldatu egin zuen bere iritzia; nahiz azkenean bukatu gabe utzi bazuen «Das Kapital» lan nagusian hizkuntzaren eta etniarern arazoa.

Azurmendik, halere, politika-jokabideak eta gutunak berak hausnartuz, joera nabarmen bat aurkitu uste du Marx zaharrarengan; eta askoz nabarmenago beranduago

arte bizi izan zen Engels-engan. Poloniarren kasoan, esate baterako, bertako abertzaletasunaren herrikoitasuna eta sakontasuna ikusirik, aurrenik nazio-arazoa garbitzeko eskatu zien Engels-ek Poloniako marxistei. Honek, eta Azurmendik xeheki aurkeztutzen dituen beste hamaika etsenpluk, guztiz harrigarri eta naziozale presentatzen dute Engels zaharra; eta gauza horiek irakurrita, irakurle asko, nik uste, zurtuta eta aho-zabalik geldituko da. Ez baitira horiek gure artean zabaldu diren leloak.

Ezagutu ohi ez den puntu asko dakar liburuak. Oso interesgarria da, esate baterako, Lenin-ek eta Manabendra Nath Roy-ek elkarrekin izan zuten eztabaida. Aste honeratakoxe gertatua dirudi.

Eta oso irakurgarri eta gogoangarriak ere Mos en Hess-en teoriak. Hau Marx-en adiskide mina izanik ere, eta sozialista amorratua, geroko joera batzu piztu bide zituen, Kondairaren eragile nagusia klase-burruka ez baina «nazio-burruka» dela esanez. Renan-ek, Fichte-ek eta Nietsche-ek ez dute horrenbeste esan...

Gure egoeraz, eta beti dokumentazio eta jakintza harrigarriaz horniturik, Azurmendik egiten dituen azterketak ezin mamitsuago eta argitsuago dira; eta, nahiz honetan edo hartan ados ez izan, irakurleak ez du inoiz bere denbora galduko.

Jakinduria honek, halere, ez du Azurmendiren irizkera kamustu. Eta marxismoaren akatsen sustraia bilatzen duelarik, xuxen antzematen du kakoa, ene ustez. Ba dago batetik, dio, Marx-en «monismoa»; alegia, Kondairaren funtsean, indar edo fenomenu nagusi BAKAR bat dagoen ustea. Eta ba dago, bigarrenekorik, Kondairaren sujetoaren (eta nazioaren) teoriaren hutsunea: Marx-ek, Kondairaren objetibitateaz arduratuz, sujetotasunari, eta beraz pertsonari eta nazioari, trinkotasun guzia kendu zien, egia gutxietsiz. Bi hutsune hauek, dudarik gabe, egin edo aipa daitezkean larrienetakoak dira.

Baina Marx-ek liluratu egin bide du Azurmendi gaztaroan; eta liburu honetan nabarmen dago Marx-ekiko jaiera hura, eta «hala ere» Marx salbatu beharra. Marx-en marxismoa eta geroko marxismoa behin eta berriz elkarretarik berezi nahiz, Azurmendik Marx-engan sozialista haundia go-

resten du, kapitalismoaren ikertzaile zorrotza goratzen, justizia-egarri eta mitoen gorrotoa bizi zituen pentsatzaile aparta aintzatzen; eta, hau batez ere, Marx GIZONA. Azurmendik, Marx salbatu nahirik, marxista «fededunen» idolatria kondenatzen du gupidarik gabe, Jean Marie Benoist-ek egingo lukean bezala; eta stalinismoari buruz bereziki distantzia haundiak hartzen ditu.

Azurmendik horrela jokatu, nahiz bere burua «ez-marxista»-tzat aitortu, neo-marxista, edo marxista-berrien hildotik abiatzen bide da. Ez da kasualitatea Markovic, Garaudy, Kolakowsky eta abar liburuan aipatzea. Ez da txiripa ere Schaff poloniarri buruz kapitulu mamitsu luze bat eskeintzea. Eta ez da harritzekoa neo-marxista horietaz gure Azurmendik lehendabizikorik hitzegina izatea. Azurmendik stalinistei gaitziritzen badie ere, begi onez ikusten ditu «neo-marxista» horiek; eta oso gogoko luke, nik uste, Gajo Petrovic kroaziarrek Zagreb-en «Praxis» aldizkariaren bidez egiten duen lana: marxismoa desmitifikatu, gizatartzea. Azurmendik aisa onhar lezake Petrovic-en ideia nagusia: «Nous nous oposons à la vision stalinienne du marxisme, pour retrouver son inspiration authentique.» Ez dute besterik egin, egia esateko, Lucàks-ek, H. Lefèvre-k, Sartre-ek eta beste hamaikak, ia beti ortodosiatik at jakina denez.

Liburua zaila da, bukatzeko, hizkuntzaren aldetik. Euskerak ez du tradizionarik, ez irakurleek ohiturarik, gai horietaz ari izateko; eta Azurmendik, bestek bezala, ahal izan duen bezala garbitu ditu mintzairari buruzko buru-haustekak. Erabili duen euskerak, oso aberatsa eta jatorra izan arren, ba du tarteka gordin-kutsua. Eta norbaitek berehala gogoraziko digu. Sagardotegiko kutsu «jator»ez, ordea, nola marxismoaz edo filosofiaz hitzegin? Euskera gaitu eta gaurkotu behar bada, nekez lor daiteke berrikuntza hori... «berri» kutsurik gabe, eta Mari-Xukalderen euskera soil-soilez...

Zorionak, Joxe. Eta anitz esker euskaldun guzien ize-nean.

(1971)

IDAHO-KO EUSKALDUNEKIN

Snake River-aren hildotik eta lurralde idorretan barrena joan ondoren, gure Boeing 727-ak Ekainaren 1-goan Boise-ko aideportuko lurra ikutu zuenean, eta leihatilatik hangar batetan «Idaho» hitza irakurri genuenean, halako zirrara harrigarri batek astindu zuen gure bihotza: Idaho! (= «àida-ho» esan behar). Ba genekien, euskaldun guztiek dakiten bezalatsu, aspaldidanik jo izaten dutela hara gure artzainek eta baserritarrek; baina, besterik ba ote genekien zehatz? Ezetz erantzun beharko.

Aurten ba zegoen Idahon orain arte sekulan egina ez zena: euskal folklozez oratutako jai eder bat; eta euskaldun jendetza gaitza espero zen Boise-n egun horietarako. Eta halaxe gertatu zen: igandean batez ere, Ekainaren 4-an, leku guztietatikako euskaldunak bildu ziren hara milaka: Idaho guztitik, Coloradotik, Nevadatik, Oregondik, Californiatik, Mexikotik beretik gure hiru adiskide: ehunka eta milaka kilometro eginda, han ziren gure anaiak, alai eta zalapartatsu, txapelak zabal, euskal itxura ezin ukatua. 50.000 bizi dira gaur Idahon, Nevadan eta Californian; beste milaka batzu gainerakoetan. Boisen bertan (Idaho-ko hiri-

buruan) bost bat mila.

Euskaldun puntuzko bat Boisen

Pizkunde honen sustraian, besteak beste, gizon isil apal bat: Pete Zenarruza. Idahon sortua (Sun Valley-n haren aita eta ama agurtzeko ohorea izan dugu: 1907-an Bizkaitik joanak-), gaur 54 urte, artzain ibilia, bizkaieraz lasai hitzegteteko gauza, Zenarruza jauna Idaho-ko Erresumako «Secretary of State» (alegia, Erresumako gobernaria edo, nolapait esateko); eta hango euskaldunen buruzagia da. Euskaldun jator gisa hitz gutxitako eta espantuen etsai, daukan postu gorenetik saiaturen ari da, eta lortzen, Idahoko jendea elkartzen eta esnatzen. Hegazkilari trebe bikaina (geronek izan dugu froga eder bat Stanley Valley-ra eta Sun Valley-ra bere hegazkintxo horian eraman gaitularik), gudu-garaian hegazkilarien erakasle izana, miloi bat mila eginak ditu hegaz. Zenarruzak, beraz, bere hegazkina hartzea eta guk bizikleta hartzea... hor nunbait!

Gure zai zegoen Zenarruza aideportuan; eta elkarrekin trukatu genituen lehenengo hitzak euskaraz izan ziren. Aideportuan zeuden bizkaitar andere batzu memento hartan; eta euskaraz entzun gintuztelarik, bero-bero eta besterik gabe musuz bete gintuzten. Hizkuntzak ematen duen ahaidetasuna ez baita hutsaren hurrena!

Jaia

Jaiak berak bi egunez iraun du; baina ostiralean bertan (Ekainaren 2-an) ba zegoen lehendabiziko dantza eta kantsaio bat. Miren Eguzkiñe Azaolak eraman zigun, gitarra eskuan eta edertasuna begitartean, kantu berriaren zantzua. Ikusgarrien aurkezpena ingelesez egin zen osoki; eta xehe-tasun honek eman zigun erdararen arrotzasunaren neurri egoki bat. Inglesez euskal festa batetan?

Igandean euskarazko meza eman zen belardian. Aldarea eta banderak eguzki dirdaitsuak argiturik, ba zeukan ikuskari harek sekula ahaztuko ez dugun kutsua. Han bizi den Aita Garatea mintzatu zitzaigun jator eta ausarki; eta Aita Etxebarriaren zuzendaritzapean entzun ziren bazter haietan gure euskal kanturik ezagunenak.

Itzalean ari izan diren langileak

Hori guztia lortzeko, barruki gaitz hartako erakustokiak eraikitzeko, folklore-saioak prestatzeko, jendea biltzeko, karraskan lan-egin behar izan da. Eta gisa da izen batzu agerraraztea.

Joe Eiguren ezagutu dugu: egun hauetantxe emana zuen argitara, ingelesez, Euskal Herriari buruzko bere liburu berria. Eigurenek ematen ditu bestalde han euskarazko eskolak. Berriki emaztea galduta, Eiguren-ek hartu gintuen hasera-haseratik adiskide antzean, baita Lekeitioko doinua galanki eman ere.

Lehenagotik ere ezaguna (orain dela bi urte Euskal Herrian izana) eta Zenarruzaren eta Eigurenen laguntzaile zintzo, Mirenek harrera bihozkorra eman zigun eta festaren eraikieran laguntza aparta eskaini.

Beste antolatzaile bat, euskaltzale gartsua: Diana Urresti («Dáiana», hangoen modura esateko). Andereño izateko errabian, eta euskaraz horretarako hobeki ez jakiteko nardatua, Dianak txalo jotzea merezi du.

Julius Bilbao aipa dezadan ondoan: euskaraz gutxi jakin arren, euskaltzale fina da eta nortasun handikoa. Honen aita ere ezagutu dugu, Cascaden duen ostatuan, Boiseko Iparraldean. Bai aitarengan bai semearengan Bizkaiko garrax eman dugu fin.

Euskaltzale gartsuak ere Erkiaga, Beristain eta Hormatetxea adiskideak, azkeneko hau Boise-ko Euskal Etxeko buru.

Denoi hemendik, lerro hauen bidez, gure zorion-opa eta eskerrik beroenak.

Bi euskal irrati

Eskualde urrun haietan, igandero entzun daiteke euskara irratian, eta luzaz. Eta irrati-sail horien buruzagi eta sustatzaile, bi bizkaitar jator. (Bidenabar esan dezadan: Idaho-ko euskaldunak bizkaitarrak dira % 99-tan... gutxienez!)

Boise-koan andere bat Espe Alegria; eta Elko-koan (Nevadan hau, beraz) Lopategi, bertsoariaren anaia. Biek egiten dute lan hori ia inoren laguntzarik gabe. Biek erre-

zebitu gaituzte ezin hobeki, baita antena eskaini ere.

Bioi hemendik, txalo eta mila esker anitz.

Euskaldunak? Amerikarrak?

Ia berezkuntzarik gabe, hau da Idahon aurkitu dugun gertakari-legea.

Lehenengo belaunean, jatorriz Bizkaiko baserritar, euskaldun hutsak eta bihotza Euskal Herrian, baina heziketarik ez; inglesa ezagutu ez, edo gaizki, eta bizimodu garratza eta zaila «ranch» bakarti urrunetan.

Bigarren belaunean, euskara etxean ikasia eta inglesa kanpoan, Idaho-ko euskaldun mordo hau euskaldun dago oraindik; baina ez du Euskal Herrira itzultzeko gogorik erakusten. Ameriketako euskaldunena da. Bizimodu errazagoa izanik (edo guztiz erraza askotan!) belaun honek euskal garra ba du, baina oinak han finkaturik.

Hirugarren belaunean, berriz, euskara galdua da (ez beti halere: hirugarren belauneko euskaldun batzu ezagutu ditugu). Eta hemen biketa bat egin behar. Alde batetik, batzu, gehienak, errotik amerikartuak; baina beste batzu, gutxi izanik ere, Euskal Herriarekiko grina azkar batek eraginak, euskaldun sustraitzeko amorroan, baita Euskal Herrira etortzeko gogo nabarmenak eraginak dira.

Bizimoldeaz bi hitz

Boise-ko bizimoduak atsegin ematen du. Boise ez da Chicago, Los Angeles edo New York. Boisek 80.000 biztanle ditu; eta hiri baketsua da. Jendea ez da apartamentutan bizi, kilometrotan barrena sakabanaturik dauden etxetxo eta xaletetan baizik. Ezagutu ditugun euskaldunek etxe eder-rak dituzte, askotan, bizpahiru kotxe eder, errediza eta apaindura bikainak; eta, hitz batez, ekonomiaren aldetik, amerikar bizi-maila erosoan bide daude. Honen ondorioak ezagun dira pentsakeran.

Boisen ez da beltzik ageri. Indio bakan batzu (ez baita oso urrun, Hegoaldetik, Owyhee-ko «erreserba»); baita españolez mintzo diren «chicano» batzu: beren kaseta iraul-tzailea kalean saltzen ari zen horietako batekin buruz buru hitzegiteko aukera izan genuen Boisen bertan.

Elko-n, Boise-tik, 400 Km. tara, gipuzkoar batzu eza-

gutu genituen, Elko ez baita Idaho; eta hango joko-grinak eta kabaretismoak harrituta utzi gintuzten. Baina Nevada ez da Idaho; eta Nevadan hori guztia libro da, prostituzioa eta dibortzioa bezala. Elko herri txikia da: 8.000 biztanle; eta hauetako mila bat euskaldunak.

Datorren urtean bi ikastola «Far West»en

Bai jaunak: hauxe da asmoa. San Franciscon zabalduko bide da bat; eta Boise, Miren Rementeria andereño delarik, beste bat. Udara honetantxe izango dira horretarako harremanak, hain zuzen, gauzak zehatz jartzeko. Bi ikastola hauek «Seaska» deritzan ikastola-elkartearen menpean ibiliko dira.

Eta Boisen neronek ikusi dudanez ba daude beste bi andere, gutxienez, ikastola bana beren gain hartzeko gertu.

Geroak erranen...

Egun hauetan dator, Jon Bilbao erakaslearekin, Reno-ko eta Boise-ko ikasle mordo bat, hirugarren belaunekoa. Zertara? Euskarā ikastera, Euskal Herria ezagutzera, gurekin anaitasunezko lotura egitera. Uztaritzen eta Arantzazun izango ditugu Uztailan eta Abuztuan.

Egingo ahal diegu merezi duten harrera!

(1972)

GARAZI-N GAINDI

Ez ditugu euskaldunok geure eskualdeak eta zoko politak ongi ezagutu ohi. Eta akats horren lekuko, ene ustez, Garaziko Doniane (Do-nia-ne diote, bai, garaztarrek, hiru abotsalditan) gure artean ezagunago eta goraipatuago ez izatea. Donibane Garazi da, ordea, bere harresi eder eta zahar-kutsu zoragarriarengatik, Iparraldean dugun herririk miresgarriena.

Donibane Garazi, bi mila biztanle eskas, gure herri-patuaren sinbolo bera izan liteke. Ezen agian Donibane Garazi gure herriak betidanik jasan duen ukaeraren eredutzat jar baitaiteke.

Inon baino nabarmenkiago, nik uste, Donibane Garazin agertzen zaigu kondairan barrena etxen arrotz izatea zer den. Hizkuntzaren mailan bertako izanaren ukaera oso horrek badu izen berezi bat: izkutuan datzan hizkuntzari «lengua latente» esaten zaio; eta Mitxelenak, euskarari buruz idatzi duelarik, hizkuntza-egoera bitxi hori aipatua du. Hueska-ko Iparraldean, esate baterako, gure hizkuntzalariak azaldu duene, euskara izan da mendeetan barrena bertako «lengua latente» delakoa; alegia, dokumentoetan eta legean aipatu

ere egiten ez den hizkuntza izkutu ukatua.

Zeharka bakarrik jakin daiteke kaso horietan bertako egiazko mintzaira beste bat dela; eta horrela jakin dezakegu gaur. Aierbe-Jaka-Hueska eskualdeari dagokionez, han eta hemen nekez bildu ditugun frogakariei esker (Goihenetxek eta Lakarrak ezagutarazi dituzten dokumento-kondarrak, Oihenartek XVIII mendean bildu zituen gaitzizen mordoak, toponimia xehearen azterketak) bertako herria oso berandu arte euskalduna izan dela. Euskalduntasun hori ukatua zen arras, geure desirarik sakonenak, gizartean bizi-beharrez, arras ere zokoratzen eta izkututzen ditugun bezalatsu.

Nafarroan bertan hori gertatu da askotan; eta gaur bertan ere gertatzen ari da. Irigarai-ren ikertzapenek, eta orainago Latsaga-ren artikulu bikainek, «Montaña»ko berri ekarriz, herri «latente» (alegia, herri gorde izkutu isilarazi) horren lekukotasuna eman digute behin eta berriz. Baina aurreko mendeetan ez genuen tankera horretako Latsagarik ez Irigarairik izan; eta orain ezin egin somatu eta antzeman besterik.

Donibane Garazin, udan batez ere, isilik datzan herri «latente» gorde horren zantzua nekez somatzen da. «Saint Jean Pied de Port» irakurtzen da paneletan, baina bertakoek Donibane Garazi diote; «La Nive» irakurtzen dugu, baina bertakoek Errobi deritzate ibai horri; «Saint Jean le Vieux» irakurtzen, baina bertakoek Donazarre esaten; eta «Roncevaux» idatzen dena, han Orreaga esaten da.

Izan ere, «Pied de Port» hitzak, «Pied du Port de Roncevaux» dira beren osotasunean; Donibane Garazi Orreaga-ren azpian baitago. Donibane Garazi, hain zuzen, eta Orreaga, Oñati eta Arantzazu bezalatsu daude elkarrekiko: alegia, beherako herria batetik eta goiko komentu famatua bestetik. Urteagain-en, ordea, oraingoz bederen, ez dago Luzaide-Arnegi-ko mugarik. Baina «Pied de Port» abstraktoa da; eta halako batez beharbada Oñate «San Prudencio del Puerto» bihurtuko da; eta Urrexola, Luzaide.

Gorderik datza ere, era berean, Donibane-ren nafartasuna. Murru gaitz zahar haien ondoan, egia da, eta euskaldun eta frantses banderen aldamenean, Nafarroa-ko bandera gorria ageri da. Ostatueta eta dendetan «Navarre» hitza ageri da maiz (ez sekula ere Baxenabarre, ez Nafarroa Behe-

re, dena dela); eta bazkaldegi bateko ate-kirtenetan Nafarroa-ko kateak hautatu dira apaingarriztat.

Hori guztia zerbait ba dela, ezin uka. Eskos-en, gonbarazio batez, Donibane Garazitik 50 bat kilometrotara Iparralderuntz, ez dago horrelako nafar arrastorik, ez euskaldunik; nahiz Eskos-en XIX mendean euskara mintzatua izan bada ere. Donibane Garazi baino aisa abstraktoago bihurtu da Eskos; eta izoki-arrantzaren txapelketengatik ez bada, ozta ezagutzen du gaur inork.

Hau guztia aipatzen nion lehengoan garaztar sutsu eta kantari ezaguna den Eñaut Etxamendiri; eta erantzunak neure horretan sendotu ninduen: «Denek zekitek hemen euskaraz; baina ez ditek egiten, egia duk. Astelehenetan eta ostegunetan, ordea, inguruko baserritarrak azokara jesten direlarik, denak mintzo zaizkiek euskaraz». Hori jakinda nekez kontsola ninteke.

Frantses turista ikaratuko ez duten euskal bixigarri batzu ez dira falta. Hori ez. Anitz dendatan «linge basque» saltzen da, eta hamaika turistak erosten eta jazten du txapel gorria edo berdea: «on est en Pays Basque». Baigorri-rako bidean letrero handi bat ageri da: «Ongui Ethorri»; eta lora-tegi batetan, landarez idatzirik, «Donibane Garazi» hitzak.

Lasa-ko dantzari-taldea ikusi dugu igandean kaleetan barrena; eta Zuberoa-ko maxkaradak etorri zaizkit gogora (nik maxkaradak nahiago, bidenabar esateko).

Avignon-go garaian (1383-1417) apezpiku heterodotsoen bizilekua izan zen etxetik ez urrun, beste etxe harrigarri eta zahar bat ikus daiteke, adrilu gorritz eraikia; eta atalburuan hau irakurtzen da: «Año 1510». «Año», bai, ez «an», ez «anno», ez «urte»: «año» españolez. Orduan Nafarroa libro zen oraino erreinu gisa, baina gaztelera zen lege-hizkuntza. Orduan ere Garaziko herria ukatua zen. Eta pentsakor gelditu naiz atalburuari so: orduan ere bai!

1512-ez geroztik Garazi berezi egin zen Iruñetik, Seigarren Merindade osoa bezala; eta Iparraldeko nafarrak ebakita gelditu ziren Añamendian. 1527-tik 1772-ra arte, bi mende t'erdiz beraz, bi partetan egon zen Nafarroa: bi Gorte, bi hiriburu; baina beti Iruñe amets Iparraldean. Eta hauxe harrigarriena, beharbada: Baxenabarren, ohiturari jarraituz, eta beti ere Iruñeko Forua oinarri, bere Juntak

Donapaleura eta Donibane Garazira biltzen zirelarik, Juntarako dei-txartelak, 1772-ra arte ongi diot, gazteleraz idazten ziren, eta hitz hauetaz hasten: «Al muy magnífico señor de...» Juntetako eztabaidak euskaraz egiten ziren (juntero izateko euskaraz jakin behar zen Baxenabarren); baina legea gazteleraz erabiltzen zen, eta erabakiak erdaraz biltzen. Hori guztia horrelaxe 1772-ra arte, eta Ahuñemendiko Pake famatua egin ondoren ere!

Donibaneko inguruak, zoragarri: Baigorri, Ortzaize, Lekunberri, Mendibe. Ikusgarri benetan Behorlegi herriska garaia; Hozta-rekin batera Baxenabarren ezagutzen dudan arkaikoena. Eskualdea zinez ederra; eta mendiek osatzen duten inguramendua, aparta.

Behorlegi-tik jestean berriz gertatu naiz pentsakor: Mendibe! Gizajoak haiek ere! Bi urtez egon ziren han zai, egunero zai, beti zai; eta zai hartan euskaraz kantatzen zuten maiz Mendiben eta Azkainen. Eta azkenean etxera bihurtzeko agindu zitzaien; eta obeditu egin zuten. Eta arras nardaturik, eta etxera bihurtzerik ez zedukatelako, sakabatu ere egin ziren munduan zehar. Eta orain ez dute gogoratu ere nahi Mendibeko urte pare hura. Hogeita-lau urte igaro dira geroztik, eta dena ahantzi da. Eta Mendibe-Lekunberriko bazterrak isilik dautza geroztik.

Noizean behin bakarrik gazte mordoak handik pasatzen. Baina gaurko hauek beste helbururik dute bihotzean; eta Charles Iriart-en bulegora doaz, Ameriketarako txartela eroatera. Eta denok dakigu Behorlegiko tontor ederrak ez dituela inoiz birrikusiko.

(1972)

BARKOXETIK

«Zübü bat trebesa zazie, eta kotan goiti Etxahunia düzie barreiatürrik». Ziberutar doinu azkarrez eta laister esana, horrelako zerbait azaldu zaigu. Urrunsko utzia dugu Barkoxe. «Bürgia» hauzunetik Mendebalderuntz abiaturik, bide baketsu batetik goaz Arhañe-ko Kaperaren aldera («Chapelle de la Madeleine» omen). Baserriak ugari dira, eta ez dirudite hutsik.

Etxahunia nun den bi aldiz galdetu dugu; eta erantzule izan diren bi baserritarrek, bi leku desberdinetan, argi-etagarbi azaldu digute Etxahunia-ren aztarnak nun ikus daitezken. 1862-an hil zen Etxahun; baina Etxahunen oroitza-pena ez da bazter haietan galdu.

Eta zubitxoia «trebesatu», beraz, eta aldapa batetan, ezkerretan, hari xitroduneko hesi batez inguraturik eta belar gaistoeak ausarki erasorik, hantxe dautzaz, bai, isilik, ia estalirik, Etxahunia izandakoaren murru hondakinak. Atalburuan fetxa harrigarri bat: «1863». Etxahun bera 1862-an hil zen. Zergatik 1863, hortaz? Haritxeharrek berak ez du garbiki esan. Eta xehetasun honetan ere Etxahunen zoritxar eta madrikazio etengabeen atal bat ikusi beharra

bide dago: Etxahun hil ondoan eraikia Etxahunia...

Bazterretako isiltasun guztizko hura azaldu ezinezkoa iruditu zait. Hiruzpalau kilometrotara, beherean —eta ez Larrasketak zion zazpi-zortzitara— Barkoxeko baserriak somatzen dira. Anitz munok, hemen eta han jauzkari, xarma harrigarria kutsatzen dio hango ikuspegiari. Belardi gizen zabalak zuhaitz ilarek inguratzen eta ebakitzen dituzte, Kanbillu-ko mazelak nabartuz. Etxeek, kabia ilunen antzera patarretan kokaturik, arbelezko teilatuak erakusten dituzte; Barkoxeko eskualdeari, Urzari, Aspe eta Baretus-ko ibarrei bezala, bere doi jator berezia erantsiz.

Eta ni neure golgorako mintzo: «...bazter zerutar hauetan, ordea, odolez oratu da, eta oinazetan berriztatu, gizonaren paturik zaharrena eta trajeriarik mingarriena: Pierre Topet olerkariak maite zuen emakumea besteri utzi behar, eta bestek maite zuen emaztea berriz, laido eta atsebake iturri izanagatik ere, berak jasan behar etxen...» Egoera arrunta, omen; jasan-beharra eta hil-beharra ere giza-egoea arruntak diren moduan.

Etxahunia zaharrakatuta dago, «barreiatuta»: Etxahunen bizia bezain zoritxarreko gertatu da Etxahunia-ren segida: ijituen babesleku izan ondoren, gaur... osinaga! Eta ni beldur batzutan, askotan, gehiegitan omen, Topet eta Etxahunia bera ez ote diren Zuberoaren eta Euskal Herriaren suntsieraren zantzu mingotsa. Ezen Etxahuniaren inguruetan Arhañe, Madeleine bihurtu baita; Ustasu, Geüs; Uhatzandi, Saison; Isuazi, Eysus; Ürrüstoi, Arrast; Iñhasi, Féas; eta Berorize, Montory... Eta neronek frogatu dudanez, Berorize nun den gaur nehork ez daki.

Etxahuniatik aurrera aldapa gogortu egiten da. Handik metro gutxitara 1834-ko fetxa daraman baserri eder baten aztarnak ageri dira, erdizka mandio gisa erabiliak. Harri horiek ere Etxahunen lekuko izan ziren.

Erretzu eta Madalena-ren artetik joaki liluragarria da benetan Atharratze-rako bidea. Ezker aldean, basa eta gogor, gailur zorrotzez egina, Ahuñemendiko katea ageri; eta beherean, sakabanaturik, arbel beltzezko baserri harrigarriak.

Ez dio zorrik, halere, ene ustez, behereko bideak; ale-

gia, Barkoxetik hasi, eta Berorize-tik Atharratze-ra doana. Bihurgune itzaltsu batetan, Baretus-ko mugan, Landa-rako bidarte ahantzia ikus daiteke. Tarteka, beti ilun, beti isil, beti arbel beltza estalgarri, baserri arkaiko bat. Noiz edo behin, bigotea trinko, baserritar bat lanean ari. Aspaldiko euskal usaina aditu nahi dutenei ez zaizkie Josibaiko 14 Km. bakarti horietan barrena ibili izanak damutuko.

Bazterriak ederrak dira, bai.

Baina Haritzelharrek berak bere liburu bikainean azaltzen duenez, ahoz-aho eta bertsoetan guganaino heldu den oroitzapena, oraintsu ahitu da. Zergatik ahitu, bada? Barkoxtar eta zuberotar gazteak euskara zeharo baztertzen ari direlako. Adineko jendeak, hau egia da, euskaraz ari dira beren artean. Baina gazteak frantsesez. Barkoxe, Es-kiula, Atharratze, Maule, eta Etxahunek orain dela ehun bat urte osoki euskaldun ezagutu zituen herriak, kaskointzen ari dira. Euskara, bere horretan, traba zaie zuberotarrei; eta ez mintzabide. Ez jakintzaren tresna, eta ez jakintza-bide. Are gutxiago irabazpide. Eta zuberotarrek euskara ahaztutzea erabaki dute.

Etxahunen bertso apartak, horrela, belaunik belaun zuberotarren pozgarri izan ondoren, gaur liburuetan bildurik irakur daitezke, baina nekez Barkoxeko edo Atharratzeko gazteen ahotan; gazte jendeak ez baititu... konprenitzen! Etxahun arrotz ari da gertatzen bere sorterrian; eta Etxahuniaren hondakinak, horretara, suntsitu zen herri baten lekuko gerta daitezke laister bakardade zoragarri hartan.

Suntsiera-kutsu bera hartzen ari dira Bürgüko kape-ran, harrizko atalburuan, irakur daitekean oroitarri hau: «Barkocheko Mariaren Concepcione thonagabiari cholera denboran bere sokhorriçaliari. 1855.» Itzaldutako herri baten aztarna huts laister? Nork konprenituko?

Zer diot, ordea, «konprenituko»? Ezta ikusiko ere atalburu hori! Basaburuan (= Zuberoa Garaian) 1940-tik 1950-ra arte jaio direnen artean, bertan bizi ezinik, %82-ek egin diote alde Zuberoari.

Barkoxe, beraz, arrotzu egiten ari da; baina baita hustu ere. Zuberoa guztian, 18.000 lagun bizi dira gaur. Pro-bentzia oso bat izana, gaur Euskal Herria-ren % 0,73

bihurturik!

Lizeoan muntatua, Atharratzeko Erakusketa ikusgarriak ematen du dato hori; eta beste mila horrelako ere bai. Nekez soma ditzakete horrelako arazoak Bizkaiko Mendebaldean bizi direnek. Zuberoako kezka nagusia, ordea, BAZTERREN HUSTUTZEA da: zuberotar jendaketa behera doa aspaldi honetan, guztiz behera; eta baserriak «résidence secondaire» bihurtzen hasi dira. Nor erosle? Zuberotarrak berak? Ez horixe. Zuberoa, horrela, kanpotarren ehize-leku eta bakantza-eskualde HUTS ari da bihurtzen. Eta Zuberoako Sindikato berrian, horretara, herrialdearen salmenta horren kontra jokatu nahi da ausarki. Aurkariak gutxi dira oraindik; baina gaur arte inor ez. Zuberoan turismoa izan baita hitz majikoa.

Nola eutsi? Nekez. Diru-bahiturak lortzeko 26 hektarea izan behar dira (ez baita gutxi). Hitz batez: baserriarrik ahulenek ez dadukate diru-laguntza lortzerik. Aski dute, dio Atharratzeko Erakusketak, jendarme egin, eta etxetik uxatu duten sistema defenditu...

Bizimodua zailegi da; eta emakumeek ez dute mendira ezkondu nahi. 59 artzain bizi dira Basaburuan mutilzar, ezin ezkonduarik, eta goiko alderdietako bakardade garratz hotezcan bakarrik burrukan ari.

«Lanak gütü biziasten
lanak gütü hilazten»

irakurri dugu (behin bederen euskaraz) Atharratzeko Erakusketan. Eta segidan: «Les écoles de nos villages, non rentables, sont fermées... donc obligation pour les parents d'envoyer le enfants hors de leur village.» Eskolak hesten ari; negu minean ere haurrak urrutiraino bidali behar.

Mauleko treina kendua izan da. Oloroe-Atharratze autobus-lotura kendua ere bai. Kotxerik ez dutenek zer egingo? Hanka. «La montagne est belle... lorsqu'il ne faut pas y vivre»: mendia ederra da... bertan bizi behar ez delarik.

Zuberoa txikia da. Baina zuberotarren bihotzak asaldatzen hasi dira.

Alde batetik, ekonomiaz batez ere arduraturik, G.E.D.S. taldea sortu da Atharratzen; eta argitaratzen duen «Jaiki» kaseta, doharik zabaldua, gogorra da, ausarta, egiatia (eta

%-100-can frantsesez idatzia, dena esateko). Honen eragina Zuberoako Sindikatoan hasi da nabaritzen: turismokeriaren kontra, Iratiko xaleta-mordoaren kontra, Duboscq deputatuaren kontra.

Erdalkuntzari buruz ere, garrasi zorrotzak entzuten hasi dira. Mauleko «Le Miroir de la Soule» kasetan (1972-VIII - 12-ko banakoan), Zuzendaria den Pierre Udoy-k izenpeturik, egiazko deihadar bat agertu da «euskara salbatzeko». Udoy-k, ohar batzu egin ondoren, honela dio: «Pour sauver le basque. il faut entreprendre une tâche impossible: CHANGER LES ESPRITS.»

Eta izpirituak aldatzen hasiak dira, ez da dudarik. Arhañeko kaperako paretetan ikusi dugu. Eta Garindainen agertu da ere, ozenki, Abuztuaren 14-an Euskal Kantuaren festan. Frontoin berria gainezka; eta entzuleria, gaztez osatua, ezin beroago: 1.700 lagun! Gauza bertsua Ligin, hemen-txe azaldu nuenez, orain dela aste batzu. Eta kantua ez da beti gexa:

«Basabürían Montori,
han bazen jaun bat beillari...»

Bost kordatako zuberotar «tanbuia» ez da gaur Zuberoran erabiltzen. Urzarin (Ossau-n) bai, ordea. Biarnon, beraz. Tradizino-mota hori galdua da.

Garindainen somatzen denak ekarriko ahal digu uzta hoberik!

(1972)

ONGI-ETORRIA OZKABARTE-RI

Ba genekien (edo jakin egin behar baderen) Najera gaur egun Errioja-ko herri, Nafarroa-ko hiriburu izana dela.

Ba genekien ere (edo jakin egin behar bederen) 1235 aldean, Erriojatarrek tribunaletan euskaraz hitzegiteko eskubideaz Gaztelako «merino» delakoak (kanpotikako gobernari berriak), kasorik egin ez; eta erdaraz hitz eragin nahi izan zuelako, Ojakastro-ko alkateak preso altxatu zuela.

Ba genekien (edo jakin egin behar bederen) J. B. Merino Urrutia-ren eta besteren lan jakingarrien berri: orain dela hamabi urte argitara zuen honen guztiaren bilduma mamitsu bat Auñamendi Sortak, 14 gna.

Betidanik harritzen gintuen euskaldunok Errioja-ko leku-izenen lerrokada azkengabeak: aspaldiko Karagorri (erd. Calahorra), Karakarre-ren kide itxuraz (erd. Cárcar); eta Grakurri (erd. Alfaro). Eta karta bat begiratu hutsaz hauek ikusten genituen segidan: Ezkarai, Aiabarrena, Herramelluri, Otxanduri, Ollauri, Leiba, Sajazarra, Zihuri, Bizkarain, Angiano (nor ez oroituko Bergara-ko Angiozar-ez?), Arizeta-ko Birjina (erd. V. del Robledo), Leza hibaia, Isasa

mendia, eta beste anitz eta anitz. Euskal izenen eta aztarren jario oparoak gudan mukurru eginik, sinespera jartzen ginen.

Hori guztia, eta are askoz gehiago jakinik ere, «La Rioja desde sus albores» liburua irakurri eta ikusita, txunditurik gelditu gara. Gil del Río jaunaren liburuaz hauta dai-tekean hitzik egokiena hauxe bailitzake, nik uste: harridura. Erriojaren euskaltasunak harritu egiten gaitu.

Zergatik harritzen? Gil del Río-ren liburuak mindu eta zauritu ere egiten bide gaitu geure barne-muinetan; eta geure ez-jakinak estali izan digun euskal eskualde ahan-tziarekiko damua bizi-bizi sendi-arazten. Ulertu eta sinetsi ez-ezik, azkarki senditzen dugu oraingoan. Ikutu ere egiten bide dugu Santo Domingo de la Calzada delakoa zinez dela Ozkabarte, eta gaur arte egia izkutatu zaigula. Liburuko foto ederrek kutsu berbera uzten digute. Eta idazlearen luma-bihozkadak gure bihozkada bihurtzen dira.

Aspaldian Merino Urrutiak hasitako azterketak, diru-dienez, askoz aurrerago eramango gaitu urteen buruan: Errioja, jakintsuen hausnarketaren mailan aurrenik, gisa denez, eta herriaren sendimenduarenean gero, Araba, La-purdi edo Bizkaiaren anaia egiazko bihur daiteke.

Folkloreaz, pilotaz, akelarreez, eta anitz ohitura zaharrez zer esanik ez dago: Erriojak euskaldun aurpegia du osoki. Eta izana ere bai: XVI mendean galdu zen euskara Errioja-ko Mendebaldean. Askoz ere beranduago, hortaz, Bizkaiko, Arabako eta Nafarroako herrialde batzutan baino.

Oinarriak findu beharra dago, ordea. Euskal izenen mailan ba dago zer eginik. Eta ez Erriojan bakarrik.

Lehen-lehenik Rioja-ren izenaz beraz. Ezen Rioja hori «Río Oja» balitz (sineskaitza erdarakada hori aspaldiko mendeetan!), ulertu ezina bailitzake «La Rioja» esatea, eta ez «El Rioja». Badirudi, beraz. «Larrioja» hitza azaldu behar dela, osoan hartua; Elorrio azaldu behar den bezala, eta ez zenbait aldiz irakurri den «El Orrio»: Puente-Larraina (= Larrainzubi Gares), eta ez Puente la Reina; Casa-Larraina, eta ez Casa la Reina; Labarrieta (= Olabarrieta), eta ez Las Barrietas; eta abar. Hor ditugu-ta Larrañaga, Larrainzar, Olabarrieta, Elhorriaga,... La Reinosa, era be-rean, Larrainosa-tik bilatu behar litzake ene ustez.

Rioja, era berean, «Larrioja» hitz osotik azaldu behar (gauza bera Larrun, frantsesez La Rhûne!). Hots, antzinako Barolhak (eta dokumentuetan agertzen den forma zaharra «lh»-z idatzita dator, mari-xukaldeen euskararen mailatik irten diren guztiek dakiten bezala) Baroja eman badu, antzinako Zubilhanak Subijana, eta Urbillanak Ormijana, Larrioja hori LARREOLHA-k emana duke. Hain zuzen ere, Iparraldean badago La Réole izeneko herri bat, Garona hibiariaren hegian.

Baina leku-izenen azterketa hori ez da gaurko gure arazoa. Hizkuntzalariek garbitu beharko dute, jakintzaren mailan eta hizkuntzaren zientziari dagozkion frogabideak baliatuz.

Toponimiaren maila horretan geldituko ote da, ordea, Errioja-ren arazoa? Horrela balitz, zer axola guri orain dela lau, bost edo zazpi mende Erriojan gertatzen edo mintzatzen zena? Aspaldiko kontuak!

Hots, irakurleak dakikean lurgorrian etzanda Gil del Río-ren liburua irakurtzen ari nintzelarik, «Información Comercial Española» aldizkaria hartu nuen (467-468 banako bikoitza); eta teknokraten izenpuruan hau irakurri nuen: «Hacia una nueva región vasca.» Zenbait ekonomistaren lan-bilduma gotor hau, datoz josia, Madrilleko Unibertsitatean erakasle dagoen Saenz de Buruaga erriojatarrek prestatu du; eta bildumaren ideia nagusitzat hau ageri da geroari buruz: «La adscripción de la Rioja al área vasconavarra.» Egia esateko, dio S. Buruagak, proposatzen den Euskal Herri «berri» hori ez da, izan, Euskal Herri zaharra baizik, Antso Handiaren Nafarroa zabala alegia. Errioja, dio gutxi-gora-behera, Euskal Herriko atal bat da; baina «sus raíces vasconas fueron más rápidamente romanizadas». Errioja-tikako ikuspegia Nafarroa eta Euskal Herria izan ziren antzina; eta ondoko urteetan Nafarroa eta Euskal Herria izango dira.

Aspaldiko kontuak, horrela, BIHARKO kontu bihurtzen ari dira; eta Erriojako ekonomilariak hartzen bide dute kondairagileen segida. Geografiak, Kondairak, Folkloreak, Ekonomiak, eta... erriojatarren beren nahiak, bat eginik, Santo Domingo de la Calzada Ozkabarte izan zela eta Ozkabarte izango dela gogorazten digute.

Ate joka ari dira Hegoaldean. Dei hau, bestalde, ez dugu lehenengo aldiz entzuten.

Jakingo ahal dugu aditzen, lelo hertsu batzu baztertzan, eta urrikirik gabe ukatutako anaia etxen onartzen!

(1972)

AZTERKETA BILDURGARRI BAT LAPURDIRI BURUZ

Pierre Laborde jauna Geografi-erakasle dago Bordaleko Unibertsitatean; eta, bestetan ere ikutua duen ikergaiari ekinez, lan bikain bat eskaini digu berriro. (Ikus «L'appropriation foncière des Parisiens dans une région de villégiature: la Côte Basque française» / Revue Géographique des Pyrénées, tome 41, 1970.)

Pierre Labordek 30 herriren ikerketa egin du. Itsasertza duten herriak daude batetik (Angelu, Miarritze, Getharia, Donibane, Ziburu, Urruña eta Hendaia); eta ia-ia Lapurdiko gainerako guztiak (Baionatik hasi, eta Lehontza, Mugerra, Jatsu, Halsu, Kanbo eta Itsasu-raino). Beraskoitze, Urketa, Luhosoa eta Hazparne, esate baterako, ez ditu bere azterketan sartu; baina, gutxi gora-behera, egin duen azterketa Lapurdiko egoerari buruzko azterketatzat har daiteke.

Beste ohar bat: Labordek **Paristarren** eragina bilatu du bereziki; eta oso zehaztasun gutxi ematen du beste hirieta-koaz. Zerbait eman du, halere; eta eman duen apur horrek argi handia ematen du Paristarrei buruz diona, zabalera handiagoaz ikusteko.

2.580 paristar ondasun-jabe aurkitu ditu Labordek La-

purdin. Horietatik 109-k, 60.000 m² baino lurralde zabalagoak dituzte.

Hona hemen Paristar jabeen **kopuruaren** arabera ilaran jarriak ondasun horien gorabeherak:

	Paristar jabeen kopurua
1 — Miarritze	601 jabe
2 — Angelu	403
3 — Donibane	375
4 — Hendaia	185
5 — Baiona	170
6 — Bidarte	169
7 — Ziburu	151
8 — Urruñia	115

Paristarron ondasunen **zabaleraren** arabera, berriz:

	Paristarren eskuetako zabalera
1 — Urruñan	4.880.000 m ²
2 — Ziburun	3.110.000
3 — Donibanen	2.600.000
4 — Bidarten	1.380.000
5 — Angelun	1.310.000
6 — Miarritzen	950.000
7 — Baionan	680.000
8 — Hendaian	300.000

Baserri asko duten herrietan, antzinako euskal foruen joerak geldiarazi du aldakuntza. Urruñak, esate baterako, Donibaneren eta Hendaiaeren artean, herriaren beraren eskuetan atxiki ditu bere lurralderik gehienak jabego «komunal» gisa: bi heren gutxi gora-behera. Baina hiritartuago dauden herrietan (kostaldekoetan batez ere) izpiritu hori galduago da, lurraldeak pribatu bihurtu dira (herriarenak izan beharrean), eta deskalabroa aurrerago joan da. Ziburun batez ere.

1 — Ziburu	%	41,1	paristarren eskuetan
2 — Donibane	...	%	13,7	
3 — Bidarte	%	11,1	
4 — Getharia	%	10,6	
5 — Urruña	%	9,7	

Hau guztia, ordea, PARISTARREI buruzko datuak dira.

Fraintziako beste hirietako jabeei buruz ez du Labordek ezer handirik eman; baina hau dio: «Pour les communes du littoral la propriété parisienne représente de 18% à 42% de la propriété foraine». (= kostaldeko herriei dagokienez, paristarren jabegoa KANPOTAR GUZTIEN JABEGOAREN % 18-tik = 42-ra doa). Eta ekiten: «Partout les parisiens possèdent moins de biens que les personnes qui résident dans le régions Aquitaine et Midi-Pyrénées, exception faite toutefois de la ville de St. Jean de Luz». Hegoaldeko frantsesek, hitz batez, Bordalekoek, Tolosakoek eta abar, GEHIA-GO DUTE PARISTARREK BAINO.

Labordek Paristarrei buruz ematen dituen zifrak, beraz, anitz handitu behar dira KANPOTARREN JABEGOAZ hitze-gin ahal izateko. % 42 horri 2,38 dagokio, eta % 18-ri 5,55, herrien arabera. Kasorik gehienetan, beraz, HIRUKOITZ eta LAUKOITZ irakurri behar lirakeala zuzena da. Lapurdiko lurraldeak ez daude lapurtarren eskuetan.

Nortzu dira, bestalde, Lapurdiko lurraldeez jabetu diren horiek? Labordek dato bikainak eman ditu. Jabcen laurden bat Paris-ko «XVI arrondissement» delakoan bizi dira (burges eta aiton-semeen hauzoa, jakina denez); eta beste mordo handi bat; 118 handiki, Neuilly sur Seinen: Windsor-ko Dukea, esate baterako, bizi zen hauzoa, «XVI» delakoa bezain dotore.

Lapurdi, beraz, Labordek frogatzen duenez, frantses burgesiaren bakantza-leku bihurtua da. Ez da hau gerta daitekean zerbait, baina zeharo gertatua den egia latza.

Artean lanik ez, gazteek atzerrira jo behar, eta bertako handikiak axaleko sasi-arazoez arduraturik.

Ba genuke euskaldunok horretaz guztiaz gogoeta franko egitekorik, nik uste.

(1973)

AZURMENDI RIKARDOZ MINTZO

Urteetan barrena arrenkuratu izan gara euskaltzaleok: «Euskaraz ez dugu ezer irakurgarririk aurkitzen.» Gaur, ordea, hori ez da batere egia. «Mitologo» belaskez gain badugu besterik eta gotorragorik: Garate, Antsola, Mitxelena, esate baterako. Eta ba dugu batez ere euskal ideien mogimenduaren aztertzaile zorrotz bat: Joxe Azurmendi. Nork segitzen du, ordea, merezi lukean bezala? Nork ikasten eta kontutan hartzen haren lan sakon eta gotorrak? Hiraka ereileek, batetik, ez dute Azurmendirik nahi; eta honen izkribuek uzta eman baino askoz lehenago ere nahi lukete ahaztuta eta zokoratuta gelditzea. Sasi-jakintsuek eta arlo-teek, bestetik, errazago dute ardandegietan eta afalondoetan hitz-jario gisa txapeldun gelditu, gure herriak benetan jasaten eta kezkatzen dituen arazoak aztertzea baino.

«Herriaren lekuko» liburuan (Jakin Sorta, 6) Rikardo Arregi zenari buruz Azurmendik egin duen ikertzapen argitua, horretara, behar baino gutxiagotan aipatu da gure artean.

Rikardo Arregi, halere, Azurmendik xuxen dionez, «euskal gazteriaren sinbolo eta esponente» denez gero, oso ira-

kurgarria litzake gure zegamar langileak prestatu duen lana; ezen Rikardoren bilakabidea, gaurko gazte askoren bilakabidea baita.

Azurmendik ikusten duenez, Rikardoren maratila hau xe izan da: sorkuraz euskaltzale eta dogmakerien etsai izan, eta geroago Marx ezagutu. Hots, Rikardoren beraren hitzez esateko «nere bizitzako une bortitzenetakoak, pozez eta bildurez betetakoak, Marx eta marxistak irakurtzean» senditu zituen. Eta zalantzarik gabe gauza bera esango luke gaurko gazte askok, nik uste. Bi joera bortitz horien arteko tirabiren ispilu edo errainu izan da Arregiren ekarria.

Azurmendik dionez Marx-en ezaguera horrek «on egin dio Rikardoren eboluzioari», baita —beti Azurmendi mintzo— «Euskal Herri osoarenari»; eta zenbaiten xinglekeriak eta gehienen monolitismoa ikusita, ez nuke nik neuk ere ezetzik esango. Batez ere Marx gaurko gizarte-keraren filosoforik ezagunena denez gerotzik.

Marx-i aldez aurretik eta entzun ere gabe uko egitea, denbora galtzea da; Einstein, Freud edo Saussure-ri osotara uko egitea denbora galtzea den bezalatsu. Marx-en ekarriaren parte bat, zientzi-ekarria dela, eta zientzi-ekarri denez izpirituez nagusituz joango dela, gauza ageria zait. Freud-en kontra, gonbarazio baterako, debekuz eta eskomikuz egingdako hesiak eraikitzea alferrik izan den eta izango den bezala.

Marx-en ezaguera, kultura-arazo bihurtu da 1973-an; eta zenbait puntutan denok gara gaur marxista. Kulturadun jendeak, Unibertsitateak, soziologiariek, gogoan dute maiz Marx; ezkajinek berriz ez, ez baitute ezagutzen.

Alderdi honetatik, beraz, egia du Azurmendik; eta egia-
ren bildur ez den edonork txalotzen du marxismoaren hedaketa hori. Nik neuk ere bai, dudarik gabe.

Baina Marxengan ba dago eskatologia nabarmen bat, Hegel-engandik edo ez dakit norengandik hartua; eta eskatologia eta mesiakeria horiek, azken urteotako kondairan mila aldiz mito eta ipuin gisa nabarmen geldituta, garaia da egia eta gezurra Marxengan berezteko. Berezketa hau ere kultura-kontu bat da 1973-an.

Ezin daiteke esan, egia ez delako, mesiakeriaren parte hori marxismoan bigarren mailakoa denik, eta abar. Ez

dakigu zein mailatakoa den; baina nabarmena da. Izan dezagun egia garbi ikusteko eta esateko kuraia. Marxismoak erresuma eta partidu askotan eman dituen makurkeriak, Marxek berak kutsatuak dira, eta ez gerozko «excroissance», «errebisionismo», edo abar. Orain dela ehun eta gehiago urte somatu eta iragarri zituen Bakuninek. Eta Bertrand Russellek, Isaias iragarle harek bezain iragarle, harri-garriro salatu zituen denak 1920-an idatzi zuen liburu mi-resgarrian, oraindik ere Stalin-en izena bera inork ezagutzen ez zuen mementoan. (Berriz ere gomendatuko nieke sozialista eta egiaren egarri diren guztiei «Théorie et Pratique du Socialisme» liburua irakurtzea, «Mercure de France»k argitaratua.)

Hil baino lehentxeago arte bederen (nik azkeneko aldiz hitzegin nuen Rikardo pentsakera-jarrera bikainean aurkitu nuen hil baino hilabetetsu lehenago) ez zuen hau guztia harek ikusi, gaur beste batzuek ikusten ez duten bezala. Tradizino katoliku gotorra duen herri bateko seme garenez gero, San Tomas bezalaxe hartu dugu Marx; San Tomas-en teoriak bezala orain Marx-enak apaizen eskuetan eta sermoi gisa azalduak. Eta gure herria, aspaldidanik liburu sakratuen egia borobilak osorik iresten ohituta, liburu sakratuz aldatu da; baina ez **liburu sakratuen sistematik** at irten. Pentsakera-egitura osozaleak Rikardorengan berandu arte iraun zuela (honetan Azurmendigandik urruntzen naiz) gauza nabarmena iruditzen zait; nahiz apezkumeek, bidezko denez, beren deformazio berbera dutenengan deformazioziorik ez somatu. Marx ezagutu behar da; baina Sartre, Russell, Sri Aurobindo eta Lacan ere bai.

Hitz batez, gu klerikalismoan bizi izan gara luzaz, eta ez gara horretatik atera. Ez pertsonei degokienez, ez pentsakera-moldeei dagokienez. Barne-egituraz Euskal Herriko parropiako ardi-talde ona eta sineskorra baizik ez gara. Parropi katoliku handi bat, eta espainola. Ez lutertarra, alegia sakratuak **libroki** hartzen ohitua.

Ba dakit. Ez dute hau entzun ere nahi batzuek. Langileria bat sortu da gurean; eta honek ez bestek ekarri omen digu gainerakoa. Ene erantzuna hau da: bai eta ez. Bai, kapitalismoaren ondorioak jasaten ditugun aldetik; ez, berriz, Elizaren krisia jasaten dugun aldetik. Zer uste dugu

bada? Mendeetan zehar katolikutasunak utzitako aztarnak eta sustraiak sotana-kontu huts bat direla? Tira, tira!

Elizak markatu du Euskal Herria ezin sinetsizko moduan, Irlanda edo Austria edo bezala. Budismoak Tibet markatu duen bezala.

Eta azalpenak, Rikardoren kasoan eta beste anitzetan, hortxe ere bilatu behar dira.

Eta hemen aipatuko ez ditudan beste alde batzutatik ere bai, ze debru!

(1973)

JON MIRANDE AIPHASORHOKO

Mirande hil da! Ene adineko euskaltzaleek zirrara bat senditu dute berri hau ikastean, eta denek galdera berbera egin: «Baina, zenbat urte zuen bada Mirandek?» Erantzuna erraza da: Jon Mirande Aiphasorhoko 47 urtetan hil zaigu.

Idazle gisa halere erdi-hila edo erdi-ahantzita zegoela aitortu behar da. Froga egin dut egun hauetan; eta garai batez oso ezaguna izan zen zuberotar idazlea, gaurko euskaltzale gazteen artean ez du ia inork ezagutzen. Zergatik?

Areago. Euskara biziaren etorkizunean oso euskaldun gutxik sinesten zuen urteetan, ahal zuen guztia egin zuen gure zuberotarrak; Orixe-k bezala esateko, «euskara bere zarpailetik jasotzeko». Orain, berriz, euskaltzaletasuna hein batez loratzen hasi denean, atzeratu egin da Mirande; eta aspaldisko honetan, «Anaitasuna»rekin izan zuen gorabehera zakarra salbu, nekez aurki daiteke Mirande-ren izena euskal letretan. Zergatik, berriz ere nik galdetzen?

Mirande-ren ustez gaurko gazteria «gorriegi» dator Euskal Herrian. Eta alderantziz, beraz, gaurko gazteen ustez eskuindarregia zen Mirande istimutan izateko. Hauxe izan daiteke kakoa, beharbada.

Jon Mirande KONTRA ZEN: moda eta joera indartsu guztien kontra. Bizi guztian kontrakarrean ari izana da. Gaur errazegi iruditzen zizaion, nunbait, euskaltzale eta aurrera-zaie agertzea; eta biak ukatu ditu.

De Gaulle 1944-1945-an nagusitu zelarik, Erresistentzian sekula ez egindako balentriak aipatzen hasi zen hanartean izkutuan edo bildurtuta ibilitako frantses anitz; eta orduantxe gure Mirandek, nardaturik, kontrakarrean jokatu, «nazi-ozional-sozialista» aitortu zuen bere burua. Eta nik ezagutu nuen Mirandek, askoz beranduago, nazi eta arrazazale jotzen zuen bere burua, beltzen kontrako eta juduen kontrako zer esanik ez; eta esan ere egiten zuen argi eta garbi, bazterrak asaldu eta erronka jo nahi balu bezala.

«Euskaldun fededun» ekuazioa sakratu jotzen zen garaian, Mirandek garraski eta goraki esan zuen berak ez zuela horrelakorik ezer sinesten, ez nahi. Setsu-arazoetan, era berean, emakumeen aldeko Eros-giro betean, beharbada oso gogoko zuen Baudelaire-ren bidetik abiatu, emakumei muzin egin eta gizonezkoei eskaini zizkien bertso nabarmen batzu.

Mundu-guduaren ondoko joera «super-demokratikoan» (hitzetan bederen), Mirandek demokraziaren eta sozialismoaren zentzugabekeriak salatu zituen; ahulak altxatu, indartsuak beheratu eta biologiazko aurrerapena, beraz, zion Mirandek, geldiarazi egiten duten alderditik.

Estatolatria betean gaudelarik, Mirande zapalduetako etnia ahanztiez arduratu zen gogoz, galtzear diren hizkuntza zeltikoak, bretoinera batez ere, arras menderatu zituen. Kernow-ko (Cornwallisko) etni-bizkundera oraindik ere has-tapenen hastapenetan zegoelarik, artikulu mardul bat eskaini zigun Mirandek euskaldunoi (ikus EGAN, 1959-IV).

Jon Mirande, beraz, kanpotikako itxuraz eta bere ustez guztiz eskuindar agerturik ere, ba zedukan, txit erro-turik, hain zuzen ere ahulak altxatzeko eta modan daudenak azpiratzeko nahi gorria; eta funtsean zer izan ote den galde-tu beharra dago. Mirande KONTRA zegoela esan dut; eta aurkatasun funtsezko eta guztizko honetatik bilatu behar bide litzake Mirande-ren kakoa. Mirande ez baitzen, ene ustez, kontserbadore klasiko eta merke horietako bat. Zathustra-ren hiltzaldi argitsuak maite zituzkean, ez bur-

ges-ttikien xuhurkeriak eta ziztrinkeriak. Hau segur. Baina bere herrikide zuen D. Peillenek argitu beharko digu.

Beste bitxikeria bat: Mirandek ez zuen osasun handirik, baina Hitler-en eutanasia onartzen zuen!

Eta oraino beste kontradizio bat, agian denetan sako-
nena: gurasoekin etxen Sorhueta-ko (Sohüta-ko) zubereraz
mintzo —honela ezagutu nuen nik— biziera guztia pasa du
Parisen Mirandek; eta antikonformista amorratua zena,
funtzionario huts gisa bizi behar...

Miranderen olerkia ez dut nik aztertuko: ez dut ongi
ezagutzen; eta nik baino aisa hobeki egingo dute San Mar-
tinek, Sarasolak eta Azurmendik. Eta egin dezaten eska-
tuko nieke.

Bestez mintzatuko naiz ni hemen: Jon Mirande-rekiko
euskaldunok dugun **zorraz**.

1950/1960 urteetan Euskal Herriak krisialdi larri bat
ezagutu zuen, barnetikako eta kanpotikako arrazoinengatik:
gero eta garbiago ageri da hau. Eta euskal literaturari ga-
gozkiolarik, oso nabarmena izana zen kinka gaisto hori.

Bi euskal aldizkarik eutsi zioten orduan euskaltzale-
sunaren garrari: «Euzko Gogo»k Guatemalatik, orain dela
gutxiz geroztik eta isil-isilik Arrasatera itzulia den Aita
Zaitegi gartsuari esker; eta «Egan»ek Donostiatik, eta hau
Mitxelenari eta Irigarairi eskertu behar zaie gehienik.

Hots, urte ilun luze zail haietan, gudu-aurreko gizonek
gure hizkuntzaren geroari buruz segida segururik somatzen
ez zutelarik (Orixe, Zaitegi, Ibinagabeitia, Sebero Altube,
S. Onaindia, Erkiaga bera, gerra-aurreko euskaltzale ager-
tzen ziren), zindo eta sendo ikusten genituen orduko gaz-
teok Jon Miranderen izkribuak bi aldizkari horietan.

Hizkerari dagokionez, ia gaurko euskara batuaz idatzi-
rik dirudite Miranderen lan haiek... orain dela 15 urte ida-
tziak! Mirande zuberotarrak ez baitu ia inoiz zubereraz
idatzi, batasun egarriak eraginda. Haseratik beretik jo zuen
Mirandek erdibidera.

Bide horiek guztiak Mirandek hartu zituelarik, kontra-
karrean hartu zituen; eta ez inolaz ere «impulsado por las
masas» eta oso modan dauden ipuinengatik. Mirandek bere
garaiko giroaren aurka bilatu zuen bide bat euskararentza-
ko eta Euskal Herriarentzako; eta bazekien: «Modari jarrai-

tzailleetatik ez bainaiz» zion EGAN-en.

Miarritzeko Euskal Biltzarretan (1947-1948) P. Laffitte-ren ordezkari egon zen. Eta orduko hitzaldiak irakurtzea aski da, urte haietan euskararekiko axolagabekeria noraino zen larria neurtzeko. (Batzuen ustez, halere, H-a dela-ta gero eta beltzago ageri da euskararen eta Euskal Herriaren beraren etorkizuna... Jaunak, otoi! Urte haietako basamortu ezagutu dugunok batez ere: oroi gaitezen, eta txalo jo dezagun! Otoi, otoi!)

Alde honetatik bederen gauza ageria zait Miranderi zordun gatzazkiola euskaltzaleok; eta euskararen ezaguerari dagokionez zordun ere bai, urrun baikaude oraindik Mirandek euskara zerabilkien maisutzatik. Ba zekien euskaraz Mirandek, alajainkoa!

Eta ez euskaraz bakarrik, bidenabar esan dezadan: hor ditugu lekuko inglesetik, alemanetik, eta abar, euskaratuta-koak: Mirande idazle ikasia baitzen.

Ideien aldetik inolaz ere ados ez izanik ere (eta Peillenek, esate baterako, ba daki gu bion arteko harreman ezin laburragoaren berri) Mirandek ene gorazarrea merezi du, eta denona ere bai. Gainerako guztia hutsa balitz ere, Mirandek, belaun berriaren aintzindari gisa (hamaika urte zuen gudua hastean, oraino bete gabeak) eutsi egin zion urterik beltzenetan; eta hau ez da ahantzi behar. Bistan da: hilak direnen artean ohore berbera merezi luke Xalbator Mitxelenak, esate baterako; eta ez diot nik ukatuko. Eta hein batean bederen, aintzindari-ohore apurrak bederen merezi lituzkete Antsolak, Arestik, Berriatuak, Jon Etxaidek zalantzarik gabe, Gandiagak, Iratzederrek, Kruttwigek, San Martinek eta Villasantek berak ere bai; hitz batez, «Euzko Gogoa»ri eta «Egan»i odol ematen saiatu ziren guztiek.

Bidezko da, beraz, Miranderen ideia batzu osotara arbuiaurik ere, Parisen sortutako eta bizitako euskaltzale suharrarekiko gure zorra agerian aitortzea; eta ahal delarik, hain bakanka gozatu zituen bere sorlekuko bazter ederretan, Sohütan, zuberotar kantari berriek Miranderen olerkiren bat musikaz oratu eta entzunaraztea.

(1973)

ANTIGUA AMETS

Egunargia argiago bide da gaur eguerdian. Bazterrak baretu dira. Eta euri-jasen ondoren, oraindik lurra blai eginda dagoelarik, hortentsi-adarretan erreparatu ditut nika hezeak sortzen ari; eta, han-hemenka, mendi-mazeletan eta bide-ertzetan, kilikondoen lore horiak. Zantzuok ez dute sekula hutsegiten: Udaberria heldu! Hurbil dugu udaberri miresgarria:

Bedatsian dirade
zühaiñak loratzen...

Aurten, ordea, kanpotik-edo datorkit bedats-aire fina, itsas-haizea kanpotik etorri ohi zaigun bezalatsu. Udaberria odolean nabariturik ere, etsipen eta kezka gehiegitan nahasirik somatu uste dut. Landareen altsuma xamur guriok bestela begiratzen ninduten aspaldian; hori uste dut gaur bederen. Esperantza zen lehen udaberria, barne-tiraina; urteotan barrena, berriz, histu egin da nigan, loratu gabe zimeldu, barne-tiraina kanpoko haize bala epel bilakatu; eta gaur kanpotikako apaingarri aparta gisa datorkit.

Egiazko udaberria antzinako urteetan bilatu uste dut horrela. Udaberria lehen izan baitzen, lehenago, askoz ere

lehenago, gaztaroa baino ere lehenago, oso urrungo urte urrun haietan... Picassok xuxen esana duen bezala, urteetan barrena oso nekez irauten baitu gugan haurtzaroan izan ginen poeta harrigarri harek. Liluraren sakona haurtzaroan! Gero, ondikotz, ezari-ezarian kamustua eta iraungia.

Gero eta maizago gertatzen da bizian atzera-behar hori eta zeren seinale den ba dakit. Zerorrek ere bai, irakurle horrek.

Ninika berriok, horretara, Txokolatene hartara eramane gaur; eta masusten garratza senditu dut ahoan, eta orban moreak esku ahurretan erreparatu. «Haiek bai udaberriak!», esango nuke bihotzez; gure aurrekoek esan izan duten bezala, eta gure ondokoek ere, gaur zernahi pentsatuagatik ere, esango duten bezala...

Txokolatene-ko aska hura gogoratzen zait, horrela, ezinbestean bezala; eta hain gogoz urrupatzen genuen gaineko iturria. Eta Altuna-ren etxea bururatzen zait, bihurtunean; eta aurrez-aurre Marbil-Berriko zuhaitzia; eta aldapa itzaltsuan gora arratsetan, isil-isilik eta elkarri gerritik heldurik, izkutatzen ziren maitale-bikoteak (geure haurtzaro begiez ikusirik, sekula ere iritsiko ez ziren adin eta mentura harrigarriak).

Konporta-Berriko bidea datorkit burura (nahiz konportaren azken burdinak dexente erdoiturik izan!); eta Lizariturri-ko usain sarkorra senditzen bide dut berriro, oraindik ere, gudu-garaian bezala, koipe eta koko urrinez oratua; eta Konporta erreka kiratsaz eta arratoinez berriro nardatzen bide naiz...

Miramar-Jauregi ondoko murrua somatzen dut neure barruan, itxuraz aldapan behereko ezkeraldetik azkenik gabea. Eta frontoina. Eta Txillardegi hitza irakurtzen bide dut berriz Matia-kaleko hañresi-atari hartan...

Ezen Antigua ezagutu baitut nik udaberria, kiratsez eta kresalez batera oratua, langile-soineko urdinez eta baserri-kutsuz ere mamitua; eta geroztik udaberririk ezagutu ez dudala iruditzen baitzait.

Antigua-ra narama horregatik oroimenak; eta lehenengo ahuntzostoen urrin ederrak betirako suntsitua omen den euskal Antigua herriska hartara narama bereziki.

Danieltxo ikazkin gizarajoa ikusten ari bide naiz, beti

zarpail jantzita, eta askotan gure irainen bitima. Eta Igara-ko bideko indiano harrigarri hura ikusten dut berriro, bizikletatik hamaika aldiz bezalaxe, beti ere bide ondoan aulki batetan eserita, norarik gabe beti so... Eta Errota-Berri hartako sagardotegi iluna birrikusten ari naiz hortentsi-ninikez bestaldera, baserritarrez askotan betea; eta etxe ondoko uxola; eta Errota-Berriko Kandido mutiko jator hura, gurekin erdaraz fitsik ere ezin mintzatu!...

Antigua-ko euskalduntasun harrigarri hura ez dut geroztik ia inon kausitu. Lurdes-Txiki ondoan gertatu zait niri egundokoak euskara hutsez entzutea (beharbada Re-kondo-ren izebaren batek botaiak!); eta Arratzain-en oinean, Igara-ko bide- muturrean beraz, Lesaka-ko adiskide harek ez baitzekien txintik erdaraz... Mila oroitzapenetan, eta parropiaren ondoko eskolan bertan, ziplo isurtzen zen euskara hutsa Antigua-ko hauzoan; Hazparne, Urketa eta Donapaleu berak Erdal-Herri huts zaizkit, udaberriaren ezagutu nuen garaiko Antigua jator haren ondoan. Hantxe hozitu zen ene euskaltzaletasuna. Aldakuntza geroko hogeita-hamar urtek ekarri dute.

Eta oroitzapenen hildotik abiatuz gero, Igeldo-ko funikularren aldera narama ni baino sakonago dirudien zerbaitek. Tranbia zuriak somatzen bide ditut oraindik, palmondo luze bakar haren ondotik kirrinka eta jiraka ari; eta etxe luze haren barruan txanpon batez pelikula labur bat eskaintzen zuen tresna hura dakusat, aspertu ere arte lagun guztiok begiratu eta bir-begiratu. Gauza bera nesake musika-zilindroa zerabilkien tramankulu hartaz, egunero entzuna.

Udaberriaren etorreak, ordea, harago ere narama, gorago, Igeldo ez baino Txubillo deritzan tontorrera. Huraxe izan baita, uste dut, udaberriari dagokion gertalekua. Zubitxoan azpitik isuriz, hementxe dut, aurre-aurrean, «Río Misterioso» hartako kokodrilo argitsua; eta karioletako tximu zalapartariak, «Bartolo» itsusia buru; eta 1936-ko guduan mendian harrapatutako «Ursula» hartzemea, urtetan barrena preso zahartua eta hila omen; eta karrusel bildurgarria, anitz garrasiren eragile; eta astotxo haiek, haurren eramale otzan... Eta aidean etengabe nahasirik, funikular-makinarien zurrumurrua, beti ari eta ari... Guztiz oroitzapen xin-

pleak horiek oro, zeharo enetzako ahaztu-ezinak, arras ere ene bizi-udaberriari atxikiak...

Gauza bat nuen, eta dut, Igeldon maiteenik: udaberrian bakarti zeuden atzekaldeko pinadia eta pinuen arteko bide-txiorkak, behin eta berriz bisitatuak. Hantxe entzun ditut nik isiltasun oso hartan Lizardi-ren «bizion oiñok»; eta hantxe ere, halako batez, Débussy-ren «La Mer» bikaina... Bakardade memento haietxek izan dira agian neure bizian ezagutuko ditudan osoenak.

Aspaldiko kontuak! Ba dakit.

Ene hankek, ordea, ez dute hamabi urte honetan Txubillo maitatua zapaldu. Urte gehiegi: nik baino hobeki inork ez daki. Eta aurtengo lehenengo ninikek, altsumek eta muskilek, aurtengo udaberriko lehen aitzindariak, atzera naramate, Leku-Eder-era, Txubillo-ra, Igeldo-ra; neure udaberri urruneraino naramate hain zuzen; Naturelezaren udaberriak ene biziera-udaberriari dei egingo bailiokean...

Txubillo bakartiko udaberri hura enea baitzen. Oraingoa, berriz, zuhaitzena zait, xoriarena, itsasoarena... Besteena ere bai. Udaberria gartzaroari baitatxeko osoki; iribarre opa-roa izkutuko neska maiteminduari datxekon bezala.

Gaur, horrela, hortentsi-ninika horiek ikusi ondoren, Txubilloko itsasalde isilera narama neure barruak, bideska itzaltsu haietara, pinu-usaina darien eskualde adoratu haie-tara; eta, etxera beharrak eraginik, ba dantzut berriro, funikular-orroa urrunean gailen, egun hartan liluraturik entzun nuen Débussy-ren poema huraxe. Gaur ba dakit orduan nigan piztu zen esperantza-uhin harroa, udaberri-uhin bortitza zenez, ez dela nigan inoiz mamituko. Baina besteren-tzako izanik ere, inoiz obratuko ez diren ametsen iturri izanik ere, ederra da udaberria; gizonak ezagu eta dasta deza-kean olerkirik ederrena baita.

Horrengatik gaur, inoiz Txubilloko itsasaldera bihurtze-ko «esperantza desesperatu» honek, orduan hainbatez, orduan baino ere hareago agian, bizi-erazten nau; eta lilura zorotan kulunkatzen.

(1973)

AIERBETIK BIARNORA BI IPARTARREN IKERKETAREN ARGITAN

Baionako bere etxean ikusi berria dut Jacques Romatet kondairagile gaztea. Mahainaren atzeko pareta ia osoa bi liburu-alasek estalirik, bion arteko hutsunean mapa bakar bat ageri: Euskal Herrikoa. Romatet baionarrak, 28 urte, ez daki euskaraz, eta argi-ta-garbi aitortu dit zinez senditzen duela: «Laguntza baliosa izango nuke, besterik ez balitz ere, neure kondaira-ikerketan.»

Etorkiz baionarra osoki, Baiona kaskoinaren seme dugu Romatet: ez bibi gurasoek, ez lau aiton-amonek, zekiten euskararen arrastorik. Baionan, kaleko hizketari dagokionez aspaldidanik erdaldun, bi etorki baitagoz: euskalduna bata, kaskoina bestea.

Gascogneko kondairak kilikatzen du Romatet; honen barruan Ipar Euskal Herrikoak kilikatzen du bereziki; eta euskal sail honen beraren barruan ere, euskaldun kondairagile ospatsu batek erakartzen du: Arnaut Oihenartek. «Iparraldeko Euskal Herriak inoiz eman duen intelektualik handiena», Romateten ustez.

Kondaira Maisutza izanagatik ere, ordea, «marjinalismoan» ari zaigu Romatet; ez baita euskal jakintzaren bara-

noan bakarra! Oihenarteren paper GUZTIEN ikerketa OSOA egin nahi lukeela esan dit hastapenetik beretik. Nola? 20.000 folioz osatutako 23 liburu gaitz aztertu behar lituzke horretarako, «erdiak guztiz ezezagunak».

Parisko liburutegiaz gain, Auch-ekoak, Pauekoak, eta abar, miatu beharko lirake. Oihenarteren irakurpena, artikulua honekin batera datorren fotoan ageri den bezala, ez da batere erraza. «Aski ohitua dela» dio Romatetek; baina folio guztien azterketa-lana burutzeko, noski, denbora guttia behar lukeela urte batzutan barrena. Nork ordainduko? Parisko CNRS delakoari, E. Goihenetxeren laguntzaz, eskabide bat eginga dio; baina gaurkoz erantzunik ez: ba dute beste helbururik Parisen. Eta gure Oihenarte gaitzaren azterketak gelditu. Hots, Goihenetxe irakaslearen ustez, dudarik ez dago paper multzo eskerga horren ikertzapenak sakonki aldatuko lukeela euskal koidairaren ardatza. Zuberoako Sindikoak, olerkariak, atsotitzen biltzaileak, euskal poesiarren teori-gizonak, kondairagileak eta Fernando V.aren salatzaille ausartak hori eta gehiago merezi luke. Denaz gain Oihenarte ez baitzen eliz-gizona, ez etorkizko aiton- seme, baina herri xehetik sortutako euskal intelektuala.

Ulertuak dituen dokumentu batzua irakurri dizkit. Sanchoz izena, «Sanz» edo «Santz» irakurtzen da askotan; Nafarroako hiriburua «Irunia» agertzen da; eta Zuberoari buruzko paperetan «Jauna» hitza irakurtzen da, bere horretan, Larrañeko Garzea de Lassaga de Xauer aipatzean (Exaberriko Latsaga?); baita «Andregia» hitza (1178an). Goihenetxek dionez, bestalde, Garzea eta Gaztea gauza bera da antzinako dokumentu zahar batzutan.

Baina Aragoa Garaiari buruzko paperek txunditu naute gehienik.

Sauvelade-ko beneditarrek, gonbarazio batera (Sauvelade hori Biarnon dago, Lacq-en ondoan), harreman handiak zituzten Erdi-Haroan Zuberoarekin eta Aragoa Garaiarekin (Jaka eta Aierbe eskualdeekin, alegia). Hots, Romatetek irakurri dituen dokumentuetan, orain dela hirurehun urte Oihenartek berak bere eskuaz kopiaturik, eskualde hori OSOKI EUSKALDUN agertzen da.

Hona hemen Aierbek Sauveladeri egindako emaitza ba-

tetan 1136an agertzen diren emale izenak:

Eximino Garzes de Astaun.

Eneko Lopez Maiordomus.

Santxo Fortunionis de Exabirra.

Eneko Azenariz.

Santxo Blask.

Santxo Xemeon de Araus.

Eximino Fortunionis Alferriz.

Emaitza hau «Osca»n sinatua da (Hueskan); eta horietxek dira, Aierberen izenean, sinatu zuten BERTAKO HAN-
DIKIAK. Handiki izanagatik ere, eta idazkera hori oso txarra eta desegokia izanagatik ere, nabarmen nabari da izenen euskaltasuna, ilaran, eta zalantza-izpirik ez uzteko eran: Astaun, Garzes, Eneko, Exaberri, Azenariz, Belasko, Semeon, Araoz, Alferriz.

Hots, Aierbe hori Iruinetik Ekalderuntz 150 km.tara dago, eta Oskatik Mendebalderuntz 28 km.tara bakarrik. Oihenarteren agiri honen alde mintzo dira, bestalde, inguru haietako leku-izenak: Aierbe bera (Aiherra hor dugu, Baxenabarreko muga); Biscarrués (eusk. Bizkarroz, Bizkargi bezala); Aragüés (eusk. Araoz, Oinati ondoan bezalaxe); Ardisa, Eskoain, Arascués (eusk. Araskoz), Loarre, Osia, eta beste mila.

Irakurleak dakikeenez, orain dela hamar urte dokumentu argitsu bat aurkitu zuen Irigaraiek: XV.mendean gutxienez, debekaturik zegoen Hueskako azokan «bascuenz» mintzatzea. Oihenarteren izkribuen argitan, nabarmen agertzen zaigu debeku horren kaxoa: Aierbeko eskualdean gutxienez, euskara izan da bertakoen mintzaira uste genuen baino beranduago arte.

A. San Sebastian-ek zai gauzka.

Eta kezka eta azterpide hauexek eragile abiatu bide da ere orain Lacasta jauna, Jaka-tarra jaiotzaz eta euskaltzale sutu.

Batak eta besteak hemen gaituzte hirrikan, zer aurkituko zai, eta berri harrigarriren segurantzian.

Biarnori buruz zer aurkitu duen galdetu diot orduan Romateti; eta erantzuna hau izan da: «la trace basque n'est pas aussi frappante en Béarn qu'en Haut Aragon» (=euskal

aztarna ez dela Biarnon, Aragoa Garaian bezain nabarmen eta harrigari).

Hots, Biarno Garaiari buruz behintzat, hauxe iruditu zait sineskaitzena. Zeren-eta beste ipartar batek, Euskaltzaindiko buruorde den Haritxelharrek hain zuzen, Bestelako aztarna argitsu bat aurkitu baitigu berriki.

Eskiularrak, jakina denez, biarnesak izanik ere, euskaldunak dira; Inhasi-n (erd. Féas), inguru haietako ene lagunek diotenez bederen, «hirutarik biak» dakite euskaraz; eta gauza bera Landa ondoko Sarraltzune-n (erd. Barlanès).

Haritxelharrek besterik eta harrigarriagorik aurkitua du; eta argitara duen dokumentua ez da XII. mendekoa, XIX.koa baizik (ikus haren «L'Oeuvre poétique de Pierre Topet Etxahun», 1970, 502-503). Eskiulako dokumentu hori hemen osoki ezin emanik ere, hona hemen gure gaiari buruz irakur dezakeguna:

«Séance du Conseil Municipal du 28 avril 1861.
...vu que 113 (paroissiens) des hameaux de Géronce
et d'Aramits ont toujours recours à M. le desservant
d'Esquiule pour leurs besoins spirituels pour la
raison qu'**ils ne savent parler que la langue basque...**»

Jeruntzen eta Aramitzen, beraz, duela ehun urte gutxienez ba ziren oraindik **euskaraz baizik ez zekiten biarnotarrak**. «Oraindik ere» diot, eta hala da; leku-izenak eta urriegi diren dokumentuak euskararen ATZERAKADAREN lekuko baitira Biarnon, eta ez alderantziz.

1861ko paper horrek berak, bestalde, Eskiulako apai-zaren eskuetan jartzen ditu Oloroe-ko Senpere hauzoa (St. Pée), baita Inhasi eta Arhantze herriskak (erd. Féas eta Ance), hirurok betidanik Biarnoko parte; eta lerroen giroan soma daitekeenez, hein batez bederen, garai hartan euskaldun. Gaur arte, gonbarazio baterako, Bidaxuneko hauzo bat euskalduna izan da (erd. Bidache), baina alderantziz Oragarreko beste bat (erd. Orègue) kaskoina.

Haritxelharrek eta Romatetek aurkitu dituzten dokumentuek, horretara, gertakari hits eta ezagun bat erakusten digute berriro: lerroen artean bilatuz, paper zaharretan hausnartuz, hitzerdiz esandakoak argituz, arrastaka ibiliz, bazterturik, ostikaturik, analfabetismo osoan kokaturik, ezindurik, beti isilik, Aita Agirretzek berriki oso egokiro

aipatu dituen **azken zapalduak** ageri direla behin eta berriz: euskaldun hutsak. Euskaldun soil horiek, gizarajoen azken zolan somatzen ditugu ere Jeruntzen, Aramitzen, Inhasin, Aierben, Jakan. Beren herrian bertan azken paria bihurturik. Baita geuk ere Euskal Herritzat jotzen dugun eskualdetik at. Betidanik «odd» eta korotz, ukaturik jaio, ukaturik eta lotsaturik hazi, kondairatik at bizi, mendarte galdu urrunetan akitu, ukaturik zahartu, eta ukaturik eta mesprextaturik hil. Horra patua. Kaliforniako azken indioak bezalaxe.

Horra hor ilunpeetan hislatzen den egia garratza.

Horra hor zen den eta zer izan den gure arteko «harki» ustelek jasan ezin dezaketen «euskal racismo» beldurgarria.

Hain beldurgarri non, kriseilu bat eskuetan, bilatu behar baititugu gaur, bazterrak harrotzeko beldurrez, haren arrasto ezabatuak.

(1973)

LOKAMUTS:
EUSTAKIOREN OROITZAPENETAN

Epela zen giroa. Eta kukua entzun nezan urrunean; eta kirkirraren maite-deia zabal zedin belardietan. Eta haize-balak, zurrumurru leun igarokorretan, zuhaitzen hosto berrien artetik itzal zitezzen.

Aldare argitsuak ikus nitzan bazterretan, ugari, ezin ugariago, ilaratan ibilki: more, berde, hori, urdin, ezerezetik ezerezero geldiro beilari. Eta mila organoren soinu sakratuek urra zitzaten eskualdeak. Baina gorantzan orroaka aipatzen zena, ez zedin inon ager.

Eta garruztar maitatua ikus nezan; eta, bere sasoinik hoberenean, bertsotan mintza zekidan, harrigarriri. Eta hau esan ziezadan goratik:

«Heldu duk eguna, adiskide, eta ba diakiat. Kaliza edan gabe ez diagokek irtenbiderik; eta gartzetan deitu ninduenak bezalaxe edanen diat nik ere. Dena eman, ez parte bat soilki. Enekin ez, baina ni gabe: horra hor gizonari eskain dakiokeen kalizarik garratzena. Hozitzen hasi den udaberri hau nahi niake dastatu eta uxtiatu; baina ez diat dastatuko are gutxiago uxtiatuko. Betor, halere, kaliza mingotsa! Isil bedi ene ahoa hirea eta zuena inoiz libroki mintza ahal dadin-

tzat. Ezezta bedi ene bizia osoki, zuek inoiz zeron molda ahal dezazuentzat. Bihotzaren erditik maitatu dizkiat neureak; bihotzaren erditik maitatu bizia, sakonki mendi eta zelai berde hauek; erraietatik, bakarrik geldituko zareten zuek hirurok! Bihotzez zuek guztiok, isilaroko nekakideok oro. Beharrezkoa duk, ordea, betirako isil nadin, eta betirako urrun nakizuen. Agur t'erdi! Harren bazka naitenean, bizi izan nauena piztuko duk.»

Eta horrela mintzatu zenean, bele urdin talde kondagaitz bat ingura zekion; eta garrasi bat entzun niezaion eta hain maite genuena, bere gerria bi eskuez etsita heltzen zuelarik, sinetsi ezinezko moduan makur zedin, ezpainez lurrean muin egin arte.

Eta kukua eta kirkirrak isil zitezen eskualdean.

Eta haren garrasi erdiragarri hura ez zen eteten; eta, haren gerritik bezala, odolezko iturriak jalki zekizkidan neure begietatik. Eta belatzar talde gaitz hura ingura zekidan, eta azaldu ezinezko ikarak har nintzan. Eta ttutturru urdinek eta gorriek barre zegiten.

Eta oraino garruztarra bizirik zelarik, haren errai be-roak erauzten, eta jaten has zitezen belatzarrak. Eta ikuskari izugarri hura ezin jasanik, atzekaldera itzul nezan neure begirada. Baina haren oihu lazkarriak hel zitezen orduan ene belarrietara. Eta ilara luzetan aldare apainduetara hurbiltzen zirenek, ttutturrua ken zezaten burutik, eta denak barrez ari zirela ikus nezan.

Horrelakorik ikusi duenak ez du nehoiz ahantziko.

Eta beleek, gorri eta urdin nahasketa zalapartsuan, algaraz xukatzen zuten haren odola. Eta goragaleak har nintzan, eta txori zantarrak uxatzen saia nendin. Ezin neure besoei eragin, ordea; eta beleek osoki jan zezaten gorputza.

Eta hamar kanatako belatzar gorri bat hurbil zekidan, eta ene bi begiak erauz zitzan mokokada bakar batez. «Alu urde zerri hori!» esan nezan, baina ezer ez zedin entzun; eta izuturik iratzar nendin.

Ene maindireetan eta burukoan ez zegoen odol aztararik, ez malko hezadurarik batere. Hortzak karraskan neduzkan hilotzak jota itxuraz, eta arnas-hestuka leihora nendin. Eta oka egin nezan azken behazun arrastoak ere

bota ere.

Ederra zen gau isila, eta lehen oilarriteak entzun ahal zitezkeen urrungo baserrietan.

«Belatzarrak nagusi bazterretan —esan nezan— eta arkumeak bela bazka. Hik prestatu duan egunsentia, hortxe ageri duk Ekaldean. Baina hi gabe diatorkek; eta hik, giza-jo horrek, ez duk ikusiko!». Eta negar zotinak eta oihartzun harrigarriak entzun nitzan bazter guztietan. Eta Jainkoa madarika nezan.

Argituaz zoan goiztiria; eta bapatean, mendiez bestaldetik, oste gaitzen kanta ozena entzun nezan:

«Ez gal gure odol beroa!

Bizi bedi gure Xiberoa!»

Eta gau azkengabea lehenengo aldiz isur zitezen malakoak oparo ene masailetan behera.

Eta bozkarioz beta nendin. Eta ene deliberamendua azkar zedin:

«Il naiago dot
ikusit baino.»

Eta hire irudia iratxeki nezan gelako horman; eta hortxe diagok, ene birauen eta deliberoen oroigarri. Eta hortxe diagokek tinko ni bizi naizeno, gu guztiok bizi garen, hi haizen bihia uzta bihurtzen deno.

Eta elkar gintezen irudiaren inguruan. Eta ttuturru urdinak eta gorriak, ilara azkengabetan, amil genitzan malakorretan behera. Eta erroiek, bele beltzek eta putreek jan zitzaten haien hondakinen hondakinak; eta haien izenak berak suntsi zitezen lurpean.

Eta kukua entzun nezan urrunean.

(1973)

IDAHO

Urtebete joan da Idahoko lurralde zabal urrunetan izan nintzenez geroztik.

Bidaiak (irakurleak dakikeenez) ez beti nik neure kabuz eta desiraz hautaturik, eta «Globe Trotter» bat ez izanik ere, munduan zehar pitin bat ibilia naizela iruditzen zait. Eta euskaldunen multzoak anitz lekutan ezagutuak ditut. Zergatik, beraz, Idahotik ekarritako oroitzapena dene-tan gailen? Zergatik ote?

Hauxe hasi naiz gaur neure buruan ikertzen.

Baina ez naiz neure buruaz mintzatuko; nahiz-eta, hein batez, idazlea beti ere, eta besterik ezinean, bere buruaz mintzo bada ere. Oso neureak nituzkeen arrazoinetatik at, beraz, zerk gailen erazten ote du Boise-koa kanpoan igarotako egonaldi guztien artean?

Noski, Boisen, Bruselan eta nun-nahi, bi multzotan bana daitezke bertako euskaldunak: batera, inoiz sorterrira bihurtzeaz osotara etsi, eta zeharo bertakotzen saiatzen direnak bil ditzakegu; bestera, berriz, besoak han, baina bihotzak eta esperantzak Euskal Herrian atxiki dituztenak.

Hots, Parisen, Bruselan, Londresen, iruditzen zaidanez,

euskaldunik gehienek, noiz izanen den ez badakite ere, 'halako batez' etxera etortzeko asmoa dute. Kilometro gehiegi ez izanik, nahi izanez gero bederen etorri egin litezkeela iruditzen zaie. Parisen batez ere, eguneroko bizikararen gogorrak, gogoaren mailan bederen, uxatu egiten ditu hara joandakoak, eta sorterrira itzultzeraz bultzatzen. Oso amorraturik ere, eta beharbada amorruegatik beragatik ere bai, noizpait honeratzeko asmoa ez da haiengan iraungi. Bakantzetan, eta (ustez) nahi dutenean, honera etor, haizea har, garo-usaina hatsar, eta berriz... «urrungo lantegira» bihur.

Brel-ek ederki kantatu duen Flandreko zelai goibel azkengabea, Jon Mirande-k madarikatzen zuen paristar bullego ziztrina, Londresko giza-itsaso gaitza, hor daude, bai, eguneroko biziari itsatsirik. Baina, ustez bederen, utzi egin daitezke. Atzerrialdiak, osoa gerta badaiteke ere, ez dirudi osoa; ez bide datorkio inori goitik behera eta ezin bestean ezarria. Londresko, Bruselako, Pariseko euskaldunek, ene ustez, ez dute BETIRAKO urrundu direnik sinesten. Noiz-behinka labur daitekeen atzerrialdian daude, hori bai; pitin bat bolara baterako lantegia urruti atxeman duenaren antzera.

Idahon, berriz, besterik da, iruditzen zaidanez. Urruti ageri da Euskal Herria Boise-tik, urrutiegi, oso urruti, **BETIRAKO URRUTI**.

Arrotza da giroa arrunt Idahon. Hizkuntza arrotz, bizi-modua arrotz, basamortu gaitzak arrotz, mendi zuri esker-gak arrotz, bakardade, azkengabeak arrotz, indioak eta chicanoak arrotz, ekonomiazko bizi-maila gorena arrotz, herrien hirigintza arrotz, Far-West hartako azken aztarna harrigarriak arrotz... Idaho atzerri da osoki.

Eta Idahotik, nahi izanik ere, ez bide da itzultzen; ez da Parisetik bezala itzultzen. 'Jet' modernoek uste zindo hau pitin batez arindurik ere, askoren bihotz zolaren hondoan ehortzirik ideia berbera datza, nik uste: «Adio ene maitea, adio sekulako!». Betirako agur, bai hanarteko maitetasun guztiei, betirako agur sorterriari. Eta BETI hitzak oihartzun ozenak piztutzen ditu gizonarengan, hilkorra dela uste baino hobeki dakielako.

Hots, ederki zion berriki Escarpit-ek, txalogarria dela,

ikasle eta intelektual langileen asmoa: langilearen egoera bolara batez zuzenki, buruz buru, lanean bertan eta esku-ahurrak maskurturik, ezagutzea; baina —zion kasetalari famatuak— langile - egoeraren betirako-tasuna galtzen dutelarik, funtsezkoena galtzen dute hain zuzen: EZIN IHES EGITEA.

Eta, uste dudanez, Idaho-ra datorrena, betirako etorri da; eta ba daki, eta egunero frogatzen du.

Nola etorria, edo nork edo zerk etor arazia Idahora bestalde? Atzerrialdi bati, berariaz hautatua izan denean, «turismo» deritza; eta erdizka bederen (ustez bederen!) utz daitekeen atzerrialdia, ez da, izan, egiazko atzerri-muinez oratua. Idahoraz gero, berriz, horrelakorik ez. Bizi behar-rak sortu du Euskal Herrian euskaldun «menturazale» eta «ibiltari» horren gezurra. «Ford» eder luze ditziranteen atzetik ere, borondatetik AT mamitu da bidaia eta sorterrria utzi-beharra; atzerrialdia (betirakoa gehienetan) KANPOTIK onar erazirik bezala nagusitu zaie hangoei. Atzerria, kasu honetan, inguramendua edo eguraldia bezalatsu itsasten da, nahiaz bestaldetik.

Eta Sun Valley-ez oroitu naiz; Noruegako fjordoekin batera neure bizi guztian ezagutu dudan eskualderik ederrrena. Hantxe hil dira aurten, ordea, Idahoko Sekretario den Zenarruza jaunaren bi gurasoak, iaz nik biak bizirik ezagututa. Mende honen haseran hara iritsiak, hantxe hil dira, atzerrian; eta olerki-ametsik oparoenak mami daitezkeen eskualde zoragarri hartan zentu. Heriotzak han ere kolpatzen baitu.

Izadia, naturaleza, ezin ederrago, ezin birjinago, ezin aratzago. Amets guztiak zilegi; baina... han.

Eta ximist batek argitu nau bapatean: arrotz... betirako... irten ezin... bazterrak eder, miresgarri... ametsak oro zilegi... baso eder bat Payette-Lake ezin ederragoaren ondoan... hiltzera bertan kondenaturik... Gizona! Gizonaren zortea zaio Idaho euskaldunari! Honetxek markatu nau, eta ez nekien! Parte batez bederen hauxe izan daiteke egia.

Eta Kafka-z oroitu naiz, eta Becket-ez, eta Jeans astronomoaz; eta, nola ez, Pascal-ez: «Gizonaren itsutasuna, gabezia eta eskasia ikustean; Kosmo guztia mutu, eta gizona abandonaturik eta argirik gabe, itxuraz mundu zoko xume

honetan errebelaturik, bere burura bildurik antzematean; bere horretan nork ezarri ote duen ez dakielarik, zertara etorri ote den eta hil ondoren zer bilakatuko ote den ezin ulerturik, eta inolako ezagueraz jabetzeko gauza ez delarik, dardaratu egiten naiz; gizon bat loak harturik estekatu, eta uharte idor soil bildurgarri batetara eramanda, iratzar-tzean bere hartatik nondik edo nola ihes egingen ezin as-maturik, lastu egingo litzakeen bezala...»

Ahaztu egin ohi zaigun geure atzerritasun funtsezkoa piztu zen nigan Boisen, orain konprenitu dudanez. Giza-zorte izkutua da nigan euskaldun urrun haien egoera, ene ispilua izan ziren; eta horrengatik daramazkit bihotzean iltzaturik.

Atzerrian hil beharra! Horra hor Idaho-ren mezu hitz gabea. Etsi beharrak arrotzago egin erazten euskaldunak; eta ezin etsiak malenkoniatsuago, zoritxarrekoago eta tris-teago. Egia zuen Irazusta zorigaitzekoak. Eta egia dute hu-rrengo belaunean, amerikar asko, eta oso euskaldun gutxi aurkitu uste dutenek. Idahoko euskaldunen barne-egoera latzegia baita. Ezin eten, ezin itzul. Ezin aukera. Seme-alabentzako horrelako kinka gaistorik nahi ez izateaz, nor harrituko? Zirt edo zart egin behar horretan, gehienek: «Adio sekulako... gure ondokoek bederen!...»

Eta Parisen ikusi ohi nuen Jabier Landaburu kezka-tuaren aitor samin hura bururatzen zait: «Lo más terrible sería para mí terminar un día enterrado en uno de estos cementerios de banlieue de París.» Eta ez behin bakarrik entzuna, ez pentsa. Gizajoa! Han hil baitzen hura ere, zai, gaur gorputza Donibanen badatza ere.

Atzerrian hil beharra. Gizon ororen patua. Eta honen-gatixek, nik uste, Idahoko oroitzapenak denetan gailen.

Atzerrian hil beharra... Atzerritarren artean hil beha-rra ere bai! Ahazturik hil beharra, bai; baina arrotzen ar-tean eta ilarako azkena hiltzeko segurantzia ere bai. Horra hor Idahoko euskaldun multzoaren geroa: arrotz gisa sun-tsitu beharra.

Eta honek ere, zalantzarik ez, inkontzientearen mailan bederen, oso ilunpetan bestelakaturik ere, Euskal Herria-ren irudia izan date; eta berriz ere, hortaz, ene bihotzean itsatsi...

Idaho! Atzerrian hil beharra! Kafka judua zen, Camus arjeliarra, Unamuno euskalduna; eta hirurok beren herrien jatorrizko izaeraren ukatzaile. Zergatik ote?

Pascal... janseniarra zen, eta deserrian ikusten zuen gizona. Ezer sakonik esan ote lezake bestela atzerriaren gogorraz, herbesteko ur garratzik inoiz dastatu ez lukeenek?

(1973)

GETHARIAN HALAKO BATEZ

Euskal Herria kanpotarrez, tximenez eta kiratsez murruraino betetzen ari zaigun honetan, populurik gabeko eskualde hutsik aurkitzeak ba du halako xarma berezia. «Ekiza» deritzan bere azken artikuluan berriro gogoratu digunez, euskal xoko bakartien aurkikundean eta azalpidean «Latxaga» dugu maisu.

Ni neu ere, batzutan behintzat, bilaketa horietara lerratzeke joera nabaitu ohi izan dut neure buruan; baina ez dut amore eman nahi izaten. Zergatik den azaltzea luzeegia litzateke.

Orain dela gutxi, esate baterako, «Lapurdi ahantzia» bi hitz esateko asmoa izan nuen: Ahurtiriz, Urketaz, Lehontzaz, Aturri ondoko gure herriska isilez beraz. Mementoan bertan ez nuen egin, ordea; eta neure asmo hura inoiz maituko ez dudan bildur naiz.

Gaur ba noa, ordea; eta lerro hauetan mintzatuko naitzaizuen Lapurdiko beste eskualde hau ez dago Lehontzako dorre hirukuna dagokeen moduan ahantzirik. Ez dago era berean hutsik ere. Baina ahantzia dago, hein batez, Getharia zenbait alderditatik; eta Z. ARGIA-ren irakurle askori

ezezagun ere gerta dakiokela uste dut. Non da Iparraldeko Getharia?

Giroa epel, zerua garden, itsasoa bare, urbehere hartan harrokak tarteka agirian... Goiz ederra Azaro hondarreko hau. Ederra izaten da udazkena Euskal Herrian!

Eta Getharia aldera abiatu naiz, beste askotan bezala. Zerk erakartzen ote nau hara? Ez dakit, benetan.

Itsas-hegitik joan naiz gaur. Erromardi-ko hondartza zabalean agure bakar bat topatu dut, zakur kaskar bat lagun, itsasora so geldi-geldirik, giroaren baretasunak bareturik bezala. Ez urruti, Arxilua eta Xibau-ko muturren artean, hiruzpalau ontzi arrantzan ari, eta itsas gainalde urdina kolorez nabartuz berde, gorri, zuri. Udarako kaseta-saltzailearen egurrezko txabola, hetsita; hondartzarako bidetako etxe asko, gehienak, hetsita; eta eskualde bakartian inortxo ere ez, ezertxo ere ez: agurea eta ni biok, eta zakurra hondartza zabalean erotua bezala korrika, eta abar piloak eta plastikozko hondakinak han eta hemen pilaturik. Harroka doi-doi ugari, ilun, ia-ia beltz itxuraz; eta uhin ezin ttipiagoa han eta hemen lehertzen, apar zuriz irribarre egiten, eta berriro ere, hondar ertzera baino lehen, ur urdinera biltzen. Bikainak dira itsaso txikian hondartza harrokatsu bakartiak! Ikuskari arrunta olatutxo nagi haien ibilerarena; eta ahaztu ezina halere. Izadiak eskaintzen dizkigun atsegin isilak oro bezala.

Iparralderago joan, eta kaxko batetarik begiratu dut Xibauko hondar-gune borobil polita, kolko basatien ilaran bigarrena. Hondar uztaia osorik zetzan han, beheanean, eta inor ere ez inguruetan. Donibanetik bost bat kilometrotara Ozeanian gerta nintekeen bezalatsu...

Seirehun bat metro aurrerago, eta Maiarkoenia-ko puntta pasata, Zenitz-Akhotz-eko hondartzara iritsi naiz; eta beste biak baino jendetsuago atxeman. «Millazketa» irakurri nahi nukeen lekuan «Plage Les Tamaris» irakurri dut. Parking gaitza eta berria oso-osea enetzako! Bazter basa hartan ere, inor ez: bakardadea bakarrik, eta isasuhinak nagiki lehertzen ari.

Eta Gethariara iritsi naiz.

Goitikako bide zuhaitzuan barrena sartuz gero, eskuin aldeko xalet zaharren xarmak hunkitzen du. Denak hutsik itxuraz. Eta luzean jokatzeko frontoinean ere inor ez. Eta aurrez aurreko horman hau irrakurri dut: «Herriko Etchea.» Baina inguruetan inor ez.

Treinen gaineko zubitxoaren aldera joan naiz: estazioa hutsik zegoen, euskal tankerako ostatu gaitzak hetsita, ia dendak oro berdin. Harakina eta okina harrapatu ditut eguzkitan zutik, atean so eta zai; eta denda batetan, ez bitan, andere pare bat ikusi dut presarik gabeko berriketan. Doinua ez zen bertakoa; eta euskaraz ari ez zirela esateko beharrik ba ahal dago?

Zubitxoia pasa-ta, Mimiague-ren denda zabalik; eta honen atzean dagoen talaitxora joan naiz. Eta bestetan bezala hantxe gelditu naiz begira. Harrituta. Zerk hunkitzen ote nau han horren bereziki?

Kañaberak besaburuetan hagoan ekarki, eta oski gisa bota zuri gaitzak, hantxe zetozen bi arrantzale, hondarretan barrena, Bidarte aldetik. Eta, Getharian beti ere bezala, olatuak hantxe lehertzen ziren, aurrez aurre, eta giroa itsazurrumurru etengabeaz oratzen. Ur-zurrumurruan bizi diren herriska dira Cauterets eta Getharia. Getharian Cauterets-etz eta La Raillèrez oroitzen naiz; eta Cauterets-en Gethariaz.

Milazken artetik bidetxigorrak, gora eta behera. Dena dago aldatz gorrian Getharian. Behereko kalearen gainetik, zubi konkordun zuriska bitxi bat, itsusia beharbada, haurtzaro kutsukoa eskierki. Eta itsasora begira, kubista pleguan agian eraikiak, alimaleko etxe batzu, kresalak eskustuak. Zer ote du beraz Gethariak? Ba du zerbait halere, ez da dudarik. Karrikatxoen elkargainka bera ote da? Laberintoaren trinkoa? Trein-estazioaren xinplea? Dena jostailu gisa eta eskuartean antzematea ote? Dena batera: Getharia «naïf»en parabisua litzateke.

Giro olerkitsu hartan ez gazte izana damutzen zaio inori.

Eta hantxe gazte izanak eta haziak eskierki betirako markatzen. Hiribarren olerkariak ba zekien:

«Nihon guti etxerik hain xuriki denik,
nahiz orok kanpoa duten ederrenik.
Bizitzeko duena hetarat dohala,

nihon ez da hobeki izaten odola.»

(Euskaldunak poema, 133)

Eta malenkoniak bete nau bakardade hartan. Eta nozarrik gabe ibili naiz gora eta behera: «Haïspoure», «Béhé-réta», «Chemin de Laharraga»... Euskal leku-izenak, frantsesturik, ugari. Gutxixeago etxeetan. Baina... non debru dira getharrak? Nora ote dira? Zer gertatu zaie?

«Itsasoan du bazka iende gehienak,
ez ematen aspaldi lehengo arrainak.»

Zer esan ote zukeen gaur Hiribarrenek?

Txit esku-langintza berezi gisa, eta oso-oso jende gutxiren bizibide gisa, panpinentzako soinekoak egiten dituen lantegi txiki bati atxiki dio Getariak. Besterik zer du? Lurralde urri, nekazaritarik egin ezin. Zer ote, beraz?

Lapurdiko Forua galtzean, eta Añemendiko muga XIX mendean hestean, kinka ezin gaiztoagoan gertatu zen Getharia, gainerako lapurtar arrantzale herri guztiak bezala. Zeren-eta Lapurdiko arrantzaleek Iruñean eta Nafarroan saltzen baitzuten ia beren arrantza guztia.

Ekonomi-muga, horrela, Añemendin finkatzean, errekaratu egin zen kostaldeko herri guztiaren bizimodua. Ziburua, Donibane, Bidarte, Getharia, Miarrantze bera, hanartean bale-arrantzale trebe eta kapitain ausarten sorleku izanak, erdira jetsi ziren jendaketaz: 600 lagunetatik 318-tara Getharia. Eta bide beretik abiatu ziren beheruntz lapurtar bortu guztiak. Gaur harrigarri ere gertatzen zaizkigu harmarrien bale harrook...

Zer egingo ote zuten getharrak? Txiroei gelditzen zaien azken erremedioa baliatzea: beren burua saltzea. Eta lurrak, etxeak eta xarmak oro saldu zizkieten arrotzei; eta berak Ameriketara joan ziren.

Gaur egun Gethariako 60 bat hektara-lur daude kanpotarren eskuetan. Bertako Udaletxeak, ezpondak eta zuloak barne, 141 Ha. baizik ez ditu bereak. Nola nahi duzu, hortaz, negutean inor inon agiri dadin? Getharia hutsik dago; ia-ia Erromardi, Xibau eta Zenitz-Akhotz bezain hutsik. Ja-beak Parisa, Toulousera, Bordalera eta bestetara joan dira; eta Getharian... jabeen etxeak gelditu zaizkigu hutsik.

Etxeok hutsik, eta itsasoaren urdina.

Egia du benetan Jean Louis Davant zuberotar suharrak Gethariari dagokionez: «Iparraldean gizonik gabe ditugu lurrak, eta gizonak lurrik gabe.» Zer zehatzagorik gure herri honen heriotza larrosa azaltzeko? Euskal leku-izen aldrebestuez gain, zer atxiki ote du Gethariak euskaldunik?

Nagusiak joan dira, jabeak joan dira, arrotzak joan dira. Baina bertakoak... oraindik ere lehenago joan ziren gizajoak!

Kondu gaitza diagu!

Oso oso ezaguna den markiñar kalonje bat halere (nor den ez dut esango) gure eresi triste hauen kontra dagoela ba dakit: «Oso pozik bizi direz horrela lapurtarrak. Itxi egizuz baketan...»

Horregatik natzaie bildur honen tankerako artikuluei. Bakardade eder malenkoniatsu eder horien poesiak, izkurtuan daramazkien giza-trajeria eta mespretxu zitala ahantz eraz ditzaketelako. Hitzik ere gabe suntsitzen ari den herriaren oinaze etsia!

(1973)

LOU PROUCLAM DE SIROS

Bestetan ere aipatuak ditut xehetasun hauek. Egia da. Baina «Siros-ko Agiria» ezagutu berria dudalarik, eta Biarnoan gertatzen ari den aldakuntza harrigarriaz mintzatzeranoalarik, zilegi bekit zenbait bederen berriro gogoraztea.

Nork ez du inoiz Paue-ko «Boulevard des Pyrénées» kale-talai ederraren berririk entzun? Nork ez daki XIX. mendean barrena Paue hiri protestante-ohia izan dela britaindar turista aberatsen ametsa?

Nork daki, ordea, euskaldunen artean, Paueko harmarriaren ezagugarria Nafarroako kateak direla? Nork ote daki gure artean Paueko Diputazioari «Parlement de la Navarre» deritzala gaur ere? Nork ote daki Zuberoko Forua biarneraz idatzia izan dela? Nork daki Biarnoko Eskiula, Inhasi, Sarraltzune, Arantze, Jeruntze, euskaldunak izan direla oraintsu arte, eta euskaldun dirautela baserrietan, behinola mendialde osoa bezala? Nork ote daki biarnotarrak arbola baten azpira biltzen zirela, Gernikara bizkaitarrak bezalaxe? Nork ote daki Biarnoko mendialdean (Biarnoko «bortian») oraindik ere haizkolari apustuak badaudela, xirula eta ttunttuna jotzen direla (Santa Orosian

bezala!); eta Lacq-en ondoko Monein-go dantza-taldeek XX. mende honen hastapenetan beretan euskal dantzen txapelketetan hartu ohi zutela parte, «ohitura zaharrari jarraituz»? Nork daki gure artean Biarnoko eta Nafarroako foruak ia berdin-berdinak direla? Nork daki gaur Euskal Herrian are Biarnoko eskualdea non dagoen ere?

«Joanak joan», erantzun ohi zuten honen guztiaren berri ba zekitenek.

Zer erantzungo, ordea, «Lou Prouclam de Siros» harri-garria irakurrita? Ez dakit, benetan. Geroak erranen.

Otsailaren 28 an Lescar-era (Paueren ondo-ondoan dagoen antzinako Laskurri-ra, alegia) bildu dira Biarnoko alkate eta intelektual batzu. Eta Alexis Arette-k antzinako Udaletxean, biarneraz, «Lou Prouclam de Siros» deritzan Agiria irakurri du. Laskurri-ko katedrale zaharrean dautzan nafartar erregeen gorputzek ez zuten aspaldi honetan horrelakorik entzun!

«Biarnotar abertzaleak gara» oihukatu du ozenki Arette jaunak (=«Nous sommes des nationalistes béarnais», dio frantses itzulpenak). «Ba dago kondairan barrena biarnotar nazio bat. Eta orainak ez dezake deusik iraganaren kontra...»Horra doinua! Eta honela ekin dio: «Nola edo hala... gure herriaren barne-deia haxe da: bere jatorrizko ondarena berriro biltzekoa.»

Arette jaunak azaldu duenez, biarnes kantuaeren pizkundea gauza lortua da. Siros-en zazpi urtez segidan eratu diren kanta-sariketak argiro erakutsi dute hori; eta biarne-razko kantu berria abiarazia da.

Orain, berriz —azaldu du— gure xedearen bigarren parteari eraso behar diogu: biarnotar kulturaren pizkundeari, alegia. Eta horretara dator Siros-ko Agiri hau. Frantsesez eta biarneraz batera argitaratua, Martxoan azalduko da Biarnoko Herriko Etxe guztietara.

«Zergatik gaur, otsailaren 28 an, gure Agiri hau?» —galdetu du Arette jaunak. Eta berak erantzun: «Zeren-eta Nafarroako Hendrike erregea, gaurtxe dela 400 urte saiatu baitzen lehenengo aldiz Parisen preso zelarrik, Biarnora ihes egiten.» Eta sinboloaren argitsua izkutatu nahi izan gabe, areago argitu Agiriaren funtsa: «Erregeren eskolaren arabera jokatu behar dugu» (=il faut nous mettre à

l'école du Roi).

Biarnotarrek ez dute Fraintziatik berezteko ideiarik aipatu, ez arras baztertu ere. Oso ermoki jakin erazi dute Laskurri-ko beren Biltzar horretan, «erresistentzia», ihardukiera, antolatu beharra dagoela. Piztu eta indartu egin behar da Biarnoko hizkuntza. Eta orduan, biarnera eta frantsesa elkarren parean paratuz gero, eta ez lehenago, frantses hizkuntza «beste leiho bat» bilaka daiteke unibertsaltasunari buruz (=une ouverture de plus à l'universalisme). Arte horretan frantsesa Biarnoaren zapaltzaile gertatzen da.

Biarnoak —dio oraindik Agiriak— ez du bere berezitasuna edo nortasuna galdu nahi: «Seguru aski egia da, mailaren batetan bederen, Hexagonoa berdintzeko xedea ba dagoela... Hots, nahikunde hori legean agertuko balitz, erresistentzi-modu guztiak zuzenetsiko lituzke» (=il justifierait toute forme de résistance); «zeren-eta edozein herriren lehendabiziko betebeharra bere burua bizirik atxikitzea baita».

Xehekiago azaltzen du Agiriak biarnotar abertzaleen pentsakera: «Fraintziaren barruan biarnotar ondasunak salba ezin balitezke, Fraintziarekiko Ituna edo Tratua hautsirik geldituko litzateke... Ala bilatzen ari garen tratu-berrikuntza hori lortuko da, ala Erresumaren puskaketa gertatuko da» (=ou il y aura éclatement de la Nation).

Siros-ko Agiriak hitz ederrik ba du gero Nafarroarekiko: «Biarnotar nazioa bere lege berezien arabera hazi da, halako batez beste zenbait herrirekin batera Nafarroako Erreina sartu arte. Politikoki nafartarrak izanagatik ere, geure nortasun bereziari dagokion aldetik ez digu horrek batere kalterik ekarri. Occitania-tik berezirik atxikiz, Nafarroak biarnotar atxiki gaitu. Biarnotar atxikiko ote gaitu orain Fraintziak? Horra hor kakoa...»

Biarnotarrak, horretara, occitano baino nafartar maiteago. Amets egiten ari garela dirudi.

Eta gero eta nekezago uka daiteke, somatzen ere ez dugun barne-zuzperkuntza harrigarri batek astintzen dituela Nafarroa zaharraren eskualdeak eta herrialdeak oro. Oso luzaz lozorroan zetzan leoin zaharra, iratzartzen hasia bailitzan.

(1974)

ERRIOJAZ BERRIRO ERE

Oraindik ez dago hau arrunt erabakirik. Baina kontrako agindurik gerta ez badadi bederen, Erriojatar Samillan famatura bilduko da Euskaltzaindia datorren Ekainaren 15-an. Hegoaldeko mugaldean eginen da batzarrea, beraz, antzinako nafar hiriburu izana zen Naiaratik gora, eta San Lorenzo eta Arandio-ko tontorren agerrian: «En las proximidades de las maravillosas cumbres de la Sierra de la Demanda, y como tesoro escondido en sus laderas cubiertas de un frondoso arbolado, se encuentra el Monasterio de Yuso... (llamado también) de San Millán de la Cogolla», Gil del Rio-ren hitzez esateko. Nafarroako eta Euskal Herri osoko kondairan barrena ikur eta burumuin izan den Monasterio zaharretan, horrela, jatorrizko euskara ahaztua entzungo da berriro.

Erriojaren deia aditzen hasia bide da gutartean. Gure deihadar ezin etsiagoa Kanberos-ko mazelatan, Auka-ko, Arandio-ko eta Hormazabal-go tontor idorretan oihartzun harrigarri bihurtzen hasi delarik; Ezkarai, Ezkabarte, Angiano eta Naiara-ko bihotz gazteetan zerbait biziki sakonik ernatzen hasia delarik, guk geure artean ere, itzuletara,

errepika izutiaz bezala erantzun dugu. Erriojaren euskal deia entzuten hasia da bazterretan; eta geroko zuzperraldiaren zantzu ederra zaigu. Arrazoinetik at hotsegin bide diogu elkarri: ilunpe betean; baina, arrazoin gardenetatik at ere, ulertzen hasi gara denok. Inkontzientean, agian, radiestesian gisa, nik dakita nola? Baina ezinago sakona den barne-zantzu horrek ba dakarke uzta. Eta lehenego asalduek hortxe ditugu agiri.

Zergatik Euskáltzaindia Samillan-a bilduko? Erantzuna merezi irakurleek.

Euskarazko lehendabiziko bi esaldi laburrak, orain dela mila urte idatziak, Samillango Monasterioan erriojata-
rren batek, eta Samillanen inguruko jendeak zeharo euskal-
dunak zirelarik, izkiriaturik utzi zizkigulako: «izioki dugu»
dio batak, eta «guc ajutu ezdugu» besteak (ikus Mitxelena-
ren «Textos Arcaicos Vascos», 41-44). Bi esaldi labur horiek
X. mendekoak dira, eta latinezko izkribuaren ARGIGARRI
erantsi ziren. «El autor de las glosas, pues, tanto puede
ser, por cuanto ahora sabemos, alavés, o RIOJANO, como
navarro» (Mitxelena).

Samillanen ondo-ondokoa izan zen (Berzeo-koa) Gon-
zalo Berzeoko apaiz eta idazle famatua, eskuarki euskalduna
jatorriz (1198-an euskara zen Errioja Garaiko mintzaira,
Merino Urrutiak frogatu zuenez), erdaraz ari izanik ere,
anitz euskal hitz eta keraren lekuko dugu, eta Errioja zahar
haren «pillu», berak bezala esateko. Hots, Gonzalo Ber-
zeokoa Samillanen bizi izan zen.

Garaia zen, beraz, guk geure aldetik urrats bat eman
genezan, azken urteotako hertsikeriak gaindituz, eta iker-
tzapenak erakusten duen egiazko euskal geografiaren ara-
bera jokatz hasteko.

Hots, erriojatar intelektualek hau alde z aurretik jakin
balute bezala, Zaldua-ko hamaboskari batek banako bikoitz
bat argitara berri du joan den Apirilean. Monografia bat
da, eta «La Rioja» du izenpuru. («Esfuerzo Común, núme-
ro 186 - Sdit. Sánchez Romeo - Fueros de Aragón, 16 -
Zaragoza - Prezioa: 50 pezta.)

«Era entonces Castilla
un pequeño rincón,
era de castellanos

Montes de Oca mojón.»

(Poema de Fernán González.)

Eta Erriojako eskualde bat («Nafarroako Sonsierra» deritzana) Ebroaz Iparraldean zegoen. Logroño-probintzia artifiziala da osoki, eta Gaztelerrian sarturik gertatzea zeharo zentzugabea. Karlista gerratean bertan, bai liberalak (Zurbano-ren manupean), bai karlistak (Larron Gebarakoa-renean) Ebroaz BI ALDERDIETAKO erriojatarrak ziren. Ebroko muga, Araba aldetik batez ere, ez zen egiazko muga. Jaime del Burgo 1833-an Madrillen besterik erabaki artean, muga bestetan zegoen: Aukan (esp. Oca), Arandion (esp. Demanda), Urbionen eta Piqueras-en. Ebroaz Hegoaldeko mendilerroan, ez ibaiertzean.

Leku-izenek, berriturik gertatu ez direnean bederen, gauza bera erakusten dute: «río Bayas», Ibaia da; «Iregua», Eiroka (eta Bero); Calahorra «Karagorri»; Alfaro «Grakurri»; Cameros, Kanberos edo Ganberoz; Santo Domingo de la Calzada, sainduaren ohoretan horrela bataiatu arte, Ezkabarte edo Ozkabarte; Anguiano, Angidanoz... «Hoy no cabe duda —irakurtzen dugu aldizkarian— de que los antepasados de los riojanos hablaban el vascuence en su forma dialectal occidental, parecida al actual vizcaíno-alavés.»

Serologi-ikertzapenak gauza bera erakutsi dute: erriojatarrak euskaldunak dina soina: «A esta región vasconavarra se liga Logroño por los grupos sanguíneos» (Luis del Hoyo Sáinz). Foruen pleguak, Nafarroaren Kondairak eta folklore zaharrak gauza bera. Denari dario euskal kutsua; eta baita ere, bereziki, orain hustutzen ari diren baserriak eta mazeletako herriskak, Ezkarai aldean batez ere.

1833-az geroztik, ordea, Errioja Segovia-ren pareko bihurtu da, Nafarroa eta Araba-tik ezin urrunago. Eta, zatitu ere egin da: Sonsierra deritzan eskualdea, Araba-ra pasa da; Beloradoko eskualdea (Auka-mendiaren ondokoa, Heterrena, Ezkerra, eta abar) Burgos-a; eta Kanberos-ko azken muturra (Montenegro)... Soria-ra! Eta Erriojaren nafartasuna ahaztu eta gaztelartasuna txertatzen hasi zaio.

Hots, erriojatarrek berek arbuatzen dute hau «Esfuerzo Común» horretan guztian barrena. Eta orain antzinari dagokion Kondaira eta geroari dagokion Ekonomia elkar-

turik daudenez gero, Errioja «boskarren euskal probintzia» ikusi nahi dute. «Hay que lograr que las cinco provincias del conjunto vasco-navarro-riojano se unan: sólo si la Rioja puede integrarse al marco vasconavarro su evolución económica podrá ser rápida.» Ekonomistak dira horretara mintzo. Eta zehazkiago azaltzen: Errioja Garaia (alegia, Haro, Ezkabarte, Naiara) zeharo loturik dago Bizkaiarekin eta Arabarekin; Errioja behe, berriz (Karagorri, Grakurri, Arnedo) Nafarroarekin. Hegoaldetik, berriz, Arandioz bestaldera, Soriako eta Teruelgo basamortua hasten da («los dos desiertos poblaciones más desoladores de España»). Erriojaren etorkizun bakarra, aspaldiko mendeetan bezala, Iparraldean dago, Euskal Herrian alegia: «La Rioja... no tiene más opción que adscribirse a la región vasca.»

Baita hazkuntzaz eta nekazaritzaz bizi izan den mendiekualdeaz ere (Soriarekiko mugakoa eta Kanberoskoa), gauza bera esan daiteke irakurtzen dugunez. Ezin azkarkiago hustutzen ari da: Enciso eta Munilla, esate baterako, 1940 aldean 4.000 lagun bien artean, 500 lagun baizik ez gaur! Eta Ezkaraik berak, «modan» abiatua, bizkaitar eta arabar turistei esker bizi da; ez Soriatik edo Guadalajaratik heldutako diru-laguntzaz. Azkeneko artzainak bukatzen ari; eta herriska osoak, Nafarroan bezala, huts-hutsik. Industri-laguntza behar du Erriojak; eta Euskal Herria izan daiteke hori.

Jakina, azaltzen dute «Esfuerzo Nuevo»aren idazleek: «No conviene minimizar las dificultades que ha de arrastrar tal adscripción, debido a la complejidad de todo lo que concierne a la cuestión vasca. Existe ya una consolidación colectiva e ideológica del País Vasco... existe un clima social tenso, que busca la personalización de una conciencia y acaso una cultura propia, a través de la potenciación de la lengua vasca»... (gu baino baikorrago dira erriojatarrak!) ...En la medida en que la Rioja aumentaría todavía más la diglosia lingüística de una región que ve amenazadas sus raíces seculares, existiría un recelo contra ella en las comarcas e ideologías más vascófonas...» Eta errebistak berak erantzuten. Bi artikulu luzez batetik («Las raíces vascas de La Rioja» eta «Las hablas históricas de los riojanos»), erriojatarren jatorrizko hizkuntza euskara dela agertuz;

eta hori berandu arte gainera, Errioja garaian bederen: «La presión ambiental y la oficial fueron erosionando el idioma, que, a pesar de ello, llegó HASTA FINES DEL SIGLO XVI» (M. Ardubia). Ezagutzen ez genuen dokumentu batek, berriz, XVII. mendekoa, euskararan aldeko agindu zehatzetan erakusten digu Karagorri-ko Apezpikua...

Hots, haxe da erdiragarriena, ene ustez: erriojatarrek, gaurko beren horretan, zoritxarrekoztat jotzen dutela beren burua: «Este carácter de subregión natural, encuadrada en el País Vasconavarro, al que todo ofrece y nada recibe, es SU TRAGEDIA.»

Ez ahal zaizu lotsagarri iruditzen, irakurle, hau guztia jakin, eta entzungor egiteari eustea?

(1974)

AGUR ETSIA ALTZURUKUN

Zerua goibel, maizago euri aterri baino, berebitez abiatu gara Zubero aldera neure adiskidea eta biok. Ustegabe handia gurea: Grégoire Epherre euskaltzale suharraren ondo-ondoan, ia segidan, Guillaume kalonjea ere, Grégoire-ren anaia lehena, hila baita Kanbon.

Altzurükü gugandik urrunsko izanik ere, nola ez eman-go geure joiraren lekukotasuna; alegia, azkeneko aldiz bi zuberotar maitagarriei eskain geniezaiekeen geure agurra-ren goratarre apala bederen?

Garazitik Behorlegira, beraz; eta Behorlegi harrigarritik gora, zabaldu berria den bidea hartu dugu, Baxenabarre eta Zuberoaren arteko mendietan gaindi lanopean ia errebelaturik. Mendibe/Larrañe-koa bezain ikusgarri agian kamino hertsu berri hau, basa, kilometro mordo bat bakardade osoan irekia: ez baserririk, ez deusik. Bene-benetan Plaentxiarrak, Eibartarrak eta Santurtzitarrak ametsetan uzteko moduko bazter bakartitan barrena ibili ahal izatea Euskal Herrian!

Eta bapatean, Zubero aldeko mazeletan behera jeisten hasiak ginelarik, ziplo, ia 900 metro goratan, ezker aldean,

arbelezko teiltatu bakar bat agertu zaigu. Ehiztari batzuen berebilak etxe bakarraren inguruan geldirik. Eta hantxe gelditu gara bazkaltzera. Ostatu bikaina benetan: baserri kutsukoa, zurezko habeak agiri bazkaltokian, barnetasun gozoa aretoetan: bisitagarria nik uste. Neguan hetsia, ondikotz! Ba dugu, bai, Euskal Herrian bertan, ezagutzen ez dugun eskualde eta txoko xarmantik!

Eta hirurak irian Altzürükün ginen, Epherre anaien sorlekuan. Etxe multzo bat ikusi dugu lehenik behere hartan, mendiz, babesturik; den-denak, Basabürüko herrietan bezala, arbel beltzez estalirik. Larrañen bezala ere, etheen arteko pasaiak dira «kale» bakarrak. Dorre hirukuna du elizak; eta herriskaren erdian, zaharrakaturik, bertako «gatzelia» dago. Elizaren inguru guztian, berriz, kanposantu apala; eta, hilobietan idatzirik, amairik gabeko euskal izen ezinago luzerik. Euskal Herri zaharraren eredu gisa presentatzeko modukoa Altzürükü.

Isiltasun osoa, trinkoa, pisua, bazter bustietan. Iratzea gorritza. Orbela blai lokatzetan. Eta bapatean kanpai-hots ozenak urratu du isiltasunezko itsaso hura. Beheitik gora jende ilara bat abiatu da poliki, presarik gabe. Gurutze apal bat aurretik. Atzetik apaiz asko eta asko, berrehun bat ote? Zenbait emakume, gutxi. Baserritar lerrokada luze bat, isil isila: nekazari aurpegi gogortuak nagusi, Kaperotxipi-ren margoetatik mirariz hara aldatuak iduri. Oinaze latza Altzürükükoa. Noiz hil ote ziren bertan halako bi seme argitu eta maitaturik?

«Nor ez da gaur hemen poeta bilakatzen?», galdetu diot elizarakoan André Ospital-i. «Egia duzu», erantzun dit. Arratsaldea geldi, ilun, hunkigarri; eta Altzürükü, bestetan Barkoxe edo Altzai agertu izan zaizkidan bezala, gure begien aitzinean itzaltzen ari den Euskal Herri maitatu horren iduria ez ote?

Gutxitan bezain bortizki senditu ditut batera Altzürükün gure herri ukatuaren agur etsia eta denon hil-beharraren dei isila. Berdintsu besteek, nik uste; ezen E. Goihenetxe irakasleak, esate baterako, hitz hauetaz erantzun baitio ene «joan dea»?-ri: «Zahartzen ari.» Ederra, benetan, Altzürüküko edertasuna Urriaren 19-an.

Eta, Iparraldeko elizetan egin ohi denaren arabera, ko-

rura igo gara gizonezkook atzekaldetik. Eliza beterik zegoen. Meza-emale nagusi Baionako Apezpikua bera, zenbait aldiz bederen ikasia duen euskaraz (xubereraz!) poliki mintzatzan ari. Aldarean, berriz, honen alboetan, Latsaga Bikaria eta Iratzeder Belokeko Nagusia.

Zergatik, ordea, ia dena frantsesez egina? Altzürükü oraindik ere osoki euskalduna izanik, eta G. Epherre kalonjea euskaltzale porrokatua ere bai (euskaltzain, katiximaren idazle, «Gure Herria»ren zuzendari, euskal predikari iaio), zergatik ez **dena** euskaraz? Dena euskaraz, bai, dena. Zergatik ez? «Biarnes batzu etorri dituk, ba dakik?», azaldu dit lagun batek. Zer deritzazu erantzun horri, irakurle?

Eta jokabide ustel hori gure egia latzaren zantzua ote den bururatu zait. Alegia, kanpotarren errespetuz, euskal geroari ateak hetsi, eta erdaraz ez ote ditugun Zuberoko azken euskaldunak ehorzten, orain dela gutxi Erronkarin eta beste ibarretan ehortzi ditugun bezala. «Affaire classée celle des Basques de Soule. Ouff!...»

Ezen, egia esan, noiz emango ote du Altzürükük Epherre anaia euskaldunen ordainik? Emango ote du inoiz? Erronkarik ez du Mendigatxa ordaindu. Zuberoaren deuseuskalduntzea oraingo abiatan jarraituz gero, ematerik izango ote du?

Aurtengo gose-greba gogorrean ikusia genuen Grégoire apaiza, beti gurekin irribarrez eta bero, beti ere Bereterbide apaizaren sustatzaile. Donibaneko Unibertsitatean kudeatua genuen iaz matematikalarien sailean (bera lizentziatua baitzen Matematiketan, eta hiztegi tekniko eta batuaren beharrak oso kezkatua). Euskaltzaindiak eraturako Sariketan, Zuberoko aditzari buruzko ikertzapen ederra irakurria genuen, aditz-joko guztietan azentuaz xeheki hornitua. Eta Mauletarrak ba dakite Grégoire Epherre izan zela egiazki Zuberoko lehenengo ikastolaren eragilea eta aita.

Galtzaira handia, beraz, Euskal Herriarentzat.

Besteak beste, Altzürükün agurtu ditugu hiru euskaltzain: Haritxelhar, Laffitte kalonjea eta Iratzeder. Han ziren ere Erdozaintzi frantziskotarra, Barkoxeko Hegiaphal pastoral-bultzatzailea, Roger Idiart, Udoi, Mixel Itzaina, Mark Légasse idazlea. Urruti nunbait Altzürükü, eta hilberria ez aski hedatua, Hegoaldeko gutxi ikusi dugu: Bor-

dari olerkaria, Umandi gramatikalaria, P. Arrizabalaga.

Arratsalde tristagarria, benetan. Agian laister gertakari
alaiagoren batek «arrabilduko» ahal gaitu denok Zuberoara!

(1974)

NARBAITZ BAIONAN MINTZO

Elizgizon gisa Iparraldean oso ezaguna (Baionako Bikario izana baita Narbaitz kalonjea), euskaltzale gisa ere oso saiatua («Kattalinen gogoetak», «Ixtorio ederrena» eta «San Frantses Jatsukoa» liburuak lekuko; baita irratiz igandero hedatutako meza-predikuak); orain beste aurpegi bat erakutsiko digu Azkarate-ko baxenabartar azkarrak: Kondaira-gizonarena. Urte batzutan barrena mamitua, Ekainaren erditsuan agertuko da haren «Le Matin des Basques» (98 libera berri; Librairie Jakin - 8, av. Foch - 64100, Bayonne). Nafarroako erreinua sortu arteko mendeak ikertu ditu liburuak.

Hau dela-ta, hitzaldi bat eman zuen egileak Baionako Euskal Erakustokian joan den Maiatzaren 30-an. Eta, dirudienez, zenbait sailetan bederen, harrigarri gertatuko dira Narbaitzen ideiak eta aurkikundeak.

Narbaitzen pentsaera-hildo nagusia hauxe da: Euskal Herriak ez zuela tenk atxiki erromatarren garaian. Uste hau, hain zuzen, egiaren kontrakotzat dauka. Europako herririk gehienak bezala, gurea ere erromatartzen eta «des-nortzen» abiatu zen; eta «des-norketa» horretan **gehiena** galdu genuen,

eta ez gutxiena. Non galdu, beraz?

Puntu honi buruz erantzuna emateko, denak miatu omen ditu Narbaitzek: erromatarrak berak, visigodoak, arabitarak; eta, askotan, gaurko katalan aztertzaileak, Corominas buru. Hots, horiek oro kontutan hartuta, egilearen erantzuna borobil borobila da: Euskal Herria Mediterraneoetik Kantabriko-raino hedatzen zen erromatarren etorrera-koan; eta Garonatik Ebro-ko aroraino.

Orain dela 32 urte, eta Menendez Pidal-en bidetik, «la vieja Aquitania, el territorio de cerretanos e ilérgetes» baizik ez zигun aitortzen Caro Barojak (Los Pueblos de Norte, 103) hau da, gero Kruttwigek, Oihenarten eta Jaurgainen jarraitzaile, «Vasconia» rentzat proposatu zuena.

Narbaitzen arabera, hortaz, erromatarrak etortzean, «des peuples vascoïdes» ziren nagusi itsaso batetik besteraino; eta Akize (=Dax), Auzki (=Auch), Tolosa (=Toulouse), Narbonaren inguruak, Oska (=Huesca), Zaldua (=Zaragoza), Errioxako lurraldea, eta abar, **euskal** hiri eta herrialde ziren. Harritzekorik ez, beraz, Aran-haranean, Leridan, alegia, aurkitu diren izkribuetan: «Ilurberri» herri-izena, ia-ia Nafarroako Ilunberri berbera; eta «Anderexo» deitura, normalak ziren garai hartako Leridan, Lerida euskalduna baitzen.

Akize-ri dagokionez, dato mamitsu bat eman zigun Narbaitzek; eta nahiz aspaldikoa izan, haren arabera euskaraz ari agertzen zaigu Akize.

Lurraldeari eta jendetzari dagokionez, hitz batez, hamarretatik bederatzi galdu genuen euskaldunok; ia-ia osoki. Eta latineratik guretu eta finkatutako hitzen kopuruak (%-ko 75 Laffitteren ustez) gauza bera adierazten du.

Euskal Herria, beraz, **atzeraka** agertzen zaigu betidanik, beti ingude eta behin ere ez mailu; inoiz ez aurreraka lurralde arrotzetan barrena.

Hori bakarrik ez. Zeren-eta Euskal Herriko eskualderik aberatsenak (garai hartako ondasunez, noski) erdaldundu baitziren, gaur Bilbo ingurua bezalatsu agian. Zein aldetan? Kataluñako eta Mediterraneo-itsasertzeko lurrak galdu genituen; gero «Gascogne» bataiatutako herrialdea (Armagnac, Aturri-arroa), jatorriz «Vasconia» izana; Ebroko arro gehientsua; Aragoi garaia. Errioxa euskal hizkuntz-uharte bat

izana bide da, hortaz, XV/XVI mendera arte; Ribagorza eta Sobrarbe bezalatsu.

Nork eutsi zion hortaz euskalduntasunari? Narbaitzen erantzuna zehatza izan da; «Ce sont les basques **pauvres** qui ont tenu», euskaldun **txiroek** eutsi diote; alegia, mendi gogorretako artzainek, haran garaietako menditarrek. Iruña hiri «usteldua» erre zuten nafartarrek; beraz, eskualderik hutsenetako bizilagunek, kulturatik at bizi zirenek, praubek eta gizarajoek. Orduantxe ere puntuzkoak eta handikiak, hiritarrak eta aberatsak, erdaldundu egin ziren lasai. Euskalduntasuna menditasunarekin nahasia agertu zen. Hauxe bide da Iruñaren erreketaren kakoa!

Erromatarren kontra, bestetik, borroka urri euskaldunen aldetik. Gero bai, visigodoekin; eta, hain zuzen, erromatarrez bestaldera, visigodoek beren **legeak** eta beren **erlijioa** sartu eta onar erazi nahi zituztelako. Erromatarren inperialismoa, Narbaitzen ustez, **ekonomikoa** izan zen soilki; eta hortaz aurkako mogimendurik ez zuen sortu. Visigodoekin, berriz, euskaldunen «arima» (ohiturak, sinespenak) ikutu nahi izan ziren antza; eta orduantxe altxa zen Euskal Herria, eta hiru mendetan barrena eutsi zion bere askatasunari odol-itsasotan. Nola ez pentsa ondoko Kondairaz? Burruka-giro hartantxe sortu zen, bestalde, Nafarroako erreinua. Nazio-kontzientzia berriagoa izanik ere, zergatik uka, inkontzientean bederen, «arrotz»en kontrako herra horren egia, indarra eta aspalditasuna?

Xehetasun interesgarri bat: mende haietan, eta visigodoen eta frankoen kontra borroka egitean, **batera** eta buruzagi **berberen** menpean agertzen zaizkigu euskaldunak eta haien artean batasun zerbait. Gero, noski, zeharo suntsitua.

Euskaldunak, azkenik, motel oso agertzen dira kristautzeko; guhaur omen gara Europako azken kristautuak! Hots, honek ere badu bere mamia; zeren-eta gero ere fede berriak hartzen luzakor agertzen bai-kara, eta xaharkituak uzten ez presatuago. Ez gara oso aldatu, alajainkoa!

Ikuspen mamitsua, beraz, eta berria, Narbaitz kalonjeak eskaini diguna. Ideia horien balioaz, noski, kondairariiek dute azken hitza. Beha gakizkien.

Jadanik halere badago hor uzta ederrik. Ezen «euskal inperialismoa» eta «euskal handitu-nahia» salatzen zaizki-

gunean, egoki etorriko baita **betiereko** gure atzeraketa eta txikiketa azaltzea.

Gure herri ukatu eta faltsutuan ez baita gutxi izanen!
(1975)

SARRALZUNE

Mendi gaitzen altzoan, turistari parabisu berbera eta idilio-gune aproposa iduri, hauzo apala zinez Sarralzune: urruna, Euskal Herriko mendarte ahantzietako bakardadean ahantzia, Iridoi, Irutiguti, Irakurri, Liziaga, Bitola eta Zudu tontorren artean datza, ia hitz gabeturik bere bakearen sakonean, baserri arkaiko mordo bat. Bertan jokutzen ari denaren sinbolo-mamiaz ez-antsiaturik, arbelezko teilatuak ditugu lekuko isiltzat. Han itzaltzen ari baita gaur Euskal Herriaren atal xumea geronek ere, euskaldunok alegia, ez dakigularik. Hein batez, gainbehera doan gure herritasunaren eredu zait Sarralzunekoa, horretara, denetan argitsuena agian.

Non da, ordea, Sarralzune? Landa-ko hauzo urrun bat dela erantsiz ere, ezer handirik argitu ote dut Sarralzune ezezagun horretaz? Zeren-eta, Landa bera ere, non debru da?

Ez Landa eta ez Sarralzune daude «Euskal Herria»n, hain zuzen. Landa (= fr. Lanne) eta Sarralzune (= fr. Barlanès) Biarno dira, Zuberoa-ko Ekaldean.

Hots, Sarralzunen euskaraz egiten da gaur. Biarnoko Eskiulan, Oloroeren ondoan, bezalatsu.

Sarralzuneko berrehun baserritarrek demografiaren aldetik biziki pisu urria badute ere, «bitxikeria» guztiz garrantzitsua iruditzen zait. Orain dela urte asko (ikus ene «Huntaz eta Hartaz», esate baterako) ageri baitzait, gero eta garbiago, Pirineoan mendeetan zehar arrabotsik batere gabe itzaldutako euskal giza-multzoen iduri zehatza dugula gaurko Baretus-en. Aramitze ondoko giza-multzo horiek, argi eta garbi esateko, bi aldiz daude gaur saihesturik eta ukaturik: euskaldunak diren aldetik, lehenengo; eta Euskal Herritik «kanpora» bizi diren multzo «odd» diren aldetik bigarrenkorik, geronek baztertzen eta ukatzen ditugulako. Tuteran eta Lanestosa Euskal Herriko zatidunak; baina Eskiula eta Sarralzone ez. Arazo hauetaz izkiriatze soila «euskal inperialismo»an erortzea omen da! Administrazio-mugek bide dute munta guretzako, eta ez etniazkoek; erakatsi zaizkigun egia ofizialen funtzionario leial baikin!

Pentsakera administrazioari horren ondorioak ezin larrago izan daitezke; zeren herri batek ez-baina **geografi-muga** batek kezkatzen eta burubidatzen baldin bagaitu, Irlandako patua datorkigu, eta ez Finlandia edo Quebec-ekoa. Alegia, pasaporte desberdin bat nahi bide dugu aurrenik, atzetik herri-nortasunik ez badago ere; eta ez aitzitik, herritasuna eta euskaltasuna.

Hain zuzen ere, uste dudanez, okeginda dauka joera horrek belaun berria. Giza-funtsari areago begiratu, pasaportekerien kontra dago, eta herritasunaren alde. Irlandako patua, hitz batez, osoki zaio negargarri, funsgabe eta zorakeria. Guri ere bai, noski.

Herritasun eta multzo-sustrai bilaketa honetaz, beraz, eta Sarralzonez nehor ere orain arte arduratu ez dela erreparatzean, nola ez **zeharo** kezkatuko; nola ez somatuko, izialdurarik larrienean, herritasunaren bilaketak ihes egin digula gaur arte, burokrazikerian barrena lerratzen ari baikin, eta Sarralzuneren agur etsia baino barnago ez dakit nongo sasi-jakinduriak kezkatzen gintuelarik?

Sarralzone gainbehera doa.

Orain dela hiru urte bertako eskola hetsia izan delarik, Sarralzuneko haurrek Landara behar dute autobusetan. Eli-

za bera ere, bide beretik, zabarturik agertzen zaigu; eta atetan armearma-sareen gotorrak erakusten digu mogimenduaren urria. Pirineoko herriska asko eta asko bezala, ekonomia- eta herritasunaren mailan batera, itzaltzen ari da. Zerk mintzen zuen, hain zuzen, Pitrau «lehen hauzoa» herio-behar horrek baino?

«Euskaraz egiten ahal zaie haurrei?», galdetu dut. Ez da erantzuna luzatu: «Ez, ez. Hemen etxeko zaharrek ez besterekin erabiltzen dugu euskara. Haurrei frantsesez egiten diegu».

Aramitzen, Aretan, Laskunen bezala, biarneraz ari da jende heldu guztia, kalean eta nun-nahi. Landan eta Bero-rize-n (= fr. Montory) berriz, «bietara», «selon les quartiers» Aramitzen azaldu zaidanez.

Hauxe da harrigarriena, ordea: Baretus-ko leku-izen nagusiak euskal kutsukoak badira ere (mendiak, errekek, bideak berak «Chemin de Herricherry» horrek nebarrenki adierazten duenez), Sarralzuneko baserrien izenik askok biarnesezko dirudi. Nork antzeman ote lezake, hortaz, Sarralzunera gabe, eta hau «Euskal Herritik kanpora» dagoelarik, bertan dena biarneraren nagusigoaren alde agertzen delarik, **halaz ere** euskalduna dela hor bizi den jendea? Geronek ere, garaikideok, hori ez badakigu; edo-ta, jakinik ere, «bixikeria» hori geure muinondoan bazterrera botatzen badugu, zerk adieraz liezaioke inori geroan **hortxe gaur** ari dela euskal atal bat suntsitzen? Eta, beraz, Pirineo guztian bezala ezabatzen ari dela, lekukorik gabe, aztarnarik ere utzi gabe?

«La Haute Soule a reculé» azaldu digu geure berri-ema-leak. Baina ihespide eskuindar hau ez da egia: Baretus Biarno izan da beti, Aspe eta Urzari bezala. Hain zuzen ere sasi-azalpide horixe da eskema zaharrei cutsi ahal izateko jukutria. «Basaburia»ren atzerakada ipuin bat da. Egia har-rigarria beste hau baita: Baretus-ibarra, Erronkari-koarekin hiru behien zerga izenpetu zuena, euskalduna izan dela; Uhatzandi, Errobi edo Oria bezala. De Smet bidaztiak guk baino asko lehenago zehazki ikusi zuenez, Biarnon ere euskaraz hitzegiten da. Hau ukatzea da «erdal inperialismoa». Baijeste, berriz, egia ohoratzea besterik ez da.

Jeruntze-n ere (= fr. Géronce) biarnes atzerakaldi hor-

ren aztarnak daude (Irizar-ek bazekien hau euskal dialektologia ikertzean); ezen gaur bertan ere hango baserritar batzu bederen euskaldunak baitira. Gauza berbera Inhasin (= fr. Féas) eta Arhantze-n (= fr. Ance).

Eskiulako Herriko Etxeko dokumentu harrigarri bat argitaratuz (1861-koa) gauza berbera frogatu zuen Haritxelharrek 1969-an: Sanpe-Gainekoan (= fr. St. Pée d'Oloron), Inhasin, Arhantzen, Jeruntzen, Aramitzen, eta Eskiulan bertan jakina, **euskaldun anitz zegoela** orain dela mende bat, ehunka. Herriz herriko kopuru horiek aztertu nahi dituenak ikus beza: «Euskara, 1969-1970», Euskaltzaindiak argitaratua, 504 orrialdean.

«Ez ote da hori, ordea —galdegin dezake agian batek edo bestek— muga ondoetako bitxikeria horietako bat?». Ikertzapenaren araberako erantzunak, ordea, ez du zalantza izpirik uzten: ez.

Harri gorrizko Ahüñe ezin basagorako bidean, eta Sarrazunetik Ekaldera beraz, eta mendi-katearen Iparraldetik beti, leku-izen hauek aurki baitaitezke: Ibarri, Liorri, Aurizte, Guren, Bizkarrula, Urdeta... Eta oraindik harago: Garai, Larran, Urdax, Etxe, Lurbe, Bizarze, Andurte, Urdinze, Hundarreta, Ixerzen, Xurrut, Eigarri, Izaba. Eta orain ere haratago: Zakarrotz, Baztan, Baztanpe... Eta haratago, eta kutsu bera, nahiz bakantzen ari. Sarrazuneko egoera ezagututa, nork eskualde urrun haietan ere euskara halako batez gaur Sarrazunen bezalaxe itzalia denik zalantzarik izango?

Ez du folkloreak hau ukatzen, ezta bertako foruen giza-legeak ere.

Hots, aste hauetantxe hain zuzen, hona hemen argitara berria den antropologi-liburuan zientzi-gizonek izkiriatu dutena: «Les populations barégeoise (Barèges ski-herriska Bigorran dago, Tourmalet-eko aldapan, Baztan ibarrean, eta Sarrazunetik 110 Km.-tara Ekaldetik) et basque se singularisent encore nettement dans l'ensemble des populations blanches. Il ne s'agit pas seulement d'un phénomène de convergence, mais bien d'une **similitude d'origine** qui prend toute sa valeur quand on sait que le Pays Basque occupait dans les siècles passés une **étendue beaucoup plus vaste** que celle qui est la sienne aujourd'hui. Ces pressions diverses,

qui sont responsables de la disparition presque totale de la culture baque dans diverses zones, n'ont pas suffi à effacer la parenté génétique qui s'y était établie» («Communautés du Sud», D. Fabre eta J. Lacroix; I, 96-97 orr. Liburua «10/18» sortan agertu berria da, 12 libera).

Udoi eskuindarraren «Miroir de la Soule» aldizkariak bere burua «Nouvelles de la Soule, de Barétous et du Pays Basque» bataiatu duelarik; eta Pitrau atarraztar «gauchistak» Biarno-garaikoekin inolaz ere hautsi nahi ez zuelarik, ez ote zegoen biongan, oso urrundik etorririk, anaitasun izkutuaren deia?

Sarralzunereren deia, horretara, kontradiziotan eta joera ezin sakonagotan antzaldatua eta itoa ere, ez ote da Euskal Herriaren suntsieraren irudi bera **delakoxe** dei sakona

Eskiula bezala nahi zaitugu guretartua, Sarralzune; eskiulatar kantari berriak herriz herri entzuten ditugun bezala sarraltzundarrak ere entzunez. Ez baitzaitugu ahantzi nahi.

Ondoko pastualen oihua berrituz, hortaz: «Biba Sarraltzune!».

(1975)

JEAN PIERRE SEILIEZ-EKIN HITZEGITEN

Jean Pierre SEILIEZ euskaltzalea Frintzian jaioa da, Nantua-n, 1942-ko Otsailaren 1-an. 34 urte ditu gaur, beraz. Bizibidez irakasle, «SEASKA» deritzan Iparraldeko ikastola-elkarteko Lehendakaria da. Seiliez, hortaz, bihotzez euskaldundua, buru-belarri ari zaigu dagoeneko kulturgintzan. Euskaraz azkar eta ongi ikasten ari da, jadanik izkiriatzeko eta irakurtzekotan trabarik gabe egiten duela, eta mintzatzeko ere gero eta aisago.

Seiliez-ek 17 ikastola zuzentzen ditu gaur, ondoko herri hauetan: Angelu, Arrangoitze, Azkaine, Baiona (3), Miarritze, Ezpeleta, Hazparne, Hendaia, Maule, Donibane, Garazi, Donapaleu, Uztaritze, Senpere; eta, Biarnon hain zuzen, Paue-koa.

Guztira 21 erakasle dira: 20 andereño eta maisu bat; sekretaritzan beste hiru laguntzaile, eta datorren urterako beste 4 andereño-gai prestatzen ari.

«Seaska»ko ikasleen kopurua hau da: 360 haur.

«Haize Garbia» Elkarteak, dena dela, euskara-frantses elebitzan, baditu bere aldetik beste 35 haur Hendaia-ko bere ikastola berezian.

Tx.—Arreta handiaz irakurri dizkiagu ipartar ikasleek argitaratzen duten «Gernika» aldizkarian Biarnoko euskararen egoerari buruz jakin-erazi dituan xehetasunak. Esan duanez, «hamalau euskaldun herri» ba zeudek gaur. Azaldu nahi ahal duk, otoi, Z. ARGIA-ren irakurleen zerbitzutan, herri horik xuxen zein diren?

Seiliez.—Aspaldidanik ezagutzen dituk hamalau biarnes herri horik. Mende honen haseran «Action de l'accent dans l'évolution des consonnes en dialecte souletin» deritzan bere diburuan aipatu zizkian Jean Larrasquet euskalariak; eta, zenbait kasutan, oraindik ere euskaraz mintzo diren baserrien lerrokada zehatza zekarrek (ikus 19. orr.).

Areago ere. Oso aipamen interesgarria duk «Gero» liburuan Pedro de Axularrek (1556-1644) egin zuena: «Ba dakit halaber ezin heda naitekeiela euskarazko mintzatze molde guztietara. Zeren anhitz moldez eta diferentki mintzatzen baitira euskal herrian: Nafarroa garaian, Nafarroa behean, Zuberoan, Laphurdin, Bizkaian, Gipuzkoan, Alaba-herrian, eta **bertze anhitz lekhutan**» (Ed. Flors, 1964, 52. orr.).

Biarno euskaldun hori aipatu zian ere bereziki De Smet idazleak (ikus Euskaltzaindiaren «Euskera» urtekaria).

Nolanahi ere, hona hemen hamalau «biarnes» herri horik: Landa, Aramitze, Arhantze, Inhasi, Oloroe, Eskiula, Jeruntze, Sanguene, Ustasu, Aren, Joosarana, Gurtze, Suese, eta Angastue (ikus mapa).

Bidenabar puntu bat argitzeko, hau esan beharra zegok: herri horik ez direla, izan, hertsiki mintzatzerantz bederen, «biarnesak»; «Iluraldekoak» baizik (Oloroe eskualdekoak, alegia). Zeren, hain zuzen ere, «Iluralde» horrek bost «pagi» baititu: Ossau, Aspe, Barétous, Ziberoa bera, eta Oloroe-ko Ihuri-harana.

Hots, lurralde horri eliz-barruti berezi bat zegokiok: Oloroeko Diosesa, 506-tik 1790-ra arte izana; eta administrazio-barruti berezi bat ere bai: «Iluro» civitas delakoarekin, erromatarren garaitik XI. mendera arte iraun zuena. Gero izandu zuan bost zatitan zatikatua, beraz; eta horrela sortu zituan Oloroeko Bizkonderria (oraingoan hertsiki hartua hau), Ziberoakoa, Baretoskoa, Aspekkoa eta Ossau-koa. Gaur, azkenekorik, Oloroe-ko «arrondissement» delakora bildu dituk denok. Aipa dezagun hau bukatu aitzin: **Paue, Oloroe** eta

Baionako «arrondissement» delakook, ia-ia guztiz zehazkiro, «Beneharnensis» hiriari, «Iluronensis» hiriari, eta hastapenetako «Lapurдум» hiriari dagozkiela.

«Iluraldea» XI. mendeko hastapenean bildu zian Biarnok, eta gure hamalau herri horiei orduantxe erantsi zitzaiean «biarnes» deitura hori. Halaz ere, «Biarnoko **eta Oloroko Bizkonde**» bataiatu ohi zian bere burua Biarnoko Bizkondeak; eta «Iluraldea», bestalde, beti izan duk Biarnotik at hartua. Gaur arte, bukatzeko, eta gaur bertan ere, «Biarno Garaia» (= Haut Béarn) deitu ohi duk maiz «Iluraldea».

Tx.—Mila esker berri jakingarri horiengatik. Hizkuntzalaritzari buruzko tesina bat prestatzen ari haizela jakin diagu. Azalduko ahal diguk, otoi, laburki behintzat, Biarnoko euskal herri horietan mintzo den euskara-mota ziberera denez?

Seiliez.—Zuzen habil, bai. Baretos haraneko pertsonizendegiari buruz ari nauk mamitzen tesina hori; eta bi gauza esan zitzaieat jadanik: herri horietako euskalkia, batetik, ziberera dela; eta, bestetik, ikertzen ari naizen leku-izen eta pertsona-izenak ere, zibereraz oratuak direla.

Tx.—«Zazpiak Bat» delakotik kanpora bizi diren euskaldun horik, nik uste, baserritarrak dituk geihenik, Sarraltzunen iaz topatu nituenak bezala. Azalduko diguka euskaldun horik zer giza-klasetan banatzen eta zein adinetakoak diren?

Seiliez.—Egia duk: «Zazpiak Bat»etik at bizi diren euskaldun horik, baserritarrak dituk ia den-denak; are gehiago, zeren beren baserria oso urrun eta oso bakarti duten baserritarrak baitira. Gehienak zaharrak dituk; eta seme-alabak, oso maiz, sorlekua utzi eta hirira joanak dituk: Oloroera eta Paue-ra eskuarki.

Tx.—Orain dela zenbait urte, Barkoxen gertatu zitzaidan elkarrizketa ez zaidak sekula ahantzi. Euskalduna zuan bazkaldegiko neskatxa; eta Eskiulakoa zela esan zidaan. Ene galdera bati erantzuteko, hauxe esan zidaan ziplo, eta batere zalantzarik gabe: bera «üskaldüna» zela aitzinetik, eta «gero» bakarrik zela «biarnesa»; eta bi jatorri horien artean ez zuela arazorik batere somatzen. Zer deritzok hik biarnotar euskaldunen barne-jarrera honi buruz?

Seiliez.—Nik neuk, oso liferentzia handia antzematen

diat Eskiula-ren eta gainerako herrien artean: oraindik ere euskaldunak dituk gehienak Eskiulan; gainerakoetan, berriz, gutxienak direlarik. Eskiulatartsa harek esan zianak, horretara, ez nau batere harritzen: zinez baitzen hura euskalduna aurrenik, eta gero biarnesa. Bion artean harek kontradizio-rik ez somatzeak ere ez nau harritzen, Eskiulan euskaraz egiten baita oraindik gizarte-biziera. Hazparne-ko eta Azkain-go jendeari euskalduna ala frantsesa ote den galdetzen duanean bezalaxe gertatzen zaik Eskiulan: batera biak direla erantzuten diate, eta bi izakera horien artean kontradiziorik antzematen ez dutela.

Beste herrietan, alderantziz, ez duk batere gauza bera jenderik gehienarengan. Biarnesak erantzuten diate, eta ez direla euskaldunak. Eta euskaraz mintzo den jendea, guraso euskaldunak dituen jendea, etxeak eta hauzoak euskaldunak dituen jendea, betidanik eta gaur ere, leku-izenak osoki euskaldunak dituen jendea, euskalduna ez izatea gauza bitxia dela erantzuten badiek, hala ere ezetz errepikatzen diate, beren burua euskalduntzat jotzea ukatu egiten diate, arbuia-tu; eta azkenean, ezin bestean, arrapostu berbera ematen diate: berak euskal hizkuntzazko biarnotarrak direla, bainan ez besterik. Egia esan, konplejoz oso markaturik zeudek, «Zazpiak Bat»etik uxatuak izan direla barne-barnetik baita-kite. (Euskararen muga hortxe bide zegok oso aspaldidanik, batere mogitu gabe itxuraz). Bakandurik bizi dituk, horrela, eta euskara ez zaiek etxeko hizkera soila baizik. Euskarak oso kanporakunde txikia eskaintzen ziek, biarnera gizarte-mintzaira dutelarik; eta, hau berau ere, noski, frantsesak gero eta maizago baztertua; egiten baititu, azkenean, hiru-mintzodun.

Tx.—Hizkuntzalaria haizenez gero, ongi dakik Luchaire-gandik hasi (orain dela ehun urte), eta Rohlf's-enganaino, ez dela biarnera occitanoaren atala jotzen, **gaskoina** huts-hutsik baizik; Roussillon-go hizkera occitanoa ez den bezala, katalana baizik. Ongi dakik «Prouclam de Siros» delakoa eman zuten biarnesak «nafartar» senditzen direla. Nola ikusten dituk hik biarnotarrak? Euskal elkartearen barruan, ala kanpoan?

Sciliez.—Gauza segura duk ez duela hizkuntzalarik se-kula esan, ezta esango ere, biarnera occitanoaren atala denik.

Biarnera gaskoinaren dialektu bat duk, hori bai: hain zuzen ere, biarnera gaskoinaren izkribuzko hizkera duk. Gaskoinari gagozkiolarik, berriz, latinaren ondoko hizkuntza bat duk; euskal sustratoaren gainean sortua. Hain zuzen ere: sustrato honetxetatik bildu dik gaskoinak, occitanoari buruz, bere berezitasuna. Gaskoinaren hedadura, gutxi gora behera, hau duk: Bizkaiko Golkoa itsasaldetik, eta Garona eta Pirineoetaraino. Mende askotan barrena, biarnera izan duk Ipar Euskal-Herriko lege-hizkuntza, eta Iruñian bertan ere gaskoinetzko artxiiboak aurkitu dituk. Aipa dezagun, azkenekorik, XIX. mendera arte izan dela mintzatua Donostian; hainbestearaino nun gaur bertan zenbait kale eta hauzoren izenak gaskoinak baitira.

Gaskoin hizkuntzak halere ba dizkik bere arazoak.

Alde batetik, occitaniar politikari batzuek occitanoren atal bihurtu nahi liakete gaskoina; berau occitanoaren dialektu bat dela esanez, izkiriatur, eta sinets-arazi nahi izanez ere; guztiz faltsua baita: gaskoinaren diasistema eta occitanoren diasistema guztiz dituk elkargaitzak eta ezin-bateratuak! Españera frantsesaren dialektua dela esatea bezain barragarria duk ideia hori; edo alderantziz, hau harena dela; edo, bitxikeria hori zuzenets-araztekotan, bi mintzairok latineratik helduak direla erantsiko bagenu bezala... Beste sasi bide bat ere ba zegok: gaskoina occitanao dela esan, eta gaskoineraz hitzegiteari eta izkiriartzeari bere hartantxe eutsi; nik euskaraz hitzegiten eta izkiriartzen jarraiturik ere, dagoeneko portugesez hasia naizela esango banu bezalaxe. .

Ez duk larria hori guztia, dena dela: gezurrak beti leheretzen dituk halako batez, eta egunargira azaltzen.

Ba zegok larriagorik, ordea, gaskoin hizkuntzaren etorkizunari dagokionez: ekonomi-polarizaldi batetan sartzen ari garela orain. Hots, batetik, gaskoinerri osoan ez zegok batere ekonomi-polorik; eta, besterik, ba dituk hiru polo inguruncan: Baiona, Bordale eta Tolosa. Garbikiago esatekotan, hortaz: kondairazko Gaskoinerria hiru zatitan puskatzen ari duk: bat, erdizka occitaniduna, Bordale-ri zatxekok; bigarren bat, berriz, erdizka ere occitanoduna, Tolosa-ri zatxekok; eta hirugarrena, azkenekorik, hein batez euskalduna, Baiona-ri. Gaskoin dinamika, hutsaren hurrena izanik, Garona-ko Gaskoinerria Occitania-ra biltzen ari duk; eta Aturri-ko Gaskoi-

nerria, aldiz, Euskal Herria.


Ba zegok, azkenekorik, azken arazo bat: guk euskaldunok hau galde geniezaiokeela geure buruari: ia ongi, ala gaizki, ote denez guk Aturri-ko Gaskoinerri hori gugana biltzea; ekonomi-mailan gugana bildurik ere, ez ote litzatekeen hobeki Gaskoinerria bere berezitasunean atxikitzea. Hots, nondik heldu zaio gaskoinari bere nortasuna, bere berezitasuna? Ez ote du ba gaskoinerak, gainerako latinezko hizkerei buruz, bere nortasun berezi hori lortu euskaldun sustratoari esker? Hortaz, nortasun hori bere molde bigunduaren arabera zaitu behar dea, ala bere jatorrizko izakeraren arabera? Bestela esanda: gaskoineraz landu behar da, ala euskaraz?

Argi duk galderari dagokion erantzuna, eta biarnesek berek emana diate jadanik. Ezen «Prouclam de Siros» horretan, garbiki esana baitute berek «nafartarrak» direla. (Ez dezagun ahantz, gainera, Pauc izan dela Nafarroa-Erreinua-ren hiriburua 1512-tik 1620-ra arte; eta «Pyrénées Atlantiques» delako departamenduaren Biltzar Nagusiak, Pauen beraz, «Nafarroako Parlamentoa» duela oraindik izena («Parlement de la Navarre»). Bestela ere erantzun diate biarnotarrek: beren ekonomi-etorkizuna Euskal Herriari lotuta ikusten dutela aitortu dutenean, edo Paueko ikastola berria jaiotzen kartsuki lagundu dutenean...

Arestian «Zazpiak Bat» aipatu duk hik. Ba litekek, ordea, «Orok Bat» helburua aipatzen hasteko...

Tx.—Mila esker anitz, adiskide. Ziur negok hire ideia hauk ez dituztela Z. ARGIA-ren irakurleek aisa ahaztuko.

(1976)



Biarno-ko euskal herrialdea

IXAKA HIL DA

Bere adinarengatik beragatik ere, batasuna bildu bide du Ixakak bere ondotik gu uztean. Tolosan ba zen jenderik! Eta denetarik ere ba zegoen. Ixaka'ri azken agurra ematekotan denok bat. Santa Maria-ko eliza bete betea Tolosan joan den lehenean.

Beste belaun baten azkeneko lekukoa joan zaigu. Bere tesiak 1899 eta 1903-an presentatuak (Arana-Goiri oraindik ere bizi zelarik, beraz) Ixaka hauze zen aurren aurrenik: lehen-lehenengo Euzko Alderdi Jeltzalearen lekukoa. Hastapenetako buruzagiak oro ezagutuak zituen, Sabino bera barne. Ezagutu bakarrik ez; EBB-ko Lehendakaria ere izan baitzen.

Hau dela-ta, lau hilabete joan zaizkigu GARAIIA-kooi, beti ere gaixo zegoela-ta, egin nahi genion elkarrizketa ezin prestatuak. Azkenean sekula ez da elkarrizketa hori egingo. «Kizkitza»k «ereintza» deitu zuen Alderdia-ren lehen-haro hartaz zerbait gehixeago jakin nahi genuen; eta onunagarri izan zitekeen denontzako. Orain ezinezkoa da.

Azpiatzuk bere sermoian esan duenez «gizon ona» zen, zintzoa, prestua. Gutxi ez izanik ere, guk beste zerbait azpi-

marratu nahi dugu hemen. Ixaka **euskaltzalea** zen erraiaetaraino. Abertzalea bai, urte askotan Argentinan egondua; hori guztia bai. Baina Ixaka-rogen batera zetozen euskaltzalea eta abertzalea. Bi hitz hauek gauza bera ziren Ixaka-rogen. Gero, zoritxarrez, urte askotan barrena, eta gaurtxe ere, batzurengan, gehiegirengan, ikusten ez dena. Oraindik ere abertzalea erdaraz izan baliteke bezala!

Ixakak ikastolaren zimenduak jarri zituen hiru liburutan, guduaren ondoren ere maiz erabiliak: ZENBAKIZTIA, matematika euskaraz, 1913-an argitaratua! XABIERTXO, horren maite izandako liburua, 1925-an; eta MARTIN TXILIBITU, haurrentzako liburua ere, 1931-koa. Bultzatzailea zinez Ixaka arlo honetan.

Bultzatzailea ere euskal gramatikaren sailean: MANUAL DE CONVERSACION (1908), DICCIONARIO VASCO-CASTELLANO (1916). Geografiaz eta Kondairaz egin zituen liburuak alde batera utzita.

Ixaka, noski, bere garaiko semea izan zen. Garbizalea izan zen. «Txadon», «txadontzai», «txindi» eta abar ez dira eskas bere hiztegian. «Abendu»ari buruz ere «voz erdérica» dela dio; eta «elgaro» proposatzen...

Baina, garbizalea izanik ere, eta urteen zerrenda ikustean ageri denez, Ixakak HASERATIK eraman zituen batera hizkuntzaren eta aberriaren aldeko bi burrukak. Eta hauxe da Ixaka-rogen nabarmen erazi behar dena. Ixakak zinez oihukatu zuen bere ekintzaren bitartez: Gora Euskadi euskalduna! Egokikeriarik ez. Egiazki baizik.

(1977)

AKITANIA-KO TRIANGELUA

Gisa da euskaltzale eta abertzaleon artean Euskal Herriak galdu dituen lurraldeen kezka eta barne ximikoa behin eta berriz agertzea.

Erdaldundutako arabar «ergoienak» ikustean, biztanlerik ezaz hustutzen, iraungitzen eta hiltzen ari diren nafar-tar eta xiberutar herriskak ezagutzean; han eta hemen herriaren odola eta giharrea izandako euskaltasuna, leku izetan idorturik azken aztarnaren antzera topatzean, gisa da, esaten nuen, abertzaleon bihotzak asaldatzea. Hori guztia, askotan, ardurarik txikiena piztu gabe gertatzen ari dela erreparatzen baita. Biarnon, Jakan, Bureban, eta bes-tetan, erdalkuntza nola gertatu ote zen begien aurrean dugu (edo izan dugu luzaz). Oihenarte eta Jaurgain, Kruttwig eta Seilliez, Latxaga eta Lizundia, gainbeherakada horrek sortzen duen ximiko horren lekuko eta iragarle ditugu.

Ez euskaldunak bakarrik, ordea. Besterik ere ba da Euskal Herritik at. Eta «triangle aquitain» delakoaren tema hori, garbi agertzen da «Sciences et Avenir» zientzi-hilabete-karian, 1977-ko Apirileko alean.

Akitania-ko euskaltasunaren arazoa zertan datzan eta

zertan dagoen azaldu nahirik, lau zatitan azaltzen ditu Henri de St. Blanquat-ek gaur arteko azterketen gorabeherak (376-381. orr.).

Sustraiei dagokienez —dio egileak— lau maila hauetan batera agertzen da euskaldun Bordale-Baiona-Andorra triangelua: 1/ serologiaz; 2/ hizkuntzaz; 3/ arkeologiaz; eta 4/ jatorrizko legediaz.

SEROLOGIA-ri dagokionez (=odolaren azterketa), eta beste lekutan eta izkributan aipatuak izan diren ikertzapenak hitz gutxitara bilduz, St. Blanquat-ek gauza bat erakusten du: «Akitaniako triangelu» harrigarri horretan, nabarmen dagoela herri desberdin baten odol oinarria. Euskaldunak (eta gauza bera akitaniar «bitxi» hauek) askoz ere ugariago ditugu geure odolean Rhesus-negatibo eta Zero-talde delakoak, inguruko herriek baino.

Hots, askoz ere iraunkorrago da herrietan odol-mota (serologia) hezurren itxura eta neurriak (antropometria) baino. Segur da, hortaz, Vallois-ek eta Ruffié-k frogatu dutenez, Akitaniako sustraia euskalduna dela alde horretatik. (Gauza bera aurkitu zuen Quilici-k, behin azaldu nuen ez: Ikus «Communautés du Sud», Fabre/Lacroix - Coll. 10/18 - 81/98. orr.).

Akitaniako odol-berezitasuna, dena dela, Ahuñamendiz bi alderdietan aurkitzen da: «Les populations des deux versants pyrénéens montrent exactement la même répartition de facteurs sanguins».

Serologiari dagokionez, hortaz, eta berezitasun horren herrialdea osoki ematekotan, «Akitaniako triangelua»-ri, Andorra-Tudela-Bureba-Laredo trapezoidea behar zaio erantsi.

Hizkuntzaren mailan, bigarrenekorik, «sustrato»aren arazoa azaltzen du St. Blanquat-ek hitz gutxitan. Bai toponimiak (leku-izenak), bai kaskoinaren isoglosek (dialektoek), behin eta berriz, markatzen dute akitaniar triangelu famatu hori. (Hain zuzen ere —norbaiti interesgarri gerta dakiokelakoan aipatzen dut— egun hauetan agertu da euskal sustrato horrixeko buruz otsailean eman nuen hitzaldia: ikus «Mundaiz», EUTG, n.º 7, Marzo 1977, 1-8. orr.).

«On aurait parlé barque —dio St. Blanquat-ek— jus-

qu'en Andorre en plein Moyen Age».. Hegoaldeko ikertza-
penak azaltzean, Corominas hizkuntzalaria aipatzen du. (Orain-
txe argitara da katalanak honi buruz idatzi zituen artikuluen
bilduma: «Entre dos Lenguages» - Edit. Curial - Barcelona.
Bigarren liburukia dugu guk interesgarriena). Eta Iparral-
deari dagokionez, Tolosa-ko Unibertsitatean iker-lan hau zu-
zentzen duten Aillières eta Xavier Ravier, «études qui sem-
blent en train de montrer une extension comparable du bas-
que sur le versant nord des Pyrénées à la même époque».

Arkeologiaren mailan, hirugarrenetik, Mohen-en iker-
lanak aipatzen ditu St. Blanquat-ek. Bai hilobietan, bai
burdinazko ezpatetan, bai eltzegintzan, herri berezi bat
agertzen da garbiki Akitaniako trianguluan: «plusieurs élé-
ments s'accordent pour suggérer l'existence d'une culture
matérielle originale dans le triangle aquitain à cette époque
préceltique». Ageri denez, zeltak etorri baino lehenagotik
ere (!) oso iaioak bide ziren gure arbasoak burdingintzan; eta
(—VI) mendean Britainia-raino eta are Kornuaille-raino
ere saltzen bide zituzten burdinazko beren ezpatak eta gai-
nerako tresnak.

Ohitura zaharrei eta letratik gabeko usadioei dagokie-
nez, azkenetik, Ourliac, Poumarède eta M. Bordeaux-en
iker-lanak aipatzen ditu artikuluen egileak. Bi ohitura
omen daude Akitaniako trianguluan guztiz harrigarriak: eta
guztiz ere erromatar eskubidearen aurkako: «retrait lin-
ger» delakoa (lurralde bat norbaitek salduta ere, senitarte-
koek askoz beranduago ere berriz berengana biltzeko es-
kubidea); eta «aînesse absolue» deritzana (etxeko ondasu-
nak etxeko seme-alaben arteko zaharrenak beretzat biltzea,
neska ala mutila den begiratu gabe).

Eta lehenago ere Saint Saëns-ek eta bestek emana zu-
ten irizpidea ematen digu St. Blanquat-ek ere: «l'aînesse
absolue et le retrait linager pouvaient être aussi les vesti-
ges d'une ethnie».

Zer nik erantsiko? Artikulua xeheki irakurtzea euskal-
duni damutuko ez zaiola besterik.

(1977)

KANBOAR BAT HIL DA

«Bien que né à Paris, c'est du Pays Basque que je me sens originaire; c'est en lui que plongent **toutes** mes racines spirituelles et affectives»...

Horra hor orain dela bederatzi urte Jean Rostand-ek idatzi zituen hitz ederrak.

Euskal Herriak, ordea, bere barne-istiluak direla bide, erreparatu ere ez bide du egin kanboar handia hil denik; edo-ta, erreparaturik ere, behar litzatekeen mailan ez du oharrerazi bederen.

Rostand semea, Jean, jakintsu ezaguna zen. Bere Biologi-ikerketengatik zenbait aldiz sariztatua, ezin konda-ahala liburu utzi digu Biologi-gaiez: Les Chromosomes, La Vie des vers à soie, La Nouvelle Biologie, L'Evolution des espèces, L'Hérédité Humaine, La Génèse de la Vie, Pensées d'un biologiste, Biologie et Humanisme, Ce que je crois, eta abar, eta hiru aldiz abar. Rostand semea idazle ugaria izan da. Biologilari ikasiari zegokionez, denak izkiriatu ditu jakinduriaz eta berri-iturriz oratuak. Eta nekez juzka nezake nik hemen, noski, Rostand jakintsuaren alderdi hori. Bego izari hau aipamen soil horretan.

Artikulutxo bat baino gehiago merezi luke, era berean, Zientziaren eta Filosofiaren arteko mugan Rostand-ek egingako saiakera gaitz mamitsuen bildumak. Eta ni Rostand gizonaz mintzatuko natzaizue.

Jean Rostand, 1894-ko urrian Parisen jaioa Euskal Herri berriaren ispilu edo zantzu gisa har daiteke alderdi batzutatik bederen.

Rostand aita, Edmond alegia, teatro-egile eta idazle famatua, akiturik gertatu zen joan den mendeko azken urteetan. Eta 1898-an —Jean haurrak hiru-lau urte zuelarik hortaz— hiriburuko zurrunbilotik ihes egin-eta bakean idaztekotan, Kanbo aldera hurbildu zen.

Geroztik, eta 1918-an hil arte, oso gutxitan joan ohi zen Edmond Parisera; eta hauetan ere lan zehatzak egitekotan: antzerki prestaketa, eta abar. Bestela Kanbon lakezten aita.

Jean Rostand, horretara, Euskal Herrian hazi zen, Kanbon; eta hala idatzia du: «J'ai passé à Cambo toute mon enfance, ou presque; et la plus grande partie de mon adolescence». (Gure Herria, 4-5-6/1968). Eta «gutziz atxikia» egon zaiola dakigu. Kanbo herriska, gainera, «village» zelarik eza-gutu zuen, euskaldun hutsa zen garai hartan.

Hots, Rostand «belarrimotzak», geroko Paredes-ek eta bestek bezala, Euskal Herrian itsatsi zituen bere erroak, eta joan den astean Frintziako Telebistak hedatu zuen erreportajea, garbi utzi zuen Rostand-ek arazo hau: bera «basque» zela aurrenik; eta gero, ezer besterik izatekotan, «universal». Bere frantsesetasuna behin eta berriz «ahantzia» nunbait... Nola ote liteke hori? Zer adierazten ote du aitor horrek maila horretako gizon batengan? Zerk atxiki ote zuen biologilari agnostiko famatua gure herriari horren loturik? Ez dezagun ahantz, bestalde, horrelako aitorrak ez direla Iparraldean, eta adin horretan, batere egunerokoak... Iparraldean, mende haseran eta frantses giroan neurtu behar da Rostand-en euskaltzaletasuna.

Ba du besterik ere Rostand-ek, gaurko egoeraren eta gerokoaren zantzu.

Zeren-eta Rostand-ek, 11 urte zuenean, Kanbon jaunartu baitzuen. Hitz batez, Arnaga-ko semeak elizaren barruan

hasi zuen bere bizia. Gero, berriz, zeharo urrundu zen haurtzaroko bere fedetik; eta hau esan: «Je respecte la figure du Christ, mais pour moi elle n'a pas de valeur transcendante. C'est une petite anecdote qui n'a aucune valeur». Esaldiaren gorra!

Fedegabea, hortaz; eta errotik fedegabe. Baina ideologia guztien etsai amorratua ere bai; baita materialismoaren izenean mintzo direnena ere: «La foi fait moins de différence entre les savants que le marxisme».

Dogmagabea zen hortaz Rostand, eta ideiakera guztien arerio, eta frogatu ezinezko hipotesi eta teori guztien etsai tinko. Honetan ere ez du inoiz amore eman.

Baina Rostand hori kezkatuta egon da azkeneko egunera arte. Neo-darwinzale izanagatik ere, trazendentzi-mota guztien kontra egonagatik ere, harrিতuta beti, txundituta, laztuta, eboluzioaren emaitzak ikusita; eta Darwin-en beraren hitzak birresaten zituelarik: «La seule idée de l'oeil me donne le frisson». Alegia, materiak eta kosmo osoak bere barruan halako norabide edo joera berezirik ez badauka, nola ote liteke zori hutsak, txiripa hutsak, kasualitate hutsak, itsu-itsuan gertatutako mutazioek, besterik gabe, gure begia bezalako tresna ezin harrigarriagoa sortzea? Ezin uler.

Eta jator aitortzen zuen: «Il existe dans la nature vivante une finalité de fait». Nondik etorri zaio? «Dieu au départ... je n'ai rien à objecter», aitortzen zuen. «Mais Dieu au départ, cela ne m'enrichit pas, et n'ajoute rien au point de vue explicatif»...

Eta gertu dago: «bataiatuko ez dugun ez-ezagun horrenzako lekua utzi beharra dago». Gero ikusiko: «Attendons au moins quelques milliers de siècles»: itxaron dezagun zenbait mila mende, eta dena ulertuko dugu...

Eta honetatik ezin baztertuzko bere kezka etengabea: «Je suis obsédé disons le mot, **obsédé** (=tematua); sinon par Dieu, du moins par le non-Dieu. Ah oui!» ...Non gelditzen dira gure arteko batzuen segurkeriak?

Rostand-ek, azkenekorik, Laborit-ek edo biologilari askok bezala, uste dudanez, «jarraitasun kritiko» delakoaren aldeko zen; eta ez zuen gauza handirik sinesten dialektikan eta uko-kateetan. Mintza bekigu bera gai honetaz: «Sans doute

l'égard et la reconnaissance dus aux maîtres de la veille ne doivent en aucune façon gêner l'esprit critique et entraver l'élan vers le nouveau. Que, **par tous les moyens**, l'on tache d'aller **plus loin** que ses devanciers, que l'on s'applique à **corriger** leur oeuvre s'il y a lieu, à **l'agrandir** si l'on est capable; mais que toujours on garde en soi le **vif sentiment de la continuité**... des **liens vivants** qui rattachent le présent au passé»... (Les Grands Courants de la Biologie, 94). Hitz gogoangarriak benetan gaurko Euskal Herrian.

Eta azken galdera bat: euskaraz ikasi ote zuen pittin bat, Ziburuko Maurice Ravel bere adinkideak bezalatsu? Ez dakigu; baina baietz dirudi. Arnaga-ko bere gazte urteez ari delarik hau irakur baitezakegu: «Je revois le vieux tronc d'arbre où je capturai mon premier Lucane; ce beau coléoptère **que les Basques donomment "kakamerlo"**».... Ezagutu duten kanboarrek argi dezakete puntu hau.

Hauxe zen gure kanboar handia: kezkatia, minbera, ikasia, jakin-mina; eta, bere gisara bederen, euskalduna.

(1977)

ULTRA-NAVARRISTEI GUTUN AGERIA

Ustez hila eta ehortzia, horra hor bizirik aspaldiko nafarkeria delakoa; nafarkeria diot, eta ez nafartasuna; alegia, erdaraz «ultra-navarrismo» deritzana.

Del Burgo-k, Aizpun-ek eta gainerakoak diotenez, ez dute berek Nafarroa txikiratu nahi; osoa, handia eta askatua nahi omen dute; ez «gizonez» osatua («no queremos ser guizones») hartu dute ultra-navarrismoaren ezagugarritzat; eta ez Euskadiren kateek herbal, katibu eta maingu...

Eta batzuek, gutxienek nik uste, sinetsi ere bai; eta Nafarroa beroiek bezain sakonki nehork senditzen ez ote duen somatu ere bai...

Nafarroak ba du, ordea, mendiez bestaldera, Garazi, Oztibarre eta Amikuze eskualde zoragarrietan kokaturik, «seigarren merindade» deritzan herrialdea, bere jatorrizko nafartasunetik batere ez urrundua. Harluxet adiskideak orain dela aste batzu zorrozki salatzen zuen, «DEIA» egunkarian, ultra-navarristen hutsune harrigarri hori; zeren-eta baxenabartarrak nafartar ez izatekotan, zer ote dira? Eta nafartarrak badira, nola ahanzten ote dituzte horren aisa

Del Burgok, Aizpunek eta gainerakoek?

Mintza bekigu gaiaz Xalbador bertsolaria, Baxenabarreko bertsolaririk famatuena:

«Naparroa-ko ginen
Aldude-n lenago».

Eta ekiten:

«ez español ez frantzes
bizitzen zen bera».

Eta, ondorioz, hau esaten:

«Arbolak, bizi deno,
ba duke itzala,
beraz, ba laike fruitu
ekar dezakela;
baina nork du nahiko,
nork duke ahala,
Aldude ezartzeko
lehen zen bezala?»

Baxenabarreko herri xeheak horrela senditzen du oraindik ere bere burua.

Baina ultra-navarristek ez dakite ezer honetaz; garaztarrak eta amikuztarrak arrotz baitzaizkie, Molière-ren eta Richelieu-ren ezpaleko «francés» huts...

Besterik ere ba dago, ordea.

Zuberoaren ondoan, Ekaldean; Erronkari, Berari eta Etxoko ibarrez bestaldera, Biarno dago («le Béarn» frantsesez), Pabe, Pau, Henric erregeren sorterri izandako herria hiriburu.

Hots, Biarno horretan, folkloreaken maila soilean oraingoz (nahiz hizkuntza-nahia ere somatzen), mogimendu errejiozale bat sortu da orain dela hamar bat urte: biarnerazko kantaren inguruan haseran, kultur izariaz hornitua ere segidan.

Bestetan ere azaldu izan dudanez, bere burua «Prouclam de Siros» Agiriaren bitartez finkatu eta ezagutarazi zuen (1974) biarnotar mogimendu horrek, Nafarroara begiratzen du; eta esan ere egiten du Nafarroa aldera begira dagoela.

Alexis Arette-k «Agiria» biarneraz irakurri zuenean (nahiz prentsari frantses itzulpena ere emanen), argi-eta-garbi jarri zuen sinbolo eta eredutzat Nafarroa-ko Henrike erregeren ekintza: Paris-ko gartzelatik ihes egin, eta Biarno

aldera abiatu zen! Hots, «erregeren eskola egin behar dugu geure», diote goraki.

Biarnotar horiek **nafartar** izan nahi lukete berriz, aspaldiko mendeetan bezala; Nafarroa pluralista zaharrean beren herri-nortasunaren segurtabidea ikusten baitute: «La nation béarnaise s'est développée sui vant ses lois propres, jusqu'à s'unir à d'autres peuples au sein du Royaume de **Navarre**. Le fait d'être politiquement **des Navarrais**, ne nous a pas fait perdre notre particularisme, au contraire. En nous distinguant de l'ensemble occitan, la **Navarre** nous a conservé Béarnais».

Zer diote Del Burgok, Aizpunek eta gainerako ultra-navarristek fenomeno harrigarri honetaz? Honen garbiki mintzo zaizkigun Ipartarrei, nola ez dizkiete oraindik beren besoak zabaldu? Biarnoa, Errioxa bezala, Nafarroa izan zen. Gaurko biarnotarrek Iruñera begiratzen badute, zergatik ultra-navarristen «utikan» itsusi hori? Nafarroa osoa eta handian eskabide horiei erantzunez eraiki bailiteke hain zuzen.

Egiazko nafartarrek eta euskaldun guztiek erantzun garbi bat nahi dute arazo hauetaz.

(1977)

**EUSKARAREN
ARAZOAK**

KARTA IDIGIA

Arantzazun biltzen zeraten guziori:

Alfontso'k esana nekien aspaldidanik biltzar atsegin orren berri; ta ezin joateagatik pena aundia izan dut.

Alere, nolabait or egon naiean, eskutitz bat bidaltzea bururatu zait. Eta ona beteta nere asmoa.

Euskeraren beraka gorria.

Ez dizuet onetaz geiegi itzegingo. Euskaltzale geran guziok biotzondoan iltzatuta daramagu bere galeraren arantza.

Geroz eta aulago dugu euskera aozkoa: zenbait erri txikitan baizik ez dute aurrak eta gazteak egiten. Zaarrak ba-dijoaz. Gaurko bere baliogabeak eraginda aldegin diote euskaldunak toki geienetan, eta izkuntzaren giarra galtzen da non-nai. Egiñaletan itzaltzen ari zaigu: begiak ideki ta naikoa da.

Baikor batzuen ustez, ordea, ez da orrelakorik gertatzen euskal literaturan, edo, zeatzago esateko, euskera idatzian. Zoritxarrez ez nator bat aiekin, erdizka baizik. Goraka dijoa euskal literatura, egia esan; baña beraka literatura orren euskera. Euskerari buruz ez dago alderatzerik ere: askoz

obeto ta jatorrago erabiltzen zuten euskera antziñako euskal idazle askok, gaurkoak baño.

Apaiz aiek kaxkarrak ziran, alegia, idazle: bañan euskaldun biziak, ia eredutzat artzekoak gaur bertan, orri buruz. Indarra ta odola ditu, esate baterako, Axular'en euskerak; gaur oso gutxitan ezpada, ez ditu ez bata ta ez beste, ta guziz odolgabe ta aula da jaiotzaz.

Euskerak eskatzen duen jokaera ta gurea.

Euskeraren egokera ain txarra izanda, ezin dugu txantxetan edo erdipurdi artu bere biziari dagokion sendabidea. Euskeraren bizia ziñez nai ez duena ez da benetako euskaltzalea.

Onengatik gauza bat eskatzen digu euskeraren egokerak euskaltzale guziori: gogor lan egiteko agindu irnoa. Norberekeriak eta jokaera errazak utzi bear ditugu azkarki ta bein eta betiko.

Alabaña, batez beste, ta bereizkuntza ondragarri batzuk eginda gero, au esan diteke nere ustez guri buruz: biguñak gerala oso.

Eragozpenak.

Ona emen leloa. Ba-dakigu denok (aipatu bearrik ere ez dago) traba ta eragozpen aundiak daudela, ta abar. Zoritxarrez, asko kontsolatzen bide-gaitu puntu au goratzeak, eta errazegi gelditzen gera lasai, aiek izan eta bete-bearrak aldatuko bai lirean. Ez orixe: gure burua trankil eta errugabe gorde arren, ez da euskera salbatuko. Egin egin bear da: eragozpenak aipatuz denbora galdu baizik ez dugu egiten.

Ortaz, eten dezagun gure merituak aipatzeko seta: euskera salbatzeko bidean eskierki jartzean izango ditugu ibaziak. Ordurarte ezta txikiak ere. «Akabatzeari dagoka koroa, ta ez hasteari». (Axular'ek). Kontzientzia garbikiñ eta asmo ederraz ez dugu ezer lortzen, geure buruak lasaitu ta gezurtaratu baizik.

Solas-billa.

Erderaz esanez, «amateurismoa» da gure jokaera biguñaren erroa. Euskeraren alde lan egiten dugunok solas-

-billa bide-gabiltz. Oso gutxi dira euskerarenari lan gogorra deritzatenak; ez berez errega ta errosa delako, bakoitzak, beti ta orotan, nai duena ta nai duen erara egiten duelako baizik.

Edozein lanetan, autsi edo aaztu ezin ditezken bete-berrak dira asteko arauak. Onetan ordea, ez bide-dago ezer askatasun eroa baizik.

Denok egin nai dugu «zerbait» (zerbaitxo jarriko nukean gogoz), eta ortaz gañera, nai dugun erara egin bear dugu «zerbait» au. Zer da jokaera ori itz batera bilduta, anarkia utsa baizik? Ta auxe da euskaltzaleoi (eta nolako zoritxarrez aitortzen dut) dagokigun itza: anarkia.

Bizitzaren eginkizunetan lotuta gaudela-ta, onatx askabidea; euskerari emanez geure esku biur gaitezke, gogoan ditugun txotxolokeri guziak egiteko.

Eta anarkiro beñipein gogor lan egingo ba-genu, ez giñake gaizki izango. Baña au berau ere ez da gertatu oi: aisa, solas-moduan, txolartectan gera euskalzale. Bizitzatik kanpora dugu euskalzaletasuna. Gauza bat bide da bizia, ta beste bat euskera. Zer egin dezakegu ere orretara jokatuz?

Egiñetako arazoan, iñork ez daki bestearen berri. Gorrak gera bata besteentzat, eta sekulako indarrak galtzen ditugu onela.

Izkuntzakoak zer esanik ez. Gure izkuntzan dagoena baño anarkia aundiagoa arkitzea gauza zalla da, oso zalla.

Mugarik ez dago edo; bata garbizale, bestea mordollozale, iñor ez «euskal»-zale. Berak ez beste ulertzen duen euskera «personal» sortzen du bakoitzak eta kitto: ontzat ematen ez ba-da, besteak dijoaz oker...

Nor aztertzen ditu antziñako gure izkribatzalleak? Oso gutxik, eta auctxek ere izaten dira aurriritzi gogorren jopuak.

Osakuntza aundia bear du euskerak gaurko bizikeran gai izateko. Egia esan, eta euskeraraen sufijatzeari eskerrak, berritze ederra egin diteke euskera beretik irten gabe, ta au egin bear da al denetan.

Bañan asmakari ta kontzetu berri ugari ekarri dizkigu zibilizazioak, oso itz bereziakin batera, eta euskera «garbia» egiteko asmoa txatxukeri utsa da, izkuntza batek ere egin ez duena, eta gure izkuntzan gertatuko ez den gauza. Zein da, garbizaleen ustean, Europa'ko izkuntza «garbia»? Ba-

tere ez; alere, euskerak «garbia» izan bear... Baztertu egin bear dugu etimologi-arrazakeria, elburu bakartzat au artuz: euskera maitea **euskaldunen mintzabide biurtzekoa**.

Eta au lortze arren, anarkiari alde egin, eta beste erriak eta gure asabak egiten zutena arretaz aztertu. Euskera garbia etaigu ajolik, bizia baizik. Izkuntza bizietan ez dago garbikeririk. Ain zuzen ere, erdaldunak sortu zuten euskera «garbiaren» mitoa.

Euskaltzaleen gutxietsi-miña.

Euskerak ezertarako balio ez duela ainbestetan entzunik, konplejua jarri zaigu. Edozein gauzatarako gai dela adierazi nai dugu, eta asieran beiak eta baserriak ba-ziran euskeraren gai bakarra, Mekanika Ondulatoria ta Filosofia'ren aldera jo dugu gaur.

Gure orekaren falta agertzen du onek, eta ziturik ez dakarten alegiñetan galtzen ari gera gaur denbora.

Erderaz oso gutxi idazten da ukulluetako egitekoez, eta are gutxiago De Broglie'z edo Sartre'z. Zergatik, bada, asko bear euskeraz? Proporzioaz ari naiz.

Jo dezagun, arren, erdira. Ba-dugu garaia...

Zintzotasunik ez.

Euskaltzaleak ez omen dugu fuldamenturik. Ta, izan ere, ez al da egia?

Eragozpenen betiko aitzekia jarri oi dugu gure burua garbitzeko; bañan au ez da aski. Euskal errebistak tajuz argitaratu, euskal eskolak metodoz eman, eta euskal arazo guziak zindoro eraman arte, ez dugu aipurik irabaziko, aipu ori merezi ez dugulako.

Gutxietsita ba-dago euskera, erauzi egin bear da gutxiespen ori indar dezaken guzia.

Onengatik, aldizkari berriak orain argitara eman opa izateari kaltegarria deritzat: finkatu ta sendotu egin bear ditugu lenbizi, orain nekez irtetzen diranak, gure laguntza osoa eskeñiz.

Asmo geiegi ta egite gutxi.

Euskeraren alde lan egitea, len esan dugu, oso zailla da gure onetan. Errezagoa zaigu asmo ta eginkizunetan burua

ta itxaropena jartzea, lortutako arrakasta urrietan baño.

Emendik datorkigu joera galgarri bat: proietu-miña. Proietutako itsasoan murgiltzen gera, ta ezer onik zeaztu ez arren, zerbait egiten dugula iritzirik, poztu egiten gera.

Geroko ekitekoetan aritzea amets pozgarria dela-ta, aietatik irten eziñean gabiltz euskaltzaleak; aietara oitu gera, ta gogorra egiten zaigu zeatzetako zurrunbilluan burrukatzea.

Aldegin bear diogu joera kaltegarri oni. Gauzatu arte, proietuak eta asmoak ez dira ezer. Ori ta geiago ere bai, denbora xautu-arazten bai-digute lillura zoroetan.

Beraz, izan dezagun au goiburutzat: asi ez-baiña daukaguna bukatu ta ondu.

Euskaltzaleen izakera.

Euskaltzaleok, gerez, amestiak gera. Aultasuna izaten da gure kupida-gaia, ta aula dakusagulako erruki izan gera asko euskeraz.

Au ondo dago, dudarik gabe. Bañan onela sentitzen dutenak, ez oi dira egite-gizonak; eta egite-gizonak bear ditu euskerak bere orretan.

Orra ba, euskaltzale egin gaitun birtute orixe kaltegarria zaigu euskeraren alde lanegiteko.

Euskaltzaleren ezpalekoak biguñak oi gera, antziñakoiak; aisago jartzen ditugu begiak atzoan biarrean baño; aula maiteago dugu sendoa baño, ta ezertarako balio ez duena naiago onurakorra baño. Itz batez esateko izpiritu praktikurik ez dugu.

Onengaitik, euskeraren bearrak jakin eta gure «akatsa» ezagututa gero, arreta aundiagoa jarri bearke genuke aurre-rakoan eginkizun praktikuak asmatzen, guztiz bearrezkoa bai-da au euskeraren salbaziorako.

Euskeraren bearrak baño aurreago jartzea gure griñak, ezin ontzat eman.

«Baliz»ko olak burnirik ez.

Ala dio esaera zaarrak, eta ondo esana gañera. Beste arotan egin genezakena etzaigu ardura: gaur egin dezakegunaz pentsatu bear dugu. Egin ditekena egin, eta ezin ditekena aaztu: ez dago onetaz beste aukerarik.

Eta gaur, nere ustez, bitara bil ditzakegu egin ditezken gauzak: 1.º) Gutxiengo edo minoria bat gertu. 2.ª) Euskera gaitu, batu ta osatu.

Bi auek lortu arte, alperrik ari gera lanean; bi auek lortu ezkeru, berriz, lasaitu egin gindezke...

Onengaitik auek dituzute nere aolkuak:

a) Nork bere aldetik euskera alik eta sakonen ikasi. Onetarako, euskalzale famatuen lanez baliatu, antziñako euskal literatura azterkatu ta euskal erriarekin al bait ar-tueman estuenak euki.

b) Ba-dauden eskolak tajutu, alkartu ta eratu: aurren-tzakoak eta euskaldun berrientzakoak.

c) Euskaltzaleen alkar-ezaguera biziagotu.

d) Orain ditugun euskal aldizkari ta erakundeak in-dartu.

e) Al ba-da, euskal jaiak egin. Onetarako, euskal tea-troa zuzpertu.

Euskaltzaindiaren betekizuna.

Pozez ikusten dugu Euskaltzaindiaren piztutzea.

Erabakizkoa izan diteke oni guziari buruz Euskaltzain-diaren betekizuna. Bere bi adarrak odol berriz indarturik, abiadura ederra artu dezake, ta bi lan goragarri egin di-tzazke:

1.º) Alegiñak bere babesean zuzendu.

2.ª) Bere aipu guziarekin, eta, ofizialki, euskeraren batasuna zeaztu, ta euskera «personala» ta euskal berrikeri guziak ezetsi ta kondenatu.

Eta onekin, aski ta sobera barreiazi zaituedalakoan, urrundik, agur!

(1956)

BATASUNERAKO BIDEA

ALDEZ AURREKO PUNTU

Batasunik ez daukagu euskaltzaleok: danak ikusten dute au. Iñork ez du ukatzen. Amaika talde dago gure artean, amaika istillu, amaika etsaigo. Agirian dago au, eta danok aitortzen.

Gure anarkia ori buka dedin nai dutenak, berriz, gutxiago dira. Itzai begiratu ezker, besterik ematen du: esan egiten dugu danok-eta batasuna billatu bear dala, gure ontan deus onik egiterik ez daukagula, eta abar. Baña egin, ez dugu ezer sendorik egiten egiazko batasun orren alde. Orrela jokatzuz, gezurtiak dirudigu, edo zozoak, gure esanak geroen egiñak ukatzen baitituzte. Ahatik: bateko, anarkia guzizkoan gaudela-ta. ao batez aitortzen; baña, besteko, baietz esan arren, guk ez dugu batasuna nai. Ikus egiñak: egin diran astakeriarik geienak barkaziorik ez dute iñolaz ere.

Eta are gutxiago azken bolada ontan, euskera ondo ikasteko bide geiago izanik. Alere, orain modan jarri bide da euskaltzaleen artean «pakezale» izatea: badakizute zertaz ari naizen. Alegia, «pakea» egin bear omen dugu gure

artean, pakea bakarrik; baña, orrez gañera, nork bere bi-detik segi dezala, besteai kasorik egin gabe: eta gure «misterioak» gero denborak garbi ditzala: ots, urteak pasa-ta ikusiko omen da zeñek zuen arrazoia. Berak esan beza; ez guk. Eta bitartean pakea egin, eta egon.

Nik ordea, pake ori ba litz lortu bear dugun pakea gerra naiago nuke, eta erra, eta gorrotoa. Zeren auek diranean beintzat, zerbait gaizki dijoala ikus dezakegu, eta senda. Baña beste era ortara «sasi-pakeak» irents, eta kitto: akabatzen gaituen minbiziaz ahazturik biziko giñake, eta azkenean, urteak igarota, euskera illa arkituko genuke, eta erdera gailen. Eta, jakiña, au elitzake arritzekoa izango: sasi-pakearen bide ortatik abiatu ezker, arrazoi guzia bailuteke gure etsaiak, ots, euskeraren eriotza nai dutenak... Pakezaleai segi ezker, orixe izango litzake denboraren epaia.

Ez, jaunak. Anarkia sendatzeko erremediorik segurana denbora dala, nork esan du? Zalaparta gorri bat ikusita, eta ura tajutu naiean, nork esango luke: «utz utz: zeñek duen arrazoia geroak esanen»? Iñork ez. Gure artean, ordea, askok.

«Utz ditzagun» —esaten dute— «gure arteko liferentziak, eta dezagun pakea egin». Eta gure setai ez uzteko aitzekia bat dalako, bereala onartzen dute askok zozokeria bat besterik ez dana.. Ezen ori ez da batasunaren bidea, beste au baizik: «Ken ditzagun gure liferentziak; erauz ditzagun, gaitzaren errora gaitezen».

Onatx kakoa: ahaztu ez, erauzi baizik; nork bere setari jarraitu ez, baña danok, asko ikasi ondoren, euskeraren bideari. Bideari? Bai, jaunak. Bideari diot. Bide bat bakarra eta ezagugarria baitago: ez pentsa au izkutuko gauza danik. Arlo ontan kulturak agintzen du, eta zentzuak; ez misterioak. Orain arte etzirudien orrela; baña emendik aurrera burubidea egin bearko genuke errege; eta ez txorakeria; jakinduria, eta ez jakiñezaren ausarke-ria. Bigarren onen ondorioak bistan ditugu; poroga ditzagun orain lehenengoarenak.

Eta ez esan gure arteko istillu auek baño gogorrago-rik ere badugula. Guziok dakigu gure etsaiak zein diran. Baña geure arteko batasuna lortzen ez ba dugu, etsairik izan edo ez izan, kalte besterik ez diogu geronek emango gure

euskera aulduari, eta alperrik izango da gure etsaiak aipatzea. Esaera zaharrak ez digu esaten: «etsaiak erasotzen dituzten erreñuak oro, desegiñak izango dira»; ondorengo au baizik: «beren buruaren aurka zatitutako erreñuak oro, desegiñak izango dira». Eta auxe bai egia: gaixtoago da geronen anarkia segurik, gure etsaiak baño. Euskaldunak galdu ba gera, geure anarkiarenatik galdu gera batipat, geure burua defenditzeko ere ezpaikeria bat.

Beraz geure batasunetik asi bear. Eta batasun au gaurdanik inguratzen saiatu bear dugu, ahalik eta azkarren etor dedin.

Ontarako erauzi egin bear da gure anarkia. Eta erauzi ahal izateko itz legunak eta sasi-pakea ez dira aski: erroetaraino iritxi bear dugu, kosta ala kostarik, eta mingarri izanik ere; eta ara ezkeru sustraitik atera gure minbizia.

Denborak ez. Geronek egin bear dugu lana.

Guk egin bear dugun lana denborari utz? Asmutsua da gero askoren alperkeria...

GURE ANARKIAREN SUSTRAIA

Auxe da nere ustez: kanpoko gauzak eta egiak, eta geure burutazioak nahastea. Eskizofrenia-molde bat, agian. Munduan gertatzen dana eta geronen barruan ikusten duguna ezin bereiztea. Eta frase politak egiteagatik ez dut esaten: orixe baita egia. Euskaltzaleok ez ditugu gure setak egietatik bereizten. Burutik egiñik bide gaude.

Ejenplo asko aipa litezke emen; eta danetan klasikoena gogoraziko dizuet bakarrik. «Euskera» da itza, ala «euzkera»?

Betidanik eta euskalki guzietan, euskera esan da: «s»-kin: «heuskara», «euskara», «euskera», «eskara», «eskua-ra», «uskara». «üxka»; sekulan ez, ordea, «euzkera». Eta, alere, «euzkera» izkribatu da azken urte auetan, eta euzkalerria, eta euzkaldun, eta abar. Zergatik? «Euzko» ori, «eguzki»tik datorrelakoan!!! Alere «euzko» oraindik izkribatzen dutenak edo defenditzen, batasunaren alde daudela esango digute! Baña tontoak bakarrik siñes ditzakete... Gaur, «euzko» defenditzen dutenak ez dute batasuna nai; beren setak eta egiak nahastuz, setak naiago dituzte aurrera eraman, euskera bera baño.

Eta auetxek dira gure anarkian errudunenak. Beti «euskera» esan baldin ba da, arrokeria gogorra da orri katorik egin ez eta «eguzki»-aren «teoria» (?) orri lotzea. Zer da jokabide ori? Seta bati inportantzia aundiagoa ematea, euskaldun eta euskalki guziaz baño.

Eta au guzia batasuna lortzeko? Ez jaunak. Inola ere ez.

Ejenplo ori jarri dizuet, eta au ez luzatzeko ez ditut geiago aipatuko. Baña, or joera bat ikusten da, eskizofreniak jota daudenak artzen duten joera ain zuzen: burutzazioak eta egiak nahastea.

Berrizaleak alere, ots, «euzkera»-ren aldekoak, «teoria»tzat daukate beren seta; eta ohea iruditzen zaie gañera «teoria» ori «eusko» defenditzen duten «teoría» baño. Orra or beste gauza bat: bi «teoria» dirala... Eta biak «teoria» diran ezkerero, itxogin egin bear dugu: denborak esanen zenek zuen arrazoia...

Eta jaunak: zer da au guzia? Zer da au guzia txorakeria besterik? Nola nai dute batzuk zozokeriak irizpidetzat ar ditzagun?

Gure artean au gertatzen da: arriak erortzean, goruntz dijoazela esan dute batzuk, beste batzuk berriz ezkerretara egiten dutela, eta beste zenbaitek lurrera. Ots... iru «teoria» omen ditugu arrien erortzeari buruz... Arriak, ordea, lurrera erortzen dira beti eta betidanik, eta goitik behera. Au ez da «teoria» bat; begiak idekitzea besterik ez da.

Baña arriak goruntz erortzen dirala diotenak, eta ezkerretarakoak au erantzuten dute: «bada, arriak dira gaizki erortzen diranak»... Lehengo adibidera itzulita, «euskera» «s»kin esaten ba da, «gaizki esaten da». Zergatik? Neri «eguzkiaren» seta ori buruan finkatu zaidalako... Oso ondo.

Bestalde, noski, lurrera erortzen diran «teoriaren» defendatzalleak oker omen daude, eta beren «teoria» orrek ez omen du deus balio.

Auxe da gure anarkiaren kakoa. Egiak «teoria»tzat euki, eta setak eta txorakeriak egiazat. Ortik etorri zaizkigu geri gerokoak, «garbizaleak», «mordollozaleak», eta gañerako guziak, gure euskera zearo ondatuz. Izkuntzaren aldetik jaunak, gure eskizofrenia orri eskerrak, kalte besterik ez dugu egin azken urte auetan. Danok izan ditugu gure eskizofrenia-aldiak; danok izan gera garbizale, noizpait bede-

ren; danok aldrebestu dugu bein edo bein izkuntza. Beraz, danok kolpatu dugu, danok saiatu gera izkuntzaren ondandian. Eta bistan dago fruitua: euskeraren aldetik, eta Euskalerra alde ontan, berrogei ta amar urte ontan izkribatu dan geien geiena, txarra da, oso txarra, euskerarentzako kaltegarria obe. Gure sasi-teoria oietan finkaturik, ondatu egin dugu alde ontako euskera; eta argitara diran liburu eta idazki geienak, munstrokeriak dira, eta (auxe bai farragarria!) erdera utsa. Erderaz esateko «erdera de signo menos». Besterik ez.

IRIZPIDE BAKARRA

Arrien erortzea ez da teoria bat. Teoria bat egin diteke orri buruz, au bai; eta teoria ori, noski, arrien erortzearen legeakin bat ez ba dator, teoria txarra dateke, eta ez duke ezertarako ere balio. Arriak erortzen ikusi bear da, eta oni lotu.

Euskeran ere berdin. Izkuntza batean usadioa da azken erabakitzallea. Erabiltzen al da? Ez al da erabiltzen? Izkuntzetan lojika aundia dago; baña izkuntzak, alere, ez dira lojika utsa. Teoria bat, beraz, lojika utsa eta guzizkoa baldin ba da ere, usadioak epaitu bear du; eta ez teoriak usadioa.

Alere, erabiltzen dan guzia ez da jatorra. Donostia'n, esate baterako, sarri entzuten dira: «atzo ez nizun ezagutu», «bi dendan egon gera», «otz bat daukat», eta alakoak. Entzun egiten dira orrelakoak; eta esaten ba dira ere, orren aurka gaude. Zergatik? Esaera jatorrak ez diralako, erdera utsa diralako.

Erabilli egiten dira gaur alabaña. Nola jakin beraz, jatorrak ez dirala? Usadioaren irizpide ortan ere mallak diralako. Azter ditzagun.

Asi baño lehenago jorra dezagun pittin bat azterkizuna. Bazter askotan, geienetan gaur zoritxarrez, obeto dakite euskaldunak berak erderaz, euskeraz baño. Emen gauden guziok eskolatuak izanik, obeto mintzatzan gera erderaz, euskeraz baño; ez alere gu bakarrik: Durango aldean, gonbazio baterako, edo Eibar aldean edo Tolosa'n erderaz bizi dira euskaldunak berak; zenbat ofiziñatan egiten da gaur euskeraz erderaz aña? Zenbat fabrikatan gertatzen da ori? Be-

reizkuntza bat edo beste egiñik, iñun ere gertatzen ez dala nago. Gaur, milla bederatzireun eta berrogei ta emezortzian, orixe da legea erririk geienetan. Eta baserrietan beretan ere, guk uste baño sartuago dago erdera, eta erderaren kutsua.

Beraz, euskera bizi-bizia arkitzea ez da gaur oso normala. Eta ez dezagun esan au beti gertatu danik: orain dala eun urte, esate baterako, etzegoen ez industriarik, ez kanpotarrik, ez erdal ziñe, prentsa eta erradiorik, ez orrelako beste gauzarik asko ere; euskalduna zan Euskalerra geiena (kaletarrak berak alakoak izaki) eta Lizarra'tik eta Gares'tik Mithikile eta Bilbo'raño euskeraz mintzatzen ziran geien geienak, eta erderaz oso gutxi zekitelarik.

Gaur alderantziz gertatzen da: alperrik da ukatzea.

Beraz eta onengatixek, entzuten dan guzia, edo erabiltzen, ez da argatik jatorra. Irizpide sendo eta zorrotz batez baliatu bear dugu, esaera bat, gaur erabiltzen dalarik ere, jator ote danentz jakiteko. Onetzaz, pentsa dezakezutenez, ez dut gaur iritzi berririk emango. Betikoan nago: euskera BIZIAN jeneralean erabiltzen dana jatorra dala uste dut; eta alderantziz. Beraz gaur kaletarrak esaten dituzten joskera eta itz asko, itzez itz itzulitako erdera dira, eta ezin onar ditezke.

EUSKAL JENIOAZ

Izkuntza guzietan badago zerbait komunik, eta zerbait berezirik. Adibidez: «Orduan ispilluan ikusi zuen bere burua». Itzez itz itzuli ezkeru, au entzungo genuke: «entonces vio su cabeza en el espejo». «Bere buru» ori, ezin itzul diteke beraz itzez itz, erderaz ideia ori bera adierazteko beste joskera bat dugulako. Gañerantzeko guzia bai. Ez guziz alere. «Pedro'ren etxe ura», ez da «Pedro-de casa-aquella». Etzaitzuet puntu ontan nekatuko. Gauza bat esan nai dut: itzez itz itzultzen ba dira fraseak, zerbait okerrik gelditzen zaigula beti: itzen geienetan. Beraz, ezin itzul diteke itzez itz. Zergatik? Euskal jenioarengatik, ain zuzen.

Eta orixe da izkuntza baten jenioa: itzez itz ezin itzultze orixe, joskera berezi orixe. Berezitasun aundiago, sena eta jenio aundiago ere. Soñuakin ere berdin gertatzen da: gure «z»ak edo «r»ak, ez dute erderarenen soñu eta balio ber-

bera; eta «tse» soñuak ez du kiderik. Beste zerbait dago danetan; eta zerbait orretzek osatzen du euskal sena eta gogoa.

«Nere burua», «iru etxetan», «ikus zenezake», «gure» eta «geronen»en aldeak, eta abar, eta abar, «zerbait» ori dute.

Ez oietan bakarrik; erderatik artutako itz askok ere («okasio», «gatza», «sesio», «arregura», eta beste asko) badute ere «zerbait» ori: okasio, ez da «ocasión»; ezta sesio, «sesión»; ezta arregura, «rencor» ere. ZERBAIT badute danak.

Beraz itzetan, joskeretan, soñuetan agertzen dan berezitasun ortantxe datza euskeraren sena. Eta au, jakiña, nabarmen dago euskera bizian, eta itzaltzeko zorion auldu-tako eta eskastutako euskeran.

Bi esaeratan, beraz, jatorragoa da geienetan BEREZITASUN GEIEN duena: erderatik urutien dagoena. Adibidez: «ikus dezagun» eta «ikusi dezagun». Zein da jatorrena? Geiago pentsatu gabe: erderatik geien urruntzen dana. Erderaz «he visto», eta «puedo ver», edo «veamos», danak zaizkigu «ver». Euskeraz ez: jakiña da zertan dan liferentzia, eta ez diot ekingo. «Ikus dezagun», beraz jatorragoa da «ikusi dezagun» baño. Erdaldunak «ikusi dezagun» esateko joera daramate barruan, erderaz pentsatzen dutelako. «Ikusi dezagun» urbillago dago erderatik «ikus dezagun» baño. Beraz jatorragoa da bigarrena.

Eta, ain zuzen ere, euskal literatura eta gaurko euskalkiak aztertu ta gero, euskera eskastu eta pobretu ala, «ikus» formatik «ikusi» ortara goazela arkitzen da. Azter beza euskal literatura au ez dakienak, edo egungo aozko euskera, eta bereala arkituko du.

Euskera bizia galdu ala, beraz, esaera jatorrak ere galtzen dirala esan nai dut, eta aiekin batera berezitasun edo jenio ori. Eta bi eta iru esaeratik jatorren zein dan jakiteko, au dala irizpide bat: bietatik edo iruetatik zeñek du itzul-ezin ditekean zerbait edo berezitasun ori nabarmenik? Eta uraxe izaten da geienetan formarik jatorrena.

JATORTASUN ONI BURUZ ZENBAIT OAR

Atzera jo ezkeru, agirian azaltzen da fenomenu bat: atzerago eta geiago nabaritzen dala berezitasun ori. Ots,

euskera zaharra biziago zala gaurkoa baño.

Eta onetzaz, arren, beste «teoria» bat danik ez esan. Au ezin uka diteke-ta. Au esatea arriak erortzean goitik behera erortzen dirala esatea baita. Itzen egokitasuna, itzuz ezin ditekean sena edo jenio ori, berboaren aberastasuna, dana, biziago dago zalantzarik gabe. Au ukatzea, euskerari buruz pikuan egotea da.

Denboran zear, beraz, jatorragoa da euskera zaharra gaurkoa baño. Eta mirestekoa eta arritzekoa ez da, lehen aipatu baitituz, gaingiroki beintzat, euskeraren galeraren kariak.

Berebat ere, berezitasun eta sena ori gaurko euskera bizian billatzen asten baldin ba gera, ugariago eta biziago arkituko dugu ori Nafarroa'n Bizkaia'n baño eta Xuberan Nafarroan baño. Au ere, arren, ez da «teoria» bat. Euskal sena edo jenioa esandako berezitasun ortan baldin ba datza (eta au da izkuntzalarien iritzia), orduan biziago dago xuberera bizkaiera baño (eta au topatzen dana besterik ez da).

Beraz, bi irizpide arkitu uste ditut nik, jeneralean beñipein, betetzen diranak:

- 1) jatorragoa da euskera ZAHARRA gaurkoa baño;
- 2) jatorragoa da Zuberoko, eta EKALDEKO eskualdetako euskera, beste edozein euskalki baño.

Gero biurtuko naiz berriz puntu nagusi auetara. Beraz, jarrai nakion ariari.

JATORTASUNA ETA EUSKERAREN BATASUNA

Mallak ikusten dira, beraz, jatortasunean eta usadioan:

1) Esaera bat edo itz bat euskalki GUZIETAN esaten baldin ba da, eta betidanik gañera, esaera ortaz zalantzarik ezin diteke izan: esaera ori jatorra da. «Familia» itza, esate baterako, edo «ar tzak» forma (ez «artu zak»), jatorrak dira.

2) Esaera bat edo itz bat gaurko euskalki GEIENETAN erabiltzen baldin ba da ere, ontzat eman diteke: «etorri» itza adibidez. «Jin» itza, berriz, ez dago «etorri» bezin zabaldurik, eta jatorra ba da ere, obe dugu besteari eutsi, au bigarren plauean utziz.

3) Gaur toki gutxitan esaten dan zerbait, baiña lehen



zabaldugo izan zana, ohea da, nere ^{ustez}, beste esaera edo itz BERRI guziak baño. Naiago bear ditugu izan «kamiñu» edo «galtzara» itzak, «bitzabal» edo oiek guziak baño.

Beraz naiago bear dugu izan gaur denak erabiltzen dutena, berria baño; eta noizpait euskaldunak erabilli zutena, berria baño. Beraz au da nere illara.

1) Gaur erabiltzen dana; 2) atzo erabiltzen zana; 3) gaur toki batzutan oraindik erabiltzen dana, eta azkenean, 4) sekulan erabilli ez dana. Beraz, oiturak agintzen.

Istillua, alaz ere, ez da onen bidez zearo garbitzen; eta geiago zehatuko dut beherago.

ARKAISMOAK

Ori esanda, batek baño geiagok pentsatuko du nunbait: «au arkaista duk». Eta, ez nuke nai beintzat.

Kaletarrak arkaikotzat dituzten esaera asko bizirik daude oraindik baserrietan; eta Gipuzkoa'n eta Bizkaia'n erabiltzen ez diran asko ere, tinko daude Frantzia'ko Euskalerrria'n. «Ika»ko konjugazioa, gonbazio baterako, Bizkaia'n il da toki batzuetan baño ez da iñundik ere arkaismo bat. Batzuk esan zidaten neri «makilla» ere arkaismo dala, eta «makil» esaten dutela gaur danak. Eta ori kalean orrela ba da, ots, erdaldunen artean, baserrian ez da gertatzen. Neronek entzun ditut «presa, denbora, aitona, arbola, gauza, neskatxa»; eta beste olakorik asko ere, «a»-kin esanik; baita «makilla» ere, jakiña. (Zuek emen «makillea» noski, eta «makillaka», eta abar).

Beraz, lot gakizkien baserritarrai, ez kaletarrai. Auekiko erdera euskeratua ez dan guzia, arkaismo bat da ta...

Eta arkaismo zer dan erabakitzean, gogora gaitezen beti Nafarroa'z, Lapurdi'z, Baxenabarre'z eta Zuberoa'z. Eta orrela guk uste baño askoz ere biziago arkituko ditugu euskeraren berezitasuna eta jenioa, ezen ez Gipuzkoa eta Bizkaia bakarrik aztertzen ba ditugu.

IDAZLEEN ASMAKETAK ETA EGIAZKO EBOLUZIOA

Eboluzioaren aitzekia ere, modan jarri da: billakatu egiten omen dira izkuntzak. Beraz ontzat eman omen dituzke aldrebestutze guziak.

Ez, alere. Izkuntza baten billakaera gauza bat da, eta gure setak beste bat. Batek idazten ba du «antola du», «antolatu du» bearrean, ori ez da euskeraren eboluzio bat. Zergatik? Nik «he comido» esan bearrean, «he comi» esaten ba dut ere, zer deritzazute aldaketa orri? Eboluzio dala? Ala nere kasketa ero bat? Zuei erantzuna.

Bada, siñistuta nago: gure arteko askok «he comi» esaten digute egunero; eta guretako batzuk aintzakotzat ematen bere xelebrekeria... Zergatik? Euskeraren «eboluzioa» dalakoan... Bapo!

IRAKASLEEN IKASBIDEAK

Zelebrea gertatzen dira emen ere. Euskaldun berrientzako errezena dana artzen da ontzat; eta, jakiña, jeometria errezago baita izkuntza bizia baño, jeometria irakasten da: kuadro, erregla eta abar. Eta auek ondo daude ASTEKO, baño ez bukatzeko. Lehenengo pausuak emateko ongi daude errazpideak. Ikasleari ondo datorkio erregularitasuna; eta lehenengo aprosimazio bezela kuadruak eta zerak txalagarriak dira. Baña euskera egiazkoa, EUSKERA beraz, ez da aixago irakasle arren kuadrutan eta eskematan sar ditekera, ERABILTZEN dana baizik.. «Yo teno, tú tenes, él tene» erregularrago da, «Yo tengo, tú tienes, él tiene» baño; auek ezin sar ditezke kuadro batean, eta aiek bai. Alere, iñork ez dizue erderaz idatziko: «Yo teno un lápiz». Gure artean, berriz, bai: erregularitasunaren seta sartu digute euskera irakasten dutenak, eta ontzat ematen asiak gera. «Yo tengo» gaizki esana dagoela, eta «Yo teno» esan bear dala diote batzuek. Betikoa: arriak gaizki erortzen dira.

GARBIZALEKERIA ETA MORDOLLOZALEKERIA

Maiz itzegin dut auetzaz. Beraz, enaiz luzatuko. Auek oiturari begiratu bearrean, beren setai begiratzen diete geienetan. «Familia» gaizki omen dago, erderaz ere familia dalako. Arri au gaizki erortzen da, nere auzokoaren arria bezela erortzen dalako... Arrazoi eskasa alafede.

Bide ortatik garbizaleak ekarri diguten kaltea, ezin neur diteke. Zeren bizi diran sorkari guziak jan egiten duten, eta izkuntzak ere berdin. Euskerari itz arrotzak artzen debekatzea, beraz, euskerari elikatzen debekatzea da; ots,

goseak illeraztea. Alimaliak jatea normala duten bezelaxe, itz arrotzak euskeraratzea ere normala dugu: bizi diran izkuntza guziak egiten dute, eta euskerak ere orixe egin bear du, lasai, batere bildurrik eta lotsarik gabe; eta izkuntzaren sustraira begiratzuz, eta ez azalari.

Puntu nagusi auek orrela finkaturik, pasa nadin orain bigarren partera, alegia, zein dateke gure bidea?

NERE PROPOSIZIOAK

Gorago esandako iritzietan finkaturik, usadioari lotuko natzaio ni; eta, bear ez danean, ezer berririk ez sortzea eskatuko. Gure anarkia bukatzeko ontatik asi bear dugula deritzat: bear ez danetan, ez asmatzea. Eta euskera IKASTEA. Orrela jokatuz anarkiaren iturria agortuko dugu, nere us-tez, eta batasuna agertzen asiko da.

LITERATURAKO EUSKALKIA

Au da gure istillurik gaitzena. Onengatik bi oar egingo ditut:

a) Aita Villasante'kin guztiz bat natorrela, eta beronen itzak aipatuz, «bi gauza bear ditugu: 1) euskera biziari eutsi: ortarako erri-euskeratik urbil dabillen literatura sortu. Baña, artaz gañera, eta denpora berean, 2) euskaldun ikasientzat, euskeraz eta ikasien gisa idatzi: kultur-maillako idaztiak». Ortantxe nago ni ere. Beraz kultur-maillako izkuntzaz mintzatuko natzaizue aurrenik.

b) Literaturako euskalkia aukeratzean bi irizpide artu bear ditugu kontuan. Alde batetik euskalkirik jatorrenari begiratu bear diogula euskeraren sena salbatzeko. Baña ori ala izanik ere, gure egoerak jasan dezakeanari begiratzuz. Xuberera euskalkirik jatorrena da, dudarik gabe; baña literatura-izkeratzat xuberera garbia eta utsa artzea elitza-ke pratikua izango, oso gutxik uler baitezateke gaur euskalki ori. Orrengatik OIARTZUN, SARA eta ELIZONDO'ko euskera artzen dut eredutzat.

Auei begiratzuta saiaturiko natzaizue ni, beraz, nere ontan. Ez da erraza guziz asmatzea; baña oñarrietan beintzat bide ona ikus ditekealakoan nago. Duvoisin'en eta Mendiburu'ren

artean mugituko naiz, nik uste: Axular aukeratuko nuke gogoz, bere euskera bezelakorik ezpaitago iñundik ere. Baña, zaharregia dala-ta, Duvoisin artu dut bere ordez, eta Mendiburu oiartzuarra.

Deklinazioaz

Alderdi ontan ez dago EZER asmatu bearrik; nik dakidala ideiak adierazteko, ez dago deklinazioa berritzeko bearrik batere. Oiturari lotu bear guziz EZER ere asmatu gabe.

Baña zein euskalkitako deklinazioa artuko? Ona emen koska.

Alde batetik lehen esan dudana, jatorrena artu bear; bestetik pratikuari begiratu bear ere.

Gramatika batzuk esaten dituzten txorakeriak arbuiaztetik asi bearrean gera. Zer da «iru mendin egon naiz?» Zer da «lurren dago»? Oiek ez dira «estar en cas», edo «voy a com» baño bidezkoagoak. Beraz, alde aurretik kondenatu bear ditugu orrelako txatxukeriak, eta jarraitzen zaizkienai, euskcraren etsai deitu. Beren kuadroetan «mendingin» eta «lurren» formak ateratzen ba dira, obe dute oiek kuadroak erre, eta euskeraren eginkizunari utzi. Orrelako zozokeriak ez ditugu bear.

Baña bada besterik. Nola idatzi bear da? «Euskaldunak joan dira», eta «euskaldunek jan dute» bereizten dute danak, gipuzkoarrak eta bizkaitarrak kenduta. Nere ustez guri nekeza egingo ba zaigu ere lapurteraren sufijoak ar ditezke arautzat «caso agente plural» ortan; eta ez gipuzkerarenak. Gorago aipatutako irizpideak ditut aurrean au pentsatzeko, eta ez dut geiago zehatuko. «Euskaldunek joan ditezke» eta olakoak esaten dituztenez, noski, ez dut ezer esango. Luma artu baño lehenago ikasi egin bearko luteke.

«Etxerat», ala «etxera»? Alde txiki bat dago auen artean, dakizuten bezela. Etxean gelditzeko baldin ba da, «etxerat» obeto omen dago «etxera» baño. Baña, nik dakidala, bereizkuntza ori lokalismo bat da gaur, eta Baxenabarren eta Xuberoan bakarrik gordetzen da. «Etxera», «etxetara», eta «etxeetara» artuko nituzke nik, beraz.

«Indefinido» edo «indeterminado» ortan, Duvoisin'en

alde nago guziz. Orobat ere «a» organikari buruz. Ortaz eredu ohea da Duvoisin Mendiburu baño. Azken urte auetan izugarrizko okerrak egin dira onetzat. Orain dala oso gutxi argitaratutako liburu batean, esate baterako, irutatik bitan gutxienez erderatik gaizki itzulitako forma jartzen du egilleak euskeraren sena zearo ondatur.

Eta «bat» danean, nola? «Indefinido» da berez: etxe batetan, erri batetara, eta abar. Ala esaten da oraindik Zuberoa'n, Lapurdi'n eta Baxenabarre'n gutxienez. Zer egingo? Nik «indefinidoa» artuko nuke jatorrago dalako, eta lehen zabalduago egon zalako. (Ikus Axular esate baterako).

Beraz itz gutxitan esateko:

1) Mendiburu'ren deklinazioa artuko nuke oñarritzat.
2) Indeterminadoa guztiz artuko nuke, Duvoisin'enean, eta beste aldeko euskaldunen artean erabiltzen dan bezelaxe. Mendiburuk ongi xamar darabil, eta emen ere obeto erabiltzen dute gaur baserritarrak, kaletarrak uste degun baño.

3) Pluralean «ak» eta «ek» artuko nituzke, Duvoisin'ek eta Auñamendiz arako euskaldunak erabiltzen dituzten bezela.

4) Gañerantzean Mendiburu'k darabilen deklinazioa arautzat artzean, Gipuzkoa, Nafarroa eta Laburdi'n artean dagoen eskualdeko deklinazioa artu uste dut, ots, erdi-koena eta jator xamarra.

Asmaketa eta berritze guziak, eta oker erabiltzeak oro noski, arbuigarriak dira, eta kaltegarritzat daukat.

Berboaz

Alde ontan ere ez dago EZER asmatu bearrik. «Gakio» «zesaion» «zesaidekekan» «dasat», eta abar, ez dira ezer euskeraz. «Ika»ere gero eta okerrago idazten da. Oiturari lotu bear, ordea.

Beraz, lehen bezela, au dateke eztabaida bakarra: zein euskalkitako konjugazioa artuko?

Mendiburuk darabilen berboa aberats xamarra da, eta batez beste, oñarritzat bera artuko nuke.

«Indeterminazioari» buruz ongi xamar dago Mendiburu, baño estuago jokatu bearko genuke. Duvoisin, esate baterako, eredu ohea izan diteke Mendiburu baiño, naiz eta

onek askotan jator erabiltzen ba du indeterminazioa: geldi diteke, bataia dezaten, ar nazazu, eta abar.

Bere «dezu» alere, «duzu» ar diteke, Duvoisin'ek esaten duen bezela. Guztiz zehatzerik ez dago emen; baña mugak ortan egon ditezkeala uste dut.

«Duket» eta «dateke», eta abar (ots, futuro arkaikoa-renak) bizirik daude Xuberoa'n; eta noizpait zabalduago izan ziran (Haraneder, Axular, Duvoisin bera, eta abar) eta beren alde nago ni.

«Ika»ko formak Oiartzun aldekoak artuko nituzke. Beti Mendiburu oñarritzat arturik, beraz, eta Duvoisin alde batera beñere utzi gabe.

Joskera

Emen ere ez dago EZER asmatu bearrik. Alere, ez bide da erraza jakiten euskeraren joskera jatorra zein dan.

Frase laburretan Altube'ren iritzia ontzat eman bide diteke. (Ikus «Erderismos» liburu famatua).

Baña luzeetan eta joskera jeneralean, estuegi dalakoan nago. «Zeren» esate baterako literatura guztian zear arkitzen da: Mendiburu'k eta Duvoisin'ek (nik aztertutako gidariak) biak erruz erabiltzen dute. Berdin ere gaur arterañoiko bertsolariak oro. Gaurko «ze», «zeren», «zeren-eta», «zeinda», eta abar, antziñako «zeren» orren aztarnak dira. Nafarroa'n, Lapurdi'n, Baxenabarre'n eta Xuberoa'n bizirik dugu itz ori. Beraz, ni «zeren»en alde nago guziz.

Berdin ere, «ezen», «bada» eta «baldin»en alde. Auek arbiuaten ba dira, literatura guzia, eta euskalkirik bizienak batez ere (baxenabarrera eta xuberera), alde batera utzi bearko genituzke. Eta au geiegi iruditzen zait.

«Zeña», «zeñetan», eta abar, ez dakit nik, egia esan, orren gaizki dauden. Lardizabal'ek, oker ez ba nago, olakoen doñuaz diardu; beraz, entzun egin zituen. Zuberoa'n bizirik daude oraindik era ortako erlatibuak, eta antziñako literaturan guztiz edatuak. Ez dakit nik zer esan oietaz. Baña, kontra beintzat enauzute.

Beraz ontzat daukat Altube'ren iritzia frase laburretarako; baña, gañerantzean, berriz ere, Mendiburu eta Duvoisin artuko nituzke eredutzat.

Sufijazioaz

Bi zatitan egingo dut azterketa:

a) Sufijo zaharrak. Emen ezin dagoke dudarik. Ez dago EZER asmatu bearrik; eta oituraren arauz egin bear dira itz berriak. Eta, alere, ahalik eta gutxienetan sortu bear dugu itz berririk. Ontarako, ikasi egin bear da aurrena sufijoak nola eta noiz erabili diran orain arte, eta, bigarren, itz berria asmatzea bearrezkoa ote dan. Erderaz «comedor» atera dugu «comer» itzetik; ez, alere, «cenador» edo «desayunador». Asmatzea beti da arriskuko gauza, eta bear ez danean ez da egin bear. Gero ekingo diot oni sakonkiago.

b) Sufijo berriak. «Ismo» eta «ista», esate baterako, gure ondoko izkuntza guzietan erabiltzen dira, eta euskeran ere sartu bear diralakoan nago. Orrelako beste zenbait ere ar ditezke nere uste.

«Aldu» («goraldu», «aintzaldu», eta abar) «no» («Jainkono», «jainkosa» bearrean) eta tankera ortan sortu diran sufijo guziak, oñarririk batere ez dute, eta alde batera utzi bear dira.

Itz berri

Ona emen beste oiek baño gogorrago dan istillua. Orain arte auxe izan dut legetzat: usadioari eldu, eta deus ere asmatu ez. Eta aurrera.

Orain ez da ori aski. Ezen, itz berri bear dugu, anitz gañera. Euskera, bere ortan, ez da gai, ez da gauza, gaurko munduan barna mintzabide izateko. Gaitu egin bear da, osatu, apaindu, zorroztu. Au dato bat da. Nola, ordea? Ona emen koskarik aundiena. Deklinazioaz, konjugazioaz, eta sufijazioaz egin diran aldaketak, ez dute barkaziorik: txorakeria utsak izan dira. Itz berrien moldatze ontan, ordea, oker aundiak egin ba dira, izugarriak, eta geienak barkagarriak ez ba dira ere, xedea txalogarri izan da beti: euskera bere zarpailtasun ortatik ateratzekoa.

Orain arte aixa ikus zitekean bidea. Saia nadin aurre-runtz ere bidea billatzen, orren erraza izango ez ba zait ere.

a) Itz zaharrak.

Idea zaharrak, ots, euskaldunak mendeetan zear erabili dituztenak, itz egokiak dituzte, eta emen ez dago EZER

asmatu bearrik. «Barkatu», «arima», «pekatu», eta olakoak, latiñetik datozela bide, euskeratik kendu nai izatea, zorakeria bat izan da. Euskerarik bizienean eta jatorrenean oietxek erabili dituzte beti euskaldunak. Baserriko tresnak, abereak, ladareak, arrant/aleen gauzak, erlijioaren gora beherak, burniari buruzko xehetasun asko, errotak, eta abar, itz egokiak dituzte aspaldi danik. Alde ontan beraz ez da EZER asmatu bearrik. Ikasi egin bear da bakarrik, beti ere ikasi.

b) **Idea berriak.**

Euskerak noizpait guk opa diogun malla eta kategoria ingura ba leza, bide ontatik lor lezake: egokitasunean aurrera. Erderaz, «propiedad del lenguaje». Ideiak adierazteko tresna dira itzak. Beraz, zorrotzago jakin danok itzen adiera, baliosago ere izkuntza. Au ala da zalantzarik gabe.

Iru bide ditugu, nere ustez, ideia berriak azaltzeko.

1.—Antziñako itzak aztertu, eta adiera berri eman. **Ildo**, esate baterako («surco» erderaz) «estilo» biurtu nai du Orixe'k. Batzutan, eta Orixe ontan oso trebea izan da, oso gutxi bortxatuz aberats diteke euskera. Baña au ezin diteke ar bide nagusitzat. **Ildo** «estilo» uler diteke agian; baña beste askotan ez da ori gertatzen, eta egokitasuna gal diteke bereala bide labain eta sujetibo ortatik abiatu ezkeru.

2.—Euskal itzez eta sufijoez baliaturik, itz berriak, eratu, euskeraren sena aldrebestu gabe. Auxe izan da ere Orixe'ren beste bide bat, eta bestea baño segurago iruditzen zait, euskeratik beretik irten gabe, itz asko sor diteke. Baña sortutako itz oiek adiera edo sentidu berezirik ez ba dute, eta gaiena onartuta, ez dugu ezer aurreratu. Ideiak zorrozki eta zeatz azaltzeko tresna ez ba dira, itzak ez dira deus. «Igarobide», gonbazio baterako, ez da, nereko, «método de paso» besterik. Ez da «pasaporte» bakarrik; berdin uler diteke, nik uste «zubi», «zulo» edo beste zenbait gauza, toki batetik bestera pasatzeko bide bat ba dira.

Enago, bada, euskera beretik itz berriak sortzeko joreraren kontra. Alde nago. Baña auxe dakusat baldintzat: moldatutako itzak garbi, eta zalantzarik gabe, ideia zorrozki adierazten ez ba du, itz orrek ez duela nahasteko baño balio.

3.—Erderatiko itzak. Ona beste bide bat; eta, egia esan,

iruetan segurena. Zer ajola guri itz kultoen jatorria? Aita Villasante'ren itzak berriz aipatuz «bada gauza bat gure euskaltzaleak agi danez jakin nai ez dutena: izkuntza landu baten iztegian, gaztelera adibidez, badirela maillak, jeolojiak lurrean arkitzen dituen lur-mailla oien iduriko. Azpi-azpiko maillan dira gaztelera jatorraren itzak, Gaztelako erriarenak; baiña oien gaitik eldu dira gain-maillakoak, gizon eskolatuek kultur-bidez (por vía culta) sartu dituztenak, eta oiek maizenik griego eta latiñetik artuak izan dira». Zergatik ez euskeraren iztegian?

Ni, beintzat, onen alde nago zearo. Nere ustez, euskera utsez ideia bat zeatz adieraz ezin ditekeanean, erderara jo bear da batere bildurrik gabe. Nola ar itza ordea? Onatx nere iritzia.

ERDERATIKO ITZAK EUSKERA BIZIAN

Erderatik itzak artu bearrean gera, beraz. Ots, nolatan egingo erabaki bear dugu bakarrik. Eta oraindik beretik itz berri oiek bear ditugun ezkeroko dagozkien ideiak ezagutzen ditugulako ORAIN BEREON ere erabaki bearko genuke itz oiek nola erabil edo ekar.

Bi bide dira, nik uste: Leizarraga'k orain dala laureun urte irakatsi ziguna, eta Axular' ek artu zuena. Lehenengoak, zuek dakizuten bezela, kulturaren itzak aldatu gabe erabiltzen zituen euskeraz; bigarrenak berriz, askotan beintzat, euskeraren senaren arabera aldatuak. Bereala azalduko diuzet zergatik naiago dudan nik Axular'en bidea.

«Diputación, ilusión, sesión, ocasión, vacación», eta abar euskeratzen ditugunean, onela esaten ditugu gipuzkeraz: diputazio, ilusio, sesio, okasio, eta bakazio (edo barkazio: au etzaigu orain ajola). Bizkaitarrak berriz, diputaziño, sesiño, eta abar. Eta nafarrak, diputazione, sesione, eta abar. Beraz, oker ez ba nago beintzat, iñork ez du esaten: «diputazione, sesione», eta abar. Gauza bat erakusten digu onek: sufijo ontan, edo soñu ontan, bizirik dugula oraindik euskal fonetika, eta orrengatik, euskal jenioak ortan bizirik diraelako, aldatu egiten ditugula orrelako itzak, euskeratzean.

Erderaz ere iñork ez du esan «meeting» edo «foot ball» inglesak bezala. Ez. Gaztelaren arabera aldatu da itza, eta

beste bat eratu.

Orain dala gutxi beste izkuntza batean gertatutako ejemplo gogoangarri bat esaten zidan Mitxelena jaunak: «propaganda» itza, «ropakanta» biurtu omen da finlanderaz. Zergatik? Ango fonetikaren arabera aldatu dutelako.

Orixe da izkuntza bizien jokaera: bestetatik artu, bai baña bere erara aldatuz.

Eta emen legeak dira; eta gure euskeran ez dira falta. Adibide batzuk aipatuko dizkizuet.

ERDERAZ

EUSKERAZ

cañamo	galamu, kalamua
canónigo	kalonje
anima	arima
animal	alimalia, aliamale
número	lumero
naranja	laranja
nombrar	lonbratu, izelonbre
Jerónimo	Jeolimo
ganancia	galanzia
fundamento	fuldamentu, pulamentu
cariñena	kariñela (ardo mota bat)

Or lege bat azaltzen da zalantzarik gabe; eta bizirik dagoen legea ain zuzen (ikus Xenpelar, Txirrita, eta beste bertsolari). Zergatik joan bear du literaturako euskerak fonetika jatorraren legeen kontra? Zeñek ez du entenditzen «galantziaren» esanaia?

Badakit batzuek neri ala erantzunik: Ori «arruntkeria» da. Ori ez da «kultoen» jokabidea...

Baña ni enator oiekin bat: zergatik dago ba gaizki? Baserritarrak kaletarrak baño obeto itz egiten dutelako? Euskalerriko nekazariak eta arrantzaleak euskeraren sena ori burgesak baño biziago gorde dutelako, gaizki egiten dutela esango al dugu? Baserritarrak «galantzia» esaten dutenean, euskeraren arabera esaten dute, aspaldiko legeak ondo betetzen dituztela. Guk, berriz, ganantzia esatean, erderaren fonetikaz esaten dugu, ez euskerarenaz. Beraz, jatorragotzat daukat «galantzia».

Zergatik ez artuko, beraz, «polentzia» (eta ez ponenzia),

eta «aluntzio» (eta ez anuntzio)? Zergatik ez? Onela egiñaz lotuago gagozke euskal senari eta oiturari, bestela esanez baiño.

Beste adibide bat jarriko dizuet:

ERDERAZ

castellum
 corpus
 causa, cosa
 casam
 catum
 cruz
 cadena
 colada
 codicia
 cambiar
 cautivo
 costo
 carnada
 calza
 calzada
 corbata
 convite

EUSKERAZ

gatzelu
 gorputz
 gauza
 gatza
 katu, gathu
 gurutze
 kate, gathea
 gobara
 gutizia
 ganbiatu
 gatibu
 gostu
 garnata
 galtza
 galtzara
 gorbata
 gomita, gonbita

Beste amaika aipa diteke; bañan etzaituet nekatuko. Orra or beste lege bat. Lege au, noski, askoz ere obeto eta biziago betetzen da Zuberoa'n beste iñun baño, geienetan gertatzen dan bezela. Zergatik joan bear dugu orain, erderatik itz berriak artzean, lege onen kontra?

Beste bat oraindik. Azkena:

ERDERAZ

sabanum
 planum
 ánade
 cadena
 ballena
 corona
 dinero

EUSKERAZ

zamau
 lau
 ahate, aate
 gathea
 balea, bale
 khoroa, koro
 diharu, diru

moneda	mueta, mota
mina	mia
arena	area
lino	liho, lio
don	doe, doiak
honor	ohore
menacer (fr.)	mehatxatu

eta erderaz «on»-ez bukatzen diran guztiak:

razón	arrazone-arrazoe-arrazoi
ratón	arratone-arratoe-arratoi
ilusión	ilusione-ilusioe-ilusio.

Or ere, nola uka diteke nabarmen gelditzen dan legea? Eta, zergatik joango bere kontra?

Ez dezagun egin «ika» konjugazioaz bezala: Ika ori arrunta omen da, baldresa, eta abar. Dotoreago omen da zuka itzegitea. Nork ez du noiz edo bein orrelakorik entzun? Alere jatorrena uraxe da, ain zuzen; baña kaletarrak ika etzekitela-ta, txartzat artu zuten azkenean ika itzegitea.

Berdin jokatuko al dugu orain itz arrotzai buruz? Enuke nai beintzat. Erderatiko itzak artu bear ditugun ezkerero, ar ditzagun euskaldun jatorrak bezela, ots euskera bizian artu izan diran eran. Ontarako irizpide sendo bat bear dugu. Mitxelena jaunak zerbait egiña du onetzat. Eta nik au eskatuko dut: Euskaltzaindiak ofizialki lan oiek osatuz irizpide oso eta zentzuzko bat bereala argitara dezan. Ontaz ere, anarkia (edo aharkia) etzaigu komeni; eta artzeko bearra bistan baita, gaitezen bereala egiñetara.

ITZEN EGOKITASUNAZ

Iztegi bat bear dugu. Badakit ontaz Mitxelena jauna lanean ari dana; eta ahalik eta azkarren bukatzeko berari eskatzea alperrik litzake, asmo ortantxe dabil-eta. Baña bear izugarria dugu, Euskalerriko alde ontakook batipat. Aita Lhande'ren iztegia, eta Tournier-Lafitte'renak ongi daude; baña guretzat ez dira oso egokiak, euskera-frantsez, eta frantsez-euskera baitira. Azkue'ren iztegia agiturik dago aspaldi ontan eta besteak (Aita Bera'renak batez ere) kalte aundia ekarri dute seta baten seme dira-ta.

Egokitasun alde ontan biziki lagun dezake iztegi on

batek, ejenploak baldin ba dakarzki. Nik, beraz, au eskatuko nioke Mitxelena jaunari: adibideak erruz ipintzeko. Eta adieratzat Lapurdi, Nafarroa eta Gipuzkoan geienetan duena artuko nuke.

LITERATURAKO EUSKERAREN ORTOGRAFIAZ

Ortografia bat ezta ona, nik uste, fonetikaren morroi ez ba dago. Beraz, beti bezela, bi oar:

1.—Euskal fonetikaarik jatorrenaren arabera egin bear-ko genuke ortografia.

2.—Pratikuari begiratuta, ortografia zail bat eredutzat artzea ere elitzake komeni izango.

Goazen beraz, apurka.

Literaturako izkeran, nere ustez, idazkera BAT bear dugu. Zein? Fonetikaarik jatorrena, beti bezela, ekaldean dugu; baña an gorde diran fonema batzuk galdurik daude gañerako Euskalerrri guzian. Xubero'ko «ü», esate baterako. Beraz, zer egin?

Berriz ere Mendiburu eta Duvoisin datozkit burura, eta ni berriz ere bien erdian geldituko naiz.

a) «Ha», «h» bakarra (Hau, hotz, haran, sehi, ahizpa, t. a.), Euskalerrri guzian erabilli zan antziñan; eta gaur bereon ere Xuberoa'n, Baxenabarre'n. Lapurdi'n, eta Nafarroa garaian ere erabiltzen da. Beraz, «h»aren alde nago ni. Ontan, gipuzkera eta bizkaiera mintzairarik erderatuenak agertzen zaizkigu berriz, eta ezin ar ditzakegu gidaritzat.

«H»ori zein itzetan ordea? «On» ala «hon»? («hun» baita Xuberoa'n): gidaritzat Duvoisin artuko nuke, berriz, esate baterako, ots, Lapurtera modernoa.

b) «Consonantes aspiradas» dalakoetan «olha, alhaba, senhar, erhi, erho, bekhatu, khar, ethorri, othe, eta abar) libre idaztea proposatuko nuke. Egia esan, «h»arekin batera dijoaz auek ere; baña emengo euskaltzaleai bidea erraztutzeko, jartzea ala ez jartzea LIBRE utziko nuke. Badakit au egiñaz erderaren fonetikari eta ortografiari bide irekitzen diedala, eta ez euskerarenai; euskerarena Xuberoa'n gorde baita ederkienik. Baña pratikari so nagoela proposatzen dut ori.

c) Onengatik «h»a Lapurdi'n, Baxenabarre'n eta Xu-

beroa'n bizirik dagoelako, oso gaizki iruditzen zait angoak berak «etche» eta «gocho» idaztea. Batasunaren kontra dijoa ori batetik; eta ango fonetikaren beraren kontra ere bai. «Gocho» berentzako «gokho» dala-ta.

d) Beraz Aita Lhande'k bere iztegian darabilen ortografia ontzat ematen dut guziz, ots, Euskaltzaindiarena, eta orixe proposatzen: baña lapurterari atxikia, eta ez gipuzkerari.

e) Erronkari, Saraitzu, eta Xubero'ko nasalismoak, esate baterako, ortografia-molde ontan ez dirateke sartzen, eta euskal fonetika jatorra dira zalantzarik gabe. Baña, bide erraz bat bear dugu eta zoritxarrez gure euskalkirik jatorrenak ez dituzte gaurko euskaldun geienak ulertzen.

ERRI-EUSKALKIAI BURUZ

Ori guztia literaturako euskerari buruz esan dut, ots, liburuetan, prentsan, ziñean, eta abar, erabiltzeko dukegun izkeraz.

Mintza nadin orain besteez, ots, erri-maillan geldituko diran euskalkiez: bizkaieraz eta xubereraz batez ere.

Gaur gaurkoz tokiko euskalkiai laguntzea eta ats ematea komeni zaigu ere. Zertan?

Teatroan, katiximan, predikuetan, tokiko aldizkarietan, ots, bazter batean bakarrik edatuko diran guzietan, ango euskalkia artu bearko genuke izkeratatzat.

Parrokitako orriak, esate baterako, edo geien bat euskaldun landugabeak irakurriko edo entzungo dituzten gauzetan, euskalki arruntari lotu bear diogu. Zabalkunde jenerala izango duten guzietan, berriz, literaturako mintzairari.

Beraz, Bizkaitik edo Xuberotik irtengo ez diranak, bizkaieraz eta xuberoeraz. Euskalerra guzira edatuko diranak euskera literarioaz. Orra or nere iritzia.

Beraz, ideiak piska bat finkatzeko, onela azalduko nituzke:

1.—Literaturako euskera: Axular'en BIDEA gidaritzat.

2.—Erri-euskera «Herria» astekariak artutakoa, baña ortografiar besteari lotuago, eta elburutzat literaturako izkera ura aurrean GEIAGO ipiñiz.

EUSKALTZAINDIAREN BETEKIZUNA

Gogorrago jokatu bear du Euskaltzaindiak orain arte

baño. «Jagon-sailla», edo «comisión tutelar» dalakoak bere gain artu bearke luke euskeraren batasunaren eginkizun au, eta bere alde indartsuago jokatu; idazleai ortografia ori erabil dezaten lagunduz, gaizki idatziak zuzenduz, eta euskera biziari geiago lagunduz.

Beraz, puntu aukerak bozkatzea eskatzen dut:

1.—Batzar ontan berean erabaki sendo batzuk artzea, eta «Jagon-saillak» bete araztea.

2.—«Euskera» aldizkarian ahalik eta azkarren maioriaz onartutako puntu oier argitaratzea.

3.—Idazle famatuena puntu oien kopia bidaltzea, bere ontzako emateko eskatuz.

4.—Puntu auen alde jokatzeko ez duten guziaz, boikota egin, eta beren joera txartzat artzen dala-ta esanez Euskaltzaindiaren izenean izkribatzea.

5.—«Egan» aldizkarian Euskaltzaindiak erabakitako joera oien arabera astea.

6.—Edatze txikia edo lokala duten errebistak («Herria», «Gazte», «Karmel», eta abar) Euskaltzaindiaren ortografia erabiltzeko eskatu; baña beren edatze txiki ori ahaztu gabe, ots, tokiko beren euskera erabiltzea ontzat emanik.

7.—Boskarren eta seigarren puntuetako erabakiak, urtebeteko edo bi urtetako epe batean betetzeko eska diteke, kolpez egiteagatik kaltegarri gerta ez ditezen.

Eta, besterik ez jaunak.

(1958)

LEPORAINO!

Aste honetantxe gertatu zaizkit ilaran. Egun batez, ikastola baten ondoan, gurasoak eta ikastolaren bultzatzaileak berak barra-barra erderaz ari. Beste batean, euskaltzale pare bat harriturik ikusia, geure etxean euskera hutsez egiten dugula jakinda. Hirugarrenik, oso «gogor» horietako baten etxean denak euskaldun gertatu («gogor» hori ezik), eta «gogor»arengatik erderaz denok. Eta laugarrenik eta azkenik, euskal izena eta asmoa dituen elkarte bateko biltzarrera joan, denak euskaldunak («gogor» horietako bat ezik), eta denok erderaz egin behar. («Gogorra», bera. dudarik gabe, eta ez gu; baina ez uste duen aldetik...).

Nork ez du horrelakorik egunero ikusten? Hots, jakina denez, LEPORAINO GAUDE!

Zer da, ordea, eginetara gabe, leporaino gaudela esatea, geure burua kondentatzea eta irrigarri uztea baizik?

Geure artean geuk ere egiten ditugu erdaldunak lehenengo mailako herrikide, eta euskaldunak gizajo baztergarri. Guhaurk ere, etsirik zitalenek bezalaxe, masaileko mingarriak ematen dizkiegu egunero euskaldunei. Nor harri diteke gero, hortaz, prestuki mintzatzekotan bederen, gertatzen ari

dena eta onhartzen duguna beste batzuk teoria-gisa agertu badute? Gaurko euskaldunok erderaz elkar ulertzen dugula gordinki esan duten horiei, guharuk erakutsi diegu bidea, pratikan hori egunero geuk erabiliz, eta behin eta berriz euskaldunen artean erderaz mintzaturik ontzat emanez. Errua guhaurk dugu, zuk eta nik biok, eta honék eta harek, eta denok, «gogor» horiek (euskeraren kontrako bermeta-sunean ezin gogorrago eta abilago) geure artean irribarrez eta erderaz errezibitzen ditugulako. Guhaurk mesprextatzen ditugu euskaldunak horiei sarrera emanez, eta erdaldun bakar batengatik («elkar ulertu beharrez», bai, orain salatzen diren batzuk esan duten berbera...) hamarrek lotsarik gabe erderara jotzen dugun bakoitzean. Zer ari gara soinekoak urratzen? Ez gaitezen faltsu izan. Urkabera geu aurrenik; euskaldunak gehien garen biltzarretan, euskeraz egin behar bait da, zer gerta ere. Eta pozik ez dagoena irten dedila, eta baketan utz gaitzala.

Frantsesik gabeko Quebec-ik eta flamenkerarik gabeko Flandes-ik ez dagoen bezalaxe, euskerarik gabeko Euskal Herri-rik ez dago. Hots, guhaurk behar dugu hori nortu eta obratu geure buruetan. Hau egin artean ez dago ezer itxaroterik geroan, gure amaia ezik. Zeren-eta helburua jokabideak mugatzen eta baldintzen bait du. Zuek, «gogor»rok, beste gauza «inportanteago»tan ari zareten erdaltzale nazkagarriok, LEPORAINO GAITUZUE. Leporaino.

Eskuindarrek ez dute hau onhartzen («no estamos de acuerdo con ese extremismo» diote, erdera «extremoan»). Eskuindarrek, eta «hay que distinguir la praxis individual de la praxis colectiva» diotenek, ez dute hau onhartzen. Beti pentsatu izan dute eskuindarrek, eta orain gauza bera, herriaren-TZAT jokatu behar dela, eta ez herria-REKIN. Honen ondorioa garbi dago; aginteaz nagusitu gabe ez dago ezer egiterik. Egon egin behar artean. Eta gero «goitik» dena konponduko.

Ez da hori, ordea, inun gertatu. Herriarentzat joka ahal izateko, herriarekin jokatu behar da hasieratik. Alegia: herriak behar du nahi izan.

Beste hitz batez: ezina da, bai moralaz eta bai kondaira-legez, «goitik» herri bat hizkuntzaz aldaraztea. Asmo hauek gezurra eta tentazioa dira. Lehendabizi nahia da-

tor, nahiaren hazia. Euskal Herria ez da «gero» nahi-ta-nahi-
-ez euskaldunduko. Euskal Herria barnetik eta beheitik, herriarekin, euskaldunduko da; ala hil egingo da. Aurrenik, beraz, gaurdanik beretik (ez bihar), geure artekoa behar dugu euskaldundu; eta gero, legamiak orea bezalaxe, gainerrakoa. Laguntzak laguntza dira. Lehendabizi geure buruetan nortu behar dugu dioguna. Ez dago besterik.

Bere burua euskalduntzat daukanak (areago euskaltzale izan nahi duenak) gauza bat egin behar du aurrenik; aurrenik, bai, eta ez bigarrenik edo hirugarrenik: euskeraz jabetu, euskeraz hitzegi eta erdera bere ondotik uxatzeko eran jantzi. Ez dago, ez da egia, premia haundiagorik duen egin-kizunik: bere herriarekin hitzegiteko interprete bat behar duena, arrotz bat da; eta ezin daiteke gurean ez buru eta ez buru-orde izan, ezpada gurekiko etsaitasunean.

Euskal Herria erderaz, hila litzake; eta, era berean, euskaldunak eta euskal elkarteak hilak dira erderaz, eta heriotza zabaltzen dute. Hau konprenitzen ez dutenez, J. M. Léger quebec-tarren hitzez esango dut: «c'est ne rien comprendre à ce qu'est vraiment une langue et tout ignorer des exigences de la survivance d'une communauté nationale».

Ez hilak bakarrik: hiltzaileak ere bai. Ezen minbiziaren zelula gaistatuak bezala, hedatzen dute horiek ere beren inguruan Euskal Herria suntsiaraz dezakean gaitza, eta bazterrak oro kutsatzen, lardazkatzen eta hondatzen. Betekizun premiatsuagorik ez du euskaltzaleak euskeraz nagusitzea baino. Hau ukatzen dutenak, ordea, geure muinetan beretan ditugu maizegi, euskeraren etsaien morroin fin gisa txertaturik.

Ez dago mundu honetan bere etsenpluaz mintzo ez den predikari onik. Leporaino gaude, horrengatik.

Okerragorik ere gertatzen da «bilinguismoaz». Beren inguruan erdera hutsez mintza-arazten duten «gogor» horiek berek ez dute «bilinguismo» hitza entzun ere nahi... Eta «bilinguismoa» proposatzen dutenak kondenatzea nahi luteke. Nik, ordea, euskeraren etsai gogor hauek kondenatzen ditut aurrenik eta kupidarik gabe. Zer eskubide dauka elebiketa gaur gutxiesteko eta salatzeke bere inguruan erdal monolinguismerik hestuen eta gogorrena erabiltzen duenak? Ikas dezatela hauek euskeraz lehendabizi; ala joan dai-

tezela pikutara. Ez ditugu behar. Eginak, «praxis» behar dugu.

Gure herriaren zoritxarrez eta eskubideez hitzegiten has ahal izateko, lehen puntua erderaren zabalkundea geure buruan eta geure inguruan arras geldi-araztea. Hau gabe, farsa hutsa da gainerakoa.

Gazteetan dut neure esperantza bakarra. Zerok, Euskal Alfabetakuntzan ari zaretenok, hemengo eta hango euskaldun berriok, ikastoletatik ateratzen ari zareten euskaldun gazteok, zarete LEPORAINO gaudenon esperantza bakarra.

Zerongandik espero dugu, bai, aurrerakoan euskaldun ez den antzindaririk batere gure herrian ez duzuela jasango. Zerongandik espero dugu «gogor» erdaltzale horien garbiketa eta betirako suntsiera. Zerongandik ere honenbeste farsa, faltsukeria eta gezurren amaia. Zerongandik, azkenik, gure kondaira tristean lehenengo aldiz, guztiz eta osoki, euskera mintzatuari eta nortuari oinharritasuna ematea. Ez gara gauza izan lehenagokoak akats larri honi nagusitzeko. Bigunkeria eta sasi-abileziak nagusi, goreneko postuetan eta euskaldun izeneko elkarteetan erdaltzale amorratuak irentsi ditugu.

Agian zuek ez!

Agian zuek izango duzue farragarri uzteko eta probokatzeko ausardiarik! Agian halakoekin interprete bat eskatzeko kemenik! Agian gure elkarteetan kokatu zaizkigunak zokoratzeko bihotzik! Agian bai! Agian mila bider!

Guk ez ditugu izan gaur arte.

Baina leporaino gaituzte. Jakizue bederen argi-eta-garbi.

(1970)

XABIER KINTANA-REN AZKEN LIBURUAZ

Idazle gazteen artean Xabier Kintana gailen agertzen dela idatziz, ez dut euskaltzalerik harrituko; gauza ezaguna baita. Euskaldun-berri izanagatik ere, Kintana-k zeharo menderatua du gure hizkuntza. Horrez gainera langile porrokatua da; eta, belaun berrian batez ere, inor gutxik presenta dezake gaur euskal letrei buruz Kintana-k baino mehezimendu goragarriagorik. Kintana ez da esperantza bat soilik: Kintana ba da gaurdanik idazle bat.

«Linguistika gaur arte» gaia irakurtzekotan hartu dut liburua; baina, batez beste, eta orrialde gehienetan eta mamitsuenetan, Kintana-ren beraren iritzi mordo bat aurkitu dut euskerari buruz. Ba dago liburuan, hau bai, Hizkuntza-jakintzen Kondaira labur bat 40 orrialdetan; eta beste zenbait puntu orokor. Baina liburuan barrena, euskeraren arazo batzuk dira aztergai nagusia; eta ez zaio hau inori damutuko, nik uste, Kintanak problema hauek egiazki bizi baititu.

Izenpuruak, beraz, gai teknikoak idarokitzen dituelako, bildurtu egingo du irakurle asko; eta tamalgarria litzake. Euskal Literatura zaharra ongi ezagutzen du egileak; eta, kanpoko erderen ezagugarri batzu gidari, txit gauza inte-

resgarriak aipatu dizkigu.

Puntu askotan iritzi berriak dakazki. Eta ez dakit denak aski funtsatuak ote diren, Kintanak oso agergarri eta frogabide gutxi dakarrelako. «F»-aren teoria hori, esate baterako (alegia: Gaztela-tik etorri dela Euskal Herrira «F» galtzeko joera eta ez alderantziz) argibide ugariago behar lukeala iruditzen zait; eta Landetan eta Biarnon zer gertatu den oso kontutan hartu.

Beste puntu batzutan errazkiago onar bide daitezke Kintana-ren iritziak.

«Dual»ari buruz diona (66) bidezko izan daiteke, esate baterako. Lapurdi-ko bereko toponimian (ez Bizkaian bakarrik, beraz: Bidebieta, eta abar) etxe bikunei buruzko leku-izen ezagunak bi hauek dira: «Etxebiaga» eta «Etxepare». Iparraldean ere paretasunari (hau da: bikuntasunari, bi ale-tako banakoari) atzizki bat bide dagokio («-bi», «-pare»), gaur bizkaieraz bezala (etxe bi, etxe bitan, eta abar). Bizkaiko deklinabidea Kintana-k dion bezala «dual» horren aztarna izan liteke.

Aurrerago (81) italiar «kolektiboa» aipatzen du; eta bide horretatik Maurice Molho hizkuntzalariak italiar «dual»-ari buruz argitara duen azterketa mamitsua gomendatuko nioke.

Harrigarriena, beharbada, euskerazko «maskulino/femenino»ari buruz diona da. Azterketa-harrobi oso bat aurkitu bide du hor idazleak; eta, egokiro dion bezala, J. M. Barandiaran-en izkribuen laguntzaz baliaturik aurreratu beharko da sail horretan.

Sintasiar mintzo delarik, laburkiegi egin du. De Rijk aipatu du pitin batez; eta Martinet zehazkixeko. Baina ez aski xeheki, ene ustez. Eta, oker ez banago, «Linguistique Synchronique» liburuan euskal sintasiar eman-berri duen azterketa baliatu gabe (ezin dut segurtatu hau, buruz ari bainaiz, liburua eskuen artean ez izaki). Sintasiaren kapitulu hau, hitz batez, laburtxo atxeman dut.

«Irakurri» —dio Kintanak— «lehen artaburuak "zuritu" edo "garautu" besterik ez zen» (93). Ez lehen bakarrik, ordea: Gipuzkoa-Nafarroa-ko mugako euskaldunek horrelaxe erabiltzen dute (ikus «Euskera»). Eta «morroi», «lehen "mutila" besterik ez zen» (96); baina gaurko bizkaitarrek «mutil

gazte bat» esateko, «morroe bat» diote eskuarki.

Zenbait azenturen legea ez da garbi agertzen. Zergatik batzutan «formá» (28, 38); eta bestetan, eta beti mugatuan ari, «forma» azenturik gabe (32)? Zergatik hitz bakar batzutan bakarrik azentu hori?

Puntu bati buruz Kintanarekin ados ez nagoela esan behar dut; eta harritu ere egin nauela haren iritziak. «Iloba» hitzari buruz hau dio: «Askotan ikusi dugu nola erdal "so-brino" eta "nieto" euskeraz hitz bakar batez esaten diren (neska zein mutila izan): "loba". Eta hau zergatik? Oso klarki dago: Euskeraz "loba" senide hurbil baten semea delako (norbere anaiaren edo semearen semea). Erderaz pentsatzen hain ohituta ez bageunde ez genuke sekula galdetuko argitasun gehiago, "osaba" eta "izeba" entzutean aitaren ala amaren aldetiko den hain berehalaxe galdetzen ez dugun bezalaxe» (48).

Euskerak hain zuzen zehaztasun haundia izan du ahai-detahun gorabeheretan. Gogora ditzagun, esate baterako, anaia/neba/arreba/ahizpa/haurride hitz-mordoska; eta Asteasu-ko J. B. Agirrek berak orain dela bi mende erabiltzen zituen «herengusuak» eta «larengusuak». Dudarik gabe besterik da kakoa. Eta Azkuek berak markatzen du bidea Hiztegian «loba» hitza azaltzean (Dicc. I, 552). Problema hau garbi dago Benveniste-ren eta Levi Strauss-en azterketa argitsuen ondotik. Eta gaia interesgarria delakoan, xehetasunez emango dut azalpena.

Eman dezagun bi senar-emazte. Andoni A-k eta Maddi B-k osatzen dute lehenengo bikotea; eta Joanes B-k eta Marta D-k bigarrena. (Maddi B eta Joanes B neba/arreba dira, beraz).

Eman dezagun orain bi senar-emazte horiek seme-alaba batzu izan dituztela. Andoni A-k eta Maddi B-k izan dituzten alabetako bati Itziar AB deritza; eta Joanes B-k eta Marta D-k izan dituzten semeetako bati, Kepa BD. Bi hauek, beraz, lehengusuak dira.

Eman dezagun orain Itziar AB eta Kepa BD horiek, lehengusu izaki, elkarrekin ezkontzen direla, eta seme bat izan dutela: Markos BA. Zer da Johanes B, Markos BA honi buruz? Eta zer, itzuletara, Markos BA hau, Joanes B-ri buruz? Kontuz orain! On luke irakurleak eskematxo bat egitea.

Alde batetik, Joanes B Maddi B-ren neba da; Maddi B, berebat, Itziar AB-ren ama; eta Itziar AB, Markos BA-ren ama. Joanes B, beraz, alde honetatik, Markos BA-ren **osaba-aitona** da (tío abuelo materno, «oncle maternel»). Eta, alderantziz, Joanes B-ri buruz, Markos BA «iloba» da (alegia, sobrino-nieto, petit-neveu).

Baina, beste aldetik, Kepa BD Markos BA-ren aita da; eta Joanes B, Kepa BD-ren aita. Joanes B, hortaz, Markos BA-ren **aitona** da adar honetatik (abuelo, grand-père). Eta alderantziz, Markos BA Joanes B-ren «iloba» da (alegia, nieto, petit-fils).

BATERA gertatzen dira pertsona beretan ahaidegoa biok, beraz, familia-mota horretan. Pertsona BERBERA (Markos BA) nieto/petit fils eta sobrino-nieto/petit-neveu da Joanes B-ri buruz.

Hots, antropologiak erakatsi duenez (eta hauxe aipatzen du Azkuek) presentatu dugun familia-mota **horixe** zen normala herri arkaiko askotan: «mariage entre cousins croisés» deritzana, hain zuzen: mutil batek, aitaren arrebaren alabarekin ezkondu behar zuen. Herri horietan, hortaz, **NORMALA ZEN BI AHAIDEGOAMOTA HORIEK EZ BEREZTEA**. Hauxe izan da, hain zuzen, Benveniste-k indo-europatar herriei buruz argiro frogatu duena.

«Iloba» hitzareu fenomenua, horretara, Euskal Herriaren ezkontza-lege ezin zaharrago baten lekuko da 1971-an; eta hizkuntza-azterpide honen bidez (hutsune baten bidez, itxuraz) Euskal Herriaren antzinate ilunean barrena abia gaitzke, gure arbasoen soziologi-moldakeretan beretan sartuz. Zeren-eta Azkuek berak dionez (ikus Dicc., I, 409) zenbait tokitan «iloba» hitzak batera adierazten bati ditu erderazko «nieto» eta «sobrino» (gauza bera bizkaierazko «loba»). Baina hori ez da dena. Baxenabarra eta Zuberoa aldean **«ilobaso»** hitzak («iloba»ren ordezkoa) nieto/petit-fils eta sobrino-nieto/petit-neveu adierazten bait ditu batera hain zuzen. Arras, beraz, antropologiaren hipotesiak behar zutenaren arabera! Eta, jakina (eta hau Kintanak ere gogorazten du liburuan) hauxe da euskera zaharraren egoera; arkaismoak Bizkaiaren eta Ekialdeko euskalkietan gorde baitira, gisa denez.

Kintana-ren liburu mamitsuak urrutira eramán gaitu.

Eta pentsa-araztea ez da arrakasta txikia idazlearentzako. Horregatik esan dizaioket beste euskaltzale askorekin batera: «Aurrera, Xabier! Ekiok euskal azterketa horri! Eta ez gal otoi gure hizkuntzarekiko jaiera suhar hori!».

(1971)

«EIBARTARRA»RI GUTUN AGIRIA

Agur aberkide ezezagun hori:

Zure artikulu mamitsua irakurri dut Z. ARGIA-n (1971-XI-28); eta zure kezkek noraino ulertzen ditudan azaldu beharrik ez dago. Zure kezkek, «Eibartarra», eneak dira; eta, sinetsita egon, euskaldun bihotza dugun guzian kezkek dira.

Utz dezagun alde batera Eibar-ko euskera jatorra den ala ez den, eta sasi-problema horiek. Eibar-ko euskera jatorra da, euskalki guziak bezala (zure artikulua lekuko); bizkaieraren adarra danez, bestetik, puntu askotan oso interesgarria; eta teknika-sailean, azkenekorik, oso kontutan hartzekoa, Euskerarik txarrena (txarra den bakarra hobe) ERDARA da: hauxe da oraindik euskaldunok sinetsi nahi ez dugun egia garbia.

Bestek hunkitu nau halere zure artikuluan. Eibar-ko haur-jolasak aipatzen dituzularik, hau diozu: «Orduango gaztiak euskeraz bizi giñan». Hauxe da, ene ustez, zure artikulua-ren oharrrik gogoangarriena. Egia latza baita! 1940-ren inguruan, «juan dan gerra ingurutxuan bertan» zuk diozunez, Eibarko haurrak euskeraz egiten zituzten beren jolasak. Eta

gaur ez. Harrez gero 30 urte pasa dira. Eta, zure hitzak gogoraziz, «ni eta neure sasoikuak izan gariala euskeraz azkenengo jolasak egin ditzugunak kalia». Karkulu txiki bat eginez, hau da ondorioa: 40 urtetatik gorako eibartarrak direla euskeraz jostatu diren azkenekoak.

Hau, ordea, ez da Eibarren bakarrik gertatu. Aldaketa berbera ikusia dut Donostian bertan, Antiguako hauzoan. 1938-an, oso ongi gogoratzen naizenez, Aiete-ko eskolakide batzu izan nituen «Ntra. Sra. de Lurdes» zeritzan hauzo-eskolan; eta lagun haiek euskaraz jolastutzen ziren beren artean Antigua-ko eliza ondoko enparantzan. Hots, nik neuk ere ia pasa berriak ditut berrogei urteok. Eta zerorrek diozun bezala esan nezake nik ere, «gerra ingurutsuko» anti-gutar mutilok, nahiz erdaraz ari izaten, «a irtenes», «a bertan txulo», eta abar, jostatzen ginela; «guitipera» bat prestatzen genuela, eta Txokolatene eta Marbil-berriko aldatetan erabiltzen; eta frontoian, «azken» eta «azken-hurren» eskatzen genuela partidak hasterakoan.

Ia gauza bera esan daiteke Euskal Herri guzian.

Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoa osoetan ez dago gaur INUN haur-talde bakar bat euskaraz jostatzen ari. Nik ez dut bederen horrelakorik inoiz entzun: ez Hazparnen, ez Donapaleun, ez Maulen, ez Kanbon, ez Atarratzen, ez Garazin; ez eta Garruzen, Lakarrin, Bithiriñen edo honelako herrixka ttipietan ere. Iparralde guzi-guzian gaur haurrak frantsesez jostatzen dira. Baina aski da hazpandar edo garaztar batekin mintzatzea, orain dela 20 urte horrelakorik gertatzen ez zela jakiteko.

Euskal dialektologiari buruzko izkribuak irakurtzen dituenak, era berean, ondorio berbera aterako luke Nafarroa (Garaia)ri buruz. Behin eta berriz idatzi denez, Altsasuan, Eugin, Otsagabian, Lekunberrin, eta beste hamaika herritan, «adineko jendeak ba daki euskaraz; baina gazteek ez». Dakienak ez daki geroz ikasia duelako: euskaraz ikasteko eta jabetzeko kezka eta benetako nahia oso joera berriak dira Euskal Herrian. Adineko jende hori, beraz, euskal giroan murgilduta bizi zelako gertatu da euskalduna; eta haurtzaroen euskaraz jostatu den azken euskaldun belauna da.

Ez dago, beraz, esaterik: «Tira, tira! Ez hileta jo! Zaharrek beti esan dituzte horrelako tentelkeriak». Ez. Guhauri

tokatu zaigu kinka berezi larri hau ezagutzea: ez dute gure aurrekoek ezagutu, eta gure ondokoek ere ez dute ezagutuko. Azkeneko euskal jolasketa jatorrizkoak (alegia, pizkunde-nahi gabeak) geuk ezagutu ditugu. Guganainoko Euskal Herria gauza bat izan da; eta gugandikakoa, nahi-ta-ez, beste gauza bat izango da: etendura ondokoa. Negar egin daiteke, ala farre; baina hori horrela da. Etendura hori ezin da eza-batu. Zuk ongi dazkizun arrazoinengatik, horretara heldu gara, eta ez-ikusia egiterik ez dago.

Gauza bat adierazten du honek: jatorrizko euskalkien urteak ahitu direla. Haurrak ez dira gaur euskaraz inun jostatzen, jatorrizko euskalki biziak, ahoz aho gugana iritsi direnak, plazaren mailan bederen agortu direlako.

Gauza bera gertatzen zaigu gaitzizenekin. aita ikastoletan ari diren hurrek, erdarazko gaitzizenak jartzen dizkiote naiz elkarri: «cabezotas», «gordito», eta abar. Joera berbera irainetan: erdaraz botatzen dituzte askotan euskaraz ari diren hurrek.

Ba dago zertan amets eginik Oihenarte-ren paperak gogoratzuz: XIV-gn. mendeko baserritarrek, euskal deiturak ETA EUSKAL GAITZITZENAK erabiltzen baitzituzten barra-barra Aierbe-ko eskualdean (Hueskan beraz!). Eta ba dago zer bildurik eta ikastoletan erakatsirik Toribio Alzaga-ren irain-lerrokada harrigarrietan!

Euskaraz jolasten ziren haur-mordoen katea moztuta gelditu da. Euskalki jatorren isuria agortu. Beste modu batera esateko, zalantza, edo erabaki-beharra, ez da gaur ia Euskal Herrian euskalkien hildoari helduko ote diogunez; baizik-eta ia Euskal Herrian euskara batuaren kate berri bati helduko ote diogunez, ala erdara batuarenari.

Euskara batua artifiziale da, laboratorio-usainekoa, hotsa. Euskaraz hazi diren GUZIEK aitortzen dute hau. Nola ez aitortuko? Euskara batua, «euskeraberri» da, pipergabea, motela, gexa, garo-usainik gabea. Eta euskararen alde gaudenok dakigu beharbada inork baino hobeto.

Nik neuk, esate baterako, aski dut «fan» entzutea (joan), «baikotza» (bakoitza), «aitxajauna» (aitona), «amandria» (amona), «flatela» (platera), eta «larua» (horia), neure burura haurtzaroko urrinez beterik atxemateko, Alzaa-kaleaz, San Martin- ez eta Arantzazuz oroitzeko, eta Udalaitez-ko isla zor-

rotza neure barrutik ezin baztertzeko. Oñati-ko euskara nereago da besteak baino; eta hango hitzen «denotación» delakoaz gain (=esan-nahi soila), «connotación» gaitza nabaritzen dut (=sendimendu-kutsua). Euskara batuaren ul-trek (1920-koek eta... 1971-koek!) ez dute minberatasun hau ulertzen, erdalkumeak direlako, eta maiz xamar erdaldun porrokatu. Euskara batuaren kontrako BIHOZKADA BA-TZU (ez denak, kasu!) ulertu egin behar dira, euskal bizian eta bibentzietan finkatzen direlako. Mitxelenak, esate bate-rako, ez du gure arazoaren aurpegi ilun motz hau behin ere izkutatu. Hastapenetan euskara batua hotza izango da nahi-ta-nahi ez, eta hotz izango zaie euskaldunei hain zuzen: euskaldunago izan, eta hein batez arrotzago atxemango eus-kara batua.

Baina problemak eta euskararen kinka gaistoak ba dute alderdi egoki bat gutxienez: haurren erdal jokoek argi-eta-garbi erakusten dutenez, urte gutxi barru euskalkienak egin duke. Hautakizuna ez da gaur, beraz, eta esana izan da lehe-nago, euskalkiak/erdalkiak, EUSKARA BATU BAT/ERDA-RA BATU BI baizik. Ez dago honetan hirugarren biderik.

Ez da bestalde euskalki bizien alderdi ona larregi han-patu behar. Euskalkien egoerak honetara gaitu. Ez zen beraz horren ona. Eta euskararen arloa dialektolarientzako para-bisu bat izan baldin bada ere, euskaldunontzako anitz mu-gakeria eta murrizkeriaren iturburu izan da. Denetan larrie-na hau: denok euskaldun izanik ere, elkar konprenitzekotan erdarara jo beharra. Gure iduriaren fina! Geure burua uler-tzeko kanpora jo!

Euskalkien amaia begien aurrean dugu. Beste lege-egoe-ra batean ere ez lukete euskalkiek gaurko gizarte-moduan izango. Eibartarrak gaur Zarautzen pasatzen du igandea, eta bilbotarrak Gipuzkoako irratia entzuten. Are gehiago telebis-tan eta liburuetan. Lehen ordubeteko tartea 6 kilometro zi-tuen, gaur 80 Km. Ez ditugu haurrak herriko enparantzeta bertako euskaraz mintzo jostatzen entzungo. Hau seguru da. Bilbon, Donapaleun eta Gastehizen, Arrangoitzen eta Tude-lan; gero eta euskara batuagoan ari. Ez da hau itxaropide makala!

Euskalkien Euskal Herria, banderizoen segida, Beotibar-en aztarna, jauntxokerien eta arloterien irudia, hiltzorian dago. Bil ditzagun azkar, eta osoki, euskalki guzien muina, odola eta giharra; eta osa dezagun ahalik eta azkarrenik euskaldun guzientzako euskara batua eta zalua: inoiz baino zehatzagoa, inoiz baino landuagoa, eta inoiz baino maitatuagoa. Eta kantari berrien eta burrukari gazteen aireetan oraturik, laister errotuko da gure haranetan, eta berotasuna irabaziko: biziak ez bestek eman dezakean sustraia. Eta Euskal Herri elkartu, anaikor eta berri baten tresnarik aproposena eta indartsuena bihurtuko da.

Sinetsia egon zaitez, «Eibartarra» maitea, gure herriak horretara galdu dukeana baino aisa gehiago irabaziko duela.

Honenbestez aski. Eutsi! Biba eibartarrak!

Eta besarkada bat.

(1971)

BIDE BAT BEHAR

Euskal kulturgintzan etengabe saiatzen garenok (andereño, albistari, idazle, irrati-hiztun, alfabetatzaile) ongi dakigu euskararen batasuna norainoko behar hertsia den. Gauza bera dakite, eta egunero dastatzen, euskaraz mintzatuz Euskal Herrian barrena ibiltzen direnek. Erdaraz eta erdal kulturgintzan ari direnek ez bestek diote: «Poliki! Kontuz! Utz hori gerorako!».

Ez dago poliki joaterik, ordea. Dударik gabe polikiegi ari gara joaten; eta ez da gaurko kontua hau!

Bi arazo nagusi ditugu orain erabaki beharrez: 1/ Aditza edo berboa. 2/ Hiztegia.

Bigarrena piskanaka, baina deliberatuki, egin behar den lana da. Ikastoletako hiztegia gutxienez (2.000 bat hitz) ahalik eta laisterrenik finkatu behar da. Nork finkatuko? EUS-KALTZAINDIAK, noski.

Lan hau aurrera bide doa, eta astero biltzen omen da Euskaltzaindiak izendatutako Batzordea. Ikastolen ardura-dunek, bestalde, liburuxka bikain bat prestatu dute honi buruz. Hitz batez, hiztegiaren lehenengo urratsa den ikastola-hiztegia aurrera doala dirudi. Laister burutuko ahal da!

Eta argitara emango.

Aditzaren arazoa, berriz, gelditurik bide dago. Euskaltzaindiak izendatu zuen Batzordearen bultzada, ez bide da ageri. Hots, aditzaren arazoa garbitzeko beharra ezin haundiagoa da.

Berriz ere: nor garbituko? Eta berriz ere erantzun berbera: EUSKALTZAINDIAK garbitu behar du.

Noiz, ordea? Ez dut uste hauzi hau ikastolentzako hiztegiarena baino zailago denik. Benetan ez. Euskaltzaindia, ordea, bildur da, itxura denez, aurrera jotzeko; eta euskalari batzu ere bai.

Aditzari buruz, beste problema askori buruz bezala, euskarak ba ditu lau euskalki nagusi: bizkaiera, gipuzkera, lapurtera, eta zuberera. Hauen artekoek (baxenabarreak, eta abar), literaturari buruz batez ere, itzalik ez dute. Hots, euskara IDATZIAREN batasuna behar dugu aurrenik.

Aditzari gagozkiolarik, halere, hautakizuna ximpleago da. Bizkaierak laguntzaile berezia du alegiazko adizkietan («egin»), eta horrengatik zuberera baino ere urrunago gertatzen da erdi bidetik. Ondorioa hau da: lapurtera hautatu behar da, ala gipuzkera.

Goazen orain xehekiago. Zein lapurtera? Zein gipuzkera? Zertan datza bien arteko desberdintasuna? Zein irizpide har gidarizat?

Ahal delarik, eta euskaldunen artean hesi bat sortzen ez delarik, ez dugu euskara idatzia larregi urundu behar gaur euskaraz mintzo den herriaren hizkeratik. Nola mintzo dira gaurko euskaldunik gehienak, beraz?

Lapurtera «klasikoa» ahitua da: «derautzut», «neraukon», «dakidikaio», eta abar, ez dira inun esaten. Lapurtera klasikoa lapurtera arkaikoa da aditzari dagokionez.

Gaurko lapurtera eta zuberera, bestalde, oso oso gutxi erabiltzen dira. Lapurdi-ko itsasertzean erdara dago guttiz nagusiturik; eta euskara entzun nahi izatekotan, Sara-ra edo Senpere-ra jo behar da. Hazparne-n, jakina denez, baxenabarraz mintzatzen da; eta gauza bertsua Beskoitzen, Mugerren, Itsasun, Makaian, eta abar. Zuberoan, berriz, denetara 16.000 lagun, Maulen (6.000) ez da euskaraz mintzatzen; Atzarratzen (2.000) arras gutxi. Barkoxe da herri koskorren artean eus-

kaldunena.

Baxenabarrera bera (kontuz!) arras ahulduta dago gazteen artean. Lehengo egunean bide zuzenetik jakin dudanez, Donapaleuko ikastolan (26 haur) BIK dakite euskaraz hitzegiten, eta beste bik ulertzen; gainerakoek zipitzik ez. Haur horiek, halere, Donapaleukoak eta Garruzekoak dira; eta beren gurasoek, hango nagusi guziek bezala, euskaraz ba dakite, eta ongi jakin. Baina etxen ez da egiten gaur, ezta Amikuzeko baserrietan.

Euskalkien bizitasunari buruz, hortaz, gaurko lapurtera hautatzekotan, gaur txit ahula den euskalki bat aukeratuko genuke; eta ba dirudi gipuzkera litzakeala bidezkoago.

Literaturari begiratzen badiogu, berriz, azkeneko bi mendeotan gipuzkeraz (edo gipuzkera osotuaz) idatzi da gehiena. Lapurterazko literaturaren isuri oparoa, 1789-ko gertaerek eten zuten; eta orain dela mende pare batez geroztik, lapurtera «klasikoa» agortu da, bai liburuetan bai lapurtarren ahoetan. Leizarraga, Atsular, Etxeberri, Gasteluzar, Haraneder, aspaldiko izenak dira. Barbier, Otsobi, Leon Leon, Soubelet, berriagoak dira, bai; baina ez dute inundik ere haien maila iritsi, ez mamiaz ez irakurleen eta jarraitzaileen kopuruaz; are gutxiago, noski, Hegoaldean. Lapurtera zaharraren joera ez da joera nagusia azken urteotako euskal literaturan.

Gipuzkerak eman ditu, aldiz, aspaldisko honetan, euskaltzalerik gehienak eta ugarienak: orain dela bi mendez geroztik, eta literaturaren mailan, gipuzkera nagusitu zaio lapurterari. Hizkeraren aldetik oinarri bila abiatuz gero, hor ditugu, berriagorik aipatu gabe, Larramendi bera, Iturriaga, J. B. Agirre, Lardizabal, Kardaberatz; eta, batez ere, Mendiburu eta Gregorio Arrue, biak liburu askoren egile eta idazle jator.

Gorago aipatu ditudanak aipaturik, gipuzkeraren aldeko joera honi tenk egiteko arrazoin sakonik ez da ageri; eta gure euskalaririk jantzienek argi-eta-garbi jakinarazia dute hau.

Beti aditzari gagozkiolarik, zertan datza lapurteraren eta gipuzkeraren arteko desberdintasuna? Puntu honen crantzuncan kontuz ibili behar da.

Lehen-lehenik, desberdintasuna TXIKIA DA; eta aditz-
-kera edo joko eskuarretan desberdintasunik ez dago: naiz,
dezaket, gaitu, eta abar. Aski da Kanpion-en Gramatika
aztertzea, esate baterako, horretaz jabetzeko.

Ia puntu nagusi bakarra honetan datza: dizut/dautzut,
zigun/zeukun, dizaion/diozan edo diezon, eta abar. Hau da:
ZER-NORK-NORI elemetuak dituzten formetan bakarrik.
Azkuek berak esaten zuenez, bestalde, baita Baxenabarren
ere «nion» entzuten da askotan, «nakon»en beharrean; edo
«diot» «dakot»en beharrean, eta abar. Forma gutxitan dugu
istilua, beraz, oro har.

Anitz aldiz aipatu izan da (eta neronek ere bai) gipuz-
kerazko paradigmak duen akatsa. «Ekarri diat» esakuntzak
bi gauza desberdin adieraz ditzake: «Nik ekarri dauat» (L),
alegia, nik hiri ekarri zerbait; ala, hika mintzatuz, «nik
(ctxera,...) zerbait ekarri diat» (L), alegia, nik zerbait eka-
rri. Lapurterak biak berezten ditu: «ekarri diat/«ekarri
dauat».

Aski da akats hau gipuzkera baztertzeko? Ez ahal da
akats larri bat «gari» (trigo, blé) eta «garhi» (delgado, min-
ce) ez bereztea? Halaz ere, Iparraldeko hiztunen eta literatu-
raren kaltetan, kh, lh, rh, nh, th, ph, guziak baztarrera bo-
tatzea utzi da batasunaren fagoretan.

Bi ohar egin behar dira hemen, ene ustez, ideiak garbi
uzteko:

1) Gipuzkeraren aditz-jokoak onharturik ere (dizut, ni-
zun, genizaiola, eta abar), ez da inoiz proposatu gipuzkera
hutsa bere horretan, eta behar dituen eraskinak gabe, on-
tzat hartzea. Baiona-ko lanetan beretan (1963-1964) dut, duk,
eta abar, saila hartu zen ontzat (ez det, dezu, eta abar); eta
«nuan»ekin batera «nuen» onhartu zen, eta gainerakoak.

Infinitiboa (ekar, gerta) eta partizipioa (ekarri, gerta-
tu) berezteari, esate baterako, bidezko derizkiote gaur de-
nek. Hots, berezketari hori gutxitan egiten da gipuzkeraz;
baina beti Iparraldeko euskalkietan.

Alderantziz, «esan du» eta «esan egin du» berezketari
bizkaieratik hartu dugu.

ZER-NORK-NORI aditz-jokoetan gipuzkeraren paradig-
ma proposatuz, beraz, ez da gipuzkera osoa ez soilari inoiz

proposatzen. Azkuek berak, bizkaitarra izanagatik, GIPUZKERA OSOTUA proposatu zuen beti. Eta «gipuzkera oso-tua» hitzek, aditzari gagozkiolarik, ZER-NORK-NORI saillean gipuzkerazko formak gutxi gora-behera besterik ez du adierazten.

2) «Gipuzkera» deritzan euskalkia Nafarroan barrena ere hitzegiten da. Barrankan, esate baterako, Ziordian, Olaztin, Altsasuan, Bakaikoan, Etxarri-Aranatzen, Lizarragan, Torraun gipuzkera hutsez mintzatzen da. Eta Nafarroako gainerako euskaldunei, fama denez, ez zaie gipuzkera zail gertatzen.

Euskaltzaleok zai gaude; eta gertu ere gaude, gehienok bederen, Euskaltzaindiaren erabakiak betetzeko. Berandu izan baino lehenago nahi genuke bide bat. Euskaltzaindiaren etsaiek, sasi-jakintsuek eta nolanhiko ultrek jo-ta-ke ckiten baitiote beren anarkiari.

Euskaltzaindiak du, beraz, azken hitza.

(1971)

TXALO JO BEHAR

Gutxi gora-behera, liburu bat astean (bat baino gehixea-go ere bai) argitaratzen da gaur euskaraz; eta, ene ustez, laister lortuko dira ehun liburu urtean. Ez da hori, izan, kopuru gaitza; eta edozein iritzi, aldeko ala aurkako, eman aurretik, liburu mordo horretan zertsu esaten den ikertu behar da, baita euskaldunen beharren arabera zeri dagokion edo zein hutsune betetzen duen.

Sarasolak berriki azaldu duenez, azkeneko bi urte haue-tan agortu egin da pitin bat euskal literaturaren joritasuna. Sortzapen-lanetan (nobela eta olerkigintzan bereziki) geldiune batetan omen gaude; eta, Sarasolaren ustez, euskara-ren batasunaren arloak horretara gaitu. Kintanak ere, aditzaren arazoa berriki aztertu duelarik, gure gramatika-zulo honetatik irten beharra aipatu du.

Geldiunerik ote dagoen ez dakit. Baina nik neuk ere (eta honelaxe lehenengo aldiz mintzo ez naizelarik), geldiunerik obratu ala ez obratuta, gauza bera esango dut gaurkoan: ezin daitekeala Euskal Herriaren arazoa, ez euskal literatu-rarena bera, gramatika-arazo bihur; gisa dela hizkuntzala-riek hizkuntza-lan hori egitea; baina ez dela normala, ez

onuragarria ere, idazleen multzo osoa (are gutxiago «etxeko euskera» besterik ez dakitenen ostea) hizkuntzazko nartzisis-mora lerratzea, eta herri osoa bere txilberrari so paratzea. Idazle izatea, bestalde, gauza bat da; eta gramatikalari izatea beste bat. Gai zail hauetan, teknika-gai guztietan bezala, abots gehiago entzun eta handiagoa da kakofonia... eta porru-piloa!

Nola irtengo ordea geure kinkatik?

Alde batetik, teknika-arazo horietarako erabakitzaile bidezko eta bakar bat hartuz: EUSKALTZAINDIA, noski. Eta, bestetik, hizkuntza-ahuleziak ebakitzeko, korapiloak askatzeko, eta aurrera jotzeko, proposamendu berriak eginez.

Gure istilu aspergarri hauek ez dira inundik ere, lau sasi-jakintsuren setaren ondorio. Ez. Sustraian zinezko problemak dira, eta premia osokoak. Gure hizkuntza ez da inoiz landua izan, ez da sekula administrazio-tresna eta literatura-lanabes izan. «Queremos el euzkera de las montañas, puro y fresco como los arroyos de las alturas» esatea, ez da ezer esatea; «mendietako» hizkuntza horrek, bere horretan hain zuzen, gaur balio ez digulako. Eta esaldia bota duenari ere ez; eta esaldiaren erdaltasuna da agiririk nabarmenena.

Ezin bestezkoa dugu euskara zarpailtasun horretatik jasotzea eta AURRERA jotzea. Ez dugu problema hau H-aren kontrako izkirimiri arlote atzerakoiak eta kirtenkeriak asmatuz gaindituko. Gainditzeko, jaso eta eman egin behar da.

Hots, hauxe egin dute «Ikastola-Hiztegia» prestatu dutenek: lan isila, ospegabea, iluna; lan txalogarria benetan. Eta Euskaltzaindiak harrera ona egin dio liburuari; eta ona merezi zuela iruditzen zait.

Txukuna itxuraz, oinarrizko hiztegiaren eginkizunari eraso diote ausarki egileek; eta eskaini diguten frutua mardula da. Orain da kritika sendo eta funtsatuak egiteko garaia; alegia, Euskaltzaindiak ikutuak hemen eta han eman, eta iritziak bildu ondoren, bere AZKEN HITZA eman dezan baino lehenago. Orain da mementoa; ez erabakiak hartu ondoren.

Arantzazuko erabakiak gaur onartu nahi ez dutenek, era berean, lehen izan zuten kontra egiteko aukera. Orduko kritikak egokiak izan zitezkeen; gaurko marmarrak eta anarkiak, kalte-iturri eta zeharo arbuigarriak. Orain ez dugu

eskubiderik atzera egiteko. Zergatik? Hain zuzen ere, ateka honetatik, gramatika-inflazio honetatik, ahalik eta azkarrenik irten behar delako. Honela jokatzeko ez badugu, ez dugu sekula euskararen arazoa konponduko. Eta besterik ere ez, bestalde; jokabide horiek (alegia, talde batek zer gerta ere beste guztiei bere iritzia irents-arazteak) oso izen ezaguna baitarama politikaren hiztegiaren...

«Ikastola-Hiztegiak» baditu bere hutsuneak edo ahuleziak. Baina abiaburu bikaina iruditzen zait. Batzutan garbizaleegi agertzen da («odolgorriki» = hemoglobina); eta beste batzutan, berriz, beharrik gabe onartzen du erdal fonetika («animali» = eusk. alimale, alimale, alimalia). Egoki litzake, bestalde, hurrengo argitaraketa egiterakoan, erdaratik euskararako bilabide bat ematea; bestela zail gertatzen baita liburua erabiltzea.

Hitzen sentiduari edo adieraziari dagokionez, berriz, hobetzat dadukat Azkue-ren bidea (frantsesezko eta gaztelarazko kidea, azalpen batekin), gaztelarazko kide bakar eta soil bat (sasi-kide askotan, gainera) ematea baino. Azkuek argitzapen luze bat eman ohi du askotan: «Giharra: leño propiamente dicho, parte central del árbol, cubierta de liber, albura y corteza; coeur, bois proprement dit, partie centrale d'un arbre, couverte de liber, d'aubier et d'écorce». Batzutan (ez beti) honelako zerbait egin behar litzakeala iruditzen zait. Bestela, kide bakar bat proposatuz, erdal semantika-zatiketa onartzen da; eta erdal egiturentzako arraildua irekitzen. Beste hitz batez: saltsa frankoren iturri berri bat.

Zenbait kasotan, bestalde, hitzek elkar mugatzen duten kasoetan, hobe litzake nik uste hitz-mordo osoa hartu, eta dena elkarren mugatzaile gisa ematea, dagozkien azalpenekin batera noski:

// sustrai / erro / zain //

// garaino / zaldi / behor / moxal / pottoka //

bakoitzari zer adierazkizun-eremu dagokion zehatz azalduz.

Artikulu batetan ezin daiteke dena azter (nahiz dena xeheki aztertu behar den); eta hemen honenbesterekin utzi-ko dut gaia.

Baina ohar bat bukatu aurretik: honelako lanak burutuz eta ikasiz piztuko dela berriz euskal literatura. Ez bestela. Euskal literatura gramatika eta hiztegi aldi «aspergarri»

honetatik jaregiteko, honelako gramatika eta hiztegi-lan egokitatik igaro behar da.

Mila zorion beraz, bihotz-bihotzez, Jaxinto F. Setien eta honen laguntzaile pijoei. Bejondeizuela! Eta, ekin!

(1972)

ANDOLIN EGUZKITZARI ERANTZUNEZ

Agur lankide hori:

Oker ez banago, behin bakarrik izan diat hirekin buruz buru mintzatzeko aukera: Zuberoan hain zuzen. Agian oroi-tzen haiz. Handik aste batzutara Arestik, oso adiskide antzera eta onez-onean, «munstro»tzat salatu hinduen. Zertan hi «munstro»? Gure hizkuntzaren jabekuntza azkarrean: hilabete batzutan, azaldu zuenez, euskara ederki menderaturik baihedukan. Ni neu ere harrituta utzi ninduan; eta euskaltzaleen belaun berrian etorkizun dirdaitsua somatu uste izan nian higan. Hala biz!

Zuberoan ikusi genian beraz elkar lehenengo aldiz. Eta, geroago azalduko denez, Zuberotar giroak bilduko gaitik biok berriro.

Z. Argia-ren Otsailaren 13-ko hire eztenkadak irakurri dizkiat. «Eskualdekerian» erori omen nauk. Beste hitz batez esateko, «super-giputz» horietako bat bihurtu nauk, hire ustez; eta horregatik proposatu diat proposau dudan bidea. Hik, berriz, «bakar-bakarrik euskalduntzat hartzen duk heurre burua».

Hire irizpide horiek benetan poztu nautek. Eta, sinis-

tuta egon, ezin zitzakeat gaizki har: ados nauk osoki, eta neure burua ez diat somatzen «super-giputz» horien artean. Aitzitik, beharbada donostiarra naizelako aitor-mota honetan ausartago izaki, behin eta berriz esana eta idatzia diat ez dela gure gipuzkera inundik ere euskalkirik jatorrena. Gauza berbera irakur dezakek «Hizkuntza eta Pentsakera» nire azken liburuan. Hau idatziz, bestalde. ezaguna den egia bat gogorazi eta birresan besterik ez diat egin.

Euskara idatziaren batasunaren arazo zail honetan, ordea, hautakizuna ez duk guretzako ximplea. Badituk, noski, hizkuntzaren beraren mailako arrazoinak: gramatikari edo hiztegiari dagozkienak, hitz batez. Baina badituk ere beste arazo batzu, oso kontutan hartzekoak: arrazoin soziologikoak, esate baterako. Eta badituk, era berean eta azkenik, beste arrazoin **pratikoak**; alegia, errealista izanda, helburura iristekotan ahaztu behar ez diren arazo-alderdiak.

Mitxelenak arrazoin hauek guztiak gogotan hartuta, bide bat proposatu ziguk aditz-PARADIGMEI dagokienez: gipuzkera osatuaren bidea. Hau eginez, R. M. Azkue jakintsuaren proposamenduari eutsi zio; eta geroztik ere, bere ideiez eta bere izkribuez anitz idazlek hartu duten bideari. «Paradigma» hitza erabili diat; eta hitz horixe erabili behar, gipuzkeraren aditza bere horretan ez baitut nik behin ere proposatu: «duket» eta «dateke» sail osoak galtzea hukek hori, esate baterako; edo «ikus/ikusi» eta «gerta/gertatu» liferentzia funtsezkoa nahastea. Biderdia bilatzen ari gaituk. Horra dena. Eta muturretatik urruntzeko joera hori ez duk nigan berria. Amets egitea erraza duk; baina euskal arazoa euskaldunekin eraman behar diagu aurrera.

Gauzak honetaraz gero, aitor izkutu bat egingo diat. Hizkuntza-arrazoin soilak kontutan hartuz gero, zalantza izpirik ez legokek ene ustez. Argi eta garbi esango diat: ZUBERERA proposatuko niake nik neuk, zuberera osotua. Zertaz osotua, gainera? BIZKAIERAZ ETA BAXENABARRE-RAZ. Hauxe duk egia hutsa.

Zergatik hori?

1/ **Bokaleei** dagokienez, zubererak bakarrik atxiki dik, ene ustez, gure bokale-egitura seikun jatorra. Zuberotarrek «gü» ziotek, baina «gúre» «húra», baina (hü'rra); «húrtü» eta «bü'rü» baina «büría»; «gütü'zü», baina «zütiéla».

2/ **Kontsonanteei** dagokienez, berriz, Zuberoan bakarrik berezten dituk (pitin bat Baxenabarren ere bai) «s»ren eta «z»ren bi motak: soinudunak (sonora, sonore) eta soinugabeak (sourde, sorda). Zubereraren aberastasun honek, hain zuzen, betidanik kaltetu dik zubereraren idazkera: Oihenartez oroitzea aski: edo Gavel-ek 1960-an egin zuen proposamenduaz (ikus «Gure Herria»), gaur arte, biderdi bila ari garelako, bazterrera utzia. Zuberotarrek, jakina denez, leunkiago esaten dizkitek «kaserna, aisa, espusa, desiratzen» (soinudunak); gainerako «s» soinugabeak baino. Era berean, leunkiago «plazera» eta «ezne», esate baterako, «zü, zütügü» eta «izan» hitzak baino. Bi soinu hauek galtzea onartu ezina duk.

3/ Antzina Euskal Herri guztian hedatua izan zen H «madarikatua» (?!?) gaur arte ongi atxiki dik zubererak. Eta hemen ohar bat egin behar diat: zubererak «eri/erhi» bikotea berezten dik; «zori/zorhi»; «bati/bathi», «belar/belhar», «ote/othe», «oker/okher», «hala/ala/alha», «gari/garhi», eta abar. Baionan eta Arantzazun onartu den bidea biderditxo pratiko bat besterik ez duk izan. Hizkuntza soilari begiratuta, astakeria handi bat egin diagu; eta «senhar, alhaba, urhats, bekhatu, urthe, aphez», eta abar, atxiki behar genituzkeala gauza agiria iruditzen zaidak. Zuberoan bezala, alegia. Kontsonante-egitura hirukunetatik egitura bikunetara igaroaz (alegia, **g/k/kh** utzita, **g/k** onartzera, esate baterako) euskal egituratik erdal egiturara igaro gaituk; «comme par hasard» gure ondoko erderek egitura... BIKUN horixe baitute!

4/ Zuberoan eta Baxenabarren gaindi ibili denak bazekik (entzun dituzkealako jakin: fonetika kontu hauek ez baitira «teorikoak») euskalki hauetan badirela gaur **bokale nasalak**. «H» asko, bidenabar esan dezadan, nasalak izan dituk euskaraz (gaur Zuberoan bezala) sudurra hetsiz esan beharrekoak. Nasalismo hauek galduz, «comme par hasard» berriz ere, erdal fonetika onartu diagu; nasalismo horiek Euskal Herri osoan ezagutu baitira Erronkariarrek, esate baterako, Zuberoako «har» hitza, «anr» esate ziaten (ikus C. Izagirreren «Erronkariko euskal ondakin batzuk»); Zuberoako «ahizpa», «ainzpa»; eta Zuberoako «hür», «unr» Erronkarin. Aztarna horiek Bizkairaino heldu dituk: Zuberoako «sehi», Bizkaian «sein»; Z, «mihi», B, «min». Puntu

honi buruz P. Madariagaren lekukotasuna oroitaraziz, ohar ezin argitsuagoak eman dizkik Mitxelenak (ikus «Fonética Histórica Vasca», 48). Bizkaiera zaharraren «anztu» hitza (= ahaztu) bide beretik zatorrek...

5/ **Azentoari** dagokionez, gero eta gauza seguruago iruditzen zaidak euskal doinu zaharra gaur arte Zuberoan (eta atzo arte Erronkarin) iraun duena dela. Gero eta garbiago agertzen ari duk euskal azento toniko **bat** badagoela; eta horren bila, bizkaiera lagun, zuberera dela kontseilaririk seguruena. Etsenplu bat bakarrik emateko, «-tár» atzizkiak azentua zeramakik beti zubereraz (deklinabide osoan barrena, alegia). Hots, horixe duk Larramendik XVIII mendeko gipuzkeran aurkitu zuena; eta horixe duk ere gaur Holmer-ek Bermeoko euskalkiari buruz egin duen azterketa ezin mamitsuagoan aurkitu duena (ikus «Anuario del S.F.V.J. Urquijo, 1968, 118 orr.). Gauza bera aipatua dik Mitxelenak ere (ikus FHV, 420: «[sufijo que] era acentuado como hoy en ronc. y sul.»). Eta aski dik irakurleak Ondarrabiko bati, esate baterako, «nungoa zara?» galdetzea; eta arrapostutzat, hizkeraz ondarrabitarrak giputzak ez direlako nunbait, hau entzungo dik: «ondarbitarra». Hots, azento horri eutsi behar zioagu; beraz, berriz ere, zuberera gidari, eta bizkaiera laguntzaile.

6/ Jakina denez ere, zubererak **diptongoak nasalizatuz** berezten dizkiz hitz batzuk (ikus Mitxelena, FHV, 48); eskuarki erabiltzen dizkiz «dateke» eta «düke» aditz-sailak; bizirik atxiki dizkiz «votif» delakoak: «ailitz!» (= ahal baledi!) eta «aileza!» (= ahal baleza!); behar bezala erabiltzen dizkiz numeralak: «hamar librü erosi düt» (bizkaitarrek, berriz ere, ongi esaten ditek hau: «amalau urte dauko»). Haritzelharrek ohar bikainak dizkik honi buruz Etxahuni buruzko bere tesian, Larrasketen lana egokiro kritikatu duen larrik. Eta abar, eta abar.

Ez nauk harritzen, beraz, xuberotarren esaera famatuaz: «gü gira üskaldünak, ziek manexak ziraie». Eta jator aitortu behar geniake gipuzkoarrok eta gainerakoek: zubereraren ondoan gure euskalki **guztiak, errotik** erdaldundurik eta arrotzurik daudela; haren parean ez dutela benetan DEUSIK BALIO.

Hau gauza nabarmena duk, Andolin adiskide.

Eta R. Idiarte-ren «Bedatsian» kanta berri hunkigarrian, kantariak «Xibeúaz» hau diotelarik: «zazpi probentzietan oso behezia», berezia ez baina EUSKALDUNA behar geniake irakurri. Eta eredutzat **zuberera** hartu, baxenabarreraz eta bizkaieraz osatuz.

Posible dea? Zuberoako euskalkiaren egcera ezagututa (Xalbador mintza bekigu honetaz), ez ote ditugu laister Kandido Izagirrereren hitzak berriz esan beharko: «Erronkariko mendi-tarte zoragarri aiek eta gure izkuntza zarraren azkena ikusteak eman zizkiguten biotz-ikarak ez noa esatera».

Zuberera ardatz... posible dea? Ez diat nik erantzungo. Egik heuk.

Nolanahi ere, berriz esan dezagun biok ongi agirian, EUSKALTZAINDIAK zer erabakirik ere, huraxe onartuko dugula guk.

Artean, «bizi bedi gure Xiberua», eta besarkada bat.

(1972)

OHARRA: Gaur egun (1977ko Udazken honetan) irizpidez aldatua naiz Ziberuko «ü» fonemaz.

OSO ZAILA OMEN

Gure arteko erdaldunek diotenez, idazten dugun euskara «oso zaila» da. «Muy difícil» erantsi ohi dute; eta, tarteka erdipurdiko euskal hitzen bat hurrei esanda, erdaraz ekiten diote elkarrizketari patxara osoan. Gai sakonak erdara hutssez, jakina; euskaraz... hurrekin (txikiak direno!), eta bazutan, txit gutxitan, garrantzirik gabeko arazoez ere bai.

Baina gure euskara hau «bene-benetan» oso zaila!!!», «euskeranto hutsa», «muy difícil».

Egia dea hori?

Gogoan har dezagun frantsesa.

1/ Erresuma batzutako **lege-hizkuntza da**: Fraitntzian bertan, jakina; baina baita Belgikako Hegoaldean, Suizako Mendebaldean, Haitin, Quebec-en, eta Afrikako zenbait erre-
sumatan.

2/ Eguneroko bizian, goiz eta arratsalde, jai eta aste, eskolan, unibertsitatean, armadan. lanean, administrazioan, **miloika jendek** erabiltzen dute etengabe eta hutsik. 70.000.000-ek horrela, eman dezagun.

3/ Frantsesak badu **literatura-hildo luze bat**. Mende-

etan barrena, eta belaunik belaun, landua izan da, eta aberastasun eta zehaztasun handiak lortu ditu: hitz bakoitzak adikizun eta erabilkera berezi-bereziak ditu; eta jakintza-sail guztietan osaturik eta gertaturik dago frantses hizkuntza.

4/ Lehenengo mailako idazlez ausarki hornitua, urtero eskaintzen ditu aldizkariak eta liburu berriak. Frantsesezko izkribuak anitz hizkuntzatarara itzultzen dira; eta irakurleak baditu, batera, Sartre, Leprince-Ringuet, R. Aron, Chenu, J. Monod, Le Canard Enchaîné, Le Monde eta «Série Noire» pilo bat. Frantsesak **literatura ugari eta bikaina du**, hitz batez.

5/ Frantses hiztunak beharbada trufatzen dira batzutan «Académie Française»-ko burkideez; baina «**Académie**» delakoak erabakitzen duena lege bihurtzen da, eta erabat errespetatzen. «Homme» hitza «omme» Fraintzian idazten duena, analfabetotzat salatzen da ahobatez; eta «homme» idazten hasi arte, ez du halakoak lan-posturik lortzen, ez inungo etsaminarik garaitzen.

FRANTSESA, hitz batez, KULTURA-MAILAKO HIZKUNTZA DA; eta jakintsuak, hizkuntzalariak, idazleak eta intelektualak dira nagusi.

Azter dezagun orain euskara.

1/ Euskara ez da **inungo lege-hizkuntza**, hizkuntza ofiziala alegia. Ez du inun erresuma baten laguntza.

2/ Euskara **oso gutxi erabiltzen da**. Baita euskaldun izenekoan artean ere, aski da erdaldun bakar bat hemeretzi euskaldunen ondoan, hogeiek erdarara jo dezaten. (Eta bes-tetan, hogeigarren hori etorri aurretik ere!) Euskaldun guztiak, bestalde, bimintzodunak dira gaur. Guztira, beraz, hirurehun edo larehun mila euskaldun karkulaturik ere (alegia, frantsesez mintzo direnak baino **200 aldiz gutxiago**) ez dezagun ahantz nolako hiztunak diren hauek eta haiek, eta gu nolako erdal giroan bizi garen.

3/ Euskara ez da **inoiz batua izan**; eta hori dela-ta, hitzek ez dute zehaztasunik. «Samurtu» hitzak hasarretu adieraz dezake, baina bigundu ere bai; «hauts» eta «errauts» hitzak guztiz elkarren itzuletara erabiltzen dira Ekialdean eta Mendebaldean; «sarri» hitza ez da gauza bera Nafarroan

eta Gipuzkoan; batzuk "bazkaldu gira" diotena, besteek "bazkaldu degu" diote; hemen «nekatu» (edo «nekau») esaten dena, hor «akitu» bihurtzen da, eta han «unatu». Batasun falta honek euskararen sustraia erauzi du; hizkuntza bat aurrenik elkarpede eta mintzabide baita eta ez folklore-jazkera.

4/ **Gure literatura oso ahula da**, oso txiroa, oso txarra. Esku baten behatzez konda daitezke erdarara itzuli diren euskal liburuak. Ez dugu idazle-izen bakar bat ere mundura azaltzeko modukorik. Azkeneko urte hauetan idatzi da, Azurmendik uste duenez, onena; eta hein batez itzulgarri izan litekean bakarra. Hots, irakurleak badaki zer idatzi den. Liburu-sail osoak hutsik daude oraindik.

5/ Euskaldunak, beren ezjakinak berak harroturik, **«Euskaltzaindia»z trufatzen dira**. Edozein astaputz kirtenek bere zozokeriak botatzen eta idazten ditu lasai Euskaltzaindiaren iritzien eta erabakien kontra. «Homme» hitza, gurean, «omme», omm», «om» edo «ome» idaztea (nork bere gisara, «demokrazia»ren arabera, omen...) oso ongi iritzia da oraindik. Zenbait ikasgutan, esate baterako, «homme» idatziko lukean ikasle lotsagalduek lituzke, hain zuzen, bere etsaminak galduko!!

EUSKARA, hitz batez, ARLOTERI-MAILAKO HIZKUNTZA DA. Eta analfabetoak, mandoak, zozoak eta harroputzak dira nagusi.

Goazen aurrera, ordea.

Fraintzian (eta gauza bera frantsesez mintzo diren beste erresumetan) erakaskintza-maila GUZTIETAN, beheretik goraino, frantsesa da mintzabidea eta... **Ikaskaia**. Frantsesek, waloniatarrek, quebec-tarrek, eta abar, urtetan barrena eta milaka ordutan barrena, beren hizkuntza lantzen, osatzen eta zorrozten dute. Baita Unibertsitatean ere, frantsesa bera gaitzak duten azterketak eta ikaskizunak, eguneroko ogia dira.

Euskal Herrian, berriz, erdara da askotan ama-hizkuntza eta erdara da ikaskaia eta mintzabidea. Euskara ez da, eskuarki, ez mintzabide, ez ikaskai.

FRANTSESA LANDUA IZANAZ GAIN, FRANTSESEK ERA GUZTIETARA OSATZEN DUTE BEREN HIZKUNTZA;

EUSKARA, BERRIZ, LANDUGABEA IZANAZ GAIN, EUSKALDUNEK EZ DUTE OSATZEN EZ IKASTEN.

Nola nahi duzue, horretara, geure mintzaira hau gaurko mundurako tresna egin nahi dugunon euskara «zaila» ez izatea? Seinale txarra litzake, hain zuzen, erraza izatea; eta guztiz berritu eta osoturik ere, lehenagoko itxura eta kutsu landerra eta «etxeko» izatea. Nola horrelakorik, bestalde?

Berrikuntzaren eta biziaren trena aspaldian hartu zuten frantsesek, inglesak, nederlandarrek, japonarrek, txekoslovakiarrek, finlandiarrek, eta gainerako erdaldunek. Guk, berriz, trena galdu genuen orduan (orain dela bizpahiru mende gutxienez); eta geroztik ere makina bat aldiz galdu dugu. Eta han gelditu gara, estazioan, lozorroan... Zugarramurdiko sorginek eraman gintzaten zai. Eta hortxe gaude oraindik, eta egongo. Eta hortxe egon gaitezen nahi dute gure «zailtasunak» salatzen dituztenek...

«Zaila» omen... Noski!

Gauza bera litzake andenekoak joandako trenekoen habailaz errenkuratzea, eta «azkarregi» doazela esatea. Ez, jaunak. Berak azkarregi ez, baina zuek egonean eta pipa-jotzen.

Ez dizaiegun, beraz, estazioa utzi nahi dutenei zaunka egin. Ez dezagun esan, zoroek bezala, Londres-ko jendeak «zail» egiten dutela ingleseztan, ingleseztan geronek ez dakigula baizik.

«Para los ancianos la culpa es siempre del empedrado» esan ohi da erdaraz. Eta gauza bera errepika liteke orain ere: erdaldunez ustez, beti da euskara «zaila» erruduna, eta sekulan ez haien erdaltasun amorratua eta ezjaintza gorria.

Geure ahuleria aitor dezagun, ikas dezagun, eskola gaitzen apur bat, euskararen jaso beharraz jabe gaitzen; eta, otoi, apalki, gure Atsularrek bezala, hau esan: «euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak».

(1972)

«MITXELENAREN IDAZLAN HAUTATUAK»

ETOR'ek berriki argitara emana, arrabotsa franko eta ondorio ugari ekarriko duen liburu baten aurrean gaudela iruditzen zait. Ados izan ala ez ados, aspaldisko honetan euskaraz agertu diren bizienetako bat da; eta bilduma honetaz berrizta liteke Mitxelenak berak dion berbera: «Ordutik hona, zenbat eta zer-nolako liburuak agertu dira euskaraz!».

P. Altunak prestatu duen bildumak ez du akats larririk; eta, besteak beste, idazle eta saialari presentatu digu Mitxelena. Gure Erreteriarra hizkuntzalari soiltzat ezagutu ohi delarik, egoki datoz haren idazle-nortasunaren atal hauek; eta artikulu hauetan Baroja, Escudero, Martin Santos, Charles Chaplin, eta abarren argitan ikus dezakegu Mitxelena.

Idazlan horiek anitz aldizkaritan sakabanaturik daude («EGAN»en batez ere), eta gazteek batez ere ez zituzten ezagutzen. Noiz egingo ote da gauza bera euskarari buruz erdaraz hortik zehar erdi ahazturik edo galdurik dituen artikulu-pilo gaitzaz? Liburutan bildurik daukana («Fonética Histórica Vasca», «Historia de la Literatura Vasca», «Textos Arcaicos Vascos», eta abar) ez baita, ene ustez, gure hizkuntzari buruz Mitxelenak idatziak dituen lanen laurdena ere.

Gure argitaratzaileek dute azken hitza.

Altuna-ren bilduma honetan, Mitxelenaren biziaren berri ematen zaigu. Irakurleak soma dezakeanez oso murrizturik dago parte hau; eta Mitxelenaren zazpi urte bortitzenak aipatu ere ez dira egiten. Geroak osatuko du ezinbestezko hutsune hau.

Ezagutzen ez genuen «Memorias de un jekide» (1934) aipatzen digu ere, erdaraz idatzia, eta zoritxarrez halako batez surtara botatua. Jator kondatzen dizkigu egileak parte honetan gaztaroko bere larritasunak; eta gerokorik aipatzen ez badu ere, erraz antzematen diogu Mitxelenaren bizimodu nekezari, eta harritu ere egiten gaitu haren barne-deiaren gotorrak. Mitxelenak, sail honetan edo hartan nabarmendu eta garaitu duten gizon guztiak bezala, lanez, burrukaz, nahigabez, malkoz, iraupenez eta gogortasunez garaitu du. Berak egin du bere eskuez bere burua; ez inguruko losentxek edo ohore errazek. Mitxelena burrukan zaildu da, eta azterpidearen zorrotza erantsi dio euskararen jakintzari; eta liburu mamitsu hau, ahal den neurrian, burruka eta zorrotzasunerasketa horren lekuko da.

Euskal literaturaz mintzo zaigularik (Orixe, Etxepare, Oihenarte, Atsular, Mogel) zentzuz eta jakinduriaz egiten du; eta oso orrialde irakurgarriak eskeintzen.

Baina, dudarik gabe, euskararen batasunari buruz diharduelako, hiru kapituluk ekarriko dute, nik uste, zalapartarik handiena: 1/ Arantzazu-ko Txostenak. 2/ Baiona-ko Txostenak. 3/ «Azken ordukoak» deritzanak.

Arantzazuko Txostena (1968-an Euskaltzaindiaren aginduz prestatua) ezaguna zen, oso ez bada ere. Euskaltzaindiak berak argitara du osorik (ikus «Euskera», 1968). Iñaki Beobidek ere 1969-an, Irakur Sail-ean, argitara zuen. Baina «Euskera» urtekaria gutxik ezagutzen du euskaltzainengandik at; eta Beobideren liburua ahituta dago. Makina bat euskaltzalek, horrela, ez zekien Arantzazuko Txostenaren bila nora jo. Horrengatik, hain zuzen, oso penagarria izan da Arantzazuko Txosten horren eraskin gisa aurkeztu zen hitz-zerrenda luzea (2.000 hitz idazkera batuan) Altunak bilduman ez sartzea. Zerrenda hau talde-lana izanik ere (Mitxelena eta Laffitte besteren artean) bilduman sartzea merezi zukean, Mitxelenaren eskua ageri baita.

Baionako Txostena (1970) ez da batere ezaguna. «Euskal Idazleen Elkartea» orain dela bi urte Baionara bildu zenean, Mitxelena bertara joatekoa zen; baina azkeneko mementoan ezindurik, «Baionako Txostena» deritzan lan hori bidali zigun hara bilduoi aditz batuari buruz. Mitxelenaren iritzi horiek eta Arestik bere «Batasunaren Kutxa» moldatzeko erabili zituenak guztiz gertatu ziren elkarren ukaera; Mitxelenak gipuzkera proposatzen baitzuen paradigmaren oinarritzat, eta Arestik berriz lapurtera. Liburuak ez du ekarri Arestiren parte baizik. Bidezkoa zen, hortaz, eta sobera luzatua izan da ene ustez, Mitxelenak Idazleen Elkarteari egin zion proposamendu ezezagun hori hitzez hitz argitaratzea.

«**Azken Ordukoak**» (1972) deritzan lana, azkenekorik, berria da osoki; eta, 18 orrialdetan barrena, Baionako Txostenaren irizpideari eusten dio Mitxelenak. Alegia: paradigma-kontuetan gipuzkera hartu behar dela oinarritzat.

Ene ustez, eta dagoeneko hameka aldiz esana eta idatzia dut gauza bera, euskararen batasuna behar da; eta GAUR behar da, eta OSOA behar da, bai idazkeran eta bai fonetikan: ez bihar, are gutxiago etzi, eta ez erdizka. Ez inolaz ere hemendik bi, bost edo hamar urtetara.

Aditzaren arazo hau, bestalde, teknika-arazo bat da, biologia edo programazioa bezala; eta ez uste-kontu bat. Euskararen teknikaren arazoetan, Euskaltzaindia dugu gidaritzat (beste edozein herritan hizkuntza-teknikaren arazoetan bertako Akademia gidari den bezalaxe). Eta Euskaltzaindian badugu lehenengo mailako tekniko bat: Koldo Mitxelena.

Uste dut, beraz, sasi-jakintsuen eta hizkuntzaren petrikiloen izurriteari zinez eta azkar eman nahi badiogu akabera, Mitxelenaren iritzia hartu behar dela ontzat; eta, paradigmari dagokionez, hortaz, gipuzkera hartu behar dela oinarritzat. Aditz-kontuan guk orain Mitxelenaren (eta Euskaltzaindiaren) irizpidea ontzat eman ez bageneza, ortografia edo deklinabide-kontuan bestek gauza bera egiteko aitzakia geronek eskaini genezake. Horren zai daude batasunaren etsaiak. Eta horixe izango litzake, hain zuzen, euskararen batasunari egin lekiokan kalterik larriena: alegia, gu geu Euskaltzaindiaren izena edo aginpidea lardazkatzen hastea.

Zer falta da? Dizut / dautzut, didazu / dautazu, nizun /

nautzun, bikoteetan lehenengo saila ontzat ematea. Hautakizun horren aurrean luzaz tematzea eta kokatzea, bidezkoa ahal litzake? Bene-benetan: ez dut uste. Badago besterik, alajainetan!

Arantzazuko bileratik honuntz batasunaren aldeko abiada moteldu egin da, ene ustez. TBO berri bat, esate baterako, berriz ere ortografi-hutsez beterik agertu da aste hauetan! Batasunaren kontrakoak berriz hasi bide dira lotsagabeki mintzatzen, eta beren «eskubideak» (erdaraz «ombre», «muger» eta «vurro» idazteko!) aipatzen. Orain dela egun batzu, Nobela-Sariaren arazo ezin lotsagarriagoa ikusi dugu: Euskaltzaindia bere buruaz ahalketurik, Arantzazuko erabakiak Euskaltzaindiak berak hildakotzat emateko zorian, eta ia-ia jukutri bidez Arantzazuko erabakiei eusten... Nun ikusi da horrelakorik? Euskaltzaindiak ez du baimenik eskatu behar. Analfabetoak ikastolara! Eta kitto!

Seirehun andereño ari dira ikastoletan lanean; urtero 80 edo 100 liburu agertzen dira euskaraz; alfabetakuntza-ikastaldietan milaka ari dira gure hizkuntza ikasten; irratietan, biltzarretan, euskara BAT behar da, BAKAR BAT; ez mila «ama-euskera» arlote eta zarpail. Otoi, beraz: onar dezagun bide bakar bat, Euskaltzaindiarena. Utz dezagun alde batera, ausarki eta lasai, aspaldiko geure arloteria; eta teknika-arazoetan mintza bitez teknikoak, eta isil bitez gainerakoak. Hori da batasunerako bidea.

Eta bide hori «jebismo»az, ezjakintzaz eta «taifa»-keriez bestaldetik abiatzen da.

(1972)

IKASTOLETAKO ULTRAK

«Ikastola-giroa lardaskatzen ari da...» «Horrela segitzekotan, bi urte barru ez da ikastola arrastorik geldituko...» «Ikastolarenak egin dik...» «Ikastola eraso beharrik ez dago: berez suntsituko dira daudenak...»

Horra hor gero eta maizago entzuten ditugunak. Gaitz hauxe aztertu zuen berriki Aurtiz-ek orrialde hauetan; eta, bidenabar esateko, zorionik gartsuenak niketz, Aurtiz adiskide!

Ikastola kinka gaistoan sartu da.

Eta ene galdera hau da: «Cui prodest?» Noren fagoretan sartu? Saltsa honetan zer kaltetzen da? Zeri laguntzen? Nor ari da izkutuan farrez? Nor malkorik gabeko negarretan? Zozoak ez bagina galdera hauetxen bidez igarriko genuke berehala nor zen den, istiluaren kakoa zertan datzan, eta hari gordeen mogitzaileak nortzu diren. Ez bide dugu egingo, ordea, zozoak garela behin eta berriz eta mila bider frogatua baitugu; eta ikastolaren arazo argitsu honetan, berriz ere, gure arteko kirtenek eta haien arteko azariek, eskuz esku, ikastolaren aurka elkar hartuko dute.

Mutur bateko eta besteko «ultrek» (hemen ezinbestean,

horrela bataiatuko ditut beste izen aproposagorik merezi dutenak) ikastolak nola sortu ziren eta nola eusten diren ahaztu bide dute.

Legearen aldetik nekez atxikitzen dira, bai Hegoaldean bai Iparraldean, ez baitituzte etsaiak eskas, alajainkoa! Andereñoak lortzea eta hezte txit da zaila; gero eta euskaldun gutxiago dago, hizkuntzari dagokionez, jatorrizko euskaldunen artean; geroko kezka beti ageri zaie andereñoi zema gisa; edozein larriunetan gerta baitaitezke ebakirik eta debekaturik hemengo eta hango ikastolak. Goitikako laguntzarik ezaz, liburu eta tresneria egokirik gabe eraman behar dira askotan, eta lekua bera aurkitzeko lanak izaten dira maiz. Hizkuntza baturik ez dago oraindik, zeharo osaturik eta euskaldunek ezaguturik batez ere, nahiz batasuna ederki abiatua izan; eta andereñoek (eta idazleok!) makina bat oztopo topatzen dute euskaraz nola hitzegin zehatz ezin jakinik. Haurrak, bestalde, erdaraz ari dira etxerik gehienetan, eta erdal giroa etengabe edaten dute, andereñoen zuzendu-beharra nekagarriago eginez: «Nor ekarri du hori, ez: nork ekarri du», «esan nau, ez: esan dit», «iñorreri, ez: iñori», «nola etorri dan, ez: etorri denez gero...»

Beti ere laguntza ofizialaren faltaz, ikastolak behar duen dirua ahal bezala eta arrunt nekez bilatu behar da, euskal probintzietatik zerga gisa aski sosik irtengo ez balitz bezala. Giro horretan, eta ez Arkadian, oratu da ikastola.

Ikastola, beraz, OSO NEKEZ BIZI DA. Ikastolen multzoak oso gizarte-sail ahula osatzen du, ezin ahulago behar-bada; eta herri euskaltzalearen nahi zindoa gabe, pikutara joana zitzakean aspaldi honetan.

Euskal Herrian, bestalde, ez da INOIZ izan ikastolarik: xehetasun «txiki» hau ahaztutzen edo itzurtzen bide zaie «ultra» delakoei... Oroimen laburra... omen!

Ikastolen multzoak, beraz, ohetik jaiki berria den erri handia gogorazten dit, eta ez inolaz ere Munich-eko atleta indartsua; sosik gabe bizi den txiro baldresa, eta ez inolaz ere jauntxo aberats harroa; belar-izpi segaila, eta ez haritzondo sendoa. Ustekabeko idortek ihartuko ote duen bildurez bizi gara euskaltzaleok.

Hots, «ultrek» diotenez, ikastolen sail ezin ahulago eta minberago horri **gaurtxe** erantsi behar zaizkio ausardia, au-

rrerapen eta snobismo guztiak. Jaiki berria den eriarri, argibideari eusteko, marathon, paralelak, treneru-estropada latzak eta boseoa eginarazi nahi zaizkio (azkartu nahiz, jakina!); eta Urtarrileko aldapa famatua doi-doi gainditu duen gizarajoari, Casino-an jokarazi nahi zaio jai-ta-aste Otsaila guztian barrena!

Zozokerian (ala zakurkerian?) murgilduta, estremismo mota guztietan aurrera abiarazi nahi da ikastola: batzuek Pekin-goak baino marxista-leninistago nahi lituzkete, besteek Vaticano-koak baino aisa elizkoiago; Urlia naturismo hutsetik abiaturik, Berendiak klarisak baino hertsiago eta lotsorrago; hauek Althusser, Mao, Freire eta Bernadette Devlin-en arabekoak, haiek Ottaviani, Strossner eta Makarezos-en plegukoak.

Jakina denez, eta gaur batez ere, ideologi-arazo horien pratikan eta burrukan jartzeko lekua ez da euskal ikastola erdal eskola baino; ez da gurasoen biltzarra, Madrilleko ministroena baizik. Pedagogia eta iraultza lotuta datozela errepikatu ohi zaigu, eta egia da; baina iraultza ez da Budapest eta Praga-tik pasatzen, eta iraultza eta probokazioa lotuta egon daitezke (eta egonak dira!)

Ikastola zer den eta zertan dagoen ahaztutzea txotxolokeria galanta litzake, edo askoz larriago den zerbait. Ikas-toletan mendeetan barrena lehenengo aldiz eskolatzen dira haurrak gure hizkuntzaz. Hau xehetasun ttipitzat daukanak, xehetasun ttipitzat dauka inperialismoa; eta «USA go home» oihu egiten duenean ere, inperialista gogorra dela badakigu.

Jakina: oso urte zailak eta itsusiak pasatzen ari gara; gai-sorik egon denak bizkortzerakoan aste atsekabeak pasa behar izaten dituen bezala. Kanpotik ikusirik, tematurik gaudela ematen du: «euskeromano» deitu gaituzte arrotzek. Eta gisa da: jaten ez duenak, janaritan tematurik dagoela ematen du; lehenengo emakumea osoki maitatu ez duenak, sexo-tema berberaren kutsua uzten du bere inguruan; eta industri-zoko itsusietan bizi diren langileek, diru-tema kiratsa hedatzen omen dute hauzo dotore burgesetan. Tema-ixurarik eza aberatsen ezagugarria da: «handiak handiro», dio gure atsotitzak. Txikiak, berriz; beti gozakaitz eta tematuta!

Varsovia-ko «ghetto»an Hitler-tarren kontrako «tema» nabarmenak omen zeuden, Grezia-ko uharteetako gartzeletan oso «tema» itsusiak itxura denez, eritegietako minbizidunen artean «tema» asko ere bai; eta Viet-Nam-go arrozadietan tema bakar bat aspaldi honetan: «yankitarrak etxera». Itsusia, benetan, negargarria.

Askoz dotoreago da Paris-ko «XVI-ème Arrondissement»-eko «ezkerrak» (?) esportatzen duen «iraultza» (?) hiper-gorria (?) zabaltzea. Batez ere ukatuen ikastoletan zabaltzekotan! «Les pauvres petits nègres»...

Eta horretan gaude: misiolariak etorri dira; eta kaktusak eta palmondoak lantzeko teknika super-berri eta super-berrizalea azaltzen hasi. Eta entzuten dituzten Groenlandia-ko eskimotar «ondrauek» egia diotela pentsatu dute; eta fiordoetan erabiltzeko zorian omen daude... Bapo!

Konponbidea, ordea, erraza lukete gure ultra kuttunek: aski lukete beren burua Pragan eta Vaticanon eskaintzea. Eta «sobrante»rik balego, joatea leukate horiek Pekina eta Madrillera. Behera errebisionismoak oro! Gogor!

Eta denak pozik horrela: berak heretikoak erretzeko hirrikan, ikastoletako haurrak libro, eta gu... zer esanik ez! Txistua eta danbolina lagunduko genieke malato-arboleta-ko mugaraino, baita Baztan-go hiletari batzu ere deituko... Euskal Herria «ultra»rik gabe! Bakearen ederra!

(1972)

MATEMATIKA ETA ERDEROMANOAK

Eguneroko gertakaria oso ezaguna da: euskaraz dakigun guztiok, erdaraz eta badakigu; alderantziz, ordea, ez da gauza bera gertatzen: erdaraz dakiten askok (lautatik hiruk) ez dakite euskaraz. Fameli-bilkuretan, horrela, lagun-en artean, edonolako batzarretan eta jaietan, «elkar hobeki ulertu beharrez», «por razones de operatividad», «pour être efficaces», eta abar, erdaraz hitzegiten dugu.

Zenbat aldiz, ordea?

Karkulu hori zaila ez izanik ere (J. R. Etxebarriak, Sargarnak eta bestek berehala egiztatuko dituzte ene zifrak) ez da gaur arte, nik dakidala, behin ere egin.

Eman dezagun LAU lagunen talde bat: A, B, C eta D. Zenbat multzo gerta daiteke hor, hitzegiterakoan?

BI lagunek osaturik, SEI hizketa-multzo gerta daitezke; eta hauek dira: AB, AC, AD, BC, BD eta CD.

HIRU lagunek osaturik, LAU talde: ABC, ABD, ACD, BCD.

Eta LAU lagunek osaturik, talde bakar BAT, jakina: denek elkarrekin osatzen dutena: ABCD.

Hizketari buruz, hortaz, HAMAİKA hizketa-multzo gerta daitezke.

—Eman dezagun orain A erdalduna dela; eta B, C eta D, berriz, euskaldunak. «Operatividad», «efficacit e» eta «errespetu» famatu horiek direla bide, A dagoen multzoetan erdaraz egingo da. Erauzirik geldituko da euskara multzo hauetatik: AB, AC, AD, ABC, ABD, ACD eta ABCD. Zazpi multzotan, beraz, euskara kitto!

Eman dezagun orain A eta B erdaldunak direla; eta C eta D, berriz, euskaldunak. Multzo GUZTIETAN baztertu-ko da euskara mintzabide gisa, bakar BATETAN ezik: AB. Kasu honetan, beraz, talde horren % 9-tan baizik! Erdiak erdaldun izanda.

Zifra horiek koadro batetan jarriz gero, beraz, hau dugu:

4 lagun				
Erdaldun	%	euskaraz ari	erdaraz ari	erd. %
0	0,0	11 multzo	0 multzo	0,0
1	25,0	4	7	63,5
2	50,0	1	10	90,9
3	75,0	0	11	100,0

Famelia batetan, esate baterako, aski da aitak euskaraz ez jakitea, famelia horretan, bi haurrek euskaraz jakin arren, % 63-tan erdaraz egin dadin.

Hona hemen karkuluak **6, 8 eta 10** laguni buruz ematen duen ondorioa:

6 lagun				
Erdaldun	%	euskaraz ari	erdaraz ari	erd. %
0	0,0	57 talde	0 talde	0,0
1	16,7	26	31	53,4
2	33,3	11	46	80,6
3	50,0	4	53	93,0
5	83,3	0	57	100,0

		8 lagun		
Erdaldun	%	euskaraz ari	erdaraz ari	erd. %
0	0,0	247 talde	0 talde	0,0
1	12,5	120	127	51,4
2	25,0	57	190	77,0
3	37,5	26	221	89,5
4	50,0	11	236	95,5
5	62,5	4	243	98,5
6	75,5	1	246	99,6
7	87,5	0	247	100,0

		10 lagun		
Erdaldun	%	euskaraz ari	erdaraz ari	erd. %
0	0,0	1013 talde	0 talde	0,0
1	10,0	502	511	50,4
2	20,0	247	766	75,5
3	30,0	120	893	88,0
4	40,0	57	956	94,3
5	50,0	26	987	97,1
6	60,0	11	1002	98,9
7	70,0	4	1009	99,4
8	80,0	1	1012	99,9
9	90,0	0	1013	100,0

Hamar lagunen talde batetan, erdaldun **batek** elkarrizketen **erdia** erdalduntzen du; baina **bost** euskaldunek, % **2,9** baizik ez dute hitzeragiten. «Euskeromano» omen gara... baina zifra horiek aski dira ERDAL ARRAZAKERIAZ hitzegin ahal izateko. Pariak baino gutxiago gara euskaldunok geure herrian; eta erdaldunak Hegoafrikako zuriak baino aisa nagusiago. Batzu «euskal inperialismoaren» bildur!

Herriko lagun-taldeak eskuarki tamaina horietakoak izaten direnez gero, zifra BILDURGARRI horiek har daitezke oinarritzat; eta gure herrietan gertatzen denaren irudizat.

Hitz gutxitan esateko, herri batetan jendetzaren ERDIA

erdalduna baldin bada (gaur leku askotan duguna), herri horretan erdaraz egiten de % **91 - 97 kasutan!** Herri horretara datorren kanpotarrak, beraz, ez du ia inoiz euskaraz inor entzuten; eta bertan galdutzat ematen du hizkuntza.

Horixe da, ordea, gaur Zuberoan eta Lapurdi osoetan gertatzen dena; eta Sánchez Carriónnek bere liburu ezin-min-garriagoan adierazi digunez, Nafarroako euskaldun barrutirik gehienetan gertatzen dena: oraindik ere batzuek (askok beharbada) euskaraz jakinik ere, euskara **EZ DA ERABILTZEN**, eta hildakotzat jo daiteke.

Inpresio hau, bestalde, ez da inolaz ere ustekeria faltsu bat; egia latzaren irudi xuxena baizik. Ene koadroek hozki erakusten dutenez, euskaldunak oraindik ere **ERDIA** diren herrietan, erdara entzuten da %91-97-tan... **GUTXIE-NEZ!** Askotan euskaldunek berek, eskuarki erdaraz egitera beharturik, ez baitute azkenean beren artean ere euskaraz egiten. Zifra izugarri horiek, beraz, egia baino... larrosago dira!!

Beste gauza bat agertzen da zifra horietan: erdaldun bakar batek duen eragin galgarria. Sei lagun talde batetan, esate baterako, aski da lagun **BAKAR BATEK** euskaraz ez jakitea, talde horretan, besterik gabe, % **53,4** multzotan erdaraz egin beharra gerta dadin.

Zifra bildurgarri hauek euskaltzaleek ondo kontutan hartzea nahi nuke; eta euskaltzale omen diren erdaldunei ene irakurleek azaltzea. Zifra lazgarri hauetaz zeharo denok jabetu artean, euskararen arazoak ez du soluziorik izango. Zifrak lagun, euskaraz ikasten ez duten 'euskaltzaleak' (???) euskal giroaren **MINBIZIA** dira, eta «erderomano» huts.

Noiz helduko ote dira Euskal Herrira, alajainkoa, zifra horiek kontutan hartu, eta provo gisa **GOGOR** jokatzeko gertu egongo diren gazte suharrak? Noiz??

Zeren izurrite horri nagusitzeko bide bat baizik ez baitago: 1/ ardi-larraz jantzitako **URDEEN** aurka, ikastolei nola edo hala eustea; 2/ errazkeriak baztertuz, euskara lantzea eta ikastea, beti ere euskaraz lasai hitzegiteko gauza izan arte; 3/ katalanek, flamenkoek eta txekoek egin duten bezala, euskaldunok ere, zer gerta ere, gure hizkuntza ez dakitenen aurrean, ausarki **EUSKARA HUTSEZ** hastea;

4/ euskaraz ikasteko urratsak EMATEN ez dituzten ERDE-ROMANO eta sasi-euskaltzaleak zapuztu, mespretxatu eta zakurraren ip.ra botatzea.

Bestela, jaunak, gureak egin du. Eta utz ditzagun ametsak, eta... xeru-xeru, guretzako gertu dagoen... PUTZURA!

(1973)

RENE LAFON HIL DA

Arcachon-go bere bizilekuan, Euskaltzainik jakintsu-
netako bat itzali zaigu Otsailaren 4an; eta guztiz egokia
eta beharrezkoa iruditzen zait orain haren berri laburki
ematea, eta egin behar litzatekeen zerbait bederen idaro-
kitzea.

René Lafon ez zen sortzez euskalduna: Mérignac-en
(Bordalen beraz) orain dela 75 urte jaioa, 27 urte zituela-
rik hasi zen euskaraz ikasten. Eta ikasi nahiz, non? Eta La-
rrañera jo zuen, Basabürüko zuberotar herriska bakartira.
Lafon «euskaldun berria» zen, hitz batez.

Ez zuen halere xuberera ikaskizun bakartzat izan; eus-
kararekin batera georgiera ikasten baitzuen orduan (Sta-
linen hizkera bera), baita kabardera ere (Kaukasoko beste
hizkuntza bat).

Filosofi-irakasle gisa hasia zena, horrela, bete-betean
abiatu zitzaigun Kaukaso-logian eta euskararen beraren az-
terketan barrena. Gerrate denboran alemanen preso egon
zenean, zigorkide zituen baxenabartar batzu baliatu zi-
tuen euskara hobeki ikasteko; eta, hori dela-ta, gure fran-
tses euskaltzaleak Alemanian... eta kontzentrazio-eremu-

tan... borobildu zuen bere euskara! Ez baita eguneroko ogia. Aitzekiatan ari ohi diren gure artekoek balukete jokatibide horretan zer ikasirik...

Eta Larrañeko egoiliar berriak gailurrik gorenak iritsi zituen urteetan barrena. Batera Bilboko Euskaltzain eta Tbilissi-ko «honoris causa» irakasle (Georgian, alegia), Bordenaleko Unibertsitatean izan zen gero euskal kataderaren karguduna. René Lafonek bere jakintzaren atal handi bat eskaini die euskarari eta Euskal Herriari.

Gutxitan mintzatua naiz ni Lafonekin. Baigorri-n orain dela hamaika urte, Haritxelharren sarrerakoan, xubereraz eman zigun hitzaldia ez dut ahortzi. Bordenaleko ikasleek diotenez, bestalde, «oso zailak» izaten ziren Lafonen ikasaldiak. Buruz buru Lafon ezagutu eta gurutzatu duten euskaltzaleek besterik idatz dezakete.

Lafon, beraz, izkribuetan ezagutu dut nik. Hots, iruditzen zaidanez, Lafonen ekarria ez da batere ezaguna euskaltzaleen artean; eta hau tamalgarri izateaz gain, oso kaltegarria ere bada. Ezen behin eta berriz esaten baitugu geure hizkuntzaren arazoak bihozka den eta zozokerien mailatik at aterarazi nahi ditugula. Hots, helburu txalogarri horri buruz, guztiz laguntza bikaina izan dakiguke Lafonen lana. Baina Lafon euskaltzale aparta ez-ezagun dugu... euskaltzaleok!

René Lafon jakintza-gizona zen oso-osoki («membre correspondant de l'Institut» ez baita edonor Fraitzian). Eta, halaz ere, benetan hunkitu izan naute haren izkribuek. Baita ikerketarik idorrenek ere («Système du Verbe Basque» delakoak esate baterako) argi harrigarri bete naute; eta bere bihotza mintzatzera utzi duela, beti egiaren eta suaren zorrotza nabaitu dut eragile gailen eta azkar.

Oihenartez, Etxeparez eta beste idazle zaharrez utzi dituen ikertzapenen gain; euskalkiez idatzi dituen lan monografikoen gain; gai lehorrez mamitu dituen azterketen gain, hiru sail nagusitan banatuko nuke nik Lafonen jakintz-uzta:

1/ **Euskara eta Kaukaso**-ko hizkuntzei buruzko haren lanak. Irakurgarriak eta oso jakinduria handiaz oratuak, Lafonen lan horiek ez dira, ene ustez, aski ezagutzen gure artean. Halere, «sustrai bila» ari garelarik, hein batez bederen, Kaukasora jo behar genuke geure buruaren bila: «Qui

veut comprendre les caractères essentiels de la langue basque doit porter son attention sur ce qui lui vient du fond de son passé, sur les traits archaïques, généraux ou de détail, qui par dessus des millénaires de séparation l'unissent encore à ses parents du Caucase». Nik dakidanez behintzat Xabier Kintanak ez beste inork entzun bide du harako dei hau.

2/ **Aspaldiko mendeetako euskararen zabalerari** buruzko lanak. Azkeneko mendeei dagokienez, A. Irigarai izan baldin bada aztertzailerik saiatuena, aspaldikoei buruz Lafon arduratu bide da gehienik. Hots, jakintza-gizon hutsa izan den Lafon-en iritziok guztiz harrigarriak dira. «Vasco-iberismo»tik urrun izan arren, eta euskara eta iberoa bi hizkuntza desberdin direla pentsatuagatik ere, harritu egiten gaitu Lafonek behin eta berriz euskararen galtzearen mailaz eta neurriaz mintzo denean. Lafonen ustez, esate baterako, «dudarik gabe» akitanoa, Garona-raino Erdi-Harora arte hitzegina, euskara zaharra baizik ez zen: «il ne fait aucun doute que l'aquitain et le vascon, peu différents l'un de l'autre, sont une forme ancienne de la langue basque». Eta erromatarren garaira igaroz gero, areago doakigu: «Une forme ancienne du basque a été en usage dans la région de Perpignan et de Narbonne» (Iparraldeko Kataluñan, eta gorago ere bai!). Eta beste batez: «On peut affirmer qu'il y a deux mille ans on parlait basque de l'Atlantique à la Méditerranée, dans les Pyrénées et dans les plaines qui s'étendent à leur pied, et même sans doute, au moins par endroits, non loin de la vallée du Rhône». Horren lekuko bat ematekotan, Kataluñan berriki aurkitutako harri-izkribua dakar: «Iunius Iaurbeles» (= «composé qui signifie en basque 'seigneur noir'», Jaurbeltz alegia).

3/ **Denborari buruz eta ekintzen azterpideari buruz** Lafonek utzi dituen saiakera guztiz apartak. Euskal azterkera berezi eta sakonaz inor ez da mintzatu, nik dakidala bederen, Lafon baino zorrozkiago. Hizkuntza berriz errotu eta sustraitu nahi dugun kinka zail honetan, behar beharrezkoa dugu Lafonen «Système» delakoa ongi ezagutzea. Liburu pare horrek argitasun harrigarria dakar bere orrialdeetan; eta euskal nortasunaren berezia (baita horren galeraren eta lardasketaren urratsak ere) zehatz-mehatz futsaturik gelditu da betirako. Ene artikulu hau inoren sustatzaile izango

bada, alde honetatik izan bedi: azter zazu, irakurle, behar bezain xeheki eta astiro, Lafonen «Système» sakon paregabea. Hau ongi ulertu arte ez dezala inork zozokeriarik bota euskal nortasunaren kontra. Isil bitez, otoi, etsaiaren morroin ez-ikasiak! «Esencialismo»rik ez badago ere, euskal azterkera berezi bat badagoela (eta areago bezegoela) argi eta garbi frogatu baitu Lafonek. Irakurri egin behar, ordea; eta irakurtzea eta ikastea nekezago gertatzen, modako zozokeriak kakatoek bezala birresatea baino.

Besteak beste, gauza jakingarriak idatzi ditu jakintsu handiak «H madarikatuari» buruz... Hain zuzen ere, «H» horren palatalizazioan aurkitu uste baitzuen euskaldunon kaukaso-tasunaren aztarna bat; eta «H» madarikatuaren garrantziaz ongi jabeturik, hau idazten baitzuen: «Le H du basque a été insuffisamment étudié à tout point de vue... l'étude de l'ensemble de l'aspiration en basque s'impose». Hain zuzen ere, miretsita gelditu omen zen Lafon Kaukasoko mendietan hango artzainak hizketan adituta; ezen, azaltzen duenez, Xuberoko mendietan mintzatua den artzainen fonetika berezi berbera aurkitzen baitzuen han, Kaukasoko tontorretan, bi herri anaien arteko lokarri izkutu gisa, eta hain zuzen ere... «H madarikatua» emateko moduan!

Nola irakur, ordea, Lafon? Non? Hona benetako koska. Lafonen izkribuak sakabanaturik daude. Eta honengatik jaurti nahi nuke hemendik gaur, neure artikulua apal honen bitartez, eskabide bat: zergatik ez Lafonen lanen Antologia bat prestatu eta argitaratuko? «Système»ren laburtzapen edo bilduma batekin batera, esate baterako, «Word»en, «Amigos del País»en, «Onoma»n, eta beste anitz aldizkaritan erdi galdurik dauden artikulua eta liburuskak.

Hori eta gehiago merezi luke Lafonek, eta Euskal Herri osoak irabaziko luke izkribu nagusiak bederen eskuarrean izanda.

Agian bai, beraz. Eta zorionak alde honetatik Euskaltzaindiko Lehendakari-ordea den J. Haritzelharri, behar hau nabaituz «La Langue Basque» deritzan izkribua (Lafonek 1968an idatzia) argitara eman duelako. (Ikus Bulletin du Musée Basque, n.º 60, 1973, Bayonne).

Baldinba proposamendu hauek mamituko!

Zer hoberik Lafonen gorantzan?

(1974)

EUSKALTZALEEI MINTZO

Gure hizkuntzaren egoera ikusi, eta pozkarioz barrena mukurru betetzeko oinarririk aski ez badago ere, hileta jotzekorik ere ez dagoela uste dut. Euskararen etorkizuna arras urdina izan ez arren, apur batez bederen argitu da azkenaldi honetan; eta orain dela urte batzutako zero goibel lanotsu hartan, ostarte eder bat urratu zaigula esan daiteke.

Aurrera nahi baldin badugu, ordea, geure akatsen eta ahulezien azterketa kupidagabea egiten ikasi behar dugu. Horregatik mintzatuko natzaie gordinki euskaltzaleei neure honetan; beharrezko kritika horren ataltxo bati buruz izango ez bada ere: mintzairari berari nagokiolarik.

Oraintsu arte gure hizkuntzaren pizkundean nagusi egon diren joerak, anitz aldiz esana denez, hauetxek dira: garbizalekeria batetik, eta mordoilokeria bestetik. Hots, nahiz zientziatzko ikertzapenaren mailan bai lehenengotik bai bigarrenetik irteteko bidea txit funtsez prestaturik egon, euskara izkiriatuaren eta mintzatuaren mailan (ikastoletan, aldizkarietan, liburuetan, irratsaioetan, teatroan, euskal kanta berrian) aspaldidaniko eztabaida alfer eta arloteetan murgilduta bide gaude; eta alderdi batekoen eta bestekoen irizpi-

deak, oraindik ere, aspaldiko bi joera nagusi horietan finkaturik agertzen dira. Euskararen zientzi-ikertzapenak argitu dituenak oro, horretan, liburuetan utzi eta ahantzi nahi bide dira; zientzi-idorokundeak eta eguneroko beharrak bi mundu berezi bailiren. Berezketa funsgabe horixe da, ordea, zientzi-aurreko jendataldeen ezagugarria; eta hutsune horretan ageri da ongienik euskaltzaleen multzoa (ondikotz!), osoan hartuta, arlote-alditik oraindik irten ez dela.

Eta arloteriatik soilki ez, gainera. Zeren-eta garbizalekeria eta mordoilozelekeria errotik aztertzen baldin badira, hau agertzen baita garbiki: bai garbizale bai mordoilozele izateko, erdara ezagutu eta euskara ez ezagutzea aski dela. Ekuazio modura izkiriatur:

$$\text{Garbizalekeria} = (\text{erdara}) \times (-1)$$

$$\text{Mordoilozelekeria} = (\text{erdara}) \times (+1)$$

Bata eta bestea, hitz batez, **erdarari begira** eta **erdararen arabera** mamituak dira; eta **euskararen ezagueratik at**.

Berrogei-ta-hamar urte honetan, ordea, Azkue-ren, Lafon-en eta Mitxelena-ren bitartez, Eusko Ikaskuntzaren, Urkixo-Mintegiaren eta Euskaltzaindiaren bitartez, han eta hemen burutu eta argitara diren azterketen bitartez, euskararen funtsa eta izana zuzenki ikasgarri bilakatu da. Ez gara 1900-an, eta orduko bekatu berberak 1974-an ez dute barkaziorik. Iturri horietara jo behar, ordea, bilatu egin behar, eta, bilatu eta aurkitu ondoren, ikasi egiu behar. Eta euskararen jitearen arabera, geure euskara landua eta batua moldatu eta osatu.

Garbizalekeria osoki onartu nahi ez arren, zalantzarik ez dago: euskal atzizki edo sufijo ugariak erabiliz, oso **adierazkizun zehatza duen hitz berri anitz asma daiteke**, arras egokiro, ezertxo ere bortxatu gabe. Erdaraz ahantzirik ere, beraz, ideia berrien araberrako hitza franko sor daiteke. Honetarako gaur arteko hiztegi jatorra hausnartu behar da; eta euskal morfologiaz prestatu diren lanak xehe-xeheki ikasi eta erabili. Geure burua jantzi ondoren, euskara-ikas-taldietan parte hau sartzeko garaia etorri zaigu.

Beste muturrean, eta mordoilozeriara lerratzeko batere asmorik gabe, **onartu egin beharra dago erdaratik etorri eta sustraitu egin den hitz asko**. Are gehiago ere: zenbaitek nahi

ez badu ere, geografi eta kultur-egoerarengatik, hitz asko eta asko du euskarak bi erdara hauzoetatik harturik, eta ondoko urteetan ere ausarki hartuko duela dirudi.

Nola hartuko, ordea? Erdarazko beren horretan? Eta hemen, lehenengo aldiz ez bada ere, argi-ta-garbi bir-emango dut neure iritzia: zientzi-hitz berezi-berezietan izan ezik, erdarazko beren horretan ez-baina **euskaldundutako moldean** behar direla hartu. Hortaz: **erdaratik euskararako fonetika-bideak** aztertu behar dira, eta beharrezko bahituretan baliatu. Kapitulu hau ere, beraz, euskara-ikastaldietan sartu beharra dago.

Jokabide honen funtsabidea ez zait zalantzazko iruditzen: Euskal Herriak bere unibertsitatea sekula izan ez duenez gero, euskal fonetika jatorra, morfologia eraikitzailea, eta euskal meatzik oparoenak nahi-ta-ez bilatu behar dira herri xehearen altxorreen: hiztegi zaharra, leku-izendegia, bertsolarien ekarria, herriaren hizkera «apaindura»rik gabe biltzen saiatu diren euskaltzale finen lanetan, eta abar. Unibertsitate-sokarik ez izanik, horra hor gure harrobi bakarra, edo nagusia bederen.

Fonetikari dagokionez, bereziki, euskaltzale zuhur guztiek ezagutu behar lituzkete Mitxelenaren lanak («Fonética Histórica Vasca» batez ere). Herriaren hots-joerak errespetatzen saiatua delako, era berean, arras aztergarri zaizkit «Auspoa» sortak argitara dituen bertso-paperak. Hauetan eta hartan dut aspaldi honetan bildurik neure «Sustrai Bila II»aren habe nagusia izango den herri-sustraia.

Etxahun-ek, esate baterako, Barkoxen «venger» (fr.) entzun eta «menjatü» itzuli bazuen; eta Iturzaeta-k, Azpeitian, «vengar» (esp.) entzun eta «mengatu» itzuli, haserako [b→m] aldaketa etengabe horretan badago zerbait oso irmorik. Batez ere behin eta berriz gertatzen delarik: minagre (= vinaigre, vinaigre), mandil (= bandido, bandit), mainu (= baño, bain), menta (= venta, vente), makailau (= bacalao, morue), eta abar. Noruegan «wash» baztertuko luketen bezala («vask» onartuz, oker ez banago), guk «minagre» onartu behar dugu (edo «ospin»), baina inolaz ere ez erdal «vinaigre» bere horretan. Fonetika-lege horiek jarraitu-beharra gaur arte inolako Akademik proposatu ez badu ere, orain badugu zientzi-bidez

eta euskal senaren arabera fonetika-lege horiek finkatzeko eta bete-arazteko garaia.

Beste adibide bat emateko, Etxahun-ek Zuberoan «delonzatü» esaten zuenean, eta gipuzkoar bertsolariak «alimo!» eta «albiente», aldaketa-mota jeneral horren sustraian, zelebrekeriarik eta kankailukeriarik ez-baina **euskal fonetika-lege berbera** datza: bi sudur-hots elkarren ondoan gertatzen direnean (erdarazko hitzean), euskaldunek «l» bihurtzen dutela lehenengoa: lonbratu, izelonbrea, lumero, malso, fulamentu, pesalunbre, Jerolimo, galamu, baita... Etxahun-en «filosomia» harrigarria (= fisonomia). «Irabazkin» erabiltzen ez bada, beraz, «galantzia» erabili behar da, baina inolaz ere ez «gananzia».

Karkulu, mordatu, komurgada (Iturzaeta), kurpitu, konpitu, eta abar, [l → r] aldaketaren lekuko dira. Zergatik aurrerakoan lege hau gaur geronek ukatuko?

Haserako [k → g] aldaketa, bide beretik, oso jenerala izan da: ganbiatu, galbario, glaramentian, gonbiratu, Gaztela, gomertsazio, gorbata, gorte... Baita alderantzizkoa ere [g → k]: kastu, kolpe, kitarra... Ezjakinek bezala euskara batuaren bultzatzaileok farregin beharrean, oso zinez behar-ko genituzke aztertu. Gauza bera [t → d]ri dagokionez: «Diburtzio» ez baitator bakarrik, baina «daratulu» eta «dorre» rekin batera.

Gure «Ijentea» eta «ijeniyo» jatorrek, berebat, berehala ukatzen dute «inkenieru» itsusia (baita «asmatzaile» desegokia ere), eta «ijeneru» idarokitzen.

Freud-ek eta Piaget-ek hutsak eta gaizki esanak ikertuz eman erazi dizkiote Psikologiari urratsik handienak. Guk geronek ere, kolonizatuaren beldurrak aldebat utziz, baserritarren eta bertsolarien «gaizki esanak» (?) oso seriotan aztertu behar ditugu, **okerreria horietantxe baitatza euskal fonetikaren eta muinaren kakoa**, baita geroko gure hizkuntza batuaren atal gaitz batena ere. «Herrikoi» hitzak hau adierazten du gaurko Euskal Herrian.

Euskaldunen «paastu» hitza (ez «pasatu»), interesgarri iruditzen zait euskalbiderako; eta gauza bera, etsenplu batzu ematekotan, gure «pedriko» («pheredikü» xubereraz), «erronkoso», «goardazobil», «ausuluzio», «ausentu», «kleitu» (= cré-

dito, crédit), «erretolika», «notezi», «libertigarri», «komentzi», «esperentzi», eta beste anitz eta anitz.

Aski izan bedi gaurkoz.

Baina hiztxo bat esan nahi nuke adjetibo edo izenlagunei buruz. Erdarak goitik behera itota gauden geure honetan, euskal adjetiboen piperra eta ugaritasuna ari dira egunetik egunera kaskartzen. Eta gisa da. Ez da gisakoa, ordea, euskaltzaleok, arreta beti gutartera etsaiak isuri duen kezkatant kokaturik, hiztegi ahuldura horren kontra ezertxo ere ez egitea. «Desabrido», «pelma», «desobediente», «tramposo», eta beste holako mila erdarakada entzuten dugu lasai... «euskaraz» (?) ari garelarik. Non gelditu dira, ordea, gure «zakar», «kapar», «erten», «arrakero», eta gainerakoak? Nork gogorazi beharko ditu gure «geldo», «txirripistin», «marrajo», «zipotz», «kaskagor», «troskoilo», «matraka», eta abar, geronek egin ezik?

«Ez dakigu zer diren», erantzun duke norbaitek. Eta ene errepika ez da oso luzatuko: hori **geronek, euskaltzaleok alegia, piztu behar dugula**. Ez zaigu, ez, «mana» gisa, zerutik etorriko. Lasai egon!

Lanerako dei bat da, beraz, artikulu hau. Nor harri li-teke, ordea?

(1974)

EUSKAL HERRIKO ELEBITASUNA

Berrogei urtetan hizkuntzen gorabeherak «tabu» izan ondoren, azkeneko hilabeteotan aipagarri bihurtu dira; eta hau gauza ona eta onuragarria da zenbait aldetatik. Hizkuntzen arazoa mahainaren gainean dugu gaur; eta horixe zen, hain zuzen, konponbidea bilatzeko lehendabiziko urratsa.

Baina hizkuntzen arazoaz pasa ditugun berrogei urte itsu horik, halere, ez dira hizkuntza-gorabeheretan zailtzeko eta jazteko egokienak. Beste modu batera esanda: 40 urtez, edo 30 urtez gutxienez, hizkuntza-arazoen PRAXIA galdu dugu; politikarena galdu dugun bezalaxe. Eta, hori dela bide, funtsik batere ez duten iritziak eta inorako intenbiderik gabe eskaintzen diren sasi-bideak proposatzen dira, lasai.

Hauetako bat, zabalduena beharbada, hauxe da: «bilin-güismo», elebitasuna edo bimintzotasuna, alegia, kasuen arabera.

Denak bide dira gaur irizkide: «Euskal Herriak elebitasuna behar du». Beharrik, «elebitasun» eta «diglosia»ren arteko alderdia bederen hasi bide da gure artean hedatzen eta nagusitzen; nahiz, gehienek, «diglosia» hitza berriagotzat, eta besterengatik ez, erabiltzen badute ere.

Garaia heldu da, beraz, Euskal Herrian dagoen hizkuntza-egoera **zorrozki** ezagutzeko (Irizar-en lana hartu behar litzateke gidari), erabiltzen dugun hiztegia **zentzuz eta taxuz** erabiltzeko; eta «bilinguismo» famatu eta hodeitsu horretatik **kultur-bide zehatzak** proposatzeko.

Lehenengo argitzapen bat: zer da «elebitasuna»? Zer da «diglosia»? Zer da «bimintzotasuna»?

Ikertzaile guztiek hitz horik, edo beroien erdal kideak, era berean erabiltzen ez badituzte ere, ba dirudi berezkundea honela egin genezakeela euskaraz:

ELEBITASUNA: **pertsona** batek, kasuen edo egoeren arabera, **A** hizkuntzatik **B** hizkuntzara igarotzeko duen dohaina. Elebitasuna, honetara, **hizketari** dagokio, Saussureren 'parole' delakoari; mintzaira pare bat, edo gehiago, erabiltzeko ahalmenari.

Euskal Herrian gaur, 2.700.000 biztanleen artean, 550.000 bat elebidun daude. Elebitasuna, hortaz, besterik uste bada ere, **ez dago Euskal Herrian oso zabalduta:** elebitasunak hedadura murrizta du. Gure herrian **erdal elebakarrak** dira nagusi, urrundik ere. Jende gutxik erabil dezake, egoeren arabera, **A** edo **B** hizkuntza; euskara edo erdara, hitz batez.

Elebidunak bi hizkuntza antzeko erabil ditzake (luxenburgera eta alemanera, eman dezagun); edo bi hizkuntza desberdin (flamenkera eta frantsesa, esate baterako, Belgikan bezala).

Elebitasuna, beraz, **PSIKOLOGI**-mailako fenomeno edo dohaina da. Eta jakina denez, pertsona berbera osoki elebiduna izatea **oso zaila** da: beti ere jotzen dugu denok, ikaspenen arabera, egoeren arabera, hiztunen arabera, **A** hizkuntzara edo **B** hizkuntzara.

BIMINTZOTASUNA: **gizarte** batek, bere barruan, bere klaseen edo eskualdeen arabera, **A** hizkuntza edo **B** hizkuntza gizarte-trabarik edo gizarte-desberdintasunik gabe erabiltzea. Hauxe da, **SOZIOLOGIAREN** mailan orain, erdaraz, «bilingüismo» esan ohi dena. Bimintzotasuna, beraz **hizkuntza**-ri dagokio. Saussure-ren «langue» delakoari. Bimintzotasuna dagoenean, gizarte horretan bi «code», bi «sistema», bi **MIN-TZAIRA** erabiltzen dira. Bimintzotasuna **SOZIOLOGIARI** dagokio. Eta, hain zuzen, soziologiaren mailan, ekonomi edo politikaren sailetan, berdin da bata ala bestea erabiltzea.

Egiazko bimintzotasuna dagoenean, **A** eta **B** hizkuntzak **aipu** edo **gizarte-pisu** berbera dute biok gizonaren hazkuntzean. Belgikan, esate baterako, frantseak eta flamenkerak **gizarte-etorkizun berbera** eskaintzen dute Belgikaren barruan: biak dira legezkoak, biek dute literatura ugaria, biak dira eskualdeen arabera ekonomi-mailan eta administrazioan zeharo beharrezko; biek dute, zeinek bere herrialdean, nagusitasun osoa: telebista egun osoan, irrati-kateak egun osoan, administrazioa elebakarra da, eta abar. Elebitasuna, bestalde, oso zabaldua dago; flandretarrik gehienak dira gaur frantsesez ongisko mintzatzeko gauza, eta, itzuletara, waloniarrik gehienak mintza daitezke gaur flamenkeraz.

DIGLOSIA: hau ere SOZIOLOGIARI dagokio; eta funtsean bimintzotasunaren **kasu berezi bat** baizik ez da. Diglosia dagoenean, **A** eta **B** hizkuntzak ez dira elkarren parean: **A** hizkuntza legezkoa da, eguneroko bizieran beharrezkoa, ekonomi-mailako ekintzan ezinbestezkoa, literaturan aberatsa, eta abar, **B** hizkuntza, berriz, legetik at dago, izan ez da, ezertarako beharrezko ez da, aipu txarra du jendar-tean, eta gainbehera doa sentidu guztietan.

Euskal Herrian, beraz, ez dago bimintzotasunik, DIGLOSIA NABARMENA baizik; eta, esana dugunez, ELEBITASUN URRIAN emana.

Belgikako egoerak eta Euskal Herrikoak hitz berberaz adierazteak nahasketa handiak ekar ditzake.

«Bilinguismo» erdal hitzak, horretara, EZER GUTXI adierazten du berez; eta zertan mamitzen den jakin arte, alienabide ere gerta daiteke.

Hitz gutxitara hau guztia bilduz. Euskal Herrian diglosia izugarria dago, eta elebitasun urri eta ahula. Belgikan eta Kanadan diglosiarik ez, baina elebitasuna zabala. Kataluñan elebitasuna zabala da, et diglosia ba dago, baina Euskal Herrian baino txikiagoa. Eta abar.

—GAUR ETA BIHAR

«Bilinguismo» oihukatzen dutenak **elebakartasun** hertsieratsian bizi ohi dira. Beren inguruan elebakartasun osoa behartzen dituzte denak; erdal elebakartasunera, esan beharrik ez.

Pratikan, beraz, euskara **zeharo eta etengabe** baztertzen

dute, zeharo debekatzen, zanpaldirik gogorrean bezalaxe, gerla ondoko berrogeigarrenetan bezalaxe. Beste hitzez jantzirik, hori bai; baina funts berebean. Beti «gero»ari buruzko agintzatan murgildurik, hori bai, beti euskara at, bihar, etzi, han, ez hemen, beti haratago, beti urrun mamituko omen den egoera dirdaitsu hartan. Eta, artean, «bilinguismo» proposatzen dute; eta, segituan, denak ERDARARA behartzen; elebakartasun gorri gorrira, alegia.

Hitz batez, egiazko biziera erdaraz egiten eta eginerazten dute; eta alegiazko biziera «bilinguismo» iheskor eta mamigabe horren arabera aipatzen. «Bilinguismo» politika-leloa, horretara, anitz eta anitz kasutan, ALIENABIDE NABARMENA DA. Geroko «bilinguismo» alegiazko urrun hori EUSKALDUNEN OPIOA DA JADANIK. Ba dirudi «bilinguismo» hitza esan; eta 'sesamo' hitzaren antzera isildu egin behar dela, eta elebitasunetik antipodetan jarrai dai-tekeela. Benetan: ASKI!

Ados gara (nor ez?) puntu batez: hizkuntzen arazoa, soziologi-arazoa denez, soziologi-mailan erabakitzen dela, eta ez nahimenezko erabaki partikularren mailan. Hizkuntzen etorkizuna POLITIKAREN eta EKONOMIAREN mailan erabakitzen da, zalantzarik gabe. Hizkuntzen burruka POLITIKA-BURRUKA da gailen.

Baina beste gauzatan bezala, politikan ere, BIDEAK markatzen du, eta baldintzen, helburua. Gauza berbera hizkuntzen mailan. Erdaraz zuzendutako burrukak erdal gizarte bat baizik ezin ekar dezake; Irlandan ingelesez zuzendutako burrukak ingeles erresuma bat ekarri duen bezalaxe.

Euskal organizazioetan GAUR ETA PRATIKAN (ez alegiazko alienabide eta otoitz erraz alferretan) hartzen duen hizkuntza-bideak markatuko du, ezinbestean, biharko Euskal Herriaren hizkuntza-patua. EUSKAL ORGANIZAZIOETAN hasi behar da, eta GAURTXE hasi, gero Euskal Herriaren obratuko omen den hizkuntza-aldaketa. Hain zuzen ere, Irlandako etsenpluak mutur batean, eta Israelgoak bestean, garbi erakusten dute **gaurko** jokabideen GARRANTZI OSOA.

«Bilinguismo» hitza aidera bota, baina hizkuntz-arazoa beti GERO eta beti AT ikusten dutenek, beren TEORIA eta beren JOKABIDEA berezten dituztenek, euskara jakin gabe

ere inglezsez lasai ikasten dutenek, biharko ERDAL ELEBAKARTASUN OSOAREN OINARRIAK ari dira finkatzen eta sendotzen eta euskararen ETSIAK dira, beren ahozko «bilinguismo»a eta guzti. Eta EZ DUTE, argi eta garbi esan behar da, gure herriaren aintzindari ez zuzentzaile izateko eskubiderik. Ez baitugu geurean Irlandako deskalabroa ikusi nahi, Finlandiako pizkundea baizik. Eta horretarako ORAIN eta MAILA HORRETAN ERE jokatu beharra baitago.

«Bilinguismo» politika-lelo larrugorritu beharra dago; eta pratikan elebakartasun borobilean gelditzen diren jendeak eta organizazioak salatu behar dira gupidarik gabe, herriaren aurrean irringarri utziz.

ELEBAKARREN ZANPAKUNTZA GAUR

Etsenplu hau bestetan ere emana dut; baina gutxik sinetsi bide du etsenpluaren egia gorria.

Eman ditzagun 6 lagun: A, B, C, D, E eta F.

Lagun horien elkarkera hauetara gerta daiteke:

binaka: AB, AC, AD, AE, AF, BC, BD, BE, BF, CD, CE, CF, DE, DF, EF	= 15 talde
hirunaka: ABC, ABD, ABE, ABF, ACD, ACE, ACF, ADE, ADF, AEF, BCD, BCE, BCF, BDE, BDF, BEF, CDE, CDF, CEF, DEF	= 20 talde
launaka: ABCD, ABCE, ABCF, ABDE, ABDF, ABEF, ACDE, ACDF, ACEF, ADEF, BCDE, BCDF, BCEF, BDEF, CDEF	= 15 talde
bosnaka: ABCDE, ABCDF, A B C E F, ABDEF, ACDEF, BCDEF	= 6 talde
seinaka: ABCDEF	= 1 talde

Guztira: 57 talde

Eman dezagun orain HIRU (A, B, C) elebidunak direla (hiruk dakitela, hitz batez, euskaraz eta erdaraz); eta beste hiruek, berriz (D, E, F) ez dakitela erdaraz baizik. Egoera honi buruz mintzo garelarik, % 50 euskaldunak direla esango genuke, eta beste % 50 erdaldunak. Hizkuntza-egoera hori, noski, gaur Euskal Herrian duguna baino AISA HOBEA DA: 550.000 elebidun / 2.150.000 erdaldun huts.

Diglosiari buruzko joerak, gutxietsi-minak, beldurrak, gizapresinoak, euskalkikeriak, eta abar, orain alde batera utzita, hona hemen, EZINBESTEAN zer gertatuko den: D, E edo F gertatuko diren taldeetan, «por razones prácticas», elkar-ulertu beharrez, eta abar, ERDARAZ egingo dela.

Zenbat taldetan? Aski du irakurleak bere aldetik nik bezala ikertzea:

2/ AD, AE, AF; BD, BE, BF, CD, CE, CF, DE, DF, EF	= 12 taldetan erdaraz
3/ denetan erdaraz, ABC-an ezik	= 19 taldetan erdaraz
4/ denetan erdaraz	= 15 taldetan erdaraz
5/ denetan erdaraz	= 6 taldetan erdaraz
6/ dagoen bakarrean	= 1 taldetan erdaraz

Guztira = 53 taldetan erdaraz

Beraz: $53/57 = \% 93$ -etan erdaraz. **Erdiak** euskaldunak izanda, $\% 93$ -etan erdaraz. Urrun gaude erdiz-erdi teorikotik!

Hots: ERREALITATE HORRETAN GAUDE; eta «bilinguismo»aren ipuinak errealitate horren aurrean behar dira salatu.

Etsenplu horretan, 2-k baldin badakite euskaraz ($\% 33$, beraz) taldeetako $\% 98,5$ egingo da erdaraz.

Eta, beste muturrean: erdaldun **bakar batek** (A, esate baterako) erdaraz hitzegitera beharko du taldea $\% 54,5$ **kasutan**.

Honek garbiki erakusten du, xifratan, eta diglosiak eta abar aipatu baino lehenago, gaurko tankerako egoera batek zertara eramán dezakeen; EUSKARAREN HERIOTZARA ETA EZ BESTERA. Euskara salbatuko bada, guztiz beharrezkoa da egoera mota honetatik irtetea.

Erdaldunak elebakar eta euskaldunak elebidun izango direno, euskaldunen kopurua handiago izanagatik ere, diglosia ttipiango izanik ere, egoera horrek ez darama, eta ez daramake, erdal elebakartasunera eta euskararen heriotzara baizik. Erdal elebakarraren kontra DELIBERATUKI burruka egiten ez duenak, euskararen heriotzaren alde egiten du lan.

KONPONBIDEAREN HASTAPENA

Konponbidearen hastapenak hiru oinarri ditu, hiruak

dagoeneko aldez edo moldez aipatuak:

1/ ELEBAKARREN KOPURUAREN GUTXIKETA

Erdaldunek euskaraz ongi xamar ikastea, eta beharra gertatzekotan euskaraz moldatu ahal izatea, Belgikan flandretarrak moldatu ohi diren eran edo; alegia, ezinbestean inor norberaren hizkuntzara ez behartzeko heinean.

Erdaldunak elebakar huts egongo direno, euskarak ez du burua altxatzerik. Eskolan bereziki (Euskal Herriko haur GUZTIEK, lehenengo edo bigarren hizkuntza gisa, euskara ikasiko dutelarik) baina gauza bertsua beste sailetan ere, ahal den guztia egingo da ELEBAKARRAK AHULTZEKO.

2/ DIGLOSIAREN APALKETA

Euskaraz mintzabide osoa izan behar du Euskal Herrian euskaraz ari izateak erdaraz egiteak hainbatsu abantail eman ez. Euskal eskola, irakaskintza, prentsa, telebista, administrazioa, azkartu egin behar dira. Euskaraz mintzatzeko ALDERDI ON NABARMENAK izan behar ditu Euskal Herrian; eta euskaraz ez jakiteak, era berean, beste hainbeste alderdi txar eta kalte ekarri. Euskaraz dakienak LEHENENGO MAILAKO HIRITAR izan behar du bere herrian; eta ez dakienak, berriz, Japonen japoneraz eta Afganistanen afganeraz ez dakiena bezalatsu gertatu. Gainerakoa «petit nègre» mailatik ezin irtetea besterik ez da.

3/ ZUHAITZA HAZITIK HOZITZEN

Bi helburu horik GAURTXE ABIARAZIKO DIRA erakunde euskaltzale eta abertzaleetan. Hauetan ere diglosia nabarmena onartzea, eta elebakarrak buru jartzea, geroari buruz GEURE BURUA URKATZEA LITZATEKE. Zuhaitza hazitik dator: haziak mugatzen du. Nahi ez badute ere, euskal erakundeek markatzen dute biharko Euskal Herriaren kolorea; hau haietako gizonen bitartez mamituko baita.

Ez dugu, beraz, «bilinguismo»rik eskatuko, baina bai helburu hirukoitz hau:

1/ ELEBITASUNA AURRERA.

2/ DIGLOSIA ATZERA.

3/ BI HORIK GAURDANIXEK EUSKAL ORGANIZAZIOETAN GIDARI.

Nork ez du honela jokatu? IRLANDAK bakarrik. Hots, gaelikera hizkuntza HILA da gaur; eta Euskal Herriko haurrak Dublinera joaten dira ingelesez ikastera...

BI JOKABIDE ETA BI UZTA

Aipa dezagun laburki, esandakoa argitze kotan, eta gaelikerari buruz eta juduerari buruz, zenbait xehetasun argitsu.

Ben Yehudak judueraren pizkundea Israel berriaren oinarritzat proposatu zuenean, judutarren hizkuntza hila zen, sinagogetan orain dela urte gutxi arte latinera elizetan erabili ohi zen antzera. Hizkuntza, beraz, bere hartan, ez zen batere «pratikoa»: «por razones prácticas» jokatu zuten gero, inglesa hautatu behar zen, edo «yiddish» bera, judu askok erabilia eta ezagutua. Judueraren ERABILTZEA gerorako utzi behar bide zen.

Hots, Ben Yehudak eta bere aberkideek ez zuten horrela jotaku. Eta, guztiz gogor prantaturik, eta BEREHALATIK, JUDUTAR ORGANIZAZIOETAN, gusta ala gostarik, JUDUERA, ETA JUDUERA SOILA ERABILTZEA ERABAKI ZUTEN. «Bilingüismo» leloa ez dute judutaarrek sekula eza gutu. Eta, horren urrutira gabe, katalandarek ere ez... Belau bat kili-kolo ibiliko bazen ere, judutarrek ELEBAKARTASUNA hautatu zuten nola edo hala.

Etorleei buruz ere, Israelek bide gogorra hautatu du; eta, «ulpan» delakoan bitartez, etorleek oro ikasten dute juduera Israel-era iristean. Ez dute deusik «gerorako» utzi.

Eta gaur juduera Israel-go hizkuntza bizia da.

Beste muturrean aurkitzen ditugu irlandarrak; eta, noski, gaelikera **galduta da**: «at the most», gehienez, 40.000 elebidun gelditzen direla idazten zidan berriki Cathal O Luain-ek. Mendebaldeko eskualderik txiroenetan bizi dira, bederatzi hizkuntza-uharte mehar ahuletan...

Joshue Fishmann-ek urte hauetan burutu zuen ikertza-pena, egia ager beldurrez, ez du Dublingo gobernuak argitara nahi; argi-eta-garbi adierazten baitu soziologilari apartak bere horretan hizkuntzak ez duela salbabiderik; nazio-hizkuntza «ofizial»aren azken hatsak orain ari direla entzuten; eta, gaelikera pizteko, besterik eta mila aldiz zinezkoagorik behar litzatekeela abiatu.

Hitz batez, Dublingo gobernuak, «bilinguismo»aren leokeria alienatzaileetan errebelaturik, ez duela SEKULA NAZIO-HIZKUNTZA piztu nahi izan. Eire-ko Erresuma Askatua eraiki zenean (1921), 500.000 irlandarrek hitzegiten zuten gaelikeraz... Dublinen inguruan azkeneko hiru urteetan

sortu diren gaelikerazko eskolak, GURASOEK BEREK sortu eta ordaindu dituzte, ez gobernuak... Eta, iturri ofizialek berek aitortzen dutenez, gaur lizeoaren mailan, % 0,4 besterik ez dago gaelikeraz... J. Armstrong-ek esaten zuen bezala: «they are quite content to see Irish in its current fringe, symbolic role»... Eta ene galdera hau da: NORK NAHI DU UZTA HORI GURE HERRIARENTZAKO?

ETA FINLANDIARREN JOKABIDEA ONARTUZ GERO?

Etni-arazoetan gailen agertzen den Guy Hérauden ustez, Suomi (= Finlandia)ko kizkuntza-legetasuna munduan dagoen zuzenenetakoen artean har liteke. Hots, zer emango luke jokabide horrek Euskal Herrian?

On izango da, ene ustez, laburki bederen hori aztertzea, «bilinguismo» haragigabe hori utzita soluzio zehatzetara pasatzen hasteko.

Suomi-tarren arabera jokatuko bagenu, hiru eskualde izango genituzke Euskal Herrian, hizkuntzari gagozkiolarik:

1/ **Eskualde euskalduna:** elebakarra. Euskara lege-hizkuntza bakarra luke, eta bigarren hizkuntza gisa erdara (eskoletan, eta abar). Zein eskualdetan hau? Euskaldunak % 90 baino **gehiago** diren barrutietan. Gure honetan, beraz, leku gutxitan; itsasertz eta baserritar lekuetan izan ezik.

2/ **Eskualde erdalduna:** elebakarra ere bai. Erdara lege-hizkuntza bakartzat, eta abar. Euskara bigarren hizkuntza. Nun hau? Euskaldunak % 10 baino **gutxiago** dauden barrutietan.

3/**Eskualde elebiduna:** egiazki bietarakoa, baina diglosiarik gabe eta benetako hizkuntza-paretasunean: euskaldunak % 10-tik % 90-ra diren barruetietan; **baita lau hiriburuetan ere.**

Zer esanik ez: irizpide hau ontzat hartuz gero, lau hiriburuetan, eta euskara mintzatua den lekuetan, BIMINTZOTASUNA izango genuke: instituzioetan, administrazioan, denean, EDOZEIN HIZKUNTZAZ BALIATZEKO AUKERA EGIAZKOA MAMITUKO LITZATEKE horretarako, postu publikoetan ELEBIDUNAK hautatuz.

Noski: euskal gobernuak, Dublingo gobernuaz bestaldera espero dut, **euskarazko alderdia** bultzatuko luke. Urra-

tsik funtsezkoena hau litzateke: Euskal Herriko parte handi batetan, betidaniko diglosia hilgarritik BENETAKO BIMINTZOTASUNERA pasako ginatekeela. Ez baita hutsaren hurrena!

Jakina hau ere: MILOI ASKO behar da hau guztia maitzeko. Euskararen pizkundera euskal gobernuaren prosoptuko ZATI GARRANTZITSU BAT izango da, ez axaleko kapitulu bat. Euskararen pizkunderan LEHENENGO EGU-NETIK Osasunean edo Arrantzan hainbat MILOI erabiliko ez bagenu, Irlandako bidea hartu nahi dugula agertuko litzateke; eta gaurtik da arrisku hori gupidarik gabe salatzeke eta errausteko unea. Ez gero. GAURTXE. Gero berantegi litzateke. Noiz izango ote gara euskaldunok puntu honi buruz ermo eta zindo?

Suomi-ko jokabidea gure arterako onartuz gero (eta hau ez da etsenplu bat baizik), nola eta noiz euskaldunduko ote dira oraingoz 'erdal eskualde' horretan geldituko direnak?

Eskualde horietan, eskuarki bederen, euskaltzaletasuna oraingoz ahula denez gero, ba dirudi euskara eskola GUZTIETAN bigarren hizkuntza gisa sartuz gero urrats ona litzatekeela.

Gurasoek besterik eskatzen ez dutenetan bederen (alegia, ikastolak EDONUN sustatzeko eta azkartzeko eskubidea GOBERNUAK BERAK finkatuko baitu) pausu on bat litzateke, ene ustez, belaun berriak euskara ongi xamar bederen ezagutzea.

Ez dakit ongi jabetzen ote garen, bestalde, batzuek beharbada «bigun»tzat joko duten «finlandiar» bide honek berak, buruhauste latzak ekarriko lizkigukeela: irakasleen kopurua emendatu beharra, erdaldun irakasle askoren trukatua beharra, administrazioaren parte handi batetan elebakkarrak kendu eta beroien ordeztatu elebidunak sartu beharra, erdal eskualdeetako eskolentzako euskal irakasleen presatua beharra, eta abar.

Onuragarri litzateke, beraz, «finlandiar» irizpide hau, edo honelako zerbait, GUZTIZ ZEHAZKI ETA HERRIZ HERRI AZTERTZEN HASTEAN; gure indarrak eta ahuleziak xeheki ikertzen hasteko, batetik; eta «bilinguismo»aren hutsalakerietatik irteten hasteko, bestetik.

(1976)

XAHAKOTAR BAT MINTZO

Xiberotar bat agertzen da gailen udara honetako euskal gaurkotasunean: Santagraziko seme den Junes Casenave euskal idazlea. «JAKIN»ek «Santagrazi» pastoral berria ezin hobeki argitaraturik, Casenave ez zaio gaur-ezezagun euskaltzaleri.

Eta, bere saltsa berean ezagutzekotan, Santagrazira joan nauzue Uztailaren 16-an; pastorala aurkezteko bezperan beraz.

Berrogei ta bost bat urte, xiberera aise emaiten, hantxe topatu dugu geure pastoralari berria, horren maite duen Ehüjarre-ren ondoan.

Casenave-ren hizketan «arraphiztü» egiten da Ziberua; eta nik arratsalde eder hartan dastatu nuen Basabürü-ko aidea nahi nizueke dastarazi.

Tx.—Aita Casenave: zure liburua ikusi dugu. Zure berri jakiten hasi gara. Apeza zara, ez da?

C.—Betarramísta n'üzü; San Migél Garikóitzen sémia, bai.

Tx.—Santagraziko seme zarela ikusten dugu. Hots, pastorelean barrena, hiru izenez agertzen da herri hau: Urdats,

Santagrazi eta Sentazi. Hirurak bizi direa?

C.—Urdáts oai ártio bízi z'üzün. Gazténetan, badakízü, gáltzen d'üzü, seg'ürrik. Bena zahárretan, edo ene adínekuétan, béhin baño habótan entzün dít. Hében entzün dít nik erráiten Urdáts, jentétan ére egónik t'üzü izéna. Santagrázi, Sentázi, Urdáts. Hirúak t'üzü. Eta gizúnentáko «Xahakotárrak» erráiten diz'ügü, eta emaztentáko «Xahakínak».

Tx.—Ziberoko ertz honetan gaudela-ta, euskal toki-izeinei buruz egin nahi nuke galdera zenbait. Nola esaten duzue hemen Arette, Lanne, Lescun, Biarri, Antso, eta abar.

C.—Arette «Éta» erráiten diz'ügü, Lanne «Lánda», Barétous «Landa-gáinti», eta Lescun «Lesk'üne».

Tx.—Beste gauza batek harritu nau zure pastoralean: haragiari, bizkaitarrez bezala, «okela» erraiten diozuela hemen.

C.—«Okhela» hola-hóla erráiten diz'ügü. Untsála játen den agíentako erráiten diz'ügü «okhela». Bena géo üsü erráiten diz'ügü bér gaizá ógientako: ógi okhelá bat, ógi zerrá bat.

Tx.—Denek egiten ahal dute euskaraz Santagrazin?

C.—Hében ai t'üzü üskáraz, óro üskáraz elhestátzen t'üzü. Eta hói gáiza baliúsa d'üzü, eta behar diz'ügü azkárki etxéki. Bena phentsátzen dit ezpaldin**bad'ügü** eskolán arrúnt zerbáit igánten, beste herrítan gáltzea beítá, egün bátez hunát ére agítüko düz'üla.

Tx.—Zenbat lagun zarete Santagrazin?

C.—Bostéhun eta hogói.

Tx.—Lehenengo pastoral hau dela-ta, ez duzia pentsatu besterik izkiriatzerik?

C.—Egínik ére badít oráidanik bat. Badakízü hebéntik bi urthéren búrian, hamabígerren mentía déla Charlemáñe lehert'ürrik izan beitzén üskaldünétaz. Eta nik phentsátzen dit horrentáko béhar déla zerbáit bérri égin. Eta ordín ez antzinekótan bezála, bena egiázko géiak hártü; eta egiázko géi hoietárik égin zerbáit, istóia egiázko ikhértzez. Eta hóla egin dít izánen den pastuál hói. Eta náhi níkézü Sentaztárrak éman dézen.

Tx.—Entzun dudanez, pastoral-egilez gain, kanta eta dantza biltzaile saiaturaz. «Santagrazi» honetan ager-erazi duzun neska-mutilen dantza hori, partikulazki, ez bidezen nehun ezagutzen.

C.—Egia d'üzü. Ez khántiak báizik, bena hor dién gairák óro ebili n'üzü etxétan ikhértze egíten. Dénbora hánitx igán dit hétan, ikhustéko amiñi bat, eta úntsa, hobéki, eza-gützéko. Ene herría ezágützen dit, bai; bena badakízü, béhar d'ügü hüllantillágotik sóegin, eta behátü; eta ordían hartáko ebili n'üzü, eta seiúski egindít lan hói étxe hánitx eta gáñe húnatan. Eta, seg'ür, denbora hánitx, ez gáldü bena igán dit. Zumáit áldiz juáiten nüñd'üzün arrásti hástian, eta berantían sártzen. Bazüt'üzün hérrí húnatan khantóiak étxe bakhotxían. «Karnétak» bazütüzién; eta «karnet» hóik gáldü tüzié, ez-t'üzü bakhótík ére edíeiten ahalkó han. Hüllant'ürik izan n'üzü zumait étkez. Bena étxe hetára héltzian erráiten zita-zién: galdü diz'ügü; edo bestélan, arraháurrek óro ür-rrat'ürik eta gáldü dü't'üzü. Eta étxe batétan, ez dízü aspaldi, erráiten zitazién: «a! gaxúa! Déna diz'ügü giháuk gáldü! Bagintízün izkibíak, 1700-kúak; eta hóik óro ür-rrat'ürik. Déna úskaráz z'üzün». Hóik étxe bakhotxían bazüt'üzün aitzinétik; eta, ordían, sóizü: hórrek tízü Xiberóko, eta lehen-lehénik Santagrazíko, jakitatía etxéki.

Tx.—Ene izena, ba dakikezu, Alvarez da. Beraz libro atxemaiten dut neure burua ondoko galdera hau egiteko. Casenave zure izena ez baita oso euskalduna...

C.—Hála d'üzü. Ezt'üzü úskald'úna éne izéna. Zeen ene áita sórtzez Azpia-gáintiko z'üzün.

Tx.—Biarnotarra, beraz, biarnésa.

C.—Ezkotéko z'üzün. Ama ez: áma herritárra d'üzü, «Püntenekúa», niháur bezala. Bad'üzü bi Pünteníá Santagrázin.

Tx.—Hortaz ama «xahakina» duzu.

C.—Hála d'üzü. Bena áita ére, badakízü, Azpia-gáinti hórtan, bér arráza d'üzü; eta aitzinétik úskald'únak züt'üzün, «Aspe» hítzak bérak erráiten dian bezála.

Tx.—Besterik ezer nahi ahal duzu erantsi «ZERUKO ARGIA»ren irakurleentzako?

C.—Gaizá bat erráiten ahal dít: ikhúsi behar déla ze lána egíten dién mothíko eta gízun hoiék, eta ze bihótz handíakín. Izigarriko lána egin dízié.

Tx.—Eskérrík hánitx, Aita Casenave! Agian izanen da ona pastoral hau, eta oraino hobeá «Orrega»koa. Eta Biba Urdats!!

Gainean, eder, izugarri, Ehüjarreko naba. Beherean, har-
kaitzen artean, Khakuetako arrolla:

«Khakuetako arrolla lotsagarria
mila khana barna da zolatik gaiñiala.
Hil haiek igaran zien a'dian bidia,
eta zolan jo zien gogor zen harria»...

Han ikusi dugu, lanean kementsu, pastoralaren «khan-
toreen» egile manexa: Roger Idiart apezka. Han ere Txomin
Peillen, loriatua. Eta beste anitz, lehen agerraldia baino
lehenago ere haraino joanak.

Eta Euskal Herriko herririk ederrena Urdats hau ote
den gelditu naiz pentsatzen.

(1976)

OHARRA: «n'üzü», «z'üzün», eta antzekoak, «nüzü» eta «zü-
zün» dira; baina azentoa apostrofoaren ondoko bokalean
doalarik.

ETNI-ARAZOAK

**ARGUEDAS, BLANCO, DE LA PUENTE,
ETA KETXUATARRAK**

Orain dela lau hilabete, ehorzketa bat ikusi zen Perun: ataburuaren atzetik, indio mordo harrigarri bat zijoan, begiak bilduta, margotako artilezko txanoak buruetan anitz, urpegien larrua gorriska ilun, «sierra»ko txistu zaharrak an eta hemen jotzen ari; eta tarteka, poliziak ezin debekaturik, kantu erreboluziolariak ozenki lehertzen ari, ketxuez eta españeraz. Jose Mari Arguedas txarneguak, indioen defendatzaile sutsuak, bere burua hila zuen Azaroaren 26-an huro batez. Andetako Andahuaylas'en jaioa, 58 urte zituen.

Ez genuen euskaldunok behar bezala erreparatu. Zer dakigu guk Cuzco'ko indioez? Ezer gutxi. Españeraz mintzatzeko ez dakiten hamabost bat miliun indio daude gaur, hainbeste, Ameriketara; eta Ecuador, Bolivia eta Peruko mendiarteetan batez ere, Inca-tarren ondorengoak han bizi dira milunka, denean ukaturik, orain dela lau mendez geroztik osoki zapalduak. Etnia nagusia, jakina denez, ketxuatarra da (= 'quíchua', españeraz), Cuzco inguruan aspaldidanik nagusi.

Jose Maria Arguedas, hain zuzen, Hugo Blanco sindikalari eta Luis de la Puente gerrileroa bezala, ketxua ho-

rien aintzindaria izan da; eta indioek zekiten hori ongienik.

Arguedasek (Guatemalan M. A. Asturias Nobel-Sariak egin duen bezalatsu) lumaren bidez egin zuen burruka; eta bere argitasun eta dohain guziak erabili zituen «Altiplano»ko ketxuatarren eskubideak, hizkuntza, eta kondaira ezagutarazteko eta errespetarazteko. Lima'ko Unibertsitatean ketxuaren erakasle, Arguedasengan ketxuatar abertzale bat ikusi beharra dago. Hau aintzakotzat hartu gabe ezin diteke Arguedas-en nortasuna konpreni.

Arguedasek, dena dela, urrats berri bat eman du Peruko kondairan. Arguedas, ezkertarra eta erreboluziolaria izanik ere, ez da «indigenismo» deritzan horretan gelditu: Arguedasek nortu egin du bere buruan ketxuatarren arazoa, eta ketxuatar gisa jokatu du.

Indigenistek beste modu batera jokatzeko zuten. Indigenisten ustez egia da indioa zapalduta dagoela: «el trato que se daba a los indios era igual o peor que el que hoy damos a los animales»; eta beste etnia bat direla: «no podemos considerarlos (a los indios) ni siquiera como connacionales», dio Ponce de Leónnek, esate baterako. Baina indigenisten ustez indio horiek salbatzeko eta askatzeko, 'desketxua-tartu' egin behar dira, haien ketxuatar kultura eta hizkuntzatik atera behar dira: «la castellanización y la alfabetización se integran recíprocamente» (Ponce). Hitz batez: indioen salbabidea kultura-genozidioa da!

Arguedas, Blanco, De la Puente, eta Peruko ezkertar berriek, bestela ikusi dute arazoa. Arguedas, Blanco, De la Puente, indio dira (edo txarnegu) ketxuatar dira, ketxuazale ere dira; eta luma, sindikatoa edo gerrilla hartu dutelarik ere, etnia-integrazioaren kontra daude. Erreboluzioa egiteko ketxua-tartasuna ukatu ez, baina azkartu eta nortu eta bizi egin behar direla uste dute. De la Puente' ren gerrilla-taldeek, adibidez, ketxuazko izenak zituzten; eta beren isilpeko mendi-irratiek (Regis Debrayk berak azaltzen digunez) ketxueraz egiten zituzten irratsaioak. Hogeita-bost urte gartzela egiten ari den Hugo Blancori, Arguedasek ketxueraz idazten zion; eta Blancok era berean ketxueraz erantzuten barnetik. Eta hau zion sindikalariak: «Zergatik lotsatuko gara bada ketxueraz elkarri idazteaz? Gure hizkuntzaren leuna! Laguntza bat behar genuenean,

deitu egiten genuenean, ketxueraz egiten genian... Ez duka sinisten gure hizkuntza españerara itzultzea lortu dualako neure bihotza xamurtu egiten zaidala? Orain denek ezagutuko ditek; eta ketxueraz azal dezakegunaren atal txiki bat bederen somatuko dik munduak. Benetan: ez zekiat zer gertatzen den nigan hire izribuak irakurtzen ditudanean»...

Eta Arguedas erreboluziolariak erantzun: «Ez ahal haiz bada hi heu, «hacienda» horietako gizajo horien buruzagitza hartu duena? Gure herrian zapalduenak, astoak eta zakurak berak baino jipoituagoak, karkasirik higuinkarrienez tatxatuok, ez ahal dituk herorrek bizkortu, haien arimak gogortuz?... Bai! Eta heuk iraindu eta madarikatu dituk ketxueraz 'gamonalak', heuk behartu dituk zulotan izkutatzera, xagutxoak bailiran... Ene anaia, ene anaia maitea, neu bezela larruz xuriska, baina bihotzez indio osoa!... Hire odola enea duk, Victo Pusa eta Felipe Maywa'rena bezala»...

1962-a, indio multzo haundi baten buru, utzita zeuden «hacienda»k okupatu zituen Hugo Blancok. (Horretaz ari zaio Arguedas). Gandhiren jokabideak Blancok onharturik, indioek ez zeramaten su-iskilurik, eta okupaldian ez zuten tirorik bota. Arma bakartzat, aspaldiko ketxuatar jabego-dokumentu zaharrak zeramazkiten eskuetan sindikatoko ketxuatar haiek, beren eskubideen frogakari. Blancoren saioa gaizki bukatu zen; eta bera gartzelara sartzean, bere adiskide eta jarraitzaile zen De la Puente gerrilara joan zen. Irakurleak dakikean bezala, De la Puente hori, lehenago Che Guevara eta Camilo Torres bezala, gerrillan hil zuten berriki.

Hugo Blancok Arguedasen heriotzaren berri izatean hau idatzi zuen gartzelatik: «Iritxi egin haiz hi. Baina hire indio anaien esnaera heldu duk, hire semeen iraultza, etorria duk».

Bide desberdinak, baina helburu berbera: ketxuatarrek ez zitzaizkien «mendietako indioak». Arguedas, Blanco, De la Puente, indio horietakoak ziren, eta indio horien buru egin ziren, indiotasuna haragitzat zutelako. Indigenismotik ketxuatar abertzaletasunera igaro ziren.

Eta ez folkloreaken aldetik. Arguedas folklorismoaren kontra zegoen. Hezur-haragizko gizon emakumeak jaregin nahi zituen, ez folklorea; Peruko ketxuatar biziak, ez fosil-dutako jazkera batzu. Iraultza guzizkoa egin nahi zuen,

eta 'gizatar dinatasuna' lortu ketxuatarrentzat: ez 'herriarentzat', hitz batez 'ketxuatar herriarentzat'baizik.

Eta Arguedasek hau idazten zion behin sindikalariari: «Parisko Quartier Latin delakoan hire fotoa ikusi diat liburu-denda batean; eta jauzi ere egin diat pozez Camilo Cienfuegos eta Che Guevararen fotoen artean heurea ikustean».

Hori zen Jose Maria Arguedas.

Eta ketxuatarrek bazekiten; eta bihotzez maite zuten.

(1970)

TURKIA-KO KURDOTARRAK

Barzani ezaguna da. 1945-an Kurdotar Alderdi Herrikoia sortu zuen (Irak-en); eta azkeneko hamar urteotan gerrilla luze gogorra zuzendu du mendietan Bagdad-eko gobernuen kontra, eta azkenean autonomia zabal bat lortu (1970-III-11). Ez-jakinen iritziz, horretara, kurdotarren arazoa, «Irak-eko barne-arazo bat» izanik (omen!) konponduta legoke. Ez da hori, ordea, batere egia; eta Paul Balta-k artikulu bikain bat eskeini digu «Le Monde»n (1971-VIII-16) Turkia-ko kurdotarren egoeraz. Eta 19-an, hiru egun beranduago, beste artikulu irakurgarri bat argitara du «Témoignage Chrétien»ek (1971-VIII-19). Ez baita konponketaren seinale!

Kurdotarrak BOST partetan zatiturik daude. Gehienak Persia-n (4.000.000) eta Turkia-n (6.000.00) daude; baina beste mordo bat ere ba da Siria-n (400.000) eta URSS-en (250.000). Horietaz gainera, jakina, Irak-eko kurdotarrak, Barzani-ren herrialdekoak: 2.000.000. Barzani-ren garaitzapeña, beraz, odolez erosia eta napalmetan jasana, ez da «kurdotar problemaren soluzioa»; ez baitu konpontzen, konpondu duen mailan, beraren % 20 baizik. Kurdotarrak beste edozein herri baino zatituago daude.

Turkiari dagokionez ez dira urrun azken afusilamentuen oihartzunak; eta urrunago, baino ez ahaztuago, 1937-ko hilkintza ikaragarria. Eta Persia-ri dagokionez, erresumatik berezi zen Kurdistan-go Errepublika Askatua (1946), berehala ito zuten Teheran-go armadek sutan eta garretan.

Sei miloi kurdotar bizi da Turkia-ko erresuman, osotara Turkian 33 miloi biztanle dagoelarik. Ankara-ko gobernuak ez du bost baino gehiago aitortzen, eta desgogara... Eta bizi diren eskualdeari ez deritza, eman dezagun, «Kurdo-herri» edo «Kurdistan». Ez. «Ekialdeko lurraldea» zuen izena lehen; eta gero, Ataturk-ek... «Tupikiaren lurralde» bataiatu zuen. Ankara-tarrek «mendietako turkiarra» aipatzen dute gehienik... Betiko egoera agiri da horretan: zapal dutako herria geografia-eskualde huts bihurtzen da hizkera ofizialean; eta Diyarbakir, Erzurum, Mus, Bitlis, Siirt, Van, «Ekialdeko» hiri batzu besterik ez dira... Britaina, jakina denez, «L'Ouest» bihurtzen da Paris-en; eta Bukovina-Besarabia lurraldea, hizkuntzaz errumaniar, «Mendebaldea» Kiew-en...

Europar ezagun xamarra da Turkia-ko kurdotarren problema. Eta, P. Baltak kondatzen duenez, askotan galdetzen dute hara doazen europarrek ia kurdotarrak zertan diren, eta halako; eta orduan «atzeritarrak kurdotarrekiko erakusten duen jakin-minean, higuintzen eta kezkatzen duen sendimendu izutu bat somatu uste du turkiarrak», eta hasarretu egiten da. Ankaran kurdotarren arazoa aipatzen duenak, arrapostu zakar bat biltzeko arriskua hartzen du bere gain. Turkiarra, bai ofiziala bai herri xehea, kurdotarren kontrakoa da; greziarra, puntuzko ala apal, turkiarren kontrako den bezala. Eta onena Ankaran kurdotarren problemaz zipitzik ere ez esatea.

Turkia oso erresuma inperialista da, eta oso aberkoia; eta antzinako inperioaren «haunditasunak» ez ditu ahaztu. Askoren oroimenean daude bizirik, nik uste, mende honetan bertan han ezagutu diren izugarrikeriak. Multinazionala da-izan Turkia (inperio izandako erresuma guziak bezala); baina, gaur arte, ukatu egin du etnia-problemarik batere izatea. «Kurdotarrak ez dago», azaltzen ari garenez. Armeniarrek birrindu eta sakabanatu egin ziren milaka. Eta greziar arrastorik ia ez dago Konstantinoplaz kanpo: denak izan zi-

ren botaiak itsasora orain dela berrogeitahamar urte. Smirnakon Hondamendi famatuaren bitimarik ezagunena, ene ustez, Onassis da: gaztaroan, beste anitz greziar bezala, Turkia-tik ihes egitera bakarturik, Argentinara iritxi zen sosik gabe; eta haren sorterria gaur Turkia bihurtu da.

Turkiaren «batasuna», hitz batez, armeniarren, greziarren eta kurdotarren gorputzen gainean eraikia dago.

Ankaran ukatu egiten da hau guzia, eta ez dute gutxiago ukatzen egia Teheran-go eta Damasko-ko gobernua. Eta Paul Baltak dakazkien iritzi ofizialak, farragarri ere agertzen zaizkigu. Turkiako militarrek (Martxoaren 12-er geroztik jaun-da-jabe eta ez lehenengo aldiz) sinistu ezinezko zozoke-riak esaten dituzte kurdotarren arazoa izkutatu eta disimulatu nahiz. Erim lehen ministroaren ustez, gonbarazio batera, «kurdo-erarik, kurdotar hizkuntzarik ez dago: persieraz, turkieraz eta arabieraz mamitutako nahaste-borraste bat besterik ez da hizkera hori, eta kurdorik ez du hiru bat mila hitz jatorrizkorik baino». Justiziaren ministroa zabalago da; eta, nahiz kurdotar hizkuntzarik ez dagoela esan, «zortzi bat mila hitz jator» ba dagoela aitortzen du... Hots, jakina denez, kurdoera iraniai hizkuntza-taldeko mintzaira da; urrun da bai arabieratik bai turkieratik; eta literatura pizkunde bat ezagutu du azkeneko ehun urteotan, bi mendez gain-behera erori ondoren.

Gauzak horrela, ez da harritzekoa eskolaren mailan Ankarak daraman politika: eskolan turkieraz erakasten da erresuma osoan, eta kurdoeraz inun ez. Hau astakeria da, jakina, ondorioei begiratuta; eta Zuzenbideari dagokionez, etnozidio nabarmena.

Maisu batek P. Balta-ri azaldu dionez, «herri txikietan haurrek ez dakite hitzik ere turkieraz eskolara sartzen direnean». Zer gertatzen da? Haurren trajeria ezaguna da: ez dutela laurdena ere ikasten, eta hori bera gorriak ikusita. Bost urtetako eskolaldi hori bukatuta, berehala ahaztutzen dute gazteek haurtzaroan ikasitako «laurden» hura bera, baita hizkuntza arrotza batera; beren artean ez baita kurdoeraz besterik mintzatzen. Guraso askori, horretara, eskolaldia bost urte «galtzeko» besterik ez dela iruditzen zaio; eta ez ditu seme-alabak eskolara bidali nahi. Kurdotarren analfabetismoa zuzendu ezina da (eskolen urria oraingoz

alde batera utziz).

P. Baltak kondatzen duenez, berriro biltzen dute kurdotarrek gero turkieraren ezaguera. Noiz? «Soldadutza egi-terakoan». Nekazari askok esan dio gauza bera kazetalaritari: «soldadutzakoan birrikasi dut turkiera». Eta gero, bigarren aldiz, ahaztuko!

Erreboluzio abstraktoaren aldekoek ez dute (han ere!) hau guzia ulertzen. Eta igandeetan, kaletar turkiar ezkerkoiek kotxetan etorririk, «prise de conscience» eta «erreboluzioa» predikatzen dituzte. Baina bertakoekin ezin ego-kituz, baserritarrek begi txarrez begiratzen dituzte azkenean, eta entzun ere ez dituzte egiten, P. Baltak azaltzen duenez «gauchistak» arrotz gertatzen dira kurdotar nekazarien artean (Kurdistan-en %-eko 80).

Hala ere Turkia-ko Kurdistan-go herria biltzeko bidea gauza nabarmena da, eta mogimendu berrietan nagusitzen ari bide da. Etnia-problema nabarmen bat dago: herri bat zatitua, eta bere izanean ukatua. Eta «statu quo»aren aldeko gizarte-estrukturak, beste leku askotakoak berak dira: ba dago «aga» delakoa, lur zabalen jabea; eta ba dago «hodja» delakoa, erlijio eskuindar baten predikaria. Bi hauek «ordenua» nahi dute; alegia, Ankara-ren inperialismoaren iraupena eta nekazari txiroen zanpatzea aurrera se-gitzea. Bertako jauntxoak, beraz, eta bertako eliza, atze-rritar inperialismoaren beso bihurtzen dira. Kurdotarrak libratzeko ez da etnia-arazoa ukatu edo disimulatu behar, bultzatu eta azkartu baizik, kurdotar herri hori kurdo iza-teko bide politikoa emanaz: alegia, askatasuna. Eta «aga» eta «hodja» delakoen kontra jokatu behar da ausarki, lu-rrak eta izpiritua herriaren eskuetan jartzeko, ekonomiaren eta kulturaren alienazioak erazteko. Ezkertar erreboluzioa, hortaz, eta abertzale liberazioa, Turkia-ko Kurdistanen apa-rato berberaren kontra eta traidore berberen kontra burutu behar dira.

Baina kurdotarren arazoa ez da turkiarrago, persiarra baino. Kurdotarren problema eta turkiarrena desberdinak dira funtsez. Kurdotarren problema eta turkiarrena ez dira berbera; baina, memento batez etsai batzu izan ditzakete berberak. Berdintasun hau taktikari dago, ez estrategiari.

Ongi ulertu du hau Nayef Hawatmeh-ek, Palestina-ko

hiru mogimendu inportanteenetan ezkertarreneko buru: «Le FDLPP reconnaît le droit imprescriptible du peuple kurde en Irak, en Turquie, en Iran et en Syrie à disposer de lui-même sur son territoire» (XI-1969).

Ankarak ere ba daki; eta obrak eta industrializazioa abiatu ditu. Baina kurdotarren hizkuntzazko agerkariak oro debekaturik daude Turkian; eta kurdotar alfabetoa bera legetik at jarria. Ankara-ko zapalketa, Teheran-goaz bezala, ETNOZIDIOAREN ALDETIK egiten da. Barzani ez da inoiz ultra-ezkertarra izan; baina napalmez tratatu dute Bagdad-eko gobernu guziek. Eta ingelesak ez zuten besterik egin lehenago... Ekonomiaren mailan zerbait amor ematea ba liteke. Baina kurdotar nortasuna egiazki babes dezakeanik ezer ez da zilegi. Horra jokabidea.

Ezin hobekiago ulertu du egoera Paul Baltak: «Si des réformes ne sont pas rapidement entreprises, on peut estimer que les revendications culturelles, voire nationales, finiront par se substituer aux revendications sociales». Gizarte-burruka «huts»etik, beraz, abertzaletasunera lerratze-ko «arriskua» ikusten dute denek.

USA-k, bestalde, «bakea» nahi du eskualde zail horretan; eta kurdotarren eskubideez trufatzen da.

Ez litzake harrigarria izango, beraz, ondoko hilabeteetan edo urteetan Turkia-ko (edo beste lekuetako) kurdotarrek beren burua gogorki erakustea, Irak-ekoek Barzani-ren zuzendaritzapean erakutsi duten bezala.

(1971)

LIBURU BAT GALES-I BURUZ

Inglesez dakiten euskaltzaleei liburu bat gomendatu nahi nieke bihotzez: Ned Thomas-ek argitara berri duen «The Welsh Extremist» deritzana (Ed. Victor Gollancz, London, 1971). «Euskeromano»on kontra mintzatzean gorrotoaren lerdea darien ezkerkoi batzuek, liburu hau irakurrita ezin garrazkiago sufrituko lukete; argi-eta-garbi agertzen bait zaio irakurleari guk, «euskeromano»ok ditugun «setak», «te-mak» eta «racismoak»; eta berek duten sasi-abstrazioa eta urrundu-nahia, ez direla gaurko European... eguneroko ogia besterik! Orain dela 50 urtekoen eguneroko ogia izan ziren bezalaxe!

Galestar sozialista gazte bat da Ned Thomas: 35 urte. URSS-en bizi izana, berriki Gales-a bihurtua, bere herriko pizkundean orain dela oso gutxi abiatu da: hiru urtez gezoztik ez besterik.

Galestarrak (Kymri-tarrak esanez atseginago izango gatzazkie, «Wales» hitza, inglesa denez, arrotz baitzaie) bi miloi eta erdi lagun dira; eta Bretaña Nagusiko Mendebaldean bizi dira, Irlandarekiko aurrez aurre. Bi miloi t'erdi horietatik, 650.000-k dakite gaur kymri-eraz. Orain dela 50 urteko

estadistiketan ageri zenez, 1921-an 930.000 lagun mintza zitezkean kymri-eraz. Hizkuntza, beraz, atzera ari da aspaldidanik: 50 urtetan % 30 galdu. Inglesa da lege-hizkuntza bakarra 1536-ez geroztik. Hiriak ditu galduenik: Cardiff, esate baterako, ikatzaren kaia, 275.000 biztanle, osoki dago inglesturik; eta Swansea-n, 160.000 biztanle, 25.000 inguru kymri-dun aurki daitekeala dio Thomas-ek: hau da, seirentsu bat. Herri txikietan eta nekazarien barrutietan proportzioa haundiagoa da. Kondairan lehenengo aldiz, Gales-ko aberzaleek ba dute gaur deputatu bat Londres-en (bakarra, dena dela, beste 35 galestar deputaturen aurrean).

Emigrazio-herrialde bat da Gales, ikatz-eskualdeetatik at batez ere. Ned Thomas-ek dionez, urtero 10.000 lan-postu galtzen dira.

Galestar sendimenduaren azkartzea, eta Londres-en kontrako joera, biak batera jakina, XIX mendean sortu ziren. Ehun urte haietan, 8.425 liburu argitara ziren kymri-eraz (alegia, 84 liburu urtekal, batez beste) eta gaur 150 liburu agertzen dira urtero. Euskal Herrian baino aisa gehiago, beraz.

Hizkuntzaren gainbehera ez da gelditu, halere.

Eskoletako paretetan hau irakurri izan da eskuarki: «Welsh Not» (alegia: Kymri-erarik ez). Eta gure arteko eraztunaren zigorra, zurezko koilarearena bihurtu zen Gales-en: zurezko kutunaren koilera zeukan haurrak, kymri-eraz hitzegtien entzuten zuen beste haur bati pasa zizaiokean, eta honek berebat beste bati, eta abar; eta horretara, azkenekoz koilare hura zeraman haurra, makilatu egiten zuen eskolako maisuak. Jokabide «demokratikoa» omen. Gertakari hauek «fazismoa»ren bidez azaldu uste dituzten ezkerkoi erderomano horiek zer dioten jakin nahi nuke; Londres-en, nik dakidanez, ez baita inoiz «fazismo»rik izan! Ezta kapitalismo haundirik ere 1536-an.

Baina izokiak errekan eta uxolean gora bezala, galestar pizkundea ere kontrakarrean ari da, baina gora; eta Kymri-erarekiko gogoia poliki-poliki zabaltzen hasi da Gales-en. Ez herri xehean oraindik, hau eskolaren, ustekerien eta mass-media mota guzuen jopua delako. Baina bai ikasleen artean eta galestar ikasien artean. Ingles sozialistak, galestar mogimenduan ezer funtsezkorik ezin atxemanik, atzera doaz gaur baita ikatzaren eskualdeetan ere; eta hauetan be-

retan, aldiz, galestar abertzaleak aurrera. Gales-ko Labour Party-koek «fazismoa» eta «atzerakeria» salatzen dute abertzaleengan. Galestarrak, ordea, ez dira gaur eskuindarrak. Dinamika dakarren gazteriak, horretara, hautakizun bakar bat dauka begien aurrean: abertzaie eta sozialista-berri izan; ala ingeles inperialista eta paleo-sozialista. Eskuindar kilikaldirik ez dator-eta gaur. Gales-ko abertzale gazteak, hortaz, askoz hobeki moldatzen dira «New Left» delakoarekin (Ezker Berria-rekin), Labour Party-ko «apparatchiki»ekin baino. Hauek gertu daude (eta ez beti!) Naga-tarren edo Uzbek-tarren alde mintzatzeko, urrungo aferak direlako hain zuzen; baina bertako galestarren kontra mintzatzetakoan, ez dute aski hitz gogorrik eta bortizik aurkitzen hiztegia!

Hizkuntzaren garrantziaz jabetzen hasiak dira gazteak; eta hauen izenean lerro hauek idatzi ditu Ned Thomas-ek; «It is a revolutionary act to revive the Welsh language in Wales».

Zein hizkelgi edo dialektoz mintza, ordea? Ezen han ere Kymri-era anitz hizkeratan zatiturik baitago: «mila pasadizu entzun daiteke han eta hemen —dio Thomasek— Iparraldeko eta Hegoaldeko galestarrek, ezin elkar ulerturik, inglesera jotzera behartuak». Eta abar. Teknikari buruz, eta tresna eta ideia berriei buruz era berean, kymri-dunak ez daki askotan nola esan esatekoa. Eta, alderantziz, hizkuntzak bide seguru bat eman lizaiokean puntuetan, eskolarik eza dela-ta, zalantzan egon ohi da hiztuna den herri xehea, ideiak inglezetaz taxutzen, prestatzen eta azaltzen erakatsi zaiolako.

Denen kontra jokatzuz, beraz, kymri-era oraindik bizirik dagoen herrialdeetan, zenbait ikastola sortu da kymri-eraz. Bigarren erakaskintza-mailan, berriz, lau lizeo daude gaur: bi Glamorganshire-n, eta beste bi Flintshire-n; eta hauetan kymri-era mintzabide eta ikas-tresna izan dedin saiatzen ari dira «ahalik eta gehienik» («children are taught mainly through the medium of Welsh» dio Thomasek).

Hizkuntza galduago dago Hegoaldeko ikatz-mien lurraldeetan, baserrienetan baino, jakina. Baina abertzale pizkundek, hastapenean hizkuntza bizirik dirauen herri txikietan ez bestetan hoziturik, gaur itsatsi egin du Gales guzian; eta Hegoaldean ere Iparraldean hainbatsu abertzale aurki dai-

teke Thomas-ek dionez, eta hizkuntzaren ikasleen artean «kymri-dun-berri»rik ez gutxi.

Ned Thomas-ek dionez, Bretaña Nagusiko sistemaren barruan Gales-entzako irtenbiderik ez dagoela uste du gaur gazte askok; eta «Plaid Cymru» alderdi zaharra (alegia, adinetako abertzaleen partidua) gero eta ausarkiago maiseatzen dute. Gazteen artean, beti Thomasen ustez, bi joera daude gaur: bata, dio, Gales-ko Armada izkutuaren ingurukoek bereziki, indarka eta bortxaz nahi du jokatu; eta besteak (eta Ned Thomas-ek berak ere bai, itxura denez) Gandhi-ren bidetik jokatzea nahiago luke. Baina batek eta besteak Londres-ko Parlamento-tik at, eta legetasunaren jokotik at, ikusten dute bidea; eta, honengatik, Plaid Cymru-ren aurka daude; eta honen legetasun-nahia eta sistema-barne-nahia kondengarri eta denbora-galtze hutsa iruditzen zaie. Eta Thomas-ek berak azaltzen: «Egia esan, Gales-i eman zaizkion lege-laguntzak, bai Konstituzioaz bai hizkuntzari dagokionez, ugariago lortu dira bonbak eta istiluak gertatu direnean, inoiz baino».

Alderantziz, Plaid Cymru-koek «Free Welsh Army» delakoak osoki kondematzen ditu, eta erotzat hartzen. Gales-ko abertzale gogorrenak, horretara, kontra dituzte bai Playd Cymru-ko legezaleak bai Londres-ko aparatoa. Biak ados dira gazteen jokabideak zapuzteko.

Bortxaren aldekoak hasiak dira organizatzen; eta bortxa-giroa 1969-an sortu zen lehenengo aldiz. Urte hartan, Londres-ko gobernuaren batimenduan (Abergele herrikoan, Iparraldean) jarri behar zuten bonba eskuetan leherturik, bi abertzale gazte hil ziren, martirien lerrokada hitsaren «bi lehenengo izenak» idatziz, Thomas-en hitzez esateko. 1969-ko udara hartan berean, Gales-ko Armada izkutuaren kontrako hauzia izan zen Swansea. Hauziaren erdian eten-dura bat gertatu zen, entzule zegoen jendea zutitu egin zen bapatean, eta hauzitara eramandakoekin batera kantatu zuen berotasun harrigarrian Gales Askatuaren himnoa. Londres-ek garbiki ulertu zuen (nahiz aitortu ez badu ere) FWA-ren ekintza gogorra ez dutela galestar guziek gaitzesten.

Gwenallt idazlearen biziera eta gorabeherak ikusita, ezinezkoa izan zait Rikardo Arregiz ez oroitzea.

Beste mila xehetasunetan gogoeta-iturri bikain aurkitu

dut neuretzako; eta irakurleak ere aurkitu egingo luke, ene ustez.

Oso jakingarriak, beraz, Ned Thomas-ek Gales-ko «neurosis» ezagunaz (hitz hau berau erabiltzen ez da herabe Thomas, eta lasai erabiltzen du) ematen dituen berriak. Batzutan guretzako propio idatzita dirudite.

(1971)

BALLYMUN

Bereziki gure hizkuntzaren kezka fina dutenentzako idazten ditut gaur lerro hauek. Eta pozkario litzaidake artikulua hau zenbaiti gogoeta-iturri eta ondorio-eragile gertatzea.

Herrien eta hizkuntzen gorabeherak zientziakiro behar dira aztertu. Hots, ahotan «zientzia» eta «zientifiko» hitzak maiz darabilzkiten batzuek, ez dakite, itxura denez, ezertxo ere hizkuntzen bizitzaz eta heriotzaz; eta, okerrago dena, ikasteko asmo mendrenik ere ez dute ageri.

Orain dela bi hilabete manifestazio baketsu bat izan da Eire-n (Hegoaldeko Irlanda askatuan, alegia), Baile-Muna deritzan herrian (Ballymun ingelesez). Fotoak ere ikusiak ditut. Hauetan guraso eta haur mordo bat ageri da, pankarta askoren eramale; eta pankarta horietan, denak gaelikeraz idatziak, Dublin-go Gobernuaren kontrako hitz gogorak irakur daitezke. Manifestazioa Ballymun-go Erakaskintzaren Ordezkaritza ofizialeko lekuetan egin zen. Zergatik?

1964-an lege bat eman zuen Dublin-go Gobernuak: 10.000 biztanletatik gorako hiri guzietan, eskola bat gutxienez zabalduko zen gaelikera hutsez («gaelik» da Irlandako zelta hizkuntza). Garbikiago esan dezagun: herri haundietan gaeli-

kerazko «ikastola» bakar bat gutxienez.

Ballymun-go guraso batzuek, legezko eskubide hori baliatuz, ikastaroa hasi baino lehenago gaelikerazko ikastola bat zabaltzea eskatu zuten. Ballymun-en ba daude, hain zuzen, ingleseko eskola batzu (ez ba^t bakarrik, beraz). Dublin-go Gobernuak ezezkoa eman die guraso horiei. Eta ukiera horren ondorioz izan da joan den Urrian gorago aipatu dugun manifestazioa (manifestazio ahula, dena dela).

Dublin-go Gobernuak orduan, «soluzio» bat aurkitu du. Ballymun-go eskola ingeles horietako batetan, alboko bati-mendu prefabrikatu kaxkar batetan, gaelikerazko ikastola bat zabaltzea erabaki du. Leku txarra guziz. Gurasoek, besterik ezean, amor-eman egin dute. Gaelikeraren defendatzailea den «Conradh na Gaeilge» organizazioak beste protesta bat bidali du Dublin-a, esperantza haundirik gabe; eta Irlanda Askatuko Gobernuak «full of Quislings» dagoela salatu du; hau da, traidorez josia dagoela. (Quisling izan zen, irakurleak dakikeanez, azkeneko mundu-guduan Hitler-ekin kolaboratu zuen noruegatar buruzagi ustela).

Gertakari harrigarri hau ez da lehenengoa Irlanda Askatuaren kondairan. Hizkuntzaren pizkundea ez zuten behinere gogor hartu Irlanda-ren askatasunaren alde burruka egin zutenek; eta Albert Dauzat hizkuntzalariak dionez, «au XIX siècle le mouvement nationaliste fut conduit en anglais par des hommes qui ne parlaient que l'anglais». (Euskaraz: XIX mendean, abertzale-mogimendua ingelesez eraman zen aurrera, eta ingelesez besterik ez zekiten gizonek zuzendu zuten). Eta askatasun politikoaren ondoan ere (1921-ez geroztik) itxura egin da, espantu haundiak (1922-an «nazio-hizkuntza» aitortu zen gaelikera; eta 1937-an «lehenengo lege-hizkuntza»); baina Irlandako aintzindariak beren hartan segi zuten, ingelesez barra-barra, hizkuntzaren problema zinki senditu ez dutelako.

Irlandarrak separatistak ziren Londres-i buruz, katoliko integristak, bortxaren aldekoak, eta abar. Etnia-funtsa Irlandan galdu ala, halere, aldakuntza bat gertatu zitzaion irlandar garrari; eta, inkontzientean gertatu ohi den bezala, mami berberari («adierazi» berberari, estrukturalistak bezala mintzatzekotan), Londres-en kontrako herra berberari, beste sinu bat, beste arrazoin bat itsatsi zitzaion, alegiazkoa,

edo ausarki hanpatua bederen (beste «adierazle» bat). Irlandako gaelik-tasuna, erlijio-integrismo bihurtu zen; konplejoetan eta ametsetan, Freud-ez geroztik dakigunez, egiazko problemari beste jazkera edo sinbolo bat erantsi ohi zaion bezala, eta psikiatra ez dena galbideetatik abiatuz.

Orain, noski, askatasunaren ondoko berotasuna itzalduta, gero eta okerrago.

ROSC aldizkariak azaltzen duenez, hiru parte ditu Dublin-go Gobernuaren jokoak, gaelikera «garbiki» ehorzteko:

- 1—Diru-aitzekiak aipatuz, moldiztegitik aterarazi ditu gaelikeraz prestatzen ari ziren liburu batzu. Eta horrela gero «libururik ez dagoelako», ingelesez eman-go da erakaskintza.
- 2—Maisu eta maistrentzako Eskola Normaletan gaelikeraren kontrako ideia-lana egiten da.
- 3—Ministerioko ordezkariak berak herriz herri ibiltzen dira, eta bertako erakasleei gaelikera alde batera uzteko eskatzen diete.

Gaelikerazko erakaskintza, horretara, gain behera doa sail guzietan:

Lehenengo mailan	1940	280 ikastola.
	1971	52 ikastola.
Bigarren mailan	1940	100 lizeo
	1971	20 lizeo

Gaelikeraz mintzatzen DAKITEN (ez dugu «darabilten» esan, kontuz!) irlandarren kopuruak hauek dira:

1800	4.000.000 hiztun
1911	436.758 hiztun
1921	280.000 hiztun (Askatasun-Urtea)
1956	85.547 hiztun

Zifra hauek ofizialak izanik, egia izkutatzen eta apaintzen dutela ez dago dudarik.

Gauzak oraindik ere harrigarriago dira. Dato ofizialek berek diotenez, 1961-an erakasleen %96-ek dakite gaelikeraz! Eta egia da diploma bat bildurik dutena; guk hemen ingelesezko diploma bat izan dezakegun bezala... Ehuneko 96 hori sinetsiz gero, Gobernuak benetan gaelikera erakastea nahi ez duela aitortu behar da.

Dublin-go Gobernuak zuritu egin nahi du bere burua,

noski. Eta gaelikera-dunen kopurua, diplomen arabera kon-
datzen du:

1936 666.601 lagun

1946 588.725 lagun

Halaz ere, beraz, zifra hauetan beretan ageri denez, diplo-
matuen itxura hori bera doa gain-behera.

Dublin-go Gobernuak, hitz batez, ez du jokatu Londres-
-koek baino hobeki. Zergatik? Ba dago zer pentsaturik. Eta
ez zer pentsaturik bakarrik.

Kakoa gauza nabarmena iruditzen zait. Hizkuntzaren
hedaera txikia ez da aski: ez dira askoz ere zabalago dina-
markerarena, islandierarena, albanierarena, eta beste mila.
«Berandu hasi ziren», diote beste batzuek. Baina hau ere
ez da egia; beranduago hasi baitziren txekiarrek, eta are
beranduago juduak.

Irlanda Askatuko abertzaleen guraso abertzaleak, 1880-
-an eta 1900-an, «leporaino» zeuden, «buruko ileetaraino»
zeuden; baina isildu egin ziren, «pazientzia» hartu zuten,
eta... zulora joan ziren beren «leporaino»ko nazkak eta
guzti. Orain berandu da. Orain Gobernu Askatua dute kontra.

Uzta bildu nahi duenak, garaiz ere behar du; berandu
ereiteak eta ezertxo ere ez ereiteak ondorio berbera dakarte:
uztarik eza.

Irlandatarrek «gerorako» utzi zuten hizkuntzaren so-
luzioa, lehentasuna beti besteri eman zioten, irlandar pos-
tu gorenetan hizkuntza ez zekitenak onhartu zituzten, aber-
tzale burruka eta hizkuntzaren aldeko burruka elkargandik
berezi zituzten; eta, hitz batez, inglesa hartu zuten mintza-
bide bakartzat, eta gaelikera «taktikaz» behin eta berriz
baztertu. Geroko eta besteentzako utzi zuten gaelikeraren
arazoa. Eta hala gertatu da: gaelikera hildakoen arazo
bihurtu da, betirako «beste» gelditu diren horientzako...

Gauza ezaguna da: bideek baldindu egiten dute helburua.
Bidea eta helburua elkarri datxezko. Dialektika gure artean
horren modan egonik, hizkuntzaren etorkizunari buruz dia-
lektika-lege horietxen ondorio nabarmenak diren hauek nola
ez diren maizago aztertzen, eta azterketaren arabera gero
jokatzen, ez da ulertzen. Zer ari gara? Askari komeria! Eus-
kararen etorkizuna GAUR jokatzen da, ez bihar; AURTEN,
ez geurtz.

Ballymun-en etsenplu hits hau euskaltzale gazteen gogoan nahi nuke itsatsi, ikaspide ezin argitsuago delako.

Gaurtxe dugu euskaldunok erdaltzaleak apaltzeko behar hertsia. Gaurtxe, nik uste; ez bihar, ez inolaz ere etzi. Gaurtxe. Ala Ballymun datorkigu, hori ere baldin badator...

Euskaltzaleok elkarrekin erabaki behar dugun arazoa da, noski, gaurko hau; beste guziak bezala. Baina ba dirudi adar iharrak ebakitzeko parada heldu zaigula. Eta adar ihar horiek zein dira? Morroin-usteatik. Euskaldunok gehien-goia garen bilkuretan, eta areago «euskal» taldeetan eta organizazioetan; zuk dazkizun hitzak gogoratuz beste guziok erdal monolinguisimora bortxatzen gaituzten horietan, EZ guzizko bat botatzeko garaia etorri da.

Bilbon eta Maulen, Leitzen eta Arrasaten, Ondarruan eta Hazparnen, euskal arazoei buruzko bileretan oso bereziki, Ballymun-ik ezagutu nahi ez badugu, gaurtxe da nik uste eguna, ZER GERTA ERE, eta NOR HASARRE ERE, «denbora-galtze»aren eta «edukazio-falta» horien gainetik. planto egiteko; eta interpreteak eskatuz ala bileratik anka-eginez, euskaraz GURE ARTEAN BEDEREN dituen esku-bideak errespetarazteko.

Ez elizan bakarrik, anti-klerikalismo erraz bat egiteko. Ez dendetan eta barretan bakarrik. GEURE ARTEAN aurrenik, euskal ekintzetan bereziki, eta geure «borrokakideek» (?) gu euskaraz mintzatzen jasan gaitzaten.

Denona da azken hitza.

(1971)

DEIHADAR BAT LETONIATIK

Estonia, Letonia, Lituania... Eskolan ikasi genuen erre-suma-ilara hau ezaguna zaigu. Zer dakigu, ordea, Baltikoko herri horien gaurko egoeraz?

Letoniako 17 komunista intelektualek egun hauetan, Europako Komunista Alderdi batzuen bitartez, ezagutarazi duten txostenak, horrela, askorentzako ilunpetan datzan herri baten berri eman digu. Hots, zoritxarrez, deihadar etsi gisa heldu zaigu Riga-ko dei hori (ikus Bernard Féron-en artikulua, «Le Monde», 1972 - III - 8).

Deia sinatu dutenak 17 komunista dira: batzu 25, eta beste batzu 35 urte honetan ere, Sobietar Alderdikide izan dira. Xehetasunez ezagutarazi dutenez, Moskuk gaur des-letonitarkuntza, alegia, letonitar herri-nortasunaren suntsiera, darama aurrera («assimilation forcée» aipatzen dute, frantsesezko itzulpenean); eta egoera eta jokabideak hitz gutxitara bilduz, hau diote: Letonian «txobinismo errusi-koiaren aitzekia bihurtu da leninismoa». Bidenabar esan dezagun: Letoniak 2 miloi lagun ditu; URSS osoak 240 bat miloi.

Berklaf-arazoa gogorazi digute letonitar intelektualek.

Berklaf zeritzana Riga-ko Komunista Alderdiko burua zen, eta beti saiatu zen errusitar-kuntza horren kontra jokatzeko. Burruka horretan Komunista Alderdiko eta Gobernuko zenbait lagunen laguntza bildu zuen, eta hauek guztiek batera jokatu zuten Moskuren kontra. Krutxefek hori ikusita, bera joan zen Rigara, «letonitar txobinismoa» salatu zuen, eta bai Berklaf bai beste 25 alderdi-kide bota zituen kanpora.

Geroztik gauzak ez dira Letonian ondu. Goiko postuetan errusitarrak dira nagusi. Lehendakari eta Zuzendarien ordezkioak beti eta derrigorrez errusitarrak dira; eta Letonian buruzagi izateko errusiera ezagutzea beharrezkoa bada ere, letoniera jakitea ala ez jakitea berdina da. Riga-ko Lehen Ministroa, era berean, letonitarra izanik ere, errusieraz mintzo da beti biltzarretan; eta inguruan dituen laguntzaileek, Errusiatik etorri direnez gero, jakin ere ez dakite letonieraz. Goitik ematen den etsenplua, horretara, letonitar nazio-nor-tasunaren kontrakoa da arras.

Hamazazpi intelektualek diotenez, hauxe da egoera zifratan. Letoniako Barne-Ministerioan, % 80-ek ez dakite letonieraz; merkataritzan ari direnen artean % 49-ek ez dakite; osagileen artean, % 65-ek. Eta lantegietan hauxe izaten da egoera normala: langileak letonieraz ari, partiduko ardura-dunak eta lantegi-buruak errusieraz.

Rigako jendaketa gero eta errusitarrago da. 1959-rako letoniarrek % 45 besterik ez baziren, 1970-an % 40 baizik ez dira; eta Letonia osoan, % 62-tik % 57-ra pasa dira letonitarrak.

Horra hor, hitz gutxitan, hamazazpi letonitarren txostenaren laburtzapena.

Berri hauek, halere, ez zaizkie batera «berri» URSS-eko politika-bidea pitin bat ezagutzen dutenei. Abdurakhman Avtorkhanof-ek 1965-an argitara zuen ikertzapen argitsuan xeheki eta dato-iturriak etengabe aipatuz azaldu zuenez, gaur Letonian ezagutarazi diren gertakari eta zifra horiek, jeneralak dira beste anitz lekutan; eta egoera txarragorik ere badago (Kazakstan-en eta Kirghizia-n, esate baterako).

1917-ko Iraultza gertatzean, zarismoaren basakeriak zeharo ukaturik, oso indar handia zuten Mosku-ren kontrako abertzale mogimenduk URSS guztian; eta Leninek baze-

kien. Komunista buruzagiak ez ziren beti errusitarrak: bi ezagunenak aipatzekotan, esate baterako, Stalin georgitarra zen, eta Krutxef ukrainarra.

Lehenengo urteetan, horrela, 1920 inguruan alegia, Moskuk herri ukatu eta zapaldu horien aldeko politika eraman zuen aurrera; eta, esate baterako, sekula idatzi ez ziren hizkuntza batzu idatz-arazi egin ziren, eta eskolara sartu. 1922-ez geroztik, halere, Leninek berak aitortu zuen errusitar inperialismoaren piztea somatzen-edo zuela; eta hil arte kezka eta bildur honetan tematurik egon zen.

1940 orduko suntsituak ziren haserako errespetu-joe-ra haiek; eta geroztik URSS-en ikertzaile guztiek azaltzen dutenez, errusitar inperialismoa gero eta indartsuago dago; eta marxismo-leninismoa eta errusitar kultura-moldeak berezi ezinak dira.

1945-ez geroztik, beharrezko bihurtu zen errusiera eskoletan; eta ez beti bigarren mailako hizkuntza gisa. Letonian, adibidez, «bimintzo»-dun eskola asko dago: alegia, hurrekin **batera** letoniera eta errusiera erabiltzen dituzten horietakoak. 1963-an Letonia-ko 75.000 letonitar hurrek «errusiera eta letoniera batera» ikasten zuten 240 eskolatan.

Errusitar-kuntza-politika honi «internationalisation» eta «lutte contre le sous-développement idéologique» deitu diote Moskun. Letonian, jakina denez, oso komunista gutxi dago, Errusian daudenen erdia baino gutxiago arabera: Errusian % 5,4 dira Alderdikoak, Letonian % 2,4 bakarrik. Hizkuntza ofizialean honek oso «politika-jakintza ahula» erakusten du; eta horretatik heldu da Letonia «internazionalizatzeko» beharra.

«Internazionalizazio» horretan, taktika ezaguna eta nasaiki erabilia da jendetzen ckarrera eta aldaira. «Mugarik gabeko gizarteruntz» ausarki abiaturik (ikus 1961-ko erabaki nagusiak), eta «txobinismo hertsia» hiltzekotan, Komunista Alderdia orain dela 11 urte erabaki zuen jokabidea betetzen da alor honetan (= «intensification de la politique des migrations massives»). Gauzak horrela, errusitar jendea bidaltzen da Errepublika horietara. Rigan, esate baterako, eta 17 intelektualek azaldu dutenez, urtero doaz 25.000/35.000 lagun, gehien gehienak errusitarrak izaki (Errusiak 117 miloi lagun izaki, ez da hori zaila).

URSS-en eslabitartzea, horrela. beste izen batzu erabilita ere, goitik agindutako bideetatik obratzen da gaur; antzinan zarismoaren garaian paneslabismoaren helburuei buruz bezalatsu. Eta «eslabitar kolonizazioa» aipatzen delarik, egia hutsa aipatzen da.

Molde berriko kolonizazio hori azaldu du letoniar intelektualen txostenak. Europan entzuna izango ote da?

Geroak erranen.

(1972)

LIBURU IRAKURGARRI BAT

Orain dela zenbait denbora (Peru-ko J. M. Arguedas-en heriotza gertatu ondoren) aldizkari honetantxe aipatu nuen Hego Ameriketako ketxua-tarren egoera; eta, Peru-n eta Bolibia-n batez ere, indiotasunean pizkundera gauza nabarmena zela eta ezker aldetik zetorrela adierazi nuen.

Fenomeno berbera, eta politika alderdi beretik, gertatzen ari da Guatemala-n; eta honen berri, mamitsu eta zehatz, eman digute J. L. Herbert-ek eta C. Guzmán Bockler-ek beren «Indianité et Lutte de Classes» liburuan (Collection 10/18, Série 7 - Union Générale d'Éditions - 1972). Liburu hau Mexiko-n eta espainiaraz agertua da lehenago (Edit. Siglo XXI, 1970). Ene ustez euskaldun ezkertar guztiek irakurri beharko lukete, eta irakurria ez litzaieke damutuko.

Guatemalak bost miloi biztanle ditu ehun mila kilometro laukitan. Horien parte handi bat, ia erdia (% 41) indio hutsek osatzen dute (maya-tarrek xuxen mintzatzeko); eta oraino beste parte bat xarneguek. Etnia-banaketa, jakina, mintzatua den hizkuntzaren arabera egiten da: gazte-lera / maya. Hirietatik irtenez gero, maya-tarrak dira nagusi, 1524-an espainiarrek eskualde haiek guduz eta indarrean

bildu eta okupatu zituztenean bezalatsu. Analfabetoen kopurua eta mayatarren kopurua, bestalde... ia-ia zifra berbera dira!

Herbert-ek eta G. Bockler-ek lau filosofo aipatzen dute maiz: espanyatar kolonialismoa ulertzeko eta azaltzekotan, Américo Castro; eta kolonietako askatasunaren sustraia ongi zeaztutzeko A. Memmi, F. Fanon eta J. P. Sartre. Bikaina da azterketa, eta eskaintzen diren datoak ikusita garbi ageritzen zaigu Guatemala-ko egoeraren gakoa.

Berariaz diote bi idazleek hitzaurrean, bi luburu-mota idatzi ohi dela gaur kolonialismoaren arazoa duten herriez. Alde batetik, diote, erresuma kolonialistetan bizi diren ezkertarrentzako idazten direnak; eta bestetik, burrukan ari diren herrientzako berentzako idazten direnak (gutxienak, jakina). Guatemalatar idazleok jator aitortzen dute: beren liburua Guatemalako iraultzaileen zerbitzutan idatzi dute, eta ez Paris-ko edo New York-eko aurrerazaleen onginahia biltzeko edo hurbiltzeko asmotan.

Posible ote da, galdetzen dute, egiazko Guatemala bere buruaren jabe bihurtzea? «Umo eta hel ote daiteke guatemalatar naziotasuna?». Honen ezinbesteko baldintza ez zaie zalantzakoa iruditzen: «Alegiazko latino-tasunaren suntsiera, eta indio-tasunaren jasoera eta baiespena». Guatemalaren iraultza «alde horretatik» bilatu behar da. Guatemalako gorabeherak eta etorkizuna konpreni-arazteketan etni-arazoa bigarern mailan utzita eman ohi diren sasi-azalpenek, ez dute funtsik: «Réduire l'histoire de ces régions... à la dialectique du capitalisme international, est une manière de pulvériser ou de nier leur réalité spécifique». Herbert-ek eta G. Blockler-ek kondaira eta klase-azterketa sakonak egin ondoren, behin eta berriz aipatzen dute Guatemala-ko habe nagusizat dadukatena: badagoela bertan, diote, «une identité historique menacée» (= kondairazko herri-nortasun bat arriskutan).

1524-an maya-tarren kultura «gainbehera» omen zihoan iritzi ezaguna ukatu egiten dute bi idazleek, eta zehazki frogatzen. «Gainbehera»ren teoria hori, diote, kolonialisten aitzekia izan da (Guatemalan eta bestetan); ezen herri bat gainbehera amilka baldin badoa, ohiturak laxatu baldin bazaizkio, desordenua nagusitu baldin bazaio, odol-saria

baldin badu eguneroko ogitzat eta, hitz batez, bertako herria zapalduta eta desegina baldin badago, erantzuna ezin daiteke luza; okupatzaileak salbatzaile dira, eta «beharrik etorri ziren hara kolonizatzaile bedeinkatuak» esan behar da.

Hots, hau, Guatemalari dagokionez, gezur hutsa dela frogatzen dute gure idazleek. 1524-an maya-tarren kulturak ez zion Españaikoari zorrik.

Aita Santuak, halaz ere, berehalaxe bedeinkatu zuen Ameriketako herri haien zapalketa (urtebete ere ez zen igaro Españaren aldeko bulda bat prestatzeko); nahiz mende erdi bat behar izan bazuen Vaticanoak «indioak benetako gizonak» direla aitortzeko... Horrela, Jesukristoren izenean eta aurrerapenaren izenean, maya-tarren zapalketa luzea hasi zen, horretan Elizak parte ezin-larriagoa hartuz. Lau mende t'erdi pasa dira. Guatemala herri «latino»tzat presentatzen da munduan, soziologiazko azterketarik xumeenak erakusten duen egiaren kontra. Baina horrela lasai gaude: «indioak» (onak eta jatorrak, jakina, zapaldurik dauden guztiak bezala) mendian bizi dira, «baketan» omen, eta «zoriontsu» omen... Ipuin ezaguna! «Les braves montagnards» ... «los sanotes habitantes de las montañas»...

Hots, bi idazleok azaltzen dutenez, makina bat aldiz altxa dira maya-tarrak beren askatasunaren alde, behin errege izendatuz: 1708, 1743, 1760, 1764, 1770, 1803, 1818, 1820, 1838, 1839, 1898, 1905 eta abar, gaur arte.

Kolonialisten irizpidea betikoa izan da: «maya-kitxe» kultura **bakar** bat aitortu beharrean, «tribalismoa» aipatu dute (leinu eta tribu **asko** dagoela, elkarren kontra burrukan, «les cultures guatémaltèques»), indioen arteko herrak piztu edo azkartu dituzte, funtsezko batasuna ukatu, eta... mogitu direnak urkamendira eramana.

Zanpaketa hau, jakina, kolonialistek berek obratu dute aurreko mende zaharretan; baina bertako «ladino»ek geroago Madrilletik askatzean. Guatemala, horrela, «kanpoko» kolonialismotik «barneko» kolonialismora pasa zen; eta maya-tarrak lehen bezalatsu gelditu. Esate baterako: kulturaren mailan, 1824-koa da maya-tar hizkuntzaren kontrako lehenengo dekretu nabarmena.

Herbert-ek ongi azaltzen du aurkatasun nagusia, fun-

tsean, XVI mendeaz geroztik, beti dela berbera. Alde batetik «ladinoa» dago (haserako «pieds noir» edo kolonoen seme); eta bestetik «indioa», bertakoa. Arjelian, Ipar-Irlandan eta nun-nahi topatzen den eskema berbera, hortaz.

«Ladinoa» kaletarra da, des-naziotarturik dago, behe-reko lur ugarien jabe da, hizkuntza galdua du, berdin bertako erlijioa eta jatorrizko kondaira eta kontzientzia; ekonomiaren mailan bertakoen zapaltzailea da, eta politikarenean eta kulturarenean sarrera du, Guatemalako gobernua eta administrazioa bere eskuetan dituelarik. «Ladino»ak kolonialisten betekizuna hartu du bere gain.

«Indioa», berriz, menditarra da, mendialdeko lur idor-rak lantzen ditu, maya-tar hizkuntzaz mintzo da, bertako erlijio zaharra atxiki du, bere etni-taldearen kontzientzia badi (analfabetoak izan dezakean moduan); ekonomiaren mailan zapaldua da, eta politikaren eta kulturaren alorrean ez du sarrerarik. Gobernua arrotz izanik, «Indioa»k kolonizatuaren egoera jasaten du arras.

Kontrazio hau horrelaxe ikusten ez duenak, diote Herbert-ek eta G. Bockler-ek, ez daduka Guatemalako gorabeherak ulertzerik. Ekonomi-zapalketa ikusten ez duenean, ideiak erortzen da; eta, era berean, herri-nortasunaren alderdia ikusten ez duenean, ekonomikeriara lerratzen.

Hots, psikologiazko eta ekonomiazko arrazoinengatik, ladinoak ez du irteera bat baizik: gero eta areago begiak (eta pratika!) New York-en jartzea, edo garaiko inperialismoaren hiriburuan: Madrillen orain dela bi mende. Ladinoak, horretara, ez daduka nortasun jatorrik izaterik: galdu egin behar du osotara, bere guntza Guatemalatik at jarri behar du, inperialismoa aurrera joanago, eta areago; eta, hitz batez, ez maya-tar ez guatemalatar etorkizunik ez du: «il est en pleine crise d'identité». Soluzio bakarra, beraz, mayatarrek bere iraultza egitea da, beren burua askatuz, bertako kultura gidari jarritz, Guatemalako ekonomia ladinoen (eta inperialisten) eskuetatik kenduz, eta lehenengo aldiz Guatemala bere egiazko izana eta izakera emanetz: «L'alternative est claire: ou l'on en prend conscience, et il se formera une **identité collective propre**; ou ce que nous appelons aujourd'hui le Guatemala aura été la parenthèse non historiable **d'un peuple qui disparaîtra** en tant que tel». Américo Castro-

-ren ideia onartuz, gure idazleek lehenengo asmoari eusten diote irmoki: «Beren burua bereziz piztutzen dira herriak, beren burua indartuz eta besteetatik desberdinduz». Indio-tasuna, maya-tar nortasuna salbatzea, hortaz, Guatemala-ren etorkizunaren gakoa iruditzen zaie.

Gauza batek harritu gaitu, eta tristatu: M. A. Asturias idazle famatua (Nobel-Saria izana) ikuskera honetatik urrun dagoela jakiteak. Baina beste Nobel ezagun hura ere, aitor dezagun, oso uruti egon zen arjeliarren burruka latzeko garaietan: Albert Camus-*ez ari gara!* Eta ez askoz bertago ere, etxekoetara gabe, Joyce, F. Kafka eta Guéhenno beren herrien beharretatik. Zapaldutako gizarte batetan nekez izan baitaiteke zapalkuntzaren lekuko egoki, zapalkuntza betean kultura-arloez jatorriz arduratzeko aukera ekonomikoa izan duena. «Nekez» esan dut; ezinezkoa denik ez dut esango.

Kondairan lehenengo aldiz, dena dela, maya-tar batzu hasiak dira gaur ekonomiaren aldetik pitin bat bederen liberatzera eta gora heltzera; eta, berehalatik, mayatar kulturaren pizkundera eta kontzientzi-hartzea hasi dira: Maya-Kitxe Akademiaren sorrera, mayatarren kondairari buruzko liburuak, hizkuntzaren ikasketak eta aberasketak, hizkuntza galdu eta ikasten dutenen multzoa gero eta handiago, bi-mintzotasuna arazo gisa (elizan, irratian eta administrazioan), ortografi-eztabaidak («h»rik» ote dagoen ez dakit!!). Iraultza-nahiak maya-tar kolorea hartzen ari.

Beste herri bat hasi da esnatzen, beraz.

Eta zerbitzu bikaina egin diote Herbert eta G. Bockler idazleek.

(1972)

MAIRTIN O CADHAIN BAKARRIK HILA?

Ia bi urte dira Mairtin O Cadhain irlandar idazlea hil zela.

Nor? Hain zuzen ere, irlandar guztien izkribuak parekatu eta neurtu ondoren, bai gaelikerazkoak bai inglesezkoak, denetan handiena izan dela dioten berbera. Beharbada, diote, Irlandak aspaldi honetan ezagutu duen idazlerik gorena.

Gure artean, noski, inork ez du O Cadhain ezagutzen, eta inork ez du hartaz ezertxo ere idatzi. Askoren kezka bestelakoak direlako, badakigu, nahiz eta fenomeno honen gakoa bilatu ere nahi ez badugu ere. Baina baita O Cadhain-ek, Irlandaren hiltzailea, esplotatzailea eta desnortzailea Britainia Nagusian ikusita, aspaldiko bere erabakiari eutsi diolako ere: inglesez argitara gaberik hobe, inperialisten literatura ezertan ere sendotzea baino. Ezta gaelikeratik itzulita liburu garaurik ere ez etsai nagusiaren zerbitzutan.

Etsaia, ordea, eta zitalena eta mingarriena, etxen bertan topatu du O Cadhain-ek. 1939-1945-ko gerratean okasio on bat somaturik, Britainia Nagusiari eraso eta Irlandaren batasuna bortxaz lortzeko aukera baliatu nahi izan zuen; eta

aberkide batzuekin, erakunde militar bat eraiki zuen. Baina ametsak errekarra jo zuen, eta Dublin-go gobernuak ez zion pekatu hori barkatu, 1962-ra arte bere herra ofiziala eta legezkoa jasan-eraziz.

Urteetan barrena, horrela, zortzi hizkuntza jakinagatik ere (eta hauen artean, herri anaiena: kymriera eta erse) han hemenka ari izan zen peoin gisa, kaietan laneginez, eta bere ogia ahal bezala irabaziz. Urte horietako poz bakarra, gaelikeraz mintzo ziren arrantzale eta baserritarrekin bere jatorrizko hizkera osatzeko aukera. Hala aitortzen omen zuen.

1952-an Literatura-Sari bat eman zioten; baina irabazle irten zen nobelak («Athnuachan» izenekoak) ez du gaur arte argia ikusi, eta inork ez du hortaz irakurri... «BALLYMUN» idatzi nuen artikuluan kondatu nizekizuen berriak baino sineskaitzagoak dakazkizuet, beraz, neure honetan. Ezen hori guztia Dublin-en gertatzen baita, ez Belfast-en.

Zertan da Irlanda-ren gakoa? Nola konpreni liteke 1922-ko iraultza dirdaitsuak horren frakaso handirik ekartzea? Badago hor, ene ustez, pentsagai on bat. «Fianna Fail» deritzan Alderdiak (De Valerak 1926-an sortua, geroztik Dublin-en nagusi) bi helburu nagusi hartu zituen gidari:

- 1/ Irlandaren batzea edo bakuntza.
- 2/ Gaelikeraren pizkundera uharte guztian.

Hots, jakina denez, ez bata ez bestea dira lortu. Zergatik?

Ikus dezagun orain zer eman duen 1922-ko garaitzapenak; eta, kondairagileek ahobetez diotenez, hau da:

1/ Ideien atzerakeria izugarria politika-agintean. Zentsura, Inkisizio kutsukoa, 1929-ez geroztik batez ere oraintsu arte, ezin hestuagoa; eta honen ondorioz, eta gaur arte ia, irlandar intelektual eta artistek Eire-tik aldegin beharra.

2/ Ekonomiaren atzerakeria nabarmena. Gaurko CEE delakoan (Europako Ekonomi-Elkartean, alegia) Irlanda da urrundik atzeratuena. Nekazaritzaz bizi dira oraindik % 28-ak!

3/ Gobernuak, Elizak eta Kapitalak bat egin dute 50 urtez, dena freinatuz. Dublin-go Legediaren 44-gn. artikulua honela dio: «Hiritarrik gehienen fedearen zaindari denez, leku berezia aitortzen zaio Eliza katoliko, apostoliko eta erromanoari».

4/ Hizkuntza galdu ala, bestalde, etni-mugari erlijio-banaketa nagusitu zaio Irlandan; eta katolikutasuna bihurtu da Irlanda-ren ezagugarri «nazionala». Integrismoa, horretara, eta vaticanismoa ez dira luzatu.

5/ Gaelikera eta Irlandaren bakuntza, edo batasuna, «calendas grecas» etara botaiak izan dira, «parusia» bezala edo. Egiatzko Irlanda eta ametsezkoa elkargandik berezi dira: irlandar Irlanda folklore bihurtu da.

6/ Ulster-ko protestanteak, Dublin-en jokabideak ikusita, beldurtu egin dira; eta gogorrago kokatu dira bakuntzaren kontra. Halez ere berezkuntzaren ideia Dublin-go protestante batek (Wolfe Tone) bota zuen lehenik!

Nahaste borrhaste horretan bestek, noski, beste azalpide batzu eman ditzakete; agian enea baino hobeak.

Baina, ene ustez, Mazzini-k ikusi zuen xuxen horren guztia-
ren gakoa: «los irlandeses no son suficientemente diferentes de los ingleses». Edo, bestela esateko, Irlandako politikazko bultzadak, hastapenetik beretik, Inglaterraren HURBILTZEAREN ALDE EGIN ZIREN (nahiz itxuraz oso «separatista» izan). Zernahi esanagatik ere pasaporte batek ez ditu bi herri areago bereztei, hizkuntzen desberdintasunak baino. Hots, irlandar separatismoa INGLESTASUNA INDARTUZ egin zen.

Robert Kee kondairagileak irizpide berbera emana du: «le nationalisme radical est toujours resté le "credo" d'une PETITE MINORITE». Abertzaleek jo dute erre kara Irlandan; hau garbi dago, ene ustez. Nork irabazi? Irakurleak berak eman beza erantzuna.

Eta Irlanda-ko arazoa gaur klase-burruka arazo soila dela uste dutenak (eta Margaret Devlin eta IRA ofiziala honetan dira) ez daude zeharo oker alderdi honetan. Eta horretara, De Valera-ren sasi-garaitzapena, Irlandak jasan duen deskalaborrik larriena izan dela pentsa liteke. Iraultza eginkizun gelditu da osoki: bai Iparraldean bai Hegoaldean; bai nazio-kulturari dagokionaz, bai bi Irlanden bakuntzaz, bai herria emigraziotik, ekonomi-zapalketatik eta oskurantismotik aterazteko beharraz.

Horrela uler nezake nik ongi O Cadhain-en patu trajikoa. Eta neure haragian senditu uste dut aisa Galway-ko itsasertz harritsu bakartietan O Cadhainek senditzen zuena: bere her-

riaren akabera eta desnorkuntza. Ez zituzkean gaitzetsiko Ravel-en «Pavane à une enfante défunte»ren nota malenko-niatsuak; ezta gure olerkariak zorrozki bildu zituen hitzak:

Ezaren
hilobi beltzera zuzen,
gehiago ez bihurtzeko
sekulan...

Nork esango digu hau giza-trajeria ez denik?

O Cadhain-en izkribuen erditsua gelditu omen da argi-tara gaberik. Dublin-go gobernuak aski bide zuen zentsura gogortzen eta balioko gizonak sorterritik uxatzen. Bapo! Fartsa hori ezaguna da gaur. Gaelikerazko lanak argitaratzen dituzten bi argitarakolek (bi, bai; ez gaitezen hiletari izan) dirua galduz eusten omen diote. Gaelikeraz «dakitenek» ez dute ezertxo ere jakin nahi gauza hauetaz; eta Gaeltacht-en (= gaelikeraz mintzo den eskualdea) txirotasunean eta gaz-teen hutsunean usteltzen diren azkeneko irlandarren hizketa (70.000 baino gehiago ez gaur, denak bimintzodunak) olatuen orroan suntsitzen da betirako Connemara-ko bazterretan...

Dublin-go «aurrerazaleak» Irlanda-ko zeltatasun «arkai-koaz» trufatzen dira lasai: hau egiten zuen nabarmenki Patrick Kavanagh olerkariak, 1967-an hila; eta ez du ezer arriskatu. Eta Edna O'Brien sasi-ezkertarrak honek erantzun zuen gauza hauetaz:

«—Croyez vous à l'existence d'une littérature irlandaise distincte de la littérature anglaise?».

Eta hauxe erantzun zuen (ikus «Le Monde», 1969-IX-13):

«Je vois certaines différences fondamentales comme les DIFFERENCES SYNTACTIQUES: le romancier irlandais a tendance à se servir d'une LANGUE PLUS ARCHAÏQUE. Mais ce qui me frappe le plus c'est la DIFFERENCE DE TEMPERAMENT»... eta abar, eta abar. Gordinagorik bota ote du inoiz Pelay Orozcok?

Gaelikera... Eta, zer da hori? Idazlerik gehienek «gain-ditu» edo «superatu» omen dute hau. Ez dakigu, beraz, M. O. Cadhain 1970-ko Azaroan hiltzean, ez ote den Irlanda irlandarraren esperantza hil.

Zer axola munduari? —dioke batek edo bestek—. Bego galdera hori gaurkoz bere horretan.

Baina nekez lortuko dute Joyce-k eta gainerakoek IN-

LES literaturako parte ez izatea. Burruka-aldian INPE-
RIALISMOAREN ZERBITZARI ETA MORROIN agertuko
lira betirako. Bejondaiela ohore-koroa hori!

Agur, O Cadhain anaia!

Dublin-en eta Belfast-en, ni beldur, ahaztu egingo zai-
tuzte.

Euskal Herrian, otoi: EZ!

(1972)

GALESTARRAK AURRERUNTZ

Gales-ek eta Euskal Herriak badute elkarren eitea zenbait aldetatik. Bestetan esana dudanez, galestarrak bi miloi t'erdi lagun dira; eta hauetatik 600.000 bat mintzo dira galeseraz. (Euskal Herriari buruz bezala, «mintzo dira» horretan «mintza daitezke» irakurtzea hobe). Gehienek galdu dute «cymru» hizkuntza, hortaz; eta mia eta industri-eskualdeetan bereziki. Caerdydd-en inguruetan, esate baterako (Londres-ek «Cardiff» bataiatua), herria txit arroztuta dago eta ia soilki ingelesez mintzo da.

Zertan dira, beraz, galestarrak? Argigarri izan dakiguke.

Artikulu mamitsu bat irakurri dut egun hauetan «Planet» aldizkarian («The Rise of the Bilingual Secondary School», Dan L. James, Planet 16, II-III-1973); eta laburtzaren bat egitea interesgarri izan daitekeala pentsatu.

Eskola-aurreko ikasguak

Gaur egun 160 Lilitegi daude Gales-en (alegia, erdaraz «maternal», «maternelle» edo «kindergarten» esan ohi den horietakoak). Horietan eskolara baino lehenago ikasten dute galesez haur ttiekiek.

Lehen irakas-mailako eskolak

Dan James-ek ez du problema hau bereziki aztertzen, bigarren irakas-mailako Lizeoena baizik. Baina lumero eta aztarna gogoangarri batzu ematen ditu.

Oraindik galesa mintzatzen den eskualdeetan —dio— «zenbait ehunka eskola dago; eta galesa galdua den eskualdeetan, berriz, «berrogei-ta-hamar bat».

Lehenengo galestar eskola 1939-an zabaldu zen, eta zazpi ikasle zituen zabaltzean... Gaur milaka kondatu behar dira.

Galesez mintzatzen ez dakiten gurasoek, askotan nahi izaten dute beren haurrek galesez ikastea: Barry-ko St. Francis-eskolan, gomarazio baterako, ikasleen gurasoak «erdaldunak» direla esan genezake (ingelesez mintzo direla, alegia) % 90 kasotan! Badago nahi zindoa galestarrengan.

Bigarren ikas-mailako Lizeoen sorrera

Lehen mailako eskolak ugaltu eta gotortu ala, bigarren pausu bat egiteko beharra nabaritu zuten galestarrek; eta lizeoen maila antolatzen hasi ziren.

Oraingoz, dena dela, lizeoak oro bimintzodunak dira (galesez + ingelesez ari); eta gales soilaz ari den lizeorik, hortaz, ez dago batere.

Lehendabiziko galestar lizeoa orain dela 17 urte zabaldu zen Rhyl-en; eta geroztik hori bera azkartu, eta beste batzu zabaldu dira. (Aurten sortuko dena eta hurrengo biak ere eman ditugu geure ilaran).

Noiz sortua	Nun	«Ysgol»aren izena	Haserako ikasle -kopurua
1956	Rhyl	Glan Clwyn	93
1961	Mold	Maes Garmon ...	109
1962	Pontypridd .	Rhydfelen	80
1963	Wrexham	Morgan Llwyd .	36
1969	—	Ystalfera	324
1973 (IX) ...	Aberystwyth .		
? ...	Llanharry ...		
? ...	Aberdare		

Lizeoen abiadura

Nola doaz lizeo horiek? D. L. James-ek azaltzen digunez, denak doaz ongi eta goruntz. Hona hemen ikasle-kopurua-ren gorabeherak:

Lizeoa	Zabaltzean	Gaur	Urte-gehiketa
Glan Clwyd ...	90 ikasle ...	650 ikasle ...	+13
Maes Garmon .	109 » ...	480 » ...	+25
Rhydfelen	90 » ...	750 » ...	+25
Morgan Llwyd.	36 » ...	250 » ...	+21,5
Ystalfera	324 » ...	716 » ...	+30,5

Azkeneko hiru lizeoak, hortaz, askoz azkarrago ori dira hazten lehenengo biak baino. Galestar pizkundera indartuaz doa irakaskintzaren bigarren mailan.

Laguntza ofizialik ez

Londres-ko gobernuak ez du ezertan laguntzen; eta galestarrek berek egin behar dute dena: dirua, irakasleen prestaera, eta abar. Hona hemen, hitzez hitz itzulirik, artikulua diona:

«Gurasoen, adiskideen eta irakasleen ahaleginari esker sortu dira galestar eskolak. Gaur egun galesez irakasten duten maisu batzuek gutxiago irabazten dute beste eskolatan irakatsiko balute baino. Guraso batzuek, era berean, beren haurrak bimintzotasun horretan eskolatu nahirik, beren lanbide-aurrerapenei uko egin behar izaten diete. Eta, azkenik, misiolari suharen parekoak diren irakasleok ezbestek eraman dezakete aurrera irakaskintza-mota hori; zeren-eta, denaz gain, eskola-liburuak eta irakaskintza-tresneria bera berok ere, beren buruz eta kabuz, moldatu behar baitituzte».

Gurasoen hizkuntzaren arazoa

Herri handietan —edo koskorretan bederen— zabaltzen dira bigarren mailako lizeook; ez baserrietan. Hots, galesa baserritarrek atxiki dute gaur arte, ez kaletarrek.

Lizeoetako ikasle askoren gurasoak, horrela, kaleko seme izanik, ez dakite kimrieraz; eta haurrek, berak, bi min-

tzaira aurkitzen dituzte beren bizian: inglesa etxen, eta inglesa + kimriera lizeoan.

Hona hemen ikasle-kopuru gogoangarri batzu:

Lizeoa	Bi gurasoak ingles-dun	Guraso bat ingles-dun	Famelian inglesez ari
Rhydfelen	260 (%35) ...	225 (%20) ...	%65
Glan Clwyd	110 (%17) ...	168 (%29) ...	%46
Morgan Lywyd ...	34 (%12) ...	66 (%26) ...	%39

Hori dela-ta, «hauxe da irakasleak galesez mintzo ez diren gurasoei etengabe egin behar dien erregua: hurrei ahalik eta gehienik galesezko telebista-saioak ikustera uzteko, galesezko liburuak erosteko, eta bakantzak pasatzera kimrieraz hitzegiten den eskualde batetara bidaltzeko». Eta hau erantsi du James-ek berak: «erantzuna bihotz-altxagarria izan da».

Zer irakasten den inglosez eta zer kimrieraz

Hona hemen ikaskaien banaketa:

Inglesez	Kimrieraz
Ingles hizkuntza bera	Kimriera bera
Matematika	Kondaira
Biologia	Geografia
Zientziak	Erlijjioa
	Musika
	Hizkuntza arrotzak
	Jinasia
	Esku-lanak

Zenbait kasotan, halere, Zientzi-gai batzu kimrieraz azaltzen hasiak dira.

Eskola-liburuak

Oso gaizki daude: ez dago ia ezer.

Askotan, libururik ezaz, gai bat maisuak ikasleei inglosez irakurri eta gero elkarrizketa berak prestatzen ditu, bere buruz, irakas-orri apalak, ea hauetxen bidez irakasten.

Gaur bi pertsona daude liburugintza horretarako «liberaturik» (bost urtetarako hautaturik, eta Aberystwyth-eko Unibertsitatearekin batera lenean ariko).

Unibertsitatean

Esan beharrik ez: ez dago ia ezer.

Halere Aberystwyth-eko Unibertsitatean ikasleak eskatuz gero, bederatzi irakasle daude kimrieraz irakaskintza emateko gertu. Hona hemen ikas-sail horiek: Giza-hezketa, Gales-en Kondaira, Kondaira, Frantsesa, Kimriera bera, Filosofia, Zelta-ikerketak eta Geografia.

Bangor-ko Unibertsitatean ere badaude erraztasun batzu zenbait sail (Antzerki, Bibli-ikerketak, Musika eta Soziologia) kimrieraz ikasteko.

Gu baino aurrerago ote galestarrak? Irakurleak berak erabaki beza.

(1973)

GUY HERAUD BAIONAN

Aspaldidanik ezagutzen dugu euskaldunok Guy Héraud irakaslea eta adiskidea. Strasburgo-ko Unibertsitatean urte luzetan ari izana, Biarnoko Pabekoan ari zaigu gaur lanean; eta ez Euskal Herritik urrun, beraz. Betidanik Euskal Herriarekiko izan duen jaiera hura, hurbiltasunean azkartu nahi izan balu bezala.

Eta ederki mintzatu zaigu Baionan joan den Maiatzaren 12an; ezin hobeki, nik uste. Etni-arazoak inork baino seguriago ezagutzen dituenak («L'Europe des Ethnies» eta «L'Europe des Langues» liburuak lekuko) gai hori ikutu du gure aurrean; eta, bai tankeraz bai oparotasunez, liluraturik utzi ditu entzutera joan zaizkion guztiak.

Etni-arazoak Europan barrena beheruntz ez, baina goruntz doazela esan du; alegia, etni-arazoa duten eskualderik gehienetan, jatorrizko etni-nortasuna galtzeko joeraren kontrako pizkundea eta atxiki-nahia agertzen direla eskuarki. Etni-arazoak bizirik daude, hitz batez, Europa guztian. Edo, alderantziz ere esateko: etni-zapalkuntzak eta kultur-inperialismoak bizirik diraute Europan, bai Mendebaldean bai Ekaldean.

Zergatik «etnia» hitza erantsiko nik? Ez ahal da aski «herri» hitza? «Herri zapaldua» eta «oligarkia zapaltzailea» ez direa aski? Galdera horien oihartzuna badantzut bazterretan.

Eta neure erantzuna, Baioran entzundakoan berriro finkatuta, ez dut luzatuko ez disimulatuko: «etnia» hitza erantsi beharra dago; zeren-eta beste herriren NORTASUNA eta HIZKUNTZ-BEREZITASUNA hiltzeko joera, ez baita ekonomi-molde edo giro honi edo hari itsatsirik, ekonomi-molde eta giro GUZTIETATIK AT baizik. Etni-arazorik ez duten herri zapalduak badaude: Portugalen, Arabian, Grezian. Herri-zapalketa guztiak ez dira beti etnikoak. Nahiz, alderantziz, etni-zapalkuntzarik gehienetan etnia zapaldua ekonomiaren eta politikaren mailan ERE zapalduarik egon ohi bada ere (ketxwatarrak, maya-kitxetarrak, bretoinak, kurdotarrak).

Honi buruzko galdera bat egin zaio, hain zuzen, Guy Héraud irakasleari. Berariaz eta argi bila egina, egin zaion bezalatsu emango dut hemen: «Batzuen ustez, ekonomiak sortu du nazioa. Burgesiak sortutako merkatu-batasunak ekarri omen du nazioaren izana, eta ondotik naziotasuna eta abertzaletasuna. Sozialismoaren aldeko burrukan, hortaz, burgesiaren kontra jokatzean eta sozialista iraultza burutzean, etni-zanpaketak eta inperialismoa batera iraungiko dira. Etni-zanpaketa burgesiak ekarri zuen; eta burgesia uzkailean, beraz, etni-zanpakuntzak oro ere bukatuko dira. Nazio-burruka klase-burrukaren aldia bat baizik ez da. Zer deritzazu zuk, Héraud jauna, teoria honi?». Horrenraino, beraz, galdera.

Guy Héraud-en erantzuna ez da batere luzatu: «Teoria hori faltsutzat daukat» esan du. «Burgesi-arrastorik ez dagoen erresumetan ere —erantsi du, anitz argitzapenez funtsatuz— badaude etni-arazoak eta kultur-zapalkuntzak; eta, sustraian, bestea, beste gisa eta bestelakotasunean, ukatunahi berberak mamitzen ditu jokabideak Mendebaldean eta Ekaldean».

Xehetasun anitz eman du, gorago esan dudan bezala; eta etni-arazoari buruz dauden jokabide-desberdintasunak aztertu ditu xeheki. Dena heinen osoki azaltzerik ez dago.

Guy Héraud-en iritzia hitz gutxitara biltzekotan, nahiz

klasearen eta etniaren OSOTASUNA («globalité» esan du frantsesez) honetan eta hartan antzekoa izan, klaseen eta etnien arteko desberdintasunak sakonak dira oso, bai gaurko egoerari buruz bai etorkizunari buruz; eta honetxek azal dezake ongienik beharbada politika eta ekonomi-sistemetatik at ere kultur-inperialismoa eta etni-desberdinekiko herra horiek bizirik egotea.

Beste hitz batez esateko: Héraud irakaslea ez da monista agertu, PLURALISTA baizik. Héraud irakasleak ez du, politika arazo guztien funtsean. problema **bakar bat** somatzen, kapitalismoarena. Etni-arazoak badu, haren ustez, ekonomi-moldaketaren eta burrukaren mailakoa EZ DEN sus-trai bat; eta, hortaz, nik berriki Gorka Knörri eman nion erantzun-mota berbera eman digu Baionan.

Jakina: gaur Hegoaldean dagoen giroa ezagututa, hau esatea eta zenbaiten artean «superado» eta «burgués» agertzea gauza bera da. Badakit, eta ez atzo erreparatua. Baina horrela gerta dadin beldurrak ez nau neure iritzitik izpi batez ere aldaratuko. Egia eta moda gutxitan baitira elkarrekin joaten, eta nik, gaurkoan Hérauden irakaspenak gidari, lehenengoa zerbitzatu nahi bainuke.

Guy Héraud jakintsuak etniaren BEREZITASUNA defenditu du; etniaren zertasuna, funtsa eta errotikako autoktonia; eta proposatu zaion sasi-azalpen ximple eta dogmakoiaren faltsukeria salatu du deplauki.

Hots, egia hori, eta beste anitz, azken bi mendeetan temakor, integrista eta fanatiko bihurtu zaigun herri zoritxarreko honetan esan behar da; atsekabe gertatuagatik ere, argi-eta-garbi mintzatu behar da.

Etni-arazoa eta klase-arazoa BI arazo dira, ez bakar bat; ez bata bestearen «fase» bat, eta ez horrelakorik ezer. Burgessia desjabeturik ere, etni-arazoak egon daitezke; eta etni-arazoa konpondurik ere, klase-arazo gaitzak egon daitezke. Gertaera ezagun eta ezin-ukatuzko hau gogorazi du Héraud jaunak Baionan; eta hori eskolastika zahar edo berriekin nola ezkon ote daitekeen, ez da batere ene afera, eskolastikoena baizik. Hor konpon berak! Gertatzen dena, gertatu egiten da; eta gertatzen denaren arabera aldatu behar dira sinesteak eta ideiak, eta ez alderantziz gertaerak ideien eta dogmen arabera faltsutu eta izkutatu. Dogmakoiien jocra hori

ausarki salatu zuen Sartrek aspaldian («La Critique de la Raison Dialectique»).

Modako fededunak sutan jarriko dira lerro hauek irakurtzean. Baina amorrazio horiek ez dira gaurkoak. Pairsatuak ditut. Eta agian libratuko da gure herria guruzatu berriongandik! Ezin hobekiago azaltzen zuen dogmakoen jokabide hori Bertrand Russell zientzi-gizon bikainak 1947an; eta neure egingo ditut haren hitz hilezkorrak: «Los sistemas dogmáticos presentan otras dos desventajas, a saber: implicar FALSAS CREENCIAS sobre cuestiones de hecho prácticamente importantes; y suscitar la VIOLENTA HOSTILIDAD de quienes no comparten EL FANATISMO en cuestión»... Bazekien harek, bai, fanatismoa zer den.

Baina guk, euskaldunok, gaitz hori bertagotik ezagutuko ez ote dugun beldur naiz.

Gure kondairaren ohore den Tuterako erlijio-pluralismo eder haren izpiritua, aspaldian suntsitu bide zen gure artean, ondikotz; eta haren ordeztu, fanatismoa dugu nagusi han eta hemen, behin eta berriz gailen, irakurleak dakien herrian bezalaxe.

Zorionak, beraz, Guy Héraud jauna, egia jator gogorazi diguzulako.

Euskaldun pluralisten izenean, mila esker anitz!

(1973)

AOSTA GERO ETA ITALIARRAGO

J. San Martin-ek Donibaneko Uda-Unibertsitatean Aosta-ko hizkuntz-arazoaz zenbait berri eman ondoren, hona hemen, ia batera, Philippe Decraene albistaria aski xeheki eta bide beretik («La Francophonie Valdotaïne en péril», *Le Monde*, 1973-IX-17) berri jakingarriak zabaltzen ari. Ez da kezka hori lehenengo aldiz agertzen «Le Monde»n: orain dela bost urte, bi artikulu bikain eskaini zituen Michel Leiris-ek, ez Decraene-rena baino baikorrago.

Decraenek ematen dituen xehetasunek garbi adierazten dutenez, Aosta-ren frantsestasuna hiltzorian dago; eta ondoko urteetan aldakuntza sakonik gerta ez badadi, Italiako atal huts bilakatuko da Aosta; eta bertako leku-izenak baizik ez da geldituko (Etroubles, St. Pierre, Entrêves, eta abar) gaur arteko haren frantses jatorriaren oroikarritzat.

Aosta-haran hau Fraitntzia-Italiako mugan dago, Alpe-etan, Italiako Ipar-Mendebaldean alegia. Ikusle guztiek ahobatez diotenez, ezinago bazter ederra; eta bertan ehun bat mila «valdotain» bizi dira 3.260 kilometro koadrotan barrena. Aostatarrak jatorriz eta hizkuntzaz frantsesak izanagatik ere, ez dute beren burua Fraitntziako haurridetzat jotzen

(Savoie-ko separatistek jotzen ez duten bezalatsu); eta denek omen diote, eskuinetik ezkereraino: «Valdotains d'abord», Aostatarrak aurrenik. Hortik aurrera, ordea, eta politikaren mailan, Aostatarrak zeharo daude zatiturik eta anitz talde-taldekatuak.

Teorian bederen, eta beherago azaltzen den arrazoinarengatik, Autonomian bizi da Aosta Italiako Errepublikaren barruan; eta gaur, esate baterako, Cesar Dujany dute gobernu-buru. Zertan mamitu da, ordea, gudu-ondoko Italiak legetan aitortu zuen «autonomia» hori? P. Decraenek azaltzen duenez, ezer gutxitan.

Eskola italiaraz egiten da Aostako eskualde osoan; eta Italia guztian bezalaxe, frantsesa ez da bigarren hizkuntza gisa baizik erakasten.

Meatzak eta lantegiak direla-ta, bestalde, italiar asko etorri da Aostara, lan bila; eta gaur horrela jendaketaren arabera hau bihurtu da: % 45 italiar, % 55 aostatar. Elkar ulertu beharra dela-ta, frantsesa etxeko hizkera soil bihurtu da; batez ere lantegiak dauden herrietan. Eta gehien-gehienetan zaharrak bakarrik dira frantsesetik hitzegiteko gauza. (Susa-ko partean, ondoko haranean alegia, fenomeno berbera gertatu zen XIX. mende-bukaeran, eta gaur italiartuta dago arrunt).

Aostako kaseta guztiak italiarrak dira, eta italiaraz idatziak. Nahiz Chamonix-tik (Fraintzia) Courmayeur-a (Italia) hamabi kilometro baizik ez izan, frantses aldizkariak Turin-en barrena iristen dira Aostara bi egun beranduago; eta, jakina, ez dira batere saltzen.

Zinemaren mailan joera berbera ageri: «Haranean ematen diren filma frantses guztiak —dio Decraenek— batere berezkuntzarik gabe, italiarazko izkribuz itzuliak dira».

Aosta guztian, bestalde, ez dago frantseseko liburu-dendarik batere: liburu guztiak italiaraz.

Are gogorragorik ere bada: frantses telebista ikustea debekaturik dago: «Le fait de capter sur son récepteur, grâce à une installation de fortune, les émissions de la TV française, constitue un délit passible d'une forte amende, voire d'emprisonnement» (!). Alegia, frantses telebista ikusteagatik, multa gaitza etor daitekeela, baita gartzela ere... Aurtengo Maiatzean, hain zuzen, arazo zentzugabe hori kon-

pondu nahirik, eta Aostako gobernu «autonomoak» berak erabakirik, frantses telebista Aostan ofizialki hartu ahal izateko baimena lortu, eta beharrezko tresneria, jartzeko, 10 milioi lira eskatu zituen Erromara. Italiarren erantzuna ez zen luzatu: Aostako Prefetoak bere ukoa eman zuen («veto» dio Decraenek) bertako gobernu «autonomoa»ren aurka. Eta kito. Zer egingo ehun mila lagun «gobernu» gizarajoak?

Ez da horrelakorik lehenengo aldiz gertatzen: Mussolini-ren garaian, gartzela arriskatzen zuten frantsesez mintzo ziren Aosta-tarrek; eta leku-izenak berak beharrezko italita-sunaren arabera, aldarazi zituen Duce delakoak: La Thuile Porta-Littoria bihurtu zen, Le Breuil Cervinia, eta Saint Vincent San-Vicenzo. Horren ondorioz, eta oroitzapen txarrak kentzeko, Autonomia eman zuen Erromak 1948-an. Baina berehala ahaztu zen tolerantzia hura.

Liturjia berria dela-ta, ia leku guztietan, eta Aostako Katedralean ere bai, jakina, latineratik... italierrara pasa dira. Eta Vaticanoak izendatu duen azken Apezpikuak ez daki frantsesez.

Val d'Aosta hau, gorago ere esan dugunez, txit ederra izanik, turistak ugari dira; eta ia denak italiarrak (200.000 kanpotar Aostan Abuztuan). Bezeroak beti egia baitu, italierraz jakitea beharrezkoa da ostatuetan eta bazkaldegietan; baina frantsesez... zertarako? «Après une courte renaissance —dio Decraenek— esquissée en 1945, la langue et la culture françaises se trouvent à nouveau sérieusement en péril».

Jakina: Chamonix-en (Fraintziako alderdian, alegia), handik hamar kilometrotara bakarrik, ez da horrelakorik ezer gertatzen; eta frantses hizkuntza bakarra da, indartsua, eta errotik itsatsia. Savoie-n italierraren aztarnarik ez da ageri.

«Fraintziak ez gaitu laguntzen» esaten dute etsiturik Aostatar batzuek, gutxik; gehienak ez baitira ohartu ere egi-tan Aostan gertatzen denaz. Eta ohartzen direlarik ere istilu horiek behin eta betirako baztertzea erabaki baitute. «Politique de non ingérence dans les problèmes internes des autres Etats»...

Eta errealismorik ez zaie falta; ezen Parisek ez baitu Aostako arazo hau behin ere aipatzen. Nola aipa? Alsaziakoa Aostakoaren simetrikoa baita. Eta Aosta Fraintzia bada, zergatik ez Walonia eta Friburgo? Aosta Fraintzia baldin

bada, Alsazia Alemaniatzat jo daiteke.

Erresuma guztiak, horrela, zuzentasunaren kontrako bekatuak izkutatu beharrez, elkarren laguntzaile ermo gertatzen dira. «Hor konpon!» pentsatzen dute. Eta isildu egiten dira. Eta isilduko.

Aosta, horrela, Mussolini urrun gelditu denez gero, italiartzen abiatua da guztiz. «Ethnie Valdotaïne» delakoa, bere frantses izana galtzen ari da isiltasunean eta begi guztien aurrean. Zergatik? Ez, otoi, edozer erantzun. Frantsesa batua da, Aostan ez dago ikastola burgesik, eta Erromako gobernuak ez da fazista orain dela 28 urte. Hortaz, zergatik italiera hemen nagusitzen ari, eta mendi berberetan eta hurrengo mendartean frantsesa?

Ez dut nik erantzungo.

(1973)

GALES-KO ZENBAKIAK ARGI?

Orain dela sei bat hilabete mintzatu nintzen orrialde hauetan Gales-ko arazoaz; eta «kimri»erazko irakaskintza aztertu nuen orduan bereziki («Galestarrak aurreruntz»).

Bi gertakari eragilek bultzatzen naute berriro gai hori gaur aipatzera.

Alde batetik, «Planet» galestar aldizkariaren zuzendaria den Ned Thomas adiskidearen ikustamenak: geure artean izan dugu aste hauetan, eta aberasgarri izan zaizkigu haren albisteak eta iritziak.

Eta, beste alde batetik, egun hauetantxe zabaldu diren zenbaki batzuek. Ned Thomas-ek berak bere «The Welsh Extremist» liburu mamitsuan aipatzen zuen zenbakia (650.000) ttipituz, orain 542.000 «kimridun»en kopurua ezagutarazi baita. Gales-ko jendaketa guztiaren arabera (2.725.000 biztanle guztira) ,% 20,8 ematen du horrek, beraz; bosten bat.

Gauza ezaguna denez, eta Euskal Herriak Hegoaldean ezagutu duenaz bestaldera, Gales-en ez bide da ikusi hizkuntza-mugaren atzerapenik, Gales-ko Ekaldean ez bada, eta txikia. Gales-en Cardiff (Caerdydd hobe, Galestarrekiko errespetuz) anglestu da aurrenik, baita herrialdeko ikatz-mia-

tzak. Hiri koskorrak anglestu dira segidan; eta fenomenoa aurrera doa gaur herriska txikietan barrena. Hizkuntzaren araberako muga guti mogiturik ere, beraz, **barnetik** arrotzu da Gales; Zuberoko alderdian edo bezalatsu.

Nahasian bimintzoduna den giz irte horri buruz, hortaz, bete-betean erabil daitezke matematikazko azterpideak. Erabiliak ditut nik Z. ARGIA-n bertan: ikus «Matematika eta erderomanoak», orain dela zazpi hilabete argitaratua; eta, Gales-ko berrien bitartez argi pitin bat egiteko asmotan, berriz erabiliko ditut gaurkoan.

Artikulu haren ondorioa duzu 2. irudian ematen dudan diagrama. Alegia: euskaldun/erdaldun mordo batetan, eta euskaldun guztiek erdaraz ere badakitela emanda, % 10 erdaldun eta % **90** euskaldun egokituz gero, % **65** kasutan baizik ez da euskara erabiliko. Bide beretik, % **40** erdaldun baldin badago, % **5** kasutan euskaraz, eta % 95-tan erdaraz.

Zenbaki bildurgarri hauek, denaz gain, matematikaren arabera eta hozki lortzen diren zenbakiak dira. Psikologiazko, ekonomiazko, eta beste anitz motatako arrazoin gordeek, bildurgarriago egingo lituzkete zenbakiok; eta lortzen den diagrama oraino ere beltzago izango litzaioke galtzen ari den hizkuntzari.

Bego hori horretan, dena dela.

Zer ematen du Gales-i buruz? Horra hor, 1. irudian, bi makurkiok. Goikoa «kimri» hiztunen kopuruaren arabera marraztua da; eta behekoak, Gales-ko pratikan ikertzaile edo entzule erne batek neurtuko lukeena adierazten du. Baserrietara ez joatekotan, beraz, ingles-itxura du Gales-ek gaurdanik: oro har, elkarrizketetarik % **2** edo baizik ez kimrieraz...

Londres-ko gobernuak telebistan uzten duen denborak, horrela, kanpotik ikusia, aski eta sobera ere dirudi: astean 12 ordu (gogotik hartuko genuke guk erdia, gizajook!). Nola ulertuko, beraz, galestarrek gero eta maizago (Ned Thomas-ek berak ere berdin, aitortu digunez) telebistaren zerga ez ordaintzea, eta hauzitara eramana izatea? Kimriera «hila» baitirudi kalean!

Etnia ukatu guztietan gertakari berberak eta bitxikeria berberak gertatzen, ordea...

Jendea gero eta gogorrago omen dator. Abertzaletasuna

gero eta azkarrago: gazteen artean baino ere (hizkuntzaz galestar), berriki anglestutako eskualdeetan. Kimri-tasunari eutsi nahia kalean itsasten da, ez baserrietan.

Laboristen aspaldiko kabia batetan, horrela, 3.000 bozatatik 14.000-tara igaro dira abertzaleak hiru urtetan.

Abertzaleen Alderdi zaharra («Plaid Cymru» delakoa, 1925an sortua, eta legearen barruan jokatzearen aldekoa) indarra galtzen ari da gazteen artean. Unibertsitateetan, Ned Thomas-ek azaldu digunez, % 90 dira gaur abertzale. Hizkuntzaren inportantzia ongi jabeturik (kimririk gabeko Gales-ik ez dago, gazteen iritziz) hizkuntza ikasfeari eman zaizkio ia denok: bazekitenak hobetzeko, eta ez zekitenak mintzatzen gauza izateko. Baina «Plaid Cymru» delakoan ez sinetsirik, «Cymdeithas yr Iaith Gymraeg» organizazioan sartu dira (Welsh Language Society, Kimri Hizkuntzaren Elkarte). N. Thomasek dionez talde berri hau, 1962an sortua, ez da, izan, «politikoa»; **etnikoa** baita, eta alde honetatik, Thomas beti mintzo, besteak baino sakonkiago politikan ari. Bultzatzaileen artean Gales-ko «guru»tzat (= irakasle nagusitzat) har daitekeen jaun zahar bat: Saunder Lewis; idazle ona omen, 1925an «Plaid Cymru»ren sorkide izana; eta gaur, aspertuta, etsita, legetik at eramandako politikabide gogorragoren bultzatzaile.

«Eta, ikasle horien artean, sozialismoaz zer?», galdetu diot nik brauki. Erantzunak harritu egin nau; baina N. Thomasek eman bezala bir-ematen dizuet nik: «Ez dago Gales—esan digu— Europako giro errabiatuan inundik ere. Galesko gazteak pragmatikoak dira politika-arazoetan; eta ideologietan ez dute sinesten. Zuek guztiok, berriz, Lurrandian, ideologiatan murgildurik atxematen zaituztegu. Gure herria laborista da aspaldidanik, eta ezkertarra. Baina Labour Party-ren angleskeria eta geldikeria salatzen dira bakarrik. Denok gara han, gutxi gora behera bederen, sozialista. Enc aita bera mia-herriko seme zen. Galestar burgesiarik ez du, dena dela: ikatz-miatzak eta galtzairu-lantegiak nazionalizaturik daude antzinatik. Europako giroa, horrela, bitxi gertatzen zaigu guri. Eta gure gazteei ere bai».

Indarka hasteko gogoia omen dute banaka batzuek. Gales guztian baserriak erosi dituzten ingles aberatsen bizilekuak erretzen hasi nahi lukete. Baina gutxi dira, oso gutxi;

eta herriak ez omen luke jokabide hori onartuko. John Jenkins hamar urtetako gartzelaldia betetzen ari da; egia da. Baina bere buruz ari omen zen bortxakerian. 1969'ko Swansea-ko hauzia, dena dela, ez da ahaztu: Gales-ko Armada Izkutuaren burukideena, alegia. Eta Saunder Lewis-ek berak aski garbiki laguntzen bide ditu, bere itzalaz bederen, Plaid Cymru nola edo hala gainditu nahi dutenak oro.

Gales-tikako berriak, horrela, jakingarri beti. Zergatik ez gomendatuko nik, beraz, laister agertuko den «The Welsh Language Today» liburua? Hor dituzke irakurleak, Ned Thomas-ena barne, hamabost artikulu Galesko hizkuntza-egoeraz. Eta besterik nahi izanez gero, hor dago Ned Thomas-en «The Welsh Extremist» liburua ere. Nik aginduta: ez zaio inori damutuko.

Zerok hauta, beraz.

(1973)

USTÉRIK GABEKO ELKARRIZKETA BAT

Bazkaldegi apal herrikoi batetan nagoelarik, bi beltz gazte egokitu zaizkit ondo-ondoan. Europatar modura jantzia bata; kolore nabarmenetako alkandora bitxi batez berriz, bestea. Eta, berariaz ezer aditzeko gogorik batere gabe ere, berehala konturatu naiz egoeraz: bi beltz haiek zerabilkiten hizkuntza hura ez zela enetzako ezaguna, ezta urrundik ere! Eta galde egin diet:

—Barka zazue. Zer hizkuntzaz ari zarete? Oso jakin-min naukazue. Ez da arrastorik ere ulertzen.

Iribarre egin dute biek. Eta europatar jazkerarenak, oso frantses egokian, honela erantzun:

—«Sarakolé»z ari gaituzu. Senegal-en badaude etnia desberdin batzu; eta horietako bat, eta ez zabalena edo inportanteena, gure «sarakolé» hau duzu.

—Hara! —nik. —Senegaldarrak zarete, hortaz?

—Ez, bada —beti europatar jazkerakoa bien izenean edo mintzo. —Ni neu bai, ni Senegaldarra naiz. Baina ene adiskide hau Gambie-koa da. Badakizu Gambie nun den? Ez Zambie, gero...

—Bai, bai, badakit gutxi gora-behera —nik erantzun—.

Senegal-en Hegoaldeko mugaren luzean dagoen erresuma txiki bat da Gambie, oso hertsia. Ez da hori?

—Justu! Horixe duzu Gambie. Ene adiskidea hangoa da.

—Eta, nun ezagutu duzue Jkar?

—Parisen. Eta paperen aldetik elkarrekiko atzerritar izanagatik ere, hemen gaituzu biok barra-barra geure etxe-hizkuntzaz mintzaten ari. Ez dugu sekula frantsesez egiten geure artean, jakina...

Kolonialismoaren mugak, betidanik eta nun-nahi, funsgabeak, zatitzaileak eta eragabeak direna, nork ez du inoiz entzun? Egia. Nik ere banekien. Baina ustegabeko baiespen horrek mila teoriak baino finkatuago utzi nau iritzi horretan: Afrikan, Asian, European, erresumen arteko mugak ez dira ia inun herrien errespetuan markatu, herriez trufatuz eta iseka eginez baizik. Gambia eta Senegalen artekoa ezpal berekoa da.

—Senegal-go etnia nagusia —ekin dio ene lagunak— «woloff» izeneko da. Baina, oraingoz bederen, frantsesa da guztion lege-hizkuntza nagusia. Badira liburu batzu, hori bai, «sarakolé» herriaz; baina eskola eta administrazioa ez dira «sarakolé»zkoak, ez «woloff»ezkoak, frantsesezkoak baizik.

—Eta, ez duzue zelebre aurkitzen zeron egoera hori guztia?

—Bai, jakina —sarakoletarrak hitz—. Baina Afrikako mugak eta Eropakoak ez dira berdinak. Gambia-ren eta Senegal-en arteko muga hori, esate baterako, bost axola zaigu guri. Ene adiskide hau eta biok herrikideak gara, eta kitto. Eta oihan haietan beretan, areago. Muga horiek Europatik ikusirik badute axola. Handik beretik, batere ez. Ez daki hango inork nun diren ere...

—Benetan hori?

—Noski! Europatarrok ez duzue Afrika konprenitzen. Hura oso da liferentea, zinez. Gure artean, esate baterako, inun ez da gertatzen inork norberaren hizkuntzaz besterik ezer ez jakitea. Han denok dazkigu, geureaz gain, eta gutxi gora-behera bederen, bi, hiru, are lau hizkuntza ere; eta horrela inguruetako etnia guztiak, praktikaren eta egiazko bizieraren mailan, oso loturik daude, gaurko European so-

matu ere egin ezin daitekeen eran.

—Europa zaharrean horrelako zerbait bazela esan daiteke beharbada. (Bidarteko, Oragarreko eta Barkoxeko baserriar zaharrek askotan dakite kaskoinez).

—Afrikako Mendebaldean, gonbarazio batez —ekin zion ene lagunak— anitzek daki «haus» hizkuntza (baita Nigeriatik at); eta merkatalgoan eta gainerako harremanetan maiz erabiltzen. Gauza bera, beste lurraldetan, «swahili» delakoa.

—Nolanahi ere —nik galde— badirudi zuek ez duzuela gutxietsirik gertatzeko bildurrik; eta zeron hizkuntzaz baliatzen zaretela lasai. Ez da hala?

—Horretan ere, zuek europatarrok ez gaituzue ongi ulertzen. Guk ez baitugu europatarren alderditik gaizki hartuak, zapuztuak eta gutxietsiak izateko bildurrik. Gure artean, baita ezikasiak berek, jasan dugun kolonialismoaren karkoa konprenitzen dute; eta gero eta azkarkiago agertzen dugu geure nortasuna.

—Memmi ezagutzen duzue? Kolonialismo eta inperialismo arazo horietaz, inor ez da sekula mintzatu, ene ustez, Albert Memmi baino zehazkiago eta zorrozkiago. «Portrait du Colonisé», «L'Homme Dominé», ahanzi ezinezko liburuak dira.

—Ez dut Memmi ezagutzen. Baina kolonialismoa ulertu dut; eta denok dugu ulertu, baita Afrikako xumeenek ere. Apartheid-en arazoa, portugesen zampaketa lotsagarria, neo-kolonialismoaren jukutriak eta azpikeriak, denok senditzen ditugu; eta barne-mogidaz garbiki ulertzen. Ez zalantzarik egin. Europatarren laguntza gabe ere bai. Indarra falta dugu. Maok indarra eman dio Txinari, eta Txina gaur errespetatua da nun-nahi.

—Ez dizu hori inork ukatuko. Memmi, bestalde, afrikatarra da: tuneztarra hain zuzen. Judua bada ere.

—Bai, bai. Haren aditzea badut. Baina guk orain geure muinetik beretik abiatu behar dugu, geure haragiaz nagusitzetik. Ene adiskidea eta biok, esate baterako, mahometarrak gara teoriar, Senegal eta Gambiako % 90 bezala. Eta gainerakoak, teoriar beti, kristauak omen. Baina belaun berriak oihanetako leinuen jakindurian eta gure erlijio zahar animistatan bilatzen du izpiritu-hats berria. Kristautasuna

eta mahomatartasuna, anaia bizkiak dira guretzako: bata eta bestea inperialismoaren bitartez sarreraziak. Ez ditugu ezertarako behar. Geure tradizioan bilatu behar dugu egia. Gure mundua eta zuena ez dira berdinak. Zuen egiak ez digu Afrikan balio.

—Ez zarete zoriontsu. beraz, lurralde hauetan... nik galde.

—Ezta inundik ere! Afrikara nahi dugu, eta afrikatartu nahi ere bai. Hemen, Europan, dena da hotza, eta norberekeriak, indibidualkeriak, multzo-ideia, herritasuna, eihartu du. Afrikan, berriz, multzo-giroa, talde-gogoa, elkarte-nahia, anaitasuna, bizirik daude oraindik. Hots, hotzak hiltzen du Europa, nor bere burura bildua izateak. Burgesiak, eta nork bere aldetik jokatzeko grinak, ekarri duten hotzak hiltzen zaitue. Guk ez dugu horrelakorik nahi. Geure herrietan gizarte-tasuna, multzoen berotasuna eta kidetasuna, nahi eta bilatzen ditugu. Ez hemengo populu koloregabe, hotz eta sustraigabe hauek...

Eta bide beretik jarraitu du oso ermoki. Eta beti mamitsu.

Nola ukatuko afalondo horretan «sarakolé»tar ustegabeko lagun horiek asko eta asko crakatsi zidatenik?

(1973)

IPAR-IRLANDAZ ZENBAIT BERRI

Azkeneko «Republican News» delakoa irakurri berria dut (1973-ko Urriaren 20-koa zehazki); eta, dena irakurgarria bada ere, ezin aproposago eta gogoangarriago iruditu zaizkit hartako bi artikulu: «Which language?» bata, eta «The Pseudo Republican» bestea. Gure arteko nork irakurriko ote du, ordea?

Uste izaten denaz bestalde, irlandar Irlanda, gaelikoa alegia, ez da arras hil. Nahiz Dublin-go gobernuak ia sortzetik beratik saldu bazuen ere bere helburua; eta nahiz oposizioko alderdian IRA «ofiziala», marxismozko betekada betean, britaindar ezkerkeriara lerratu bazen ere, Irlandar Irlandaren helburua, itxaropenen mailan bederen herriarengan bizi da oraindik.

Ballymun-go lotsagarrikeria aipatu nuen behin Z. ARGIA honetantxe, baina, batera Eliza katolikoaren eta gobernu ofizialaren kontra, abertzaleak nagusitu egin zirela ez nuen esan: gaur, «irlandar» gobernu bortxatu delako, gaelikera hutsezko eskola bat zabaldu da Dublingo hauzo horretan...

«Learn your national language», irakur daiteke letra larritan boskarren orrialdean: alegia, ikas ezazu zeure aber-

ri-hizkuntza. Zergatik ikas? Bertan irakur daitezkeen erantzunek ez dute zalantza-tarte zabalik uzten, eta hitzez hitz itzuliko ditugu emandako argudioak: «irlandar hizkuntza, gaelikera, irlandar naziotasunaren funtsa bera delako» (Irlandar abertzaleak sozial-inperia'ismoari beldur ez zaizkionez gero, hainbestetan madarikatutako «esencialismo»an bizi dira, eta «the essence of Irish nationality» aipatzen dute argi-eta-garbi).

Baina goazen aurrera. «Irlandar nortasuna gaelikeran gordetzen da; eta irlandar nortasun hori ezin daiteke indar eta ez finka, irlandar hizkuntzaren indartzearen eta finkatzearen bitartez baizik».

Eta beharbada oraindik ere garbikiago mintzatuz: «Irlanda askatu eta batuan, maitatua, ohoratua eta guztiz nagusierazia —"completely restored"— izango da irlandar hizkuntza, epe baten buruan erresumaren lege-hizkuntza bihurtuz». Eta Irlandaren burrukaz ari delarik: «Britaindar inperialismoaren kontra ari gara guduan».

Ulster-ko abertzaleak, horretara, ez dira leunak Hegoaldeko Irlanda «askatu»aren gobernuarekiko: «orain dela 50 urte... hizkuntzaren aldetik, azalkeriaz, sabotajez, gezurrez, hiruzurrez, azpikeriaz eta zabarkeria larriz oratua izan da Dublin-go gobernuaren politikabidea... Eta gaur egun, **asmorik ere ez du** —Ulstertarrek azpimarkatzen dute, ez guk— asmorik ere ez dute, beraz, irlandar hizkuntza nagusi arazteko».

Hori dela-ta, «poster» bat zabaldu da barra-barra aste hauetan Ulster-en osoan eta Belfast-en bereziki: «Britaindar armada inglezaz mintzo da. Eta zuk zeuk zer hitzegiten duzu?».

Jokabide eta ideia hauek gaizki ikusten dituzte bai Londres-ko gobernuak, bai Irlanda «askatu»koak, eta bai Dublin-go IRA «ofizialak». Honek, super-ezkertar guztien mirespena bilduz Londres-en eta Paris-en, hau erantzun du: «abertzaletasun» hori "burgesa" da. «Republican News» honek azaltzen duenez, IRA «ofizialari», «Irlanda Askatua ez zaio funtsean axola»; eta onartzen dutelarik ere, «taktika hutsarengatik onartzen du» (it is only a tactical ploy).

IRA «ofizialak» dionez, «provisionalak» (lehengo neurte artikuluan azaldu nuenez, Irlanda batua edozer baino lehe-

nago nahi duenak) «ez du politikabide garbirik». Politikabide hori «burgesa» dela ere esaten dute. Hona hemen, ordea, «Eire Nua» deritzan bildumaren funtsa:

- 1/ Britaindar Armada Irlanda guztitik kanpora.
- 2/ Kolonikeriaren eta neo-kolonikeria guztien amaia.
- 3/ Bi Irlanden batasuna.
- 4/ Piskanaka joanez, Irlandako industriren sozialkuntza.

Baina «Provisionalak», «Republican News» honetan garbiro agertzen denez, ez dira marxista. Eta, gure artean ere oso jakina denez, marxista fedetik pasa eta eliza gorrian sartu nahi ez duena, «anatema» da, eta nahi-ta-ez «burgesa»... Gauza bera «provisional»ak, noski. Zer besterik izan litezke bada?

Baina Irlandar abertzaleak ez dira kikiltzen: «Marx ez zen izan pentsatzaile oso eta arrailduragabe bat, baina Kondairaren eta gizartearen aztertzaile bat; batzutan argitsu, bai, baina bestetan nahasia eta baliogabea». Horra hor biraua! Jesukristo argitsu izan da batzutan, bai, baina bestetan nahasia eta baliogabea. «Ha blasfemado!», esango zukeen Torquemadak; eta surtara araziko zukeen gupidarik gabe. Gauza bera Ulster-en. Eta Irlandaraino gabe, ez ala? Haurrek berek kristau aldetik birauik beltzenak izan direnak botatzen dituzten mementoan, beharrezko birau berriei perlesiak jota agertzen dira denak.

Irlandan ez, halere: «IRA "ofizialaren" politika, ez da politikabidea, hitzontzikeria baizik: "a mere ragbag of senseless jargon"».

IRA marxistak, Londresko eta Dublingo gobernuek bezalaxe, beste «amets burges» bat salatzen du «provisional»-etan: «the military strategy». Militar ekintza horiek «Oglaigh na Eireann» en «sektarismoa» erakusten omen dute. Baina, beti ere «Republican News» mintzo, «Ulsterko egoera osoa da sektarioa»; ezen «sei Konderrietan katoliko ez direnen eskuetan baitago hain zuzen politika eta ekonomiaren agintea». Eta azaltzen: «ez ditugu guk etsaiak Protestante direlako hautatzen, baizik-eta politikaren eta ekonomiaren mailan duten jokabidearengatik».

Arte horretan irlandarrak hiltzen ari; eta britaindarrak torturatzen ari.

Eta IRA «ofizialak» beste Agiri bat argitara berria du, «IRA provisionalaren presoen jokabideak gaitzesteko»...

Mundua zabala baita, eta ez baita hortxe bukatzen; mundua eta inperialismoa berberak baitira leku guztietan; eta «ziririk gaiztoena ezpal berekoa» atsotitzak beti ere balio baitu.

(1973)

BOURASSA PARISEN

Interesgarriak izanik ere, nork irakurri ditu Bourassak Parisen esandakoak?

Fraintzian izana da Abenduaren 3, 4 eta 5-an Quebec-eko gobernu-burua; eta, A. M. Carron eta F. M. Monnet kasetari-ek bildurik, haren iritziak azaldu ditu xeheki «Le Monde» egunkariak (XII-3).

Robert Bourassa «federalista» da; ez, alegia, Quebec osoki bere buruz jarri eta Kanada-tik zeharo bereztearen aldekoa. Bourassa, hitz batez, «moderatua» da irizpidez, erdibidekoa; eta areago izan da egun hauetan Paris-en Quebec-eko gehiengoaren izenean ofizialki mintzatu delarik.

Zein da erdibide epel hori, beraz?

Edozein «euskeromanok» baino askoz ere gogorkiago hitzegin du Bourassak. Horra sorpresa! «Oportunismoa»k eraginda omen den Quebecar honek «esenzialista» eta «chauvinista» izenak mereziko lituzke aisa gure herrian.

Hona hemen Bourassaren biraua: «Kultur-nagusitasunaren aldeko ene politika-bidean, 22. legea da **funtsezkoena**».

Zer da, bada, «funtsezko» lege hori? Honatx hemen

«Le Monde»k berak azaltzen duena: «Joan den Uztailean onartua izan den 22. legeak Quebec-eko **lege-hizkuntza** egin du frantsesa. Beronen erabilbideak probintziako bizi-maila askotan ikutzen du, hala-nola ekonomiarena (orain arte ingles zen gailen), hezkuntzarena, eta are kartelgintzari buruzkoarena ere».

Azalpen labur honek ez du dena esaten, ezta laurdena ere. Harrigarriak dira, gonbarazio baterako, 22. lege horrek ekonomiarekiko munduaz erabaki dituenak. Hona hemen adibide bat: «Frantsesturik dauden lantegiak, edo-ta frantseskuntzan barrena abiatu bederen egin direnak, eta ez besterik, has daitezke gaur negozio-harremanetan gobernuarekin, laguntzak jasotzeko, kontratuak sinatzeko, eta abar». («Le Monde», 1/2-XII, 32 orr.). Quebec-eko gobernuak, hitz batez, ez du aurrerakoan onartuko ekonomi-ataleko harremanik ingelesez egitea (frantses izkribuarekin batera «ingles itzulpen bat **ere** erastea» onartuko badu ere...)

Horrelako jokabide gogorrok ez hartzekotan, galdurik somatzen dute beren burua Quebec-eko... erdi-bidearen aldekoek! (Honi guztiari buruz, ez zaio inori damutuko «Le Monde»k Abenduaren 1/2-an argitara dituen 20 orrialde berezi eta mamitsuak irakurtzea).

Oso larri daude han, bai, erdibidekoak. Zeren-eta, Quebecarren artean, % **78-ek** bakarrik hitzegiten baitute gaur frantsesez. Baina —diote— hauxe larria!: bulego-enplegatuen artean % 78 ez baina %67 baizik ez dira frantsesduinak; osagileen eta ijeneruen artean, berriz, gutxiago: % 55 baizik ez; eta 20.000 dolarretatik gora irabazten dutenen artean, % 10 baizik ez. «22 bill» horren behar gorria egoera hitz horretan funtsatzen dute Bourassa-ren aldekoek. Erdi-bideko direnek, berriz diot.

Bourassak «kultur-segurantzia» nahi luke bere herriarentzako: kulturaren alorrean ez dugu nahi Quebec gurea ez den gehiengo baten eskuetara erortzea. Zentzua baizik ez da bilatu behar gure nahi horretan». Ezen «guk, Kanada-ren barruan frantses gutxiengoa izanik, ezin dezakegu frantses kulturaren hazkundera gurea ez den gehiengo inglesdunaren eskuetan utz». «Kulturaren alorrean —ekin du

Bourassak— kultur-nagusitasuna nahi dugu».

Horretarako, aginte-sailak berezi behar dira ongi; eta, Frantziarekiko loturak azkartuz, eskubide internazionalaren eremuan berrikuntzak ere eginez, frantsestasunari gogor eutsi.

Berrikuntza horiek, zeren arabera? Hona hemen egoera Bourassaren beraren hitzez: «Kanadako gobernu-buruak bere eskuetan dauka erresumaren defentsa edo **gerizabidea**; Quebec-ekoak, berriz, **hezkuntzaren arazoak**. Nor bere saillean edo baranoan, horretara, nagusi eta libro dira bi **agingtaritzok**» (= ils sont souverains).

Quebec-tarrak, jakina denez, bost miloi dira. «Bigun»-tzat jotzen dute Bourassa bertako abertzaleek; eta René Levesque-ren Alderdiak («séparatiste») % 30 boz atera zituen azkeneko hauteskundeetan, 1973-ko udazkenean. Askok uste du, hortaz, Quebecen Bourassa «katu epel» bat baizik ez dela...

Halaz ere, gure hizkuntzaren eta gure herri-nortasunaren egoera mila aldiz larriagoa izanda, «euskeromano» deitzen gaituzte «euskaltzale» (???) batzuek. Eta zenbaitek, xeru-xeru, hala dela sinisten!

Noiz arte?

(1974)

BENVINGUTS A ANDORRA

25.000 biztanle, 464 km², mendi betean mila metro goratasunez, ikusgarria da Andorra. Eta areago euskaldunontzako.

Malkor eta gailur haien artean, euskal bihotza ez bide da zeharo arrotz gertatzen. Are gutxiago —Corominas-en izkribuak irakurri baino lehenago ere— leku-izen askoren euskal kutsu nabarmena ohartuz: Larrabasa, Aos, Bixesarri, Lorri, Anyós, Escás, Juberrri (= «nom d'origine basque», azaltzen du erosi dudan liburu gidariak, «comme dans la majorité des villages d'Andorre»); Andorra bera agian, Andoain, Andosilla eta Andueza ezagutzen ditugularik. Noiz galdu ote zen gure hizkuntza eskualde garai haietan? Ondoko Ribagorzako mendialdeak euskara, gutxi gora-behera, XIV. mendera arte entzun baldin badute, noiz katalandartu ote ziren andorratarrak? Azterketek jakin eraziko digute ondoko urteotan; eta sospresak izango direla gauza segurua iruditzen zait.

Utz dezagun hori, dena dela, alde batera, beste zerbaitetz lerro batzu izkiriatzeko.

Andorra ez da gaur antzinatasunaren gordailu bat. Inon-

dik ere ez. Andorraren ezagugarri nagusia, hain zuzen ere, gaurkotasuna da, bizitasuna, berritasuna. Baserri zahar ilunik oraindik ere ikus badaiteke Bixesarrin edo Canillon, Barcelona bide da Andorra: dendak ugari, merkatalgoa bizi, etxeak berri eta gora, kezko kutsadura itogarri, berebila uzteko tarterik ezin aurki, eta abar. Eta, hori bai: katalanez.

Turismoaz bizi da Andorra, ia osoki. Mendieta mazelan, nekazaritza-lanetarako behinola prestatutako zabalgu-neak, zabarturik agertzen dira. Andorratarrak aisago bizi daitezke salerosketaz; eta nekazaritza, tabako apur bat izan ezik, aldebat utzia dute.

Turismoaz bizi. Hortaz, kanpotarrez bizi. Hortaz, ondoko katalanak kenduz gero bederen, frantsesez eta españeraz mintzo diren etorleez bizi. Hots, hauxe da harrigarriena: Andorra kanpotarrez bizi den herri txiki bat izanagatik ere, katalana da arrunt, eta katalan agertzen du bere burua.

«Poble Andorrá» kaseta, katalan hutsez argitaratzen da, turista famatu horietaz jaramonik ez eginik. Ostatueta, gelako oharrak eta ordainketa-hostoak berak katalanez ematen dira soilki. Gauza bera denden izena, denak ulert-errezak ez badira ere: «saló de bellesa», «basar», «cuina selecta», «rellotgera», «canvi de monedes», «viatges». Saltokietan, baita handienetan ere katalanez irakurtzen dira izkirioak: «raspalls», «sabons», «clarins», «frikenz», «sortida», «defés de fumar». Eta diru-kaxan, ohar hau dago: «no se admétrá cap reclamació»; baita «el nostre magatzem romandrà obert». Komunetan «dones» eta «homes» irakur daiteke. eta lanetan ari diren denda batetan, hau: «assabenta als seus client i amics la propera obertura del nou establiment»...

Areago. Kalea gurutzatzeko argi gorriak daude; eta hauek, nahi izanez gero, eskuz eragin daitezke. Hots, azalpen bakarra hau da: «Per a passar pitgen el boto».

Eta, berebidez nindoalarik, kale batetik kontrara sartu nintzenean, antza, berebiziko predikua bota zidan politziak; baina ez nion gauza handirik konprenitu, bere «prediku» hori... katalanez egin baitzidan!

Horrelakorik gure artean gertatuko balitz, zer ez genuke entzungo «chauvinismoz» eta abarrez? Turistez bizi izanda, nola liteke horren «errealismo» urririk izatea? Nola li-

teke horren «katalano-mania» eroa izatea? Nola liteke horren «errespetu» gutxi izatea? Geure artean ahakepa hitzgingo genuke euskaraz, eta goratik ari izatean erdaraz. Industriaz bizi garelarik ere lotsaturik, eta erdaldun bakar batek zeharo jota uzten gaitul'rik, noraino ez ginateke joango Andorra-koen kasoan bezala turisten irribarreez eta onginahiaz bizi behar izanez gero? Badakigu noraino: aski da Donibane, Maule eta Garazi bisitatzea... Lehenago hil euskaltasun aztarnarik agertu baino. Larrañeko oroitarrian bertan, dena frantsesez: «une route entre vallées soeurs», eta abar.

Euskal izeneko kaseten abonamendu-txartelak ez ote dira, bada, frantsesez egiten, eta inor ere harritzen ez delarik?

Andorrak, alderantziz, turismoaz elikaturik, bere askatasunari eta bere katalantasunari eusten diela-ta, ez dago batere hiltzeko zorian. Inoiz baino biziago eta inoiz baino aberatsago da, hain zuzen: 30 urte honetan, boskoiztu egin du bere jendaketa. Eta bide beretik jarraitzeko da: «L'éveil de la personnalité autochtone, défendant les coutumes, la langue et la culture face aux influences étrangères, est évident».

Nolako eredia! Euskarari buruz dagokionez koldar-zulo honetan bizi garenontzako, eta «por razones prácticas» kolonialista hori modan dagoelarik, nolako zarrastada Andorran!

Noiz izango dugu, ordea, andorrtarren oldartasun hori? Noiz izango, hizkuntzaren mailan, beste mailatan erakutsirik daukagun ausardia? Gizon gisa dugun harrotasuna, noiz izango euskaldun gisa? Zenbat mendetan barrena abiatu ote da gainbehera gure Euskal Herria, oraindik ere bere buruaz horren izuti eta horren beldurti egon dadin? Zenbat milaka tajerik sartu ote du gure herriaren muinetan bertan erdaldun agertzeko eta izateko jorana?

Noiz Andorra-tartuko ote gara, hitz batez, kanpotarren eta arrotzen esamesez futituz?

Noiz erasoko ote dugu, zinez, geure etxea osoki geure egin arte?

(1975)

ZERTAN OTE DIRA ARMENIARRAK?

M. Kemal urrun da, Smyrna-ko hilketa basa urrun da; eta Armenia-ri buruz gaur ezer izkiriatzek halako anakronismo kutsua badu. Badakit. Biafraz edo Kareliaz izkiriatzek bezala.

Azkeneko asteotan, halere, armeniarren berri eman dute Europa-ko aldizkari batzuek bederen. Zenbaiti atsegin ez bazaio ere, «armeniar arazo» bat badago; eta arazo hori **nazio**-arazo garbia da.

Orain dela 50 urteko **genozidio izugarria** ahaztu nahi bada ere (= 1.500.000 bizilagun erraustuak, hildakoak eta desherrituak batuz, ozta-ozta lau miloi zituen herri txiki batetan!), armeniar herria hiru zatitan zatiturik badago ere, ez da zeharo suntsitu. Armeniarrak 3.600.000 bat lagun dira gaur.

Gehienak URSS-en barruan bizi dira (2.300.000 lagun, jendaketaren % 88 Errepublika horretan) «Armenia»ko eskualdean.

Turkian, berriz, 1.000.000 bat inguru bizi dira, Kemal-en genozidioan salbatu zirenen ondorengoak, Kurdistan-go mugaren ertzean eta mendi-tontorretaraino. Hauek eta haiek,

jakina denez, zeharo ukaturik eta zapaldurik; URSS-en baino aisa okerrago.

Eta, Iran-en azkenekorik, ba-bide dira beste 300.000 bat; hauek ere, esan beharrik ez dago, herri gisa arrunt ukatuak.

Bi dialektu nagusitan mintzaturik (URSS-eko Armenia-ko lege-hizkuntza bata, «ekaldetarra»; eta Iranen eta Turkian «mendebaltarra»), orain dela hamabost mende «batua» eta idazkera bereziaz hornitua, armeniera oso hizkuntza harriarria da: indo-europar mintzairetan bitxiena askoren ustez.

Jatorriz menditarra den herri hori Ararat mendiaren eta Van lakuaren inguruetan bizi da oso aspaldidanik; baina kaletartzen hasia da (% 52 kaletar orain dela hamabost urte).

1925-an Adana-n, Van-en, Marash-en, Smyrna-n **ehunda milaka** doilorki xehaturik, turkiatartu ala hil du hautu bakartzat. Turkiako Kurdistani buruz bezala zentsura gaitza izanik, ia ezer ez dakigu. Baina Frintziako armeniarrek noizpehinka helarazten dituzten deihadarrez bestalde, nazio-arazo ezinago larria badagoela somatzen dugu.

1915-1916-an lehendabizikorik, eta 1922-an Smyrna-ko hondamendian gero, juduek 1944-1945-an ezagutuko zuten genozidioaren lehen saialdia ezagutu zuten armeniarrek. Gogora dezagun hitz laburretan. Turkiar armadak inguraturik zegoen Smyrna; eta bi kilometro luze eta ehun metro zabal zituen lur-zerrenda hestu batetan pilaturik zeuden 500.000 lagun, harago ezinik (greziarrak gehienak, bai; baina armeniar mordo handi bat ere bai haiekin, ihesi iritsirik). Itsasoaren aldera tiroka bultza eta bultza, hantxe hil ziren, Dante ikaratzeko moduan, zeuden guztiak. Auschwitz baino lehenago bederen munduak ez zuen izugarriagorik ikusi. Eta istorilariak diotenez, armeniarrek bildu zuten herrarik goriena, nahiz 1922-an iskilurik ez hartuak izan. Turkiataren mamu beltz madarikatua armeniarrek ziren.

URSS berria, Lenin buru, hor zegoen, Iparraldean, mendebaltarren mehatxu; eta Kemalen Turkia, genozidiotan usatua ere, anti-sobietikoa zen! Isildu egin behar, hortaz. Eta Europako eta Ameriketako agintariak isildu egin ziren. Eta 1.500.000 armeniarren heriotzak ez zuen munduan arrabots ozenik sortu.

Eta, gaur? «Armenie? Connais pas». Nahiz gertakari larri horiek azterketa sakon bat merezi izan, nahiz hilkintza itsu horiek edonori pentsarazteko gai izan; edo-ta honengatixek beharbada, aipatu ere ez! Baina Adanan, Vanen, Marashen, Smyrnan, **genozidio oso bat** gertatu zen; eta Turkia «zaharra» berri eta europatartu nahi zutenek burutu zuten. Armeniarrrak, ideiei eta klase-egoerari jaramonik egiten ez zitzaiea, **armeniar gisa**, eta Turkia-ren **etni-batasuna** soilki lortu nahiz, izan ziren erhanak; eta zakurrak baino okerrago hartuak.

Hots, Armenia sobietikoan ere, nahiz armeniarrek Komunista Alderdiari militante asko eman (Errusian bertan baino indartsuago da Armeniako K. A.: % 6,1), nahiz URSS-eko armeniarrrak Turkia-koak eta Iran-goak baino askoz hobeki tratatuak izan, Armenia-ren **errusitartzea** salatzen da gero eta sarriago. Transkaukasiako Bulego bereziak (Georgia, Armenia eta Adjerbaidjan-go errepublikak «jarraitzeko» apropos sortua), 1829-an Errusiako Czar-ek burutu zuen okupazioari eutsiz, Moskuko interesak zaitzen ditu eta ez armeniarrenak. Noski!

Orain dela hilabete batzu Moskuk, Armeniako buruzagi mordo bat bazter erazi ondoren (Kotchian lehen Segretarioa barne), «sobietar abertzaletasuna» azkartzeko eskatu du, eta «aberrikeria burges txikia» gupidagabeki erauzteko.

Armeniar galbarioa, beraz, ez da bukatu. Eta baliteke ondoko urteetan hiru eskualdeetako armeniarrrak Armenia Batu eta Askatu baten alde burrukan hastea. Ahal badute! Ez bailitzateke, bidenabar esateko, lehenengo aldiz izango!

(1975)

IRLANDA-RI EZ-IKUSIA

Orain dela mende erditsu bat, garai hartako izkribuak irakurriaz egizta daitekeenez, Irlanda aldera begiratzen zuen euskaldun askok; baita haruntz joaten ere, argi bila. Gaur, herriz, inor ere ez.

Hots, Irlanda-ko gertakariak, belaun berriari atseginez bazaizkio ere, hango egia aurrez aurre begiratzeko eta bilatzeko bertutea behar genuke izan.

Gauza jakina denez, gehiago ikasi ohi du Jakintzak «bitxikeriak» ulertu eta azaldu nahiz, lerro-lerro burutzen diren gertakari arruntak aztertuz baino. Etsenplu ezagun pare bat ematekotan: Urano-ren orbitaren «bitxikeriak» hausnartzur aurkitu zen Neptuno; eta Merkurio-ren perihelioaren «bitxikeriek» funtsatu zuten Einstein-en teoria.

Irlanda-ko «bitxikeriak» ere, horretara, argi-iturri gerta dakizkiguke; eta hango gertakariak behar genituzke hain zuzen ere sakonki aztertu.

1916-an afusilaturik hil ziren abertzaleen helburu bikoitza hauxe zen: «Irlanda askatua bai, baina gaelikoa; Irlanda gaelikoa bai, baina askatua». «Askatua» esanez, jakina,

«batua» ere adierazi nahi zuten; Ulster-ko bi herenen be-
reztea eta galtzea geroago mamitu baitzen, britaindar in-
teres nagusien salbakuntza nolapait bederen segurtatze-
kotan.

Irlanda batua eta Irlanda gaelikoa, beraz.

Baita, 1916-ko altxamenduan Connolly-rekin parte har-
tu zuten sozialista abertzaleen aldetik, Irlanda sozialista ere.

Hots, jakina denez, Irlanda ez da batua, ez gaelikoa,
eta ez sozialista.

Iparaldean, industria zuen eskualdean hain zuzen,
«protestanteak» nagusitu ziren Londres-en laguntzarekin
(irakur: britaindar burgesia); eta inperio barruan gelditzea
lortu zuten. 1922-az geroztik erdibiketa hori IRA-k inoiz
onartu ez badu ere, Dublin-go gobernuak potto egina du;
eta ontzat eman zuen jatorrizko helburuaren «batua» hura,
alde batera uztea. Ekonomiaren aldetik, gainera, diruketa-
ren sailean, % 70 gurutzatzen du gaurko Irlandak Bretaña
Nagusiko gobernuarekin eta burgesiarekin; eta internazio-
-jokoan zeharo agertzen da Londres-en adar «katoliko» ba-
ten gisara.

Pearse, 1916-ko altxamenduaren buruzagia, gaelikoaren
bultzatzaile porrokatua izan bazen ere (Dublin-go lizeo ba-
tzutan gaelikoa lehenengo aldiz erakats-araziz, eta olerki
sutsuak idatziz) ondoko irlandar gobernuak ez dute hizkun-
tzaren arazoa inoiz seriotan hartu. Itxuraz bai, jakina: pa-
perean, agirietan, axalean. Eskuindarrak egon dira na-
gusi Dublin-en Eire-ko erresuma sortu zenez geroztik. Eta
eskuindarrek, Irlanda-n eta nun-nahi —behinola Orixen-
lanak orrialde hauetantxe aztertuz erakutsi uste izan nuen-
ez— FOLKLORE-gisa ikusten dute hizkuntzaren arazoa:
besteentzako, gerorako, eguneroko bizieratik kanporako,
urrutirako, zeregin ameslari eta ihes eragile gisa. Famelian
erdaraz, gure artean; baina mendi-gaillurretan erdara en-
tzunez gero, eskomikuen erretolika azkengabea! Gaelikoa,
horrela, ezkertar abertzaleek berehala bultzada bat ematen
ez badiote bederen, galdutzat eman daiteke.

Connolly-k, hirugarrenekorik, 1916-ko altxamenduan bu-
ru-orde izana, pizkunde gaelikoa zeharo ontzat eta beharrez-
kotzat jorik ere, sozialismoaren bilakuntzan eta burrukan

egina zuen bere burua. Connolly-k, eta berarekin batera Londres-en aurka altxatu ziren sindikalistek eta langile gorriek, Irlanda sozialista bat eraiki nahi zuten; Connolly-ren hitzez esateko, «gizadi guztiarentzako itsasargi gardena» izango zen Irlanda sozialista. Honen ordeztan, berrogei-ta-hamar urte honetan, ultramontanoak eta atzerakoiak gertatu dira nagusi.

Eta gaur euskaldun gazteek, noski, ez dute Dublin aldera ezertarako begiratzen.

Hain zuzen ere, ordea, hauxe behar genuke denok aztertu eta ulertu. Eta sozialistok batez ere.

Zeren-eta, hango gorabeherak aztertuak dituzten gehienek diotenez, Connolly hil ondoren behintzat, eskuindarren eskuetan utzi baitzuten irlandartasuna Irlanda-ko ezkererrek; eta Londres-en araberako abstraktokeria hutsaletan galduta, abertzale eta gaelizokale zen herriarengandik berezi baitziren, Irlanda-ren geroa hauek eta haiek irtenbidetik gabe utziz.

Badugu, beraz, euskaldunok, kaso honetan luzaz eta arretaz gogoeta eginik.

(1975)

IDAZLEEN GORABEHERAK CYMRU-N

Gure «Euskal Idazleen Elkarte» zoritxarrez aspaldi honetan lozorroan datzalarik ere, haren premia eta haren piztubeharra nabarmen senditzen dugu euskaldun idazleok. Den-denon artean konponbiderik ez badago ere, sail batzutan bederen nabarmen senditzen dugu (eta areago egun hauetan) elkartu egin gintezkeela gehienok, geure abotsa entzun erazi behar genukeela, eta elkar lagunduz hasi.

Lumakideei doakie bereziki dei hau hortaz, eta Elkarte haren azken Lehendakaria izan zen Torrealdai-ri areago.

Baina dei horrekin batera Cymru-ko (=Gales-ko) idazleei buruzko dato gogoangarri batzu aipatuko ditut. (Ikus «The Welsh Writer and his Books», R. Gerallt Jones, 1973).

Aski da Cymru-ko demografia gogoraztea:

Cymru-ko jendaketa (1972) 2.700.000 lagun

«kimri»-eraz mintzo (1961) 656.000 lagun

Cymru-ri buruzko gorabeherak guretzako argigarri izan daitezkeela konprenitzeko.

Ez hori bakarrik.

Jendaketa horren 3/4-ak (ia-ia bi miloi lagun) Hegoaldean pilaturik bizi dira, Caerdydd-eko (= Cardiff-eko) «hin-

terland»ean; oso inglestutako miatz-eskualdeetan, beraz. Hustutzen ari den lurraldeetan atxiki du kimri-erak, hitz batez, jendaketaren laurden baten ahotan; eta soziologi modernoa dutenetan, berriz (Newport, Cardiff, Swansea) galdu egin da; edo galtzen ari da bederen eta azkar.

Gaur, dena dela, neure honetan, **idazleei buruzko** gora-beherak aipatuko ditut soilki.

Zertan dira Cymru-ko gure lankideak?

Ez dut galdera osoki erantzun ahalko, jakina. Baina dato interesgarri batzu eman, bai.

1971-an, **177** liburu argitara ziren Cymru-n, kimrieraz; eta 1972-an, **203** liburu. Alde honetatik, hortaz, Gales-tarrak aurreruntz doaz argitaraketaren sailean; baita, San Martin-ek eman ohi dituen datoen arabera iritzita, gure aurretik joan ere.

Kimrierazko eskoletan egiten den lana alferrik ez galtezketan, eginahalak egiten dira gaur Cymru-n gazteentzako irakurgaiak prestatuz; eta 1971-an, horretara, 46 liburu argitara ziren haurrentzako (argitara-kopuruaren % 26, hortaz).

Beste sail berezi bat ere badago Cymru-n: hizkuntza ikasten ari direnentzako liburu errazen saila. 1971-an, gomarazio baterako, hiztegi mugatu bat baliatuz, 14 liburu argitara ziren «kimri-dun-berri»entzako.

Argitara-etxeak larri ibili ohi dira ekonomiaren aldetik; kimrierazko liburugintzan galdu egiten baita dirua eskuarki («the market for Welsh books is not sufficient in strictly commercial terms»). Orain dela urte gutxiz geroztik, laguntza txiki bat jasotzen hasi dira liburugileak gobernuaren aldetik: 100.000 esterlina 1972/1973-an (bi milloi peseta, gutxi gora-behera).

Zenbat liburu saldu ohi da? Gerallt Jones-ek dionez hau izaten da liburuen salmenta:

hitz-lauetzkoetan	1.000 ale
bertsozkoetan	750

Zenbait aldiz bakarrik, liburu batek edo bestek interes berezi bat duelarik, 2.000 ale sal daitezke. Inglesezko liburuek Cymru-n 500 ale saldu ohi baitituzte (nahiz inglesez dakitenak 2.700.000 izan), gauza bat ageri da: kimrierazko liburua ez dela beharrak eraginda erosten, eta as-

kotan irakurri gabe gelditu ohi dela apaletan.

Cymru-ko Literatur-Sariek ez diote gaur gaurkoz idazleri bizimodurik ematen: 1972-an, esate baterako, 250/300 esterlinatan zegoen sarien erditsua (alegia, 50.000 pesetatan).

Oraindik ere gaizki ikusia da, galestarren artean, kimrieraz idatziz edo bertako kultur-pizkunde lanen bitartez bizi ahal izatea. Zaharrek, batez ere, itsusi atxematen dute bizipidea eta hizkuntzaren langintza elkarri lotzea («a feeling that Welsh culture is, always has been, and should remain, close-knit, voluntary, part-time and essentially uncorrupted by the evils of financial inducement»). Zin-zinez esan baitaiteke: «nihil novum sub sole»...

Idazle gazteak gero eta gogorkiago agertzen dira zaharren joera «ameslari» horren kontra. Baina oraingoz laguntza urria dute: idazleentzako moltsatan 21.000 esterlina eman ziren 1972-1973-an (lau bat miloi peseta). Ned Thomas-ek, esate baterako, ingleseko literatura (!) azaltzen du Aberistwyth-en.

Idazlanak, bestalde, ez dira nasaiki ordainduak. Liburuaren prestaeran, esate baterako, hauxe zen (1972) lantsaria: 1.000 hitzen prestaerak 2 esterlina; egiten baitu: hitzak 0,40 peseta. Liburu arruntz baten prestaerak, horretara (50.000 hitz) 100 esterlina ematen zizkion egileari (1972). Eta, horrez gainera, salmentaren % 10 gehiago, liburua saldu ala emanak («the author receives 10 % royalty on every copy sold»).

Aldizkariak, berriz, badute gaur, gobernuaren aldetik, laguntza apur bat: 13.000 esterlina (1972-1973); hau da, bi miloi t'erdi peseta. Bederatzi astekari daudenez gero Cymru-n, kontua erraza da.

Goitik jota ere, galestarretan bostetatik batek bakarrik irakurtzen du gaur kimrierazko aldizkaririk; zeren-eta bederatzi astekariok, elkaturik, 50.000 ale saltzen baitituzte atero (1973). Euskal Herrian irakur-maila hori bera lortzen ote dute gure aldizkariak? Ez dut uste.

Irakurleek, eta idazleek bereziki, dato hauetaz, pentsatzea nahi nuke. Baita, bereziki, euskal kultura lagundu nahi omen duten horiei guztiei berri hauek zehazki jakin eraztea.

Itsumustuka ibili beharrik ez dago ta.

(1975)

CONNOLLY ETA EUSKAL EZKERRA

Maila guztietan dugu gaur burruka gaitza Euskal Herrian.

Bortxaren maila gertatzen da, jakina, gailen-gailenik: hau hila, hura hila, Urtia zauritua, Berendia torturatua, harapatua, desherritua, mehatxatua. Baina beste mailetan ere bai: ekonomiaren mailan, esate baterako, klase-burruka berberaz gain ere, Euskal Herritik ateratako dirua sistemakiro Españako lanetan erabiltzen delarik; demografiaren mailan, Euskadiko kapitalisten laguntzarekin, gure herritasunaren funtsa bera aldatzen ari delarik; hizkuntzaren mailan, euskara leku askotan itzaltzen ari, eta bestetan euskal pizkundea (ikastoletan eta kantari berriengan bereziki) indartu nahi delarik. Eta abar.

Maila berezi batetan gaur gertatzen den burruka, ordea, «intelektual-keria» hutsaltzat jota, gutxietsi egin ohi da gure artean. Hots, gaur gertatzen ari den **ideien mailako burruka latzak** garrantzi guztizkoa izan dezake geroari buruz; euskal **estrategia, eta** Euskal Herriaren etorkizuna hortaz, ideien mailako gataska horren **ondorioak** markatuko baitu.

Hots, zerbait irakurria duen itsu batek ere ikus deza-keenez, etsaiaren gaurko joko nagusia hauxe da: **Euskadin Euskal Sozialismoari bidea hestea**. Ezker abertzalea sortua eta indartua ez deno, ordea, Euskal Herriaren arazoak ez du konponbiderik; eta guk baino hobeki daki hau inperialismoak.

Euskal eskuindar ultrak, horretara, eta erdal sozial-inperialistak, etsaitasun-maila berean jartzen ez baditugu ere, euskal ezkerriari trabak eta erdal ezkerriari losentxak jartzen dizkieten aldetik, zinez ari dira eskuz esku gure herriari egin dakioken kalterik larriena egiten. Euskal ezkerria gabe, berriz ere, inperialismoa aterako baita nagusi, Irlandan atera den bezala; eta sozialismoa ez baita, halere, nagusituko ez Españañan ez Euskal Herrian; ez Irlandan ez Bretaña Nagusian nagusitu ez den bezala.

Irlandarren arazoaz gu ez kezkatzeak itsutzen ere du bere argitasunean; zeren-eta ezkertar abertzaleek Irlandako ger'akariez areago arduratzen ez badira, honengatik ez besterengatik baita: sozial-inperialismoak, nazio-izaria eta klase-izaria berezi nahi horretan, benetako problemetatik at behin eta berriz baztertu nahi gaituelako.

Hots, hauxe da ideien mailako burruka zorrotz eta funtsezko hau gaur askok, sozial-inperialismoak txertatutako ezkerkerian eroririk, ikusi nahi ez duena. Ezker abertzale onartzen ez duen euskal eskuina, eta eskuin abertzalea onartzen ez duen erdal ezkerria, gaur, zaku berean jar daitezkeela: **Inperialismoaren jokoaren zakuan**.

Klase-arazoa eta nazio-arazoa bizi-bizirik ditugu gaur Euskal Herrian.

Baina ez gara bakarrak, ez lehenengoak, eta ez azkene-koak ere eskierki, problema bikoitz honetan. Badugu zer ikasirik, beraz, egoera horixe ezagutua duten beste herrien gertakarietan. Israel-go ezkertarrek (bundistek eta judutar sindikalistek, batez ere); Austri-Hungria-ko sozialista abertzaleek, txekotarrek eta austro-marxistek bereziki; Hirugarren Munduko ezkertarrek (Fannon, Memmi, eta abar); Catalunya, Occitania eta Breizh-eko sozialista abertzaleek, eta bestek, bikoiztasun zail hori izan dute kezkaburu.

Ez du funtsik, zinez, gaurko ezkertar abertzaleek **batez**

ere horien saiaketak, garaitzapenak eta galerak hobeki ez ezagutzeak. Zinez diot: ez da azaltzen ahal. Nazio-arazorik ezagutu ez duten sozialisten kontseiluek ez digute balio, eta kapitalismoaren zapalketa erauzi nahi izan ez dutenen abertzaleenek ere ez.

Hitz-ek, Euskaldunak-ek, Anaitasuna-k, Zutik-ek, sozial-inperialismoaren jokoa egingo ez badute, problema horietxek behar lituzkete argitu aurrenik; eta militanteen ikastaldietan, era berean, kaso horietxek behar lirateke aztertu.

Gainerakoak, nazio-arazoa alde batera uzten duenez gero, egoeraren kakoa uzten du alde batera; **eta, hortaz, ezin bestean, eskuinaren, burgesiaren eta inperialismoaren jokoa egiten.**

Zergatik ez dira euskaraz argitaratzen, esate baterako, Gwenalt (1968-an hila) galestar sozialista abertzalearen olerkiak? Noiz bilduko ote da behar den dirua, eta noiz sortuko ote da abertzale ezkertarraren Liburu-Sorta? Noiz jarriko ote ditugu, ideien mailan, euskal ezkerren oinarriak? Euskal ezker pluralista, jakina, anizkorra, joera desberdinetakoa; baina abertzalea eta anti-kapitalista.

Denon eskuetan dago eginkizun hau; eta horretara dator dei hau.

Badugu, esate baterako, gailen, nabarmen, eskuragarri, Irlandako kondairan, ETA-ren iragarle zehatz-zehatz bat: **James Connolly**. Eta ene galdera hau da: nola konpreni daiteke **Connolly**-ren bizia eta izkribuak ETA-koek berek, eta abertzale ezkertar guztiek, hobeki ez ezagutzea? Connolly argi-iturri izan baitaiteke.

Sozialista iraultzailea zen Connolly, eta sindikalista gogorra ere bai, batez ere Ameriketara pasa zituen zazpi urteetan (1903-1910). Irlandatik kanpora, txirotasun osoan 1868-an sortua, «**Irish Republican Socialist Party**» antolatu zuen 1897-an, abertzaletasunaren eta sozialismoaren arteko batasuna proposatuz; eta Irlandako Sozialista Errepublikak Askatua helburutzat hartuz.

Ameriketatik 1919-an itzultzean, bero-bero aurkitu zuen bere herria, inperialismoaren kontra altxatzeko bezperan; eta ahalegin guztiak egin zituen irlandar langileak abertzaletasunera bultzatuz («**ezin desiragarriagoa da Sinn Fein eta sozialismoa elkargana hurbiltzea**», esan ohi zuen); eta Sinn

Fein-en abertzaleak sozialismoaren aldera ere bai («gosez hiltzen ari diren jendeek ezin dakieke gaelikoa erakats»).

1913-an Irish Citizen Army (Abertzale eta Sozialista batera) agertzean, oporraldi luze eta gogor batetik irten berriak ziren bere langileekin hartara sartzea erabaki zuen Connolly-k. Eta, horretara, handik hiru urtetara, 1916-ko Bazkoko Altxamendua gertatu zenean, batera aurkitu ziren britaindar inperialismoaren kontra **Connolly** sozialista eta **Pearse** olerkari gaelikoa; batera, beraz, sozialista abertzaleak eta burges-txiki abertzaleak.

Egun ospagarri hartan irakurri zen «**Errepublikaren Agiria**», Connollyk eta Pearsek idatzi zuten batera; eta hau irakur daiteke besteren artean: «**Nous déclarons souverain et imprescriptible le droit du peuple d'Irlande à la possession de l'Irlande, et au contrôle sans restriction des destinées irlandaises.**»

Dublin-go kaleetan sei egun ez iraun zuten tiroka abertzaleek. **Connolly**, zauriturik eta gangrenaturik, aulki batean exerita afusilatu zuten ingelsek, beste hamabost buruzagiekin batera, zutik egoteko gauza ez baitzen. Altxamenduaren ordaina gaitza izan zen: 3226 gatzeletan, 1862 desherrituak.

Geroztikako trajeria denok ezagutzen dugu.

Irlanda ez da gertatu batua, ez gaelikoa, eta ez sozialista; eta Connolly-ren hiru helburuok salduak izan dira geroko Irlanda elizkoi britaintzalean. Norena ote errua? Nekez argi nezake nik hemen korapilo ilun mingarri hori.

Ezker abertzalearen ahulezia da kakoa askoren iritziz. Jordi Venturak horrela azaltzen du gerokoa: sozialistak (Finlandian bezala, bestalde) ez ziren aski abertzale gertatu; eta herria abertzale izanik, eskuindarrek bildu zuten fruitua, dena gero salduz: «**Ce que l'exemple irlandais démontre à l'évidence, c'est que les champions de la lutte des classes ne peuvent pas se permettre d'ignorer la lutte nationale, sous peine de se couper profondément des masses et pour longtemps**», dio Pierre Joannon-ek (Histoire d'Irlande, 252).

Connolly-ren semeak 1921-an sortu zuen Komunista Alderdiak, hiru urtez, baizik ez zuen iraun (Komintern-ek desegina izan zen). 1931-an sortutako «**Saor Eire**» sozialista

alderdiak, ezer gutxi lortu zuen. Eta IRA ofizialak, Gouling-en gidaritzapean, ezer gutxi lortu du azkeneko zertzi urte hauetan sozial-inperialismoaren aldetik abiatuta.

Dublingo gobernuaz zer erantsiko? Beste frogakari nazkagarri bat eman digu egun hauetan, Txiki eta Otaegiren arazoan, bere enbajadorea Madrille-tik... ez mogituz!

Connolly-ren patua eta iritziak, horretara, oso interesgarriak zaizkigu. Eta lagungarri gertatzekotan, hona hemen iturri batzu:

—DR. NOELLE DAVIES.

«**Connolly of Ireland, Patriot and Socialist**».

Swyddfa'r Blaid - Caernarfon, 1946. Wales.

—PIERRE JOANNON.

«**Histoire d'Irlande**».

Plon, 1973.

—HAUPT, LOWY, WEILL.

«**Les marxistes et la question nationale**».

Maspéro, 1974 (344-368 orr.)

—JORDI VENTURA.

«**Les cultures Minoritaires Europees**».

Barcelona, 1963.

—MAC ANNGHUSA.

«**The best of Connolly**».

Mercier, 1967.

—CONNOLLY.

«**Selected Writings of Connolly**».

Penguin Books, 1973.

—CONNOLLY.

«**Socialism and Nationalism**».

Dublín, 1948.

—GARNIER.

«**Histoire d'Irlande**».

(1975)

KORTZEGA BERRIZ AIPU

Edmond Simeoni-ren arazoaren urtemuga zehazki betetzen zelarik (bi jendarme CRS hilak iazko Abuztuan, irakurleak dakikeenez), eta «Associu di Patrioti Corsi», APC delakoaren lehenengo Biltzar Nagusia bukatzen zen unean, Max Simeoni-k, gartzelan dagoenaren anaiak beraz, beste komando abertzale baten buru jarririk, sabotaje gogor bat egin du Aghione-n (Kortzegako Ekaldean); eta isilpera pasa da segidan hor nunbait uhartean bere burua izkutatuz.

Kezka, horretara, berehala handitu da Parisen eta Frantzia osoan. Eta bapatean bigarren lerrora pasa dira Abbazia-ko APC Biltzarra, baita Abuztuaren 22-an hara bildutako 5.000 abertzale bakezaleak.

Hasia ote da Aljeria edo Tunizia berri bat? —galdezen diote beren buruari frantses agintariak.

Politikaren bideak baliatu nahi dituztenek erre kara josten baldin badute, Simeoni-zaleek izango lukete arrazoina; eta politika mailatik gerrilara pasako litzateke Kortzega. Hots, jakina denez, gutxi dira kortzegatarrak, baina beren uharte menditsuan nekez dira biltzen eta menderatzen. Agintaririk argienek, hortaz, «zerbait» eman beharko dela ha-

siak dira sinesten; eta, beste alderdian, ezer lortzen ez bada burruka armatua egin beharko dela pentsatzen hasiak dira kortzegatar abertzalerik gogorrenak.

Hots, Max Simeoni-ren hitzak, nahiz «Fraintziaren barruan» leloaz oratuak, gogorak izan dira: «Gaur, Abuztuaren 22 honetan, hamabost lagunen laguntzaz baliaturik, eta erantzukizuna nik neure gain hartzen dudala, «Cave Cohen-Skalli» delakoaz nagusitzea erabaki dut. Legetik kanpo obratzen dudan ekintza honen bitartez, hau adierazi nahi dut: agintariak eskaini zizkigutenak oro gelditu direla asmo mailan eta ez direla obratu. Esate baterako, eta urtebetza pasa ondoren ere, lapurren lurraldeak ez zaizkie oraindik kortzegatar gazteei bihurtu. Ez dugu esango Cohen-Skalli ere lapurra denik, baina 400 hektara ditu gure lurraldean, baita hiru arnotegi eta interes larriak Fraintziako partean.

Ez da Kortzegan bizi; eta kolonialismoak sortu duen agente berezi horietakoa da nabarmenki. Hots, guztiz premiatsua da kortzegatar herria hondatzen duen kolonizazio hori geldi eraztea, kortzegatar herria bera desegitera baitarama horrek. Frantses Errepublikaren barruan, hori dela bide, Autonomia eskatzen dugu.»

Hots, Max Simeoni ez da gazte burubero bat. Sendagile ezaguna uhartean, 47 urte, intelektual gisa ikasia eta erruz irakurria, Simeoni ez da ero bat. Bere pausua ez du arinki eman. Simeonik, hitz batez, ez du Fraintziaren borondate onean sinesten; eta politikabideek, giro horretan, inora ez daramatela sinetsi du.

Eta hauxe da larriena Kortzegan: politika-bideak irtenbiderik gabe gertatzean, Max Simeoni-ren ekintzak egun odoltsuen zantzu ikaragarri agertzen dela.

Herri bat zinez altxatzen delarik, nekez geldi baitaiteke gertakarien isuri latza.

(1976)

MONTREAL-DIK IRUÑA-RA

Quebec-etik etorri zaigun berriak bazterrak harrotu ditu, eta areago harrotuko ondoko asteotan: Canada-n joan den Azaroa-ren 15-an izan diren hauteskundeetan, Lévesque-ren abertzaleak («Parti Québécois» delakoa, «indépendantiste» hitzez hitz esateko) nagusi gertatu dira Quebec-en (% 41).

Montreal-go burgesiaren saldukeria, horretara, garaitua da 1976-an. Bere klase nagusi arrotuaren kontra, ukatzen eta deserrotzen saiatu den Ottawa-ko erresumaren kontra, Quebec-tarrek abertzaletasuna eta askatasuna hautatu dituzte aurtengo Azaroan. «109 urte hitsetako mendea joana da, beharrik» irakurtzen da gaur Montreal-en. Eta esperantza da gailen. Ezen, zer dira, izan, 109 urteok herri batentzako?

110 deputatu daude Montreal-go Parlamentuan. Hauteskunde hauen ondorioz 70 deputatu izango dituzte Lévesque-ren alderdikoeak. Gehiengoa. Orain dela gutxi arte, nork soma zezakeen horrelakorik?

Quebec-ek 6.000.000 biztanle ditu. Ezer gutxi hango lurraldeetan: % 3, Canada + U.S.A. hartuz gero.

Hona hemen deputatu abertzaleen goraketa eta Quebec-

-ek ezagutu dituen gertakarien ilara:

1968: abertzale talde batzuek «Parti Québécois» sortu zuten, beren arteko zatikeriak alde batera utziz.

1969: Frantsesa ere Quebec-eko hizkuntza ofizialtzat.

1973: Abertzaleek 6 deputatu atera.

1974: Frantsesa Quebec-eko hizkuntza ofizial bakartzat.

1976: Abertzaleek 70 deputatu atera (nagusi Gorteetan).

Canada guztian hotzikarak harrapatzen omen ditu Canada Batuaren aldekoak; eta Ottawa-tarrek «norat ari gara» galdetzen bide diete beren buruei.

Lévesque-k, berriz, berehala jakin erazi du abertzaleen asmoa: bi urte barru referendum bat antolatzea Quebec-en; eta referendum horren erabakizuna hau izatea: Canada-n segi, ala Canada-tik berezi nahi ote duten!

«Le Monde»k «vague de fond» (itsas-hondoko tiraina) delakoaren harrigarria eta sakona aipatu du; eta André Fontaine, nazio arazoetan jakintsuenak, hau idatzi du txunditurik: «gure garaiko harrigarria da benetan naziotik at eta gainetik eraiki nahi izan diren horrenbeste plangintzaren errekaratzea». Beste hitz batez esateko: pisu eta indar izugarriak ditu gaur naziotasunak mundu guztian.

Euskal abertzaletasunaren zabalkuntzak eta indarketak, horretara, ezer bitxirik ez dute. Gu gara, abertzaleok, XX. mendeko gizonak, eta ez sozial-inperialistak. Gurea da etorkizuna, eta ez kolore honetako edo hartako inperialistena. Nor dago gaur «kondairaren isuriaren alde»? Abertzaletasunaren indarrean sinetsita gaudenok, ala horretan axalkeria, burgeskeria eta epifenomeno baizik somatu uste ez dutenak? Irakurleak erantzun beza.

Gizonek eta herriek sustraiak nahi dituzte; eta, quebec-tarrek bezala, herri-nortasun hori galtzeaz izan duten herriek, herrigintza horretan barrena, beren buruaren bilaketan barrena, abiatzen dira su eta gar, indar guztiez, trabak eta eragozpenak oro gaindituz.

1967-ko Uztailaren 24-an De Gaullek «Vive le Quebec Libre!» oihu hura bota zuenean, geroaren igarle gertatu zen.

16 urtetan (abertzaleen arteko erakundea 1960-an hasi baitzen) Quebec-eko abertzaleak jaun eta jabe agertzen dira gaur; eta Canada-ko erresuma bera kinka larrian.

Lévesque-tarren nahi nagusia zein den argi-eta-garbi

gogorazi du Lévesquek bere garaitzapena solastatzean: «Bere esan-nahi osoa eman nahi diogu "gu geurean nagusi" politika-leloari».

Garbiki azaldu du ere etorkinei buruz Quebec-eko gobernuak hartuko duen jokabidea. Quebec-en gelditu nahi duen arrotzak bide bakar bat besterik ez du izango: bertakokuntza, integrazioa. Hitz batez, etorkinek frantsesez hartuko dute beren heziketa nahi-ta-ez.

Beste nazio bat sortu da gure begien aurrean. Itxuraz bederen amerikartartzeko, eta bere berezitasuna alde batera uzteko, interesak oro zituen herri txiki horrek, «ez» esan du ozenki. Eta Ipar Ameriketako ingeles itsaso zabalean, **bera** egotea erabaki du.

Adibide aparta gaurko Euskal Herriarentzat!

(1976)

ALJERIAKO BERBERETARRAK ETA FRAINTZIAKO P.C.-A

Arabitarrak, Mahomet-en mezuak indarturik, Ipar Afrikan barrena hedatu eta gailendu baino lehenago, Maghreb-eko eskualdea ez zegoen hutsik. Mendialdean (eta ez mendialdean bakarrik) herri berezi bat bizi zen, arabitarren ahaide urruna: berberetarrak.

Berauek Erromako Inperioak lehenengo aldiz Ipar-Afrika guztian uxaturik eta ukaturik, handik sei zortzi mendetara arabitarrak indarrean hara zabaldu zirenerako, gainbehera zoazen berberetarrak. Beren herri-batasunaz ez oharaturik, Kabilia-ko mendarteetan sakabanaturik eta multxokaturik, han kokatu ziren; eta han-hemenka uharteturik agertzen dira gaur berberetarrak. Zenbait lekutan, aldiz, erabat suntsitu ziren: Canarias-ko «guancho» delakoak, gonbarazio batez, etnitasunez berberetarrak, XVI. mendean suntsitu ziren gaztelatar zapalkuntzaren eraginaz. Tuareg-tarrek bakarrik eutsi diote berberetarren alfabeto zaharrari: «tifinagh» deritzana, gaur MPAIAC-ek batzutan gogorazia; eta gainerako lekuetan arabitar idazkera nagusitu zen. Bertako elizak berak ere arabe moldean egin ditu liburu sakratuen itzulpena.

Frantses koloni-haroan (eta 1962-ra arte, beraz), frantses kolonikuntza jasan zuten Ipar-Afrikako herri guztiek: bai arabitarrek, bai berberetarrek berek ere.

1962-an Aljeriako F.L.N.-ak askatasuna lortzean, eten egin zen Pariseko administrazioaren zapalketa. Baina Aljer-ko gobernu berriak Islamismoa hartu zuen erresuma berriaren habe nagusizat; eta, honekin, eta ehun urtez kutsatutako frantses keriekin batera, elizkeria eta arabikeria sortu ziren.

Elizkeria diogu, zeren-eta, arabitarren artean oso erabilia izan den Aldare/Ezpata ezkontza aldrebesaren bitartez, Islam elizako gizonen eta instituzioen nagusigoa ekarri baita Aljeriara. Nahiz elizkeria mota hau, Memmik ongi azaldua duenez, areago izan nazio-beharraren ondorio, fedearen ondorio baino.

Eta arabikeria diogu ere bai. Aljeria ez baita nazio bat kolonialisten ustekerietan baizik. Fraitntziak Aljeriatik aldegitan (kolonialdian ukatuak izan diren herrialde guztietatik aldegitan bezalaxe), erresuma bat sortu da, estatu bat, hau bai; baina naziorik ez da sortu. Aljeria etni-puzzle edo etni-nahasketa bat delako; eta Aljeriako mugek Parisko «Colonies»-departamenduetan funts handiago dutelako Kabiliako mendietan eta etnologi-ikertzapenetan baino.

Fraitntziaren kontrako gudaldian, sahetsetik baizik ez bazen ere, Kabiliako «berezitasuna» agertu zitzaigun batzutan: mendialde hartakoek «beren aldetik» edo «beren kabuz» bide zeramaten Fraitntziaren aurkako gudua... «Bitxia» omen! Gudari «gogorragoak» omen ziren kabiliatarrak beste lekuetakoak baino. Hitza aipatzeko ere beldur ziren estatolatarrak. Hots, Kabiliako menditar delakook **berberetarrak** ziren. Erljioari buruz islamdarrak izanik ere, kabilitar horik **berberetarrak** dira. Areago: berberetar horik berberak dira, anaia bixkiak dira, Morrokon, Algerian eta Tunizian; baita haratago ere.

Hots, Aljer-ko gobernuak, Parisekoaren bide beretik jotzen duela, ukatu egiten ditu orain berberetarrek; eta frantses naziokeriaz hezurretaraino kutsaturik, ukatu egiten ditu orain berberetarrak; eta arabikuntza osoa abiarazi du «erresuma guztian»; Kabilia barne, noski.

Berberetarren jazarkundearen lehenengo zantzuak gure belarrietaraino hasiak dira heltzen: aurtengo ikastaroa

hastean, berberetar gazteek arabez ez-baina berberez ikasi nahi zutela bide, arrestatuak izan bide dira ikasle dotzena batzu.

Hots, herri-burruka berri honi buruz, Frantziako «ezer ofiziala» (P. C.-a garbiki hitzegitekotan) BERBERETA-RREN AURKA agertzen da jadanik. Arazo hauei buruz Jacques Poulet eta Francis Cohen komunistek izkiriatu berri dituzten izkribuetan, Aljer-ko **goburuaren** alde agertzen dira.

P. C.-koek diotenez, frantsesa gauza ona izan da «hala ere»; zeren-eta, ongi irakur, «(bazegoen han) une mosaïque de parlars plus ou moins contaminés par le français, l'espagnol et l'italien, ou des idiomes berbères kabyles et chaouïa, touareg, pour ne rien dire du pataouète de Bab-el-Oued, sabir sans doute savoureux mais inapte à exprimer plus que les relations d'office ou de bistrot». Eta erasten du: «l'arabe ne vise pas à chasser le français, solidement implanté»... Beharrik!! Zer egingo ote lukete aljeriar giza-joeak frantsesa gabe?

Hori bakarrik ez. Euskal Herriari buruz Españako P. C.-ek erabili izan dituen teoria eta hitz BERBERAK erabiliz, Aljerian «arrago» bikaina ikusi uste zuen Francis Cohen-ek: «une NOUVELLE NATION algérienne était en train de ser former PAR FUSION (baina frantsesez, noski.) des éléments pré-arabes (sic), arabes et des peuplement POPULAIRE EUROPEEN» (sic)... Baina Cohen eta PCF-rentzako zoritxarrez, pikutara joan zen arrago hura 1962-an: «l'histoire a décidé autrement». Negar egin beharko!

Berberetar HITZA ERE ez aipatzeko, frantses PC-ak «pré-arabe» esan nahiago du: «arabitar aurreko» edo horrelako zerbait. Baina ba dakigu kurdotarrak Irak-eko «menditarrak» direla, eta gu «los norteoños»...

Marxologoen dute azken hitza. Nola ez! Baina harrigarria da, zinez, kezagarria hobe, ezkerraren etorkizunerako behin eta berriz eskuindar inperialistak eta marxista ofizialak etni-arazo GUZTIETAN eskuz-esku topatzea.

(1976)

TUZINIAREN ARABIKUNTZA

Irailaren 20: egun inportantea aurten Tunizian; irakas-kuntza berriaren sarrera-eguna baitzen. Nazio-Heziketa-ren Ministro den Mohammed Mzali-k esan duenez: «beren tuniziartasunaz ongi jabeturik dauden belaun berriak eskolatu nahi ditugu». Eta, noski, tuniziartasun hori arabearen indartzetik pasatzen da.

Frantses batekin ezkondua, frantses kulturaz oratua, politika bideetan beti zuhur eta elkarrizketara emana, Habib Burgiba «biguina» izan da hizkuntzaren mailan ere. Tuniziaren bidea, beraz, arabikuntzaren sailean «moderatu» gisa hartu behar da eta halakotzat daukate Tunizian zuzendariek: «arabisation progressive» dira hitz ofizialak.

Hain zuzen aurten beste urrats bat eman du Tuniziak, eta interesgarri zaigu zertan datzan jakitea.

Tunizian gaur 1.000.000 haur daude eskola-mailan; eta 193.000 lizeo-mailan. Unibertsitate-mailan 21.000 daude.

Eskola-mailan

Eskola arabez egiten da. Aurten arte, frantsesaren irakaskuntza («langue étrangère privilégiée» gisa) bigarren ur-

tean hasten zen. Aurtengo ikastaroan hirugarren urtean hasiko da; eta datorren urtean (1977-1978) laugarren urtean sartuko da.

Eskola, hitz batez, arabitarra da gero eta areago.

Lizeo-mailan

Lizeoa bietara egiten da: parte bat frantsesez, beste parte bat arabez.

Hizkuntzen zatiketa hau izango da aurten: 1) araberez, filosofia (arabitar filosofoei leku handiagoa emanez), geografia, kondaira (arabez aurten lau urtetan barrena). 2) frantsesez, zientzi-saila.

Frantses irakasleen laguntza

Kolonialismoan bizi izan diren herri guztiak bezala, Tuniziak ez zuen askatasunaren egunean aski irakaslerik, eta frantses laguntzaileak («coopérants français» delakoak) onartu behar izan zituen.

Jakina: irakaskuntza arabitartu, eta tuniziar irakasleak ugaldu ala, laguntzaileen kopurua txikituz doa:

1969 — 3.300 «coopérant»

1975 — 1.700 »

1976 — 1.475 »

«Tunizia herrialde musulmana eta arabitarra da —zion berriki Mohammed Mzalik— eta bere nortasuna atxikitzea erabaki du». Esan, eta egin ere bai.

(1976)

EIRE ETA EUSKAL ELEBITASUNA

Bigarren aldiz debekaturik ere, Gipuzkoako 700 kultur-elkarteon baiezkoa eta ondoko hamarna-milakako sinadurak ez dira ahortzi. Hizkuntzen lege-paretasunaren alde egiten ari den borrokaldi honetan gauza bat agertu da garbiki: Euskal Herria lehenengo aldiz bere kondairan euskararen balioaz eta beharraz jabetzen hasia dela.

Nola edo halako lege-paretasuna, hortaz, laister lortuko dugula dirudi. Zalantzarik gabe, elebitasunaren urrats gehienetan hala izan da. Denetan, egia esateko, eta irakurleak dakikeenez, bakar batetan ezik: Eiren. Lege-paretasun horrek, are lehenetsunak ere, ez du Irlandan ezer ekarri: gaelikoa, folklokeria betean, suntsitu egin da.

Behin eta berriz eta mila aldiz izkiriaturia dut gauza bera; eta gaurko honetan berriz ere gogoraziko dut: herrien eta pertsonen kondaira ez dela ofizialki eta liturji antzera oihukatzen diren ideien arabera gertatzen, egiazki eta eguneroko «praxi»an, askotan aipatu ere gabe, ERABILTZEN eta OBRATZEN diren ideien arabera baizik. Fruituetan eza gutzen da zuhaitza. Eta politikaren mailan, era berean, aipatu ere gabe eta eguneroko bizieran GIDARI HARTZEN di-

ren ideiek dute axola. Predikuak bost axola: ekintzak eta etsenpluak dute munta. Hau gauza ezaguna da aspaldidanik.

Hots, Eiren, Irlandan alegia, eta hizkuntzari dagokionez, eiretar abertzaleek berek inglesa hartu zuten egiazko mintzabidetzat. «Conrad na Gaeilge» delakoan bertan ere (Hyde eta Williams-ek sortu zuten «Gaelic League» hartan) gaelikeraren alde argitaratzen ziren Agiriak, baina ingelesez bizi ziren izkiriatsen zituztenak; eta «Liga»ren Buruzagitzak berak ingelesez egiten zituen bere biltzarrak. «League»an bertan inglesa zen beharrezkoa, eta ez gaelikera. «Gaelikera beti zen AT, beti BESTEENTZAKO, beti GERORAKO, beti beste irlandar giza-multzo baten zai. Beti zen gaelikotasuna, hitz batez, ALIENABIDE NABARMEN BAT. IRLANDAR OPIOA ZEN. Egiazko bizia ingelesez, alegiazkoa gaelikeraz. Eta Pearsek eta 1916-ko abertzaleek nahi zuten Eire gaelikodun hura, erraz soma zitekeenaz, hantxe gelditu zen: AT, GERORAKO, ametsen herrialde urrunean.

Kondaira ez da, gogoan atxik dezagun hau otoi, handikiro goraiatzaren diren helburuen arabera gertatzen, «DE FACTO» eguneroko ekintzaren oinarritzat hautatuak eta obratuak diren helburuen arabera baizik.

Intelektualkeria zait besterik pentsatzea; alegia, eguneroko munduari eta kondairari baino, ideia abstraktoei, gizartean sustraitzen ez diren horiei, garrantzi handiagoa ematea. Hitzari orain hemen marxistek eman ohi dioten funtsa nik ere emanez, «idealismo» iruditzen zait usterkeria hori. Eta, noski, eskuindarren artean zabaldu ohi da aise (baita marxologo batzuegan ere). Eskuindarrek, anitz aldiz esana denez, Estadia nahiago du nazioa edo herria baino; itxura maiteago, sustraia baino; hiztegiar arduratua, fonologiaz baino; folklorea gogozkoago, arte bizia baino; letrari lotuago, izpirituari baino; proosino hanpurusen zaleago, gizarte mailako jokabide isilena baino. Eskuindarrak nahiago du, hitz batez, KANPORAKO LITURJIA BARNERAKO BERTUTEA BAINO.

Irlandako gertakaria horren bitartez konpreni daiteke, ene ustez, eta ez bestela. Gaelikera paperean «lehenengo lege-hizkuntza» deklaratu zuten eskuindarrek; baina «por razones prácticas» eta «por razones operativas» ezin da aipa-

tu ere egin inon. Dublingo Parlamentoan batek edo bestek (banaka batzuek urtean, ez pentsa!) gaelikeraz zerbait esaten baldin badu, bertako deputatuak berak hasten zaizkio oihuka: «Seamos serios! Seamos operativos!»... Eta, bide horretatik, Dublingo gobernuak (eskuindar eta itxuren aldekoa) jendearen % 28,3-ek gaelikeraz ba dakiela esaten duelarik, «Irish Times»-ek egindako inkesta batek erakutsi duenez (1975/VIII/15) % **6-ek baizik ez dakite** (ez dira gaelikeraz «hitzegiteko gauza», hobeki esateko). Fishmann soziologilariak orain dela urte batzu, Dublingo gobernuak galdegirik, prestatu zuen Txosten gaitz eta xehea... ez da sekula argitara! Fishmannek, noski, argi-eta-garbi esan bide zuen Txostenean Dublingo gobernuak daraman politika-bide horrek ezin dezakeela gaelikeraren suntsierara baizik eraman. Eta hori, jakina, herriak ez jakitea hobe.

Ez da harritzekoa, bidenabar esateko, Irlandako joera hori euskaldun eskuindarren bitartez gurera etortzea.

Nolabaiteko elebitasuna lortzeko zorian omen gauden aste hauetan, horregatik, oso gogoan hartu behar dira gauza horik.

Euskararen arazoa ez da borondatekeriaren bitartez konponduko. Ba dakigu. Euskararen arazoa, instituzioen mailakoa delako, **POLITIKOA DA** osoki.

Baina politikoa izanik ere, politika hori GAUR eta PRA-TIKAN zein helbururen arabera mamitzen ARI DEN aztertu behar da hozki, agerian oihukatzen diren hitzez zeharo ahaztuz. Gure artean hitzezko «abertzale» askorengan dago sukurtsalista irlandakoi bana.

Zehazkiago mintzatzen hasi beharra dago. Euskaraz ez dakien abertzaleak, abertzalea delako eta zinezko abertzalea den heinean, **laguntzaile** jokatzeko eta gelditzeko egon behar du gertu, posturik gorenetatik bere erruaz diglosia azkartzeko, erdaraz mintzarazteko eta Euskal Herria irlandartzeko bere NAHI OBJETIBO ETA EGIAZKO GUZTIAK alde batera uzteko.

Elebitasuna gugandik, abertzaleongandik, eta burutik beretik, hasi behar da. Ala, Eiren bezala, ez da hasiko. Hots, orain IRA-ofizialak berak aitortzen duenez, «the sole basis for Irish nationhood, the only reason for wanting an in-

dependant state was... the revive of Irish».

Gure atsotitzak dioen bezala: «arraina burutik kirastenda»...

Agian hartuko dugu gogoan!

(1977)

IRLANDA-KO BERRI

Irlanda-tik datozen berriek lastu egiten dituzte abertzaleak: behin eta berriz ikusten dut hau arazoa aipatzen dudanean. Sinetsi ere ezin, eta «oso berri nahasiak» heldzen omen dira handik hizkuntzaren sailari dagokionez.

Nik neuk, egia esateko, berri txarrak baizik ez dut irakurtzen. Eta egun hauetan gauza bera.

Irlanda-ko legeak dionez (Eire-ko legea jarri behar nukeen, baina ez zait bidezko iruditzen) kaminoetako ikurrak bi hizuntzetara idatzi behar dira: ingelesez eta gaelikeraz. Areago, Irlanda-ko lege-hizkuntza («lehenengo lege-hizkuntza») gaelikoa denez geroz, handiago behar litzateke izan gaelikozko ikurra ingelesezkoa baino.

Hots, beti bezala, britaindar inperialismo pean gertatzen zen bezalaxe: 1/ lekuri gehienetan oraindik ere kamino-ikur horiek ingeles hutsez jartzen dira gaur; 2/ zenbait lekutan («a few local authorities» irakurtzen dugu azkeneko CARN-an), oso leku **gutxitan** beraz, hobeki esateko, bi hizkuntzetan jartzen dira beroiek, baina letra handiagotan ingelesezko parte...

Hain zuzen ere, herri bat jartzen da eredu: Sligeach

(Sligo ingelsez), bertako ikur horietan tamaina handiago eman baitzaie gaelikozkoei. Hots, harrigarria da hau gaurko Irlanda askatuan: beste herrientzako jarraibide bat da («an example to other towns»). Baina kakoa hau da: 1972-an kanpaña gogor bat egin zutela gaelikoaren aldeko burrukalariek, ingles hutsez izkiriaturik zeuden ikurra beltzez zikinduz...

Are gehiago: gaelikorik gabeko kamino-ikur horiek legearen kontrakoak dira!

Bego hōri, dena dela; kamino-ikurren arazoa baino askoz larriagorik ba dago-ta 1977-ko urte honetan.

Oso jokabide lotsagarrien bitartez Gaeltachta-rentzako (gaelikoz hitzegiten den «uharte» nagusiarentzako) lortu zen gaelikozko irratia arriskutan dago. Irrati horrek, eta horrek bakarrik, egunean 3 ordu t'erdiz hedatzen du bere programa gaelikoz. (Dena esan dezagun, erresumako irratietan % 3 baizik ez da egiten gaelikoz, 1963-ko Txosten ofizialak aitortzen duenez!). Gaeltachta-ko irradi berezi hau, ordea, zuzendaririk gabe gelditu zen joan den Ekainean; eta handik honeraino, Dublingo gobernuak nor jarri ez omen du aurkitu...

Gaelikoaren aldekoek, hortaz, Gaeltachtako Irratia bere gain har lezakeen pertsona bat aurkitu dute: Mac Aongusha jauna. Namibia-ko irratian luzaz ibilia, egoki izan bide liteke jaun hori. Dublingo gobernuaren aurkakoa omen da, ordea, eta izendatu nahi ez. «Gaelikomano»tzat jotzen dute Dublingo zuzendariek, eta hutsik dago postua orain dela urte erdi bat...

Gaelikozko irradi hau Dublin-ek kendu nahi ote duen beldurrez, manifestazio bat izan zen Dublinoan joan den Abenduaren 15-an. Telebistaren dorrera igo zen irlandar abertzale bat. bertan bi orduz geldituz. Eta lasaibide batzu agindu zituen orduan gobernuaren ordezkari batek. Gaelikoaren aldekoak, halere, oso kezkatuta daude: gobernuak orain dela **15 urte irratitari** buruz agindu zituenak ez ditu bete.

Kezka horien ondorioz, eta gaelikozko irradi ahulari eutsi nahiz, organizazio berri bat sortu dute abertzaleek: «Tionól» izenekoa.

Ezertxo ere erantsi beharrik ba ahal dago?

(1977)

CYMRU / GALES

Herri keltikoak, goi patu gaiztoren batek jorik baleude bezala, gainbehera doaz eskualde guztietan. Aspaldiko mendeetan Italian, Galian eta Iberian suntsitu zirenez gain, gaur ere, geronen begien aurrean, itzaltzen ari dira bretoiak, eskoziarrak, eta bi Irlandetako gael-tarrak.

Gales-ko «kumri-tarrak» ere, ez hala?

Horra hor laburki, oso laburki, lerro hauen bitartez erantzun nahi nukeen galdera zaila; bidenabar irakurleari aztarna-bideren bat eskainiz. Pizkunderik ba ahal dago Cymru delakoan? (esan [kömri] otoi, berek bezala; eta horretatik artikulu guztian, Gales eta Walis-en ordez, erabiliko dudana «Kumri» hori).

Kumri-ren erdibiketarik funtsezkoena

Bi eskualde nagusitan zati daiteke Kumri.

Zer da Kumri, ordea? Nolakoa da? zein neurritakoa da?

Kumri herri txikia da, guztiz Euskal Herriaren tamainakoa:

20.700 km² — 2.721.201 biztanle (1971).

Horien artean, eta orain dela sei urte beraz, 565.000k

esan zuten kumri-eraz «hitzegiteko gauza izan». Hizkuntza galtzen ari da han:

Urteak	Kumri osoan	Kumri-dunak
1891	1.660.000 biztanle	% 54,4
1901	2.000.000 »	49,9
1911	2.420.000 »	43,5
1921	2.656.474 »	37,2
1931	2.593.332 »	36,8
1951	2.598.675 »	28,9
1961	2.653.200 »	26,0
1971	2.721.201 »	20,8

Gainbeheradaka azkartzen ari dela dirudi.

Ez era berean eskualde guztietan. Eta lehenago aipatu-tako bi eskualde nagusietara goaz horretara: Caerdydd (ingl. Cardiff)-en ondokoa bata: etorkinez ere oratua, Morgannwg eta Mynwy barrutietakoa; hiri handiena (Caerdydd bera, Abertawe edo ingl. Swansea, eta Casnewydd-ar-Wyig edo ingl. Newport), meatzeak eta industria dituen eskualdea; 1.700.000 biztanle gutxi gora behera zabalera txiki batetan kokaturik. Eta gainerako barrutiak oro bestea, ia industria-rik gabea, pausaleku aparta, arabera jendetzaz urria bere milioiarekin, eta soziologi egituraz arkaikoa eta kaletartu gabea.

Bi eskualde horik hizkuntzari dagokionez ere errotik dira desberdinak: Caerdydd-en ondoko «hinterland» horretan, % 86,5ek ez dakite kumrieraz hitzegiten. Beste hitz batez esateko, ekonomia modernoa duen eskualdea inglestuta dago ia osoki.

Bestea, berriz, baserritarrena, arrantzaleena, Caerdydd-etik atekoa, askoz ere kumritarragoa da: bertako % 33k dakite kumrieraz.

Berrikuntza eta ingleskuntza, kaletartzea eta des-kumritartzea, batak besteari baletzeko bezala, elkarri loturik agertzen dira herri xehearen aurrean. Berritu beharrak hizkuntzaren galera bide dakar ezinbestean, eta «berez» alegia. Eire-ko «gaeltacht» triste, txiro eta atzeratuetan ikusi den bezalatsu, ez ote darie jadanik halako zahar kutsurik Kumri-ko «Fro Gymraeg» izeneko kumritar eskualdeei? Ni

beldur!

Politika baranoan

Kumri-tarrak abertzaletasun politikoaren baranoan irartzartzen hasiak ote diren ezin daiteke gaur zalantzan jarri bai. Urte askotan laborista «sukurtsalisten» bilgune izana, abertzaletasunaren aldera jotzen ari da orain. Ez oso sakonki oraindik; baina jotzen hasia bai.

Lehenengo deputatu abertzalea orain dela 11 urte lortu zuen Kumriko «Playd Cymru»ko burukide batengan. Ordura arte ez zen horrelakorik sekula gertatu. Aneurin Bevan sozialista famatuak, esate baterako, kumri-tarra izanik ere, ezertan ez zuen bere kumritasuna politika mailan erabili, ez oharrerazi.

Kumrin, hitz batez, bertako ikatza eta burdina aspaldidanik naziotarturik daudelako, sozialista tradizioa dago, eta bertako kumritar burgesia ahula da. Abertzaletasunaren gorakada, ordea, berria da.

1974eko udazkenean, Alba-n ere (Alba=Escozia) abertzaleek, Londres-ko bazterrak harrotuz, 11 deputatu lortu zituzten mementoan, Kumri-ko «Plaid Cymru»ko alderdikoek ere hiru deputatu lortu zituzten: Evans, Thomas eta Wigley; eta beste lau boz-barrutitan ere, bigarren gelditu ziren abertzaleen deputatu-gaiak.

Plaid Cymru alderdia, dena esateko, partidu zuhurra da, sotila, erdikoa; hein batez gurean dugun Alderdiaren tankerakoa (nahiz bi alderdiok harreman hertsirik eta jarraikirik ez izan, Kumri-tik esana didatenez). Agertzen hasia den kumritar abertzaletasuna, hitz batez, eskuindarra da.

Zein barrutitan gailen hiru horik?

Kumri-ko deputatu abertzaleok, ondoko hiru konderri eta barrutiotan gailendu ziren:

1. — Evans jauna: Carmarthen-en.
2. — Thomas jauna: Meirionydd-en.
3. — Wigley jauna: Caernarfon-en.

Carmarthen hori Hego-Mendebalean dago; eta Meirionydd eta Caernarfon, berriz, Ipar-Mendebalean. Hitz batez: abertzaleak ez dira, gaur gaurkoz bederen, industri eta meatzetxe barrutietan nagusitu; soziologiari dagokionez, eta azal-

dua dugunez, atzeraturik eta kaletarturik ez dauden barrutietan baizik.

1974eko hauteskundeotan, hain zuzen, Caerdydd, Aber-tawe eta Casnewydd-ar-Wyig hiri nagusietan, azken gertatu ziren «Plaid Cymru»ko deputatu-gaiak.

Industriguneetan, beraz, abertzaletasuna ez da oraindik sartu; «Plaid Cymru»k defendatzen duen abertzaletasunak halako «garo-kutsua» balu bezala.

Kumri-ko abertzaletasuna, garbikiago mintzauz, eskuinean dago oraingoz. Eta Kumri hizkuntza-dunaren etorkizuna, horretara, zeharo dago arrisku larritan, ene ustez.

Kumri nekez abiatzen bide da bere pizkunderuntz.

Kumri-ko ikastolak, lizeoak eta beste

Urrun daude kumri-tarrak gugandik: hizkuntza bakar-reko ikastoletan (1964), 3.364 haur zeuden. Hau da: % 1,1. Kopuru hori gora doa; baina ez inolaz ere hemen ezagutzen dugun abiadan. Beste zenbait eskolatan, dena dela, astean hiru orduz dute, gai gisa, kumrieraren ikastea.

Lizeoen mailan, berriz, bost lizeo zeuden 1964ean; baina elebidunak dira. Diglosikoak hobe, zenbait ikaskai (modernoenak) ingelesez azaltzen baitira.

Argitaratzen diren liburuen kopuruari dagokionez, gure antzera bide dabilta kumri-tarrak:

1971	177 liburu
1972	203 liburu

Hizkuntza baturik dago aspaldidanik (VIII. mendetik honako literatura azkarra dute kumritarrek), eta alde horretatik ez dute burrukarik ezagutu. Berritu eta osatu beharra, bai, latza, guk bezalaxe: garbizaleak, mordoilozeak, eta abar.

Telebistaz 12,5 ordu dituzte astean (% 6,7), eta irrati-z 13 ordu (% 3,1). Gainerakoa ingelesez: % 93,3 eta % 96,9. Ez baita oso zoragarria kumri-tarren aldetik.

Eta geroari buruz?

Kumri-ko abertzale fin batzu ezagutzen ditut. Eta, minez aitortuko nieke: Kumri-ko itxurak, Eire gogorazten dit alderdi askotatik; eta ez Katalunia edo Suomi (Finlandia).

Politikari utzi eta hizkuntzaren aldeko burruka «hutsa

eta garbia» eraman nahi luketenak ez dira oraindik agortu. «Cymdeithas» bera ere tankera horretakoa da zenbait aldetatik.

Ezkertar abertzaleek (Ned Thomas eta beste) indar txikia dute oraingoz; eta Gareth Miles-ek 1972an kumrieraz argitara zuen Agiriak («Cymru Rydd, Cymru Gymraeg, Cymru Sosialaidd»; hau da, «Kumri askatua, Kumri kumri-duna, Kumri sozialista») oihartzun txikia lortu bide du orain arte.

Beste mutur batetan, azkenik, kumri-eraz ez dakien John Jenkins-ek ere, IRA amets, sortu zuen «Kumri-ko Armada Izkutua», jaió eta berehala suntsitu zela dirudi. Eta ahanze osoan usteltzen dela presondegian (aurki irtengo 10 urte-gartzela egin ondoren) bide militarra hautatu zuen buruzagia.

Saunder Lewis-ek, Gwenallt-ek, J. R. Jones-ek, eta beste anitzek, ongi ezagutzen dugun aberri-mina salatzen dute. Arra'asta bai ala ez, geroak erranen.

(1977)

JOXE AZURMENDI ETA GAELIKOAREN ARAZOA

Egun hauetantxe mintzatua naiz Tolosan Irlandako hizkuntz-arazoari buruz; eta, xehetasun batzutan nabarmen eta zalantzarik gabe agertzen denez, irlandera (gaelikoa, gael-en hizkuntza, Eire Askatuko «lehenengo nazio-hizkuntza») orainxe suntsitzen ari dela azaldu nien. (Nigana etorri diren datoen arabera, 30.000 gelditzen dira gaur gaelikoz hitzegiteko gauza; eta denak Mendebaldean, sei hizkuntz-uharte berezitan). Eta, beti bezala, harritu egin ziren entzuleak.

Irlandako gertakaria, noski, harrigarri zaigu, kezkarri; sinetsita baikaude eskuarki «kanpo»tik etorri zaigula euskararen gainbehera. «Kanpo»ko presioak gaineratik kentzean —pentsatu ohi dugu, honen argiro aitortzen ez badugu ere— euskara berriz piztuko da; zapaltzen zuen harri mokorra kenduta, landarea zuzendu eta zutitu egiten den bezalaxe.

Irlandan, ordea, horrelakorik ez da gertatu. Londres-tik zetorren presio ingelesari, Dublin-dik datorren presio ingelesa nagusitu zaio: «kanpo»tik zetorren diglosiari, «bertako» diglosia erantsi zaio.

Azkeneko JAKIN-en (1977, I, 100-116 orr.) J. Azurmendik ogokiro dion bezala, «Herri bat egin nahi zen, eta Errepu-

blika bat egin da». Eta horretatik hasi ohi zaigu ximikoka barneko har izkutua: ez ote da Euskal Herrian hori bera gertatuko?

Azurmendi-ren iritiz, «abertzaletasun irlandarrean hizkuntzak inoiz ez du gurean bezalako inportantziarik hartu». Eta puntu honi buruz, azalpen batzu erantsiz bederen, go gaide gerta ninteke ni.

Bestetan ere izkiriatu izan dudanez (HITZ-en, esate baterako) gauza bat iruditzen zait aski garbi irlandar abertzaletasunean: gaelikoari buruz kanpoan jarri izan direla beti, Ameriketako «indigenistak» bertako maya edo ketxua-tarrei buruz kanpoan gelditu ohi diren antzera. Bertako indioen alde daude indigenistak; baina berak ez dira indio. Memmik oso ondo azaldu duenez, «bon colonisateur» hauk **arrotz** gelditzen dira, kanpotar, praxiaren mailan, kondairaren mailan beraz. Irlandako abertzaletasuna indigenista izan da, eta ez gaelikoa. Bidenabar esateko, geurean ere tankera horretxetako indigenista mordo bat izan dugu; baina gaur gaizki ikusiak dira, eta bukatzen ari dira. Beharrik!

Azurmendik diona, dena dela, «beti» horrela izan denez ez dakit. Ene ustez, eta gure Sebero Altubek somatzen zenez, irlandar abertzaleek **berantegi** lortu dute beren askatasuna; eta berantegi ere hasi ziren beren buruaz jabetzen. Hau ere egia bide da.

Ba dantzut erantzuna. Israelen okerrago zeuden; hizkuntza sinagogako liturji-liburuetatik atera baitute judutarrek. Eta hau egia da. Baina irlandarrek ba zuten elkar ulertzeko hizkuntza bat, ingelesa (1921-an **denek** zekiten ingelesez,, baita «Gaeltachta» delakoetan ere); eta judutarrek ez zuten, «yiddish» bera ere ez baitzuten denek erabiltzen.

Nolanahi ere, eta Israel-go kasoa alde batera utziz gero, beren nazio-hizkuntza piztu duten herri guztiak (Suomi, Arjelia, Quebec) Eiren 1921-an irlandar abertzaleek aurkitu zuten egoera baino hoberik aurkitu izan dute. Eireko erresuma askatua sortu zenean, % 7-k bakarrik zekien gaelikoz; denok, bestalde, elebidunak izaki.

Nor ziren, gainera, % 7 horik? Irlandako eskualderik txiroenetan eta baztertuenetan bizi ziren giza jo batzu. Gaelikoz hitzegiten zuen giza-multzo horrek, gizarte-dinamikarik ez zuen batere. (Ni beldur, bidenabar, Gales-en gauza bera

ez den gertatuko).

Eta hori aspaldidanik. 1846-ko gosetea gertatu zenean, Mendebaldeak jasan zuen bortzikienik. Heriotzak eta deseriketak, gaelikoz hitzegiten zuen Mendebaldeko Irlanda horretan gertatu ziren gehienik. Joan den mende-erdiaz geroztik oso txarra zen «gael»-dunen gizarte-egoera.

Hauxe zen, azkenekorik, 1649-az geroztik, jatorrizko berezketa:

- 1 — gaeliko / ingeles
- 2 — txiro / aberats
- 3 — katoliku / protestante.

HIRU eratara zatitzen zen Irlandako gizamultzoa; hirutara batera.

XIX. mendean hizkuntza arrunt galtzean, eta abertzaletasun modernoa jaiotzean hortaz, indigenismotik irten ez, eta honela agertzen zen berezketa praktikaren mailan:

- 2 — txiro / aberats
- 3 — katoliku / protestante.

Eta urriketa etnigabe horretatik gaurko bi joerak. Eskuindarrek 2. puntua gutxiesten dute, eta Irlandako arazoa honela presentatzen:

- 3 — katoliku / protestante.

Eta ezkerterrek, berriz, beste muturrean, eta 3. puntua ukatuz, honetara:

- 2 — txiro / aberats.

Eskuindarrek erlijio-arazo bihurtu dute abertzaletasuna; eta ezkerterrek, era berean, klase-burruka huts. Eta denek ingelesez.

De Valerak eta gainerakoek **katoliku/protestante** erdibiketa azkartu dute funtsezko 40 urte hauetan, eskuindar sukurtsalismoa eginez. Eta «gaeltachta» delakoetan («indioen erreserba» hutsak, Azurmendik egoki dionez) zoo gaeliko eta folklore bati eutsi nahi izatea, eguneroko bizieratik at, oso normala da eskuindarren. Gure artean asmo horixe izan duten eta duten eskuindar abertzaleak ez dira falta. Ez horixe!

Azurmendik aipatzen duen «higuin anti-britaniko» zahar-rak bere etnitasuna, bere kultur-izaria galtzean, antzu gelditu da; eta metonimia ezagun batez, «separatismo huts» bilakatu da.

Gertakari horietaz jabetu behar euskaldunok, geurean
berdin ez jokatzeko.

(1977)

ETNOZIDIO ETA DEMOKRAZIA

Hizkuntzaren mailan, eta Fishmann-en eraginez gehienik, argi iturri bikaina izan da **elebitasun / diglosia** berezketa onartzea (erdarazko bilingüismo / diglosia).

Herrien kontrako burruka-motak taxutzean, era berean, oso berezketa argitsua agertu da soziologian: **genozidio / etnozidio** delakoa.

Baina oraingoz, gure artean bederen, gutxi zabaldu dela dirudi; eta herri baten kontra genozidio nabarmenik egiten ez delarik, bakea: demokrazia, sozialismoa eta «ismo» on guztiak segurtaturik daudela dirudi.

Genozidio hitzak etniako pertsonen soin-erhaketa, hilketa fisikoa alegia, adierazten du. Eta gaur, Hitler-en 6.083.000 juduren heriotzaren ondoren, benetako genozidioak ez bide dira, osoki bederen, gertatzen, ez proposatzen ere. Brasilen, Biafran, beste nunbait, genozidioaz hitzegin badaiteke ere; eta azken urte hauetantxe hitzegin.

Gaur, dena dela, Estatolatria betean, **etnozidioa** erabiltzen da. Herri bati, legez eta bere populuak orokorki hil gabe, bere arima kentzen zaio; bere berezitasuna, bere kultura, bere herri-nortasuna erauzten zaio. Bestelakatu egiten da

maltzurki, beste bilaka arazten. Eta gero, «libroki», biltzen eta ahazten.

Europar, beraz, egiazko genozidiorik ez da gaur gertatzen ari. Etnozidioak bai, berriz; eta ez bat edo bi. Gaur herri batzuei beren berezitasuna ahaztera eragiten zaie.

Hots, UNESCO-k berak 1967-an garbiki esan zuenez: «Les groupes ethniques qui sont victimes de la discrimination sous une forme ou une autre, son parfois acceptés ou tolérés à condition de RENONCER TOTALEMENT A LEUR IDENTITE CULTURELLE. Il convient de souligner la nécessité d'encourager ces groupes ethniques à préserver leurs valeurs culturelles». Kasu horri, beraz: «beren kultur-berezitasunari osoki uko egitea» da baldintza. UNESCO-k, beraz, artez gaitzesten du horretan gaur «etnozidio» deitzen dena; eta, bestetik, etnozidio delakoa maiz gertatzen da Europar, bai Ekaldekoan bai Mendebaldekoan; bai Ukranian eta Krimean, bai Bretañan eta Kortzegar.

Garbi dagoenez, gainera, hizkuntza bat (EDOZEIN hizkuntza) instituzioen mailan ongi sustraiturik eta lagundurik ez badago, ez dauka bizitzerik. Hau gauza jakina da. 1977-an oraindik ere gertakari honi ez-jakina edo ez-ikusia egitea fede txarrean funtsatzen da, tzarkerian eta ez beste ezertan. Mila aldiz esana dago; baina beste milatan ere esan behar da.

Hona hemen, adibidez, Lovaina-ko Unibertsitateak argitaratzen duen «Orbis» aldizkariak 1963-an izkiriartzen zuena: «En unos 10 ó 20 años, el tagalo será la lengua común. Quedará el inglés como lengua de comercio, y del intercambio internacional. El filipino-**español** TENDRA DIFICULTADES PARA MANTENERSE VIVO en la vida de cada día. EL ESPAÑOL DESAPARECE YA con la propagación del tagalo».

Aosta-ko Haranean (Italian, autonomiaz horniturik, hizkuntzaz frantsesa) italiararen bultzada «gainditu ezina» da, Guy Héraud-en ustez («poussée irrésistible» aipatzen du irakasle ezagunak, **italiar hizkuntza** ofizialaren indarra zehaztekotan). Eta Jersey-Guernesey uharteetan, Fraitziatik agerrian, eta jatorriz normandoak eta frantsesak beraz, frantsesa ari da galtzen, **inglesaren** onetan.

Geureari gagozkiolarik orain, euskara biziko bada LEGITASUNA BEHAR DU. Erdararekiko lege-paretasuna be-

deren. Aspaldidanik, eta azkeneko urteotan oso bereziki, etnozidio bat gertatzen ari da Euskal Herrian: bizi egin gaitzek, nola ez; hori bai. Baina baldintza bat beteez gero: geure berezitasunari, geure euskalduntasunari uko egiten badiogu. Ukutzen zaigun instituzio-mailan agertzen da garbiki gure izaera hiltzeko delibero irmo hori.

Baina, behin eta berriz eta hameka aldiz, etnozidio dotore horren gainean, ez demokraziarik eraiki daiteke, ez sozialismorik, ez «de Euzkadi»-korik ezer.

Eta, kontuz! Axaleko legetasun horri bere mamia erantsi behar zaio, eta HASTAPENETIK erantsi. Irlandatarrek bezala hitz alferretan galduko ez garela erakutsi behar dugu.

Eta, aurren aurrenik, ABERTZALEOK behar dugu erakutsi.

Etnozidio hori, aberkideok, ETXETIK ERAUZI BEHAR DUGU AURRENIK. Eta, ni beldur, kanpotik datorkiguna uxatzeko hainbat eginahal ez ote dugun etxekoa gainditzeko erabili beharko...

Agian ez!

(1977)

ZER GERTATZEN OTE DA HAN?

Ez dakigu.

Ezinbestezko errusikuntza dela-ta, zerbait gertatzen ari dela dirudi. Baina jakin, ezer ez dakigu. Ezin.

Zerbait gertatzen ari dela sinesteko eskubiderik ba genuke, ordea; Krimea-ko deportazio orokorraren berririk, esate baterako, bi urte luzetan barrena izan ez genuelako.

Arazo hura, halere, ez zen xumea izan: 1944-ko Maiatzaren 18-an Krimeako 350.000 tataroak harrapatu zituen NKVD-ak; eta, ez bat eta ez bi, Erdialdeko Asiara eraman zituen: Uzbekiztan-era gehienak, Samarkanda eta Taxkhent inguruetara, Txina-tik ez urrun. Bidaiari eta ondoko 18 hilabeteetan, deportatuen % 46 hil ziren. Genozidio osoa gertatua zen, hitz batez; baina munduak ezer ez zekien, eta ezer ez daki. Areago: «kolaborazionismo»arena aitzekia izan zela gaur Moskuko gobernuak aitortzen duelarik. Gaur bai: gaur Stalin-en hilkintzetatik bat jotzen da hau. Baina Uzbekiztanean daude beti tataroak; gelditu zirenak bederen.

Ukranian, era berean, zer gertatzen den ez dakigu xuxen. Ekialdeko nazio-arazo horietan jakitun direnek, azkeneko 18 urteotan preso eta deportaturik altxatu diren 1.200 ukra-

niar abertzaleen lerrokada prestatu dute. Beroien kontrako salaketa beti da berbera: «nacionalismo pequeño-burgués».

Georgian eta Armenian zer gertatzen den zehazki ez dakigu. Nola jakingo? Baina zirrikituetatik guganaino hel-tzen diren berrien bitartez, hau ageri da garbiki: Georgian, eta Armenian, eta Bielorrusian, eta Azerbaijan-en ere, «aberrikeria burges-txiki» delako hori bizi-bizirik dagoela.

Letonian ere, intelektualen deihadar etsietan soma dai-tekeenez, Zar-en garaian bezala, hizkuntzen mailako joka-bideetan eta demografi-oinarriaren aldaketan (letoniarrak gutxiengo bihurtuak dira beren sorlekuan) aurrera doa erru-sikuntza: «Tous sont unanimes à considérer que le régime communiste a repris la politique impérialiste de l'Empire russe, mais avec des méthodes plus dures et plus perfec-tionnées», irakurtzen da «samizdat»-eko agerkarietan.

Amalrik-en kasoan berriro agertu denez, nahastu egiten gaituzte borrokalaria anti-sovietiko horiek, gaitzi gertatzen zaizkigu, nardatu ere egiten gaituzte, ezkerraldean batez ere. «Baketan utz gaitzatala», esango bide luke askok. «Anti-komunismoan» ez lerratzeko beldurrak (eta zergatik ez lerra-tuko?), itsu eta gor egiten gaitu; egia entzuteko soraio eta luzakor. Eta «anti-komunismo»an ez erortzeko (vade retro!), manikeismoan eta hemiplejia politikoan erortzen gara: kri-tikak bai, salakuntzak bai; baina, otoi, PC-ak agintzen duen erresumetatik at!

Hori dela bide, Mindaugas Tamonis-en gertakari beldur-garriak berak oihartzunik ez du sortu Mendebaldean.

Lithuanian ere, URSS-eko errusitar ez diren errepublika guztietan bezala, «aberrikeria burges-txiki» delakoa dago, ezin menderatua (nahiz merkatu burgesik ez izan aspaldi-danik). Eta lithuaniar abertzaleak gaizki ibiltzen dira.

M. Tamonis hori zen horietako bat. Lanbidez kimikalari, deklarazio gogor bat egin zuen 1974-an Lithuanian alde eta errusikuntzaren kontra. Politziak harrapatu, eta Vilnius-ko «psikiatriko»an sartu zuen lau hilabetez.

1975-ko Ekainaren 25-an, berriro beraz, Lithuanian esku-bideen aldeko txosten bat bidali zion bertako Komunista Alderdiari; bereziki lithuanian kulturaren eta hizkuntzaren alde mintzo zelarik. Handik bi egunetara, Ekainaren 27-an, arrestatua izan zen; eta, bigarren aldiz, «psikiatriko»an

sartua. Hain zuzen ere honen ondorioz, hil egin zen Tamonis-en ama Ekainaren 29-an.

Berriro ere askatu zuten; baina ospitalera agertzeko eskatuz. Tamonis ez zen joan. Handik egun gutxitara, 1975-ko Azaroaren 5-an, zeharo desegina agertu zen haren gorputza trenbide batean. Tamonis-ek 35 urte zituen; eta alarguna eta bi haur utzi ditu.

Lithuania-ko Elizak ez du «ustegabezko ezbeharra»ren tesia sinetsi; eta argi eta garbi jakin erazi du.

Tamonis-en kaso ez baita lehenengoa, eta ez gutxiagorik ere, lithuaniar abertzaleek besterik pentsatzen dute: genozidiorik ezin dela gaur egin; eta, horrengatik, Lithuanian, eta ez Lithuanian bakarrik, herria isil eraztekotan, ba dagocela oposizio abertzalea buruzagirik gabe uzteko plangintza osoa. Abertzaleen buruzagi agertzen zen Tamonis, eta «ezbeharrez» hil da.

Zer adierazten du honek guztiak?

(1977)

BERRIATUA ISRAELDIK BIHURTU

Kintana-rekin judutarren sorlekura joana eta berriki gurera bihurtua, hizkuntzari dagokionez Israelen ikusi duenaz irakurri zigun txosten mamitsu bat Imanol Berriatua-k Euskaltzaindiaren azkeneko bileran.

Berriatuak gogoan ezer hartu baldin badu, «juduera erraza»ren saiaketaren gorabeherak atxiki bide ditu bereziki. Berriatuaren ustez, «juduera erraza» horren gorabeheretan ba dugu euskaldunok zer ikasirik eta zer erabilirik. Zer da, ordea, «juduera erraza» hori, frantsesez «hébreu élémentaire» delakoa?

Jakina denez, judutar etorkinez eraiki da Israel. Hara joan ziren judutar haiek inglesezt zekiten, araberez zekiten, gaztelera sefardiaz zekiten, errusieraz zekiten, frantsesez, yiddishez eta turkoz; baina hebreoz, judueraz, inork ez zekien. Arazo gaitza topatu zuen horretan Israelgo erresuma berriak; ba'na piztu egin du juduera, nagusitu ere egin da Israelen, eta sekula ikusi ez zen gertakaria eskaini digute judutarrek: liturji-hizkera hil bihurtua zen hizkuntza zaharkitu hura, piztu eta gaztetu egin da, eta herriaren mintzabide bilakatu.

Gutziz aproposa da, hortaz, judutarrek nola jokatu ote zuten aztertzea. Eta Berriatua eta Kintana ikasteko asmo horretantxe joan ziren hara.

Interesgarri litzateke Berriatuak berak —hitzaldi batzuen bitartez edo liburuska bat izkiriatur— hango pizkundearen kakoa xehekiago azaltzea. Egingo ahal du! Oraingoz Donostian Urtarrilean irakurri zuen txostena baizik ez dugu ezagutzen.

Orain dela 20 urte abiatu zuten israeldarrek «juduera erraza»ren bultzada. Hitzun-berri asko eta asko zegoela ikusita (lehenengo belaunetan judutar guztiak izan baitira hango «euskaldun-berri»...) hitzun ahul makal horien alde zerbait egin behar zela pentsatu zuen gobernuak; zerbait ikasia zuen jende-mordo horri kemen eman behar zitzaiola; eta, kemen emateko, bide bat baizik ez zegoela: hizkuntza **errazezko** izkribuak, irratsaioak, eta abar, prestatu behar zirela; horrela gutxi zekitenak ere, Israel-en barneratuago, bertakotuago eta «integratu»ago gertatzeko.

Xede horretan 1953-an (orain dela 24 urte!) sortu zen «Hanhalat Halachon» deritzan Batzordea («hizkuntz-ondasunen zaindaria», gutxi gora-behera); eta 50.000 etorkinekin batera hasi zuen bere lana.

Eguneroko bizieran gehienik erabiltzen diren **1.000 hitz**-etako lerrokada prestatu zuen aurrenik; eta hiztegi horretatik **irten gabe** liburuak prestatu zituen, baita irratsaioak hedatu eta astekari bat argitaratu ere. Juduera oraindik gaizki dakienak ba ditu geroztik bere zerbitzutan mila hitz horietatik ateratzen ez diren liburuak, artikuluak eta irratsaioak.

Geroago (1957) juduerazko «klasikoak» juduera errazaz ematen hasi zen Batzordea; eta atzerrietatik Israela joateko asmoa zuten etorkin-gaienezako, **600 hitz**-etako lerrokada errazago bat prestatu zuen.

Ageri denez, eta Berriatuak jakin erazi zigunez, hizkuntza errazezko jokabide horrek arrakesta gaitzik bildu du Israelgo hizkuntza-pizkundean; eta erruz lagundu bide du hitzun-berrien osakuntzan.

Bide horretatik joanda, «euskara erraza»ren antolakizun honi buruz orain arte uzkur xamar agertzen zirenak berak,

gaur horrelako zerbait egin beharko dugula pentsatzen hasiak dira. Eta Euskaltzaindiak ere, euskaltzainen txaloaz oraingoan, Berriatuaren eskuetan utzi du «euskara erraza» hori finkatzeko asmoa.

Azkar ibili behar orain, batetik: euskaldun-berriak eta erdipurdiko euskaldunak zai ditugu, milaka «euskara erraza» horren desira beroan. Baina zentzuz ere ibili behar: izan bedi mila hitzetako hizkera erraz hori euskara osoaren **lehenengo maila**, eta ez, geroko osakuntzari buruz, **lehenengo oztopo-harria**. Prestatu beharrak, dudarik ez egin, teknika-arazo larriak dakazki berarekin. Eginkizun hau mamitzekotan, inor ez hoberik «Euskalduntzen» ikaspidearen egilea baino. Hau egia da.

Dena dela, eta «euskara erraza» horren oinarria ezartzekotan, laguntza beharko du Berriatuak: euskaltzale argituen laguntza batetik, hori bai; baina burutu beharko diren inkestak eta lanak obratzerakoan, **diru-laguntza** ere beharko du.

Agian lortuko denak!

(1977)

**HIZKUNTZA,
PENTSAKERA,
DIGLOSIA**

1

HIZKUNTZA ETA PENTSAKERA

Herri batek bere hizkuntza ahaztu, eta beste bat hartzen duelarik, beste herri arrotz bat billakatzen dala, beste izaera bat nagusitzen zaiola, gauza jakiña da aspaldidanik. Eta aldakuntza hau, arrotz bihurtze hau, ez dala edozein aldetara gertatzen. Bere nazio-hizkuntza trukatu-berria duen herri arrottua, hizkuntza berri hori erantsi dion herriaren menpeko jartzen baita, hain zuzen, kulturaz eta politikaz; eta ez besterenik.

Politikazko menpetasuna soziologiaren maillan jokatu ohi da, zaharrakaera-gertakari askoren egokieran. Sustraiak ekonomian eta demografian, teknikan eta gogo-ahultasunean, herrien funtsezko indar-oiñarrietan, aurki ditezke. Agerian, politikazko menpetasuna sortzen da aurrenik; kulturazko menpetasuna, politikazkoari darraikio. Ez alderantziz.

Gogoan har, esaterako, kolonialismoaren kondaira: alderdi batzutatik bederen (eta teknikarenetik batez ere!) Amerikar, Asiar eta Afrikarrekiko, mendebaltarren gaintasuna gauza nabarmena zan kolonialismoa obratu aurretik ere. Askatasuna galtzea liferentzia hortatik etorri zitzaizen geroko kolonici. Halarik ere, morrointasuna osotara gertatu-

rik ere, kolonietako hizkuntzak ahuldu egin dira kolonialismoaren urteetan barrena, baiñan ez hil eta ezabatu.

Alderantziz ere: bortxaz zapal dutako herri bat hiltzeko eta biltzeko, hizkuntzaz aldaraztea da biderik ziurrena; eta aspaldidanik erabilia. Menperatutako herriaren hizkuntza, gaiñera, soziologiari gagozkiola, beherago eta ez-deusago ohi baita menperatzaillena baiño (horixe idatzi dut arestian), bortxazko aldaera, hizkuntza-trukea alegia, herriaren onetan eta zerbitzutan egiten dan mesede baten tankeran aisa azal diteke. «Kolonia aurreraraztekotan... illunpetatik koloniatar gizajoak begiratzekotan... adimenduak argitzen laguntzekotan»... Horra hor xede ohoragarriak! Kolonialismoaren eta inperialismoaren kondaira hitz horietaz josia da. Jokabidea maltzurra da.

Erresuma modernoetan batez ere, erresumak egun duen ahala lehen baiño haundiagoa izaki, hizkuntzari buruzko gorabeherak sakonki ohi dituzte istudiatu zapaltzaille gertatzen diran erresuma-gobernariak: gaurko egunetan ba dago berariazko hizkuntza-politika sendo eta zindo bat. Baiñan ez da agerian agertu ohi... Itsusi da zapalbidearen jokia agertzea! Askoz abillago da politikaren izena ez daraman «nazio-ekintza» zabala: «politika», horrela, hizkuntzarekiko «temak», «hizkuntzakeria» hitz batez, ez du erresumak behin ere egiten; ez du gobernuak sekulan izaten mintzairari buruzko «setarik». Setak, temak, politikeriak, «euskeromania», eta abar, geuk dugu, erromantiku porrokatuok, pikuan bizi geranok, zozook beraz. Gobernuak, noski, ez dira gure txikikeriez arduratzen... «Haundiak haundiro...»

Hizkuntzen etorkizuna, ordea, gobernuek erabakitzen dute. Gaur batez ere ez dago gobernurik hizkuntza-politika deliberaturik ez duenik.

Lehen ere ba zegoen, nahikundean bederen, hizkuntzajokabide bat. Napoleon'ek, esate baterako, Italia, Frantziaren menpean jartzeko erabakia hartu zuenean, garbi ikusi zuen bere eginkizuna; eta Piamonte'tik hasita, ezari-ezarian, hegoalderaiño frantsesera ipiñi nahi izan zuen Italia'ko hizkuntza ofizialtzat, erresuma-hizkuntzatzat beraz.

Napoleon'ena baiño lehenagoko erresumek berek ere, ba zuten maiz hizkuntzari buruzko xede bat, edo asmo garbi bat behintzat; baiña obratzeko eta betearazteko indar

haundirik ez!

Euskal Herriari gagozkiola, esate baterako, korrejido-reen gorrotoa ez da atzokoa!! Baiña 1794-arte ez dute gure etsaiek aukerarik izan gure herria egiazki arrotutzen eta erdalduntzen abiatzeko; eta horregatik ez dute egin. Bertako haundikiek gogoz lagundu dute huntan, ez da dudarik, edozein koloniatan bezelaxe. Ondoko idazkietan aztertuko dugu hau.

Aski bedi, oraingoz, hau gogoraztea: 1794-eko urte hortan eman zituen Paris-ko «Convention»ak lehenengo agindu zehatzak (eta, eskola zala bide, agindu eragille, eta alde batzutatik itxurako) euskera hiltzeko, eta Iparralde-ko Euskal Herri'ra frantsesera hedarazteko. «Grégoire'ren Txostena» deritzan agindu horrek, «beharrak ezaguturik... xoilbideak eta aginduak betearazteko tresnak ere, eman zituen; eta xedea garbi ikusarazi: «"patois" guziak errotik erauzi —dio Txostenak— eta beren ordeztan frantses-hizkuntza eskualde guzietan nagusiarazi».

XIX-garren mendean, eta are zinkiago XX-garrenean, erresumako lege-hizkuntza atzerrian sarrarazteko bideak ugaltu eta azkartu ala, zorrotzago eta hestuago egin da hizkuntza-politika hori.

Zergatik hori guzia? Zergatik gobernuak horrelako ziztrinkeritan ari?

Herri bat bere uhaletik ateratzeko, bestelakatzeko, bere buruarekiko arrotz egiteko, kolonia bihurtzeko, eta ixil-ixillik menperatzeko, gaur eta beti, biderik ziurrena hizkuntzaz aldaraztea dalako.

Antziñatik somatu zuten edonungo menperatzaileek beren hizkuntza beste herriri onarrarazi ezker, zerbait sakinik kenduko zioztekeala: harrapatutako herriak bestela pentsatuko zukeala. Ba zekiten, hitz batez, gaurko Hizkuntzalariak, Zientzian barrena ibillirik, eta fenomenuen azterketa hotzen ondorioz aurkitu duena: alegia, hizkuntzak funtsezko pentsakera eta munduaren ikuskera moldatzen dituela.

Dana aitortu behar; eta ondoko ataletan agertuko denez, egia hau edonork, edozein agintarik, edozein intelektualek batez ere, ulertu bide du dagoeneko... Euskal Herri'koek ezik!!! Humboldt, halere, orain dala ehun eta hirurogei urte izan zan Euskal Herrian... Orduan ezagutu zituen (ez hera-

negun, alajainkoa!) garai hartako gure euskaltzalerik sonatuenak. Gaurko Hizkuntzalaritzak dionez. Humboldt'ek urte haietatixek ikusi zuen xuxen hizkuntzen kakoa...

Euskal Herri'ko intelektualak pikuan gelditu ziran.

Gaurko Zientziaren joera

Eman dezagun, halere, hizkuntzaren munta funtsezko hori orain arte guk ez ulertzea, ehun hirurogei urtez ez somatzea, barka ditekeala; eta ez dala pikuan egote hutsa. Bego. Ez gaitezen xuhur eta zikoitz izan. Barkaturik izan bitez oker guziak.

Baiña gaur, irakurle hori, hizkuntzaren jakintzak eta soziologiak, ahobatez erakasten dituztenak gaingiroki bakarrik ezagaturik, hizkuntzak herri baten iraupenean eta nortasunean duen inportantzia zalantzarik ez dago. Euskaldun (eta «euzkotar») sasi-jakintsu batzuk ateratzen dituzten zozokeriak aurrerakoan barkatu eziñezkoak izango dira. Gehiago ere: siñistu-eziñak.

Mounin saiolariaren iritziak bete-betean sartuko gaitu gaurko joeraren giroan: «Ideia hau: alegia, hizkuntza bakoitzak egiazkoan alderdi liferenteak ebakitzen eta berezten dituela (hizkuntza hunek nabarmenerazten duena, harek alde bat utziz; hunek ahaztutzen duena, harek aintzakotzat hartuz eta erreparatuz); eta egiazko horren beraren berezketan, bestalde, hizkuntza bakoitzak tajutzen dituen banakoak edo atalak desberdiñak ere dirala (hizkuntza hunek lotu duena, harek deslotuz; hunek zatitu duena, harek aparte utziz); ideia nagusi hori —dio Mounin'ek— gaurko Hizkuntzalaritza osoaren irabazia billakatu da». (Mounin, *Les Problèmes théoriques de la Traduction*, 48 garren orrialdean).

Zergatik handiespen hori? Non datza, bada, hizkuntzaren kakoa?

Hitz-lerrokadaren sasi-teoria zaharra

Hizkuntza bat ez da «hitz-zerrenda» luze bat; antola-molde, mundu-ikuskerara, gauzen banaketa, denaren tajuera berezi bat baizik. Ez da saski-naski bat, «estruktura» bat baizik. Alegia: hein batean bederen, bere buruz ari dan kosmo txiki bat.

«Hitz-zerrenda»ri buruzko sasi-teoria horren aurkako

kritika gogorak eta bidezkoak irakurri nahi izan ezker, edozein hizkuntzalariren izkribuetan aurki ditezke Maiz topatu izan ditut nik liburuetan; eta laurdena bakarrik hemen aipatzea, luzeegia litzake.

Guzienak bildu nahiz, bijoaz, sarrera modura, eta harira aitzin, hiru hizkuntzalari haundiren iritziak.

Hjemslev estrukturalista famatuaren esaera bakar bat aipatuko dut: «estrukturalista deritzan Hizkuntzalaritza, zientziako Hizkuntzalaritza baizik ez da». (1957, Oslo'ko Hizkuntzalarien Biltzar Nagusian).

André Martinet'ek dirudi gaur hizkuntzari buruzko gaietan nagusi. Itzal haundikoa, Martinet'en estrukturalismoa Hjemslev'ena baiño neurtuagoa da. «Gure ustez —Lacroix filosofilariak berriki esan du— Martinet'en lanek, Meillet' enak eta Vendryes'enak ordaintzen dituzte». Entzun dezagun Martinet, beraz: «Hizkuntza bakoitzari, esperientziak bildutako oiñarri edo datoen tajuketa berezi bana dagokio». (Eléments de Linguistique Générale, 16 gn. orr.).

Hirugarrenik, eta sarrera hau bukatzeko, Z. S. Harris'ek 1956-ean argiro esan zuen bezela: hizkuntza bat ez da «a bag of words», ez da hitz-zaku bat.

Zer zioten bada (edo, zer diote oraindik ere!...) «hitz-lerrokada»ren aldeko euzko-zaleek eta «zaku-zale»ek? Estrukturak zer diran azaltzen hasi aurretik, on izango da horien iritzia laburzki aurkeztutzea.

Euskeraren beharra txikitu nahirik (edo beren buruen erdaltasuna estali edo garbitu nahirik ere ez gutxitan...) gazetandik entzun izan ditut, behin eta berriz, zenbait «abertzaleren» (?) ahotatik, «zakuzale»en ideien bilduma jatorrak. Hunela mintzo dira, gutxi gora behera: «Bai, euskera inportantea da, noski. Baiña, egia esateko, zer axola du "zaldi" soiñua edo hotsa emateak (z + a + l + d + i), ala bere orde z "caballo"ren soiñu-zerrenda emateak (c + a + b + a + l + l + o)? Ahoa, edo mingaiña, edo sapaia, huntara edo hartara jarri; eta, zer? Hortaz kanpo, zer? Askotan esan ohi da herri baten arima dala hizkuntza; baiña hori gehiegi esatea da. Hots-sorta batek, soiñu-multzo batek, ezin dezake herri baten arima eman. Hori miraria litzake».

Oraindik ere hortan gera!!!

Okerragorik ere ez dugu falta: «hizkuntza galduta ere,

gure ohiturak, gure folklorea, gure izakera, gure pelota-jokoa hor gelditzen dira»... Edo, sasi-ekertarren alderdian: «herri-rik ez dago, klaseak daude soilik. Hizkuntzen gora-beherak kapitalistek asmatutako sasi-problema dira»...

Gure hizkuntzaren etsaiak, hortara, ez dira urri. Eta batzutan zalantza ere sor ditekete gudan: «ez ote naiz ni pikuan bizi? Ez ote da nere euskaltzaletasun hau eroaldi huts bat?».

Euskaltzaleok, horrela, izuti gera geure herrian; eta geure hizkuntzaren aldeko burrukan, lotsau egiten gera pittin bat.

Eta bestetik, askotan egiten dugun burrukak, zahar-kutsu bat eta negar-giro bat du. Gure aldeko saioak eskubi aldetik egiten ditugu, eta ahultasuna nagusitzen da. Fenomeno hau oso sakona da, eta Euskal Herri'ko marka izan da azken mende huntan.

Ez dugu euskaltzaleok, ordea, bildurrez ibilli beharrik. Gaurko Hizkuntzalaritza osoa gure alde mintzo da.

Hizkuntza bat, beraz, «hitz-lerrokada» bat omen da: hauxe uste dute oraindik ere euskaldun batzuk eta «euzko-zale» guziek. Beren ustez, beraz, hiztegi on bat gertatu, eta kitto: problemarik ez. Gure hizkuntza salbatua dagoke... Horren bidez zabaldu zan gure artean ideia (?) zentzugabe hura: abertzaleok agintea lortu, hiztegia eskuan gauzei izena aldatu (kaleetako plakak bezelaxe), eta kitto: euzkotarrak euskaldun, herri osoa euskeraz jator hasiko omen, eta hizkuntzaren hauzia betirako konpondurik. Erreza, alajaiñetan!

Zer dio gaurko Zientziak ideia horietaz?

Are gehiago: hizkuntzaren arloa hotsen arteko burruka xoil bat zaien ezker, ez du balio («zakuzale»en ustez, noski) ezta euskerari eusteak berak ere. Zergatik edo zertarako esango dugu «zaldi» soiñu-illara, eta ez «caballo» soiñu-illara? Iritzi jakintsu eta sakon horien bidez sartu ziran gure artera, eta batzutan nagusitu ere bai, «euzkokadak» eta... «uzkukadak». Zeren-eta «euzko-zale»en eskuetan, ez gaur eta ez bihar, ez da euskal hiztegirik agiri; eta apaletan ere, ez maizegi. Euzkotar-keria da nagusi haiengan, baiñan ez jakinduria; eta are gutxiago euskal hiztegi miraritsu hori ere...

Errora gaitezen pittin bat.

Zergatik horiek oro, funtsean, jokabideen sustraietan? Hunengatik: «zaku-zale»en ustez, mundua, izakiak, erreali-

dade guzia, «Logika»ren arabera aztertzen dugu. «Logika»ren arabera: hau da, berdinzki denok, berdin-berdin hizkuntza guzietan eta herri guzietan. Gizonaren «Logika» beti bat baita, eta hizkuntzak ez baitu mundua ikusteko eran ikuskizunik batere. Izenak aldatu, beraz, hiztegia xuxen erabili, izakiak berriz bataiatu, potoei etiketak trukatu, eta... egiña! Euskaldunek «urdin» esaten duten lekuan, euzkotarrek «azul» (edo «bleu») esango dute; euskaldunek «anaia» diotenean, euzkotarrek «hermano» (edo «frère»). Eta abar, eta abar.

Gauzak horrela izaki, gure izakera nondik aldatuko? Zergatik? Egiakoaren konpartimenduak edo atalak mundu guzian zehar berberak diralakoan; «zaku-zale»en ustez «Logika»ren arabera eta aldakaitzak diran ezker, denboran zehar, eta etnia eta herri batetik bestera beti bat diran ezker, hiztegi on bat aski.

Hori dala-ta, euskaltzale famatu batzuk gramatika «ona» (= «Logika»ren arabera, beraz...) egin nahiz, bide horietan barrena abiatu ziran ausarki; eta berebiziko erdalkeriak irentsarazi nahi izan zizkiguten. Erderari (erdera bakar bati, espainiarari hain zuzen) datxekon barne-egitura «Logika»ren alabatzen harturik, erderatu egin zuten gure hizkuntza. Ikus, esate baterako, espainiera hitzez hitz eta puntuz puntu itzuli diran sasi-gramatika «garbiak»: funtsean guztiz dira espainieraren morroi, eta guztiz beraz erdaldun «logika»ren ondorio. Garai onean, baztertu egin ditugu azkeneko urteotan. «Anti-erdera» horiek ez dira euskera: euskal giharra falta zaie, arrotzak zaizkigu arras. Ez da harritzekoa: ez dago Logikazko hizkuntzarik.

Mounin berriz mintzo: «Antziñako Hizkuntzalaritza»ren ustez, mintzaira-itzultzearen eginkizuna hau da: kupela baten neurria edo gunea litrotan hartu, eta «gallon»etan bihurtu. Baiña kopurua, kantidadea, litrotan emanik ala gallonetan emanik ere, bi aldietan berbera zala ez zan zalantzan jartzen. Urki-keta, ekai-keta, dudarik gabe zitzaien beti berbera... Iritzi hau baldintza baten gainean eraiki zan: alegia, hizkuntza guziak, guziak eta beti, giza-esperientziaren kosmo berberari buruz ari dirala; eta, bestalde, giza-kosmo hori gizon guziengan aldatu eziñezko ezagumen-kategoria berberen arabera aztertua dala... Irizpide hori, ikuskera hori

alegia, Humboldt'ek eta bere ondorengoek erkaztatu egin dute». (Mounin, *Les Problèmes Théoriques de la Traduction*, 42 gn. orr.).

Nola jokatzeko du hizkuntza batek (edo, hobeki esateko, hizkuntza bat sortu eta mamitu duen herriak) gizonek bildu duten ezaguera kanpora agertu nahi hortan. Nola eratzen du munduari buruzko esperientzia, nola tajutzen ikasien eta ikusien bilduma? Huna hemen erantzuna: olerkariak egiten duen modura, bihotzaren arabera, antzak billatuz eta ager-eraziz, oroitzapenak alkartuz, gizonaren «pentsaera arkai-ko» deritzanaren bidez. Ez adimentu hotzaren eta «pentsaera positibo»aren bidez.

Hizkuntza olerkia da, ez zientzia. Olerki-ondoa da, hobe esateko. Edo, Emerson filosofilariaren hitzaz esateko: hizkuntza «olerki fosilla da», olerki izana. Hauxe da kakoa.

Olerkigintza hortan herri oso batek hartu du parte, mendeetan zehar klaseetan zehar: ideiak zatikatuz, eta mundua herriaren irudimenaren arabera piskanaka hizkuntza bihurtuz.

Gauzei «izen»bat eman baiño lehenago, hizkuntza batek (herri batek, beraz) ideien maillan egiten du zatiketa bat, berezketa sakon bat, oharkabezko ideia-antolaera bat. Eta hizkuntza bakoitzak bere erara begiratzen du mundua. Ez dago ikuskera logikorik. Horregatik hizkuntza guziak funtsez dira desberdiñak. Izen-lerrokadaren aldekoek ez dute hau ulertzen, eta ez ulertuko ere dirudienez.

Huni buruz ez dago gaur zalantzarik Hizkuntzalaritzan: «Humboldt'en teoria, batez beste, guziek onartzen eta izenpetzen dute». (Mounin, *Probl. Th.*, 44).

Abereen saila aukeratu ezker, esate baterako, hizkuntzen eginkizuna logikoa dala dirudi. Alegia: zaldia eta zezena, eman dezagun, bi abere mota dira: bi izen desberdin dagozkie, beraz. Eta, bitasun hori dala-ta, guk euskaldunok «zaldi» eta «zezen» deitu ditugu; espainolek, berebat, «caballo» eta «toro»; frantsesek, «cheval» eta «taureau». Eta abar.

Ba dirudi hizkuntza bat izen-lerrokaka luze bat dala; eta hiztegi luze batek, besterik gabe, traburik batere gabe, illara luze batean, batetik bestera igarotzeko kide guziak eman ditzakeala.

Zentzuak. hitz batez, axaleko azterketa baten bidez,

izen-lerrokadaren egia idarokitzen du. Eta ez la lehenengotik agertzen, guk, euskaltzale erook («euskeromano» ez gaituzte bada deitu, abertzaletasunaren izenean (!!!), Argentina'ko euzkadillero batzuk?) aitpatzen ditugun kalteak eta izugarrikeriak.

Hori egia balitz, hizkuntza baten eginkizuna; bataio lantsu bat besterik ez litzake. Funtsezko problemarik ez. Bataioetan bezela, mutiko huni Joanes, neskatxa hari Ixabel, eta abar. Zer axola duke izenak izanean? Izena eta izana bi... Hots bat eman, ala beste hots bat, zer munta izan dezake?

Saussure eta estrukturalismoa

Azterketa hori ez da sasi-azterketa bat baizik.

Mintza bekigu Saussure hizkuntzalari haundia: «Pentsaera, berez, illuna eta lañotsua da. Deus ez dago pentsaeran berez alde aurretik mugaturik eta markaturik. Aldez-aurretikako ideiarik ez dago. Hizkuntza agertu aitzin, pentsaeran ez dago ezer berezirik» (Saussure, Cours de Linguistique, 155).

Irakurgarri, eta osoki gogoangarri eta gogor, dira puntu hortaz Martinet'en horrialde batzuk (Ikus Martinet, Eléments de Linguistique Générale, 14 eta 15). Ezin hemen osorik birlanda. Nekez azal dezake nehork berak baiño zorrozkiago, zergatik hizkuntza bat ez dan hitz-lerrokada huts bat. Irakurleak liburua eskuratzeko aukera baldin badu, bai puntu huntaz eta bai guretzako oiñarrizko diran beste askotaz ere, argitzapen ederrak lortuko ditu.

Hau da kakoa hitz gutxitan: hizkuntzak ez du bataiorik egiten, hizkuntzak ezin dezake bataiorik egin, bataiakizunik ez baitago. Ez dago haurrik. Nor bataia, beraz?

Saussure'k xuxen dio: «Aldez aurretik emandako ideien izendatze hutsa balitz hitzen kakoa, hizkuntza batetik bestera kide zehatzak aurkituko genituzke beti adieraz-kiari, esan-nahiari, buruz. Alabaiña, ez da hau gertatzen». (Saussure, Cours, 161).

Eta hitz hauek Martinet'ek ere: «Beste hizkuntza bat ikastea, ez da gauza ezagunei etiketa berriak ezartzea, gure adierazkizunak, gure azaldu-beharrak, beste era batera aztertzen ikastea baizik». (Martinet, Eléments, 16).

Bihur gaitezen «equus» dalakoaren saillera. Eta ba dugu

euskeraz zenbait hitz: zaldi, behor, zamari. garaño, pottoka... Espaiñeraz ez dago zatiketa hori bera. Frantsesez ere ez. «Equus» sail hortan bertan, beraz, azterkera liferenteetatik joan gera, eta gertatu diran hitz-berezketa desberdiñetara iritsi. Ulmann'ek ongi dio: «Hizkuntza bakoitzari kanpoko munduaren azterketa berezi eta jatorrizko bat datzeko; eta azterketa hori eta gaiñerako hizkuntzena, edo baita hizkuntza horren beraren aspaldikoak ere, desberdiñak dira».

Hizkuntzen arteko liferentzia, beraz, ez da hots-gora-behera bat. Liferentzia funtsean finkatzen da, erroetan bertan datza, ideien beren zatiketan. Argi dezagun oiñarrizko ideia hau adibide batzuen bidez.

Jendearekin mintzatzeko, esate baterako, ba ditugu euskeraz modu batzuk: hika, noka, zuka eta berorika. Adiskideari «ekarri duk» esan ohi diogu; arrebari «ekarri dun»; ezagutu berria dugunari «ekarri duzu», eta berdin ere eskuarki; baiña «ekarri du» gure errespetua erakutsi nahi dugunean. Horra hor (Amikuze'ko xuka'koa aipatu gabe) mintzatzeko moldeak euskaldunok lau zatitan tajaturik.

Nork esan dezake, ordea. zatiketa laukun hori logikoa danik? Edo, hizkuntza batetik bestera, inbariante baten modura, bat iraun eta ezertan ere aldatzen ez danik? Españolek gaur «tú» eta «usted» dituzte (eta «vos» nahi bada, kasu berezitan). Gure «hi» eta beren «tú» ez dira kide zehatzak. Espaiñeraz hiritar seme-alabak usu mintzatzen zaizkie «tú»ka gurasoei; baiñan, hirietan berriz ere, «zuka» egiten zaie euskeraz familia berberetan. Kasu hortan, eta beste anitzetan, euskerazko «hika» españerazko «tú» dalakoa baiño hertsiago da.

Ez da hori bakarrik. Españerak ez ditu bereziten tratamenduan giza-semea eta emaztekoa; euskerak, ordea, bai. Inglesez, berriz, «you» besterik ez dago denentzat; eta «you» horrek berberak «zuek» ere biltzen du. Ba dute, ordea, gaur xoilki Jaungoikoarekin hitzegiteko «Thou» dalakoa.

Beste hitzez esateko: gizarteko mintzakerari gagozkiola, tratamenduen sailleko eremuei gagozkiela, euskeraren barne-moldea edo «estruktura», eta erderena, ez dira eremu berdiñekoak. Ez dago hitzez hitz itzultzerik. Ez dago kidesun zehatzik. Hizkuntza bakoitzak bere gisara anto-

latu du gizarte-mintzakeraren eremua. Edo, bestela esateko: ez dago tratamendu-zatiketa logikorik. Eta hortatik dator hitzen edo moduen kideak, hizkuntza batetik bestera aldatzean, ezin aurkitzea. Kakoa ideien maillan dago; ez hotsean bakarrik. Euskaldunok, inglesak, arabitarrek, eta beste edozein herritakoek, ez dugu gisa berera tajutzen mintzakeren sail hori. Egiazki: beste era batera «ikusten» dugu gizartearen hizkeraren kontua.

Har dezagun beste adibide bat.

Eguraldiari gagozkiola, euskerak xeheki berezten ditu eguraldiaren gora-beherak: elur, garazua, kaskabar, euri, harri, xirimiri, laño, lanbro, gandu, belaño, ihintz. izotz, horma, karro, jela... Españeraz, frantsesez, txineraz edo hungarerez, nork segurta ditzake horien kideak? Eguraldiari dagozkion fenomenuak nun-nahi ezagunak izan arren, ez dira herri guzietan era hortaraxe zatikatuak: hizkuntza batek, behar-bada, ez ditu kaskabarra eta garazua bereztea; ezta beste batek karroa eta izotza. Baiñan eskimalek, hizkuntzalariek esan digutenez, makiña bat elur-mota berezten dute; eta guk ez. Guretzako elur mota guziak elur dira. Liferentziak, berriz ere, fenomenuen zatikeratik datoz. Funtsezkoak dira, ez soiñuzkoak bakarrik.

Martinet'ek esaten duenez (ikus *Eléments*, 15) frantsesek ez bestek berezten dituzte «rivière» (beste ibai batera ixuritzen den ibaia), eta «fleuve» (itsasora ixuritzen dana). Puntu hortan, beraz, frantseserak berezten dituenak, ez ditu euskerak berezten. Euskerak, aldiz, «hortarako» eta «horrengatik» berezten ditu; baiña frantseserak ez (eta «pour cela» dio bietan).

Hitz batez: funtsezko zatiketak ez dira berdiñak.

Harris'ek argiro azaldu du desberdintasun sakon hau hiru puntutan.

Lehenbizikorik, dio, ideia-eremu bat (eguraldiaren fenomenuena, familiarena, edo beste) era askotara zati edo antola ditekete. Hizkuntza batetik bestera pasatzean, azterpide hori aldatu egiten da. Har dezagun, adibidez, «ez dakit nik» esakuntza. Españeraz «yo no sé» esaten da; eta irakurleak berak berealatik frogatzen dezakean bezela, jostera eta azterketaren illara edo ordenua, liferenteak dira bietan. «No-saberlo-yo», edo horrelako zerbait, esan behar-

ko litzake. Hitzez hitz xuxen itzultzerik ez dago. Baiña har dezagun orain fratseserazkoa: «je ne sais pas». Zeri dagokio «pas» hori? Beste azterketa bat dugu. Ezin diteke hitzez hitz itzul. Eta berdin ere ingleseraz: «I do not know». Zeri dagokio «do» hori espanieraz? Non du bere kidea euskal esakuntzan? Liferente ere alemaneraz: «ich weiss es nicht». Eta abar. Ideia bera dugu hor, funtsez, baiña bestetara aztertua eta aditzera emana. Ideien beren maillan, eta ez azalean bakarrik, ba dago zerbait berezirik.

Bigarrenekorik, dio Harris'ek, ideiaz aldatzeak ez dakar askotan hizkuntzazko hitza aldatzea. Bi adibide aipatuko ditut: «atomo» hitzak, etimologiaz, «zatitu-eziña» esan nahi du; hitza sortu zanean, hori baitzan gizonaren ustea. Guziok dakigu gaur, halere, atomoa zati ditekeala; baiña hitzak bere hartan, aldakuntzarik gabe, iraundu du. Gauza bera esan diteke «balea» hitzari buruz: ez da arrain bat, ugaztun bat baizik: baleari buruzko ideia aldatu dugu, baiña hitza ez. Ez dugu Logika'ren arabera jokutzen.

Hirugarrenekorik: askotan ideiak azaltzeko «hitzak benetan falta zaizkigula» gauza ezaguna da. Rilke olerkariak hori zion: «gertatzen zaigun ia guzi-guzia azaldu eziñezkoa da». Ez dira hauek ele hutsak: gaurko hizkuntzalariek, bertso harrigarriak egiteko asmotik urruti ari izan arren, olerkarien esanak onartzen dituzte. Hizkuntza ez dagokio, heretsiki hitzegin nahi izan ezker, ez adimenduari eta ez sentimenduari ere. Hizkuntza bestetatik ari da.

Hizkuntzak ez dira neholaz ere Logika'ren seme. Eta horregatik hizkuntzen oiñarria, hizkuntzen «estrukturak», liferenteak dira.

Zer dira hizkuntzaren estrukturak?

Estrukturalismoa sortu dan ezkeroztik, gero eta gehiago hedatzen ari da «estrukturen» azterbidea. Ez da ahaztu behar, ez dala Levi Strauss lehenengo estrukturalista izan, Ferdinand de Saussure baizik. Metodoa hizkuntzaren ikaspenetan sortu da, ez etnologiakoetan.

Zergatik hau? Hizkuntzalaritza, besterik uste izan arren, gaiñerako giza-jakintza sailak baiño aurrerago doalako. Hizkuntzei buruz ezin eman iritzik estrukturalismoa ezagutu gabe. «Hizkuntzalaritzaren azterpideak balio eredu du et-

nologiako ikaspenetan» (Levi Strauss, *Anthropologie Structurale*, 26). Ez dugu ahaztu behar ere Levi Strauss'en bilduma gotor huntan, heren bat hizkuntzari buruzko azterketa bazuk osatzen dutela.

«Estrukturalismo» hitza 1930-arte erabilia izan ez arren, estrukturalismoa eta Saussure'ren izena alkarri lotuak daude betirako.

«Estrukturak» xuxen zer diran azaltzeko, egoki izango da adibideetatik ideietara pasatzea, eta ez alderantziz. (Ikus ere Levi Strauss'en azalpen argitsua: *Anthropologie Structurale*, 303-351 horr.)

Orain artekoak esan ondoren, «estrukturak» zertsu diran piska bat nabarmendu da. Baiña ba dira estrukturak bai hiztegian eta bai fonetikan ere. Bi maillatan, estrukturaz osatutako izaki bat da hizkuntza.

Har dezagun hitz bat, edozein hitz: «mendi», esate baterako. Hitz horrek bi parte ditu, edo bi alderdi: hots-segida bat da batetik (m + e + n + d + i), hots batzuen illara bat, adierazkizun bat daraman hots-multzo bat; eta, bestetik, aipatua dut, adierazki bat da, esakizuna da, esan-nahi bat datxeko; eta ideia hori nabarmen zaigu euskaldunoi Aizkorri mendi bat da, Gaorisarkar mendi bat da, Mont Blanc mendi bat da.

Hitz batek, beraz, ba ditu bi aurpegi: hots-mordoa, soinu-segida, fonetikari dagokiona; eta adierazkia, adierazten dana, semantikari dagokiona. Ba ditu, beti, hizkuntzak loturik, hots bat eta ideia bat: ba ditu «signifiant» eta «signifié» alderdiak; nik hemen «adieraz-hotsa» eta «adierazkia» deituko ditudanak.

Bikoiztasun hau, bistan da, beste guzietan gertatzen da: belar, liburu, ardo. Beti ikus ditzakegu adieraz-hots bat eta adierazki bat.

Hizkuntza bakoitzean, beraz, ba dago adieraz-hots zerrenda luze bat; eta ba dago ere, guztiz besteari lotuta, adierazkien zerrenda luze bat ere.

Baiña bai adieraz-hotsak eta bai adierazkiak multzotan antolatzen dira: multzotan mugatzen dira, elkarren aurka eta elkarri bultzaka berezten dira, adieraz dezakegun guzia multzotan partekatzen dugu. Ondoko etsenpluctan ageriko den bezela, ez dute hitzek beren izana «berez» finkatzen; edo

bakarrean, edo ez dakigu zein «logika»ren arabera. Ez. Irakur dezagun Saussure: «Hizkuntza bakoitzean hitz guziak elkarri lotuak daude, eta bakoitzaren balioa ondoko hitzen balioak baldintzen eta finkatzen du». (Saussure, Cours de Linguistique Générale, 165). Edo-ta: «Hizkuntza batean... parte guziak beren elkartasun sinkronikoan kontsidera ditezke, eta horrela kontsideratu behar dira». (Cours, 124) Alegia: hitzak multzotan aztertu behar dira, ez bakanka. Hitzen izana bera multzotan erabakitzen da.

Hizkuntza bakoitzean, hitzak elkarrekiko burrukan egokitu dira istorian zehar; eta burrukan heldu dira gaurko oreka hortara.

«Mendi» hitzaren bost hots horiek ez dira nehundik ere (mendi ideari gogozkiolarik) nahi-ta-nahi-ezkoak; edo ideia horri ez dakigu nondik «logikoki» iratxeikiak edo itsatsiak. Mendiri dagokion ideia bera ere, geuk berezi dugu, geuk sortu eta mugatu dugu; ez mendiek. Mendi ideia gabe bizi diteke: Yucatan'go indiarrek, esate baterako, ez dute mendirik eza gutzen; eta beren hizkuntzak ez du ideia horri dagokion hitzik. Ez, beraz, hots-segida hori, eta ez adierazkia bera ere. Ez dira nahi-ta-ezkoak edo «logikoak».

Lehenengo partea erraz ulertzen da, nere ustez. Ideia bat izendatzeko, libro gera sentidu batera: guk Aizkorri'ri «mendi» deritzagu; baiñan españolez «monte», frantsesek «montagne», eta alemanek «Berg» oker ez banago; eta hizkuntzaren batean, beharbada, «zelai» esaten diote; eta zelaiari, «mendi»... Zergatik ez? Hitza aukerazkoa da eta librok hartagarri.

«Edozein ideari edozein ere hots-illara lotzea zerk galaraz dezakean ez da agiri» (Saussure, Cours, 110). Esate baterako: gure «hamar» eta españerazko «amar». fonetikaz antzeko, adierazkiari buruz ez dira batere antzekoak; ezta gure «beso» eta espāñolen «beso», edo gure «hill» eta inglesen «hill». Hots-mordo berbera, edozein ideari dagokioke; adieraz-hots berbera, edozein adierazkiri dagokioke.

Ez hori bakarrik: edonolakoa dan soiñu-illara hortan, soiñu-illarako letrak edo parteak berak, libro dira, auke-razkoak. Euskaldunok ez dugu espāñerazko «z»-hotsa erabiltzen (nahiz «z» idatzi guk ere). Espāñolek, aldiz, ez dute gure «tz» ematen; eta frantsesek erabiltzen duten «r»-mota

(edo berdiña ez dan inglesena) ez dugu ez guk eta ez españolek erabiltzen. Hizkuntza batetik bestera, horrela, hizkien edo hotsen sorta aldatu egiten da. Hizkuntza bakoitzak bere soiñu-mordo berezia darabil.

Baiña ba da besterik.

«Mintzaira-siñuak ez ditu gauza bat eta izen bat lotzen, ideia bat eta hots-señale bat baizik». (Saussure, Cours, 98). Munduko gauzak antolatu eta tajutu egin behar dira aurrenik, izendatu aitzin. Puntu hau, zeharka gorago ikuturik ere, besteak baiño nekezago ulertzen da beharbada.

Gorago «mendi» hitza aipatu dut. Baiña non bukatzen dira mendiak, eta muñoak hasten? Zein goratasunetan? Zenbat metrotan? Nunbait moztu behar. Nolabait tajutu behar, oharkabean, goratasunen saila.

Non bukatzen da hondarra, eta legarra hasten? Non txikia, koskor billakatzen? Huna erantzuna: hitzen arteko muga horiek, puntu liferentetan daude hizkuntza batetik bestera pasatzean. Ez dago kidetasunik. Xuxenki eta artezki itzultzearen zailtasuna hor sortzen da. Adierazkien arteko mugak logikoak ez diralako, aukerazkoak baizik.

Berdin ere fonetikari buruz: non bukatzen da «u», eta «i» hasten? Non «a» bukatzen, eta «e» hasten? Fratseserazko «pain» hitzaren soiñua, zer da: «a» ala «e»? Hotsen arteko mugek logikoak eta gauza ageria dirudite etxeko hizkeretan. Baiña guztiz dira aukera-kontua.

Adierazki-estruktura batzu

Has gaitezen adierazkien azterketatik («signifiés»).

Bi adibide eman ohi dira hizkuntzaren funtsezko zatikera libro eta aukerazko hori ulertarazteko: koloreen banaketari dagokiona bata, eta ahaidetasun-maillarena bestea. Aipa ditzagun biak hemen ere, argibiderik onena berak baitira.

Gauza frogatua da (ziurkiago hitzegin ahal izatekotan, horixe ere frogatu beharra gertatu baita gaurko Hizkuntzaritzan, test batzuen bidez...) munduko gizon guziok kolore-mota berberak berez ditzakegula. Hitz batez esateko: koloreen ikusera fenomeno bakarra eta berbera da arraza guzietan. Prismaren bidez agerraraz ditzakegun koloreak (horzadarrean agertzen diran berberak) mundu guzian dira

gauza bera eta mordo bera. Eta, kasu huni ere, pertsona guziek berdin dakuskite. Fenomenua, beraz, fisikaren aldetik; eta gizonaren dohaiña, fisiologiaren aldetik, munduko leku guzietan dira bat.

Kolorea frekuentzi-kontua da, fisikak erakasten duenez. Frekuentziak millaka izan ditezkean ezkeio, koloreak ere millaka daude, teorian bederen. Zenbat, ordea, hitzen moldagintzan? Hizkuntzak funtsean logikoak balira, kolore sail mugagabe hori aztertzean, kolore-zatiketa berbera egin behar ko luteke; eta kolore berberen izenak aldatuko lirake xoi!ki hizkuntza batetik bestera, koloreen izana eta koloreen arteko mugak beti berberak gelditurik. Hiru kolore-izen aurkituko genituzke nun-nahi: edo bost, hogeit, edo zazpi, gaur esan ohi dan bezela. Kantidade edo korpuru hau Logikak berak erabakiko luke.

Zer erakusten du ordea hizkuntzen azterketak? Hizkuntza bakoitzak bere gisara banatu duela koloreen saila; eta herri batek bereziki izendatu nahi izan dituen kolore batzuk, beste hizkuntza batek hitz bakar batez izendatu dituela; edo alderantziz. Zergatik? Koloreen sail hortan berezko edo logikazko zatiketarik ez dagoelako. Koloreen banaketa aukerakontua dalako.

Aristoteles'ek hiru kolore berezten zituen. Harrigarri? Zenbat dira, beraz? Hogeit ta hamazazpi? Hemeretzi? Zenbat gorri-mota berezten duzu zuk, irakurle horrek? Halere, zenbat hitz duzu zure hiztegian? Edozein hizkuntzatan, zenbat kolorek dute izen berezirik? Zeiñek du frekuentzi guzientzako hitz berezirik?

Nola ez geran gu euskaldunok ibilli, erdi lotsaturik, «berde» hitza erderatik nondik eta nora sartu ote zaigun!... Euskal Herria horren berde izanik, nola ez izan guk hitz jator eta «garbi» bat? Ez dakit zergatik dan. Baiña ba liteke euskaldunok, ikusmenez berez berdea ikus ahal izen arren, urdiñaren eta oriaren arteko frekuentzi horri kasorik ez egi tea gure hizkuntzan; eta hortatik euskaldunok, ez berderi dagokion hitzik (eta ez ideiarik!) ez izatea. Zergatik da logikoa berdea bereztea? Berdea bereztea erdaldunengandik hartu dugu; eta hitza ere erderatik etorri zaigu. Nere ustez, berdea izen berezi batez izendatzeko moda berri hori erdalduna izaki, erdal modarekin batera sartu zitzaigun ere erdal

hitza. Ez da besterik.

Koloreen euskal banaketa ez da erderarena. Ba ditugu, nere ustez, beste aztarna batzuk. Arrautzean zuringoa eta gorringoa berezten ditugu. Eta behi batzuk gorriak dirala esaten dugu. Ez gorringoa eta ez behi gorri horiek ere ez dira odolaren kolorekoak, ordea.

Gure kolore-sailla ez da ez logikoa eta ez erdaldunena berbera. Gure kolore-sailla euskaldunen ikuseraren alderdi bat da.

Era berean: gauza jakiña da ezen antziñako juduek ez zituztela oria eta berdea berezten beren hizkeran. Eta greziatarrek ere ez: «jloros» hitza berdea eta oria zan. Beste anitz hizkuntzak ere ez, bestalde.

Zer agertzen da? Koloreen sailla bere modura tajutzen duela hizkuntza bakoitzak. Eta tajuketa hori egin ondoren (egin ondoren, bai, hori baita lehenengo eginkizuna) «bataioak» hasten dituela. Koloreen sailla eratu edo antolatu ondoren dator izen desberdiñak asmatzea. Ideiari darraikio hitza; ez alderantziz.

Herri batetik bestera saillaren banaketa aukerazko hori aldatzen dan ezkerro, herri bakoitzak koloreen fenomenua bere modura ikusten duela esan diteke. Euskaldunok eta juduek, esate baterako, ez dugu berdín aztertu (eta izendatu) koloreen sailla. Horra hor liferentzia ttipi bat. Matematikeraz hitzegiteko, ba dugu hor hizkuntzen arteko desberdintasun diferentzial bat munduaren ikuskeraz.

Goazen orain bigarren adibidera.

Fenomenu berbera gertatzen da ahaidetasun-maillak istudiatzean. Kanpoko fenomenua (ahaidetasuna, alegia) berdiña da mundu guzian: aita aita da nun-nahi, anaia anaia da, eta abar. Eta gizonak berdín ikus ditzake, eta berez, mundu guzian zehar.

Halere ez da hori gertatzen.

Sail hau ere hizkuntza bakoitzak bere gisara antolatu eta banatu du, ahaidetasunaren eremuan; berriz ere, azterketa logikorik ez dagoelako.

Euskerak, gonbarazio baterako, «aita» eta «ama» ditu (erderaz ere «padre-madre», «père-mère», eta abar). Baiña guk ba dugu «guraso» hitza, españeraz kide zehatzik ez duena. Eta ba dugu «anaia» eta «neba», alkarren ondoan, eta

«arriba» eta «ahizpa». Puntu huntan aberatsago eta zorrotzago da euskera, aldameneko erderak baiño. Erderak berezi ez dituen fenomenuak, euskerak berezi egin ditu.

Horra hor, fenomenu objetibo bakar bat, adierazki-eremu libro zabal bat: familiari dagokiona. Eta horra hor azterketa desberdiñak.

Matematikeraz jarraituz, bil dizagun liferentzia xume horiek guziak, integra ditzagun diferentzial horiek giza-esperientzia guziko eremuan barrena, alkar ditzagun desberdintasun izpiak oro, eta nabarmen agertuko zaigu herri baten pleguaren berezitasuna, herri baten ezin azalduzko nortasuna pentsaceraren aldetik, bere nazio-kulturaren giharra: Humboldt'ek «herri baten arima» hizkuntzak sortua.

Zeren-eta liferentzia horiek, eta zatiketa horiek, hitzetan baiño sakonkiago ere gertatzen baitira.

Aipa ditzagun, berriz ere, bi puntu bakarrik: «indeterminazio» deritzaguna, eta «egiazko-alegiatzko» berboen arteko liferentzia.

«Indeterminazio» hori zertan datzan maiz aipatu da (ikus Euskal Idazkaritzaren izkribuak, Baiona, 1964). Españeraz bi lumero dira bakarrik: bakarra eta plurala: hombre-hombres. Frantseseraz berdin. Euskerak aldiz hiru ditu: gizon, eta gizona-gizonak. Hiruei dagokie deklinabide berezi bana. Zergatik hori? Euskeraz eta españeraz, euskeraz eta erderaz ere askotan, lumeroari gagozkiola, gure giza-esperientzia liferenteki agertzen dugulako. Eta ez guk bakarrik: zeren-eta hizkuntza bakoitzak bere gisara aztertzen baitu. Lumeroari buruz, adibidez, hizkuntza batzuk ba dute laugarren lumero bat: bikoitza, duala (greziera zaharrean beze-la), gauza bikoitzei dagokiena. Eta Australia'ko hizkuntza batzuk ba omen zuten hirukoitz bat ere, triala.

Berboaren ekintzaz ere, ez ditugu danok berdin berezten fenomenuak. Euskaldunok, esate baterako, euskeraz ari geranean (eta ez erderaz xoillik, edo... anti-erderaz!), nabarmen berezten ditugu gure berboetan ekintza gertatuak eta gertakizun dauden ekintzak: aipatu du, baiña aipa dezake; crori zan, baiña eror zitekean. Gure ondoko erderetan fenomenu-liferentzia horri ez dagokio hizkuntzazko liferentzia bat. Bestela ikusten ditugu gauzak. Bestela begiratzen eta azaltzen, xuxen hitzegiteko.

Hitz batez, berezketa edo irizkera desberdin horiek dirala bide, hitzek eta sufijoek ez dute hizkuntza guzietan adierazki-eremu berbera hartzen, ez dute semantikazko eskualde edo parte berbera bilten.

Ahaidetasunera bihurtuz, gure «arriba» hitzak, erderazko «hermana» baiño adierazki-eremu (surface sémantique) txikiagoa biltzen du. Ixabel Maite'ren «ahizpa» da, baiña Joseba'ren «arriba»; erderaz, berriz, Ixabel «hermana» da bietan. Anai-arreben saila parte gehiagotan zatitu du euskerak. Sail hortan gure hitzek, horregatik, zabalera txikiagoa betetzen dute erderazko beren antzekoek baiño.

«Arriba» hitzaren eremuko mugak, beraz, ez ditu Logikak ipintzen, sail bereko aldameneko hitzek baizik.

Hizkuntzen legea, barne-lege bat da; ez kanpotikakoa. Jatorrizko banaketa horiek, adierazki-eremu bakoitzean, alkarrekiko eta alkarren kontra aurkitzen dute beren barne-oreka. Banaketa-atal horiek dira «estrukturak».

«Alkarri loturik dauden fenomeno batzuk osatzen dute estruktura bat. Haietako bakoitza besteen funtzio da; eta ezin izan diteke bere hortan dana, ezpada besteekin dituen lotkietan eta lotkiengatik, dituen loturetan eta loturengatik» (Lalande, Dictionnaire Phil.).

Levi Strauss'ek ere berdintsu azaldu du estrukturaren ezagugarri nagusia: «Estruktura batek sistema-izakera du: osatzen duten ataletatik bakar bat edonola aldatzen baldin bada, horren ondorioz estrukturaren gaiñerako atal guziak ere aldatu egiten dira» (Levi Strauss, Anthropologie Structurale, 306). Atal baten aldaketa aski da estruktura osoak barne-oreka gal dezan.

Ez dago, beraz, hitzak bederazka hartzerik edo aztertzerik. «Arriba» hitzaren mugak «ahizpa» hitzak mugatzen ditu: bietatik bat galtzen bada, bestearen adierazki-eremua hedatu egiten da. «Hika» mintzakera «zuka»koak eta «berorika»koak mugatzen dute. Hiruetatik bat galtzen danean, beste biak aldatu egiten dira, zabalera berri bat hartuz; eta tramenduen sail osoa beste oreka batean jarritz.

Hitzak multzotan hartu eta multzotan aztertu behar dira, multzotan sortu eta bizi baitira. Multzoko hitzek multzo horietan finkatzen baitute alkar. Hitz bakarrik ez dago: hitz-talde baizik ez dago.

Hitz-multzo horiek, aurretik ideietan bereziki moldatu-tako ideia-banaketak bataiatu baizik ez dute egiten.

Argibide argitsu batzuk ematen ditu Saussure'k. Azal dezagun bere antzera landareen hitzen saillekoa.

Hasieran (haurrak, esate baterako; edo gure hizkuntza ez dan bat ikasten hasi-berriak geranean) landareen sail osoa, bereztasunik batere gabe aipatzen dugu. Eman dezagun «belar» hitza ikasi dugula lehenik: danari «belar» deritzagu. Momentu hortan «belar» hitz bakar horrek landareen adierazki-eremu osoa betetzen du.

Baiña halako batean «arto» hitza —eman dezagun— ikasten badugu «artoa» ez beste landare guziak «belar» gel-dituko dira. Horra hor bigarren aldia, bigarren hizkuntza-oreka. Beharbada garia ikustean, «arto» esango dugu ere. Gaiñerantzean, arto ezik, beti belar. Halere, agiri denez, «belar» hitzaren adierazki-eremua, ez Logika, baiña «arto» hitzak mugatu eta txikitu du.

Gero, ordea, beste ideia bat bereziko dugu. Zergatik? Artoa eta belarra liferentetzat jo genituen bezela (frutuaren-gatik, edo nahi danarengatik), orain «artoa» eta «garia» bereziko ditugu (lehendabizi, noski, geure adimenduan berezten ditugu, galdalea eta artalea, esate baterako, berez desberdiñak diralako). Belar-mota hori, gure buruan berezi ondoren, «gari» bataiatuko dugu.

Gero, denborakerin belarra beste zerbait billakatzen dala ikusiko dugu; eta «zerbait» hori bataiatzea erabakiko dugu. Horra hor «lasto» hitza, berriz ere lehenagokoak mugatuz. Eta abar. Gure hitzak landareen sail hortan ugalduta ala, hitz bakoitzaren adierazki-eremua txikitu egingo da; gure hizkuntza ere piskana, gero eta zorrotzago eta zehatzago egingo da sail hortan, hitzek gero eta sentidu hertsiago bana hartuz. Zeren-eta, berriz ere, «edozein hitzen adierazkia, hitz hori inguratzen duten ondoko hitzek mugatzen baitute» (Saussure, Cours, 160).

Banakunde hori ez da hitzetan bakarrik gertatzen. Su-fijo-gintzan, morfologiako parte guzietan, tajuketa bereziak aurki ditezke.

Har dezagun agintzeko berboa, esate baterako. Gaurko euskeraz «esan zazu» esaten dugu: esan zazu oraintxe, esan zazu datorren urtean. Agintzeko moduetan, erderazko ikus-

kera kutsatu zaigu (dilo ahora mismo, dilo el año que viene). Baiñan antziñako bizkaieraz ba genuen beste agindu-banaketa jator bat (irakur Añibarro'ren «Esku-Liburua»). Eta hunela mintzo giñan: «esan egizu oraintxe»; baiña «esan eikezu datorren urtean». Gure agintza-moldeak eta erderazkoak ez zuten, berriz ere, adierazki-eremu berbera betetzen edo biltzen.

Adieraz-hotsen estrukturak

«Signifiant» delakoekin, mintzaira-hots edo adieraz-hotsekin ere, gauza bera gertatzen da.

Musikatik hartuko dudan etsenplu batek argitu du ongi, nik uste, fonetikari buruz hizkuntzak egiten dituen aukerak.

Fisikak erakasten digunez, berriz ere frekuentzi-kontua da soiñuen doiñua (kolorectan gertatzen dan arabera). Frekuentzi guziak posible diran ezker (quantum'en eragozpenik ez dago hemen...) nota guziak dira posible. Alegia: nahi bezenbat. Zenbat hartuko «f»-tik «2 f»-rako tartean?

Besteak beste, guk mendebaltarrok hamabi tarteko edo interbalo aukeratu ditugu, eta «Bach'en eskala» hartu dugu oiñarritzat. Oiñarri edo soiñu-estruktura horren arabera asmatua da gure musika guzia.

Baiña beste aukera bat egin zitekean. Asia'n ba dira, gaur ere, eskala horri lotu ez zaizkion musikak; eta, nik aditu dudan apurrez, geurea bezin ederrak diranik ezin ditteke zalantzan jar.

Mintzaira-soiñuei buruz, hortaraxe jokutzen du hizkuntzak. Gizonak ahoaz eman ditzakean hotsak anitz dira; baiña hizkuntzek denen artetik aukera bana egiten dute, eta batzuk baizik ez dituzte erabiltzen. Hizkuntza bakoitzak ba du bere «Bach'en eskala», danak desberdiñak; eta danak Logika'tik at sortuak.

Bokaleen artean, adibidez, hizkuntza bakoitzak bere bokale-mordoa du, bere estruktura. Gaurko euskeraz guk bost bokale berezten ditugu (xuberotarrek sei, jatorkiago nere ustez); eta bost bokale horiek, gaur españeraren eremu berbera hartzen dute. Baiña frantseseraz ba dira beste bokale batzuk (beren, «cu», «u», «i(n)», eta abar). Ingleseraz ere bokaleen «eskala» edo estrukturak desberdiñak dira. Eta

horrelatsu gaiñerako hizkuntzetan. Bokaleen hots-eremua era desberdiñetara banatzen dute hizkuntzek. Bokaleen arteko mugak ez dira logikoak, ez ditu kanpotikako deusek ipintzen: hizkuntza bakoitzean, bokaleen multzoaren barne-oreka batek finkatzen ditu.

Kontsonanteen artean azterketa bera egin ditek: denen artetik batzuk aukeratzen ditu hizkuntza bakoitzak; eta aukeratutako multzoan ba dago beti barne-oreka bat.

Letren balioa multzo horietan mamitzen da: «letren balioa diferentzietan datza» (Saussure, Cours, 165). Hizkuntza bakoitzean ba dira, beraz, alkarrekin eta alkarrekiko mugaturik, fonetika-estrukturak. Eta hauek ez dira logikoak, aukerazkoak baizik.

Hitz batez: hizkuntza batean «alkarreko liferentzia hori baizik ez dago» (166); dana, «alkarren arteko lotkietan edo hartu-emanetan datza» (Cours, 171). Hizkuntza bat, baretik ikusia, estruktura-kosmo bat da.

Herri baten nortasuna hizkuntzan datza

Agiri denez, lehenengo entzunaldian hitzen doiñuek eta hotsek harritzen gaituzte hizkuntza ez-ezagunean (euskaldun-berri guziak garbizale dira hasieran). Baiña arloa zorrozkiago aztertu ezker, egiazko berezitasuna askoz ere sakonago dala agertzen da: berezitasuna bi maillatan gertatzen da batera, bikuna da.

Har dezagun paper-horri zuri bat. Alde batean adierazkiak, ideiak, idatzi behar ditugu; eta beste aldean, hotsak, belarriak entzun ditzakean soiñu-illarak. Hizkuntzak ebaki egin behar du paper-horri hori libroki; eta, ebakitzean, paperaren bi alderdiak ebakiko ditu beti. Saussure'ren hitzez esateko: «Hortaratsu azal ditek hizkuntzagintza: ideia nahasien mailla mugagabea batetik, eta denbora berean, mugatuago edo antolatuago ez dan hots eta aho-soiñu nahasien maillan ere, egiten dan zatiketa-sorta bikun baten antzo». (Saussure, Cours, 156).

Vendryes'ek berdin azaltzen du ideia hau: «(hizkuntzari) zatitu-beharra datxeko; eta zatiketan bi oratzar moldagabetatik ateratzen eta prestatzen ditu hizkuntza-garauak edo bihiak» (Choix, 19).

Hori dala-ta, zerk ezagutarazten du ongienik estruktu-

razko Hizkuntzalaritza? «Segurantzia hunek, oharkabeen ala oharrez finkatzen dan uste hunek bederen: alegia, hizkuntza bat zertu, eta gaiñerako hizkuntzetatik at eta berex ipintzen duena, barne-antolakera berezi hori dala». (Sur la Linguistique Structurale, Martinet). Fonetika hutsa ez zaigu ezer sakonik gaur: hotsak lortzeko ahoaren mogimendu guziak zertan datzaten guztiz azaldurik ere, Saussure'ren ustez hizkuntzaren problema ez litzake zipitzik ere argituko.

Ia hitz horiekintxe Hjemslev'ek: «Inportanteena, gai nagusia, ez dira hotsak, letrak edo adierazkiak, beren arteko loturak eta hartu-emanak baizik: bai elearen atean eta bai gramatikako paradigmetan. Lotkia edo lotura hauek osatzen dute hizkuntzaren sistema; eta barne-sistema hori (beti hizkuntza batetik bestera liferente edo aurkako) hizkuntzaren egiazko ezagugarria da».

Hitzen arteko eta hotsen arteko hartu-eman horiek, hizkuntzaren sistemak dira; edo hizkuntzaren estrukturak: «Denboran zehar hizkuntza bakoitzean alkarren ondoren gertatzen diran hizkerek edo mintzaira-egokerek, ba dute barneko gaintasun edo barne-oreka bat. Oreka aldakor horri estruktura deritzagu. Hizkuntza, beraz, bi oreka-maillak, bi lotkia-saillek osatzen dute: hizkuntzaren sistemen artekoek batetik; eta sistema bakoitzaren barnean, parteen beren artekoek bestetik» (Granai-Gurvitch, *Traité de Sociologie*, 269).

Behin eta berriz esan dut gorago, eta ideiaren alde zenbait iritzi aipatu ere, hizkuntzen estruktura ez dala Logikaren kapitulu bat; ez dala ere berez sortzen, ez dala inbariante bat; hizkuntza batetik bestera bestelakatu egiten dala errotik, aukera-kontu hutsa dala. Eta behin eta berriz ere agertu dut hizkuntzaren sustraia bera, eta ezagugarri nagusia, estruktura hori dala; edo, estruktura-mordo horren plegu berezia.

Eta horixe da giltzarria.

Zeren-eta hizkuntza ez bada logikoa, hizkuntza batek duen barne-estruktura nork eta zergatik eman dio?

Erantzuna erraza da: hizkuntzaren berezitasuna edo jatorrasun hori HERRIAK EMAN DIO LIBROKI. Hizkuntza sorkari logikoa ez dan ezkerre, hizkuntza HERRIAK moldatu du hitzetik hortzera; bere ikuskera xoillaren arabera, HERRIAK sortu eta mamitu du. Herriak hortaratu du hizkuntza.

Herriak nabarmenerazi du fenomenu hau, eta hura ahaztu.

Herri baten sorkari nagusia, herri baten tresna nagusia, hizkuntza da. Zergatik egin du horrelakoa hizkuntza, eta ez bestelakoa? Ez dakigu. Berak ere ez daki. NAZIO OSOAK mendeetan zehar HORRELA NAHI izan duelako, HORRELA AUKERATU duelako, mundua HORTARA SENTITU duela-ko. Nazio-olerkaritzak hori asmatu duelako.

Hizkuntza herriak egin du: bere izakeraren, bere pentsakeraren, bere tekniken, bere jiterik sakonenen arabera jokatuz prestatu du. Hain sakonki jokatuz batzutan, hizkuntza-aukerak oharkabean bezela nagusiturik baitirudite.

Hizkuntza da herri baten sorkaririk funtsezkoena, bere nazio-jakintzaren oiñarria. Hitz batez: HIZKUNTZA DA HERRI BATEN ARIMA.

Huraboldt'ek egia zuen. Gaurko estrukturalistek berriz ere egia zaharra erakatsi digute.

Gaurko hizkuntzalari batzuen iritziak

Idea hau oso inportantea da euskaldun abertzaleontzako. Batez ere «euzkotar-kadak» gure artean ugari izanik...

Eta on izango da, aztun xamarra gerta dedin ni bildur izanagatik ere, gaurko hizkuntzalaririk famatuenen iritzi batzuk aipatzea. Euskaltzale batzuk, nere ustez, batzutan kildurik, eskertu egingo didate aipamen jasa hau.

Hizkuntzalariek diotenez, etnia batentzako hizkuntza antiparren antzekoa da: «Lehenagoko belaunetan zehar bildutako esperienzia osoaren jabe, hizkuntza bakoitzak ikuskera berezi bat ematen dio ondorengo belaunari, kosmoaren ulerkera bat, pentsabide bat, mundua begiratzeko erabilili beharko duen betaurreko bat, prisma bat» (Ulmann).

«Hitz-zaku»aren iritzi funsgabeak eta laburrak, urrun gelditu dira!!!

Cassirer'ek hori uste du ere: «Ez dugu xoilki mundua hizkuntzaren bidez konprenitzen eta pentsatzen. Baiñan are gehiago ere: zeren-eta munduaren ikuskera, eta ikuskera horri datxekon bizimodua bera, hizkuntzak gertatzen baititu»

Whatmaugh'en ustez, mendebaldeko Logika, mendebaldeko hizkuntzetatik atera da; eta ez da, horregatik, Afrika'ko edo Asia'ko Logika berbera.

Wartburg'ek berdintu dio: «Hizkuntzak agerrerazten du pertsonak nola ikusten duen mundua, eta nola daramakien bere barruan». Eta J. Trier'ek, hildo beretik: «Errealidadearen irudi oso bat sortzen du hizkuntza bakoitzak, bere buruarekiko aski eta hertsia. Hizkuntza bakoitzak bere gisara antolatzen du dana... Antolakera hori hizkuntzen sustraia bera dan ezkeroz, hizkuntzaren parte guziak dira antolakera horren ondorio».

Martinet jakintsuak berak ere bortizki dio: «Munduaz dugun ikuskera, hitzegiten dugun hizkuntzak noraiño mugatzen eta baldintzen digun, orain ikasi dugu ongi neurtzen... Pertsonak munduaz mamituko duen bere ideia-gintzan, funtsez, ingurutik hartu ditugun mintzaira-moldeek eta estrukturek prestatzen dute».

Mounin'en erabakia ere berdiña da bere «Les Problèmes Théoriques de la Traduction» liburu irakurgarrian: «Humboldt'en teoriaren arabera hain zuzen, giza-jakintzaren munduari buruz, berbera da hizkuntza guzien jokabidea edo jokera; gauza berberei buruz ari dira danak, bai; baiña sekulan ez alderdi beretik begiraturaz» (51). Eta beste batean: «Batzutan besterik iruditu arren, kanpoko gertakari objetiboak berberak izanik ere, hizkuntzek ez dituzte berdinzki hausnartzen» (48).

Albert Dauzat frantsesak ere, hortixek aurkitu uste du hizkuntzen indarraren kakoa: «Piskanaka, herri bakoitzak egiazko bere multzo-pentsakera bat mamitzen du» (La Philosophie du Langage, 44). Eta aurrerago hunela mintzo da: «Hizkuntza herri baten ideien ispillua da». Baita Perrot ere: «Ziurtzat eman diteke hizkuntza baten barne-moldea, eta hizkuntza hori erabiltzen duten hiztunen multzo-pentsakera, instituzioak, eta teknikazko bere zibilizazioa, alkarri loturik daudela» (Perrot, La Linguistique, 127). Iritzi berbera ematen du Levi Strauss'ek ere Hizkuntza eta Kultura aldeztatzean, hura hunen sostengua dala esatean (ikus «Antropologie Structurale, 78).

Europarron pensakera uste dugun bezin «logikoa» eta nahi-ta-ezkoa dalako segurantzia zalantzan jarria dago gaurko egunetan. Antziñako segurtasuna, segurkeria bihurtu da! Benveniste hizkuntzalari haundiak aspaldisko huntan frogatu uste du ezen, Aristoteles'en logika-kategoriak, filoso-

fiazko hitzez jantzirik, greziararen hizkuntza-kategoriak berak baizik ez dirala!!

Horrelako iritzia du beste haundienetako batek (ikus Alf Sommerfelt'en *La Langue et la Société*, 9).

Hauetan finkaturik, hau erabaki du Benveniste'k: «gure ideietako kosmoa, gure mintzairak moldatu du aurrenik... adimenduaren kategoriak eta pentsamenduaren legeak ez dira, hein batean bederen, hizkuntzak berak dituen barne-pleguen eta kategorien antolamenduaren eta banaketaren irudia baizik».

Benveniste'ren eta Sommerfelt'en iritzi horiei eusten die Mauthner'ek ere: «Aristoteles dakotarra izan balitz (dakotarra = indiar arraza batekoa) bere Logika bestelakoa izango zitzakean eskierki».

Ez genuen hunenbeste espero euskaltzaleok...

Guziek diote berdin. Marcel Cohen marxistaren ustez: «herri bakoitzak Logikatzat dauka bere hizkuntzaren joskera edo sintaxiak idarokitzen dion logika». Eta Masson Oursel'ek: «Gizarte bakoitzak bidezkoitzak hartzen du bere mintzairaren joskerak bururazten dion azterpidea».

Batzuen ustez, halere, ideia hauek ez dira alemanen joera zahar bat baizik. Humboldt, Wundt, Vossler, aipatzen dituzte; eta zahartzat ematen dituzte ideia horiek. Horregatik ez ditut aspaldiko horien iritzia aipatzen; nahiz euskaltzale naizenez gogotik egingo banu ere, Gorago aipatu ditudanak oro GAURKO HIZKUNTZALARIEN IRITZIAK DIRA. Eman dituztenak buruzagi dira Hizkuntzalaritzako Biltzar Nagusietan. Europa'ko hizkuntzalariak hortik ari dira.

Baiña amerikatarak dira puntu huntaz urrutien joan diranak. Whorf eta Sapir buru.

Lee Whorf'ek istudio sakonak egin ditu Ameriketako hizkuntza zaharrei buruz. Eta «hopi»ei (= indiar arraza bat) buruz hau dio: «Hopi-ikusleak beste era batera ikusten ditu gertakariak. Ez, dudarik gabe, ingleseraz mintzo dan batek bezela... Hizkuntza bat, munduko ikuspenaren mintz etengabea egiten dugun ebakikuntza bat da... Aldez aurretik geure etxe-hizkuntzek markatutako bideetan barrena antolatzen dugu naturaleza». Eta beste batean: «Hizkuntza bakoitza estrukturaz osatutako sistema zabal bat da, beti ere hizkuntza bakoitzcan berezi. Hizkuntza bakoitzak kultu-

raren arabera eratzen ditu gizonaren moldeak eta kategoriak. Alabaiña molde eta kategoria horien bidez mintzo gera; mintzatu ez-ezik, naturaleza aztertu ere hizkuntzaren hausnarpide horietxen bidez egiten dugu, fenomenu edo lotura hau edo hura erreparatuz ala alde batera utziz. Gure pentsakera osoa, hortaz, hizkuntzaren arrago horietan urtzen da, eta gero hormatzen edo gogortzen; eta munduko gure eza-guera horietxek oiñarri diralarik eraikitzen dugu».

Hizkuntzalaritzan hori «Sapir-Whorf'en Baldinkizuna»-ren izenaz ezagutzen da. Hunela azal diteke: fisikazko egia agiri bakar batetik, ez dute beti ikusle guziek eta ezinbestean kosmoaren eta fenomenu horren beraren irudi berbera eta bat ateratzen. Hortarako baldintza bat behar dute bete ikusleek: ikusle horien hizkuntzen antolamenduek edo ESTRUKTUREK antzekoak izan behar dute. Bestela, hizkuntzazko estrukturak liferenteak baldin badira bi ikusleengan, NAHI TA NAHIEZ LIFERENTZIAK GERTATZEN DIRA FENOMENUAK AZTERTZEAN. Kasu hauetan, koordenadak trukatzeko bezela (Whorf'en eta Einstein'en Baldinkizunek izen antzekoak dituzte!), hizkuntza batetik bestera igarotzeko formulak eta teknikak finkatu behar dira.

Whorf'ek berak ematen du azalpen zehatz bat bere «Les Sciences Naturelles et la linguistique» liburuan: «Horrela sortu da nik» «Hizkuntza-Errelatibidadearen Baldinkizuna» deitu dudana; alegia, gramatika liferenteak erabiltzen dituzten gizonak, arras ikuspen liferentetara iristen dira, eta guztiz bestetara ulertzen dituzte kanpoko gertakari edo aztergaiak. Ikusle diran aldetik ez baitira berdiñak edo alderagarriak; eta hori dala bide, munduari buruzko teoria desberdiñetara iristen dira». Whorf'en horrialde osoak aipa nitzazke, eta beti tankera hortan mintzo da.

«Ropaje del pensamiento». pentsamenduaren soiñeko, besterik ez zitzaion hizkuntza, berriki, «Tierra Vasca»ko «Euzkozale» horietako bati... Hortan dira gure «intelektualak»!!!

Aski bedi esandakoa.

Barnetik aztertu dugu hizkuntzaren funtsa.

Ageri denez, herri baten izakera eta bere hizkuntza alkarri josirik. loturik eta iratxekirik daude errotik.

Ageri denez, beraz, eta hogeigarren mendeko Zientziak

erakasten digunez, hotz-hotzean esan diteke, eta esan egin behar da, euskera hilko balitz, Euskal Herriak bere izakera berezia, bere jitea, bere jatortasuna, bere nortasuna, bere euskaltasuna, **BERE NAZIO-ARIMA OSOA** hitz batez, galduko lukeala.

Zerk egin du Euskal Herria? Zerk eman dio bere izakera berezia? Zerk egiten du gure naziotasuna? Zerk bizi gaitu? Zerk berezten gaitu? Zerk ematen digu gure euskal arima? **EUSKERAK EZ BESTEK.**

(1966)

2

HIZKUNTZA ETA HERRI-KIDETASUNA

Lehenengo artikuluan, barnetik aztertu dugu hizkuntza-
ren muiña: alegia, ez hitzunaren iritzi subjeliboen arabera,
hitzunari hizkuntzak erasten dion ikuskera objektibo eta be-
reziaren arabera baizik. Eta ondorio hau agertu da: ez poli-
tikan, noski; baiña bai munduaren ikuskera dan aldetik, hiz-
kuntzak moldatzen duela funtsean herrien pentsakera. «Hiz-
kuntzaren estruktura batetik, eta mintzatzaileen pentsakera,
giza-instituzioak eta zibilizazioa bestetik, sustraian alkarri
lotuak dirala, ziurtzat eman diteke» (Perrot, La Linguisti-
que, 127).

Horiek horrela hau esan dugu: euskerak hortaratu duela
Euskal Herriaren oiñarrizko izakera edo nazio-jite berezia.

Baiña hau, asko izanagatik ere, ez da dana.

Ondoko lerroetan agertuko dan bezela, hizkuntzak ema-
ten baitu ere herritasun-giroa, herritar-kontzientzia, ahaideta-
sun-ustea, herrikide-tasuna, edo aberkide-anaitasunik irau-
korrena. Vendryes'ek ongi dio: «Sozial-multzoan, hau edo-
zein dalarik eta bere hedadura nolana hiko delarik ere,
lehenengo maillako eragiña du hizkuntzak. Hizkuntza da
multzoko lagunak alkarganatzen dituen lotkiarik zailena:

bera da batera giza-taldearen bai irudi eta bai habe nagusi» (Le Langage, 282).

«La communauté de langage n'a pas seulement une utilité immédiate dans les rapports continus entre gens vivant ensemble: elle s'accompagne d'un sentiment spécial de co-appartenance», dio Cohen'ek. Hizkuntza berbera erabiltzeari, «herrikide-tasun sentimendu berezi bat datxeko» (Pour une Sociologie du Langage, 108).

Ez datxeko, noski, abertzaletasuna, abertzale-izana; baiña bai naziotasun objektiboa, hau ukatu eziña egiñez. Hizkuntzari ez datxeko nahia, baiña bai izana. Erdaldun «euzko» edo «euzkotar» horietako batek hau esan dezake eta pentsa zoritxarrez: «yo soy español, y no vasco». Baiña euskaldun batek, traidorerik zitalena izanik ere, nahi dan bezela pentsatuagatik ere, hau esan beharko du, besterik eziñean: «Ni euskalduna naiz; baiña euskaldun-español». Abertzale danak Euskal Herriaren askatasuna nahi du, eta horregatik, nahi duelako alegia, Euskadi'ko erresuma ekartzeko borrokatzen. Abertzaletasuna nahiaren maillan gertatzen da, eta hizkuntzak ez du nahia gidatzen. Euskalduntasuna, aldiz, naziotasuna, izanaren maillan dago, nahimenetik at; izararen beraren zimendu baita.

Azaldutako eran eta neurrian, beraz, hizkuntzak ematen du pentsakera-berezitasun hori. Baiñan era berean ere hizkuntzak ematen du aberkide-sentikera: nik «herrikide-tasun» deitu dudana. Arinkeriak «ropaje» deritzana, burua eta bihoztza da batera...

Herrikidetasuna ez da gogaidetasuna.

«Adiskide, gogaide» dio euskal atsotitzak. Baiña herriki-deen artean eta gogaideen artean gertatzen diran hartu-emanak, ez dira mailla berekoak, ez dira mota berekoak ere. «Euzkotar» ezkerkoi batzuk, esate baterako. ez dute ulertzen euskaldun kapitalista batek eta euskaldun langille batek alkarrekin neholako loturarik edo kidetasunik izan dezatekenik, batak bestea zapaltzeaz kanpo. Ba dute, ordea, bat, izanaren maillakoa: herrikidetasuna. Ez gaiñerakoak baiño hertsiago, ez: hizkuntzaren batasunak ez dakar nazioaren batasuna, jakiña: nazioa dakar, baiñan ez barneko giza-oreka eta legezko zuzentasuna. Hizkuntzaren batasun horrek, hala-

rik ere, bere garrantzia du; eta aberriaren kinka larrietan, herrikidetasun hau beste kidetasun guzietan nagusi dakieke. Hau sasi-marxista batzuk onartu nahi ez dutelako, ez dituzte ulertzen, eta ez ulertuko, ez Kataluña'ko, ez Bretaña'ko, ez Euskal Herri'ko, eta ez nehongo arazoak askatasunaren nahiak eragiñak diranean. Nabarmenenak berak ere ez: Algeria'koa bereziki! Hori itsutasuna! Zeren-eta klaseak egiazkoak baldin badira ere (eta nork ukatzen!) ethniak eta nazioak egiazkoak dira; eta klaseak baiño indartsuago agertzen ere nazioaren etsaien kontra. Hauxe da kaka, esate baterako, egungo Belgika'ko gertakari askotan; baiña ezkerkoiek ez dute ulertzen, eta gure arteko «sozialista» (?) batzuk ere ez, espagnolak baitira aurretik.

Herrikideen artean ba dira etsaigoak eta gorrotoak. Ba dira gatazkak eta gerla izugarriak. Ba dago klaseen arteko gudu. Batzutan ere batasuna sor diteke atzerritar zanzaillearen kontra. Herrikideen artean, hitz batez, kondaira geriatzen da.

Herritar ez diranen artean, aldiz, ez da kondaira obratzen, hartu-emanik ez dagoelako. Herrikide ez diranen artean ez dago urruntasuna eta hotza baizik; ez dago deusik alkarrekiko, ez baitira mailla berean ari. Hizkuntza-kideak mundu-kide dira, mailla-kide, ifernu-kide nahi bada. Kondaira alkarrekin egiteko, gorrotatzeko eta maitatzeko, mailla-kide izan behar da aurrenik. Abstrakzioak bai: ikus dezake kidetasunik alkarri hitzegin ezin diotenen artean; baiña berek ez, alkar ulertzen ez dutenek ez: ez dute kidetasunik eta kondaira-kidetasunik ezta oiñarrietan ere. Oharkabean ere bi kondaira-liburu idazten dituzte; paraleloak beharbada, eta funtsean berdiñak; baiña egiazki bi. Indalecio Prieto'k xuxen zion: «Yo siento a Bilbao, pero no a Lequeitio».

Hizkuntzak tajutzen baditu, beraz, eta bere gisara hautatzen, naturalezari buruzko ideiak, eta beren araberrako hitzak eta joskerak sortzen; hizkuntzak berak ere aberkideen arteko maitasuna, aberkidetasuna eta anai-kontzientzia sustatzen ditu, eta hauek bortizki. Baita klaseen arteko kidetasunak berak baiño bortizkiago batzutan, urte hauetako kondairak behin eta berriz gogarazten digun bezela. Batak bestea ezin mintzatzera kondenatzen duenean, eta arrotzen zerbitzutan ixillik jartzera, ezintasunari albaramendua eta

gerla darraizkio.

Puntu hau lehenengo «Branka»n azaldu nuena bezin zailla ez dalakoan, ez du balio hemen han hainbat frogakari aipatzeak. Ekar ditzadan halere fur. sezko zio batzuk, ideiak argitu eta finkatzeko.

Berriki aipatu du «Zeruko Argia»k (ikus 128 gn. zenbakia) Santiago-egunean Tafalla'n igaz gertatu zana: herriko festa guzia euskaldun tankerakoa izan omen zan. Harrigarri eta pozgarri izan zitzaigun abertzaleoi, nola ez!; eta donostiar kasetak pozarren barreiatu zuen gertakaria. Zoritxarrez harrigarri iruditzen baita gaur hori Euskal Herri'ko «euzkotar»tutako lekuetan...

Halere Nafarroa'ko Fernando III (españolen illaran zazpigarrena) gure herrira etorri zan batean, ongi-etorri egin zioten tafallarrek (zoritxarrez...); eta hau idatzi zioten pankartetan: «Bienvenido a esta tierra vasca»; hau da: «Ongi-etorri euskaldun lurralde huntarat». Baiña pankarta haiek ez ziran batere harrigarri gertatu garai hartan, eta hura idazteak ez zuen nahi bat erakutsi (igaz bezela), izana baizik, Tafalla'ko eskualdea orduan euskalduna baitzan. Noiz hori? Ez erromatarren aroan, ez: orain dala ehun eta berrogei urte, karlista-gerrate aurreko garaiean. Tafallarrek, gaurko leitzarrek edo hazpandarrek bezelaxe, euskalduntzat zeukaten orduan bere burua. Nola ez! Geroztik gaillendu da española alderdi hortan; eta geroztik ere, español hizkuntzarekin batera, español-izana, españoltasuna, eta illaran gero español izan nahia eta euskaldunekiko ukoa. Beste hitz batez, hizkuntzarekin batera, herrikidetasun berri bat nagusitu da, naziotasun berri bat, eta azkenean abertzaletasun berri bat. Zerk ekarria? Ez gaitezen itsu izan: hizkuntzaren trukeak ekarria!!! Edo, osokiago azaltzeko, hizkuntza trukaraztera eragin duten kariek.

Horrelako aldaketak ez dira Euskal Herrian bakarrik gertatzen: Euskal Herrian ez da «ulertu-eziñik» asko gertatzen. Azter dezagun, ikas dezagun; eta utz ditzagun ametsak.

Orain bizi naizen Brussel huntanxe, esate baterako, danak dira flandretarrak (edo flamenkoak) geografi-jatorriz, Brussel frantses-hizkuntzaren uharte bat baita, inguru guzian flamenkerak inguraturik; eta brusseldar gehienak fla-

menkoak dira familiaz ere, gehienen etxeetan flamenkera entzun baitute. Ez da ahaztu behar mende hunen hasiera arte, flamenkera zala Brussel'go hizkera nagusia, nahiz bulegoetakoa eta administraziokoa ez izan. Baiñan azkeneko ehun urte hauetan ahuldu egin da hirian; eta gutxitxo entzuten da kaletarren ahotan, inguruko hauzoetan ezik. Kondaira irakurri besterik ez da behar: administrazioaren alde-tik, Exelne, Sint Gillis eta Schaerbeek'eko udaletxeak 1910-ean frantsestu ziren; Ukkel eta Watermael, 1920-ean; Auderghem, Sint Pieters Woluwe, eta Sint Lambert Woluwe 1930-ean, eta abar. Flandretarrek ez dute hau ahaztu, baiña brusseldarrek bai. Gaur, Belgika'ko lege berriek behartuta, Brussel'go administrazio osoa bi hizkuntzetan egiten da: baiña brusseldarrak, zaharrak eta hauzo txiroetakoak kendurik (Vorst, Anderlecht, Haute deritzan karrikaren hauzoa) frantsesez ari dira gero eta gehiago. Ez da ahaztu behar gaurko mintzaira-bikoiztasun hau, ehun urtetako frantses-batasunari darraikiola (1830-tik 1921 eta 1932-arte). Hori dala-ta Brussel'go (eta Flandre'ko) burgesia osoa frantsesez mintzo izan da oraintsu arte. Antwerpe, Gent eta Leuven'go burgesia orain hasi da flamenkerara itzultzen.

Èta hunat egoera. Gaurko brusseldarrak, flandretarren etsai amorratuak dira gehienetan. Brussel'en flamenkeraren eta «flamingant»-en (flamenko abertzale dirala esan diteke gutxi gora behera) kontrako herra bizi eta kupidagabe bat dago; eta ez mespretxua edo gutxiespen hotza soillik. Geure Euskal Herriko zenbait eskualdetan gertatu dana (zeriarako izenez aipa?) hemen ere gertatzen: «Volksunie»-ren eta nolana-hiko flamenko abertzaleen etsairik deliberatuenak eta sutuenak gaurkoz Brussel'en ezagutu ditut.

Fenomeno bera gertatu da Finlandia'n ere, finlandera suezierari nagusitzen hasi zitzaionenan.

Hor lege bat ageri da: HIZKUNTZA TRUKATU ONDOREN, HERRIKIDETASUNA ERE TRUKATU EGITEN DA. ANTZINAKO ABERKIDETASUNA, ETA ABERTZALETASUNA SEGIDAN, ITZALDU EGITEN DIRA; ETA BEREN ORDEZ HIZKUNTZA BERRIARI DAGOKION ABERKIDETASUNA PIZTUTZEN DA, ETA SEGIDAN ABERTZALETASUN BERRIA ERE.

Hizkuntza galdu duen eskualdea, bere jatorrizko edo

ethniazko enborretik ebakitzen eta berezten da arras; eta bere sorkurazko arrotasuna «garbitu» nahirik, bere sorteriarekiko jatorrizko maitasunari, herra eta gorrotoa dar-raizkio.

Bestaldetik, beretu eta «irentsi» duen ethnial, noski, hastapenetan batez ere erdi-herrikidetzat, herengusutzat, edo sasi-naziokidetzat begiratzen du «kolonizatzen» hasi berri dan eskualdetarra; eta hortatik datorkio huni, borta ez baiña anaia propio agertu nahia, anaia bixki hobe, bere abertzaletasun eta maitasun berri horiek frogatzeko eta nabarmenerazteko behar gorria. Bai Alsazia'n, bai Bretaña'n, eta bai Nafarroa'n. Hortara, hauzoko herrikide berrien izpirituetatik goganbeharrak erauzi nahiz, behin eta betirako jatorrizko «tatxa» zikin hori xahutu nahiz, Aberri berriarekiko «chauvinismoa» ere erakutsi behar izaten da. Euskal Herrian eta Irlanda'n, Bretaña'n eta Flandre'n, abertzalerik sutsuenek izen arrotzak dituzte. Abertzalerik gogorrenak bilbotarrak eta Enkartaziotakoak ditugu guk; eta espanyakoirik zitalenak berriz Azkoitia'n eta Durango'n. Ibarnegarai eta Maeztu, Curutchet eta Lizarza, landare bereko lore dira.

Abertzaletasun-aldakuntza horiek ez dira legunki gertatzen. Jatorrizko herritartasuna askotan iskilluak eskuan ukatzen eta madarikatzen baitute hizkuntzaz gabetuek. Anai-ohien arteko gudua noiz nahi has diteke: herrikidetasuna ebakia, ethnialaren hobirako bidea hartua da.

Horrela agertzen da etendura bat herrien eta eskualdeen kondairetan hizkuntza itzali ezker. Herrikide izandakoak, aberkide-ohiak, ez dira pentsakeraz herrikide aurrerakoan. Baiñan are gehiago: oharkabean ez dute herrikide ez agertu eta ez izan nahi! Aldakuntza buruan finkatzen da, azaldu eziñezko plegu hori bestelakatu egiten da; eta bihotzean gogortzen da ezin ikusia. Hortik aurrera, istoriak sakondu baizik ez du egingo hizkuntzaren trukeak sortutako arroilla.

Soziologiariek ez dute besterik esaten: «Herri baten ondasunik sakonena eta jatorrena, bere izakeraren agerpenik biziena, bere multzo-kulturaren lokarririk sendoena, hizkuntza da», dio Bluntshli'k. Eta Albert Dauzat'ek: «Hizkuntzaren batasunak giza-taldearen artean kidetasunak eta begikotasunak sortzen ditu eta ukatu eziña da. Gauza bera erresumen beren artean ere».

Hizkuntzei buruzko fenomenu hauetan, ekonomiazko edo klasezko gorabeherarik erroetan ote dagoen azter ditek; aztertu egin behar da, hobe. Hitz bakan batzuk gaurkoz. Horrelakoak egokitu ohi dira, eta besteei erantsi. Edozein eskualdetan hizkuntza-aldaketa bat gertatzen danean, ba dago horrelakorik: nagusitzen dan hizkuntza, nagusi dan klasearen hizkuntza baita (nagusitzen diran ideiak, nagusi dan klasearen ideiak diran bezelaxe). Hortik datorkio gaintasuna (eta ez subjektiboa bakarrik...); erresuma, nagusien zerbitzutan baitago, eta beren hizkuntzaren zerbitzutan ere bai hortaz. Horrela ethnia-liferentziari, klaseena erasten zaio; ethnia saltzen baitute bertako agintariak. Hizkuntza berriaren gaintasuna, beraz, alegiazkoa ez-baiña guztiz egiazkoa da: zapaldutako ethniak «goitik» erbestetzen dira, eta «beheitik» lehengoratzen, «goitik» saltzen dira, eta «beheitik» birreros-ten; atzerriaren zerbitzutan jarriz hondatzen, eta bertako herriaren zerbitzutan jarriz salbatzen. Aurrenak herbestetzen, Euskal Herrian eta Bretaña'n, Viet Nam'en eta Algeria'n, beti izan dira puntuzkoak, jauntxoak, kapitalistak, eta, hitz batez, bere herriaren mixe-iaz profitatu dutenak. Nork mespretxatzen zituen kitxuatarrak Peru'n: kitxueraz mintzo ziranek, ala «obraje» lotsagarritan inditarrak nil arte nekarazten zituzten espāñolek eta «perutar» berriek? Sentidu hortan ba dago, beraz, gorago aipatutako herra hortan, klaseen arteko gorrotoaren zantzu bat, bestearen gehigarri bat.

Baiña jatorrizko ethniaren kontrako gaitzerizko edo aiherkunde hortan, ba dago nik uste, eta gailen, eta sakonagorik, alkarri ezin ulertzearen ondorioa: illunago dalako hain zuzen sakonago.

Herrien bestelakatze eta apurtze hau gauza ezaguna da aspaldidanik; hizkuntzen desberdintasunak bereizi egiten baititu jendeak; eta alderantziz, berdintasunak alkartzen. Ukatu eziña izan da hau beti ezkeroztik. Babel-dorrearen kondairaren muiña hortan datza: hizkuntzaren batasuna Jaungoikoak gizonei kendu zienean, gizadiak bere indarra bera galdu zuen!

Ideia hildo hortan berean, bi herrik bi mintzaira liferente hitzegiten dituztenean, ez dago beren artean egiazko batasunik; ez baitago funtsezko kideetasunik, ez pentsakeraz eta

ez alkarrekiko sentikeraz. Ez dago; eta ezin diteke ez izan eta ez sor.

Ondoko artikuluan agian agertuko dugu hizkuntzak noiz eta nola galtzen edo trukutzen diran. Hau besterik da. Ikus dezagun gaurkoz, soziologiari gagozkiola, hizkuntza batek zergatik duen batasun-indar hori; edo, alderantziz, zergatik duen hizkuntzaren «bestetasunak» berezteko indar ikaragarri eskerga hori.

Har dezagun azterpidetzat gaurko gizon bat. Zer irakurtzen du? Zein irrati entzuten? Zein telebista ikusten? Zein kaseta erosten? Beste alde batetik, berriz, norekin mintzatzuten? Nola mintzo da lantegian? Norekin ezkontzen? Zein herritan igarotzen bakantzak, eta zein dendatan erosten? Erantzunak errazak dira, eta errazak dira baita aukeratu beharra egokitzen zaion herrietan: bere hizkuntzazko irratia entzuten ditu, bere hizkuntzazko liburuak irakurtzen eta telebistak ikusten, bere hizkuntzazko kasetak erosten. Waloniarrek maiz aski Frintzia'ko telebista jarraitzen dute, sekulan ez Belgika'ko flamenkerazkoa. Eta alderantziz flamenдарrek Holanda'ri buruz. Frantz Fanon'en hitzez esateko: «Hizkuntza batez baliatzea, kultura oso bat onartzea, erabiltzea eta nortzea da». Erantzunari segida emateko: gizon harek bere hizkuntzaz mintzo diran lagunak ditu; eta emazte-zako bere hizkuntzaz mintzo dan emakume bat aukeratzuten. Eroste-ko, mintza ditekean dendetan sartzen da, eta lana ez da aurkitzen, eta ezin gainera, gor-mutu izan beharko lukean lantegietan. Bere egiazko mundua, beraz, bere hizkuntzak mugatzen dio goitik behera. Bere joka-lekua ez da bere erresuma bera, bere hizkuntzazko eskualdea baizik.

Nola neur horren guziaren eragiña? Nondik nora ez esango horrek guziak egiten duela, soziologiaren aldetik, berriz ere gure plegua, gure moldea, gure izakera? Hizkuntzaren inguruan, psikologiaz eta soziologiaz, egiazko uharte bat eraikitzen da: barrengeontzako zabal, ezagun eta bero; kanpokoentzako hertsu, atsekabe eta hotz. Beste hitz batez esateko: hizkuntzak mugaturik, egiazko erresuma berezi bat sortzen da. Eta, hizkuntzarekiko beti, ba dira itsaso zabal-etik etortzen diran lehortarrak, ba dira Aberri bat eta Atzerri bat, politikazko muga guzien gainetik. Jon San Martin'ek egoki zion «Euzko Gogoa» hartan: «Nere Aberria cus-

kera da».

Leo Ferré ez da Guadalajara'n behiñere herrikoi izango, baiña Jorge Negrete bai.

Usu gertatzen dira Suiza'tarren eta Alemania'tarren arteko ezkontzak, erresuma berekoak ez izanik ere; alta, oso gutxitan Zürich'tarren eta Génève'tarren artean.

«Franfurter Allgemeine» kasetara oso ezaguna omen da Strassbourg'en; baiñan ez Lyon'en. Zergatik?

Ahuñamendi'ko «mugak» aspaldidanik zatitzen gaitu euskaldunok. Halere, harrigarria da gaur bertan zein herrikoi diran bertsolariak mugaz bi alderdietan; edo-ta zenbat ezkontza gertatzen dan orain berean ere Iparraldeko eta Hegoaldeko baserriarren artean. Eta zein gutxi, ordea, arabar, bi eskualdeetako kaletar erdaldunen artean... Ezin estadistikarik aipa, zoritxarrez.

Hizkuntzaren muga, edozein aldetatik begiraturik, egiazko muga bat da. Hizkuntzaren mugarik ez dagoenean, berriz, baita politikazko eta bortxaz onarrarazitako sasi-mugak, ez dira, mendeen buruan ezpada, muga bihurtzen.

Lehenengo begiradatik hizkuntzak eta erresumak maila bereko soziologiazko indarrak di-udite.

Gizona jaiotzen danean, legezko mundu batean edo beste jaiotzen da. Ez zaigu nehoi galdetu zein gobernu-mota nahi genuen, edo zein familia-molde, ezta zein mintzaira ere. Horiak oro «hor» ziran gu jaio aurretik. Ba zegoen gure herrian antolamendu bat, edo araudi-sorta bat hobeki. Alde batetik hizkuntza, horiek bezela, ez dago pertsonaren eskuetan, ez da bere meneko: gizonarengandik at billakatzen da.

Baiña gizarte-ekintza dan aldetik, hizkuntza instituzio hutsa da (ikus, esate baterako, Pour une Sociologie du Langage, Cohen, 81). Ongi dio bukatzeko: «gaurko erresumetan nazio-hizkuntzaren nahi-ta-ezko irakaspena gertatzen danean, zer esan behar da? Instituzioen menpean dagoela hizkuntza, hertsiki loturik? Ez ahal da xuxenago beste iritzi hau: bere jokabidearengatik, instituzio horien atal bat dala gaur hizkuntza bera? Irizkera horixe eman dugu ontzat liburu huntan». (Cohen. 82). Izan hala da; eta horregatik erresumako hizkuntza zalantzan jartzea, erreboluzioa predikatzea bezelaxe da gaurko munduan.

Ideia hari berari ekiten dio aurrerago Cohen'ek: «hizkuntza... gobernuaren lanabes bat da gaurko erresumetan, gaiñerako instituzioei atxikia» (314); eta beste batean: «egungo erresumetan, gero eta gehiago arau-gai edo legegarrri billakatu da hizkuntza, instituzioetarik bat bihurtu arte» (362).

Ideia berbera azaltzen du Martinet'ek: «Gauzak horrela, giza-instituzioen artean hizkuntza ezartzea bururatzen da; eta azterketa horrek ba ditu hobariak ugari» (Elém. de Ling., 12). Eta Saussure'k: «Hizkuntza instituzio sozial bat da» (Cours, 129).

«La langue est une institution sociale», diote behin eta berriz soziologo guziek; familia edo kultura bezin funtsezkoa. «Hizkuntza kategoria sozial bat da», zion Tarde'k, «kategoria» hitza Kant'en sentiduan hartuz. Eta Blondel'ek: «hizkuntzarekin batera, hitzunek osatzen duten multzoa bera sartzen da gugana, eta gugan egoten eta itsasten da».

Nere aberkide batzuk, beti pikuan egoki, ez bide dute hau ulertu nahi. Eskuindar batzuen ustez, hizkuntza folklo-rekeriaren aurpegi bat besterik ez da: esandakoak azaldu ondoren, ez du balio berriz ekiteak. Sasi-marxista ezkerkoi batzuen ustez, berriz, hizkuntza ez da funtsezkorik ezer; edo okerrago oraindio, «superrestruktura»ren parte bat baizik ez da, hots, kapitalismoarekin **erraztatu** beharrekoa!... Marcel Cohen marxista izanik, 165-garren horrialdea eta urrengoak irakurtzeko erregutzen diet (Pour une Sociologie du Langage). Stalin'ek berak kritika ezin gogorrago bat egin zuen Marx'en kontra, hunek, beste gauza batzuen artean, hizkuntza bat «superrestruktura» dala esaten zuelako.

Hizkuntza ez da, soziologiari gagozkiola, ez folklore eta ez superrestruktura. Hizkuntza bat herri oso baten sorkaria eta lokarria da. Horregatik da, eragiñaren aldetik, erresumaren parekoa.

Are gehiago esango nuke nik.

Zerga-biltze antolatzailez gain, hizkuntza dala ERRESUMAREN INSTITUZIO NAGUSIA eta sustraiezkoa. Eta hau betidanik, baiña erresumaren aginpidea gotortu ala, gero eta finkatuago eta nabarmenago gaur agertzen dala. Eman dezagun hizkuntzaren batasun-indarraren balioaren ohartzapena, berria dala. Baiña, halere, konturatu gabe, edo erdizka

baizik ez konturaturik ere, erresumak betidanik izan du hizkuntza-politika bat.

Erresumaren oiñarria hizkuntzaren batasuna da. Erresuma berririk gehienak, horregatik, eta URSS'ekoak bereziki, hizkuntzaren arabera mugatutako erresuma-federazioak dira. Ez baita beste biderik erresuma eta hizkuntza alkarren habe eta sostengu, eta denbora berean herriaren zerbitzuko, egon ditezten.

Errejonalistek eta nortefñotzarrek ez dute huntaz ezer entzun nahi: ezkondu eziñak ezkontarazi nahi dituzte; eta hizkuntzaren politika hori (erresuma bati hizkuntza bakar bat) Fraitzia'ren lepora botatzen dute, eta ez dute guretzako nahi, gu «euskeromano» deituz!

Egunkariak eta kondairako liburuak irakurri ezkeror, ordea, ez dago horrelakorik: politikazko askatasunik ez dagoenean, ethniek erresuma berezirik ez dutenean, ez dago hizkuntzazko eta kulturazko ez askatasunik eta ez berezitasunik. Bai erromatarrek beren inperio zaharrean, bai britaniarrek Irlanda'n eta Guernesey'en, bai Canada'tarrek Quebec'en, bai españolek Peru'n eta errusitarrek Karelia'n, beti eta nun-nahi berdin: denek eraman dute aurrera bere hizkuntzaren batasuna. Eta hori hala izan da; eta aurrerakoan nabarmenkiago gertatuko da, erresuma modernoan instituzio nagusia sekulan baiño garbikiago hizkuntzaren batasuna baita.

Tamala da bretoin abertzale baten iritzi argitsua hemen ezin osorik aipatzea (ikus «Ar Vro», 1964, 27 gn. zenbakia). Hunela dio Gi Etienne Abanna gure gogaideak: «Frantzia'ren batasunaren zerbitzutan, itzali egin behar da bretoiñera», esan zuen De Monzie frantses ministroak. «Fraitzia'ren beharra eta premia ez da, hain zuzen, bretoiñera bizi dedilla, itzal eta hil dedilla baizik». Esakuntza hauek garai hartako errejonalistak asaldatu egin zituzten eta sutan jarri. Asaldu horiek, egiazko izan ziran neurrian hain zuzen... zozokeriaren seme ziran» (20 gn. horrialdea).

Gi Etienne'ren iritzia guztiz zuzena iruditzen zait.

Eta hunela ekiten: «Erresumek esaten dutenari jaramonik ez; baiña zer egiten duten eta nola jokatzeko duten begiratzen badugu, bi gauza erreparatuko ditugu:

1) Beren funtsezko agirietan, oso bakanka aipatzen

dutela hizkuntzaren arazoa.

2) Beren egiazko jokabideetan eta politikan, ordea, zinki arduratzen dirala hizkuntzei buruzko arazoaz».

Hitzez hitz izenpetuko genuke. Xuxen ikusia benetan.

Eta huntara biltzen du bere peñtsamentua: «erresumaren eta hizkuntzaren sustraia bat eta berbera dira».

Horixe da egia: horra hor kakoa, irakurle hori. Ohartuko ahal gera behin eta betirako! Hizkuntza ez baita pillota, eta ez txatxukeria bat: erresumaren gune bera eta instituzio nagusia hizkuntza baita.

Gehienetan, ordea, eta geure herrian bereziki, erresuma eta gure hizkuntza alkarren euskarri ez-baiñan alkarren ukatzaille izan dira. Eta hau foruekin eta forurik gabe: aspaldiko Nafarra askatuan, joan dan mendeko Gipuzkoa'n eta 1966'-eko Zuberoa'n. Beti bat.

Oraintsu arte, hizkuntzaren mugak iraunkorrago eta gotorrago gertatu ahal izan dira maiz erresumakoak berak baiño. Hau baita egia garbi ikusi ez duten hizkuntzalariek somatu egin dute: «erresumako mugek, hizkuntzen artekoak finkatzen lagundu dute», dio Dauzat'ek; baiña hauei nagusitzeko «mendeetan zehar lortu dute, ez berehalatik» (L'Europe Linguistique, 93).

Gauza ezaguna da ere dialektuen kondaira aztertzeke esate baterako (Falc Hun'ek hala istudiatu du bretoiñera) «isoglosak eta administrazioko mugak alkarri datxezkola» (Vendryes). Eta ideiari jarraituz: «Dialektu bat nabarmenago mugatzen da politikazko zatiketa bati baldin badagokio; eta, baita zatiketa hura sortu zuten oiñarriak geroztik ezabatu badira ere, dialektuaren mugak luzaz iraun dezake» (Le Langage, 307). Fenomenu berbera ikus dezakegu guk Garazi'ko eta Irati'ko euskalkiak erkatuz, esate baterako; edo-ta Hendaia'ko hizkera eta Hondarribi'koa.

Mendeetan zehar bai: piskanaka, erresuma hizkuntzari nagusitzen zaio. Nekez, ordea; eta ez gutxitan, lurraldeak odolztatuz.

Zer ikusten da, adibidez, España'ko eta Fraitzia'ko erresumetan? Lau mende huntan zanpatu gaituztela gu euskaldunok; eta berdin baitoñak, katalanak, eta abar. Halere, España'ko eta Fraitzia'ko erresumen «batasun» hori, ez

dutela lortu: ipuin bat besterik ez dala. Erresumak denbora luzea behar izaten zuen orain arte atzerritar herriaz arras nagusitzeko: horra hor lekuko kolonialismoaren kondaira. Turkiarrek urte asko egin zuten Europa'n, baiña Balkanetako ethniak bizirik daude. Gauza bera españolek Peru'n, eta kitxuera ez da hil. Eta gauza bera frantsesek Arjelia'n, arabera itzali gabe. Bertako kulturak eta hizkuntzak ez dira gehienetan hil (Arabitarrek, era berean, ez zaizkie kabilatarrei nagusitu). Orain hedabideak haundiagoak izaki, erresumak lehenago ezaba ditzake ethniak.

Kolonialismoak arras garaitu ez duen herrietan, zanpatutako herriak hiltzeko arriskuan bizi dira. Eta, hori dala-ta non dago gaur abertzale-mogimendurik? Nor dira Europa'ko erresumetan azaltzen diranak? Hizkuntza berezia gorde duten herriak, ala «folklore»-atal hau galdu dutenak? Irakurleak berak erantzun beza.

Hizkuntza bereziak diran eskualdeetan, herrikidetasun berria ez da eskualdeaz jabetu; eta ez guztiz sekulan jabetuko, hizkuntza bereziak diraueno. Ez baitago egiazko herrikidetasunik eta ez nazio-batasun iraunkorrik ere, hizkuntzazko batasunetik kanpo. Zanpatzaillearen hizkuntza erabiltzen ez duena, erresumako «pake»aren edo «ordenu»aren ukatzaille eta nahostale baita.

España'ko erresuman, katalanak eta euskaldunak higitzen dira batez ere; Frantzia'koan, bretoiñak, euskaldunak, katalanak eta alsaziarrak; Breña Nagusian eskoziarrak eta walistarrak; eta abar. Hots: erresuma-hizkuntzek arras «irentsi» ez dituzten eskualdeak. Ez horietatik kanpo. Nola uler hori, herrikidetasuna hizkuntzaren menpean dagoela aitortu gabe?

Baita erresumaren batasuna ofizial gertatzen danean, ez dago hizkuntzaren gaiñetik egiazko batasunik; eta berezi-nahia nola edo hala, berezi-nahiaren izenean edo errejionalismoaren izenean, behin eta berriz piztutzen eta zornatzen da. Nun? Beti zapaldurik galtzen ari dan hizkuntza baten alorrean; ez sekulan ere hizkuntzazko desberdintasuna ezabatu dan eskualdeetan. Abertzale gehiago dago Bizkaia'n Jaka'n baiño, nik uste... Españolismoa pizkorrago Erribera'n Gipuzkoa'n baiño. Gisa da!

Hizkuntzazko batasunak ez omen du, besterik gabe, herrikidetasuna ematen: kroaziarrak eta serbiarrak lekuko, esate baterako. Hor erlijio-kontu bat izan zan (edo izan omen zan, nahiago bada); baiñan ez herriek, askatasunean eta argitasunean, oharrean hala deliberaturik deus. Horri, halere, azken urteetako gorrotoak erantsi zaizkio, Kroazi'ko katolikoek Hitler'en alde jokatu zutelako; eta muga egiazkoago eta gotorrago egin bide da Tito-ren ahalegiñen kontra: gertatutako hilkintzen oroitzapena ez baita aisa ezabatuko.

Nork esan dezake walionarrak aurki Fraintzira igaroko ez diranik, edo flandretarrak Holanda'ra? Europa berria sortzen bada batez ere, joera horietako mogimenduak sor ditezke. Eta Antwerpe'ko alkateak ziolarik Brussel kulturaz gero eta nabarmenago «frantses» hiri bat billakatzen ari dala, soziologiari gagozkiola, ez da hain oker askoren ustez; brusseldarrak berak ez baitira gaitzi: «Au Petit Paris», «le Petit Versailles», eta abar, sarri irakur ditezke.

Era berean, Uruguay'tik Argentina'ra joateko, erresumaren arteko muga bat behar da igaro; baiña herri-aldakuntzarik ez dago, gaur bederen. Erresuma eta ethnia ez dira gauza bera. Hori dala-ta, errez uler ditezke Cuba'n Che Guevara buruzagi izatea (argentinarra izanik ere); eta zergatik ez dan berdin nagusitu Viet Nam'en. Gogaide eta herrikide, zer nahi esanagatik ere, ez dira bat.

Bego, halere. Hizkuntzakide izanagatik ere, eman deza-gun hunengatik eta hargatik, ba dirala gaur liferentziak hemen edo han, bihotzari eta sentimenari dagozkion liferentziak. Zer pentsa?

Horrek ez du gure ideia nagusia ukatzen.

Herrien arteko gorabeherak azertu dituztenak, huntaz ere ohartu dira. Guy Héraud federalistaren iritzia, esate baterako, xuxena da eta nere iritziz onartu egin ditezke.

Héraud'en ustez hizkuntza bakar bati ez datzeko derriorrez, eta jendeek nahi ala nahi ez, erresuma bakar bat; baiña, istilluei azkena eman ahal izateko, erresuma batek HIZKUNTZA BAKAR BATEN hiritarrak beharko lituzke bildu. Erresumak, jatorrizko hizkuntza bakar baten eremuan eraiki beharko lirake, dio. Alegia: bi jatorrizko hizkuntza, bi erresuma beti —edo gehiago agian—. Baiña jatorrizko

hizkuntza bakar bat, erresuma BAT GUTXIENEZ. Herrien nahiak erabakiko. Hizkuntza bereko herriek egiazki zer nahi duten, ez dakigu usu. Kondairak ordea gauza bat erakusten du: bi hizkuntzatako erresuma bakar bat gehien-gehienetan ez dala egoki ari. Erresuma ez baitzaio bitasunari gainditzen. Erresumaren bidez ere ez baita herrikidetasuna jaiotzen, eta bai hizkuntzei dagokiena egoten. Gauza bat da segura kondairagilleentzat (eta ez guretzako bakarrik): Euskal Herriak ez duela soluziorik Euskadi gabe edo bi erresumatan partiturik.

Albert Dauzat hizkuntzalariak, nahiz-eta hizkuntzari buruz frantses aitakeria ezagun horren seme izan, hunela aitortzen du kidetasun huni buruz mintzo dalarik: «Gure garaiean naziotasunaren ezagugarriarik agiriarena billakatu da hizkuntza. Hauxe da giza-multzo bat lotzen duen lokarriarik zailena eta gotorrena» (Phil. du Langage, 144).

Estrukturalismoaren aitak ere gauza bera zion: «Nazio baten ohiturek eragin egiten diote beren hizkuntzari; eta, bestaldetik ere, batez-beste, hizkuntzak egiten du nazioa» (Saussure, Cours, 40).

Orain arte erresuma baiño gogorrago izan zitekean hizkuntza; eta bere aldeko erresumarik gabeko hizkuntza batek mendeetan zehar iraun zezakean. Horri esker bizi da Euskal Herria.

Gaur hori ez da egia. ERRESUMAREN LEHENENGO INSTITUZIOA GAUR HIZKUNTZA DA. Gaur beraz hizkuntzak ematen duen herrikidetasuna oiñarri bat izan diteke, baiña erresuma behar da ere. Mende anitz igaro dugu hizkuntzak ematen duen herrikidetasun horri helduta. Aurrerakoan ez da aski izango.

Kontutan har dezagun.

(1966)

3

HIZKUNTZA ETA ERRESUMA

«Askatasuna izan ala ez izan. Horra kakoa».

Baiña zenbait irakurlek dagoeneko hau pentsatu duke bere kolkorako: «Ez da egia. Hizkuntzen zoria anitz kausaren seme da».

Oraindik hortan gera!

Bidezko da gure estaiek egia guri ez aitortzea. Bidezko da ere «euzko-zaleak» eta «euzkadianoak» uste hortan egotea. Baiña zenbait euskaltzale eta abertzale fin oraindik ere hortan egotea, ez da, ez bidezko eta ez pozgarri.

Euskaltzale gehiegiri entzuten zaio gaur berean ere hizkuntzaren kakoa «olerkian» (sic) datzala, eta ez «politikan» («politika» hitza ematean, mespretxua darie; eta bistan da: Euskadi'ko erresumaren aldeko burrukari deritzate «politika...»). Beste batzuen ustez, euskaldunok ez dugu sekulan izango askatasuna «politika»ren bidez: «politikak» kalte besterik ez digu ekarri. Arana Goiri euskaldunik kaltegarriena izan da abertzaletasunari politikazko bide bat emanaz. Eta hobe da «politikeriai» utzi eta ditugun legeez baliatzea. Beste batzuen ustez, azkenik, «politikaz» ahaztu, eta euskaldun eskola batzuk jarritz, tenk egiñaraziko zaio erderari, eta eus-

kera ez da behin ere hilko. Eta abar...

Zertarako jarraituko? «Politika» egitean omen datza Euskal Herriaren zoritxarra!!! Abertzaletasunak ez bestek nahastu omen du gure herria, eta hiltzeko zorian jarri!!!

Egia esateko. horrelako iritziak ez dira Euskal Herrian bakarrik aurkitzen. Españiar sasi-cuskaltzaleek (Tovar'ek, eta bestek) horixe oihukatzen dute: geure abertzaletasunak sortu ditu omen Madrille'ko bildurrak, eta orduan hasi dira euskeraren kontrako neurriak...

Hizkuntzalariak, era berean, beharbada xuxen ibiltzen dira teknikazko beren azterketetan (ez naiz ni gauza iritzirik emateko). Baiña hizkuntzaren eta politikaren arteko gorabeherak aztertzen hasi diralarik, zozokeria haundiak irakur ditezke beren izkribuctan. Vendryes-ek eta Martinet'ek berak, nere ustez, ez dute kakoa ikusi nahi; eta gaiñerakoek are gutxiago.

Zergatik ez horrelakorik, beraz, euskaltzaleen artean, Euskal Herri'ra zoritxar-mota guziak «atertu» gabe jausi ondoren?

Meillet'ek, esate baterako, anitz izkribu egin du hizkuntzei buruz; eta bat bereziki mundu guziko hizkuntzei buruz, oso ezaguna. Hizkuntza askoren kondaira ezagutu arren, halere, eta askotan egia garbi erakutsi arren, bere chauvinismoa dala bide, ez du garbi ikusten kakoa; eta hizkuntzen galtzearen kariak «asko eta nahasiak» zaizkio. Halere hitz guziez argitzen du egia: «politikazko erakunde baten indarra, zibilizazio baten balioa, gertuko arrazoiñak edo kariak izan ditezke; baiña funtsezkoa hau da: lurralde zabal batean erakitzen dan hizkuntzak baliotasun paragabea du». Horixe, hain zuzen! Baiña zerk egin du mintzaira hori lurraldeetan zehar ezaguna eta erabilia? Hastapenetako Italia'n, zertan ziran bestelako, eta barnez patu liferentetara abiatuak, latíñera, oskoera eta unbriera? Zerk zabaldu zuen latíñera, eta beste biak hil? Ez, jakiña, hizkuntzazkorik ezerk. Baiña bai beste hunek: Erroma'ko erresumak Lazio'ko mintzaira hartu zuen hizkuntzatzat, eta ez oskera edo unbriera. Hunek eman zion gaintasuna: «Erroma'ren indarra haunditu ala, Italia'ko gaiñerako mintzairak ezabatu zituen latíñerak» (Cohen, **Le Langage**, 69); eta gauza bera inperioan barrena:

«jabekundeen arabera ere, Grezia'n ezik, Erroma'ko inperioaz nagusitu zan».

Cohen'ek, beraz, ongi ulertu duela dirudi. Beste batean, «zibilizazioaren gaintasuna» aski ez dala dio, Meillet'en kontra. Bereziki aipatzen ditu ekonomiazko faktoreak eta armadaren teknikak, biak oso aintzakotzat hartuz. Ez du halere esaten: hizkuntzaren kakoa erresuma da.

Puntu hauetan Meillet baiño argiago da, nahiz biak batzutan lankide izan. Meillet'ek garbi dio: «Hizkuntza bat heda dedin, zibilizazio baten oiñarri izan ala ez izan hortan datza» (Meillet, **Linguistique Historique eta Linguistique Générale**, II, 118). Eta harrigarri da hori esatea. Zeren-eta beste batean hau aitortzen baitu: «latiñerazko batasuna erromatar inperioaren batasunean finkatu zan» (310).

Klaseek hizkuntzaren zorian parte haundia dutela ba daki; baiña ez daki, ez du aitortu, nahi, erresuma klase horien tresna dala hain zuzen; eta kakoa, hortara, erresuma dala eta ez erresumaz kanpo biziko lirakean «klaseak». Klaseen nagusitasuna (edo nagusikeria) erresumaren bidez obratzen da. Meillet'en hitzak dira hauek: «Agintarien klasearen hizkuntza nagusitzen da beti» (II, 93). Frantseserari buruz bereziki dio: «agintarien hizkuntza» izan zala, «Paris'ko Unibertsidadeko mintzaira», eta abar. Eta Galia'ko latiñeratzeaz mintzo dalarik: «Galia'ko aiton-seeck arbuiatu dute galieraren erabiltzea» (Ling. h., II, 87).

Martinet'ek berak bi karia aipatzen ditu: baliotasuna eta ospea. Baiña, berriz galde nik: zerk egiten du hizkuntza bat baliotso eta ospetsu? Ez, zalantzarik gabe, barneko e-
strukturak. Zerk, beraz?

Dauzat'ek ere, Europa'ko hizkuntzei buruzko bere ja-kinduriaz oso ezaguna, ongi ikusten du arazoa batzutan; baiña bere chauvinismoa gaillentzen da Frainzia'ko mintzaireri buruz hitzegiten hasten danean. Hunek itsutzen du. Nederlandera (flamenkera) Holanda'n hitzegiten da, Belgika'n, eta Frainziako erresuman ere, Dunkerque, Hazebrouck eta Lille-ko eskualdeetan. Jakiña da: Frantzia'k ez du hizkera hau gogozago hartu euskera baiño, eta galtzen hasi da (eskualde zabal batzutan itzalia da arras: Calais, Gravelines, St. Omer). «Loi Deixonne» deritzan sasi-laguntza bera ukatu zaie Frainzia'ko flamendarrei! Halere, hori guziaz Dauzat'ek ongi jaki-

ñagatik ere, ez du kakoa ikusten Fraitzia'ko erresumaren jazarpenean: Dunkerque «Holanda'tik urrun» dagoelako gal-
tzen ari omen da (ikus **L'Europe Linguistique**, 130). Siñistu
eziña! Ehun kilometro tartea zaio kakoa; eta ez zaio burutik
pasatzen 250.000 flamendar horiek atzerritar erresuma ba-
ten menpean bizi dirala, eta hunek ez bestek galerazten diela
beren jatorrizko hizkuntza!

Dauzat'en ustez, noski, «ospea» da kakoa: bretoiñerak
ez du osperik, Hazebrouck'eko flamenkerak ere ez, eta abar.
Zergatik, ordea? Zerk eman dio ospea eta batasuna Holan-
da'n erresumak baizik, eta zerk kendu Fraitzia'n erresumak
baizik?

Halere egiaren oiñarria aurki diteke Dauzat'en liburue-
tan. **La Philosophie du Langage** deritzanean, hau irakur dite-
ke: «Gizarteko hartu-emanak ez bestek eusten dio, jakiña
danez, hizkuntzazko batasunari» (12). Edo-ta: «Ageri danez,
ia-ia beti, aspaldian batez ere, bortxazko jabekundeak ekarri
du ond'otik hizkuntzen heriotza» (138). Edo beste ideia hau:
«Sortu-berri eta eratzen abiatuak diran erresumetan, poli-
tikazko eta kulturazko labe baten ondoan jaiotzen eta hazi-
tzen da, erresumaren hedadura berean, administrazioko, zu-
zenbideko, edo zer-nahiko hizkuntza bat».

Frantses hizkuntzalarien artean Vendryes bretointza-
leak ikusi du ongienik hizkuntzen zoriaren kakoa, nahiz beti
xuxen ez ibilli. Nagusitzen dan hizkuntzaren kondaira «beti
mintzairatik ateko zertzeladek erabakitzen dute». Eta erre-
suma argi eta garbi aipatu ez arren, erresumari dagozkion
hiru karia ikusi uste ditu: «Eratutako politikazko agintearen
hedadurari dagokio hizkuntzarena, baita nagusitutako gi-
zarte-klase baten eragiñari, eta literaturaren gaintasunari»
(Le Langage, 308).

Nik dakidanez, beraz, nehork ez du esaten: «Hizkuntza-
ren kakoa erresuma da. Erresuma-hizkuntza billakatzen ez
diran hizkuntzak galtzen dira, eta erresuma-hizkuntza billa-
katzen diranak oro salbatzen».

Erresumak erabakitzen du hizkuntzen etorkizuna; eta
gero eta nabarmenago da hau egia. Hauziaren kakoa hortan
datza.

Esan liteke, eta hau ba dakit, erresuma klase baten tres-

na baizik ez dala. Eta hortaz hizkuntzen patua klaseenari datxekola. Ez dut ukatuko. Artikulu hauetan ez noa erresumari buruzko teoria bat egitera, nahiz garbi agertu gaur erresuma beti dala talde baten zerbitzari (antziñako erresumetan. burgesetan, eta... komunisteta⁷ beretan!). Esan dezagun, beraz, oraingoz, eta erresuma hau dan edo hura dan aztertu gabe, erresuma dala hizkuntzen etorkizuna erabakitzen duena.

Ohar hori hortan utzirik, hauziaren kakoa garbi dago, nik uste: beren buruaren jabe diran herriek oro, hizkuntza bizirik dute; besteen menpean bizi diran herriek oro, aldiz, beren hizkuntza galtzear dute (edo nabarmenki itzaltzen hasia).

Zein dira azken mendetan itzali diran hizkuntzak? Batto ere ez erresuma-hizkuntzetarik.

Bretaña-Nagusi'ko ermuetan bi hizkuntza itzali dira berriki. Cornwallis'ko kornikera eta Eskozia'ko eta Man'go gaelikera. Biak, beraz, kelta-hizkera.

Kornikera XVIII garren mendean itzali zan. 1660-ean Nicholas Boson'ek erdi itzalia aurkitu zuela jakiñarazi du bere izkribuetan: itsasertzeko 30 bat kilometrotako luzeran entzun zitekean bakarrik, eta hori zaharren ahotan. Gazteak ingleseraz ari ziran. Azkeneko «kornikalduna» Dolly Pentreth zeritzan andrea izan bide zan, 1777-ko Abenduaren 26ean, 102 urtetan hilla. Esan beharrik ez: Cornwallis'ko lege-hizkuntza inglesera zan.

Man uharteko gaelikerazko dialektua oraintxe itzali da. 1955-ean sei senton baizik ez zan gelditzen gaelikeraz mintzatzeko gauza; eta «hauek berak ere aspaldi hartan zuten utzia» (ikus Orbis, 1958). Halere 1764-ean uharteko 20.000-ek ez zekiten gaelikeraz baizik. 1874-ean laurden bat baizik ez zan gelditzen gaelikeraz mintzatzeko gauza, gehienak ingleseraz baliatzen hasiak. 1921-ean 915 «gaelikaldun» baizik ez zegoen, gehienak zaharrak eta bi-mintzodunak.

Eskozia'ko «erse» deritzan gaelikera hiltzat eman diteke gaur. Eskoziarren sasi-abertzaletasunak gonak eta folklorea baizik ez du zaindu; eta kelterazko Eskozia itzali egin da. Hebrida-uhartean gelditzen dira azkeneko «ersedunak», baiña zahartzen eta hiltzen hasiak. Erdi-Aroan bertan, Glasgow eta Edinburg ingleseraz ari ziran. Huna hemen, lumerotan,

Etudes Celtiques-ek jakiñarazia, «ersera»ren iraungiera:

1901 —	230.806	hiztun	(5,6 %)
1911 —	202.398		(4,6 %)
1921 —	158.779		(3,5 %)
1931 —	136.135		(2,8 %)
1951 —	94.282		(1,85 %)

Azken haueetatik, 2.652 baizik ez ziran (orain dala hamalau urte) gaelikeraz soillik mintzo zirenak. Eta danak zaharrak eta Hebrida'koak. Eskozian, beraz, gaelikera hil da; eta Hebridetan oraindik arras ez bada itzali, urte haueantxe hilko dira azken hiztunak.

Beste hizkuntza bat hil zuen Bretaña-Nagusiko erresumak: Irlanda'ko gaelikera, Eskozia'koa bera jatorriz. Ez zan arras hilla Irlanda'k bere erresuma lortu zuencan. Baiña hiltzeaz bai. Baiña utz dezagun puntu hau gerorako.

Alemania'ko eremuetan (edo Prusia'koetan lehen) bi eslabo-mintzaira itzali dira mende haueatan. Elba ibaieko behe-rean, «polabera» hil zan XVIII garren mendean; eta Hitler' en urteetan «sorabera», polaberaren antzekoa. 1933an 57.167 gelditzen ziran, gehienak zaharrak eta bi-mintzodunak. Tissot'ek 1880-ean ikusi zituenean, ba zan oraindik irauteko nahia eta alemandarren kontrako gorrotoa; baiña begiak eta nahikundeak iraganean finkaturik zituzten. Eta galdu egin ziran.

Frantzia'ko eta España'ko erresumetan, hizkuntza batzuk galtzeko zorian daude. Probenzerak eta Eskozia'ko «erserak» bide beretik abiatuak ikusi uste ditut, eta biak berak galduak. Ossian (Macpherson) eta Mistral parcan ikusten ditut: egiazko herriari buruz ari izan beharrean, antziñako ametsetan eta ipuiñetan jarri zuten bihotza. Eta kaltegarri izan ziran. Macpherson eta Mistral bi herriren hiletari dira. Gure artean horrelakorik ere izan dugu; eta aipatu beharrik ez dago... Beharrik gure herria esnatu da; eta ez dugu siñisten ez gonetan eta ez «Mircio»tan edo «Garazi»tan... Ipuñak eta abertzaletasuna bi egin ditugu, eta ez bat.

Azkeneko mende horietantxe, ordea, askatasuna lortu eta erresuma eraikita, Europa'ko hizkuntza «txiki» askoren pizkundera ikusi da: finlandera, txekera, juduera, eta abar. Hizkuntza horiek oro galtzeaz ziran.

Estonia'ko hizkuntza bera, bertako agintea erdizka be-

deren estoniarren eskuetara bihurturik, sueziera eta errusiera ezabatu, eta gora ikusten dugu. Ez gora, goian baizik.

Eta hau guretzat jakingarri da: Euskal Herria baiño txikiagoa da Estonia; eta euskera bezelaxe, hizkuntza liferentea da, bakartua, kiderik gabea (finlanderaz kanpo); eta alde hortatik, eragozpen askotan, murgildua. Halere, estoniera arras nagusitu da Estonia n.

1884-arte estonieraz argitara ziran gramaikak, alemaneraz, suezieraz eta errusieraz azaldu ziran. 1884-can, ordea, lehenengo aldiz, Hermann'ena argitara zan, eta... estonieraz! Ez kanpotarrez, bertakoen zerbitzuko eta bertakoen hizkuntzaz izkiriatua: hitz batez: «estoniartua».

Hizkuntzaren pizkundera eta abertzaletasuna batera joan ziran goruntz. 1923-tik 1937-ra, 9.282 liburu argitara ziran estonieraz (urtean 600-etatik gora). 1939'an 1.133.940 estoniarren artean, milloi bat baiño gehixeago estonieraz mintzo ziran. Gaur ez dago Estonia'n hizkuntzazko buruhausterik batere.

Gogoangarri da ere ez ahaztutzea, bertako aiton-emeak eta aberatsak (1920-arte lurretako 60 % berrehun familiaren eskuetan zegoen!) arrotzuak ziralaz; eta alemaneraz baizik ez ziralaz mintzo.

Askatasuna izan ala ez izan, etniaren zerbitzuko erresuma bat sor ala ez sor. Horra kakoa.

«Politikarik» ezak hondatu gaitu euskaldunok, hain zuzen. Euzkadi sortzen jakin ez dugulako gaude gure huntan. Ez gaitu galdu, hitz batez, «politika»ren gehiegiak eta «soberaniak», ezak eta eskasiak baizik! Eta lehen herri batek mende batzutan iraun bazezakean ere, erresuma bat bere zerbitzuko izan ez arren, gaur hori ez da posible.

Erresumek ez omen dute berriki arte hizkuntzari buruzko politikarik izan.

Euskera, beraz, ezinbestez hortatu da; eta ez España' ren erruz edo Fraitzia'ko erresumak hala nahirik.

Famak hau dio. Baiña, egia ahal da?

Nazioen arteko hartu-emanak, eta nazio bakoitzaren barrenean ere herrialdeen artekoak, orain baiño askozaz ere zaillago izan ziran iragan mendeetan. Hau ukatzerik ez dago. Alde huntatik, beraz, gaitz zan (edo gaur baiño aisa gaitzago,

zalantzarik gabe) jendeek beren sorterriko berezitasunaren eta mugen beren kontzientzia hartzea. Gizona gaur baiño nekezago higitzen zan, eta hunat edo harat aldatzen.

Bestetik ere herrien jakintza-mailla eta bizimodua gaur baiño askozaz beherago zegoen. Nork har zezakean XIX-garren menderarte ikaskintzarik? Zenbatek zekien irakurtzen? Alde huntatik, hortaz, zail zan norberaren herriaren nortasunaz ohartzea; eta are zaillago herri-nortasun hori balio-estea, aintzakotzat hartzea.

Pentsakerari buruz eta soziologiari buruz hizkuntzak duen inportantzia, azkenik, aurkikunde berria da. Abertzale askoren itsutasuna lekuko!

Hein batean, beraz, ukatzerik ez dago: naziogarri dan aldetik, hizkuntzarekiko istimua berri-berria da.

Bego hori hortan. Egia dalako, eman dezagun gauzak sakonki aldatu dirala berrehun urte huntan. Hizkuntzari buruz, gisa danez, gure iritziak eta jokabideak (eta erresumetak) aldatu egin dira.

Hitz bat erantsi behar da ordea egia hori osatzeko: «oharrez». Oharrezko istimu haundirik ez da izan. Baiña, oharkabean, ez ahal dira hizkuntzaren arazoak pisuak izan kondairan zehar?

Hizkuntzari dagozkion fenomenoak sakonak dira; hitzegitea oharkabean egiten da eskuarki. Horregatik, hizkuntzari buruzko teoriak, eta Hizkuntzalaritza bera, jakintza-sail gazteak dira.

Hain zuzen ere sakonak diralako oharkabean gertatzen diran gertaerak, halarik ere beren eragiñak eta ondorioak gauza ageria dira. Erdi izkutaturik datzaten fenomenuen artean ezar ditezke, nik uste, mintzairari dagozkionak.

Hizkuntza bat gizarte-hesi bat dala hitz hauetxetaz ez esanagatik ere, hizkuntzazko hesia eten gabe ari izan da kondairan zehar. Era berean, legetan eta agiritan gobernuek berariazko hitzez hizkuntzei buruzko beren asmoak edo xedeak agertu ez arren (maiz oharrezko xederik ez zutelako) asmo edo xede nabarmenik ezagutarazten ez bada ere, erresumek eta gobernuek ba zuten aspaldidanik, nere ustez, hizkuntzari buruzko politika eta helburu bat.

Hitz batez gure iritzia biltzeko: hizkuntzaren gorabeherak

ez dira oharrezkoak izan, ez dira herrien edo gobernamen-
duen kontzientzian ari izanak; baiña oharkabea, agerita-
sunez jantzirik, inkontzientean nahi bada, ba dira, eta beti-
danik izan dira, hizkuntzei buruzko atxikimenduak, herrak,
maitasunak, arbuioak eta erresuma politikak.

Ezaguna da frantsesek «patois»ekiko duten mespretxua
eta higuña. Nork uka dezake, ordea, erromatarrek «barba-
ro»ekiko senditzen zutenak kera berbera zuela? Erroma'ko
idazleen artean, gutxik eman du barbaroen hizkuntzeko
«xehekeria»rik... Jatorriz beste etniaren seme ziranak ere,
berdintsu jokatu ziran; eta ez ziguien hitzik ere esan beren
jatorrizko «patois» haietaz.

Jokabide horien sustraiean, ba dira, noski, zibilizazioz-
ko egiazko gaintasuna, kulturazko harrotasuna, gorago ego-
tearen ohartzapena, eta abar. Eta hauek ez dira lillurak edo
ametsak: egian finkatuak dira.

Gaur, gure huntan, erderaz ez dakien euskaldunak eta
frantseseraz ez dakien bretoiñak, ez dira «konplejo» baten
jopu; egia objetibo baten ikusle argi baizik. Berdin ere erro-
matarrei buruz, eta latiñerari buruz, akitaniarrak, tartesiar-
rak eta gaiñerakoak. Etikaz eri dala dakien etikadunak ez
du «konpejorik», ez du «seta»rik; Koch'en bakteriak birike-
tan ditu; bere eritasuna ez da irudimenezkoa edo alegiazkoa,
egiazkoa baizik.

Baiña gaintasun objetibo horrez gain ere, ba dago hiz-
kuntza arrotzekiko mespretxu bitxi hori, erresuma zabaletan
eta inperioetan hoziturik, eta gaur bertan ere Fraitzia'n eta
España'n bizi-bizirik. Hizkuntza, «txikiekiko» nahasketa bat:
gorrotoz, urrikimenduz eta aitakeriaz egiña.

Aspaldidanik, eta egun berean ere, gauzak hortara, non-
dik nora pentsatu behar dugu, mespretxu horri atxikirik,
denbora berean errespetua, itzala, eta legezko berdintasuna
baizik ez zegoela aspaldiko erresumetan oraintsu arte?

Ez dago gaur horrelakorik: eta lehen ere ez zegoela pen-
tsatzea zillegi zaigu. Aski dira. nik uste, ezagutzen ditugun
xehetasunak, hortara pentsatzeko.

Ez da ahaztu behar ere antziñako erresumak orain bai-
ño askozaz indar txikiago zuela; eta, hori dala bide, bere
sustraiezko (eta oharkabezko ere) hizkuntza-politikaren on-
dorioak, nekezago nabarmendu izan dirala gaur baiño.

Hizkuntzen aldaketak berez piskanaka gertatzen dira, eta etnien arteko politikazko mugak baiño iraunkorrago. Denbora luzea behar izaten da herri bati hizkuntza aldarazteko. Irunberri'n eta Gares'en milla urtez entzun dira euskera eta espanyera; eta Brussel'en berdin frantsesera eta neerlandera. Hizkuntzaren trukeak mintzaira-bikoiztasunaldi luze baten buruan obratzen dira, ez behingoz edo kolpez. Zenbat urtetan? Zenbat mendetan nagusi dakieke bertako mintzaireri erresuma-hizkuntza? Erresumaren bortxabideak ugalduta eta sendotu ala, gero eta epe laburragotan, noski.

Eman ditzagun adibide batzuk. Galiera (Galia'ko keltamintzaira) hiltzeko, lege-hizkuntza latina izanagatik ere, bost ehun bat urte behar izan zituen. Eta laugarren mendean, ligur-eraz hitzegiten zan ere Fraitzia'ko erdi-aldean.

Hispania'ren latineratzea xehekiro aztertu dute batzuk, eta Blazquez'ek berriki (ikus, «Hispania», 95 gn. alea, eta hurrengo). Pareti'ren iritzia, oro har, ontzat emanik, latina nagusiarazteko nahi bat aurkitu du erromatar kolonialistengan. Erromatar armadak, erromatar koloniak, erromatar administrazioa. Hispania'ko aiton-seei ematen zitzaien ikaskintza, Erroma'rekiko merkatalgo hartu-emanak, diru-txanponak berak —45-etik, latina hutsez egiten dira, latinaren aurrerapena eta garaitzapena prestatzen.

Galia'n erromatartzeko nahi berbera aurkitu du Hatt'ek, eta egiazko «kolonialismo» bat izan zala dio. Mommsen'ek ere dionez, armadaren eragina izan zan pisuena latina zabaltzeko; urte haietan armada baitzan instituzio nagusia. Hots: ezaguna da ere Erroma'ko armadan latina zala hizkuntza bakarra. Yugurta'k erromatarren armadan ikasi zuen latina; eta Euskal Herri'ko aiton semeak (Oskakoak buru) armadan arrotzu ziran, gaur Bermeo'ko gazteak Basurto'n edo, Garazi'koak Baiona'ko Citadelle'n bezelaxe. Garaitzaileen onerizkoa irabazi nahia ez da gaurko joera...

Hitz batez: antziñako mendeetako hizkuntza-gertakariak xuxen neur ahal izateko, koefiziente bat jarri behar da. Baina, Erroma'ko inperioan batez ere, nabarmen agertzen da hizkuntzari buruzko kontzientzia bat: erresumaren batasuna hizkuntzazko bakoiztasunaren gainean eraiki nahi da. Iritzi hauxe adierazten du Woolner'ek, huni buruz diolarik: «As-

paldiko inperioetan ez zegoen hizkuntzazko katramillarik. Ez zegoen orduan nazio-batasunaren ideiarik... Baiña Erroma'ko erresuma, berezkuntza bat dala esan ditekete» (*Languages in History*, 13).

Halarik ere, Erroma'ko erresumak berak, ez zuen indar haundirik bere hizkuntza nora-nahi sarrarazteko. Horregatik ez zaigu horren garbiki agertu erromatarren funtsezko nahikundea.

Horiek horrela, egia dio Cohen'ek huntaz mintzo dalarik: «Aspaldian, eta erresumetako erakunde berezietatik at gaur berean ere, hizkuntzen hedaerak eta suntsierak (nahiz guttizkoak nahiz erdizkoak) berariazko aipuz, hitz bereziz eta nabarmenkiro hala nahi izan gabe gertatzen ziran. Gaurko egoeran, berriz, aipuzko nahiak eta borondate deliberatuak erantsi dira» (*Pour une Sociologie du Langage*, 272).

Hori larriz egia izan arren, ez da osoki egia. Fraitzia'n, XI-garren mendetik, frantsesera jarri zan lege-hizkuntza barkartzat. España'n, 1253-an, Toledo'ko gaztelera proposatu zuen Alfonso X-garrenak erresuma-mintzairatzat: aurrera-koan erregeren aginduak eta legeak gaztelera-mota hortaz egingo ziran. 1539-an neurri gogor bat hartu zuen Fraitzia'ko gobernuak (Villers-Cotterets'en agindua) handik goiti, zuzenbidetzan eta administrazioan, frantsesera izango zan hizkuntza bakarra. Gerozko Grégoire'ren agindua gorago aipatu dudan ezkerero, utz bekit Falc Hun bretoin jakintsuaren iritzia aipatzea: «Convention'eko gizonen aginduz, hauxe zan erresumako eskolako lehen betekizuna: dialektuen eta eskualde-mintzairaren ezabatzea» (ikus *Orbis*, 1958, 528).

Borondate hori ez da legundu. Gure herrian gertatu dana atzerago aztertuko dugu xehetasunez. Alsazia'ko gertaerak gutxiago ezagutzen dira. Strasburg'eko elizetan gaur frantseseraz predikatzen da; eta **Le Monde**'k berriki adierazi duenez, alemanera galtzear dago. 1914-ean, halere, Alsazia alemaneraz mintzo zan arras. Mende-erdi bat aski izan da kulturazko hizkuntza ospetsu eta baliotsu bat ahultzeko (are gutxiago alemandarrei, Alsaziarrak jatorriz alemandar izaki, 1871-ean Alsazia Alemania'ren eskuetara igaro zanean). Erresumaren eragiña gero eta nabarmenago agertzen da.

Baiña funtsez ez da aldatu; eta ez aldatuko ere. Gubernuck, Gi Etienne'k ongi dion bezela, gutxitan aipatzen dute

hizkuntzaren arazoa; baiña, beren ekintzan, zinki dute kontutan hartzen.

Ez ote da hauxe bera egia aspaldiko mendeek? Ba liteke. Nik neuk hori uste dut.

Baiña kondairazko eztabaida hau, halere, ez zaigu axolarik oraingo huntan. Etorkizunak kezkatzen gaitu; eta ez iraganak. Jakingarri izan diteke kondaira-puntu hau, dudarik gabe. Baiña goazen gu aurrera, ondoko urteetan arreta jarririk, eta ez betirako finkaturik eta aldatu eziñik igaro diranetan. Joanak joan!

Hizkuntzaren zoria «literaturak» erabakitzen duelako ustea, oso zabalduta dago gure artean. Gure Ibar bera, nahiz bereziki esan bere liburuan «literatura» izkiriartzean ez duela egiazko literatura soilik hartzen, ez dabil «literatura-zaleen» gandik oso urrun. Gure hizkuntzaren kakoa olerkarien eskasian datzala uste dutenak, ez dira behar bezin urri!

Italiera Dante'k indartu omen zuen, eta alemanera Lessing'ek. Ibar'en ustez ere, Orixek aldatuko zuen behin eta betirako Euskal Herriko kondaira eta euskeraren patua **Euskaldunak** argitaratu ondoren.

Literaturaren mirakuilluzko eragin hori onarratzeko, beste mixterio eta izkutuki mordo bat onartu behar da. Ez baita batere agertzen zergatik sortzen dan literatura bat. Zergatik?

Fenomeniak aztertu beharrean, berriz ere ezer galdetu gabe eman beharko ahal dugu sasi-azalpen bat? Zergatik literatura giltzarri? Zer dala bide?

Irakurtzeko ohitura eskolaren hedaerarekin batera zabaldu da. Aspaldiko mendeetan orain baiño aisa gutxiago irakurtzen zan; eta moldiztegiak eta liburuen argitaldiak gaur baiño aisa bakanago ziran. Zer pentsa, beraz, literaturaren eragiñ ulertu-eziñezko hortaz? 1960-eko estadistika batek jakinarazi duenez, Frintzia'ko chunetatik berrogei ta hemezortzik (58 %, bai) ez du sekulan libururik bat ere irakurtzen!!!

Utz ditzagun sasi-azalpenak besterentzako. Eta lot gakizkion gu hizkuntzaren azterketari.

Beste zio bat aipatzen da ere usu xamar: «prestige»,

aipamena, entzutea, ospea. Frantseserak «ospea» omen du; eta horregatik nagusitzen omen zaio bretoiñerari. Eta «ospe» horregatixek nagusitzen omen zaio españera euskerari. Baiña españeraren «ospea» Bidasoa'ko ur txikiak itotzen du! Eta berdin frantseserarena! Lehene, goarena Irun-aiño iristen da xuxen-xuxen; eta bigarrenarena justu Hendaia'raiño. Nola hori?

Kakoa, «ospea» bada, Bidasoa'ko urak ziñez aztertu behar dira: «ospea» bestelakutzen eta funditzen baitituzte...

Kakoa «ospea» bada, tagalerak (Filipinetako erresuma-hizkuntza berria) españerak eta ingleserak berak baiño «ospe» haundiagoa duela aitortu beharko da; biei batera nagusitzen ari zaie ta...

Frantseseraren «ospea» (berriz ere mirari!) Normandia'ko hondar'zetan itzela da; baiña aurrez-aurreko Guernesey eta Jersey uharteetan itzaldtu egiten da(urek berriz itotzen!), eta «ospe» guzia ingleserak irabazten du. Quebec'en ez dago urik; eta halere gauza bera gertatzen da: frantseserak ez du «osperik» balere, eta F.L.Q. sortu arte ez zuen emendatzeko itxurarik...

Hizkuntzen gertakariak kondaira eta soziologia eskuan, eta arrazoizki aztertu ezker, ordea, illunpeak urratu eta argitu egiten dira. Eta egia gardenik eta garbirik islatzen.

Zer da hizkuntza? Gizarteko hartu-emanetan erabiltzen dugun mintzabidea. Azter dezagun, beraz, hizkuntzen biziaren giltzarria hartu-eman horietan mintzabide dan eta ez dan aldetik.

Ez gaitezen hodeietan ibil. Pausa ditzagun arkak lur-rean: hizkuntza gizarterako lanabesa da. Hartu-emanetan ari izateko mintzabide baldin bada, balio du; eta mintzabide ez bada, ez du balio. Hots: mintzabide-tasun hori da hizkuntzaren izankizun nagusia. Hizkuntza batek bere mintzabide-tasun izaera hori betetzen ez badu, hartu-emanatarako balio ez ba du, hartu-emanak debeku baldin bazaizkio hunengatik edo harengatik, bere buruari uko egiten dio, ez du sentidurik; eta gizonak ahaztu egiten du. Ez du ez «ospe»rik eta ez «literatura»rik.

Hizkuntza gizonaren zerbitzuko da. Eta zerbitzuko ez badago, alde bat utz, eta suntsitu egiten da.

Bretaña'n eta Euskal Herria'n. Quebec'en eta Manila'n, herri xeheak dioelarik, familian ikasitako mintzairak ez diola aurrerakoan balio eta ez diolako, ahaztu egin nahi duela, herri xehe horrek egia du. Eta beste hizkuntza bat hartzeko beharra eta eskubidea du. Zeren-eta hizkuntza horiek, beren hortan, «ospe»az eta «literatura»z kanpo eta gainetik, ez baitute beren mintzabide-tasun izankizuna betetzen; ez baitute bizitzen laguntzeko balio. Bizi izateko, hain zuzen, mintza ahal izateko eta alkar aditzeko, beste hizkuntza batez (erresuma-hizkuntzaz hain zuzen) baliazera bortxatzen baitute. Hizkuntza horiek, hortara, bizitzatik kanpo jarri dira: ez daude gizonaren zerbitzuko.

Baiña, bigarren galdera: nola hori? Zergatik ez? Noren erruz? Non diteke konponbidea?

Erantzuna beste galdera bat da: zerk sortzen ditu hartu-emanak eta zerk ebakitzen? Zerk lotzen ditu gizonak eta zerk alkargandik berezten? Zerk, bistan da, geografiaz gain?

Gure herrian ikusiko dugu errazkiago. Zerk eten ditu cuskaldunen arteko, Iparraldetik Hegoaldera? Zerk, atzerian galiziarren eta portugaldarren artean? Zerk flandetarren eta holandarren artean; edo-ta alsaziarren eta alemaniarren artean? Armadak ipiñitako mugek, politikazko kondairak hitz batez. Kondairak aldatzen ditu herrien arteko hartu-emanak; eta etniakideak, herrikideak, askotan alkar-gandik berezten. Hartu-emanak politikaren menpeko dira, erresumen menpeko hobeki esateko. Horregatik hizkuntza ere, sustraietik beretik, erresumari datzekon instituzioa da. Erresumaren sortzeari, hiltzeari eta zatikatzeari, hizkuntzaren sortzea, hiltzea eta zatikatzea darraizkio. Ez segidan, baiña bai epe baten buruan. «Giza-multzo batean batasuna, edo alkarrekin ari izateko beharra, sortzen dan unetik beretik, alkarrekiko mintzabaide baten beharra agertzen da», dio Cohen'ek (Le Langage, 83). Eta, alderantziz, «hizkuntzazko zatiketa eta gizartezko zatikatzea alkarri datxezko» (126).

Azter ditzagun, beraz, gizarteko hartu-emanak.

Gobernuaren agintea dugu goian, eta Parlamentoa: ministerioen bidez, gobernuak zuzentzen du nazioaren bizia. Politika guzia, legezko agindu guziak, burokrazia guzia nazio guzian barrena hedatu: horra hor mundu oso bat, nazioaren

biziaren habea, eta aginte-ospeaz jantzirik bestalde. Zein hizkuntza erabiltzen eta erabil-arazten da mundu hortan? Zenbat jende behartzen da nazio guzian barrena agintaritzaren hizkuntzaz baliatzera? Erants horri administrazio guzia: herriko etxe edo udaletxe guziak, millaka, politzia-mota guziak, korreotako bulegoak azken zokoraiño erresuma-hizkuntza barreiatzen ari; erants gizarte-papereen bulegoak oro, epaitegiak, eta abar. Zein hizkuntzaz egiten eta eragiten dute? Zenbat lagun bizi da bizibide horietan? Zenbat herritan eta zenbat laguni erresuma-hizkuntza mintzarazten?

Kontutan har dezagun segidan ekonomiazko biziera: industria guzia (lantegi guziak, millaka), hiri haundietako, herri koxkorretako eta herrixketako salerosketa eta merkatalgo guzia; gogoan har ditzagun meatzak, harrobiak, arrantzaleen mundua, portuak, treiñak, garraio-mota guziok; bankuak, aurrezki-etxeak, kontabilidade eta diruzaintzak oro, mekanografia guzia nazio guzian ari, eritegiak eta nolanahiko pausakeluak, bazkaldegiak, arandegiak: eta irakurleak ba daki millaka dirala. Zein hizkuntzaz ari dira?

Kontsidera ditzagun orain bi instituzio zahar eta indartsu, eta nazioan zehar hedaturik: eliza eta armada. Zein hizkuntza darabilkite? Barneko nola mintzo dira? Zein hizkuntza erabiltzen da kasernetan eta elizetan? Herri guzietako apaizek, serorek eta frailleek, komentuetan eta ikastetxeetan, zein hizkuntzaz hitzegiten dute?

Zein hizkuntzaz ari dira eskolak nazioko haurrak beraz, millaka? Soldadutzara joan aitzin ere, zer irakasten zaie belaur berriko herritarrei eta zein hizkuntzaz? Zein hizkuntzaz egiten dira eskolatze-mota guziak? Ez hamar eskolatan, ez ehunetan, ez: zein hizkuntzaz egiten da eskoletan, hamar milla eskolatan, berrogei millatan? Nazioko ikasgu guzi-guzietan, zein da mintzabide dan hizkuntza? Zein hizkuntzaz ikasten da Unibertsidadeetan eta Eskola Nagusietan? Gazteria guzia, hitz batez, zertaz ari da bere ikasaldian zehar?

Irratia eta telebista, prentsa eta zinema, erresumako herri guzietan, ia-ia etxe guzietan, ia-ia egunero eta egun guziko orduetan, zein hizkuntza barreiatzen dute?

Hunat hemen erantzuna: hori guzia, Canada'n eta China'n, Kazakhistan'en eta Ukraina'n, Bretaña Nagusia'n eta España'n, Albania'n eta Fraitzia'n, Filipineta'n eta Peru'n,

edozein erresumatan, erresuma-hizkuntzaz egiten da, **erresuma-hizkuntza soillez**.

Bestetik ere, agintariak, nolanahiko puntuzkoak, intelektualak, gizarte-maillari buruz goian dauden guziak, zein hizkuntzaz ari dira? Zeren-eta beste guzietz gain, hunek pisu larria izan baitezake. Marx'en ideia bat nik poxi bat aldatuz, hau esango nuke: «nagusitutako hizkuntza, nagusien hizkuntza baizik ez da». Hots, zertaz mintzo dira horiek guziok? Erantzuna ageria da: horiek guziok erresuma-hizkuntzaz mintzo dira: Euskal Herria'n, Japon'en eta Ceilan'en.

Zer diozu, irakurle horrek? Euskal Herriari dagokion egia latza garbi agertu zaizu dagoeneko, nik uste. Bada-etzpada ere, hitz guzietz esango dut neuk ere: Euskadi'ko erresuma laister lortzen ez badugu, gure herriarenak egin du. Euskadi'rik gabe, Euskal Herria berehala suntsituko da.

Zeren-eta, ikusi duzun bezela, horiek baitira herri baten egiazko hartu-emanak. Horietan obratzen da hizkuntzaren mintzabide-tasuna, ez pikuan edo olerki negartitan. Horietan behar da egunero eta egun guz'an zehar mintzatu: korreotan, unibertsidadan, kasernan, telebistaren aurrean, gobernuaren aginduetan, lantegian, eta abar. Hor gertatzen da mintzatu-beharra. Horietan erabiltzen da hizkuntza, nazio guzian, mutur batetik besteraiño, ordu bakoitzean, etxe bakoitzean, hiriburutik azken herriskaraiño.

Galdera bat baizik ez da egin behar: zein da hartu-eman-egokiera horietan, alkar ulertzeko, alkar aditzeko, alkarri laguntzeko, nork bere bizia irabatzeko, erabilli behar dan hizkuntza? Bizi-beharrez eta hitzegin-beharrez, zein da egiazko mintzabidea? Horietatik guzietatik kanpo dagoen hizkuntza, nola izan diteke mintzabide, nola izan dakiguke lanabes, eta bere funtsezko eginkizuna bete? Zergatik iraun dezake? Zer egin dezake herri batek egoera hortan, bere naz'otasunaz ahalik eta laisterrenik lotsatu eta higuindu baizik? De Man'en esakuntza gogoangarria aipatuko dut: «Arrotz zaion hizkuntza batez gobernatzen, eskolatzen eta agintzen dan herria, etsai armatuaren kontra bere burua gerizatzeko esku garbiez gain deus ez duen gizonaren antzeko da».

Zenbat «eskabide»ren buruan lortuko ditu horiek guziak

euskerarentzat «Euskaltzaleen Biltzarrak»? Milloi bat urteren buruan bai ausaz? Ez dut uste.

Izan dezagun egia aitortzeko kuraia bederen. Nola egiten da mintzabide hizkuntza bat? Ez negarren bidez, eta atzerri-tar erresuma baten morrointzan, ez besteren aurrean mal-koak ixuriz, nagusitasuna lortuz baizik.

Hizkuntza bat mintzabide izan dedin, edo billaka dedin; bere oiñarrizko betekizuna obra dezan, bide bakar bat baizik ez dago: nazioko bizi guzian, aipatutako biltoki, ekintza-leku eta ikasgu guzietan, mintzabide jarri behar da. Arras nagusitzen ez bada, alperrik da negar egitea: hizkuntza hori galdu egingo da. Are gehiago: beharrik galdu! Ebakitzeko balio ez duen labanak, edo itsasoa gurutzatzeko balio ez duen un-tziak, ez bata ez besteak dute beren eginkizuna betetzen; eta, noski, kupidarik gabe zokoratu egiten dira, eta ahantzi. Gauza bera gertatu ohi zaio (eta alabeharrez!) mintzabide ez dan hizkuntzari.

Nola egin, beraz, nazioko egiatzko bizian, herriaren hizkera nagusi dedin? Erantzuna emana izan da: **herriaren hizkuntza erresuma-hizkuntza bakarra billakaraziz.**

Ameslariak eta ipuintzaleak, gure arteko Macpherson'ek eta Mistral'ek, besterik dioteke. Bejondeiela!

Herriaren hizkuntza nagusi dedin, bide bat baizik ez dago: erresuma libro bat etniaren zerbitzuko jartzea; eta erresuma hortan, legezko hizkuntza eta erresuma-hizkuntza bakartzat etniarena jartzea. Nagusitu diran hizkuntza guziek hori egin dute. Eta hau egin ez dutenak, galdu egin dira.

Euskadi'ko erresuma sortu eta euskaldun etniaren eta kulturaren zerbitzuko jarri; hala euskera geuk hil. Euskadi ala España (eta Frantzia). Hau irakatsi digu kondairaren azterketak.

Ez da aski, halere, Euskal Herrian esate baterako «Euzkadi» izeneko erresuma bat sortzea. Beharrezkoa izanagatik ere, ez da aski. Euskadi'ko erresuma euskadunen zerbitzuko jarri behar da; euskal kulturaren zerbitzuko. Ez Euskal Herri'ko eremuan edo eremuetan bakarrik: gure mendietan eta hirietan «norteñotzarkada» bat sor diteke «Euzkadi» izenez.

Kasu! «Etnia» esan dut. Baiña hor ez dago arrazazko joerarik batere. Erresuma, kulturaren aldetik ere, bere her-

riaren zerbitzuko jarri behar da, eta ez atzerriko.

Peru'ko adibidea argigarri izan diteke.

Peru'n bi kultura daude, bi etnia liferentereri atxikirik: kitxwa eta española. Inkatarren ondorengoan giza-multzoa eta españolen ondokoa. Gauza ezaguna da bi etnia horiek alkargandik urrun bizi dirala gaur ere (fama da inditarrak oso «hetsiak» dirala); eta egiazki esan ditekela, Peru'ko erresuma, España'tik askaturik ere, español etniaren kolonia bat dagoela: bai ekonomiaz, bai politikaz eta bai kulturaz, inditarrak bigarren maillako perutar dira. Kitxwa-kultura bizirik dagoelako, itsasertzeko «hispanotarrak» atzerritar daude gaur ere Peru'ko nazioan, Argelia'ko «pieds noirs» zeriztenak bezela; eta alderantziz, erresumari gogozkiolarik, inditarrak dirala atzerritarrak.

Peru'ko erresuma, hortaz, nahiz Peru'ko eremuan eta lurraldeetan eraikirik, ez da Peru'ko etniarren gizonen zerbitzuko; eta bertakoa izanik ere, kolonialistat eta atzerritarra da arras. Niedergang'ek ere «bi Peru» aipatzen zituen berriki. Peru'n, horregatik, ekonomiaz eta kulturaz, kolonialistatua ez da bukatu; eta kitxwatarren erresuma sorkizun dago (eta beharbada M.I.R.en inguruan mamitzen hasia).

Gauza bera esan zitekean Katanga'ko erresumaz, Tshombe eta Union Minière ziralarik.

Eta gauza bera gurean Nafarroa'ko erresuma zaharraz. Euskal Herri'ko eskualdeetan libro izanagatik ere, ez zan behin ere bere izankizunera heldu: ez zan behin ere izan nafarren eta euskaldunen erresuma (ez Bizkaia ere, egia esateko), arrotzutako agintarien erreñu erdaldun eta erdaltzale bat baiño.

Bertako etniaren herria nagusitu behar da erresumaz. Edo, nahiago bada: bertako herria, edo jatorrizko herria, jarri behar da buru, eta sorterriko kulturaren alde. Binbitartean ez dago egiazko askatasunik. Edo askatasuna ba dago... arrotzentzat! Ez da ikusi ohi. Kanpotarren eskubideak errespetagarrik dira, ez dago dudarik. Baiña bertakoenak ere bai!

Erresuma etniaren zerbitzuko jarri askatasuncan: horra hor giltzarria.

(1966)

4

HIZKUNTZA GIZONAREN ZERBITZUKO

Oiñarri berri eta bidezkoak eman dizkio estrukturalismoak hizkuntzaren jakintzari. Ez da zalantzarik.

Baiña zenbaitek ahaztu egin bide du hizkuntza gizonengan bizi dala ta eta billakatzen, eta ez ideia hutsen maillan finkatzen. Hitz batez: hizkuntza pertsonarengan bizi dala ez badugu gogoan ongi hartzen, sasi-teorien menpera eror gindezke. Eta alde hortatik ez dira harritzekoak estrukturalista batzuen kontra egiten diran kritikak (Sechchaye, Hintze bera).

Hizkuntza giza-tresna bat da funtsez: alkarrekin hartu-emanetan ari izateko mintzabide. Edozer baiño sakonkiago hori da: «hizkuntza bat tresna bat da; eta tresna horren funtsezko betekizuna mintzabide izatean datza» (Martinet, «Cours de Ling. Gén.», 13 gn. h.).

Hizkuntza baten sustraia bera ukatzen da, beraz, mintzabide-tasun hori kentzen edo ahultzen zaiolarik: «alkarrekiko ulertzapena da hizkuntzaren betekizun nagusia», dio Martinet ek berak aurreraxeago. Hizkera batek, hortaz, ez du funtsik, ez du zentzurik, eroaldi hutsa da, ideiak azaltzeko eta ulertarazteko bere betekizun hertsi hori alde bat uzten

badu. Martinet'en hitzez bukatzeko: «hizkuntzan ezerk ezin dezake iraun, zerbait gehiago xuxenik eta berezirik adierazteko ezpada» (185 gn. horr.).

Hori dala-ta, ideia edo aparato berri bat agertzen danean, gisa da beretzako hitz berri eta berezi bat sortzea. Entropiaren ideia, esate baterako, berria da; eta ez euskeraz, ez txekeraz eta ez vietnameraz zegoen egoki zertorkiokean hitzik. Eta ideia hura «entropia» deitzea erabaki zuten jakintsuek. Eskuarki, ideia hori gure zibilizazioaren eremuan sortua dalako, gisa da ere gure zibilizazio horren eremu guzian eta mintzaira guzietan, itxura bertsua izatea. «Entropia» hitza, bere hortan gutxi gora behera, Mendebaldeko unibersidade guzietan erabiltzen da termodinamika azaltzeko.

Horrela jokatzuz, mintzabide-tasun hori ez zaio hizkuntzari zailtzen edo ukatzen, zorrozten eta haundiagotzen baizik. Entropiaren ideia ez da, hitz berri hori asmatzeagatik, nahastutzen. Entropia-ideia termodinamikazko fenomenuak aziertzean agertu dan izakia edo neurkia da; eta termodinamikarik ez dakitenek, ez alemaneraz eta ez euskeraz, ez dute ideia hori ez ulertzen eta ez erabiltzen. «Entropia» hitza, hortaz, ez da «elur» hitza baiña illunago; baiña zenbait polinesitarren ustez, «elur» hitza («elur» ideia beraz) ulertu eziña zaie, noski, eta guztiz illuna, «elur» hitzari dagokion gauzakia ez baitute ezagutzen. «Entropia» hitzak, era berean, ez du deus illuntzen, argitzen baizik. Eta ulertzen ez danean, gertaera ez da hitzaren hobena, hitzunarena edo irakurlearena baizik.

Idea zahar bati, aldiz, hitz berri bat eman nahi diogunean, hizkuntzaren mintzabide-balioa illundu eta nahastu, eta hizkuntzaren sena ahuldu, egiten ditugu. «Eliza» ideiarri «txadon» deitu nahi izatea, edo «gatzazkio»ri «gakio», eta abar, gure herrian nahi izan dan bezela, hizkuntzaren oiñarrien beren kontra jokatzea da. Eta, kasu: gauza bera «zaldi» edo «leiho»ren ordeaz, Euskal Herrian txit zabaldurik, «kaballo» eta «bentana» esan nahi dugunean.

Hitz berriak, kontzeptu berriei dagozkie; eta ez zaharrei. Gure kasoan gauza bera: erderatikakoak izan, ala sasi-euskerazkoak, berdin da.

Hitz berriak ez du funtsik ideia berria bat izendatzeko ez bada; bestela ez baitu argitasunik erasten, eta bai illun-

tasunik.

Hitzen bidez pentsatzen dugu (gogoan har lehenengo kapituluan azaldutakoa). «Elur»-hitzera bihurtuz: «elur» ideia baldin badugu, ongi egoki eta berezia, «elur» hitza badugulako da hain zuzen. Ideia zahar bati izen berri bat ematea, hortara, zuzengabekeria hutsa da; «berriz» «bataiatu» nahi dugun ideia, hitz zaharrari esker baitugu, eta alkarri adiaraz ahal izaten! «Bataio» berri hunek, bestalde, funtsezko estrukturak aldatzen eta nahasten ditu askotan, analogia berriak sortuz eta zaharrak estaliz.

Eta larriago dana: beharrik batere gabe, alkar ulertu eziña dakar.

Hizkuntza mintzabide bat da. Hau da: gizarteko tresna bat. Eta tresna dan aldetik, osoago ala eskasago diteke, egoikiago ala traketsago, aberatsago ala txiroago. Hitzunen ideiek mugatzen dute hizkuntzaren egokitasuna: hitzunen herriak ez badaki teknikarik, ahula gertatzen da hizkuntza nahi-ta-nahi-ez teknikazko arazoetarako; hitzunen herria, aldiz, arrantzalea baldin bada, hizkuntza hori ugari gertatzen da arrantza-gaiak azaltzeko. Herri bateko intelektualek beren sorterriko hizkuntza alde bat uzten dutenean (Irlanda'koek hemezortzigarren mendean bezela) hizkuntza horrek galdu egiten du bere intelektual-mailla; eta goi-jakintzazko hitzik eta tradiziorik gabez, ahuldu egiten da, gizarte-maillaz jeisten, arloteago billakatzen. Hizkuntzaren moldeak, horrela, ongi erakusten du nor baliatu dan hizkuntzaz eta nor ez; eta noiztanik gaiñera! Euskal Herriaren kondairaren azterketan, laguntzaille bikain izango zaizkigu azterpide hauek.

Izaeraz edo funtsez, hizkuntza guziak dira gai gaurko munduari egokitzeko: horra hor txinera, japonera, juduera eta islandera, esate baterako, laurak arrunt desberdiñak, eta laurak arrunt bizirik eta gaurkotuak.

Nork egin ditu gai, baiñan egin zitzakean eskas eta arlote? Hitzunen herriak, herriaren agintaritzak beraz.

Baiña gerta diteke, eta gertatzen ere da, hizkuntza bat (Irlanda'ko gertaera aipatu dugu, baiña ba dira beste ehun, Euskal Herri'koa barne), agintariek abandonaturik (edo zapaldurik!), ahuldurik eta atzeraturik gelditzea. Kaso hauetan hizkuntza gai da, eta arras egoki eta aberats, aspaldiko mun-

du batez mintzatzeko, nekazaritzako gorabeheretz eman dezagun; baiñan ez gaurko mundu teknikoaz, edo administrazio-ziokoaz ere. Puntu batean nabarmentzen da hau batez ere: hitzik eza alor batzutan, ondoko hizkuntzetara jo beharra.

Baiñan ideia berriak eta tresneria berriak hor dira, herriarren buruetan eta eskuetan. Hizkuntzari bere hortan, ezer ikutu gabe, atxiki nahi izatea, atzerakoikeria da; eta, horregatixek, nahi-ta-ez frakasurako bidea. Hizkuntza osatu egin behar da: arazo berrietan, hitz berriak behar dira. Hau freinatzeari, erokeria hutsa da, eskuindar-ametsa.

Hizkuntzaren billakaera eta aberastea geldiarazia baldin bada (zergatik dan oraingoz kontutan ez hartuz), tresna izan behar zana, eragozkarri billakatzen da: mintzabide eta zerbitzari izan beharrean, hizkuntza oztopo bihurtzen da, eta herrikideen arteko eta kanpotarrekiko hesi.

Gertakari huntan ere, beste muturretik, hizkuntzak bere betekizuna hausten du: gizonaren zerbitzuko egon beharrean, borrero billakatzen da. Eta, gauzak hortara, bi irteera gelditzen zaizkio: edo hizkuntza bere betekizunera bihurtzea; ala mintzatzeko betekizuna hobeki betetzen duen hizkuntza berri bat hiztunek hartzea.

Eta biak dira on. Zeren-eta, zalantzarik ez da: hizkuntza gizonaren zerbitzuko da, eta ez alderantziz gizona hizkuntzaren. Bestetan ere puntu hau aipatu izan dudana ezkerero, ez naiz berriz luzaz ari izango nere huntan (Ikus, esate baterako, «Huntaz eta Hartaz», «Euzkotarrak, utikan» deritzan kapitulua).

Pertsonak gelditu behar gailen. Hautakizuna nabarmen dago: ala hizkuntza gaitu, ala hizkuntza hil.

Hizkuntza bat gaitu eta gaurkotu gabe iraun-arazi nahi izatea, ez da itsusi, edo lotsagarri: kriminala da. Ezin baititeke pertsonen bizkarrera horrelakorik ez proposa, eta ez gutxiago obra. Hizkuntza gizonengan eta emakumeengan bizi baita. Eta hizkuntza, beraz, nola edo hala, gizonaren zerbitzuko egon behar baita.

Beraz, hizkuntza gizonaren zerbitzuko deño bizi ditek. Ezen gizonaren zerbitzuko ez dalarik, hil egin behar da.

Baiña etnia baten hizkuntza hil ezkerero, etnia hiltzen da. Abertzale batek, beraz, ez du irteera bakar bat baizik:

etniaren hizkuntza gaitu eta gaurkotu, eta etniaren bizia salbatu. Ez du besterik ezer: abertzale batek bere etniaren iraupena nahi baitu, eta ez besterik. Abertzale baita, eta ez separatista.

Hots, egin ahal dezake?

Urtean behin pailasoz jaztea (edo antziñako modaren arabera, turismoaren zuzentzaileek gero eta gutxiagotan nahi dutena...) ez da gizonarentzako kaltegarri. Turistentzako sasi-folkloreari eustea ala ez eustea, sos-kontu hutsa da, eta ez dakar berez kalterik.

Baiña hizkuntza ez da folklorearen parte bat!! Zozoek ez bestek jar ditzateke parean hizkuntza eta folklorea!!

Hori dala-ta, mendi-tontorretako eta mendarte-zokoetako hizkerek, folklore-maillako sasi-hizkuntzek, ez dute beren hortan bizitzeko eskubiderik. Hizkuntza bat «zokoetan» edo «mendi-gaillurretan», turistentzako ikusgarri egon dedin, pertsona diran hitzunen zoritxarraren gain iraurarazi behar dan ezkerok, nik garbi diot: Ez!!!

Adibide bat emateko: nor izan dira, gaur arte, Irlanda'ko Gaeltacht'etan gaelikeraz mintzatu diranak? Ezjakin arrote gizajo batzuk. Zer dala-ta proposa diteke, gaelikerari eusteko, bere hortan eutsi behar zaiola zorigaiztoko egoera horri? Gaeltachta'ko irlandarrek bizi eskuarra eta gizatarra, eta kultura, izateko eskubide osoa dute; eta gaelikerak ez du eskubiderik batere gaelikeraz mintzo diren horien eskubideen kontra. Bidea ez da gizon ezjakiñei eustea, administrazioa eta lege-hizkuntza arras gaelikeratzea baizik. Hots: askatasunera arte ez da hau gertatu, eta ez osoki.

Berdin ere edozein herritan, eta geurean ere noski. Ez dugu eskubiderik euskera bere hortan irauin arazteko; euskera euskaldunengan bizi baita. Hots euskera gaur, bere hortan, arazo askotan mintzabide izan beharrean hesi bat da. «Tontorkeriak» eta «zokokeriak», «tontokeria» eta «zozokeria» baizik ez dira. Folklorekeria mota guziak arras crauzi behar ditugu gure herritik.

Edo hizkuntza pertsonaren zerbitzuko da; edo-ta, ez izatekotan, bere funtsezko betekizuna hausten du.

Gauza bera esan diteke dialektuez: gizonaren eskubi-deak dira nagusi, eta ez dialektuenak. Dialektuek zaildu egiten dute herrikideen arteko ulertzapena. Hizkuntzalarien

ustez (eta ez beren ustez bakarrik) interesdunak dira dialektu guziak, hizkera guzi-guziak; eta beren jakin-nahia ulertzen da zientziaren aldetik. Baiña dialektuak gizonengan bizi diralako, eta gizonen bizimodua mugatzen eta baldintzen, abertzale baten iritzia eta atzerritar hizkuntzalari baten ezin izan ditezke berdiñak. Sozialista geran aldetik (sozialista geranok, noski...) hizkuntza herrikideen zerbitzari nahi dugu; eta ez alderantziz.

Etniaren hizkuntza gaurkotu eta gaitu; ala etnia hil.
Aukera garbi dago, gure ustez.

Hizkuntza da; ordea, etnia baten egiazko oiñarria. Hizkuntza berezirik gabe, ez dago egiazko etniarik; eta etnia bat ez dagoen lekuan, erresuma bat eraiki ditezke beharbada, baiñan ez nazio bat. Etniarik ez dagoenean, separatista izan ditezke, baiñan ez abertzale.

Zer nahi dugu guk, ordea? Gorago esan dut: Euskadi erresuma sortu eta hortan gelditu? Ala, Euskadi-erresuma sortuz Euskal Herria salbatu eta heriotzatik begiratu? Separatistei berdin zaie pausu hau eman ala ez eman: erresuma bat nahi dute, «igarobide» ulertzen ez duten hitza dakarren dokumentu bat ere bai batzutan; baiña hori guzia funtsean zertarako ez dute garbi ikusten.

Guk, ordea, separatistaz gain abertzale geranok, euskal etnia, Euskal Herria, nahi dugu bizi-arazi. Hori dala-ta, Euskadi'ko erresuma librea nahi dugu eraiki. Baiña hau gero Euskadi'tik Euskal Herria'ra igaro ahal izateko: alegia, Euskal Herria piz ahal dedin.

Euskal Herri euskaldunera iristeko, Euskadi'tik pasa behar da. Hurrengo kapituluan agertuko da karia. Baiña gure Aberria ez da, izan, Euskadi; Euskal Herria baizik. Eta antziñan ez zan ez Bizkaia eta ez Nafarroa izan. Erresuma nazioari, instituzioa herriari, nagusitu zitzaielako esan ditezke gaur: «yo soy navarro, pero no vasco». Eta era berean bihar ere, euzkotarkadak errotik erauzten ez baditugu, «euzko» batzuk hau esangodute: «yo soy euzkadiano, pero no vasco»...

Horregatik gauzak garbi utzi behar dira.

Nere Aberria Euskal Herria da; eta Euskadi beharrezko dugun euskaldun erresuma. Baiña hau haren zerbitzuko da,

eta ez alderantziz. Nafarren erresuma Nafarroa izan zan; baiñan Aberria jatorrizko etnia zan eta jatorrizko etnia da; Euskal Herria zan eta Euskal Herria da.

Etniarik gabe, hortaz, naziorik ez dagoen ezker, zer egin? Gurean: euskerarik gabe euskal naziorik ez dagoen ezker, zer egin? Euskal Herria bizi-arazteko eskubiderik ba ahal dugu?

Hau da egiazko galdera. Eta ez (oraindik hortan gera...) ia Euskadi'ko erresuma euskalduna izan behar ote danetz!!!

Huna hemen erantzuna: euskera euskaldunen zerbitzuko jarri ezker, euskaldunen eskubideak errespetatuak dira eta gure nazioa salbaziorako bidean abiatua. Eta eskubideak dugu (nork ez!) Euskadi'ko erresuma sortuz, gure Euskal Herria'ri eusteko.

Hizkuntza pertsonaren zerbitzuko egon dedin, herri txiki guziek izan dute zalantza hau; eta, bigarren partean frogatuko dugunez, bati ere ez zaio burutik pasa jatorrizko mintzaira alde bat utzi behar zuenik (Irlanda aipatu ohi da; baiña gaelikera ez da oraindik galdu. Irlanda'ko zertzeladak segidan aztertuko dira xehekiago).

Albanian albanera, Finlandian finlandera, Estonian estoniera, Filipinetan tagalera, Islandian islandera, Israelaen juduera: nun-nahi bertako hizkuntza onartu, legetu eta nagusitu baldin bada, zer mirakuillu, zer mixterio edo izkutu-ki-mota gertatuko ote litzaiguke guri bada (berriz ere gihauri eta ez beste nehoi!) Euskadi'n, euskera kaltegarri, desgoki eta ez dakit zer gehiago gerta dakigun?

Gure hizkuntza «txikia» omen da. Bego. Alabaiña. zenbat hizkuntza «haundi» dago bada munduan? Teşhière'k 1929an egindako estadistikan dionez, 29 hizkuntza daude munduan hamar milloi hitzunekin (edo hortik gora); eta 29 hauetan ere ez batasuna haundian: txinera, esate baterako, biziki aldatzen da herrialde batetik bestera: «hitzegiten dan txinera dialektu-mordo bat da, askotan alkarrekiko ulertu-eziña, eta inglesera, alemanera eta neerlandera bezin desberdiñak ere» (Pei, Hist. du Lang.; 242). 29 horiek ere, beraz, 29 baiño gutxiago dira, egia esateko, dialektutan eta hizkeratan zatikaturik daudelako.

Hots: 3.000 edo 3.500 hizkuntza dira munduan, ehun sailletan taldekatuak. Zenbat dira «haundi»? Zenbat gurea

baño «handiago», hiztunen kopuruari buruz?

Literaturari buruz siñistarazi nahi digutena ere ez da egia. Perrot hizkuntzalariak azaltzen digunez, «berrogei ta hamar bat hizkuntza baizik ez dago, oparo ala urri, literatura bat dutenik» (La Linguistique, 26).

Españolen ustez, gure hizkuntza «txikia» da («txikia» esatean, «kaxkarra» esan nahi dute usu...); eta euskal literatura eskasa. Baiña españerazkoa, hobe izanik ere, ona dala eta ugaria esan ahal ditek, jakintza-sail askotan, ingleserazkoaren ondoan? Berdintsu gertatzen da frantsesekin ere: hauen ustez, Frantzia baizik munduan ikusten ez dutelako, su-ta-gar jartzen dira hizkuntza «txikien» kontra: «les petites langues régionales»... «les langues de paysans»... «les patois du bled»... Eta mespretxua baizik ez dute frantsesera ez diran guzietarako.

Harrigarria da, huni buruz, noraino sartu dan Frantzia'n abertzalekeria «chauvinista» hori; eta Meillet hizkuntzalari famatuak berak, esate baterako, hasarre bizian gaitzesten dituela URSS'eko hizkuntza txikien pizteak; eta behin eta berriz latz eta garratz mintzatzen, eta gaiztoki maiseatzen, «nekazarien hizkuntzak»... «demokrazia-mogimenduek» behar ez zuten mailla gora batera jasorik... (ikus «Ling. Hist.», II, 38 gn. horr.).

Zergatik hori guzia funtsean?

Nabarmenak izanagatik ere, utz ditzagun alde bat frantsesen harrokeriak eta frantseskadak. Eta, zer gelditzen da hondoan? Ideia hau: hizkuntza «txiki» horiek kulturatik berezten omen dituztela berak darabilzkiten hiztunak. Eta hori nahi-ta-ez: funtsezko barne-ziorengatik. Hitz batez: bretoiñak, euskaldunak, katalanak, finlandiarrak, estoniarrak, noruegarrak, israeldarrak... kulturatik at bizi omen gera, hizkuntzen erruarengatik.

Egia ahal da hori? Azter dezagun.

Erantzuna garbi dago, nere ustez: hizkuntza gizonaren zerbitzuko dagoen herrietan —erresumetan, hobe— hori ez da egia; besteetan, ordea, egia da.

Emandako herri-zerrenda hortantxe, bi herri-mota, bi mintzaira-mailla ikus ditezke berehala.

Bretoiñak, euskaldunak, eta katalanak, beren jatorrizko hizkuntza baizik ez badakite, egia da kulturatik at hein ba-

tean bederen bizi dirala. Bretoiñera baizik ez dakiten bretoiñak, esate baterako, ia eskierki analfabetoak eta eskolaga-beak dira.

Baiña besteak nehondik ere ez. Finlandia'ri buruz gero kapitulu oso bat datorren ezkerero, aipatu baizik ez dugu egingo hemen arazoa, iritzi hunen bidez: «Europa'n bakanka baizik gertatzen ez dana, Finlandia'n gertatu da: Suiza'n bezela, letragabeak aitu egin dira». (Dauzat, «L'Europe Linguistique», 196). ((Artikuluok «Branka»n agertu ziren, 1978)).

Islandia'ri buruz ere gauza jakiña da (Laxness'i Nobel-Saria eman ziotelarik maiz aipatu zan hau), eguraldiaren-gatik eta nahi dan guziarengatik, ez dala ia nehun han hainbat irakurtzen; eta islandiarren kultura-mailla edozein herrian bezin gora dagoela.

Tartu'ko Eskolaburu edo Unibersidadea (Estonia'n) oso ezaguna da jakintzaren munduan, eta jakinduriaz bizia eta aintzakotzat hartua (Estonia'n 1.300.000 biztanle dira).

Israel'i buruz, zertarako hasiko? «Batzen ustez, judue-raren pizkundeak Israel'go erresuman freinu bat izango zan. Hots, Israel'go egiak ez du hau egiztaten», dio ameri-
kar hizkuntzalari batek.

Hiztunen kopurua, hitz batez, inportantea da, ez da dudarik. Baiña 150 milloi mintzo dira urdueraz (hindus-tanieraz, India'n). Grezia'ko hizkuntza, ordea, Mendebalde'ko loria eta kultura hillezkor baten mintzabide sortu zanean, herri txiki baten hizkera zan.

Ez da kopurua kakoa, hedadurak lagun badezake ere; nola ez!

Hain zuzen ere Islandia'n, Estonia'n, eta... Euskal Herrian bertan... bertakoek eskuarki ezagutzen dituzte bizpa-hiru atzerritar hizkuntza (Frantzia'n eta España'n, esate baterako, gertatu ohi ez dana); eta hortatik datorkie pentsakera-malgutasun ezagun hori, eta jakintzazko mailla gora bat. Ez da nehondik ere agiri nordikoak espagnolak baiño atzeratuago diranik, hizkuntzaren erruz... edo txekoak hindutarrak baiño! Horiek guziak ipuiak dira. Estadistikak eskuan, nork uka lezake «yankee»ak, ingleseraz mintzo diralata, beste guziak baiño argiago eta jakintsuago diranik?

Baiña ba da besterik.

Gure eguneroko hartu-emanetan, zenbat hitz erabiltzen dugu?

Ba ditugu huntaz dato ezagugarri batzuk. Cohen hizkuntzalariak jakiñarazten digunez (ikus «Le Langage», 54); «frogaketak erakusten duenez, aski dira 500 edo 600 hitz premiazko eginkizunei buruz alkar aditzeko»... «5.000 hitzez, ardurako alkarrizketak aisa eraman ditezke». Hamar milla hitz aski dira eguneroko bizimoduaren gorabeherak azaltzeko. Shakespeare'ren obra guzian ez dira 20.000 hitz baizik aurkitzen. Eta azkeneko frantserazko hiztegiak, tekniketatik at, 35.000 hitz dakazki. Hots, euskerak ba ditu 60.000 (baiña, bistan da, Euskal Herri'ko agintaritza erderaz betidanik gertaturik, jakintza eta eginkizun sail berezitan sakabanaturik gehienak). Perrot'ek («La Linguistique», 49) iritzi eta lumero berberak dakazki. Hitz batez: hizkuntzen ardurako hiztegia (eta osoa bera) ez dira ezin bat, edo hizkuntza «txikietatik» oso urrun dagoen ezer. Berriz ere; ipui horien aztarnak ezabatu egin behar ditugu. Ez dago alde hortatik ezinkizunik batere.

Eta, bigarren puntua, irakurgaiaren aldetik, ba dago problema larri bat: baiña herri txiki guziek arras konpondu dute; berriz ere: ez baita zapaltzailleek aurkeztutzen diguten bezin larria eta zailla.

Zenbatek irakurtzen du espaineraz, esate baterako, literaturazko libururik? Pio Baroja'k bi milla aletako argitaldi bat, haundizat zeukan. Eta berriki «Les Temps Modernes»ek ezagutarazi duenez, millatako argitaraldi bat «haundia» da frantseseraz ere.

Ez da harritzekoa. Gehiago eta sakonkiago berezten du kulturatik gizartearen estrukturak eta klaseen arteko life-rentziak, hizkuntzaren «txikitasunak» baiño.

Komunistek, Lenin'en eragiñez (etnien problemak gutxik bezin ongi ulertu baitzituen Lenin'ek) ongi konpondu dute hau; eta puntu huntaz eredu dira (bai Yugoslabia'n eta bai URSS'en). URSS'eko hamasei errepubliketan, hamasei hizkuntza liferente eman dira lege-hizkuntzat; eta Yugoslabia'n herrialde bakoitzak bere hizkuntza du, nahiz gehien-gehienak serbieraz hitzegin jatorriz. Are gehiago: jatorrizko hizkuntza, hitz batez, lege-hizkuntza billakatu da erresuma komunistetan, eta politikaz ere askatasuna eman (komunis-

moaren bideetan barrena, hau bai).

Komunista ez diranek ere, hau aitortzen dute. Hots: hau ez zaie herri txikiei kaltegarri gertatu. Kzarren denborako herri-jakintza ez zan neholaz ere gaurko maillan. Ezta gutxiagorik ere! Alabaiña, Errusia ko errepublikatik kanpo, errusera ez diran hizkuntzez obratu da jakintza-hedatzea hau.

Ez du hizkuntzak kulturatik urruntzen, demokraziaren faltak baizik.

Bizpahiru milloi hitzun dituen edozein hizkuntza (eta bizi-bizirik eta arras zerbitzari balios ba da hurriagorik ere kopuruz) izan diteke gaur herriaren zerbitzuko.

Alderantziz: hitzun gehiagoren edozein hizkuntza, ondoko kapituluetan agertuko dan bezela, eragozkarri eta trabu izan dakioke.

Zerk erabakitzen? Zerk egiten du bata ala bestea? Zerk egiten du mintzabide baliotsu, eta zerk hesi eta baztergarri? Hitzunen kopuruak?

Ez.

Erresuma libro batean lege-hizkuntza izan, ala ez izan. Hor dago egiazko giltzarria.

Horra hor kakoa.

(1966)



EUSKERAREN ARAZOA BESTE HIZKUNTZA-PIZKUNDEREN ARGITAN

Guk geure modura konpondu behar ditugu geure arazoak. Dударik ez da honetan. Eta ezin diteke ezer kanpotik bere hartan har, eta gure herrian landa. Horrela jokatzuz gero, landareak ez luke itsatsiko; aldiz, laister eihartuko litzake.

Hori egia izanagatik ere, ba dago kanpoan zer ikasirik, gure hizkuntzaren egoera eta herriaren beraren egoera, zenbait aldetatik bederen, leku askotan gertatu bait dira.

Hau dela-ta, hiru hizkuntza-pizkunderen gorabeherak eta geureak alderatuko ditut nik hemen laburki: Finlandia-koa, Txekoslabakiakoa eta Israelgoa. Beste batzuk ere ikutuko ditut batzutan.

Zergatik hiru horietxek? Gure kerriaren arazoarekin antza dutelako: Finlandia eta Israel, jendaketari dagokionez, txikiak dira, eta Txekoslovakia ez biziki haundia; Finlandia-ko suomiera eta Israelgo juduera (edo hebreoa) hizkuntza ia bakarrak direlako, euskera bezela; menpetasuna nazio diferentetan jasan dutelako hiruek (Irlandak ez. esate baterako: Irlandaren menpetasuna, edo Quebecokoarena, beti alde bakar batetik etorri da). Industria eta burgesia arrotzuen arazoa, guz bezela, Finlandiak eta Txekoslovakiak ezagutu

dutelako. Hiru hizkuntza horiek, azkenik, nagusitu egin dira beren hiru herrietan; eta, barka nazazue, euskera piztuko badugu, herri horien gertaerak aztertu behar ditugu bereziki. Irlandako jokabideak aztertuak ditut, bai; baina nola jokatu behar ez den erabakitzekeo hain zuzen. De Valerak nekez kilikatuko nau, Hitleren miresle eta frankista zela jakinik... eta Irlanda ingles-herri integrista berezi bat bihurtu duela jakinik!

FINLANDIAZ BI HITZ

Finlandian, jakina denez, Belgikan bezelatsu, bi hizkuntza dira parean legeari buruz, eta biak (zein bere eskualdean) bertako hizkera ofizial: suomiera (frantsesez «finnois» esan ohi dena), gaur %-eko 90-ek hitzegina; eta Sueziatik aspaldian etorritako sueziera (frantsesez «suédois») mendebaldeko itsasertzean eta Aaland uhartetan mintzatua. Finlandiar batzuk ezagutu ditut nik; eta benetan esaten dizuet izpirituak ez daudela han puntu honi buruz oso hotz (ezta Belgikan ere, alajainetan!).

XIX-gn mendean, Finlandiako puntuzkoak suezieraz mintzo ziren. Era berean, kaletarrak suezieraz mintzo ziren, baita Helsinkin ere. Erakaskintza suezieraz ematen zen goitik behera; eta Helsinkiko Unibertsidadean, jakina, suezieraz egiten zen dena.

Atzerritarrok mundu guzian, eta suezieraren eraginez, «Finland» deitzen genuen (eta deitzen dugu) hangoek «Suomi» deritzaten herria. «Finn-Land» hitzak ba du, noski, germaniko kutsua, sueziarrek asmatua bait da. Hiriburua, oraindik ere ni eskolan nintzenean, Helsingfors esaten zen, eta cz Helsinki (bigarren izen hau suomierazkoa). Finlandia, hitz batez, suezieraren bitartez ezagutzen genuen, Finlandiako klase nagusiak arras sueziartuta zeudelako. Burgesak eta aiton-sumeak, hitz batez, suezieraz mintzo ziren; eta herri-xeheak, lakuetakoa nekazariak batez ere, suomieraz.

Ekialdean, Karelian, desberdina zen egoera. Karelian Errusiaren eragina zen nagusi. Hizkuntzaren aldetik, errusia nagusitzen zitzaion suomierari. Bi hitzetan esateko, beraz: Finlandiarik gehienak, Sueziaren eragina zuen: hizkuntzaz, erlijioz (protestante), eta ekonomiaz; Karelian, beriz, Errusiaren eragina zen nagusi, hizkuntzaz eta erlijioz

«ortodoxo»; eta ekonomiaren aldetik atzeratuago zen. Horra hor Finlandiaren biketa laburzki bildua, zenbait puntutan gurearen antzekoa, beraz.

Hala ere, nahiz Finlandiako (edo Suomiko) hirietan suomiera oso galdua izan, egoera ez zen inoiz izan gure Bilbon edo Gastehizen bezin txarra, esate baterako. Hiririk «sueziar-tuenetan» beretan, heren bat gutxienez suomieraz mintzo zen, gure mende honen haseran Donostian bezelatsu, eman dezagun. Kaletar haiek, halere, eta esan dugunez, behereko sozial-mailakoak ziren. Ganivet-ek ederki esan zuen etxe dotoreetan suezieran entzuten zela, eta ganbaretan suomiera; baina dinamika guzia eta etorkizuna ganbaretakoek zituztela.

Beste puntu batetan dirudite elkar gure egoerak eta Finlandiakoak: hizkuntzaren aldetik suomitarrek ez zuten nora jo hizkera laguntza bila. Estoniako estoniera eta Laponiako artzainen mintzaira, suomiera baino ere ahulago ziren. Taldeko hizkuntza nagusia suomiera zen, hain zuzen. Hitz berriei dagokienez, suomitarrek eta guk buruhauste antzekoak ditugu: nora jo ez dugu (flamenkoek bai, gonbarazio batez).

Politikazko estrukturei dagokienez, bukatzeko, suomitarrek bi erresumaren menpean izanak ziren: aspaldian Sueziaren menpean, eta azkeneko mendean Errusiarenean. Gorago esan dudanez, geografiak parte bat izan zuen eraginen balantzan; eta Kareliako suomitarrek errusitartu ziren bezela, Botniako kolkoaren itsasertzekoak, sueziartu egin ziren.

1918-an askatasuna lortzean, Karelia ez zen Suomi libroan sartu. Kareliako errepublika sobietikoa sortu zen. Baina kareliarrek Suomira bildu nahi zuten. Stalinek problema eraztea erabaki zuen; eta URSS-en barrena sakabanatu zituen kareliarrak, beren ordezkariak errusiarrak bidaliz. Karelia, horretara, XIX-gn. mendean ohitura zaharren eta Suomiko folkloreakin gordailu, amaitu egin da.

Ikus dezagun orain, hitz gutxitan, zein izan ziren Finlandiako abertzaleen urratsak.

XIX-gn. mendeko hastapenetan, lehendabiziko soumizale belaun bat agertu zen, Arwidson-en inguruan. Politikari dagokionez, lehen belaun honek ez zuen bere burua jotzen ez sueziartzat, ez errusartzat; eta Suomi bere buruaren jabe

bihurtzea nahi zuen. Hizkuntzari dagokionez, suomieraren alde zeuden, eta sueziera arrotz zitzaien sendimenduz; baina, batetik, suomieraz mintzatzen ez zekitelako; eta, bestetik, sueieraz idatzi zituzten.

Bigarren belaunekoak, aldiz, XIX-gn. mendeko bigarren laurdenean ari, eginetara pasa behen zela erabaki zuten; eta bi aldetatik jo zuten:

1.—Suomiera beren mintzabide eginez (eta ez lakuetako baserritarren hizkera urrun eta ez-ezagun bat), kultura-hizkuntza egin behar zela sinisturik, lan gaitz bat egin zuen, Suomi-ko hizkera bilduz, aberastuz eta finkatuz. Perrot-en hitzez esateko: «(cette génération) a fait du finnois une langue du culture».

2.—Folkloře-bilduma haundi bat. Hauetan nagusi «Kalevala» poema (1835), Kareliako lakuetan bildua, eta Suomi zaharraren mito bihurtua.

Bigarren belaun honek laguntza txikia hartzen zuen herriaren aldetik. Adibide bakar aipatuko dut. «Kalevala» poema 500 aletan argitara zen, baina 14 urte behar izan ziren argitaraketa ahitzeko... Gaur, ordea, «Kalevala»ren agertzeak oso inportantzia haundia izan zuela nabarmen iruditzen zaigu.

Zenbait fetxa aipatuko dut hildo beretik:

1824: apaizek suomieraz jakin beharko zuten aurrerakoan hizkuntza galdurik ez zuten eskualdeetan.

1831: Suomi-ko Akademia sortu zen.

1841: lizeoetan suomiera ere erakats ahal izatea onhartu zuen legeak (ez suomieraz, suomiera baizik).

1851: Helsinkiko Unibertsidadean katadera bat sortu zen, aurrerakoan suomiera (ez suomieraz!) erakats ahal izateko.

1858: Kondairan lehenengo aldiz, dena suomieraz erakatsiko zuen lizeo bat sortu zen herri koskor batetan (Yiväskylä).

Bost pausu hauek, beraz, 34 urtetan egin ziren, eta herriaren hoztasun osoan. Politika-estrukturak eta administrazioa, era berean, errusiarrak ziren; eta hizkuntza nagusia sueziera, baita herri xehean ere urte horietan beretan aurreratzen ari. 1863-arte, hain zuzen, ez zen politika-liberalizatorik gertatu Finlandian.

Ordurarte Suomi-ko abertzaleak, nazio-kulturaren mailan saiatu ziren, kanporako politika-bultzadak gerorako utziaz.

Lehen abertzale partidua 1863-an sortu zen. Eta, hortik aurrera, bi mailatan eraman zen burruka; baina hizkuntza-pizkundera inoiz ahuldu gabe. Burruka horretan bat egin zuten sozial-demokratek eta suezieraz mintzo zen burgesiak. Hirietako marxistak abertzaleen kontra ari ziren, suomitar pizkunderan «chauvinismo burges-ttipia» besterik ez somatuz. (Deitura hau ez da nik neure buruz orain asmatua edo erantsia, mila aldiz Helsinkiko Parlamentuko ezker aldean entzuna baizik). Hizkuntza-burrukan, horretara, sueziartutako burgesiak eta «ezkertar» izeneko batzuk bat egin zuten.

Suezieraren eta suomieraren lege-paretasuna 1902-an lortu zen (hau da: Akademia sortu eta 71 urtetara). Ordurako, zer esanik ez, suomieraren pizkundera eta teknikako lana (alegia: idazkera, gramatika, hiztegia, dialektoen bateratzea, eta abar) burutua zen batez beste.

Estadistikek erakusten dutenez, suomieraren aurrekada, baita kaletarren artean ere, oso zen abiatua 1880 baino lehenago; eta 1918-an, askatasuna lortzean, partida irabazia zegoen. Hizkuntzaren garaitzapena sendotu egin zen gero, hiztegia osatu, eta abar. Patua aldatu ez.

Suomieraren gainbehera gelditua zen politika-aldakuntzak izan baino askoz ere lehenagotik.

TXEKOSLOBAKIAZ BI HITZ ORAIN

XIX-gn. mendean hiru hizkuntza erabiltzen ziren Txekoslovakian. Txekia aldean, Alemaniaren eta Austriaren eraginez, alemanera ari zen gora: burgesia eta kaletarrak alemaneraz mintzo ziren; eta herri xehea eslabo-dialektoak erabiltzen zituen. Eslovakia aldean, era berean, hungariera ari zen gora, eta eslabo dialektoak behera.

1809-tik 1848-ra arte, Metternich-en diktadura egon zen Vienako erresuman: erreakzioaren urteak ziren Europa guzian. Areago Viena-ko inperioan: erltoa, elizakeria, politzia, etnia guziekiko gorrotoa, azkartu egin ziren 39 urtez.

XIX'gn. mendeko parte horretan, beraz, ez zen politika-aldakuntzarik agiri ez Pragan ez Bratislavan.

Hizkuntza-pizkundera, ordea, hasia zen baserritarren ar-

teko apaizen artean. Urte haietakoak dira Txekiako eta Eslobakiako hizkuntza-aintzindariak: Aita Dobrovsky eta Aita Bernolak, biak— Txekian bata, esta Eslobakian bestea— hiztegi eta gramatikaren egile.

Nork bultzatzen zuen mogimendu hori? Inor ez ia-ia. Pragan, eta hiri nagusietan, txekiera ez zen entzuten. Parla-mentoan folklore hutsa zen txekiera. Administraziotik erauzia zen.

Giro hartan hasi ziren lanean «buditelé» izenekoak («argitzaile» euskeraz); «argitzaile»: zeren-eta erakaskintzatik eta bizieratik bazterturik zeuden nazio-kultura, eta nazio-hizkuntza bereziki. argitara ekartzen bait zituzten. «Argitzaile» haiek ez ziren ez hiritako burges, ez industriatako langile; eta bidezkoa da, kalean txekoslobakiera mintzatua ez zelako. «Argitzaile» horiek baserrietako eta herri txiekietako seme ziren; eta askotan ere eliza-gizon. Teatroaren bidez, folkloretaldeak sortuz, liburuak ugalduz eta zabalduz, herrietan ikas-taldeak antolatuz (izkutuak, noski), modu guztietara hitz batez, txekoslobakiar gogoia piztu zuten. Txekoslobakiako kondaira bilatu eta azaldu zuten, hizkuntza erakatsi eta erabili zuten, eta nazio-kultura zuzperatu. Egiatzki, beraz: «argi» egin zuten Txekoslobakiako adimendu kamustuetan.

Xehetasun bat: Palackyk zuzendu zituen kondaira-bilaketak. Eta 1836-an, alemaneraz eman zuen argitara lehen-dabiziko liburua, txekieraz jende gutxik irakur zezan bildur... Ondokoak ez: txekieraz idatzi zituen.

Gorago esan dudanez, Praga Viena-ren menpean bizi zen, eta Bratislava Budapest-en menpean. Austria eta Hungria ez ziren gauza bat. Hein batez bederen, Txekiak Austria zuen etsai, eta Eslobakiak Hungria. Hau dela bide, Txekiako abertzaleek beren barrutiko dialektoen arteko batasuna egin zuten; eta, era berean, beren hizkuntza-batasun berezia egin zuten eslobakiarrek. Pizkundera gidatzen zutenak, berriz diot, apaizak ziren askotan: protestanteak Txekian, katolikoak Eslobakian. Abilki baliatu eta akuilatu zuten diferentzia hau Txekoslobakiaren askatasunaren etsaiek; eta, 1846-an, eslobakiar ultrek, «Praga-ko lutertarren bildur» omen, Pragakoekin haustea erabaki zuten. Geroztik, nahiz hizkuntza-desberdintasuna oso txikia izan, bi lege-hizkuntza daude

Txekoslovakian, eta ez bat: txekiera eta eslovakiera.

Nork egin zuen ezina batasun hori? Kondaira-egileak ados bide dira: Eslovakia-ko integristek. Hizkuntza-arrazoi-rik ez zegoen. Haundiagoak dira arabitar herrien arteko diferentziak; eta, hala ere, arabiera klasikoa erakasten da eskoletan. Hots, arabiera klasiko hori oso urrun dago gaur-ko arabitar dialektuetatik.

1848-ko gertaerek Europa guzira astintzean, Txekoslovakian ere politikazko ekintza bat aurrera eramateko garaia etorri zen. Palackyk berak, eta hanartean kulturak arduratutako gizonek, politika-estrukturan aldakuntza bat eskuragarri somatu zuten, eta politika-ekintzara igaro ziren. Liberal-aldia laburra izan zen oso. ordea; eta gizon horiek berak, politika-bideak berriz hitxita ikusi bezin laister, «argitzaile» lanari ekitera pasa ziren berriro. (Palackyk berak, esate baterako).

Finlandian bezela (Finlandian baino areago, hobeki esateko) industria sortzean, nazio-burruka eta klase-burruka elkarri erantsi zitzaizkion. Txekiako burgesia alemana zen hizkuntzaz; eta industri eskualdeak alemanez oraturik jaio ziren. Klase-zapalketa ikaragarri gogorra izan zen. Marxistek (eta Marxek berak) Txekoslovakia-ko nazio-eskubideak ukatu zituzten, abertzaletasuna eta sozialismoa elkarren ukaizaile gisa aurkeztuz.

Viena-k ez zuen besterik behar; eta bere inperialismoari eusteko, klase-burruka hori azkartu zuen, abertzaleei indarra kentzekotan; eta Prokes istorilariak garbi azaldu duenez, Viena-ko gobernuak «ezkerkeria»-ren jokia egin zuen; eta, hau dio: «garai batez, klase interesak nazio-arazoari nagusitiko zitzaizkiola sinistu zuen».

Ez zen balere hori gertatu; eta 1918-an Txekoslovakia libro zen.

ISRAEL-EZ BI HITZ

Esan ditzagun orain bi hitz hebreoaren pizkundeaz.

Israeldarren hizkera, jakina denez, hizkuntza hila zen: ez zuen aspaldi hartan inork hitzegiten. Sinagogetan erabiltzen zen soilik (gure artean elizetan latinera erabiltzen den modura); eta alderdi horretatik ezagutzen zuten teoriak zenbait juduk. Juduek, halere, munduan zehar sakabanatu-

rik, nork bere bizilekuko mintzaira hitzegiten zuen. Talde-rik haundienak Europan «jiddish»ez hitzegiten zuen («jiddish» hau ez da aleman-dialekto arkaiko bat baizik, juduek atxikia). Judutar miloi batzuk mintzo ziren jiddishez, inor ez aldiz hebreoz. Nork zuen denborarik eta gogorik aspaldiko hebreoa ikasteko.

Bistan da: ez langileek. Burgesek ikasi zuten. Langile apalek «jiddish» ikasten zuten jaiotetxean, eta kitto. XIX-gn. mendean, horretara, Ben Yehudak hebreo edo judueraren pizkundea proposatu zuenean, erotzat jo zuten ia denek.

Are gehiago: juduera elizaren mintzaira izanik judutarren artean bi talde sortu ziren: batean beren burua «aurre-razale»tzat jotzen zutenak (fedegabeak, anti-burgesak), eta bestean intelektualak eta Israelen pizkundea nahi zutenak (nazio-alienazio mota guzien etsai hauek). Itxuraz, beraz, ezkertarrak (ezkerkoiak hobe), judueraren kontra jarri ziren. Eta Memmi juduaren hitzez esateko, beste taldean lehen liberazioa nazio-liberazioa dela uste zutenak.

Gogorra izan zen eztabaida. Txekoslovakian Gordon Schauer-ek hau galdetu zuen behin: «zergatik ez geure hizkuntza ahaztuko, eta alemanera hartuko?». Juduen artean, galdera bera egiten zuten ezkerkoiek: «zergatik hebreoz mintzatuko?». Ezkerkoiaren intelektualek kondairara jo zuten argudio bila; eta aurkitu ere egin zituzten. Erakutsi zuten, Abrahamek akadieraz hitzegiten zuen; bigarren tenploaldian arameeraz mintzo zen Israel (Jesukristo ere gauza bera, fama denez).

Argudio hauek guziak ez ziren aski izan: Israelek bere hizkuntza piztutzea erabakirik zeukan. Intelektualen artean, Errusian batez ere 1860-ez geroztik, liburu sakratuetatik bildutako esakuntza motxen bidez, juduera mintzabide gisa erabiltzen hasia izan zen. Gero ere Palestinara judu-herria aldatzen hasi zenean (orain dela 80 bat urte, beraz) judueraz mintzatu beharra finkatua eta sustraitua zegoen judutarren izpirituetan. Gaizki baino gaizkiago moldatzen ziren: esakera desberdinak, hiztegiaren arkaismoa («pospolo» nola esan ez zekiten, esate baterako), hitzen urria, batasunik eza, nahi den guzia, kontra zuten. Eutsi egin zioten halere asmoari, eta piskanaka juduera piztuaz joan zen.

1888-an sortu zuen Ben Yehudak hebreoz erakatsi duen

lehendabiziko eskola; eta 1890-ean «Judueraren Batzordea». Honek problema guzi-guziak eta oposizio-mota guziak gaindituz, eutsi egin zion bere eginkizunari: 1901-ean, Basileako Biltzar Nagusian, erabaki bat hartu zuten judutarrek: nazio-hizkuntza piztutzea. Amets bat gehienen ustez. Baina aberztaleek hau erantzuten zuten: «Hizkuntza gabe gure herria abstrakzio bat da, eta ebakia dago gure nazio-tradizio mota guzietatik. Hizkuntza gabe gure herria ez da herri bat, eta ez da inoiz izango».

Askatasuna lortu arte 47 urte pasako ziren...

1930 aldean (40 urtez gogor lanegin ondoren, beraz) juduera mintzatuaren oinharriak jarririk zeuden; eta hizkuntzaren batasuna eta bizitasuna oso aurreratuak. 1948 baino askoz lehenago, hortaz, hizkuntzaren pizkundea arras abiatua zen.

Politika-mailan egindako burruka, berriz ere, hizkuntzaren piztearen **ondotik** etorri zen. Ez lehenago. Hizkuntza-pizkundea ez zuen politika-as^latasunak ekarri; alderantziz baizik.

Azken puntu bat. Hizkuntzaren batasuna egin zenean, ez ziren denak ados, eta ez gutxiagorik ere. Batzordeek, halere, ez zuten atzera egin. Ameriketako judutarren koloniek ez dute oraindik amor eman; eta Israelgo hizkuntza ofizialaren kontra daude, batasuna gaizki egin zela sinistuta...

Herriak ordea hizkuntza batu hori erabiltzen du; eta Israele^l ba du behar zuen mintzabidea.

ZENBAIT ONDORIO

Filosofia haunditan sartu gabe, lege nabarmen batzuk agertzen bide zaizkigu hiru kaso horietan:

1) Hizkuntzaren pizkundea, politika estrukturen aldatetaren aurretik etortzen da.

Politika-burrukaren arrakastak, hizkuntza-pizkundea du oinharri; eta ez alderantziz. Gaur, beraz, gure betebeharririk premiatsuenetako bat, euskeraren aldeko lana da.

Ez ditut inolaz ere kondenatzen, politika-mailan egiten den, eta egin behar den burruka, legetasuna gure eskubideen alde jarri arte. Aitzitik, lan hori neure bihotz osoaz txalotzen dut. Baina aldakuntza hauek ekonomi-oinharri batzuk behar dituzten bezela, hizkuntza-oinharri bat ere behar dute.

2) Helburu beti berbera izan arren, bultzadek egoeraren arabera izan behar dute.

Ez tema baten ondorio. Politikazko estruktura-aldakuntzak gaur-gaurkoz ezinak diruditelarik (Hegoaldean 34 urte pasa ditugu zai) dudarik gabe iruditzen zait, gaurko gure eginkizuna barneko ereintza dela, eta «herri-esnaera» dei ditekela. Kanpoko agintaritzak behartzen hasi baino lehenago, geure burua gotortu behar dugu. Txekoslovakian «buditelé» haien garaia da gurea: alegia, gure herrian «argi-egin». Gaur ez da kanpoko hartu-emanetarako aroa; ereintza-aroa, esnaera-aroa eta hizkuntza-aroa baizik. Matematikariak bezela hitzegiteko, aldatu egin behar da ondoko frakzioa:

euskaldun nahiaren indarra

kanpoko erresumen ukaeran indarra

Numeradorea gure eskuetan dago. Denominadorea ez. Frakzio hori, ene ustez, txikia da, bai Iparraldean eta bai Hegoaldean, arrazoin diferenterengatik.

Denominadoreari buruz itxaropenik ez dagoenean, numeradorea behar da azkartu.

3) Askatasuna izanagatik ere, gramatika soil batek ez du deusik konponduko.

Gure arteko batek hau esan omen zuen behin: «Une fois que nous aurons l'indépendance politique, donnez-moi une grammaire, et je ferai le reste». Hori zozokeria bat da! Kondairak besterik erakusten du. Berriz diot: politika-askatasuna ez dela hizkuntza-pizkundearen ama, hizkuntza-pizkundearen **alaba** baizik. Hau garbi agertzen da, itzuletara, herrien beherakoan: lehenago galtzen da askatasuna hizkuntza baino. Bidezkoa da beraz, alderantziz, herrien gorakoan ere, lehenago hizkuntza irabaztea, askatasuna baino. Txekoslovakian, Israelen, Quebecen, hori ageri da. Irlandan ez; baina zertara diren ba dakizue.

4) Herri guzietako ezkerkoiez (ez bait ditut «ezkertar» deitu nahi) nazio-hizkuntzaren kontra jokatu izan dute. Egin-kizun horretan «chauvinisme petit bourgeois» besterik ez ikusiz.

Gure artean, beraz, erdaldun ezkerkoiek hori bera esatea normala da. Baina, kasu: guk zernahi esanagatik ere,

horixe esango dute beti ezkerkoiek; baita askatasunaren ondoren ere, Finlandian ikusi den bezela. Bestetik ere, herri-tartasunik gabeko liberatzaile «abstrakto» horiek, ezkerkoiek alegia, beti galdu izan dute partida. Beraz, halakoak gugana bildu nahiz, gure euskaltasuna freinatzeak, ez du sentidurik: geronen indarra txikitzeko bestetarako ez du balio. Nazio-zuzpertzetan nazio-zapalketari buruz banatzen dira indarrak azkenean. Hori dela-ta, hizkuntzari buruzko jokabideak ipintzen ditu denen arteko mugak; hizkuntza bait da nazioaren arima eta guna.

5) Politikazko bideak hitxita egon direnean, bertako abertzaleek (baita beste egoeratan kanpo-politika lanetan murgiltzen zirenek berek) hizkuntza, kondaira, eta nazio-jakintzako lanak bultzatu izan dituzte.

Lehen aipatu dudan frakzioa kontutan hartuta, denominadorea txikitzerik ez dagoenean numeradorea behar da azkartu, nazio-kultura nazio-hizkuntza eta nazio-nahia haundituz. Katalanek ez dute besterik egin. Eta 1931-ean gu baino aurrerago joan ziren bezela, berriz ere, eta maila guzietan, gu baino aurrerago joango direla uste dut. Zeren-eta Catalunya, estruktura-aldaketak baino lehenago ere nazio-gisa jokatzeko bait du: ez espantuka, baina bai funtsean eta sakonean.

Cataluya hor dago. Euskal Herria, ordea, nun den ez dugu ongi ikusten.

6) Herri-pizkunde guzietan, lehendabiziko abertzale belauna, hizkuntza arrotzaz baliatzen da. Bigarrena, aldiz, nazio-hizkuntzaz

Etorkizunari buruz, hortaz, bertako hizkuntza ez da kien belauna, atzeraturik gelditzen da laister; eta gelditze hori da hain zuzen aurrerapenen termometro on bat. Erdaldun abertzaleak, jaun andereok, beste herri-pizkundearen argitan, atzean utzi behar dugun belauneko lagun dira. Eta abilki «praxis individual» eta «praxis colectiva» berezi arren, jcana den (eta beharrik joana!) lehendabiziko belaun horren aztarna besterik ez dira. Bigarren belaunak, eta ondorengoak, nazio-hizkuntza darabil nun-nahi; hizkuntza-imperialismoaz eta garrantziak ongi jabetu ondoren, herriaren branka izanez.

Gauza hauek esatea ez da gure artean begi onez hartu

ohi. Gure herria oso arlotea da oraindik, eta kulturaren gauzek ez dute batere izen onik. Karlismoaren esperientziak uste dugun baino sakonkiago ikutu gaitu; eta Madrillen zai gaude behin eta berriz, gure aukera KANPO-ALDEKO ALDAKUNTZETAN balego bezela.

Europako Kondairak erakasten duenez, ordea, gure etorkizuna GERONEN BURUAN ERE BA DAGO. Orain, Txekoslovakian Metternich-en garaian bezela. geure «buditelé» asko behar dugu, herriz herri gure jendea argitzen ari. Kontzientzia-esnaera eta hizkuntza: horra hor emankizuna. «Argitzapen» lan hau, noski, kultura-lan ba da funtsean. Ez kultura abstraktoa, nazio-kultura baizik, euskaldun kultura alegia.

Kanpoko kondairaren argitan, beraz, gaur (eta orain dela 20 urte gutxienez) gure lanik emankorrena eta bidezkoena ez da egonean egotekoa, politika-estrakturak aldatu zai. GAUR, ETA ORAIN DELA HOGEI BAT URTE GAUZA BERA, GURE LAN NAGUSIA NAZIO-KULTURA, ETA HIZKUNTZA BEREZIKI, ZABALTZEKO DA. Politika abstraktoak eta atzerriko sasi-politikeria, aldiz, egin behar ez duguna da hain zuzen. Gaurko egunak etxe-barneko ereintza-egunak dira; eta ez inportazio-aroak.

HIZKUNTZAREN ALDEKO EGINKIZUNA

Baionako aste honetan kultura-gaiak bereziki aztertzea erabaki denez gero, abertzale ereintza alde batera utziko dut; guttiz beharrezkoa dela argi-eta-garbi esan ondoren halere.

Hizkuntzaren aldetik lau eginkizun nagusi ikusi uste ditut nik gure honetan:

1) Ikastolak.

Zalantzarik gabe esan ditekeala uste dut, azken urteotako lanik inportanteenetako bat ikastolen bidez egiten ari dela. Ba dakit, eta ba dakigu denok, ikastola horietan akats asko dagoela. Euskeraren egoera eta mugak ongi ezagutzen ditugunok, inork baino hobeki neurtzen dugu, nik uste, andereñoen lana zein den zaila, eta merezimendua zein duten haundia. Orain dela urte batzuk, ikastola horiek «burgesak» zirela esan zen, eta goitik behera desegin behar zirela. Orain, entzun edo irakur ditekeanez, «gorriegi» direla diote batzuk, eta «zuriegi» direla besteek. Noizko gogorkeria horiek ERDILDUN ESKOLEKIKO?

Bihotz bihoitzez txalotu nahi ditut nik hemen andereño guziak, gure erakastea bait da hain zuzen, eta ez inportazio-ko eskematan usteltzea. Gauza bat da zaharra eta kiratsa Euskal Herrian: eskubi aldetik eta ezker aldetik gure hizkuntzaren kontra egiten den lana!

On litzake andereñoen hezikera ontzea. Dudarik gabe. Beharrezkoa da, hitz kontuan eta liburu kontuan, askoz aurrerago joatea. Dudarik ez. Bata eta bestea, ordea, andereño ez garenon eskuetan dago. Bete dezagun guk geure betebeharra, berek berena bezain ongi; eta kritikatzten has-teko aitzekia eta eskubidea izango dugu.

Laguntza guzia, beraz, andereñoei; andereñoen eskue-tan bait dago hein batetan Euskal Herriaren etorkizuna.

2) **Bigarren mailako Lizeoak.**

Ikastolei buruz esan dudan guzia, berriz esan nezake I izeoei buruz; eta areago. Lizeoetan eragozpen guziak haun-diago direlako. Hemen ere ba dugu euskaltzaleok zertan lagundurik.

3) **Alfabetakuntza-lanak.**

Gutziz ere lan beharrezkoa eta txalogarria hau.

4) **Euskeraren beraren prestaera.**

Hiruen oinharrian, ordea, ba dago lan itsusi, aspergarri eta zail bat: EUSKERAREN PRESTAERA. Euskera ez bait dago gertu kultura-tresna izateko, ez lizeoetan ikas-tresna izateko, ezta ikasleolan beretan ere batzutan.

Lehen-lehen eginkizuna, **gutziz presakoa** (eta ez piskanaka konpontzeko modukoa) EUSKERAREN BATASUNA-RENA DA.

Batasunik gabe ezin da ezer egin. Euskerak ez badu euskaldunek elkar ulertzeko eta kultura irits ahal izateko balio, zertarako nahi dugu? Ez bide gara gauza arloteriatik irtetzeko. Euskera euskaldunen zerbitzutan jarri behar du-gu. Eta zerbitzari eta kultura-tresna izan dakigun, lehen-lehen puntua, euskera elkar konprenitzeko eta kultura jasotzeko bidea izatea da.

Hots, euskalkietatik euskerara pasa arte, euskerak ez du balio ez elkar ulertzeko, eta ez kultura-bide izateko.

Gipuzkoan 7.100 haur ditugula esan digu Lasa kalon-jeak, Bizkaian 3.300 ikasle, eta Nafarroan eta Araban 1.000 bat. Alfabetakuntza-lanetan ari da jendea alfabetatzen. Zer

irakurriko dute gizajo horiek? Zer pentsatuko dute euskerari buruz, elkar nekez ulertzen badute? Irratia edo antzerkia nekez aditzen baldin badituzte?

Jaun-andereok: irudimena falta bide dugu. Euskaldunok euskera bakar bat behar dugu: gero politika-estrukturak aldatzean, euskera bakar hori estruktura horietan lege-hizkera izan dedin.

Edozein herritan hizkuntza bakar bat idazten da; hizkuntza bakar bat erabiltzen liburuetan, prentsan, administrazioan, telebistan. Edozein herritan, nik dakidalarik, hizkuntza bakar bat erabiltzen da eskoletan. Entzun dugunez, batzuk besterik uste bide dute.

Baina hiru ohar egingo dizkiet horiei:

1) Biarnon edo Piccardie-n, egia ote da frantsesa baino lehenago bertako dialektua baliatzen denik?

2) Andaluzian, egia ote da españera baino lehenago haurrek Andaluziako dialektuen bidez ikasten dutenik?

3) Flandesen, egia ote da nederlandera baino lehenago bertako dialektua baliatzen denik?

Ez dut inoiz horrelakorik entzun.

Era berean, oker ez banago, Walonian frantsesa erakasten da zuzenean, walonieratik pasa gabe; eta Tunizian arabea (arabe klasikoa!) zuzenki ere.

Zergatik ez gurean? Edozein herritan, hitz batez, gauza bat da folklorea, eta beste gauza bat hizkuntza: folklorea aspaldiko denboren lekukoa da, HIZKUNTZA ORAINAREN TRESNA.

Harrigarria da, beraz, azkeneko hilabeteetan gertatzen ari den fenomeno. Alegia: euskera folklore-jazkera gisa erabiltzetik ateratzen jakin ez dutenek, eman diren pausu guziak (Baionakoak, Arantzazukoak berak) kondentzen dituztela. Eta erderaz kondentatu! Zer proposatzen digute egingdakoaren orde? Egonean egotea. Politikan egonean egotea orain dela 34 urte proposatzen diguten bezela.

Beharrik iritzi geldikoi guziak alde batera utziko dira, ene ustez; eta gure herria, gure gazteria eta intelektualak batez ere, bururaino joango dira euskeraren batasunean eta prestaeran. Mitxelena hartu dugu buru; eta haren gidaritzapean egin ditekian lanik egokiena egingo dugula iruditzen zaigu.

Arantzuzako erabakiei eta Mitxelenari, beraz, «bai» guztizko bat.

BI HITZ BUKATZEKO

Hizkuntza ez da, besterik gabe, helburu oso bat. Eta guk, nik neuk, itxura denez, absolutu bat bihurtzen dugu hizkuntza. Zer da hontradizio hau?

Berriz ere, kanpoko koindaira argi-iturri izan dakiguke. Txekoslovakian, Finlandian, Israelen, belaun pare bat (edo gehiago) arduratu zen, bete-betean, hizkuntzaren pretaeraz. Gisakoa da, beraz, urte hauetan guk euskeraren pretaeraz arduratzea.

Baina, lehenago ere esana dago hau, hizkuntza gure herriaren zerbitzutan behar da. Alegia: hizkuntzak ez du izan behar euskaldunentzako trababide bat, edo-ta kulturarekiko hesi dat; **ELKARREKIKO MINTZABIDE ETA KULTURA-LOKARRI BAT BAIZIK.**

Hitz batez, hortaz, euskera gure herriaren zerbitzari izatea, euskal literaturaren izanean datza. Gure batasun-gintzan, gramatika-gintzan e.a hiztegi-gintzan ari garen artean, euskaldun jendeari traba zaio euskera (eta ez dezagun ahantz legearen aldetik ere traba zaiola eta, kondairak erakusten duenez, zenbait urtez bederen izango ere zaiola). Euskeraren pretaerak eta batasunak presa haundia dute. Egiten ari den lana geldiarazten saiatzen direnek, euskeraren etsaien joko-a egiten dute.

Euskera ahalik eta laisterrenik (ikastoletan hamabi mila haur ditugu, literatura mamitsu baten egarri!) baliagarri izatea, guztiz beharrezkoa da. Israelek bi mila liburu urtean argitaratzen dituelarik, guk ehun gutxienez behar ditugu; eta urte gutxi barru. Eta ez nolanhiko istorioak, ez. Euskaldunok ez gara Harri-Aroko leinu analfabeto bat, 1970-eko europar herri bat baizik. Euskal literaturak eta euskal prentsak, Noruegakoak, Dinamarkakoak edo Holandakoak bezelaxe, gaurko kezken argitzaile izan behar du, eta ez zozokeria-putzu bat. Era berean: pentsamentu-barritu bat izan behar du, eta ez dialektologia-bazter bat.

Zerbait aldatu da honetzaz. Egia da. Baina oraindik ere euskeraz idazten eta proposatzen diren gauzak, lotsagarriak dira askotan. Gu ohitu egin gara poxi bat (gu, alegia, berro-

gei urte edo gehiago dugunok). Baina gazteriak, ikastoletatik igaro den gazteri jator horrek, farre egiten du eta digu, eta ez du ulertu ere egiten arloteriak, xinglekeriak eta onomatopeia-keriak nola proposa ditezkean oraindik ere gure artean literatura-gisa.

Pragako gertaera hitsek isilarazi duten Milan Kunderaren iritzia aipatuko dut bukatzeko: «Les petites nations ne peuvent défendre leur langue et leur identité nationale, que par l'importance de leur création culturelle et des valeurs irremplaçables qui y sont affirmées... Rien n'est plus important pour notre communauté nationale que de prendre conscience pleinement de l'importance vitale de sa culture et de sa littérature». Horrela mintzo zen Pragako Udaberri famatu hartako aintzindari hau.

Eta hau ere zion: «Du niveau de la littérature tchèque, de sa grandeur ou de sa médiocrité, de son audace ou de sa lâcheté, de son provincialisme ou de son universalisme, dépend dans une grande mesure la réponse à cette question vitale: l'existence de la nation tchèque, de la langue tchèque, se justifie-t-elle?».

Pragako abertzaleek «bai» erantzun zuten. Eta guk Baionan, eta Euskal Herri guzian, «bai» erantzun dugu. Eta ongi da. Ba zen garaia!

Baina gure erabakia gure herriaren onetan izan dedin, aurrera jo behar dugu. Ez poliki, ez presarik gabe. Azkar! Oso azkar! Ahalik eta azkarrenik hain zuzen! Gure literatura eta gure hizkuntza urruti bait daude oraindik, guztiz urruti, gure herriaren zerbitzari izatetik.

Zentzuz, beraz, bai; ez funtsik gabe. Baina aurrera. Aurrera bildurrik gabe!

(1970)

DIGLOSIA ETA ELEBITASUNA

Bi izkribu argitsu

Bestetan ere hementxe idatzi izan dudanez, denen politika-lelo bihurtu bide da gaur hitz hau: «bilinguismo».

Hitz honek berak, ordea, oso asmo eta ondorio desberdinei buruz erabil daiteke; eta osotara asmo eta ondorio aurkakoak lortzekotan erabiltzen da gaur Euskal Herrian. «Bilinguismo» erdal hitza, horrela, areago da egiaren izkutabide, argibide baino.

Itxuren azpian datzan nahaspila salatu eta agerrerazi nahiz artikulu batzu ikusi dira azken bolada honetan. Luis M. Muxikak, Xabier Mendigurenek, artikulu honetxeren egi-leak berak ere, zerbait argitara dute gai funtsezko honi buruz. Eta agian («agian ba!» ipartarrek dioten bezala) nahaskerien funtsa ulertzen hasiak gara.

Sail honetan ere, ohi bezala, aurretik doazkigu katalandarrak; eta Vallverdú-ren liburua aipatua dugun bezalaxe, Badia Margarit-en lanak, eta Ninyoles-en liburuak batez ere, aipa genitzake. «Idioma y poder social» bide da denetan onena (Edit. Tecnos, Madrid, 1972).

Okerrena, ordea, ez da hori; euskaldunek berek gai honi buruz argitara eman dituzten izkribu bakanak ere gure arte-

ko gutxik ezagutzen dituela baizik. Batasunik ezaz, euskal unibertsitaterik ezaz ere bai, betiko desordenu agorrean ari gara euskaldunok; elkarren berri eta laguntza izan beharrean, nor bere aldetik bakarka.

Hau dela-ta, bi izkriburen berri eman nahi nuke gaur hemen:

1/ «Txepetx»-en «Bilingüismo, Disglosia, Contacto de Lenguas» deritzana (Anuario de Filología Julio de Urquijo, 1974, 3-79 orr.).

2/ María José Azurmendi-ren «Algunos aspectos sociolingüísticos del bilingüismo» (Donostia-ko EUTG-ak argitaratzen duen «Mundaiz» aldizkarian. 5. zenbakian, 1-7 orr., 1976)

Bi lan hauk, mamiaren mailaz eta beren luzeraz ere berdin, oso desberdinak dira.

Sánchez Carrión irakaslearena («Txepetx» hori Nafarroako euskararen egoeraz inkesta ezagunaren egile berbera baita) oso lan jakintsua eta jantzia da.

Nafarroako hizkuntz-egoeraz edo Alaska-ko eskimale naz ematen dituen adibideak ikusita, jakinduriaz gain, «Txepetx»-en barne-joera zein den argi eta garbi nabarmentzen da: Granada-ko irakaslea, gu bezalaxe, glotofagia eta etnozidio mota guztien kontra dago arrunt; eta euskararen zampaketak eta galtzoriak minberatuta daukate, gu bezalaxe. «Txepetx»-en iritziak, horretara, diglosiaz eta gure egoeraz, euskaltzale porrokatu baten irizpideak dira; maitagunez eta euskeraren alde jokatzekotan oratuak.

Errazkeriarik gabe azaltzen dizkigu «Txepetx»-ek hiztegia eta funtsean soziologiariek oraindik ere beren artean dituzten liferentziak eta kalapitak; eta, egia zerbitzatu nahi horretan, arazoaren ikuspegi zaila presentatzen digu. «Txepetx»-en izkribua, beraz, dakarren bibliografiarengatik, aipatzen dituen adibide argitsu eta ugariengatik, zalantzarik gabe jakin-minen zutzagarri eta aberaskarri gerta badaiteke ere, zailegi ere gerta dakioke beharbada irakurle askori.

Errazago, baina alderdi askotatik irmoago eta argitsua ere bai bere laburrean, Maria Jose Azurmendi-rena: tamalgaria litzateke benetan lan hau lau espezialistaren artean ahantzirik gelditzea eta galtzea.

Antigutar hizkuntzalari gazte bipilak arreta guztia merezi du; batez ere EUTG-ko euskaldun irakasleak bere tesia diglosiaz eta hizkuntza-burrukez prestatzen duela jakinda.

Maria Jose Azurmendik apalki azaltzen duenez, ez du Rafael Luis Ninyoles katalandarraren azalpena eman nahi baizik. Piztu ere egin nahi luke «Mundaiz» aldizkariaren irakurleengan gai hauei buruzko jakin-mina; «proponiéndome con este artículo el promover por lo menos la curiosidad intelectual por estos temas, o quizá también el interés por ellos».

Orrialde argitsu eta trinkotan barrena, Maria Jose Azurmendik «bilinguismo» politika-leloaren barne ideologia izkutu isila salatzen du; diglosi-egoeren egiazko zapalketa-muina eta irtenbidea argiro erakutsi. Urrun uzten gaitu M. J. Azurmendik modako lelokerietatik! Euskal Herrian dagoen diglosia zertaratzen ari den garbi dago, dio idazleak, gure kasoa ez baita inondik ere munduan ezezaguna; eta konponbideak ez baitira teori-mailan eztabaidatu behar diren horietakoa, kondaira-praxiak frogatu diren konponbideak erabiltzeko aukerarik izango dugun ala ez.

Ninyoles-en hitz aproposa bere eginez, Euskal Herrian gaur gerta daitezken bi «normalketak» erakusten ditu garbiki, istilurik eta tirabirarik gabeko «bilingüismo equilibrado» delakoaren ipuina eta gezurra ausarki eta guztiz bidez salatuz.

Artikulua, benetan, ezin daiteke labur. Irakurri eta go-goan hartu behar da bere trinko eta osoan; eta Ninyoles-en liburuak aztertu ere bai, jakina.

Agian eskainiko digu besterik M. J. Azurmendik! Ezen irakurri dugun izkribu labur honek segidaren gosea piztu baitu gugan.

(1976)

AURKIBIDEA

Bi Hitz (Torrealdai)	5
EUSKAL ZANTZU BILA	9
Txillardegi-rekin Solasean	11
Donostia ta Antigua 1829-ean	17
«Orixe»	25
Zuberoa heriotzaruntz	41
Urre-eztaiak Landan	45
Termes-ko dorrean pentsakor	49
Joxe Azurmendi	53
Idaho-ko euskaldunekin	59
Garazi-n gairi	65
Barkoxetik	69
Ongi-etorria Ozkabarte-ri	75
Azterketa bildurgarri bat Lapurdiri buruz	79
Azurmendi Rikardoz mintzo	83
Jon Mirande Aiphasorhoko	87
Antigua amets	91
Aierbetik Biarnora	95
Eustakioren oroitzapenetan	101
Idaho	105

Getharian halako batez	111
Lou Prouclam de Siros	117
Erriojaz berriro ere	121
Agur etsia Altzürükün	127
Narbaiz Baionan mintzo	131
Sarralzune	135
Jean Pierre Seiliez-ekin hitzegiten	141
Ixaka hil da	149
Akitania-ko triangelua	151
Kanboar bat hil da	155
Ultra-navarristei gutun ageria	159
EUSKARAREN ARAZOAK	163
Karta idigia	165
Batasunerako bidea	171
Leporaino!	195
Xabier Kintana	199
«Eibartarra»ri gutun agiria	205
Bide bat behar	211
Txalo jo behar	217
Andolin Eguzkitzari erantzunez	221
Oso zaila omen	227
«Mitzelenaren idazlan hautatuak»	231
Ikastoletako ultrak	235
Matematika eta erderomanoak	239
René Lafon hil da	245
Euskaltzaleei mintzo	251
Euskal Herriko elebitasuna	257
Xahakotar bat mintzo	267
ETNI-ARAZOAK	271
Arguedas, Blanco, De la Puente	273
Turkia-ko Kurdotarrak	277
Liburu bat Gales-i buruz	283
Ballymun	289

Deihadar bat Letoniatik	295
Liburu irakurgarri bat	299
Mairtin O Cadhain	305
Galestarrak aurrerantz	311
Guy Héraud	317
Aosta gero eta italiarrago	321
Gales-ko Zenbakiak argi?	325
Usterik gabeko elkarrizketa bat	329
Ipar-Irlandaz zenbait berri	333
Bourassa Parisen	337
Beninguts a Andorra	341
Zertan ote dira armeniarak?	345
Irlanda-ri ez-ikusia	349
Idazleen gorabeherak Cymru-n	353
Connolly eta euskal ezkerria	357
Kortzega berriz aipu	363
Montreal-dik Iruña-ra	365
Algeriako bereberetarrak	369
Tuniziaren arabikuntza	373
Eire eta euskal elebitasuna	375
Irlanda-ko berri	379
Cymru/Gales	381
Joxe Azurmendi eta gaelikoaren arazoa	387
Etnozidio eta demokrazia	391
Zer gertatzen ote da han?	395
Berriatua Israeldik bihurtu	399
HIZKUNTZA, PENTSAKERA, DIGLOSIA	403
1.—Hizkuntza eta Pentsakera	405
2.—Hizkuntza eta Herri-kidetasuna	433
3.—Hizkuntza eta Erresuma	449
4.—Hizkuntza, gizonaren zerbitzuko	467
Euskararen arazoa beste hizkuntza-pizkunderen argitan ...	479
Diglosia eta Elebitasuna	495